Se crea el pórtico en la zona sur de la iglesia adosándose tanto a la obra de la antigua espadaña como a la obra de la sacristía. Realizado en mampostería con el esquinal suroccidental en sillería, se abren dos ventanas hechas en sillería a ambos lados del acceso. En el interior la zona oriental está separada creándose un espacio que en la actualidad es utilizado como almacén. En relación con la obra del pórtico también está la apertura de una ventana en el muro sur de la sacristía, de parecidas características a las existentes en el pórtico.

Otras de las obras que se realizan en este momento son la creación de un osario en la zona norte de la iglesia, adosado a la cabecera y a los muros de la capilla, y la ubicación del retablo mayor que se compra y se dispone en el altar a mediados del siglo xviii.

Respecto a la cronología, afortunadamente las fuentes documentales tienen referencias de todas las actividades realizadas en la iglesia en esta fase, evidencias que han sido corroboradas por el estudio arqueológico, lo que ha permitido enmarcarlas en la segunda mitad del siglo xviii.

6. aldia. XIX. eta XX. mendeak

Azken aldi honetan tenplu osoan banatutako lanak egin zituzten.

Barruko aldean iparraldeko kaperako erretaula ipini zuten, kronologikoki XIX. mendekoa, baina gordezten duen kalbarioa XV. mendekoa izan liteke. Mendebaldean korua berritu zuten, harrizko horma baten gainean bermatuko zen, eta adreiluz egindako arku beheratu bat ireki zuten. Hiru ur bedeinkatu ontzi jarri eta horma hobi bi ireki zituzten. Bukatzeko, elizaren hormak zarpia batez estali zuten burualdean eta koruaren azpiko aldean izan ezik.

Kanpoko aldean azkenekoz berritu zuten dorrea, batez ere haren goiko partea. Egitura adreiluzko barne horma batez sendotu zuten, horma bat altxatu zuten ipar-ekialdean eta kanpai-gorputzeko baoetako arak ipini zituzten.

Era berean, eliza osoko teilatuak berritu zituzten, eta zurezko eta teilazko teilatuak ipini zituzten. Sakristiako teilatuari dagokionez, gangaren beheera etortzea aprobetxatu egin zuten burualdearen hegoaldeko horman beste leiho bat irekitzeko. Leiho berri honen obra sakristiako teilatu berriaren eraikuntzarekin bat egiteko xedean, sakristiaren altuera beheratu egin zuten mendebaldean izan ezik, eliza-atariaren obra jatorrizko altuerara egokitzen baitzen.

Azkenik, XX. mendean, hilerria eraiki zuten. Formaz angeluzuzena, elizaren ekialdeari atxikita zegoen. Iparraldeko hezurtegiaren presentziak hilerri zahar bat uzten digu agerian, baina hau amortizatu egingo zuten hilerri berria eraikitzeko xedean. Sarrera mendebaldean du, eta haren barruan nitxoei leku egiten dieten egitura bi egokitzen dira parez pare.

Konklusioak

Egiletako San Roman elizan bururatutako azterketa estratigrafikoaren ostean, haren eraikuntzaren garapenean Erdi Aroaz geroztik bizi izandako bilakaera guztiz interesgarria argitu ahal izan dugu. Lehenengo aldiaren ostean, XVI. mendean, kanpai-horma, iparraldeko kapera, korua eta habeartearen hegoaldea eraiki zituzten. Ondorioz, zabaldu egin zen tenplua. Kanpai-horma XVII. mendean berritu zuten aurrenekoz, eta mende berean eraiki zuten hegoaldeko kapera. XVIII. mendean obra asko egin zituzten tenpluan, hegoaldeko kapera sakristia bihurtu zuten, elizaren goiko partea moldatu zuten, dorrea eta eliza-ataria eraiki zituzten eta lehenengo hilerriko hezurtegia antolatu zuten espazio honetan. Bukatzeko, XIX. eta XX. mendeetan hainbat zaharberitze lan egin zituzten tenpluaren barruan, esate baterako, korua berritu zuten, elizako teilatu guztiak berritu zituzten eta hilerri berria eraiki zuten. Tenpluaren azken itxura obra handien emaitza da, batez ere eliza honetan XVIII. mendean bururatu zituzten lanen emaitza.

Fase 6. Siglos XIX y XX

En esta última fase, las modificaciones realizadas en la iglesia se distribuyen por todo el templo.

En el interior se dispone el retablo en la capilla norte, con una cronología del s. XIX aunque el calvario que alberga podría remontarse al siglo XV. En la zona occidental se reforma el coro, sustentado por un muro de mampostería en el que se abre un gran arco rebajado realizado en ladrillo. Se disponen tres aguabanderas y se crean dos hornacinas. Por último, los paños de la iglesia se cubren con un enfoscado excepto la zona de la cabecera y el espacio debajo del coro.

En el exterior se realiza la última reforma de la torre que afecta sobre todo a su parte superior. Se refuerza la estructura con un muro interno de ladrillos, se hace un muro en la zona noreste y se disponen los alféizares de los vanos de las campanas.

También se reforman las cubiertas de toda la iglesia con tejados con estructura de madera y tejas. En el caso de la cubierta de la sacristía, la caída de su bóveda es aprovechada para abrir una nueva ventana en el muro sur de la cabecera. Para conjugar la obra de esta nueva ventana con la construcción de la cubierta nueva de la sacristía deciden rebajar la altura de esta última excepto en su parte occidental, ya que la obra del pórtico ya estaba hecha a la altura original.

Por último, ya dentro del siglo XX se realiza la obra del cementerio, con forma rectangular y adosado a la zona oriental de la iglesia. La existencia de un osario en la zona norte nos informa de un cementerio primitivo que seguramente fue amortizado con la construcción de este nuevo. Su acceso es desde el oeste y en su interior se disponen dos estructuras enfrentadas que albergan los nichos.

Conclusiones

Tras el estudio estratigráfico realizado en la iglesia de San Román de Eguileta hemos podido conocer su interesante evolución a lo largo de su desarrollo constructivo, iniciado en época medieval. Después de esta primera fase, en el siglo XVI se realiza la espadaña, la capilla norte, el coro y la construcción de la zona sur de la nave con lo que el templo se ensancha. La primera reforma de la espadaña se realiza en el siglo XVII y se construye la capilla sur. En el siglo XVIII se hacen gran cantidad de obras como la conversión de la capilla sur en sacristía, la obra de la parte superior de la iglesia, la torre, el pórtico o el osario del antiguo cementerio. Por fin en los siglos XIX y XX se realiza la última reforma de la torre, se llevan a cabo una serie de obras en el interior de la iglesia como la reforma del coro, se hacen todas las cubiertas de la iglesia y se construye el nuevo cementerio. El aspecto final del templo es el resultado de las grandes obras que, sobre todo en el siglo XVIII, se realizan en la iglesia.

Aitzitik, XVIII. mendeko ustezko zaharberritze lan integralak aurreko obrak deuseztatu ez baizik eta Erdi Aroko elizaren aztarnak eta XVII. mendera arte bizi izan zituen berritze lanak kontserbatu izana da, zalantzarik gabe, lan honetan egiaztatu dugun konturik interesgarriena.

Lo más interesante, sin duda, es haber constatado que la supuesta reconstrucción integral del siglo XVIII no había eliminado las obras anteriores, sino que se conservaban las evidencias de la iglesia medieval y sus reformas hasta el siglo XVII.

L. Sánchez Zufiaurre; B. Renedo Villarroya

A.2. AMURRIO

A.2.1. **Santa Ageda (Delika)**

Miaketa magnetikoen III. kanpaina
Zuzendaritza: Antxoka Martínez Velasco
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.2.1. **Santa Águeda, (Delika)**

III Campaña de prospección magnética
Dirección: Antxoka Martínez Velasco
Financiación: Diputación Foral de Álava

During 2009, a series of sondages were carried out inside Santa Águeda. The cuts along the line of defence were also cleaned. The data obtained enabled us to confirm the absence of any settlement inside the precinct. The data indicate that the precinct was built in single operation, based on a pre-established design. This indicates that the precinct was probably of a temporary nature, and was most likely built in response to a specific situation which required a defensive structure, with no plans to establish a stable settlement.

Lanen garapena

2009ko kanpaina izan da Santa Agedan burura eraman dugun hirugarren eta azkeneko landa-lana. Kanpaina honetan 2007. eta 2008. urtean egindako lana osatzea bila izan dugu, eta horretarako zundaketa arkeologiko batzuk eta garbitze lan batzuk egin genituen babes lerroaren ebakietan.

Aurreko kanpainetan lortutako datuetatik abiatutik, giza okupazioaren hainbat une kronologiko identifikatu ahal izan ziren K.a. III. mende inguruan hasi eta Espainiako Gerra Zibilaren garaira arte luzatzen den esparru kronologikoan. Egituren eta batez ere babes lerroaren dokumentazioa osatzea eta barrutiaren barrunbean egiturarik kontserbatzen ote zen egiaztatzea falta ziren lana erabat biribiltzeko.

Guztira bost zundaketa egin genituen barruti osoan zehar. Bakar batek eskaini zuen emaitza positiboa, ekialdeko sarreraren ondoan egindakoak. Zundaketa honetan barruko aldetik barrunbera iristeko zoruaren maila berdindu eta egokitzen zuen betegarri txiki bat dokumentatu genuen. Betegarri hau babes lerroa eraiki zutenerako alde honetan lur jota behar zuen etxola bat edo biren hondakinekin osatua da. Zundaketa honetan berreskuratutako hondakinen artean, funtsean etxoletako paretak estaltzeko buztinezko geruza zatiak eta, askoz ere gehiago zehaztu

Desarrollo de los trabajos

La campaña de 2009 ha sido la tercera y última de trabajo de campo en Santa Águeda. Para esta ocasión se planteó completar el trabajo realizado en los años 2007 y 2008 con una campaña de sondeos arqueológicos y una limpieza de cortes en la línea de defensa.

A partir de los datos obtenidos en las campañas anteriores, se pudieron identificar diferentes horizontes de ocupación temporal con un marco cronológico que se inicia en torno al siglo III a.C. y se prolonga hasta la Guerra Civil Española. Quedaba pendiente la documentación de las estructuras, principalmente la línea de defensa, pero también confirmar o desmentir la ausencia de estructuras al interior del recinto.

Se ejecutaron un total de cinco sondeos repartidos por todo el recinto. Sólo uno dio positivo, ubicado junto al acceso del este. En él se documentó un pequeño relleno de nivelación que aterraza y acondiciona ligeramente el acceso al recinto por el interior. El relleno se llevó a cabo con los restos de una o dos cabañas ubicadas en aquel lugar, que ya debían estar arruinadas cuando se levantó la defensa. Entre los restos recuperados en este sondeo contamos, fundamentalmente, con mantedado de barro destinado a revestir las paredes de las cabañas, también con algu-

gabe, Burdin Aroko kronologia iradokitzen duten zeramika zati batzuk dira aipagarri. Beste zundaketan harri amaren mailara iritsi ginen, inolako emaitza positiborik lortu gabe.


Babes lerroko hiru ebaki garbituta osatu genuen lana: barrutira sartzeko sarrera nagusia, iparraldean, ekialdeko sarreraren ondoko ebakia eta hego-mendebaldeko beste ebakia. Xede honetan, berriki irekitako hiru bide/sarreraren eraikuntza lanetan zehar eratutako hiru babes sekzio bereizi genituen. Profil hauek aztertuta, badakigu, gutxi gora-behera, zer ezaugarri zituen babes lerro honek:

1. Babes lerroaren parterik handiena trinkotutako lurrezko ezponda batez eraikia da. Iparraldean eta mendebaldean, babes lerroa loditu egiten

nos fragmentos cerámicos que apuntan a una cronología de la Edad del Hierro, sin mayores precisiones. En el resto de sondeos se llegó a la roca madre, pero arrojaron un resultado negativo.

El trabajo se completó con la limpieza de tres cortes diferentes de la línea de defensa: el acceso principal al recinto, ubicado al norte, un corte junto al acceso este y un corte al suroeste. Para ello se eligieron tres secciones de la defensa generadas durante la apertura de tres pistas/accesos en fechas recientes. El estudio de estos perfiles ha permitido una aproximación a la caracterización de la defensa:

1. El grueso de la defensa se levanta mediante un talud de tierra compacta. Al norte y oeste, donde la línea de defensa se engrosa, ésta se en-



Santa Ageda, (Delika). Oin luzeko fibula eta diskoa.

Santa Águeda, (Delika). Fibula de pie vuelto y disco.

den aldeetan, landu gabeko harri xabalez sendotuta ageri da babes lerroa, emplecton deritzon teknikaren bidez sendotuta ere.

2. Babes lerroa aldi bakar batean eraiki zuten. Halako bat etortzea dago ezpondan baliatutako betegarriaren, trazatuaren eta sarrera sistemen artean, eta ez dago birmoldaketa edo konponketaren arrastorik bat ere.
3. Obrak, berez, ez zuen bitarteko tekniko apartarik eskatzen, langile kopuru nahikoa baino ez, eta barrutiak hartzen dituen bederatzi hektareak eta, beraz, hartan bil daitekeen biztanle kopurua aintzat hartzen baditugu, ez dugu uste nahikoa langile edukitzeko arazoa izango zutenik. Datu hori kontuan harturik eta barruti osoak koherentzia handia islatzen duela aintzat harturik, guk uste dugu obra hau denbora tarte aski laburrean osatuko zutela, inprobisaziorik gabe, aurrez saiaturako eskema bati jarraiki. Esan dezagun, halaber, barrutiaren okupazio aldia oso luzea izango zela.

Konklusioak

Lortutako emaitzak positibotzat har daitezke, eta babesteko barruti honi begira hasieran planteatutako hipotesiak berresteko aukera ematen dute. Batetik, berretsi egiten da herrixkaren gabezia; zundaketa positibo bakarrean identifikatutako etxola hondakinak barrutia eraiki aurrekoak dira, eta oso eremu txiki batera mugatzen dira, muinoaren mutur batera; aitzitik, gainerako espazio guztiak, bederatzi hektareak osatu arteko espazioak, hutsik daudela ematen du.

Babes lerroari dagokionez, ebakiak garbitzetik lortutako datuek adierazten digute egitura hau aldi bakar batean eraiki zutela lurrezko ezponden bidez, leku ahulenen oinak sendoturik, iparraldean eta mendebaldean, baita sarrerak ere, emplecton deritzon teknikaren bidez eta landu gabeko hormen bidez. Barruti osoa guztiz koherentea da nola eraikuntzaren ikuspuntutik hala sarreratako sistemaren (zeiharrak) ikuspuntutik, eta baliatutako teknika xumea bezain eraginkorra da. Horrek guzti horrek adierazten digu babes lerroa denbora tarte laburrean eraiki zutela, inolako inprobisaziorik gabe.

Datu hauetatik abiatu eta lan hipotesi gisa, esan dezagun Santa Agetako barrutia K.a. III. mendearen amaiera eta K.a. II. mende hasiera arteko une batean eraiki zutela oso koiuntura jakin batean, babesteko barruti bat beharrezkoa zen unean. Egoera hori gaindituta, barruti hau ez zen herrixka bihurtu, agian ez zutelako herri bat izateko asmoarekin eraiki.

Kanpaina hau amaituta, bukatutzat ematen dugu landa-lanen aldia, eta lortutako datuetatik abiatuta aztertutegi honi buruzko azterketa osatuko dugu.

cuenta reforzada en su base por mampostería de lajas de caliza mediante la técnica del emplecton.

2. La línea de defensa se ejecutó de una sola vez. Existe una coherencia entre el relleno empleado en el talud, el trazado y los sistemas de acceso, sin nada que indique remodelaciones o reparaciones.
3. La obra como tal no requiere de grandes medios técnicos, sólo de mano de obra suficiente que es de suponer que estaría disponible a juzgar por las nueve hectáreas que encierra el recinto y la población que, en consecuencia, puede albergar. A partir de este dato, unido al hecho de que todo el recinto ofrece una gran coherencia, se plantea que la obra se ejecutó en un plazo de tiempo relativamente reducido, sin improvisaciones, siguiendo un esquema ensayado previamente, y con una temporalidad muy acusada en su ocupación.

Conclusiones

Los resultados obtenidos pueden considerarse positivos y permiten confirmar las hipótesis iniciales planteadas para este recinto defensivo. Por un lado se confirma la ausencia de poblado como tal; los escasos restos de cabañas halladas en el único sondeo positivo son anteriores a la construcción del recinto y quedan restringidos a un área muy reducida en un extremo del cerro, por el contrario, la totalidad del espacio restante hasta completar las nueve hectáreas del recinto parecen vacías.

En cuanto a la línea de defensa, los datos obtenidos de la limpieza de cortes indican una estructura levantada de una sola vez mediante taludes de tierra, reforzados en su base en los puntos más vulnerables, los lados norte y oeste así como los accesos, mediante muros de mampostería a partir de la técnica del emplecton. La coherencia de todo el recinto en cuanto a técnica de ejecución así como la similitud en los sistemas de acceso (esvíaes), unido a la sencillez y eficacia de la técnica empleada, indican una ejecución de la misma dentro de un plazo de tiempo reducido, pero igualmente, indican la ausencia de improvisación.

A partir de estos datos, se plantea como hipótesis de trabajo que el recinto de Santa Águeda fue levantado en algún momento entre finales del siglo III a.e. y principios del siglo II a.e. en una coyuntura muy determinada en la que se hacía necesario un recinto defensivo. Una vez superada esa coyuntura, el recinto no fraguó como poblado, quizá porque tampoco se levantara con vocación de serlo.

Una vez concluida esta campaña, se cierra la fase de trabajo de campo y se procede a la elaboración del estudio de este yacimiento con los datos obtenidos

A.2.2. **Elexazarko aztarnategi erromatarra**

Zuzendaritza: Juanjo Hidalgo
Finantzazioa: Amurrioko Udala

A.2.2. **Yacimiento romano de Elexazar**

Dirección: Juanjo Hidalgo
Financiación: Ayuntamiento de Amurrio

The intervention on Elexazar Mound aims to determine the archaeological nature of the site and investigate its origins and historical evolution, bearing in mind its strategic position on high ground, between the valleys of the River Nervión and the River Altube.

Nola Elexazar mendiko aldea eta Amurriko ipar-ekialdeko beste baso alde batzuk hala udalerriko auzo zaharretako batzuk –San Roke, Mariaka, Aldama, Pordio eta Onsoño–, haietatik batzuk mazelaren erdialdean eta gailurreko lerrotik hurbil kokaturik, mendi garaiera ertaineko espazio zabal batera biltzen dira, Kuskumendi-Goikomendi (605 m), Erroiatxa-Aspaltza (695 m) eta Eskorla (712 m) izeneko gailurrak hartzen ere dituen espaziora. Baso parke honek Orozkoko (Bizkaia) udal-erriarekin egiten du muga ipar-ekialdetik, eta hainbat eremutan bururatuko diren jarduera puntualen bidez, natura, paisaia eta kultura izaerako balioak berreskuratzea xede duen proiektu batera biltzen da parkea.

Horregatik guztiagatik, aztergai dugun espazio naturala modu integralean berreskuratzeko proiektuak inbentariora eta ondare publikoaren ondasunen zerrendara jaso litekeen edozein aztarna material ukitzen du, horietatik batzuk berriki aurkituak direnak Amurrioko Udalak alde honetan sustatzen eta zuzentzen ari den jardueretan zehar. Elementu horien guztien artean bada garrantzi berezia duen bat, harriz eta lurrez osatutako tumulua, Elexazarko Larrea izeneko lekuan, itsas mailatik gora 550 m-ko garaieran.

Tumulu honek muino txiki baten gailur osoa hartzen du. Muino hau haize hotzetatik ondo babestuta dago, hegoaldeko izan ezik, 600 eta 700 metroko garaiera duten mendiez inguratuta baitago. Neurri txiki eta ertaineko harri meta handi bat da, tartean harri handiren batekin osatuta. Harri hauetatik gehienek aurpegi eskuairatua erakusten dute, eraikinen bat osatzeko egokিতa daude, trauskil landuta badaude ere. Hareharriak dira, inguruko harrizko geruzatik erauziak agian, ziur asko «la Cantera» deritzen tokitik ekarriak, leku hau Elexazarko mendatetik Inordioko gaineraino iristen den mendilerro hurbilean baitago, aztarnategitik 500 metro eskasera.

Hasieran, Andoni Aldama Murga jaunak 2009ko urtearen hasieran aurkitu zuenean, aipatutako tumulua 1570. urte aurreko tenplu zahar baten hondakinek osatua zela pentsatu genuen, aipatutako urtean dokumentatzen baita aurreneko toponimo edo lekuzen hau Amurruko San Antongo Batzordearen Mendien Ordenantzetan. Izan ere, esku-hartzearen interesa argudiatzeko xedean aurkeztutako memorian tesi honen alde egin genuen, Amurrioko oso hedatuta baitago, hitzeko tradizioaren arabera, aipatutako lekuan

La zona del monte Elexazar y otras zonas forestales del noreste de Amurrio, así como algunos de sus barrios más antiguos: San Roque, Mariaka, Aldama, Pordio y Onsoño, localizados algunos de ellos a media ladera e incluso cercanos al cordal de cumbre, se integran dentro de un amplio espacio de media montaña que comprende las cimas de Kuskumendi-Goikomendi (605 m), Erroiatxa-Aspaltza (695 m) y Eskorla (712 m), un parque forestal que limita al NE con el municipio vizcaíno de Orozko, y que cuenta con un proyecto de intervención que pretende recuperar valores naturales, paisajísticos y culturales mediante actuaciones puntuales en diversas áreas.

Por todo ello, el proyecto de recuperación integral del espacio natural que nos ocupa comprende cualquier vestigio material susceptible de ser inventariado y añadido a la lista de bienes de patrimonio público, algunos de ellos de reciente descubrimiento a lo largo de las diferentes actuaciones impulsadas y dirigidas por el Ayuntamiento de Amurrio que en dicha área se vienen acometiendo. Y entre todos estos elementos hay uno de especial importancia, cual es un túmulo de piedra y tierra ubicado en el término denominado Campo de Elexazar, a 550 metros de altitud.

Dicho túmulo ocupa toda la cima de una pequeña colina, bien protegida de vientos fríos, ya que, excepto por el lado sur, se encuentra rodeada por alturas que superan los 600 y 700 metros de altitud. Se trata de un gran amontonamiento de piedras de tamaño medio y pequeño, aunque no faltan algunas muestras de mayor porte. La mayoría de estas piedras presentan caras escuadradas y acondicionadas para formar parte de una construcción, a modo de mampostería un tanto grosera y de naturaleza arenisca, quizá originaria del sustrato rocoso de la zona, seguramente del lugar llamado «la Cantera», en el cercano cordal que desde el Portillo de Elexazar llega hasta el alto de Inordio, a escasos 500 metros de distancia desde el yacimiento.

En un principio, tras el hallazgo del mismo a comienzos del presente año 2009 por el Sr. Andoni Aldama Murga, pensamos que dicho túmulo podría corresponder a los restos de un antiguo templo anterior a 1570, momento en que se documenta el topónimo por vez primera en las Ordenanzas de Montes de la Junta de San Antón de Amuru. De hecho, en la memoria presentada para argumentar el interés de la intervención, decidimos apoyar esta tesis, ya que en Amurrio estaba muy extendida la tradición oral de que había



Elexazarko aztarnategi erromatarra. Eraikin nagusiaren ekialdeko sektorea airetik ikusita.

Yacimiento romano de Elexazar. Vista aérea del sector oriental de la construcción principal.

eliza bat izan zena; gainera, hizkuntza-aldaerak kon-tuan baditugu oso litekeena da bertan eliza bat egon izana. Honenbestez, Elexar izenak (*elixa* + *zahar*) «eliza zahar» edo «aspaldiko eliza» esanahia luke, izen iradokitzaile bezain interesgarria harrizko tumuluaren balizko izaera zein izan zen *a priori* erabakitzeko, nahiz eta ez dagoen aipatutako lekuan izaera erlijiosoko eraikin bati zuzeneko erreferentzia egiten dion dokumentu bakar bat ere.

existido una antigua iglesia en dicho lugar, algo que, por otra parte, pudiera parecer muy evidente si aceptamos las derivaciones lingüísticas. Así, del latín *ecclesia*, pasaría al euskera como *eleiza*, lo que en el dialecto occidental derivaría en *elixa*. De esta forma, Elexazar (*elixa* + *zahar*) equivaldría a «la iglesia vieja» o «la iglesia antigua», una denominación bien sugerente e interesante de cara a entrever *a priori* la posible naturaleza del túmulo de piedras, a pesar de la no existencia de documento alguno que hiciera referencia expresa a un edificio de carácter religioso en dicho lugar.

Esku-hartzea

Esan beharra dago landa-lanetan hasi baino lehen alde hau osoa garbitu behar izan genuela baso alde batean dagoelako, haritz batzuek eta elorri ugariak, garoek eta oteek, hartuta dagoelako, hauek ikerketaren xede den eremu osoa hartzen baitute.

Jarraian, harrizko tumuluaren izaera ezagutzeko eta zehazteko xedean eta haren egiazko balio arkeologikoa eta historikoa zehazteko xedean, zundaketa bat egin genuen haren gainean, hots, hegoaldeetik iparraldera zuzendutako lubaki bat ireki genuen, lubakia 30 metro luze eta 2 metro zabal. Gainera beste zundaketa bat ireki genuen, oin koadroko zundaketa, 3 x 3 metrokoa, tumuluaren ekialdean. Bukatzeko, tumu-

La intervención

Hay que destacar un trabajo previo a la intervención de desbroce de la zona debido a su localización en un entorno forestal, poblado por algunos robles y numerosos espinos, helechos y argomas que enmarñaban toda el área objeto de investigación.

A continuación, con el objeto de conocer y definir la naturaleza del túmulo de piedras y su verdadero interés arqueológico e histórico, hemos actuado sobre él mediante un sondeo consistente en la realización de una trinchera longitudinal en sentido S-N de 30 metros de longitud por 2 metros de anchura. Asimismo, hemos realizado otro sondeo de base cuadrangular en la parte E del túmulo, de unos 3 metros de lado. Por últi-

luaren mendebaldeko sektoreko landare geruza altxa genuen, eraikin nagusiaren hormen egitura eta gainazaleko planoaz zehaztu ahal izateko.

Eraikin nagusia

Hasiera-hasieratik agerian geratu ziren eraikin handiago baten atala osatzen zuten horma egitura batzuk. Eraikin nagusi honek oinplano angeluzuzena zuen, ondoz ondo egokitutako lau gela edo espazioak osaturik zegoen, espaziook tarteko hormek bereizirik. Espazioak banatzeko tarteko horma hauek, gehienez ere, 50-60 cm-ko garaierara iristen ziren, eta 48-50 cm lodi ziren beren luzera osoan zehar. Ikerketa lanen egungo egoeran, esan dezagun eraikin nagusi hau 13,75 metro luze zela (ekialde/ipar ekialdetik hego/hego mendebaldera) eta 3,75 metro zabal (ipar/ipar-mendebaldetik hego/hego ekialdera).

Gainera, lubakiaren mutur bietan, batetik bestera ia 30 metroko aldearekin, beste horma egitura batzuk azaldu dira, arestian adierazitako hormen ezaugarri bertsuak dituztenak. Iparraldeko horma eraikin nagusiaren paraleloan luzatzen da, baina beste aldekoa angelu zuzen batek eratuta dago, eta oraindik ez dakigu zer harreman duen aipatutako eraikin nagusiarekin. Beraz, okupatutako azalerari, egiazko neurriei, funtzionaltasunari eta kronologiei dagokienez artean zehaztu gabe dugun eraikin multzo baten aurrean gaude, baina esan dezagun itxura batean tumulu osoa

mo, hemos limpiado la capa forestal del sector oeste del túmulo con el fin de apreciar la estructura mural y el plano en superficie de la construcción principal.

La construcción principal

Desde un comienzo fueron quedando al descubierto una serie de estructuras murales que formaban parte de una construcción mayor, de planta rectangular, constituida por una serie consecutiva de cuatro dependencias o espacios, separados unos de otros por muros divisorios que apenas llegan, en su parte más alta, a los 50-60 cm de altura, con una anchura homogénea de 48-50 cm. La longitud total de la construcción, hasta el momento presente de las investigaciones, es de 13,75 metros (ENE-OSO), por otros 3,75 metros de anchura (NNO-SSE).

Además, en ambos extremos de la trinchera, a casi 30 metros de distancia uno de otro, han aparecido otras estructuras murales de similares características a las ya comentadas. La del lado norte es un muro que discurre paralelo a la construcción principal, mientras que la del lado contrario conforma un ángulo recto, cuya relación con la citada construcción principal está aún por definir. Así, estamos ante un complejo constructivo, todavía indefinido en cuanto a superficie ocupada, medidas reales, funcionalidad y cronologías, pero que podría ocupar, al parecer, todo



Elexazarko aztarnategi erromatarra. Eraikin nagusiaren 1. barrutia.

Yacimiento romano de Elexazar. Recinto 1 de la construcción principal.

hartzen duela eraikin multzoak, baita gainditu ere mendebaldeko muturrean dagoen ezpondaraino.

Hondakin materialak

Interbentzio lanetan, orain artean bederen, urriak dira oso aurkitutako hondakin materialak, agian zoruko PHren azidotasun handiak eraginda ezin kontserbatu izan direlako.

- Burdinazko materialak: tipologia eta neurri askotako iltzeak, baina denak errementarien forja lanen emaitza. Azaldu ere da formarik gabeko beste objekturen bat, agian gontzekin edo antzekoekin zerikusia duena.
- Zeramikazko materialak: sutegi biribil baten atala osatzen zuten buztinezko adreilu erreak. Plater baten ertzari dagokion zeramikazko zati txiki bat baizik ez genuen dokumentatu.
- Hareharrizko zorroztarri bat, aurpegi bat nabarmen higatuta duena.
- Sukarrizko laska pare bat.

Balorazio kronologikoak eta lehen konklusioak

Erradiokarbonoaren bidezko datazioen emaitzak artean jaso ez ditugula, aurkitutako material urrien eta identifikatutako eraikuntza hondakinen tipologiaren ikuspuntutik baizik ezin gara aztarnategi honen kronologiara hurbildu, baina kontuan hartu behar dugu eraikinaren hondakin asko eta asko artean ezkutuan egon daitezkeela.

Hondakin materialen urriak ez du egiteko honetan asko laguntzen, plater baten ertz zatiak izan ezik. Zeramikazko zati hau erromatarren garaiko zeramika arrunta izan daiteke, une historiko horretako zeramikaren profil eta ezaugarriak baititu. Sukaldeko ontzi bat izan liteke, nola jatekoak prestatzeko hala mahaiaren zerbitzatzeko (gure garaiko II. eta IV. mende bitartekoa).

Agerian utzitako horma egiturei dagokienez, hein handi batean gogorarazten dituzte Alorian aurkitutakoak –Amurriko udal barrutiko erromatarren garaiko aztarnategia–, eta Burdin Aroko Atxako herrixkan (Gasteiz) aurkitutako erromatarren garaiko finkamenduko landu gabeko harrizko hormak. Izan ere, nola neurriei hala morfologiari bagagozkie, eraikin nagusiko gelak Aloriako barrutien antzera egokituta daude, baita lur jotzeko aldiaren ere, teilan modura eta ondoz ondo egokitutako harri xabalak ugari baitira teilatua beheara etorriko zelako.

Eraikin nagusia eraitsi ondorengo maila batean, 1. zenbakiko barrutiaren gainazalean, erretako buztinezko adreiluekin prestatutako sutegi bat, okupazio

el túmulo en su extensión, e incluso desbordarlo hasta un talud situado en el extremo occidental.

Restos materiales

Son muy pocos los restos materiales hallados hasta el momento en el transcurso de la intervención, quizá por la acusada acidez del PH del suelo, que haya podido influir negativamente en la conservación de los mismos.

- Material de hierro: clavos de diferente tipología y medidas, pero todos ellos realizados mediante forja de herrero. También ha aparecido algún objeto informe, quizá relacionados con bisagras o similares.
- Material cerámico: prácticamente se reduce a ladrillos de arcilla cocidos que formaban parte de un hogar circular. Tan sólo ha aparecido un pequeño fragmento de cerámica correspondiente a un borde de plato.
- Una afiladera en arenisca con desgaste notorio en una de sus caras.
- Un par de lascas de sílex.

Valoraciones cronológicas y conclusiones preliminares

A falta todavía de resultados más precisos por datación de radiocarbono, lo único que podemos hacer para acercarnos a la cronología de este yacimiento es valorarlo desde un punto de vista de los escasos materiales encontrados y de la tipología de los restos constructivos hallados, lo cual, en modo alguno puede considerarse definitorio.

La escasez de los restos materiales no ayuda en esta labor, salvo por el pequeño fragmento cerámico de borde de plato, quizá atribuible a cerámica común de época romana, según perfiles y características adscribibles a dicho momento histórico. Podría tratarse de un recipiente de cocina, destinado tanto a la preparación de alimentos como al servicio de la mesa (siglos II a IV de nuestra era).

En cuanto a las estructuras murales puestas al descubierto, recuerdan en gran medida a los restos constructivos aparecidos en Aloria –un yacimiento de época romana en término del municipio de Amurrio–, o a las alineaciones de mampostería del asentamiento romano encontrado en Atxa (Vitoria-Gasteiz), un poblado de la Edad del Hierro. De hecho, la disposición habitacional de la construcción principal se asemeja a los recintos de Aloria no sólo en cuanto a dimensiones y morfología, sino también en su fase de derrumbe, con abundancia de lajas imbricadas y también en plano, resultado de una posible caída de la cubierta.

En un nivel posterior a la destrucción de la construcción principal, sobre la superficie del recinto nº 1, se ha encontrado un hogar preparado con ladrillos de



Elexazarko aztarnategi erromatarra. Eraikin nagusiaren 2. barrutia.

Yacimiento romano de Elexazar. Recinto 2 de la construcción principal.

iraunkorren erakusgarri den sutegia, dokumentatu genuen. Bertako ikatzek, datazio zehatzak iritsi bitartean, *post quem* kronologia bat eskaintzeko aukera emango digute.

barro cocido que refleja una ocupación estable –en espera de datación–, cuyos carbonos nos darán una cronología *post quem*.

Nolanahi ere den, esan dezagun Elexazarko tumulua ez dela alde honetan dokumentazio idatziaren bidez inoiz ere egiaztatu ez den baina ahozko tradizioaren arabera bertan egongo zen «eliza zahar» harekin bat etortzen. Aitzitik, muino honen gain biribil osoak identifikatu eta ebaluatu ahal izan dugun aztarnategi arkeologiko handi bati leku egiten diola ematen du, nahiz eta ez duen alderdi askotan zehazteko paradarik eskaintzen, ez du eraikinen tipologia eta hauen funtzionaltasuna zehazteko aukerarik ematen, ez eta elementuen arteko harremanak zehazteko egokierarik ere. Ez dugu hura eraiki eta eraitsitako kronologiak zehazteko modurik izan, ez dakigu zergatik eraiki eta zertarako eraitsi zuten, ez dakigu nork eraikiarazi zuen edo nor bizi izan zen hartan. Galdera hauei guztiei datozen esku-hartzeekin erantzun ahal izango diegula uste dugu.

En cualquier caso, podemos concluir que el túmulo de Elexazar no se corresponde con la «iglesia vieja» que previsiblemente se encontraba en esa zona, según testimonios de tradición oral nunca avalados por la documentación escrita. Muy al contrario, toda la cima redondeada de esta colina parece albergar un amplio yacimiento arqueológico que hemos podido identificar y evaluar, aunque no definir en muchos aspectos tales como la tipología de las construcciones y la funcionalidad de las mismas, y la interrelación entre los diferentes elementos; las cronologías de su construcción y destrucción, así como los posibles motivos, y la identificación de sus constructores y/o moradores. Cuestiones todas ellas a la espera de que en próximas intervenciones podamos dar respuesta.

J. Hidalgo

A.3. AÑANA

A.3.1. GESALTZA-AÑANAKO HIRIGUNE HISTORIKOA CASCO HISTÓRICO DE SALINAS DE AÑANA

A.3.1.1. **Hiriko barruti gotortua. Kanpoko aldea, mendebaldea**

Zuzendaritza: Alberto Plata Montero
Finantzazioa: Arabarri

A.3.1.1. **Recinto fortificado de la villa. Zona exterior W**

Director: Alberto Plata Montero
Financiación: Arabarri

The turning of the site located in the western part of the hill on which the town of Salinas de Añana is built into a museum prompted an archaeological excavation aimed at completing the assessment and promotion of the area. Although the intervention did not modify the sequence documented during previous seasons, it did provide new information regarding the late medieval San Cristóbal Church, particularly in relation to its apse and the techniques used during its construction.

2005. eta 2006. urteetan muinoaren mendebaldeko muturrean, Gesaltza Añanako jatorrizko hiriri leku egiten zion aldean, dokumentatutako hondakin arkeologiko garrantzitsuei balio handiagoa emateko proiektuaren baitan, aurreko kanpainetan ukitu gabe utzitako espazioak induskatu ditugu jarduera arkeologiko honetan.

Emaitzak, oro har hartuta, aurreko esku-haritzeetan (Plata, 2009) lortutakoen antzekoak dira. Beraz, ekarpenen bat eskaini diguten alderdietara mugatuko gara oraingoa.

Harresiaren eraikuntzak ebakitako hondakinak, harresia eraiki aurrekoak beraz, dira aurkikuntzarik aipagarrienak. Harresia, gogora dezagun, Alfontso I.a Borrokariari hiriri emandako foru-gutunaren ondorioz eraiki zuten XII. mendearen lehenengo laurdenean. Burura eramandako lanek berretsi egiten dute harresia eraiki aurreko eraikin baten presentzia. Guk uste dugu lehenengo San Kristobal elizaren burualde zuzenari dagokiola atal hau. San Kristobal eliza hura Goi Erdi Aroan zehar Gatz Harana inguratzen zuten herrixka bateko (Fontes) parrokia zen.

Tenplu honek hormetako bat baino ez du kontserbatzen, iparraldetik hegoaldera egiten du eta lau metro luze da. Hartziko zokalo bat da, laurogei zentimetro zabal, eta errenkadak, txandaka, horizontalean eta inklinaturik ipinitako harriez osatuta daude. Zokaloaren gainean altxatzen da horma, hartziko aurpegi biz eta aurpegi bien arteko harri eta lurrezko betegarritz osatua. Horma hau ez da hirurogeita hamar zentimetro baino lodiagoa.

La puesta en valor de los importantes restos arqueológicos documentados entre los años 2005 y 2006 en el extremo occidental del cerro, donde se asienta la primitiva villa de Salinas de Añana, ha conllevado la excavación arqueológica de diversos espacios que habían quedado pendientes de campañas anteriores.

Los resultados generales no varían sustancialmente de lo ya conocido por las intervenciones anteriores (Plata 2009), por lo que nos centraremos únicamente en aquellos aspectos que han supuesto alguna aportación.

La novedad más interesante hace referencia a los restos que estaban cortados por la construcción de la muralla y que, por lo tanto, eran anteriores a su construcción con motivo de la concesión de la carta foral que hizo Alfonso I el Batallador en el primer cuarto del siglo XII. Los trabajos realizados confirman la presencia de un edificio anterior que ha sido interpretado como el testero recto de la primitiva iglesia de San Cristóbal, que era la parroquia de una de las aldeas (Fontes) que rodeaban el Valle Salado durante la Alta Edad Media.

Del templo sólo se conserva uno de sus paramentos, orientado norte-sur y de cuatro metros de longitud. Se trata de un zócalo de mampostería de ochenta centímetros de anchura en el que alternan hiladas hechas de piezas dispuestas inclinadas unas y otras horizontales. Sobre él se asienta el alzado propiamente dicho, compuesto por dos hojas de mampostería y un relleno de tapial que, en conjunto, no supera los setenta centímetros de anchura.

Harresiaren eraikuntzari dagokionez, berretsi egiten da obren aurreneko aldia, oraingoan arestian deskribatutako egituren gainean. Egitura horien barruko espazioa amortizatu egin zuten, eta betegarriak egokitu zituzten harresi berriari atxikirik.

1. Eliza deituaren inguruan ere ez du esku-hartze honek datu berri esanguratsu askorik eskaini. Berretsi egiten da fundazio aurreko horma sutegi bat eraikitze berrerabili izan zutena. Era berean, burualdea eraikitze prozesuarekin estu lotuta dauden zuloak, paldoei leku egiteko zuloak, betegarriak eta burualdeko erabilerarako zorua identifikatu ditugu.

En cuanto a la construcción de la muralla, se confirma una primera fase de obras, en este caso directamente sobre las estructuras anteriores, tras la que se realizó la nivelación del espacio interior mediante el aporte de rellenos contra la nueva muralla.

Sobre la denominada Iglesia 1, tampoco la intervención ha ofrecido datos novedosos. Se ha confirmado la reutilización del muro prefundacional para construir una fragua, la presencia de agujeros de poste relacionados con el proceso de construcción de la cabecera, así como las nivelaciones y el suelo de uso de la misma.

E. Laskiber Gorritz; J.M. Martínez Torrecilla; A. Plata Montero

A.4. ARAMAIO

A.4.1. **San Sebastian / Satiña basiliza (Ibarra)**

Zuzendaritza: Etor Telleria Sarriegi
Finantzazioa: Goitu Eraikuntzak, S.L.

A.4.1. **Ermita de San Sebastián / Satiña (Ibarra)**

Dirección: Etor Telleria Sarriegi
Financiación: Goitu Eraikuntzak, S.L.

During the archaeological monitoring process carried out within the framework of the renovations to the inside of San Sebastián Chapel (Sastiña), remains were found of a network of sink holes or channels, made from local natural clay.

San Sebastian basiliza modu integralean birgaitzeko proiektua abian jarri zenez, jarraipen arkeologiko bat egin genuen zolarri berria egokitzeko eremuan. Proiektuaren arabera, barruko egungo zorua altxa eta obraren kotaraino sakonduko zen. Zementuzko geruza altxatutakoan zolarria berdintzeko zaborrezko betegarri bat dokumentatu genuen: itxura guztien arabera, tenplu honetan zorua egokitzeko xedean, 90. urteetan egindako azkeneko obraren emaitza zen betegarria, bertako materiala garai bertsukoa baita (gure garaiko adreiluak, plastikoak eta beste). Oraingo birgaitze lanean, zaborrezko betegarri irregular horren atal bat kendu eta haren ordean obretarako hareak eta legarrak osatutako pakete bat egokitu behar zuten hobe isolatzeko eta gisa honetan eraikinari kalteak eragin dizkionten hezeguneak saihesteko.

Betegarriak osatutako maila altxatzen ari ginenean zulo bat hauteman genuen basilizaren ekialdeko horman, ustez kanalizazioaren bati zegokion zuloa. Haren inguruko zaborra eskuz kendu eta kanalizazio bat geratu zen agerian, elizaren oinplanoaren diagonalean egokitutako lauzen lerroak eratuta. Kanalizazio honek erdiko eta harrizko korridorepean partzialki nabarmentzen zen kanalizazio nagusiarekin egiten zuen bat. Jarraian, aurkitutako aurreneko kanalizazioaren inguruko

Con motivo de la rehabilitación integral de la Ermita de San Sebastián se realizó un seguimiento arqueológico en torno al acondicionamiento de la nueva solera; que incluía el levantamiento del actual suelo interior y rebaje de éste a cota de obra. Tras el levantamiento de la capa de cemento se pudo observar un relleno de escombros para el nivelado de la solera; todo indicaba que se correspondía con la última obra realizada en este templo en la década de los 90 para el acondicionamiento del suelo, debido a la contemporaneidad del material de relleno (ladrillo actual, plástico, etc). Esta vez se pretendía retirar, en parte, ese nivel de escombros irregular e introducir arena de obra y grijo para un mejor aislamiento y evitar de este modo las continuas humedades que han afectado a la edificación.

Cuando se estaba rebajando este nivel de relleno se advirtió un orificio en el muro este de la ermita, correspondiente a una supuesta canalización. Se retiró manualmente el escombros alrededor de ella y se descubrió una canalización con su línea de losas de caliza dispuestas de forma diagonal en la planta de la iglesia y terminándose en una canalización central que sobresalía parcialmente bajo el pasillo central empedrado. A continuación, limpiando el perímetro

perimetroa garbitzen ari ginela, lauzazko estalkia zuen beste kanal bat topatu genuen, lehengoaren perpendikularrean luzatzen zena eta tenpluaren iparraldeko hormaraino iristen zena.

Kanalizazio hauek estaltzeko erabilitako lauzak ka-reharrizkoak dira, eta forma eta neurri askotakoak, irregularrak. Kanalizazioak erregistratu eta estalkiak altxatu genituen, birgaitzeko lanak biltzen zituen obraren kotak egitura hauek ukitzen baitzituen. Aurkitutako aurreneko kanala altxatutakoan, berezko buztin horrikan egindako ebaki bat, kanal estu edo erreten baten gisako ebakia, geratu zen agerian, baina ia erabat hutsik zegoela esan behar dugu. Kanalizazio honen ebakiarekin bat egiten du perpendikularrean eratutako beste kanal batek, basilizaren iparraldeko hormatik abiatzen denak; sistema osoa, aldi berean, erdiko kanal edo kanal nagusian amaitzen da, bertan egiten dute bat bigarren mailako kanal guztiek.

Lauzak altxatuta berehala hautematen da ebakietako batzuk ez direla iparraldeko hormaraino iristen, edo ez dutela harekin egitura harremanik bat ere, abiapuntua ekialdeko hormaren oinetan egindako zulo dinteldun batean duen kanalizazio diagonaleko ebakiak izan ezik. Ebakiok ez dira beren osotasunean haiek estaltzen dituzten lauzen lerroek adierazten duten lerroekin bat etortzen, kanalizazio bitako lauzak iparraldeko hormaraino iristen baitira euren ebakiak haraino iristen ez diren bitartean.

Kanalizazio edo erreten hauek, gure ustez, buztinak eragindako hezetasunak drainatzeko sistema eratzten dute. Izan ere, ebakietako iparraldeko muturrak ez zaizkio zuzenean egitura fisiko bati lotzen, ez hartune ez hustubide bakar bati ere; beraz, ezinezkoa da isurkarien bolumen handi bat bideratzeko edo kanalizatze funtzioa eduki izana. Buztinean irekitako kanalen bidez osatutako hustubideetan haizebide gisa artikulatutako irekiuneak izango ziren, gero kareharri-zko lauzekin estaliko zituztenak. Aztergai dugun eremuko buztinaren plastikotasunaren eta kapilaritatearen ondorioz, gaineko egiturak kaltetuko zituzten kondentsazioak gertatuko ziren, eta horregatik erabakiko zuten drainatze sarea buztinean bertan irekitzea. Hain zuzen ere kanalizazio horien atal bat da tenpluaren ipar-ekialdean aurkitu duguna.

Ez dakigu zein den drainadurarako sare honen kronologia zehatza. Itxura batean San Sebastian basiliza erabiltzen zuten garaian hartutako erabakia izango zen, San Martin parroquia-eliza eraiki ondoren otoitz egiteko zentro nagusiaren izaera galdu zuen arren, gure garaira arte halako erregulartasun batez eta hutsik egin gabe eutsi egin baitiete bertako elizkizunei.

Zehaztasun osoz badakigu hainbat berritze lan egin izan direla tenplu honetan, azkenekoa, idatziz egiaztatu daitekeena, 1973. urtean. Orduan tenplua guztiz berritu zuten barruko aldetik, eta lan horiei zor diegu tenpluak urteotan eduki duen itxura, egungo berritze lanak bururatu arte. 90. urteetan ere zolarria berritu zuten, eta pentsatzen dugu lan horietan huse-

cercano a la primera canalización hallada, se encontró otro canal con tapa de losas conectada con ésta de manera perpendicular y que salía a su vez del muro norte del templo.

Las losas utilizadas como cubierta de estas canalizaciones eran de naturaleza caliza y presentaban un formato y dimensiones irregulares. Se registraron estas canalizaciones y se procedió al levantamiento de las tapas, ya que la cota de obra que recogía los trabajos de rehabilitación afectaba estas estructuras. Al levantarse el primer canal hallado se vio un corte realizado en la arcilla amarillenta natural a modo de estrecho canal o roza la cual estaba prácticamente vacía. Al corte de esta canalización se le une la otra canalización perpendicular, que parte desde el muro norte de la iglesia y todo este sistema a su vez se conecta y termina en un canal central.

Tras el levantamiento de las losas se advierte que algunos de los cortes no llegan hasta el muro norte o no tienen un contacto estructural con el mismo, salvo el corte de la canalización diagonal que tiene su origen en una apertura adintelada en la base del muro este. Son cortes que no se corresponden en su totalidad con la delineación que indican las losas que los cubren, ya que las losas de dos de las canalizaciones llegan hasta el muro norte pero no así su corte.

Estas canalizaciones o conducciones se han interpretado como un sistema de drenaje de humedades producidas por la arcilla. Ya que los extremos septentrionales de los cortes no están asociadas directamente a una estructura física, ni punto de captación ni de desagüe, por lo que su funcionalidad no puede ser la de encauzar o canalizar un gran volumen de fluidos. Se trataría de unas aperturas a modo de respiraderos articulados mediante unos sumideros realizados a base de canales abiertos en la arcilla y posteriormente cubiertas con losas calizas. Debido a la plasticidad y la capilaridad de la arcilla de la zona en cuestión se dan condensaciones que afectarían a estructuras subyacentes por lo que se opta por realizar una red de drenajes en la misma arcilla. Lo que se ha hallado ha sido parte de esas canalizaciones en la parte nororiental del templo.

Se desconoce la cronología exacta de esta red de drenajes, que parece ser una solución adoptada en el transcurso y uso del templo de San Sebastián, que aunque perdió su centralidad en el culto tras la construcción de la parroquia de San Martín, se ha seguido manteniendo el culto puntualmente y con cierta regularidad hasta nuestros días.

Se sabe con detalle que se hicieron repetidas reformas en el templo, la última de la que hay constancia escrita es del año 1973, la cual dejó el templo completamente reformado en su interior y a la cual debemos su fisonomía hasta darse la reforma actual. Incluso en la década de los 90 se realizó otra rehabilitación de la solera donde suponemos se afectó y

tubideen sistema osatzen zuen drainadura sarearen gainerako atalen parte bat ere hondatuko zutela, zaborrezko betegarrian hainbat lauza topatu baikenituen lekuz kanpo, nahasirik, drainadurarako sarea osatuko zutenak. Gainera, tenpluko beste lekuetan ez genuen beste kanalizaziorik identifikatu, kanal nagusiaren abiapuntua izan ezik: abiapuntu hau bat dator harrizko korridorearekin, birgaituko ez zen atalarekin. Beraz, ez dakigu zen den hark egiazki egiten duen bidea, eta ez dakigu beste zenbat kanalizaziok egiten duten bat ardatz nagusi honekin.

Obren gaineko kontrol lanekin aurrera egin genuen zaborrezko depositua altxatu eta berdindu arte eta gero gune osoa obrarako hareaz eta legarrez estali arte. Era berean, bertatik bertara jarraitu genituen paramentu bertikalak zementuz zarpiatzeko lanak. Ez genuen bestelako aurkikuntzarik egin eta ez genuen zutik dauden elementu arkitektonikoetan eragin negatibo bakar bat ere hauteman.

destruyó parte del resto de los drenajes que completarían el sistema de sumideros; ya que dentro del relleno de escombros nos encontramos con restos de losas descolocadas y removidas, que podrían haber formado parte de estos drenajes. Además, en el resto del templo no encontramos ninguna otra canalización, salvo el inicio de la conducción central que es coincidente con el pasillo empedrado, el cual no iba a ser rehabilitado. Por lo que desconocemos su delimitación real, ni se sabe cuantas canalizaciones más confluyen en este eje.

La excavación se ha ejecutado de manera mecánica con una pequeña pala retro dirigida por el arqueólogo que firma. Descubriendo ambos lados de la muralla que cerca la villa, así como diferentes muros



La Villa kalea, 24-26. Hegoaldetik begiratuta. Harresiaren bidea ikusten dugu orubeen oinplanoa banatzen.

La Villa, 24-26. Vista desde el S. Podemos ver cómo se desarrolla la cerca dividiendo la planta de los solares.

ziren agerian, baita aro modernoan hari atxikiriko hainbat horma eta herritik harresiraino jaisten den kanalizazio bat ere, harresiaren azpitik igarotzen dena Las Huertas izeneko aldean husteko.

Orube bietan hiribilduaren barruko eta kanpoko aldeak bereizten ditu harresiak. Elementu hau, denborearen joanean, harresiaren luzeran zehar eraiki zituzten eraikinez estalita geratuko zen, gehienetan guztiz estalita geratu ere. Eraispin lanetan harresiaren goiko atala, etxebizitza zenbaki bi hauen iparraldeko faxadarenak egiten zituen atala, eraitsi behar izan zen, baina beheko aldea kontserbatu egin da, harresiaren iparralderantz luzatzen ziren baratze eta zaborrezko paketeek estalita.

Honenbestez, Erdi Aroko harresi-lerro bat geratu da agerian, ^{xii.} eta ^{xiii.} mendeetako harresi-lerroa, lodiera aldakorrekoa, 1,80 m lodi ekialdean eta 2,40 m lodi mendebaldean. Iritsitako lodierak ere aldean araberakoak dira, baina esan dezagun uneoro iritsi garela maila geologikoraino, alde bietako (nola iparraldean hala hegoaldean) estratigrafia osoa guztiz agerian utzi arte. Halatan, 1,735 m sakondu genuen iparraldean eta 1,800 m hegoaldean.

Hustubidearenak egiten zituen kanalarri dagokionez, harresiaren alde bietan identifikatzen dela esan behar dugu; esan bezala, harresiaren azpitik egiten du, eta iparralderantz husten da. Agerian utzitakoaren arabera, 0,62 m zabal da eta 0,82 m sakon. Hondo laua du eta nabarmen egiten du hegoaldetik iparraldera beherantz, herri honetako harresiz kanpoko baratzeetara. Elizara garamatzan kantoira begiratzen badugu, orube hauek husteko lanetan zehar irekitako lubakian elementu honen atal bat agerian geratu zela ikus dezakegu.

modernos adosados y una canalización que baja desde el pueblo hasta la muralla desaguando por debajo de ella en la zona conocida como Las Huertas.

La muralla aparece en los dos solares dividiendo la zona interior de la villa y la exterior. Este elemento con el paso del tiempo aparece cubierto por numerosas edificaciones que se levantan a lo largo de la cerca, tapándola en la mayoría de los casos. En el que nos ocupa se encontraba parcialmente cubierta. Con el derribo se ha tenido que eliminar la parte superior de la misma que hacia de fachada N de estos dos números de casas, si bien se ha conservado en su parte baja, cubierta por los paquetes de relleno y de huertos que se desarrollaban hacia el N de la muralla.

El resultado obtenido es una línea de muralla medieval, de los ss. ^{xii} y ^{xiii}, de 13,20 m de largo, con un ancho variable de 1,80 m en la zona E y 2,40 m en la zona W. Las potencias alcanzadas varían también dependiendo de la zona, aunque cabe señalar que siempre hemos llegado hasta el geológico, agotando la estratigrafía en ambos lados (N y S), así pues se alcanza 1,735 m en el lado N y 1,800 m en el lado S.

En lo que respecta al canal de desagüe: se identifica a ambos lados de la muralla, ya hemos señalado que se desarrolla por debajo de ésta evacuando hacia el N. Sus dimensiones visibles son 0,62 m de ancho con un alto de 0,82 m. Es de fondo plano y aparece evidentemente inclinado en dirección S a N, hacia la zona de huertas extramuros de este pueblo. Si alzamos la vista hacia el cantón que nos lleva a la iglesia podemos ver que en el corte generado durante el vaciado de estos solares ya se descubrió parte de este elemento.

R. Leorza Álvarez de Arcaya

A.9. ELCIEGO

A.9.1. **San Bizente basiliza. San Andres Erriberakoa Herrixka / Inguruak**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Eltziegoko Udala

A.9.1. **Ermita de San Vicente. Entorno / Poblado de San Andrés de la Ribera**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Ayuntamiento de Elciego

During of the course of the restoration work of the gardens and walkways around San Vicente Chapel in Elciego, two tombs were discovered. The archaeological project to restore said tombs finished with two sondages, one of which revealed two new stone slab graves. The prospecting of the whole zone in order to delimit the San Andrés de La Ribera area, in which the chapel is located, revealed the large-scale modification undergone by the region as a result of the local wine-making industry.

San Bizente Baselizaren inguruan, Eltziegon, «*Jardín Mediterráneo Xavier de Arizaga*» izeneko proiektua burura eramaten jarrita bi hilobi geratu ziren agerian aipatutako tenpluaren gibelaldean egokitu beharreko behatoki batentzako zapatak induskatzeko lanetan. Baselizari leku egiten dion muinoaren iparraldeko mazelan jada eraikita zegoen bide bat, batez beste metro beteko sakonera mailara iristen ziren lur mugimenduak eginda, baina toki batzuetan sakonera maila hori handitu egin zutela esan behar dugu. Era berean, hiru espazio egokitu zituzten, tarteko beste hainbeste behatokiri leku egingo zietenak, eta beste espazio bat hegoaldeko mazelaren oinetan, basilizari sarrera egiten dion errepidearen ondoan, aurkitutako sarkofagoari leku egiteko. Sarkofago hau mahasti bat antolatzeke xedean bururatutako lur mugimendu batzuen ondorioz geratu zen agerian. Aurkikuntza hauek guztiak 3. Ereku Arkeologikora, «*San Andres Erriberakoa Herrixka eta San Bizente basiliza*» deitura, biltzen dira, eta jarduera arkeologiko hau eragin zuten ordurako bururatuta zeuden obrek agerian utzitako hondakin arkeologikoei eragindako kalteak neurtzeko, zorupea baloratzeko xedean hainbat puntutan zundaketa batzuk egiteko eta artean bururatu gabe zeuden lanen gaineko jarraipen arkeologikoa egiteko.

Egungo basiliza bera xviii. mendekoa den arren, berez xvi. mendetik aurrera, itxuraz ordukoa baita atelada, ondoz ondo etorritako berritze lanen emaitza baino ez da gaurko tenplua. Hala eta guztiz ere, x. mendekoa izan daitekeen aurreko tenplu baten gainean eraikia dagoela ematen du. Beraz, *San Andres Erriberakoa* betikoz galdutako herrixkako parroquia-eliza zaharra izango zen, inguruetan nekropoli bat baitago eta hartan hainbat hilobi aurkitu baitira denboraren joanean. *San Andres Erriberakoa* herri hustua muinoaren mazelatan egokituko zen, eta eremu honetan aldatutako mahastiek paisaia guztiz eraldatu duten arren, inguruetan oraindik nahikoa erraz aurkitzen dira nola zeramikazko hala hezurrezko hondakinak.

La ejecución del proyecto «*Jardín Mediterráneo Xavier de Arizaga*» en el entorno de la Ermita de San Vicente, en Elciego, provocó la aparición de dos sepulturas durante las obras de excavación de zapatas para un mirador a situar tras el citado templo. En la ladera norte del promontorio donde se levanta la ermita ya se había construido un camino haciendo desmontes que llegaban a 1 metro de profundidad media, aunque en algunos puntos lo superaba con creces. También se habilitaron tres espacios destinados a albergar otros tantos miradores intermedios y otro más para recolocar el sarcófago localizado a los pies de la ladera sur, junto a la carretera de acceso a la ermita, que fue hallado al desfondar el terreno cercano para la creación de una viña. Todos estos hallazgos se incluyen en Zona Arqueológica nº 3: «*Poblado de San Andrés de la Ribera y templo de San Vicente*» y dieron lugar a esta actuación arqueológica para reconocer la afección de las obras ya realizadas sobre los restos arqueológicos aparecidos así como realizar sondeos en puntos determinados para valorar su subsuelo y realizar un seguimiento arqueológico de las obras aún pendientes.

Si bien la fábrica actual de la ermita data del siglo xviii, ésta no es sino resultado de sucesivas reformas desde el siglo xvi, de cuando parece datarse la portada. Aún así, parece que se levanta sobre otra anterior que puede remontarse hasta el siglo x. Sería, pues, la antigua iglesia parroquial de la desaparecida aldea de *San Andrés de La Ribera*, ya que a su alrededor existe una necrópolis de la que ya se han hallado algunas tumbas a lo largo del tiempo. El despoblado de *San Andrés de la Ribera* se extendería en las laderas de la colina y, aunque la plantación de viñas ha alterado sobremanera el paisaje, aún se pueden encontrar fragmentos cerámicos y óseos por los alrededores.



1. zundaketaren ikuspegi orokorra. Bertan harri xabalez osatutako bi hilobiak ikus daitezke.

Vista general del sondeo 1, en el que aparecen las dos sepulturas de lajas localizadas.

Lan arkeologikoetan zehar eta hondeatzeko makina bat baliatuta, agerian utzitako hilobiak estaltzen zizuten betegarriak induskatu genituen; 2 metroko alde gordetzen zuten zundaketa arkeologiko bi egin genituen tarteko behatokitako bat egokituko zen gunean, muinoaren iparraldeko mazelan, eta sarkofagoari leku egingo zion tokian; gainera, *San Andres Erriberakoa* herri hustuari buruzko informazioa bilatzen jarri ginen, nola lur eremua xehe-xehe arakatzuz hala Arabako Herrialdeko artxiboetan gordetzen diren bibliografiak eta dokumentuak aztertuz. Era berean, zuzeneko elkarrizketak egin genizkien Eltziegoko biztanleei.

Ekialdeen aurkitutako hilobia -01. hilobia deitua estaltzen zuten deposituak altxatu eta gero, haren oinplanoa dokumentatu genuen. Geroago, estalkiaren hondakinak kenduta, hilobia okupatzen zuen eskeletoa induskatu genuen. Oso egoera kaskarrean zegoen, ez zegoen osorik, izan ere, zango biak falta zuten. 02. hilobia deituari dagokionez, mendebaldeko muturreko zapata induskatzean agerian geratu zen hilobiari dagokionez, obren osteko jardunek guztiz suntsituta zegoela esan behar dugu, ertzetik erauzi egin baitzituzten agerian geratutako hezurak.

Los trabajos arqueológicos consistieron en la excavación, con ayuda de una máquina excavadora, de los rellenos que cubrían a las sepulturas descubiertas; la apertura de dos sondeos arqueológicos de 2 metros de lado en el emplazamiento de uno de los miradores intermedios, el localizado al norte de la ladera del promontorio y en el punto donde se va a recolocar el sarcófago; además, se procedió a la búsqueda de información sobre el despoblado de *San Andrés de la Ribera*, tanto por medio de la prospección exhaustiva del terreno, como mediante la revisión bibliográfica y documental existente en los archivos de la Provincia de Álava, así como con entrevistas a vecinos de Elciego.

Una vez extraídos los depósitos que cubrían la sepultura más oriental, que denominamos «tumba 01», se procedió a la documentación en planta de la misma. Posteriormente, retirados los restos de la cubierta, se excavó el esqueleto que la ocupaba, en un pésimo estado de conservación e incompleto, ya que le faltaban prácticamente las dos piernas. Respecto a la denominada «tumba 02», la aparecida durante la excavación de la zapata más occidental, se encontraba totalmente destrozada por actuaciones posteriores a las obras, siendo arrancados del cantil los huesos que habían quedado a la vista.

Zundaketen indusketari dagokionez, aurrenekoan, sarkofagoari leku egingo zion eremuan, harri xabalez egindako hilobi biren hondakinak aurkitu genituen, baita orban bi ere, bertako lurraren koloretik nabarmentzen zirenak. Hilobi horietatik bat -03. hilobia deitua- zundaketaren hegoaldeko ertzean azaldu zen, eta bertako eskeletoa ia osorik induskatu ahal izan genuela esan behar dugu, zango bat baizik ez baitzuen faltan. Nolanahi ere den, kontserbazio egoera kaskarrean zegoen, gerritik gora alboratuta zegoelako eta ondorioz saiheutsak guztiz apurtuta zitueltako. 04. hilobia deituari dagokionez, esan dezagun zundaketaren erdialdean geratu zela agerian. Honetatik estalkiko lauzak baizik ez genituen grafikoki dokumentatu, ez genuen edukia induskatu, sarkofagoa puntu honetara noiz ekarriko duten jakin arte.

Bidearen gaineko etorkizuneko igarobidera bilduko diren tarteko behatokitako bat egokituko zen aldean ireki genuen bigarren zundaketa. Indusketa lanen emaitza negatiboa izan zen, hau da, ez genuen egiturarik ez zeramikazko edo bestelako materialik aurkitu. Hala eta guztiz ere, bertako deposituen jatorria laborantzarako terraza batean edo larrain batean, betiere nekazaritzari lotutako egitura batean, dagoela egiaztatu ahal izan genuen..

Geroago, *San Andres Erriberakoa* herri hustuak hartzen zuen espazioa egiaztatu eta ahal zen neurrian mugatzeko xedean, San Bizente Baselizaren inguruko lur eremuetan eta hari leku egiten dion muinoan miaketa intentsibo bat bideratu genuen.

Gai honi lotutako aurreneko ezaugarria da, guztietan garrantzitsuena, San Bizente baselizaren inguru hurbileko paisaia erabat eraldatu izana, batez ere mahasti berriak egokitzeko lur mugimenduen ondorioz guztiz eraldatua izan baita. Kasu batzuetan 2 metroko sakonera bitarte sakondu dute zoruaren mailan. Aldatu berri diren mahastiak nagusiki muinoaren hegoaldean eta ekialdean barrena hedatzen dira, baselizari leku egiten dion eremuan, eta beraz, finka hauetan galduak dira, betikoz, *San Andres Erriberakoa* herri hustuaren hondakinak aurkitzeko aukerak oro. Aitzitik, landu gabeko lur eremuetan, txaradiak nagusi diren aldeetan eta harri naturalak berez azaleratzen diren tokietan, bada desagertutako herrixkaren hondakinak kontserbatu izanaren nahikoa aukerarik. Izan ere, alde hauetan zeramikazko zati batzuk, tornuan landuak eta nola beiratuak hala beiratu gabeak, aurkitu genituen. Era berean, lau angeluko egitura erdi harpetar bat identifikatu genuen. Perimetroko hiru horma kontserbatzen ditu, baina azterketa arkeologiko sakon bat egin gabe ezin ziurta daiteke *San Andres Erriberakoa* herrixkakoa denik.

En cuanto a la excavación de los sondeos, en el primero, localizado en el punto donde se iba a recolocar el sarcófago, se localizaron los restos de dos sepulturas de lajas y varias manchas de color diferenciado en el terreno. Una de las tumbas, a la que se le llamó «tumba 03» apareció en el cantil sur del sondeo, lográndose excavar el esqueleto prácticamente completo, ya que sólo le faltaba una pierna. Su estado de conservación de todos modos se puede calificar de malo, ya que se hallaba ladeado de cintura para arriba, lo que ha provocado que las costillas estuvieran totalmente fragmentadas. Respecto a la «tumba 04», aparecida casi en la parte central del sondeo, únicamente se procedió a documentar gráficamente las losas de la cubierta, no habiéndose excavado su contenido a la espera de conocer la fecha de traslado del sarcófago a este punto.

El segundo sondeo se abrió en el lugar en el que se colocaría después uno de los miradores intermedios incorporados a la futura pasarela sobre el camino. Los resultados de su excavación fueron negativos en el sentido de que no se hallaron estructuras ni restos cerámicos o de otro tipo, aunque se pudo constatar que los depósitos existentes tenían su origen en la creación de una terraza de cultivo o destinada a era, en todo caso, pertenecientes a una actividad agraria.

Posteriormente, con objeto de verificar y delimitar en lo posible el espacio ocupado por el despoblado de *San Andrés de la Ribera*, se procedió también a la prospección intensiva del terreno circundante a la Ermita de San Vicente y al promontorio sobre el que ésta se levanta.

La primera característica y más importante respecto a ello es la fuerte modificación del paisaje que ha sufrido el entorno inmediato a la ermita de San Vicente, sobre todo provocado por el desfonde del terreno para la plantación de nuevas viñas. En algunos casos los desmontes han superado los 2 m de profundidad. El cultivo de la vid de nueva plantación se extiende sobre todo por el lado sur y este de la colina donde se sitúa la ermita habiéndose perdido en estas fincas toda posibilidad de hallar restos del despoblado de *San Andrés de la Ribera*. Allí donde, sin embargo, el terreno ha quedado sin cultivar con vegetación de monte bajo y con numerosos resaltes de la roca natural, la posibilidad de contener restos de esta aldea desaparecida es considerable. De hecho se recogieron algunos fragmentos cerámicos, a torno y tanto vidriados como sin vidriar. También se localizó una estructura cuadrangular semiruprestre conservando tres de sus muros perimetrales aunque su pertenencia a *San Andrés de la Ribera* no se puede garantizar sin un estudio arqueológico de mayores proporciones.

F.J. Ajamil Baños

A.10. IRUÑA DE OCA / IRUÑA OKA

A.10.1. **Mendoza dorretxea**

Zuzendaritza: Rebeca Marina López
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia,
Iruña Okako Udala eta INEM erakundea

A.10.1. **Torre de Mendoza**

Dirección: Rebeca Marina López
Financiación: Diputación Foral de
Álava, Ayuntamiento de Iruña de Oca e
INEM

The archaeological activities of the Torre de Mendoza 09 Archaeology Assistant Training Workshop were directed by the archaeologist Rebeca Marina in collaboration with Miguel Loza and Javier Niso. The activities formed part of a practical archaeology training project.

Esku-hartzea

Interes arkeologikoa

Mendoza Dorretxea kokaleku estrategiko batean dago, Lautada osoa hartzen du mendean, eta mendean hartzen ere zituen, nola erromatarren garaian hala Erdi Aroan, alde honetako komunikazio eta merkataritza bideak oro. Izan ere, alde honetan dokumentatuta daude erromatarren garaiko bidea eta Erdi Arokoa. Mendoza Dorretxea ez zen eraikin isolatu bat, dorretxe multzo bat osatzen baitzuen (beste dorretxe bat Mendozan, Mendibil auzo zaharrean, Martiodako Dorrea, Estarroako Dorrea eta Otoberrengo Dorrea). Egun Mendoza eta Martiodako dorretxeek baizik ez dute zutik irauten, garai batean eremu gotortu bat eratzten zuten biek.

Iturri idatzietan dorretxearen ondoko eraikinak dokumentatzen dira, esate baterako, harresiaren ezkerreko lubanarroa eta «*cortijo y adherentes*» («*ukuilua eta hari atxikiak*») direlakoak, dorretxean justizia egiten zen garaian aipatuak. Era berean, baliteke babesteko dorretxeek berezko zituzten jarduera osagarrietatik etorritako hondakinak kontserbatzea, esate baterako, burdinola, errota eta beste batzuk.

Bestalde, hondakin arkeologikoak dokumentatzen dira dorrearen ondoko eremuan, esate baterako, egun lanabesen biltegiarenak egiten dituen San Martin Kapera Zaharra. Aipatutako kaperatik ekarria da mendozatarren hilobia, dorretxea berritzeko lanetatik etorritako hondakinen artean aurkitutakoa.

Esku-hartzearen deskripzioa

Enplegu tailer batek [10 lagunez osatua eta Sebastián Hocés jaunaren (B eta C Zundaketak) eta Henar Cebrián jaunaren (A Zundaketa) zuzendaritzapean]] lagundurik, balorazio bat egiteko hiru zundaketa egin genituen dorretxearen kanpoko erdiko zelaian. Honatx emaitza interesgarrienak:

Intervención

Interés arqueológico

El emplazamiento de la Torre Mendoza se halla en una situación estratégica dominando toda la Llanada y las rutas de comunicación y comercio durante época romana y medieval, estando documentados en esta zona el trazado de la calzada romana y camino medieval. La Torre de Mendoza no era una torre aislada ya que completaba un conjunto de torres (otra torre en Mendoza en el antiguo barrio de Mendibil, la Torre de Mártioda, la Torre de Estarona y la Torre de Hueto Abajo). Hoy en día solo están en pie las Torres de Mendoza y Mártioda, que formaban un pequeño campo fortificado.

Se hallan documentadas en las fuentes edificaciones contiguas a la torre como son el foso en el flanco izquierdo de la muralla y «*cortijo y adherentes*» citados en época en que la torre ejercía justicia. Así mismo existe la posibilidad de que se conserven restos derivados de actividades auxiliares propias de las torres defensivas de la época, como la ferrería, el molino, etc.

Además se documentan restos arqueológicos en la zona contigua a la torre como es la Antigua Capilla de San Martín, hoy casa de labranza. Procedente de ella el sepulcro de los Mendoza encontrado entre las ruinas de la torre durante su restauración.

Descripción de la intervención

A través de un taller de empleo [compuesto por 10 personas y dirigidas por Sebastián Hocés (Sondeos B y C) y Henar Cebrián (Sondeo A)] se realizaron tres sondeos de valoración en la explanada central exterior a la torre. Los resultados de mayor interés fueron:

B Zundaketa (5x5 m)

001B UE. Laborantzak iraulitako geruza

Lurrak itxura buztintsua zuen eta kolore marroi grisaxka erakusten zuen. Materialak era askotakoak ziren, teilak ugari, eta itxuraz aro garikoak diren zeramikazko zati batzuk; hezurrezko hondakinak ez ziren hainbeste, taila hondakinen bat eta burdin-zepazko hondakinak. Esan dezagun geruza honetan gezi bat aurkitu genuela, itxura batean baleztaz jaurtikitzekoa, sekzio triangeluarreko puntarekin eta gorputz hustuarekin.

002B ETA 003B UEak

Laborantza lanek iraulitako geruzan gutxi gora-behera 45 zentimetro sakonduta, guztiz bestelakoak diren unitate estratigrafiko bitara iritsi ginen: bata (002B) itxuraz argi eta garbi buztintsua bazen, ia materialik gabe, besteak (003B) hasiera-hasieratik erakusten zuen bere baitara errekarri kopuru handi bat biltzen zuela, harriok geruza zuri batez estaliak eta trinkotasun maila ertaineko lur hareatsuekin eta kolorez marroi argi grisaxkarekin nahasirik. Unitate estratigrafiko honek material kopuru txiki bat zeukan.

Unitate bietan topatutako materialak urriak izaki, guk uste dugu zundaketatik gertu igarotzen den Laña ibaiaren alubioizko ekarpenen emaitza direla geruza hauek. Eta buztinak dekantazio prozesuen emaitza izan litezke, geure ibaietan ugari samarrak baitira horrelakoak.

004B eta 005B unitate estratigrafikoak, itxuraz antzekoak direlako, kolorez ere eskuarki bertsuak direlako, biak hala biak buztintsuak direlako eta ia materialik bat ere gordetzen ez dutelako, unitate bakar batera bilduko ditugu, 002B deituko dugun unitate estratigrafikora. Identifikatutako material gutxi horien artean handia da aniztasuna, eta hori haiek osatu dituen dekantazio prozesua luzea izan delako izan daiteke.

006B UE

Ekialdeko ertzeko ebakiak adierazten digu unitate estratigrafiko negatibo bat dagoela, ebaki bat, hegoekialdeko sektorean agerian utzitako buztinak bilduko zituen.

C Zundaketa (5x5 m)

001C UE

Berriro ere laborantza lanek iraulitako geruza da. Zundaketaren hegoaldean harri txiki eta ertainen kopuru handi bat geratu zen agerian gainazaletik gutxi gora-behera 25 bat zentimetrotako sakonera mailan. Harri horiekin nahasirik eraikuntzarako material ugari (kareorea), teila dezente eta aro garaikideko zeramika azaldu zen, azken hau Erdi Aroko zeramika puskaren batekin nahasita. Era berean, animalien hezur batzuk eta burdinazko material gutxi batzuk (batez ere era

Sondeo B (5x5 m)

U.E. 001B Remocion agrícola

La tierra presentaba un aspecto arcilloso y una coloración marrón grisáceo. Los materiales eran muy variados con una clara abundancia de teja, algunos restos cerámicos aparentemente de época contemporánea, presencia media de restos óseos, algún resto de talla y restos de escoria férrea. Destacar que en este estrato nos apareció un dardo, aparentemente de ballesta, de punta de sección triangular y cuerpo hueco.

U.U.E.E. 002B Y 003B

Retirados unos 45 centímetros del estrato de remoción agrícola llegamos a dos unidades estratigráficas completamente diferentes: mientras una de ellas (002B) presentaba un aspecto claramente arcilloso con una casi total ausencia de materiales, la otra (003B) se caracterizaba desde un primer momento por mostrar en su composición gran cantidad de guijarros con una característica capa blanca que los recubre mezclados con una tierra arenosa de compactación media y un color marrón claro grisáceo, esta unidad estratigráfica presentaba materiales en pequeña cantidad.

La escasa presencia de materiales en ambas nos indicaba estratos de procedencia aluvial. Así los guijarros con mezcla de arena y tierra pertenecerían a arrastres aluviales del río Laña próximo al sondeo. Mientras que las arcillas podrán deberse a procesos de decantación bastante abundantes en nuestros ríos.

Las unidades 004B y 005B por la continuidad de su aspecto, coloración general, su carácter arcilloso y casi total ausencia de materiales podemos hablar de una sola unidad que llamaremos 002B. La presencia entre sus escasos materiales de una gran variabilidad puede deberse al largo proceso de decantación que lo ha ido formando.

U.U.E.E. 006B

La existencia de un corte en el cantil este nos indica la existencia de una unidad estratigráfica negativa, corte, que englobaría las arcillas que aparecieron en el sector sureste.

Sondeo C (5x5 m)

U.U.E.E. 001C

Se trata nuevamente del estrato de remoción agrícola. En la zona sur del sondeo aparecía una gran cantidad de piedras de tamaño mediano-pequeño a unos 25 centímetros de la superficie mezclada con dichas piedras apareció gran cantidad de material constructivo (argamasa) bastante teja y cerámica de edad contemporánea mezclada con algún fragmento de cerámica medieval, también aparecieron algunos huesos de animales y algún material férreo (sobre

askotako iltzeak) azaldu ziren. Brontzeko fibula bat da «gainazaleko» geruza harritsu honetan aurkitu genuen beste objektu aipagarria.

Laborantza lanek iraultako geruza honetako (001C) luraren ezaugarriak ondoko zundaketakoaren antzekoak ziren, hau da, itxuraz hareatsua da eta trinkotasun maila ertaina ageri du, kolorez marroi grisaxka. Aitzitik, geruza honetan zundaketa osoan ageri zen kareorea, gainazaleko harrizko maila hau ageri zen kota berean.

002C UE

Laborantza lanek iraultako geruza osatzen zuten harri guztiak altxatu eta gero, ekialdetik mendebaldera/ipar-mendebaldera luzatzen den horma baten egungo gainaldea geratu zen agerian. Horma hau gutxi gora-behera 80 zentimetro lodi da.

Hasiera-hasieratik ikusi ahal izan genuen nola hormaren atal bien arteko lotura betikoz galdua zen laborantza lanen ondorioz.

Horma egituraren alde bietan induskatuta ikusi ahal izan genuen nola hormak errenkada gutxi zituen, gehienez ere hiru lerro gune batean eta berean. Bestalde, errenkada hauek, batez ere mendebaldean, mailakatuta ageri ziren, itxura batean aurrez zegoen lur eremuari egokitzeko.

003C UE

Zundaketaren hegoaldean, laborantza lanek iraultako geruzaren azpian, beste unitate stratigrafiko hau (003C) bereizi genuen. Lur hareatsuaz osatuta zegoen, harri ertainekin eta legarrekin, eta kolorez marroia zen, trinkotasun maila apalarekin. Hezurrezko hondakin ugari azaldu ziren, gehienak etxe abereei zegozkienak, ikatzak, zepa hondakinak, Erdi Aroko zeramika zatiak eta sukarrizko hondakinak. Esan dezagun ipar-ekialdeko sektorean beloizko txanpon bat aurkitu genuela (Alfontso VIII.aren agintaldiaren garaiko dirua).

Material arkeologikoari dagokionez, nagusi ziren faunaren hezurrezko hondakinak (ardi eta ahuntzaren familiakoak), sukarrizko hondakinak eta Erdi Aroko zeramika, eta ugari zen, era berean, kareorea. Urriago ziren burdinazko zepa hondakinak. Gainera, ondo kontserbatzen zen hezurrezko dado bat aurkitu genuen, eta aurkitutako era askotako metalezko materialen artean aipagarria da itxura batean burdinazko gontza dena. Ezin aipa gabe utzi dezakegu unitate honetan zeramikazko zati handiak azaldu zirela. Era berean, berriro ere ballatutako zeramikazko pieza zulaturen bat topatu genuen (ustezko torlojua).

004C UE

Harri amarainoko ebakia, maila geologikoetan induskatua. Material buztintuago batez osatutako zuloa, ehunduraz pikortsua, eskuarki harri eta material arkeologiko gutxiagorekin.

todo clavos de variada tipología). Otro objeto destacable que encontramos entre este nivel «superficial» de piedras fue una fibula de bronce.

Las características que presentaba la tierra de este estrato de remoción agrícola (001C) eran similares a las del sondeo colindante, esto es de aspecto arenoso y compactación media color marrón grisáceo, sin embargo en este destacaba la presencia de argamasa en toda su extensión en estas mismas cotas en las que aparecía este nivel superficial de piedras.

U.U.E.E. 002C

Al retirar completamente todas las piedras que formaban la capa de remoción agrícola nos apareció en superficie la cimera actual de un muro de orientación oeste-noroeste este-sureste y de unos 80 centímetros de anchura.

Desde el primer momento pudimos observar como la conexión entre las dos partes del muro había desaparecido como consecuencia de las tareas de remoción agrícola.

Al ir excavando a ambos lados de la estructura muraria, pudimos observar como esta no disponía de numerosas hiladas, con un máximo de tres en el mismo punto. Por otro lado la disposición de dichas hiladas sobre todo en su lado oeste presentaba un aspecto escalonado parece que adaptándose al terreno preexistente.

U.U.E.E. 003C

En la zona sur del sondeo encontramos, tras la remoción agrícola, esta nueva unidad estratigráfica (003C) formada por tierra arenosa con presencia de piedras medianas y grava, de color marrón y baja compactación. Aparecieron gran cantidad de restos óseos, la mayoría de animales domésticos, carbones, restos de escoria, cerámica medieval y restos de sílex. Resaltamos la aparición en el sector noreste de una moneda de Vellón (dinero de Alfonso VIII).

Respecto al material arqueológico había un gran predominio de restos óseos de fauna (ovicápridos, etc), restos de sílex y cerámica medieval además de argamasa en gran cantidad y algún resto de escoria férrea. También un dado de hueso en buen estado de conservación y entre los variados restos metálicos destaca lo que aparentemente es una bisagra de hierro. También aparecieron en esta unidad grandes trozos de cerámica. Asimismo encontramos alguna pieza perforada de cerámica reutilizada (posible husillo).

U.U.E.E. 004C

Corte hasta la roca madre excavado en niveles geológicos. Fosa rellena con un material más arcilloso y de textura gomosa con menor presencia de piedras y material arqueológico en general.

005C UE

Horma egituraren oinarriko geruza geologikoa, nola ekialdean hala hegoaldean. Kolorez laranja be-
rezia da, eta errekarri txiki ugari ditu. Jatorri alubialeko
geruza dela ematen du, garai historikoetan zehar osa-
tua, zeramikazko materialen bat gordetzen baitzuen.
Zeramika hau, oro har, itxuraz aspaldikoa da, batzuk
oso higatuta daude. Era berean, sukarrizko hondaki-
nen bat identifikatu genuen. Unitate hau guztiz bat da-
tor, nola ezaugarri fisikoetan hala materialetan, on-
doko zundaketako 005B deitutako geruzarekin.

Interpretazioa

Orain zundaketa bietan batera induskatutakoa
interpretatzen saiatuko gara.

0. aldia. Harri Ama

Geruza geologiko naturala. Haren gainean egoki-
tzen dira gainerako guztiak.

1.aldia. Ebakia

Ebaki honek dilistaren formako egitura bat osatzen
du, gehienetan burura eramandako zundaketen ere-
mua gainditzen duena. Ekarpene geologiko hauei
(005B eta 005C) atxikiriko materialen artean aipagari
dira zeramika zati oso higatuak, desgrasante lakar as-
korekin, eta harrizko tresnak. Horregatik uste dugu
historiaurreko edo protohistoriako esparru baten au-
rrean gaudela.

2. aldia. Betegarria

Harriek, lur buztintsuek eta berau amortizatzeko
zuten alubioizko ekarpenek osatutako betegarria. Bete-
garri honetan azaldutako materialak, aitzitik, batez ere
zeramikazkoak izan dira, arku kronologiko guztiz
zehatz batera biltzen direnak. Esan dezagun
txanpona, Alfontso VIII.aren agintaldiari lotuta oso
data zehatza eskaintzen diguna, aldi berean guztiz
bat datorrela aztertutako zeramiken tipologiari eta
oreei legezkiekeen datekin. Kronologia honek erraz
asko har lezake Alfontso VIII.aren agintaldi osoa, hau
da XII. mende amaieran hasi eta XIII. mendearen lehe-
nengo erdialdean buka.

Betegarri hau harresia eraiki aurretik osatu zuten
ibaiaren ondoko eremua berdintzeko xedean, antza
alde honetan desnibelak edo sakonuneak baitzeuden.

3. aldia. Horma egitura

Egitura hau, lodiera nabarmeneko, aski egoera
txarrean iritsi da gure garaira. Etenik izan ez duten
laborantza lanek eraginda eta kontuan izanik egungo
erabilera mailak baino askoz ere kota baxuagoan da-
goela, harri landu gabeak behera etorri dira. Bestalde,
baliteke harri asko eta asko lapurtu izana, batez ere
ekialdean, bost harri baizik ez baitira kontserbatzen ja-
torrizko tokian. Horma estekadura bikoitza du, karez-
tatuta dago, eta hasieran lur buztintsuek batuta ageri

U.U.E.E. 005C

Estrato geológico en la base de la estructura mu-
raria en su sector este y por su lado sur. Presenta una
coloración anaranjada muy característica además de
gran cantidad de grijo de pequeño tamaño. Parece
ser un estrato de procedencia aluvial aunque proba-
blemente de épocas históricas ya que contaba con
algún material cerámico, en general cerámica de as-
pecto arcaico, algunas muy rodadas, pero también al-
gún resto de sílex. Esta unidad se corresponde clara-
mente con la denominada 005B del sondeo
colindante por caracteres físicos y materiales.

Interpretación

Vamos a proceder a interpretar lo que hemos ex-
cavado conjuntamente en los dos sondeos.

Fase 0. Roca madre

Estrato geológico natural sobre en el que se sitúan
todos los demás.

Fase 1. Corte

Este corte forma una estructura lenticular que, en
general, supera los límites de los sondeos realizados.
Resaltar que el material asociado a estos aportes
geológicos (005B y 005C) se caracteriza por presen-
tar cerámica muy rodada, con abundantes y bastos
desgrasantes asociada a industria lítica, por lo que
creemos que nos hallamos en un ámbito pre o proto-
histórico.

Fase 2. Relleno

Relleno compuesto por piedras, tierra arcillosa y
aportaciones aluviales que lo amortizaba. Los mate-
riales que aparecían en este relleno por contraposi-
ción han sido siempre sobre todo cerámicos de un
arco cronológico muy concreto. Destacar que la mo-
neda que nos da una fecha muy clara adscrita al rei-
nado de Alfonso VIII nos proporciona una fecha total-
mente compatible con la tipología y las pastas de las
cerámicas estudiadas. Esta cronología bien podría
abarcar todo el reinado de Alfonso VIII, es decir desde
finales del siglo XII hasta la primera mitad del siglo XIII.

Este depósito de relleno como un paso previo a la
construcción del muro con el fin de allanar una zona
próxima al río y que parecía presentar ciertos desni-
veles o depresiones.

Fase 3. Estructura muraria

Esta estructura, de una potencia considerable, ha
llegado hasta nosotros en unas condiciones un tanto
precarias. Las constantes tareas de laboreo agrícola y
el hecho de no encontrarse a una cota muy baja res-
pecto a los niveles de uso actuales ha podido ocasionar
en gran medida el desprendimiento de parte de
sus mampuestos. Por otro lado tampoco es descar-
table que haya sufrido robos sobre todo en su parte
este donde apenas han quedado cinco piedras en su

dira harriak. Horma honek mendebaldetik/-ipar-mendebaldetik ekialdera/hego-ekialdera luzatzen da, sigisaga ez oso nabarmenarekin baina.

4. aldia. Laborantza lanek nahasitako geruza

Unitate estratigrafiko hau, ohi denez, kronologia askotako materialez nahasirikoa geruzak osatuta dago. Horma egitura eta gainerako maila arkeologiko agerikoak egungo erabilerarako lurraren mailatik hain gertu egonik, are nabarmenagoa da materialen nahasketak hau, laborantza lanek eragindakoa.

Konklusioak

Horma egituraren kasuan, seguru asko egungo dorretxearen inguruko espazioa gaindituko zuen babesteko beste egitura bat da, harresiaren aitzinekoa edo barbakana deitua.

Kasu honetan, jatorri arabiarreko hitz honek, «báb albaqqara» hitzak, duen esanahiari atxikiko gatzazkio, hau da, aziendarendako horma edo horma aurreratu. Gisa honetako gotorlekuek okelaz hornitzeko beharra zutenez, abelburu batzuk eduki behar zituzten eskura, baita bazka eskainiko ziren eremu «itxi» bat ere, eta eskuarki gazteluaren perimetroan egokitzen zen hura. Setiatuei hornigairik gabe utzita amaiera izan zitekeen, eta beraz, abelburuak eta zaldiak ondo asko zaintzen zituzten. Barbakanak ziren abereak zaintzeko garitak. Gainera, gisa honetako gotorlekuetako ateek gurdiak eta zalgurdiak sartzeko eta irteteko modukoak behar zuten, eta egungo harresiko ateek ez ditu inolaz ere baldintza horiek betetzen, estua delako eta ez delako nahikoa garai, ez bederen zaldizko bat eroso igarotzeko moduan.

Bestalde, aztarnategian ugari dira hezurak, gehienak etxeko faunari dagozkionak. Gainera jostatzeko dadoak aurkitu genituen, soldaduek denborapasa erabiliko zituztenak.

Babesteko egitura honen balizko presentzia iradokitzen digun beste elementu bat gazteluaren tipologia da, ikus daitekeen moduan lautadako gaztelu bati dagokiona baita. Gaztelu edo dorretxe mota hau, harri edo muino baten gainean kokatuta daudenak ez bezala, zailagoak dira babesteko garaian. Ibaiaren gertutasuna lagungarria izango zen babesteko funtzio honetan, traba eragingo zuen eta, agian, balizko lubanarro baten egitura beteko zuen urez. Agerikoa da ondo asko ezagutzen diren igarobide eta bideetatik gertu dagoela, azienda garraiatzeko erabiliko ziren bideetatik, balizko abelbideetatik, hurbil.

Perimetroko harresiaren eta dorretxearen beraren arteko barne espazioaren estuak ezinezko egingo zuen espazio txiki honetan babeserako elementuak atxikiriko jarduera osagarriak (soldadu taldeek eskatzen dituztenak) egokitzea; espazio hau, beraz, dorretxeo jaun-andreen bizitzarako barrutia izango zen.

posición. El muro es de doble aparejo careado y está trabado en principio con tierra arcillosa. Su dirección dominante es oeste-noroeste este-sureste, zigzaguea un poco.

Fase 4. Estrato de remoción agrícola

Esta unidad estratigráfica presentaba como suele ser habitual un revuelto de materiales de diversas cronologías. Al estar la estructura muraria, así como el resto de los niveles puramente arqueológicos a una cota tan próxima al suelo de uso actual, esta mezcla de materiales, originada por el laboreo, ha sido si cabe más intensa.

Conclusiones

Hemos topado muy posiblemente en el caso de la estructura muraria con una distribución defensiva, más allá del espacio circundante de la actual torre, conocida como antemuralla o barbacana.

En este caso utilizamos el término en el sentido que tiene en su origen árabe, «báb albaqqara», es decir puerta vaquera. Debido a las necesidades de abastecimiento de carne que tenían este tipo de fortificaciones debían contar con ciertas cabezas de ganado y un «cercado» con pasto, generalmente en el perímetro del castillo. Dejar sin provisiones a los sitiados era un golpe casi definitivo de modo que las reses y las caballerías gozaban de una vigilancia extrema. Las garitas de vigilancia pecuaria eran las barbacanas. Destacar además que las puertas de acceso a este tipo de fortificaciones defensivas debían permitir la entrada de carros y carruajes condición que la puerta que presenta la actual muralla no cumple de ninguna forma ya que es estrecha y no lo suficientemente alta ni siquiera para la entrada cómoda de un jinete.

Asimismo se detecta gran presencia de huesos en el yacimiento, la mayoría de fauna doméstica. También se han encontrado dados de juego con los que la soldadesca pasaría el tiempo.

Otro hecho que nos remite a la posible presencia de esta estructura defensiva es la tipología del castillo que como se puede apreciar es la de castillo en llano. Este tipo de castillos o torres presentan, frente a los situados en roca o en cerro, una mayor dificultad a la hora de defenderlo. La proximidad al río ayudaría en esta función defensiva haciendo él mismo de obstáculo o incluso llenando la estructura de un posible foso. Es también bastante claro su posicionamiento en relación a pasos y caminos bien conocidos, que además podrían ser usados en el transporte de ganado (posibles cañadas).

La estrechez que presenta el espacio interior entre la muralla perimetral y la torre propiamente dicha haría casi imposible la coexistencia en este reducido espacio de las actividades auxiliares y anejas al elemento defensivo (guarniciones militares) con lo que sería propiamente el escenario de desarrollo de la vida no-

Horrexegatik guztiagatik, egun Mendoza Dorretxea izenaz ezagutzen duguna instalazio multzo batetik kontserbatu dena baino ez da, horrelakoetan, areago berau eraiki zuten garaia oso nahasia zela kontuan badugu, ohikoak baitziren dorretxearekin batera eraikiriko elementu hauek. Instalazio osagarri hauek arimak egiteko eta zaldiei ferrak ipintzeko aroztegiak, abereentzako barrutiak edo ukuiluak eta baita burdinolak izan ere zitezkeen.

Arkeologia Laguntzaileak Prestatzeko Tailerraren jardun arkeologiko ez ohiko honen baitan interes handiko elementu arkeologikoak topatu ditugu nola egituraren hala kultura materialaren ikuspuntutik. Aipagarri dira dorreari atxikiriko egiturak eta aztarna materialak, esate baterako, baleztaz jaurtikitzeko gezia, fibula, kobrezko xafla, dadoak eta babesteko egitura honen inguruko okupazioa egiaztatzen duten txanponak.

Esku-hartze honetan egiaztatu ahal izan den bezala, oso oparoa da Erdi Aroko materialak biltzen dituzten testuinguru itxien multzoa.

Material arkeologikoen bolumenak erraz gairatu ditugu hasierako uste guztiak, batetik material asko berreskuratu delako, eta bestetik horiek garrantzi handikoak direlako. Honenbestez, Erdi Aro Beteko kronologiak duten ezinbesteko multzoak berreskuratu dira.

Berreskuratutako material gehiena induskatutako egitura sorta baten amortizazioan topatu genuen. Material horiek, *xii*. mende amaierakoak eta *xiii*. mende hasierakoak, zuzeneko harremana izan dezakete hurbil dagoen Mendoza Dorretxearen eraikuntzarekin.

Materialik oparoena zeramika den arren, oso interesgarria da metalezko materialen multzoa. Hauen artean aipagarri dira burdinazko tresna batzuk, Erdi Arokoak, esate baterako, oso ondo kontserbatu den gezi mutur bat eta txurroren bat. Brontzezko elementuen artean aipagarri dira fibula bat eta zintzilikario bat, biak ala biak Erdi Arokoak. Erdi Arokoak ere dira bertan berreskuratu ditugun txanpon batzuk, batzuk besteak baino kontserbazio egoera hobean.

biliar de los señores de la torre. Es por ello que lo que conocemos hoy en día como Torre de Mendoza no sea más que lo que ha quedado de un complejo de instalaciones que, normalmente, y más en épocas convulsas como las fechas en torno a las que se construyó, la acompañaban. Estas instalaciones auxiliares podrían ir desde herrerías para las armas y los caballos, hasta recintos para los animales, cuadras o incluso herrerías.

Hemos de reconocer que hemos topado, dentro de esta inusual práctica arqueológica del Taller de Formación de Auxiliares de Arqueología, con elementos arqueológicos de interés indudable tanto desde el punto de vista estructural como desde el de cultura material. Estructuras anexas a la torre y evidencias materiales como la punta de ballesta, la fibula, la chapa de cobre, los dados o las monedas nos constatan una ocupación del entorno de esta estructura defensiva.

El conjunto de contextos cerrados con materiales de época medieval en esta intervención es muy amplio.

El volumen de materiales arqueológicos ha superado todas las expectativas iniciales, tanto por su cantidad como por su importancia, recuperando imprescindibles conjuntos de cronologías plenomedievales.

La mayor parte del material recuperado pertenece a la amortización de una serie de estructuras excavadas, cuya cronología de finales del *xii* e inicios del *xiii*, pueden tener relación con la construcción de la cercana Torre de Mendoza.

A pesar de que la cerámica es el material más abundante, el conjunto de materiales metálicos es muy interesante, destacando varios instrumentos en hierro de época medieval, como una punta de dardo muy bien conservada y algún regatón de lanza. En bronce destaca una fibula y un colgante, medievales ambos. Algunas monedas de época medieval en diferente estado de conservación se han recuperado también.

R. Marina; M. Loza; J. Niso

A.11. IRURAIZ-GAUNA

A.11.1. **Ama Birjinaren Jasokunde eliza, Gereñun**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez Zufiaurre
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.11.1. **Iglesia de la Asunción de Nuestra Señora de Guereñu**

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre
Financiación: Diputación Foral de Álava

A stratigraphic study was carried out of the walls of Asunción de Nuestra Señora de Guereñu Church, located in the eastern part of the Province of Alava. The stratigraphic sequence of the work has revealed a series of construction phases, beginning at the end of the 15th or beginning of the 16th century.

Arabako Herrialdearen ekialdean dago Gereñu. Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuak sustatutako eraikina zaharberritzeko proiektuaren baitara biltzen da bertako elizaren azterketa.

Hiru ataletan banatutako habearte bakarra du elizak, gurutze-gangek estalita dago, ekialdeko eta erdiko ataletan tertzelete eta lokailuekin. Oinaldekoa izar-ganga da, atal kurbatuekin eta lorez dekoratutako giltzarriekin.

Burualdea zuzena da, eta absidea angeluzuzena. Absidearen barruan dago erretaula nagusia, xviii. mendekoa. Korua habeartearen oinetan dago, eta dorrea hego-mendebaldeko muturrean. Azken honek oinplano koadroa du, eta bi gorputzez osatuta dago.

Habearteko bigarren atalaren hegoaldeko horman oinplano koadroko kaperak bat irekitzen da izar-ganga batez estalia: egun bataiategiarenak egiten ditu. Sakristia elizaren hego-ekialdean dago, kaperari eta burualdeari atxikirik. Oinplano koadroa du eta harlanduzko ganga trenkatu batez estalita dago.

Hegoaldean dago tenplurako sarrera, bi atez osatuta dagoena, bata bestea baino barrurago; izan ere, eliza-ataria alde honetan dago, eta haren gainean egokitzen da apaiza etxea. Bukatzeko, eliza-atariari eta kaperari oinplano koadroko beste eraikin berri bat atxiki zieten.

Gereñuko Ama Birjinaren Jasokunde elizan bururatutako lanen emaitzek aukera eman digute eraikuntza aldiak banan-banan bereizteko eta zazpi alditan banatzen den bilakaeraren nondik norakoak argitzeko, xv. mende amaierako lehenengo elizatik gure garaira artekoak argitzeko.

1. aldia. 1. eta 2. atalen eta euren gangen eraikuntza. xv. mende amaiera – xvi. mende hasiera

Aldi honetan eraiki zituzten elizaren lehenengo bi atalak, bakoitza dagozkion horma bular eta gangekin.

La localidad de Guereñu se localiza en la zona oriental de la Provincia de Álava. El estudio de su iglesia se enmarca dentro del proyecto de reforma del edificio promovido por el Servicio de Patrimonio Histórico Arquitectónico de la Diputación Foral de Álava.

Esta iglesia presenta una nave única en tres tramos, cubierta con bóvedas de crucería con terceletes y ligaduras en el tramo oriental y central. La bóveda de los pies es estrellada, con combados y claves de decoración floral.

La cabecera es recta con ábside rectangular. En el interior de éste se encuentra el retablo mayor del siglo xviii. El coro se ubica a los pies de la nave y la torre en el extremo sudoccidental, de planta cuadrangular y dos cuerpos.

En el muro sur del segundo tramo de la nave se abre una capilla de planta cuadrada y con bóveda estrellada, que en la actualidad funciona como baptisterio. La sacristía se ubica al sudeste de la iglesia, adosada a la capilla y a la cabecera. Tiene planta cuadrangular y está cubierta con bóveda vaída de sillares.

El acceso al templo es por el sur y tiene dos portadas, una más al interior que la otra por la presencia de un pórtico sobre el que se encuentra la casa cural. Por último se adosa al pórtico y a la capilla una nueva construcción de planta cuadrada.

Los resultados del trabajo realizado en la iglesia de la Asunción de Nuestra Señora de Guereñu han permitido identificar cada una de las acciones constructivas y proponer una articulación temporal de siete fases, desde una primitiva iglesia de finales del siglo xv hasta el presente.

Fase 1. Construcción de los tramos 1 y 2 y sus respectivas bóvedas. Final del siglo xv – inicio del siglo xvi

En esta fase se construyen los dos primeros tramos de la iglesia, con sus contrafuertes y sus bóve-

Bi obra une bereizi ahal izan dira, nahiz eta bietan oso antzekoa den harlanduzko estekadura. Xehetasun batzuetan nabari da aldea, esate baterako. errenkadak aurreko lan ildoaren arabera egokitzeko ahalegina nabari da, eta kazoztatuak hautematen dira.

Lehenengo aldi honetan eraikina seguru asko obretan egongo zen (artearen eraiki gabe izango zuen mendebaldeko pinoia), baina habearteko aurreneko atala prest egongo zen elizkizunak eskaintzeko.

2. aldia. Habeartearen hirugarren atala, dorrearen beheko gorputza, eliza-atari zaharra eta sarrera. XVI. mendearen erdialdea

Aldi honetan segida eman zioten aurreko aldian hasitako obrari, eta habeartearen oinaldeko atala eraiki zuten. Gainera, hego-mendebaldeko muturrean oinplano koadroko dorre bat altxatu zuten. Elizaren barruko ate batek egiten zion sarrera dorreari.

Era berean, eliza-atari zaharra eta sarrera eraiki zituzten. Iturri idatziei esker badakigu obra hau 1593. urtean egin zutela. Ez dakigu nolakoa izango zen eliza-ataria, haren aztarnak oso urriak direlako. Hegoal-

das. Se han podido identificar dos momentos de obra aunque el aparejo de sillería de ambos sea similar. La diferencia viene dada por diversos detalles como que las hiladas intentan seguir la línea anterior de trabajo o la existencia de engatillados.

En esta primera fase seguramente el edificio estaría en obras (sin haberse construido aún el hastial occidental) aunque estaría habilitado el primer tramo de la nave para el culto.

Fase 2. Tercer tramo de la nave, cuerpo inferior de la torre, pórtico antiguo y portada. Medios del siglo XVI

En esta fase se retoma la obra comenzada en la fase precedente, construyéndose el tramo de la nave de los pies. Además, en el extremo sudoccidental se dispone la torre de planta cuadrangular y a la que se accede desde el interior de la iglesia.

También se hace la obra del pórtico antiguo y su portada. Por las fuentes documentales sabemos que se realizó en 1593. De este pórtico desconocemos su configuración, por las pocas evidencias que se han



Gereñuko Ama Birjinaren Jasokunde eliza. Eraikuntza aldian planoak.

Landu gabeko harrizko trenkadan zulo bat irekitzen zuten aldi berean, aurreko fasean deskribatutako baoa, alboak kareorez zarpiatuta zituena, itsutu zuten landu gabeko harriz eta adreiluz, eta gisa horretan itxuraz halako uniformetasun bat eman zioten landu gabeko harrizko hormari.

7. jarduera: Konponketak horman (5. UE, 10. UE, 11. UE, 13. UE)

Fase honetara bildu dugu landu gabeko harrizko trenkadan dokumentatutako konponketa garrantzitsu bat. Antza, horma honen kanpoko aurpegitik behera etorri ziren zati batzuk, buztinez eta lastoz osatutako

ver con la función que tuvo la planta baja como establo de animales, pudiendo ser el hueco en la pared para que los animales bebieran de un bebedero que se encuentra al otro lado del tabique, en el zaguán de entrada.

Fase 4: Apertura de puerta en tabique de mampostería y reparaciones en el mismo

Actividad 5: Apertura de vano en muro de mampostería (U.E.9, U.E.6, U.E.4)


Esta actividad se centra en el momento en el que se decide abrir la puerta actual que comunica el zaguán de entrada ubicado intramuros con los establos extramuros. Se realiza un hueco en todo el alzado del muro de mampostería de la fase anterior, se coloca una puerta de madera y se rellena la parte superior, desde el dintel hasta el comienzo de las vigas que separan la planta baja con la superior, con ladrillos de adobe planos.

Actividad 6: Cegado de estructura de argamasa (U.E.8)

Al mismo tiempo que se abre el vano en el tabique de mampostería, se cegará el hueco con laterales de argamasa descrito en la fase anterior con mampostería y ladrillos, otorgando al muro de mampostería una uniformidad aparente.

Actividad 7: Reparaciones en el muro U.E.5 (U.E.10, U.E.11, U.E.13)

En esta fase se ha decidido incluir una importante reparación documentada en el tabique de mampostería. Parece que la cara externa de este muro sufrió algún desprendimiento que fue reparado con un man-



Caño kalea, 5-7. Aztertutako horma-atala.

C/ Caño, 5-7. Alzado del tramo estudiado.

oreaz eta harriren batez ordeztuak izan zirenak, hori guzti hori, karezko zarpiatu batez estalirik.

5. fasea: Gure garaiko konponketak

8. jarduera: Gure garaiko zementuzko zarpiatzea (14. UE)

Bukatzeko, jarduera honetara biltzen ditugu aztertutako horma atala mozorrotu duten baina aldi berean hormari eusteko garaian baliagarri gertatu diren ekin-tza batzuk. Gure garaiko zementuarekin zarpiatutako aldeez ari gara, aurreko garaietako aurpegien atalak estaltzen dituztenez. Aipagarri dira jatorrizko harresiko junturetako zarpiatuak, jatorrizko harri koskoak eta harlanduen eta landu gabeko harrien ertzak egokiro berdindu eta estaltzen dituztenak.

teado de barro y paja y alguna piedra, cubierto todo ello con una capa de enlucido de cal.

Fase 5: Reparaciones modernas

Actividad 8: Enlucido de cemento moderno (U.E.14)

Finalmente, se ha englobado en esta actividad, una serie de acciones muy actuales que han enmascarado el tramo de muro estudiado, pero que han servido para intentar el desplome de la pared. Se trata de zonas en las que se ha enlucido con cemento moderno, cubriendo parte de los paramentos anteriores. Especialmente destacan los enlucidos de las juntas en la muralla original que cubren los ripios originales y los extremos reales de los sillarejos y mampuestos.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.12.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

A.12.3.1. Gurutze Bidea edo Machimbrao

Zuzendaritza: Kepa Cabrerizo Benito
Finantzazioa: Bastidako Udala

A.12.3.1. Senda de El Calvario o Machimbrao

Dirección: Kepa Cabrerizo Benito
Financiación: Ayuntamiento de Labastida

The «Walking through Vineyards» project aims to recover and embellish the nineteenth century aqueduct or «tongue and groove» structure, excavating part of the water system. This project also involved a series of prospections, particularly on «Castle hill», which served only to confirm the site's enormous archaeological potential.

«Mahastietan barrena paseatzen» proiektuaren abiarazteak, Bastidako hirigunetik gertu dagoen alde («Gurutze Bidea» deitua) partzialki berritzea bila zuenak, hasiera batean eragina izango zuen Ustezko Eremu Arkeologiko hauetan, «San Ginesko finkamenduan» eta «Gazteluko muinoan», biak ala biak Bastidako Hirigune Historikoko Eremu Arkeologikora bilduak. Era berean, eragina izango zuen, eragin apala baina, akueduktu edo «Machimbrado» deituan, kasu honetan babes zehatzik gabeko eraikinean, nahiz eta bertan bururatu beharreko lanen gaineko jarrapen arkeologikoa babestutako eraikina balitz bezalakoa izango zen. Esan dezagun proiektuan hainbat aldaketa egin zirela, jarduera planean eragina izango zuten aldaketak, batez ere San Ginesko finkamenduari bagagozkio, alde hau planetik at gertuko baitzen. Honenbestez, honako lan hauek bururatu genituen:

1. Gurutze Bidearen, San Gines finkamenduaren, Gazteluko Muinoaren eta Gurutze Bideko mendiaren gaineko miaketa. Gurutze Bidearen gaineko miaketa lanetan 1864. urteko Plan Hi-

La puesta en marcha del proyecto «Paseando entre Viñedos», cuyo fin era reformar parcialmente el entorno más inmediato del núcleo de Labastida (la llamada «senda del Calvario»), afectaba inicialmente a la Zona de Presunción Arqueológica del «asentamiento de San Ginés» y al «cerro del Castillo», dentro de la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Labastida. También se iba a incidir levemente en el acueducto o «Machimbrado», en este caso sin protección específica, aunque iba a llevar igualmente un seguimiento arqueológico como si la tuviera. Finalmente el proyecto sufrió algunos cambios que modificaron el plan de actuación, especialmente en lo que al asentamiento de San Ginés se refiere, que fue excluido del plan. Así, las actuaciones realizadas se reducen a:

1. Prospección de la Senda del Calvario, del asentamiento de San Ginés, del Cerro del Castillo y del monte del calvario. De la primera hemos podido identificar varios elementos del



Gurutze bidea edo Machimbrao.
Induskatutako harrizko kanala, 1864. urte
aurreko obra hidraulikoari dagokiona.

Senda de El Calvario o Machimbrao. Canal
de piedra excavado perteneciente a la obra
hidráulica original anterior a 1864.

draulikoaren araberako hainbat elementu identifikatu ahal izan ditugu, esate baterako, Bastidako hirirako iturri publikoari buruzkoak eta lehendik zegoen beste baten berritze lanei buruzkoak, akueduktua ere bere baitara biltzen duen planari buruzkoak. Elementu hauek erregistro bi eta lurraren maila berdintzeko horma dira, baina ez bata ez besteak ez dute obraren eraginik jasan.

San Ginesko finkamenduan batez ere zeramikazko elementuak bereizi ahal izan genituen, beiratuak, aro modernokoak, baita landu gabeko harrizko horma garaiera apalekoak ere. Alde hau Obra Planetik at geratu zenez, ez genuen gehiago sakondu.

Gazteluko Muinoan igoera bidera eta goiko aldera mugatu genituen miaketa lanak. Bidea egiteko, orain dela urte batzuk, une zehatza ezezagun zaigunean, ebaki handi bat egin zuten muinoan, eta hartan agerian geratu zen hainbat metroko lodiera zuen betegarri bat. Hain zuzen ere ebaki horretan aurkitu genituen Erdi Aroko kronologia duten zeramika eta eraikuntzarako materialak, azken hauek kopuru handian, harlanduak barne (haietatik batzuk ondo asko moldatuak).

Gurutze Bideko mendia ez dago inolako babes erregimenpean, baina miaketa lanak haraino eramateko erabakia hartu genuen. Beste elementu batzuen artean, lehen aipatutako sistema hidraulikoa (iturria, deposituak eta kutxak) eraikitzeko garaian baliatu zuten harria erazteko lekuetako bat identifikatu ahal izan genuen.

Plan Hidráulico del año 1864, relativo a la construcción de una fuente pública para Labastida y remodelación de otra ya existente, plan al que pertenece también el acueducto. Estos elementos han sido dos registros y un muro de aterramiento, que no han resultado ser afectados por las obras.

En San Ginés, se pudieron observar sobre todo materiales cerámicos vidriados de época moderna, además de numerosos muros de mampostería de escaso alzado. Como esta zona fue deshechada en el Plan de Obras no se ha incidido más.

En el Cerro del Castillo la prospección se ha centrado tanto en el camino de ascenso como en su parte superior. Para realizar el camino se hizo en algún momento hace algunos años un gran corte en el cerro, que dejó al descubierto un relleno de varios metros de espesor de potencia. Es en este corte donde hemos hallado presencia cerámica de cronología medieval, y material constructivo en grandes cantidades, incluidos sillares (algunos de ellos moldurados).

El monte del Calvario carece de cualquier protección pero decidimos incluirlo en la prospección, logrando identificar en él entre otros elementos uno de los lugares de extracción de la piedra usada para la construcción del sistema hidráulico antes citado (fuente, depósitos y arcos).

2. Akueduktua garbitu eta akueduktuaren eta bidearen arteko atal txiki bat induskatu genuen. Bertan 1864. urteko sistemak hein batean berriro ere aprobetxatzen duen aurreko obra hidrológico bat dokumentatu ahal izan genuen.
3. Hartziko kanala induskatu eta garbitu genuen haren atal batean. Kanal hau 1864. urte aurreko jatorrizko obrari dagokio.
4. Gazteluko Muinora igotzen den bideko areka eraikitze lanen gaineko jarraipen arkeologikoa egin genuen. Lan hauek ez zuten inolako eraginik izan betegari arkeologikoan.
5. Santo Kristo Elizaren ondoko lur mugimenduen gaineko jarraipen arkeologikoa egin genuen. Emaiza, era berean, negatiboa izan zen, eta bide atal honek, xix. mende amaieran eta xx. mendean zehar aldaketa handiak bizi izan dituela egiaztatu ahal izan genuen, geuk kontrolatutako atalean bederen, betikoz galdu baitira aurreko estratigrafiak oro.
2. Limpieza del acueducto y excavación de un pequeño tramo entre éste y el camino, donde se ha documentado una anterior obra hidrológica que el sistema de 1864 reaprovecha en parte.
3. Excavación y limpieza del canal de piedra en una parte de su tramo, canal que pertenecería a esa obra original anterior a 1864.
4. Seguimiento arqueológico en la realización de la cuneta del camino que asciende al Cerro del Castillo. Dicho seguimiento no afecto a relleno arqueológico.
5. Seguimiento arqueológico en la remoción de tierras junto a la Iglesia del Santo Cristo. El resultado ha dado igualmente negativo y se ha podido comprobar que esa parte del camino ha sufrido grandes transformaciones entre finales del s. xix y durante el s. xx que han eliminado (al menos en la parte que se ha controlado) prácticamente cualquier estratigrafía anterior.

K. Cabrerizo Benito

A.13. LAGUARDIA

A.13.1. San Kristobal harpea

III. kanpaina
Zuzendaritza: Javier Fernández Eraso
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia;
Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa

A.13.1. Abrigo de San Cristóbal

III Campaña
Dirección: Javier Fernández Eraso
Financiación: Diputación Foral de Álava; Ministerio de Ciencia e Innovación

During the third season of excavations in San Cristóbal shelter (Laguardia, Álava), work continued on the levels corresponding to the Chalcolithic stables. A wide range of samples and evidence were collected, which indicate successive fires which were set periodically in the area for cleaning purposes. Given the nature of the site, the archaeological material recovered is poor. Nevertheless, several flint arrow tips, bone punches and smooth pottery shards were found, along with a couple of necklace beads.

Kokalekua

San Kristobal harpea Guardiako udal barrutian dago, Payo de los Cabrones izeneko aurkientzan. Honakoak dira haren koordinatuak S.G.E. mapan, 1:50000 eskalan, 170. orrian (Haro): X= 531750; Y= 4716650 eta itsas mailatik gora 921 metrora dago.

Ez da oso harpe handia, 11,75 m ditu ekialdetik mendebaldera eta 6 m iparraldetik hegoaldera, hegoaldeari begira dago eta mendialdeko kretazikoko karehartziko labarretan irekitzen da

Situación

Se sitúa en el término municipal de Laguardia en el sitio denominado Payo de los Cabrones. Sus coordenadas en el mapa del S. G. E. escala 1:50000, hoja 170 (Haro) son X= 531750; Y= 4716650 y su altura sobre el nivel del mar de 921 metros.

Se trata de un abrigo de no muy grandes dimensiones 11'75 m de este a oeste y 6 de norte a sur, orientado al sur y abierto en las calizas cretácicas del escape de la sierra.

Aurrekariak

1999. urtean kata bat hasi genuen bertan, baina legeak aginduta, kata alhora utzi eta zundaketa bat egiten hasi ginen hurrengo urteetan.

Halatan, oso nahasita zegoen maila bat egiaztatu ahal izan genuen, hartan giza hezurak zeuden, eta maila hau metro beteko lodiera gainditzen zuen errautsezko deposituaren gainean egokitzen zela ikusi genuen. Depositu honen azpian azkeneko maila bat erregistratu genuen, eta gune zenbaitetan oinarriko harriaren gainean egokitzen zela egiaztatu genuen.

2007. urteko uztailean zehar bururatu genuen aurreneko indusketa kanpaina. Hartan hamar lagunek osatutako talde batek jardun zuen, UPV/EHUko Historia saileko ikasleek eta irakasleek. Gainazaleko geruza, I. maila, induskatu genuen, eta leku hura okupatu zuten ermitauei zegozkien hezurak atera genituen.

2008. urtean, uztailean ere, II. indusketa kanpaina bururatu genuen. II. eta III. mailak eta IV. mailaren hasiera induskatu genituen, Kalkolitos arokoak. Honako data hauek eskaini zituen Beta Analytic laborategian lortutako datuak:

— II. maila. 3990±40 BP

— IV. maila 4030 ±40 BP

UPV/EHUko Historia saileko bigarren eta hirugarren mailako ikasleek eta historian lizentziatuta dauden beste talde batek osatua egon zen lan-talde hau.

2009ko kanpaina

2009. urteko udan zehar, Arabako Foru Aldundi txit Gorenaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren baimena eta diru-laguntza jasota, hirugarren indusketa kanpaina bururatu genuen. Era berean, Zientzia Ministerioaren HAR2008-03976/HIST ikerketa proiektutik, txosten hau izenpetzen duenaren zuzendaritzapean garatzen den proiektutik, etorritako dirua izan genuen lagungarri. Aurreko kanpainetan landutako leku berak induskatzen jarraitu genuen. Era berean, beste lauki batzuk ireki genituen garai historikoko okupazioaren sekuentziari buruzko informazioa eskaini zezaketen elementuak biltzeko xedean.

Lan hauetan esku hartu zuten Euskal Herriko eta Santiago Compostelako unibertsitateetako Historia sailean lizentziatuek eta ikasleek.

V. maila

Behar bezala induskatzeko xedean, atal bitan banatu genuen, V. maila eta V. azpimaila.

V. maila 3 eta 5 cm bitarte lodi da. Lur kolorez marroi argiak osatuta dago, lur harroa eta ikatz zati askorekin; sakondu ahala ilunago bihurtzen da, tonu ma-

Antecedentes

En él practicamos una cata en el año 1999 que, por prescripciones legislativas, hubo que parar para proseguir con un sondeo los años siguientes.

Así se pudo constatar la existencia de un nivel, muy revuelto, que contenía huesos humanos, que se depositaba sobre un gran depósito de cenizas de más de un metro de espesor. Bajo él un último nivel que descansaba, en algunas zonas, sobre la roca de base.

Durante el mes de julio del año 2007 se efectuó la primera campaña de excavaciones por un equipo formado por diez personas, estudiantes y licenciados en Historia de la UPV/EHU. Se excavó el nivel superficial, el I y se vació el osario perteneciente a los eremitas que ocuparon aquel sitio.

En el año 2008, igualmente durante el mes de julio, se desarrolló la segunda campaña de excavaciones. Se excavaron los niveles II, III y comienzo del IV correspondientes a un Calcolítico que entregaron las fechas siguientes, obtenidas en el laboratorio Beta Analytic:

— Nivel II. 3990±40 BP

— Nivel IV 4030 ±40 BP

El equipo estuvo formado por licenciados en historia y estudiantes de segundo y tercer ciclo de la licenciatura en Historia de la UPV/EHU.

Campaña de 2009

Durante el verano del año 2009 se llevó a término la tercera campaña de excavaciones contando con la autorización y subvención del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Excm^a. Diputación Foral de Álava. De igual manera se contó con dinero procedente del proyecto de investigación HAR2008-03976/HIST del Ministerio de Ciencia e Innovación que se desarrolla bajo la dirección de quien esto suscribe. Se continuó excavando en las mismas zonas en las que se trabajó durante las campañas anteriores. También se abrieron varios cuadros nuevos con el fin de recoger elementos que pudieran informar sobre la secuencia de ocupación de época histórica.

Durante los trabajos colaboraron licenciados en Historia y estudiantes de las universidades del País Vasco y de Santiago de Compostela.

Nivel V

Fue dividido para su excavación en dos tramos diferentes, V y VInf.

El Subnivel V muestra un espesor entre 3 y 5 cm. Está compuesto por una tierra de color marrón claro, suelta y con gran cantidad de carbones que, en la

rroi-gorri iluna (5YR 2.5/2) nagusitzen da, lurra limotsua-hareatsua da, idorra, harroa, errekarri txikiekin eta masan ikatz zatiak dituela. Ez da geruza homogenea haren lodierari bagagozkio. Gainera, klasto kopuru handia biltzen du, eta mendebalderantz okertzen da.

Geruza hau beste geruza beltz eta karbonotsu baten gainean bermatzen da, eta azken hau errautsez, errauts gris-gorrixka argiez (5YR 7/1), osatutako beste geruza baten gainean.

Pedunkulu baten muturra, hegalak eta dekoratu gabeko zeramikazko zatiak berreskuratu genituen maila honetan.

V. azpimailak 17 eta 24 cm bitarteko lodiera adakorra du. Masa ere ez du homogenea, haren baitan era askotako osakerak bereiz baitaitezke.

Hasieran lur gogorra, trinkoa, ia harri bihurtua, ageri da, legar eta ikatz askorekin. Hezea da, oso lakarra eta kolorez marroi zurbila (10 YR 7/3).

Haren masan elkarren gainean egokitutako hiru errauts pakete bereizten dira. Horien osaera, hiruetan antzekoa, oso anitza da. Ez dira metaketa homogeenak, morfologia askotako errautsen bilketa, errauts materialaren araberako bilketa, baizik ez.

Geruzetan induskatu genituen, eta bakoitzetik laginak jaso genituen beharrek azterketa kimikoak egiteko. Errautsezko pakete guztien gainean kolore zurixkako errautsak (7.5YR 7/2.- gris argia. 5Y 7/1.- grisa. 5R 8/1.- zuria), landareen errekontzatic etorritako

medida en que se profundiza, se torna más oscura, tonalidad marrón rojiza oscura (5YR 2.5/2), limo-arenosa, seca y suelta, con cantos rodados de pequeño tamaño y fragmentos de carbón en su masa. No se trata de una capa homogénea en su espesor. Además contiene una gran cantidad de clastos y muestra un buzamiento hacia el oeste.

Esta capa descansa sobre otra negra, carbonosa, que a su vez se sustenta sobre otra de cenizas de tonalidad gris rojiza clara (5YR 7/1).

Se recuperó una punta de pedúnculo y aletas y fragmentos de cerámica lisa.

El Subnivel V Inf. Ofrece un espesor variable entre 17 y 24 cm. Tampoco se trata de una masa homogénea ya que en su interior se pudieron diferenciar varias formaciones diferentes.

Comienza con una tierra muy dura, compacta, concrecionada, con gran cantidad de gravas y carbones. Es húmeda, muy áspera y de coloración marrón pálida (10 YR 7/3).


En su masa se contienen tres montones de cenizas superpuestos. Su composición, similar en los tres, es muy variada. No se trata de amontonamientos homogéneos sino que se forman por acumulación de cenizas de variada morfología, dependiendo del material quemado.

Se excavaron por capas tomando muestras de cada una de ellas para su análisis químico. Todos los montones estaban coronados por cenizas de color blanquecino procedentes de la quema de materiales vegetales (7.5YR 7/2.- gris claro. 5Y 7/1.- gris. 5R 8/1.-



San Kristobal harpea. V. azpimailako errautsezko metak.

Abrigo de San Cristóbal. Montones de ceniza del nivel V Inf.



San Kristobal harpea. VI, V eta V azpimailetako materialak.

Abrigo de San Cristóbal. Materiales de los niveles VI, V y V Inf.

errautsak, bereizten ziren. Gainerakoan tonuz arrea-goak, beltzak eta gorriak diren geruza meheak bereizten dira. Geruza mehe hauek gorozaren errekuntzatik, abereek zapalduetakotik eta erretako lurretatik etorriak dira (5YR 3/1.- gris oso iluna. 7.5R 4/2 .- marroia. 10R 3/2.- gorri bizia). Errautsezko meta hauek oinplano gutxi gora-behera zirkularreko kubeta baten gainean egokitzen dira. Kubeta honek gutxi gora-behera 80 cm-ko diametroa du ekialdetik mendebaldera, eta 75 cm-ko diametroa iparraldetik hegoaldera, eta 9 metro sakon da. Eskuarki antzuak dira metaketa hauek.

Azpi maila osoan pedunkulu eta hegal mutur zenbait berreskuratu genituen, hosto itxurako ojiba bat, igitai baten atal distiranta, upelatxoaren formako ale kolorez berde bat, oreinaren adarrean landutako ziri bat eta dekoratu gabeko zeramikazko zatiak.

C-14ren bidez datatu eta honako emaitza hauek lortu ziren maila honi begira: 4080±40 BP.

VI. maila

Arestian azaldutako errautsezko hiru paketeen azpian ageri da, V. azpi mailaren azpian. 16 eta 24 cm bi-

blanco), en tanto en el resto de diferencian otras capas de tonalidades más parduzcas, negras y rojizas producto de la combustión del estiércol, de las zonas de pisoteo de las bestias y de tierras rubefactadas (5YR 3/1.- gris muy oscuro. 7.5R 4/2 .- marrón. 10R 3/2.- rojo fuerte). Estos montones se asientan sobre una cubeta de planta aproximadamente circular de 80 cm de diámetro en dirección este oeste, 75 en la de norte a sur y 9 de profundidad. Por lo general los montones son estériles.

En todo el subnivel se recuperaron varias puntas de pedúnculo y aletas, una ojiva foliácea, una pieza de hoz con lustre, una cuenta de collar en forma de tonelete de color verde, un punzón en asta de ciervo y fragmentos de cerámica lisa.

Para este nivel se obtuvo la datación, por C-14, de 4080±40 BP.

Nivel VI

Subyace a los tres montones, unidades de combustión, del nivel V Inf. Su espesor es variable entre

tarteko lodiera ez homogenea du. Lurra kolorez marroia da (7.5YR 4/3), alde batzuetan limotsua, harroa, klasto eta sustraiekin, eta besteetan hareatsua, lakarra eta baita plastikoa ere, betiere ikatz zatiekin. Haren masan zulo bat bereizi genuen, sutegi egitura bat eta goiko mailan deskribatutako errekontza unitatearen antzeko beste unitate bat.

Haren masan hezurrean landutako ziri bat eta disko formako ale bat, kolorez granatea, aurkitu genituen.

Maila honi begira bi datazio absolutu lortu dira C-14ren bidez:

– 4100±40 BP-

– 4170±40 BP.

Kanpaina honetan eta aurrekoetan agerian utzitako multzo osoa Metalen aurreneko Aroaren baitara biltzen da (Kalkolitos arora).

los 16 y los 24 cm. Se trata de una tierra de color marrón (7.5YR 4/3), limosa, suelta con clastos y raíces, en unas zonas, mientras que en otra se muestra arenosa, áspera y aún plástica, en otras, siempre con carbones. En su masa se localizó un hoyo, una estructura de hogar y una nueva unidad de combustión similar a las descritas en el nivel superior.

De su masa se recogió un punzón de hueso y una cuenta de collar discoide de color granate.

Para este nivel se han podido obtener dos fechas absolutas por C-14:

– 4100±40 BP-

– 4170±40 BP.

Todo el conjunto exhumado hasta esta campaña se sitúa dentro de la primera Edad de los Metales (Calcolítico).

J. Fernández Eraso

A.14. LANTARÓN

A.14.1. **Tentsio handiko linea eta ziklo konbinatuko zentrala**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez

Zufiaurre

Finantzazioa: Gas Natural SDG S.A.

A.14.1. **Línea de alta tensión y central de ciclo combinado**

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre

Financiación: Gas Natural SDG S.A.

Our intervention consisted of a systematic prospecting followed by the digging of a total of nineteen ditches in the area in which the Lantarón combined cycle power station is due to be built, as well as at the location of the high voltage cable line pylons which will link the power station to the substation located in Puentelarrá. No results of interest were found.

Ukitu beharreko lur eremu osoan miaketa sistematiko bat egin ostean eraman genuen burura esku-haritze hau. Ondoren 12 zundaketa egin genituen ziklo konbinatuko zentral termikoak hartuko duen esparruan, denak 10 x 2 metrokoak. Era berean, beste 7 zundaketa ireki genituen tentsio handiko lineari leku egingo dion eremuan, hauek 2 x 2 metrokoak. Historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik ez genuen emaitza interesgaririk jaso. Etorkizunean, obrak hasten direnean, lur erauzketen gaineko jarraipen arkeologikoa egin beharko da.

Intervención desarrollada en base a la realización previa de una prospección sistemática de todo el terreno afectado. Posteriormente se abrieron 12 sondeos en la zona de la central térmica de ciclo combinado, con unas dimensiones de 10 x 2 m y 7 sondeos en la zona de la línea de alta tensión, con unas dimensiones de 2 x 2 m. Los resultados de la misma han sido de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro mediante un seguimiento arqueológico, la retirada de tierras en el momento de inicio de las obras.

B. Renedo Villarroya

A.15. MOREDA DE ÁLAVA

A.15.1. **Santa Maria eliza**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez Zufiaurre
Finantzazioa: Euskal Kultura
Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza

A.15.1. **Iglesia de Santa María**

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre
Financiación: Centro de Patrimonio Cultural Vasco. Gobierno Vasco

A stratigraphic study was carried out of the walls of Asunción de Santa María de Moreda de Álava Church, located in the south-eastern part of the Province of Alava. The stratigraphic sequence of the work indicates a series of construction phases, ranging from the remains of a medieval building to modern day structures.

Arabako Lurralde Historikoaren hego-ekialdean dago Moredako herria. Bertako elizaren azterketa Eusko Jaurlaritzak Kultura Ondare gisa katalogatzeko prozesuaren baitan kokatzen da. Horrexegatik eskatu zuten Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzuak higiezinaren inguruan egiten ari ziren txostena osatuko zuen balorazio arkeologiko bat egin genezan.

Gurutze latindarraren araberako oinplanoa du elizak, habearte atal bi, burualdea eta gurutzadura. Estilo platereskoko sarrera habeartearen lehenengo atalaren hegoaldean dago. Izar-gangez estalita dago habearte, tertzeleteekin eta dekoratu gabeko giltzarriekin, izarrez dekoraturik, dena landare motiboez eta motibo geometrikoen margoturik. Laranja erdiko kupula du gurutzadurak, maskorretan bermaturik, eta alboetan luneta-gangak ditu.

Hegoaldean dago sakristia, habeartearen bigarren atalari atxikirik, bertan baitu sarrera. Oinplano angeluzuzena du, eta behekatutako kupula formaz obalaz estalita dago.

Elizaren hego-mendebaldeko angeluan altxatzen da oinplano koadroko dorrea. Elizaren barruko aldean dago dorrerako sarrera, eta eskailera kiribila du.

Elizaren barruan, mendebaldean, korua dago. Dorreko eskailerak egiten dio sarrera koruari. Elizaren barruan ere, hainbat erretaula daude, eta gurutzadura eta kapera nagusia pinturez dekoratuta daude.

Moredako Santa Maria elizan bururatutako lanek aukera eman digute eraikuntza ekintza guztiak bereizteko eta lan horiek denak sei alditara biltzeko, seguru asko Erdia Aroan eraikiko zuten aurreneko elizatik hasi eta egungo elizarekin amaitu arte.

1. aldia. Erdi Aroko eliza baten ustezko hondakinak

Lehenengo aldi honetan kokatu behar dugu habeartearen ekialdearen hegoaldeko hormaren beheko

La localidad de Moreda se localiza en la zona su-oriental del Territorio Histórico de Álava. El estudio de su iglesia se enmarca dentro del proceso para su catalogación como Bien Cultural por parte del Gobierno Vasco. Por ello se solicitó desde el Centro de Patrimonio Cultural Vasco una valoración arqueológica que completara el informe que se estaba realizando del inmueble.

La iglesia presenta planta de cruz latina con dos tramos de nave, cabecera y crucero. La portada plateresca se abre al sur en el primer tramo de la nave. La nave está cubierta con bóvedas estrelladas con terceletes y claves lisas, decoradas con estrellas, todo cubierto de pinturas con motivos geométricos y vegetales. El crucero tiene cúpula de media naranja apoyada sobre pechinas, y a los lados bóvedas de lunetos.

La sacristía se ubica al sur, adosada al segundo tramo de la nave por donde tiene su acceso. Es rectangular cubierta con cúpula oval rebajada.

La torre, de planta cuadrada, está en el ángulo su-occidental de la iglesia. Se accede a ella desde el interior de la iglesia y presenta escalera de caracol.

En el interior se sitúa el coro alto, en la zona occidental. Se accede a él a través de la escalera de la torre. Además, en el interior se disponen varios retablos y el crucero y la capilla mayor se encuentran decorados con pinturas

Los resultados del trabajo realizado en la iglesia de Santa María de Moreda han permitido identificar cada una de las acciones constructivas y proponer una articulación temporal de seis fases, desde la primitiva iglesia posiblemente medieval hasta el presente.

Fase 1. Posibles restos de una iglesia medieval

A esta primera fase pertenece la parte baja del muro sur del tramo oriental de la nave. Está realizado

aldea. Zizelez landutako hareharrizko harlanduz egina da. Atal honek ageri duen kolorea ez da hura inguratzen duten horma atalen kolorearen berdina, eta gainera kanpoko aldean goratutako zokaloa ez duen alde bakarra da.

Aztarna bakar honekin ezin asmatu dezakegu nolakoa izango zen lehenengo eliza hura, baina bi aukera daude hondakinok interpretatzeko garaian:

1. Baliteke egungo elizaren proiektuari erantzuten ez zion aurreko eliza bat izatea. Hala balitz, seguru asko Erdi Aroan kokatu beharreko eliza litzateke.
2. Baliteke *xvi.* mendeko proiektuaren araberako lehenengo aldiko obra izatea. Hala balitz, 2. aldiko lanek emango zioten jarraipena.

2. aldia. *xvi.* mendea

Aldi honetan eraiki zituzten elizaren habearteko hormak, egungo oinplanora egokituta, zutarriek bereizitako atal birekin. Hormak obra aldi bitan eraiki zituzten. Lehenengoan hareharriak pikatxoi edo zizelez landuta daude, eta begi bistakoa da bigarren erabiliak direna. Bigarren obra aldian egitura aurreneko obratik gora eraman zuten, eta atal honetako hareharriak pikatxoiz landuak direla esan behar dugu, harlanduak erregularrak direla, trazu erregularrez osatuak.

Aldi honetan kokatu behar dugu, era berean, dorrearen oinarria. Habeartearen hego-mendebaldeko bazterrean ireki zuten dorrerako sarrera.

en sillería de areniscas labradas a cincel. Su color se diferencia ligeramente de las piedras de las obras que la rodean, y además es la única zona que carece de zócalo elevado al exterior.


Con esta única evidencia desconocemos cómo sería la iglesia primitiva, aunque hay dos posibilidades a la hora de interpretar los restos:

1. Podrían ser de una iglesia anterior con un proyecto diferente al de la iglesia actual. En este caso se trataría de una iglesia seguramente medieval.
2. Podría ser la primera etapa de obra del proyecto del *xvi.* siglo, siendo en este caso continuada con las etapas de la fase 2.

Fase 2. Siglo *xvi.*

En esta fase se construyen los muros de la nave de la iglesia, formando la planta actual con dos tramos separados por pilastras. Los muros se realizan en dos etapas de obra. La primera está realizada en sillería arenisca labradas con picón o puntero, con claras evidencias de haber sido reutilizadas. El segundo momento de obra se eleva por encima del primero y está realizado en sillería regular de arenisca labrada con picón con trazos regulares.

Esta obra también incluye la base de la torre, a la que se accede por la esquina suroeste de la nave.



Moredako Santa Maria elizaren hormen azterketa arkeologikoa. Eraikuntza aldian planoak. «Gasteizko Elizbarrutiaren Monumentuen Katalogotik» abiatuta egindako dago oinplanoa, I. Liburukia, 120. orrialdea. hegoaldeko horma krokis bat da, eta beraz ez du balio metrikorik bat ere.

Análisis arqueológico de los alzados de la iglesia de Santa María de Moreda. Plano de fases constructivas. La planta está realizada a partir de la del «Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria», Tomo I, pág. 120. El alzado sur es un croquis, por lo que no tiene validez métrica.

Aldi honetan eraiki ere zuten estilo platereskoko sarrera, sarrera hau argi eta garbi biltzen baita sarrearen mendebaldeko horma atalera.

Geroago, aldi honetan baina, hormak goratu egin zituzten gangen abiapuntuen altueraraino, hegoaldeko hormaren ekialdeko atala izan ezik. Pikatxoiz eta diagonalean landutako hareharrizko harlanduz osatua da estekadura guztia.

Azkenik, obraren hirugarren eta azkeneko fase honetan, amaitu egin zuten habeartean eraikuntza. Gangak eraiki zituzten eta koru garai bat antolatu zuten mendebaldeko pinoian.

Obra gauek guztiak proiektu bakar batera biltzen dira, xvi. mendeko proiektura, nahiz eta haietan beste-lako lan taldeek jardun zuten ondoz ondo.

3. aldia. Dorrearen goiko aldea (xvii. mendea)

Une honetan eraiki zuten dorrearen bigarren gorputza. Beheko gorputzean bezala, harlanduak erabili zituzten bigarren honetan, baina harriok ez daude hain ondo landuak, eta junturak handiagoak, zabalagoak, dira. Moldurez dekoratutako erlaitz baten gainean oinarritzen da, eta lau aurpegietan zirkulu erdiko bao bana irekitzen da kanpaiei leku egiteko. Laranja erdiko kupula batez estalita dago.

4. aldia. Burualdea eta gurutzadura (xvii. mende bukaera - xviii. mende hasiera)

Burualdea eta gurutzadura eraiki zituzten pikatxoiz landutako hareharriekin. Gurutzadurak oinplano angeluzuzena du, eta maskorretan oinarritutako laranja erdiko kupula batez estalita dago. Burualdeak oinplano angeluzuzena du, eta luneta-gangez estalita dago. Nola burualdea hala gurutzadura horma-pinturez dekoratu zituzten geroago.

Badakigu obra hau 1698 eta 1704 urte bitartean egin zutela, eta aski obra erregularra den arren, halako aldaketak nabari dira nola obretan hala burualdeko nahiz gurutzadurako hormen planoetan. Bestalde, harlanduz osatutako errenkada bat bereizi genuen zeinetan harriek zulo bana ageri zuten (zuloak harlanduen erdian eginak, garabiaren kakoa sartu ahal izateko).

Garrantzitsua da aldi hau, une honetatik aurrera elizak gurutze latindarraren araberako oinplanoa izango baitzuen, burualde zuzenarekin, luneta-gangez estalirik, gurutzaduraren besoak bezala.

5. aldia. Sakristia eta erretaulak (xviii. mendea)

Aldi honetan erretaulak paratu zituzten elizaren barruan. Garrantzitsuena aldare aldean kokatutako erretaula nagusia da. Estilo barrokokoa, oinarri batez eta solairu biz osatua da. 1710 eta 1715 urte bitartean eraiki zuten. Urte batzuk geroago berriro egin zuten.

También se construye la portada plateresca, algo que conocemos por la integración clara de ésta con el paño situado al oeste de la portada.

Posteriormente, aunque dentro de la misma fase, elevan los muros hasta la altura del arranque de las bóvedas, menos en el tramo oriental del muro sur. Todo el aparejo es sillería de arenisca labrada a picón diagonal.

Por último, en una tercera y última etapa de obra, se finaliza la nave. Se construyen las bóvedas y se añade un coro alto en el hastial occidental.

Todas estas obras forman parte de un proyecto unitario, enmarcado en el siglo xvi, a pesar de la intervención, en momentos sucesivos, de diferentes equipos de trabajo.

Fase 3. Remate de la torre (Siglo xvii)

En este momento se hace el segundo cuerpo de la torre. Realizado en sillería como el cuerpo inferior, pero sus sillares tienen una ejecución menos precisa y las juntas son más amplias. Se apoya sobre una cornisa moldurada y se abren cuatro vanos de medio punto en cada una de sus caras, donde se localizan las campanas. Se cubre con cúpula de media naranja.

Fase 4. Cabecera y crucero (Finales siglo xvii - Inicios siglo xviii)

Se construyen la cabecera y el crucero, ambos realizados en sillería de arenisca labrada a picón. El crucero es de planta rectangular, cubierto con cúpula de media naranja apoyada sobre pechinas. La cabecera es rectangular, cubierta por bóvedas de lunetos. Tanto ésta como el crucero posteriormente fueron decorados con pinturas murales.

Sabemos que la obra se hizo entre 1698 y 1704 y, aunque bastante regular, presenta variaciones en su factura como el cambio de plano en los alzados tanto de la cabecera como del crucero, o la existencia de una hilera de sillares con gafas (huecos en el centro del sillar para insertar el gancho de la grúa).

Esta fase es importante porque a partir de este momento la iglesia presenta una planta de cruz latina con cabecera recta cubierta con bóvedas de lunetos, al igual que los brazos del crucero.

Fase 5. Sacristía y retablos (siglo xviii)

Dentro de esta fase se ubican en el interior los retablos. El más importante es el retablo mayor situado en el altar. De estilo barroco, se compone de bancal y dos pisos. Fue construido entre 1710 y 1715, reformándose años después.

Elizako gainerako erretaulak, sei erretaulak, xviii. mendean zehar eraiki zituzten. Erretaula hauez guztiez gainera, lau irudiz dekoratu zuten eliza. Hauek hainbat egileren obrak baziren ere, garai ezberdinetan eginak baziren ere, denak barrokoan kokatu beharrekoak dira. Barruko horma bularretan ipini zituzten.

Sakristia da aldi honetan kokatu beharreko beste obra bat. Sakristia habeartearen hegoaldeko hormari atxikita eraiki zuten, bigarren atalean. Oinplano angeluzuzena du eta beheartutako kupula formaz obalake estalita dago. Harlanduz egina da, horma bular sendoak ditu, eta molduraz dekoratutako erlaitz bat du goiko aldean, hartan teilatua bermatzen dela.

Aldi honetan, bukatzeko, hainbat obra egin zituzten, esate baterako, gurutzaduraren iparraldeko horman zegoen elizarako sarrera itsutu zuten, Andre Maria Doloretako aldea eraiki zuten, tenpluaren barruko aldea horma pinturez apaindu zuten eta bi pulpitu eraiki zituzten. Bestalde, garrantzi apalagoko beste lan batzuk egin zituzten.

6. aldia. xix. eta xx. mendeak

Era askotakoak dira aldi honetan egindako obrak, baina gehienak elizaren barrunbean egin zituztela esan behar dugu.

xix. mendean, besteak beste, korua berritu zuten. 1814. urtean egindako aulkiteria ipini zuten koruan. Eskudel zaharraren tokian burdinazko bat ipini zuten, eta organo bat ekarri zuten. Sakristian leiho bat ireki zuten, eta bertan ziren hutsuneak armairuak egokitzeko aprobetxatu zituzten. Kanpoko aldean hormazulo batzuk ireki zituzten ferra-arku hiruz osatutako egitura bati eusteko. Egitura hau egun desagertuta den ondoko baseliza batetik ekarri zuten.

xx. mendean santutegi aldeko erretaula nagusia birmoldatu zuten. Era berean, ferra-arkuz osatutako egitura lekuz aldatu zuten, eta elizaren oinaldean egokitu zuten. Zinborioa edo ganga berritu eta komuna eraiki zuten sakristiaren ekialdean. Elizan berokuntza sistema ipintzeko beharrezkoak ziren lanak egin zituzten, baita garrantzi xumeagoko beste lan batzuk ere, elizak egun duen itxura eskaini arte.

Konklusioak

Moredako Santa Maria elizan egindako azterketa stratigrafikoaren ondoren, ondo asko ezagutzen dugu tenplu honek bere eraikuntza prozesuan zehar bizi izan duen bilakaera guztiz interesgarria. Abiapuntua seguru asko Erdi Aroan kokatu behar dugu, guxtienez xi. mendekoak baitira iturri idatzietan egiten diren aipamenak. Aitzitik, kontserbatu den aurreneko obra geroagokoa da, seguru asko Behe Erdi Arokoa.

Elizaren sekuentziak segida izan zuen xvi. mendean atal biz osatuta habeartea, izar-gangez estalia, eraiki zutenean. xvii. mendean dorrearen goiko gorpu-

El resto de retablos de la iglesia (hasta seis) se realizaron a lo largo del siglo xviii. Además de estos retablos, se dota a la iglesia de cuatro imágenes que se disponen en los contrafuertes internos, de diferentes autores y épocas aunque todas ellas barrocas.

Otra obra enmarcada en esta fase es la sacristía, adosada al muro sur de la nave, en su segundo tramo. Tiene planta rectangular y cubierta con bóveda oval rebajada. Realizada en sillería con los contrafuertes sobresalientes, está rematada con una cornisa moldurada sobre la que se apoya el tejado.

Por último se realizan una serie de obras como el cegado del acceso a la iglesia por el muro norte del crucero, el altar de la Dolorosa, la decoración del interior con pinturas murales o la creación de dos púlpitos, además de una serie de obras de menor calado.

Fase 6. Siglos xix y xx

Las obras que se realizan en esta fase son variadas y afectan principalmente al interior de la iglesia.

En el siglo xix, entre otras actuaciones, se reforma el coro. Se le añade una sillería cuya construcción data de 1814. Se sustituye la antigua barandilla por otra de hierro y se dispone el órgano. Se abre una ventana en la sacristía y se distribuyen los huecos existentes en la misma para crear armarios. En el exterior se abren unos mechinales para sujetar una estructura formada por tres arcos de herradura proveniente de una ermita cercana a la iglesia, hoy desaparecida.

En el siglo xx se modificó el retablo mayor en la zona del sagrario. También se modificó la ubicación de la estructura de arcos de herradura situándola en la zona de los pies de la iglesia. Se reforma el cimborrio, se ubica un servicio en la zona oriental de la sacristía, se realizan las obras necesarias para la introducción de calefacción en la iglesia y una serie de actuaciones menores que dan a la iglesia el aspecto que presenta en la actualidad.

Conclusiones

Tras el estudio estratigráfico realizado en la iglesia de Santa María de Moreda hemos podido conocer su interesante evolución a lo largo de su desarrollo constructivo, iniciado posiblemente en época medieval, algo que constatamos gracias a las menciones documentales desde al menos el siglo xi. Sin embargo la primera obra conservada ha de considerarse más tardía, probablemente bajomedieval.

La secuencia de la iglesia sigue con la creación de la nave con dos tramos cubiertos con bóvedas de estrella en el siglo xvi. En el siglo xvii sólo se documenta

tza eraiki zuten, kanpaiei leku egiteko gorputza. Baina xvii. mende amaieratik eta xviii. mende hasieratik aurrera obra gehiago egin zituzten, tartean burualdea eta gurutzadura eraiki zituzten, eta elizaren barruko alde horria-pinturez dekoratu zuten. xviii. mendean zehar erretaula ugari eta pulpituak eraiki zituzten, baita sakristia ere. xix. mendean korua eta sakristia berritu zituzten, eta xx. mendean zinborio edo ganga eta alde horria, Vatikanoko II.a Kontzilioaren arabera erreforma liturgikoari egokitzeko xedean.

Interesgarria da habeartea eraikitzeko obretan zehar lan-talde ezberdinak jardun izana, baita mende bat geroago ere burualdea eraiki zutenean. Finantza arazoak isla da hori, edo obren aurreko ezadostasunen isla. Nolanahi ere den, aztertu beharreko alderdi interesgarriak dira horiek biak.

la obra de remate de la torre con su cuerpo de campanas. Por el contrario, desde finales del xvii y comienzos del xviii se realizan más obras como la creación de cabecera y crucero y la decoración del interior con pinturas murales. En el transcurso del siglo xviii se disponen en la iglesia numerosos retablos y púlpitos y se realiza la sacristía. En el xix se reforma el coro y la sacristía y en el siglo xx el cimborrio y la zona del altar, adecuándose a la reforma litúrgica del Concilio Vaticano II.

Resulta interesante la sucesión de diferentes equipos de trabajo durante las obras de construcción de la nave, así como en la cabecera un siglo después. Es un reflejo de problemas en la financiación o desacuerdos sobre la marcha de las obras, aspectos interesantes para su estudio en cualquier caso.

L. Sánchez Zufiaurre; B. Renedo Villarroya

A.16. PEÑACERRADA-URIZAHARRA

A.16.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

A.16.1.1. Saturnino Bajo kalea, 2

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Josu Fernández

A.16.1.1. Saturnino Bajo, 2

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Josu Fernández

From the excavation of the sondage carried out on this site, we can conclude that the site has been used as livestock stables throughout almost the entire 20th century, after the rubble of the pre-existing building was used to raise and level the terrain. The cobbled floor laid down at the time was later replaced at the end of the last century, when two layers of concrete were laid down, underneath which a drainage system was created.

Orube honen jabeak bertan eraikin berri bat altxatzeko agertutako asmoak eragin zuen esku-hartze arkeologiko hau. Zundaketa bakar bat ireki genuen orubearen erdialdean, orubearen azaleraren ia erdia hartuko zuena.

Hondeatzeko makina baten laguntzarekin orubearen luze zabaleran elkarren gainean egokitutako hormigoizko zoladura biak altxatu genituen: aurrez zehar zoruak ebakitzen zituen kanalizazio sare bat geratu zen agerian. Kanalizazio sare hau adreilu barne hutsekin eta zementuarekin eraikia zen, aspaldikoa ez dena agerian utzita. Kanalizazio hauek harriz eta lur zanpatuz eginitako zoruak ebakitzen zuten. Lur zanpatuak aurreko zoladuratik piezak galdu izanaren ondorioz sortutako hutsarteak betetzen zituen. Pieza hauek kareharri handiak ziren, ertzak baizik ez zituzten ber-

Esta intervención arqueológica ha estado motivada por la intención del propietario de este solar de construir un nuevo edificio, excavándose un único sondeo en la parte central del solar, que alcanzó prácticamente la mitad de su superficie.

Los trabajos se iniciaron eliminando mediante la acción de una máquina excavadora las dos soleras de hormigón superpuestas que se extendían por toda la superficie del solar, localizándose una red de canalizaciones que cortaba los suelos preexistentes. Su construcción a base de ladrillos huecos y cemento nos da una idea de la poca antigüedad de su origen. Cortaban a un suelo que conjugaba el empedrado y la tierra batida, la cual rellenaba los huecos en los que había desaparecido el anterior como consecuencia de la pérdida de piezas. Éstas eran bloques de piedra caliza

dinduak, irtengune zorrotzak saiheste aldera. Zoru hauek berdintzeko eta goratzeko betegarriak ere lehen aipatutako kanalizazioek ebakita zeuden, eta betegarri horietan material arkeologiko batzuk topatu genituela esan behar dugu. Tornuan landutako zeramikazko ontzi zatiak, beiratuak eta beiratu gabek, faunaren hezur hondakinak eta hiru txanpon aurkitu genituen. txanpon bat, 5 pezetakoa, Francisco Francoren (1939-1975) diktaduraren garaikoa, 1958 eta 1975 urte bitartekoa, eta beste bi txanponak 10 zentimokoak, Alfontso II.aren agintaldikoak (1874-1885), hauetatik bat 1879. urtekoa. Depositu hauetan totxo eta teila puska asko bereizten ziren.

Betegarri horien azpian eta zundaketaren ipar-ekialderantz nabarmen makurtzen den geruza naturalaren gainean, beste depositu bat identifikatu genuen. Hartan ugari ziren neurri askotako harri irregularrak eta eraikuntzarako material puskek. Era berean, kronologia askotako zeramika zatiak bildu genituen, baita faunaren hezur asko eta beste txanpon bat ere, honako hau Errege Katolikoen agintaldiaren garaiko (1469-1504) erreal kuartoa.

Laburbilduz, esan dezagun zundaketaren indusketak ikuspuntu arkeologikotik eskasak ematen duten emaitzak eskaini dituela, dokumentatutako unitate estratigrafikoen egokiera eta berreskuratutako material arkeologikoak aintzat harturik ezin baitugu xx. mendetik harantzago egin. Aitzitik, orube hau lehendik ere okupatuta egon zela adierazten diguten gertaeren sekuentzia bat osatzeko aukera eman digu. Hala eta guztiz ere, garbi esan dezagun espazio honi betiere eman zaiola nekazaritza eta abeltzaintza erabilera.

Hutsarteak eta batez ere harri naturalaren iparralderantzko makurdura nabarmenak utzitako hutsuneak betetzen zituzten deposituek, lurraren maila goratzeko eta berdintzeko eta haren gainean eraiki ahal izateko, neurri askotako harriez gainera eraikuntzarako materialen puska asko biltzen zituzten beren baitara, batez ere teila eta totxo puskek. Betegarri horietan Alfontso II.aren agintaldiari (1874-1885) dagozkion txanpon biek eta kronologia horrekin bat datozen zeramikazko ontzi zatiek adierazten digute xix. mende amaieran edo xx. mende hasieran berariaz edo ausaz suntsitutako eraikin baten zaborrak erabili zituztela orubearen maila berdintzeko eta bertan, behe-oinean, harrizko zoru bat egokitzeko, abelburuentzako ukuilu bat prestatuko zuten aldean. Iragan mendean zehar arian-arian hondatu egin zen harrizko zoladura hau, eta hainbat pieza galduko zituen; zanpatutako lurra baliatu zuten geratutako hutsarteak betetzeko. 1958 eta 1975 urte bitartean edo hurrengoetan berdin jarduten jarraitu zuten, konponketa lan hauetako deposituetan aurkitutako 5 pezetako txanponak argi uzten duen bezala.

xx. mendearen azken hamarraldietan orube hau okupatzen zuen eraikinaren behe-oinak ukuilu izateari utzi zion eta nekazaritzarako lanabesen biltegiarenak edo/eta garajearenak egin zituen. Xede horretan hormigoizko geruza bi zabaldu zituzten une ezberdinetan.

de grandes dimensiones apenas desbastados para evitar salientes cortantes. Los rellenos de recrecimiento y nivelación de estos suelos también estaban cortados por las canalizaciones y en ellos se ha encontrado diverso material arqueológico. Se recogieron fragmentos de recipientes cerámicos fabricados a torno, tanto vidriados como sin vidriar, restos óseos de fauna, y tres monedas. Una de ellas de 5 pesetas perteneciente al periodo de la dictadura de Francisco Franco (1939-1975) comprendido entre los años 1958 y 1975, y dos de 10 céntimos pertenecientes al reinado de Alfonso XII (1874-1885), una de ellas fechada en 1879. Estos depósitos también contenían gran cantidad de fragmentos de ladrillos macizos y de tejas.

Ya bajo ellos y sobre el estrato natural, con un fuerte buzamiento hacia el norte en el cuadrante NE del sondeo, aparecía un nuevo depósito con gran cantidad de piedras irregulares de diverso tamaño y de fragmentos de material constructivo, además de fragmentos cerámicos de distintas cronologías, numerosos huesos de fauna y una nueva moneda, ésta un cuarto de real del reinado de los Reyes Católicos (1469-1504).

En definitiva, la excavación del sondeo ha ofrecido unos resultados que, desde el punto de vista arqueológico, pueden parecer escasos dado que, a partir de la disposición de las unidades estratigráficas documentadas y del material arqueológico recuperado, no nos podemos remontar más allá del siglo xx. Sin embargo, nos sirven para elaborar una secuencia de hechos que nos indican que este solar estuvo ocupado desde épocas anteriores, si bien siempre con un uso basado casi exclusivamente en la actividad agroganadera.

Los depósitos que rellenaban los huecos y, sobre todo, el fuerte buzamiento hacia el norte de la roca natural para recrecer y nivelar el terreno sobre el que construir, además de gran cantidad de piedras de diferentes tamaños, contenían numerosos fragmentos de material constructivo, principalmente de tejas y de ladrillos macizos. La aparición en ellos de dos monedas pertenecientes al reinado de Alfonso XII (1874-1885) y de fragmentos de recipientes cerámicos acordes con esa cronología nos indican que parte del escombros de un edificio derribado, fortuito o intencionadamente, a finales del siglo xix o comienzos del siglo xx, ha servido para nivelar el terreno sobre el que extender un suelo empedrado en la planta baja, donde se habilitaría una cuadra para ganado. A lo largo del siglo pasado este empedrado fue poco a poco deteriorándose y perdiendo parte de sus piezas, reparándose los huecos mediante la extensión de tierra batida. Esto fue siendo así ente los años 1958 y 1975 o años posteriores, a tenor de la fecha de la moneda de 5 pesetas hallada en los depósitos que constituían estos arreglos.

En las últimas décadas del siglo xx, la planta baja del edificio que ocupaba el solar pierde este uso como establo para servir más como almacén de aperos agrícolas y/o garaje, extendiéndose dos sucesivas capas de hormigón en dos momentos diferentes bajo

Geruza horien azpian kanalizazio batzuk ireki zituzten urei irteera emateko.

Isabel eta Fernandoren agintaldiaren garaiko (1469-1504) txanponaren aurkikuntzak ez du, gure ustean, inolako garrantzirik, aipatutako txanponaren datatik kontatzen hasita gutxienez lauhun urte geroago osatutako amortizazio deposituan aurkitu genuelako. Toki hau edo inguru hurbila xv. mendean egiazki okupatuta egon zela adierazten badigu ere, hori ez da harrigarria, ondo asko baitakigu Urizaharrako hiria xiii. mendean fundatu zutela lehendik egon bazegoen herrixka baten gainean.

las que se colocan diversas canalizaciones para salida de aguas.

El hallazgo de una moneda perteneciente al reinado de Isabel y Fernando (1469-1504) nos parece puramente anecdótico ya que ha aparecido en un depósito de amortización formado al menos cuatrocientos años después de la fecha de dicha moneda. Aunque efectivamente indica que este lugar y/o el espacio inmediato sí estuvo ocupado en el siglo xv, algo que no sorprende cuando sabemos que la villa de Peñacerrada se fundó ya en el siglo xiii, sobre una aldea anterior.

F.J. Ajamil Baños

A.17. RIBERA ALTA-ERRIBERAGOITIA

A.17.1. **Socuevasko historiaurreko aztarnategia (Pobes)**

I. kanpainaren 2. fasea
Zuzendaritza: Alfonso Alday Ruiz; Ana Cava Almuzara
Diru-laguntza emaila: Arabako Foru Aldundia

A.17.1. **Yacimiento prehistórico de Socuevas (Pobes)**

2ª Fase. I Campaña
Dirección: Alfonso Alday Ruiz; Ana Cava Almuzara
Subvención: Diputación Foral de Álava

The Mesolithic Socuevas site was discovered during the 1980s. A small intervention was carried out on the site. Two seasons (2009 and 2010) have been scheduled in order to recover anything remaining after an aggressive furtive incursion, and to improve our knowledge of the era. The results proved extremely satisfactory, due to the quality of the material recovered and the number and nature of the structures.

Socuevasko historiaurreko aztarnategia: landa-lanen garapena

Socuevas harpe bat da, Pobesko herriko lurretan kokatua (UTM 507.652.45 – 4.739.855.84). Harpeak mugatutako espazioak gutxi gora-behera 7 metroko frontea du eta gehienez ere 3 metroko hondoa, baina historiaurreko okupazioak gainditu egiten zuen espazio hori.

2009. urtean bigarren landa-lan batzuk bururatu dira iragan mendeko 80. urteen hasieran A. Baldeónen zuzendaritzapean garatutako hasierako landa-lanei segida emateko xedean.

Indusketa lanei ekin baino lehen agerian geratu zen aztarnategiaren parte garrantzitsu bat isilpean hondatu zutela: izan ere, gutxi gora-behera metro erdia altxatu eta jatorrizko profilak gibelatu zituzten.

Gure esku-hartzean gisa honetako aztarnategietan ohikoak diren metodologia protokoloak bete ditu-

El yacimiento prehistórico de Socuevas: el desarrollo de los trabajos de campo

Socuevas se describe como un abrigo bajo roca ubicado en terrenos de la localidad de Pobes (UTM 507.652.45 – 4.739.855.84). Al espacio acotado por la visera le calculamos provisionalmente un frente de unos 7 metros, por una profundidad máxima de 3, si bien la ocupación prehistórica lo desbordó.

En 2009 se ha llevado a cabo una segunda serie de trabajos de campo tras los inicialmente desarrollados, a principios de los años 80 del pasado siglo, bajo dirección de A. Baldeón.

Las tareas previas a la excavación revelaron intervenciones furtivas que liquidaron una parte sustancial del yacimiento: profundizó \pm medio metro y retrajo los perfiles originales.

En nuestra intervención hemos seguido los protocolos metodológicos habituales para este tipo de ya-

gu: metro koadroko unitateetan banatutako koadriklazioa, sektoreetan banatzea, 5 cm-ko taila erdiak, galbahetzeak...

Kanpaina amaitutakoan, induskatutako azalera olana batez babestu genuen landareak ez hazteko eta eguraldi txarraren eraginetatik babesteko.

Landa-lana eta lortutako estratigrafiaren sekuentzia

Honako hauek erabili ditugu sedimentu multzoak izendatzeko:

- Zenbaki erromatarren arabera, I.etik IVra doazen ondoz ondoko zenbakien bidezko izendapena, gainazaleko aurreneko geruza eta beste geruza nahasi bat (isilpeko lanek eragindako aldeak hartzen dituen) bakanduz.
- Unitate estratigrafiko zehatzetan 'a'-z amaitzen den hizkia erabili dugu.

Aztertutako mailetak harri eta sedimentuen ezaguri nagusiak eta material arkeologikoen balorazio labur-zehatza adierazten dugu jarraian.

Gainazaleko maila

Gaineko lur geruza hartzen du, zenbait gunetan 9 cm-ko lodierara iristen den geruza. Landare ehundura du, eta aldean arabera, marroia edo beltzaxka da. Ugari dira sustraiak eta harri kosko solteak (seguru asko paretatik behera etorriak). Geruza hau ez da egonkorra, eta agerikoa da nahasia izan dena.

Material arkeologikoak gutxi dira: berrogeita hamarren bat hezur zati txiki, taila lanetatik etorritako berrogeiren bat hondakin, karrakagailu mikrolitiko bat eta material moderno batzuk.

I. maila

Gure garaiko geruza, gizakiak sorrarazia, isilpeko indusketen emaitza: A Baldeónek irekitako aldera botatako lurra bahetu zituzten orduan (denak edo ia denak) eta harpeari sarrera egiten dion mazelan pilatu zituzten (baita aztarnategiko beste puntu batzuetan ere). Lur meta horien gainean zuhaixkak eta zuhaitz txikiak hazi ziren, eta haien lodiera kontuan hartzen badugu, guk uste dugu isilpeko ekintza haiek laurogeigarren urteetan gertatuko zirela. Lur ezegonkorak dira, aski harroak, landare izaerako osagai askorekin. Kolorea ere aldakorra du: lur beltzak, marroi ilunak eta grisaxkak (azken hauek isilpean jardun zuenak baheetutako aldean, non sedimentua arinagoa den eta frakzio handirik ez dagoen). Sedimentuzko paketearen lodiera ere aldakorra da, mazelaren aldera lodia goa baita (puntu honetan ± 80 zentimetro lodi da). Lur hauek induskatzeko lanek ez ziren batere errazak gertatu, lurren baitako irregularitasunak handiak zirelako eta landare elementuen masa handia zelako.

cimientos: cuadriculación en unidades de un metro cuadrado, sectorización, semitallas de 5 cm, cribados...

Al terminar la campaña la superficie excavada se protegió con una lona que impide el recrecimiento de la vegetación y lo protege de las inclemencias.

Trabajo de campo y secuencia estratigráfica obtenida

Para la denominación de los conjuntos sedimentarios hemos usado:

- Una designación correlativa, en números romanos, del I al IV, individualizando una primera capa superficial, así como otra de revuelto (que comprende las áreas afectadas por los trabajos furtivos).
- Una letra que empieza en a para las unidades estratigráficas específicas.

Relacionamos a continuación los principales caracteres litosedimentarios de los niveles trabajados, y una valoración sucinta de los materiales arqueológicos.

Nivel superficial

Refiere las tierras iniciales, que llegan a alcanzar, puntualmente, los 9 cms. De textura vegetal y coloración marrón o negruzca, según zonas. Son muy frecuentes las raíces así como los cantos rodados sueltos (posiblemente desprendimientos de la pared). Es una capa inestable, con evidencias de revuelto.

Son escasos los materiales arqueológicos: centenar y medio de fragmentos óseos de pequeño tamaño, cuatro decenas de restos de talla, 1 raspador microlítico y algunos materiales modernos.

Nivel I

Capa de origen contemporáneo y antrópico, resultado de la excavación furtiva: las tierras que entonces se retiraron sobre el área abierta por A. Baldeón, fueron cribadas (en su totalidad o parcialmente) y depositadas hacia la ladera de acceso al abrigo (así como en otras zonas del yacimiento). Sobre ellas creció una capa arbustiva: precisamente a tenor del grosor de los árboles y arbustos, pensamos que las acciones clandestinas debieron tener lugar en la década de los ochenta. Son unas tierras inestables, bastante sueltas, con mucho componente vegetal. Su coloración varía notablemente: negras, marrones oscuras y grisáceas (éstas en la zona de criba del furtivo, donde el sedimento era más liviano y sin apenas participación de la fracción mayor). El espesor del sedimento varía notablemente, por su engrose hacia la ladera (aquí llega a alcanzar un grosor ± 80 centímetros). La comprensión de la entidad de estas tierras supuso un ejercicio complicado durante su excavación, dadas las irregularidades internas y la gran masa de elementos vegetales que aportaba.

Egiazki geruza nahasia bada ere, hau da, geruza ez arkeologikoa, non gure garaiko elementuak ugari diren (botilaren bat, arropak eta metalezko objektuak), historiaurreko objektu asko berreskuratu genituen hartan. Hauek benetan dagokien estratigrafiaren sekuentziara jaso ahal izango dira.

– *Harrizko tresnak*: Taila lanetatik etorritako 1.100en bat hondakin. Gainera, 5 nukleo, berriz ukitutako hamarren bat pieza, ia 30 zizel txiki eta 180 xafla euskarri baino gehiago; 13 karrakagailurekin landutako ia laurogeita hamar objektu –mikrolitikoak nagusi–, hogeiren bat koxka eta dentikulatuak (xafla eta lasketan landuak, batzuk Mesolitos aroko ereduari jarraituz), hogei trapezio itxurako eta triangelu itxurako bat, baita dortsoak, karraskailuak eta erabiltzeko xedean ukituak izan diren elementuak ere.

– *Fauna hondakinak*: Bi mila eta bostehun hezur zati baino gehiago –eskuarki oso txikiak, ukitu gabeko mailetan ez bezala, kontrolik gabeko bilaketen xedearen erakusgarri–. Molusku batzuk eta arrain hezur batzuk bereizi genituen.

– *Beste elementu batzuk*: Erabili izanaren arrastoak ageri dituzten harri kosko batzuk, landuak izan diren hezurrezko objektu gutxi batzuk, zeramikazko ia hogeita hamar zati (zazpi zati baik ezin dira historiaurrekoak izan, gainerakoak aro modernokoak baitira).

Aunque ciertamente se trata de un estrato revuelto, no arqueológico, donde eran abundantes los elementos modernos (alguna botella, prendas de vestir u objetos de metal), los objetos prehistóricos recuperados fueron abundantes, y podrán ser integrados en la verdadera secuencia estratigráfica:

– *Industria lítica*: Unos 1.100 restos de talla a los que se suman 5 núcleos, una decena de avivados, casi tres decenas de microburiles y más de 180 soportes laminares; casi nueve decenas de objetos retocados con 13 raspadores –mayoría de microlíticos–, una veintena de muescas y denticulados (en láminas y en lascas, algunos de estilo campañóide), dos decenas de trapezios y una de triángulos, así como dorsos, raederas o elementos con retoques de uso.

– *Restos de fauna*: Se superan los dos millares y medio de fragmentos óseos –en general de muy pequeño tamaño, lo que contrasta con lo que ocurre en los niveles intactos, y orienta sobre el sentido de las rebuscas incontroladas–. Se incluyen algunos moluscos y vértebras de pez.


– *Otros elementos*: unos pocos cantos con marcas de uso, escasos objetos óseos con huellas de trabajo, casi tres decenas de fragmentos cerámicos –sólo siete pudieran corresponder a momentos prehistóricos, el resto son de factura moderna–.

II. maila


Aurreneko geruza arkeologikoa da, 20 cm-ko batez besteko lodierarekin (puntu batzuetan lodiagoa da). Induskatutako eremuan bederen, aski homogénea da, koloretan halako aldeak bereizten badira ere: iparraldera gris argia, erdialdera tonu zurixkak (UEa), hegoaldera sedimentu kolorez ilunagoak. Lurrak jada trinkoak dira, ehunduraz leunak, landare izaerako elementurik gabe: izan ere «hautsaren» itxura du, eta haren bolumenaren parterik handiena erraz bahetu zela esan behar dugu. Oso tarteka harri ertainen bat agertzen da: maila beherenean edo III. maila-

Nivel II

Es el primero de los horizontes arqueológicos, con un espesor medio de unos 20 cms (supera en algunos puntos este grosor). Es, en el área excavada, bastante homogéneo, si bien su coloración queda alterada: al norte gris clara, en el centro tonos blanquecinos –la UEa–, al sur sedimentos más oscuros. Tierras ya compactadas, de textura fina donde han desaparecido los elementos vegetales: de hecho es característico su aspecto *polvoriento*, yéndose la mayor parte de su volumen en la criba. Muy esporádicamente se localiza alguna piedra mediana: en sus co-



Xafla oinarriak eta mikrolito geometrikoak.



Soportes laminares y microlitos geométricos.

raino iristeko puntuan klasto txikiak azaltzen dira.

– *Harrizko tresnak*: Taila lanetatik etorritako mila hondakin, horien artean lau nukleo, berriz ukitutako hogeitak elementu, hamabost zizel txiki eta ehunen bat xafla euskarri. Berriz ere ukitutako objektuak ia laurogeita hamar dira: 7 karrakagailu, bi dozena koxka eta dentikulatu –berriro ere xafletan landuak edo ez, Mesolitos aroko ereduari jarraiki edo ez–, beste hogeiren bat geometriko, trapezio itxurakoak triangulu itxurakoak baino gehiago, lau aldiz gehiago, erabiliak izateko xedean ukitutako hamabosten bat pieza eta zulagailu, dortso eta karraskagailu sortak.

– *Fauna hondakinak*: Bi mila zati –goiko mailakoak baino apur bat handiagoak–. Horietatik ia ehunek aukera emango dute espezieak identifikatzeko.

– *Beste elementu batzuk*: arrasto batzuk dituen hezur bat eta ustezko espatula bat, eta okre puska batzuk.

UEa: II. kultura-aldira bildua, trinkotasun handia (izan ere, nekez altxatzen da aiztoarekin) eta lurren tonu oso zurixka ditu ezaugarri nagusi. Lurrak finak dira, ez da deus gelditzen bahetutakoan, eta ez du landare izaerako elementurik ez eta frakzio ertain edo handirik. Unitateak berak morfologia zirkularra du eta A. Baldeónek egindako ebakiaren aurrean duen garapenarekin kubeta baten itxura hartzen du. Oso urria da material arkeologikoa.

– *Harrizko tresnak*: Taila lanetatik etorritako berrehun hondakin, hamarren bat xafla soil eta berriz ukitutako zortzi elementu –koxkak, trunkadurak eta geometrikoak– barne.

– *Fauna hondakinak*: Ehun eta berrogeita hamar zati baino gehixeago. Identifikatzen oso zailak dira.

III. maila

Gaingan duten mailen aldean ilundu egiten dira lur hauek: kolore marrolagorako joera dute, eta bertan orban laranja eta horixkak eragiten dituzte deskonposatzen ari diren kareharriek. Hala eta guztiz ere, errekarrien kopuru handia da maila honen ezaugarri nagusia, eta zenbat eta gehiago sakondu orduan eta gehiago dira, leku batzuetan benetako enkatxo bat sortzen dutela irudiarazteraino: azken atalean ondo egituraturako errekarriak dira, harpeko hormatik behera etorritako jariakin baten atala osatzen dute edo zoru naturala eratzen dute. Gainera, hainbat berezitasun ditu: iparraldean, gure ustez paldo bati eusteko ziriarenak egiten dituen egitura txiki bat; ondo zanpatutako lur multzo bat, lur idorrek, ikatz zatiak txertaturik dituela –alderen batean baita errekarri txikiz eratutako «zoru» txiki bat ere–, su biziaren erasoan pean egon direnaren erakusgarri. Gehienez ere 20 cm lodi da maila hau, baina puntu batzuetan 10 cm lodi

tas inferiores, o de transición al nivel III, se enriquece con clastos pequeños.

– *Industria lítica*: Un millar de restos de talla donde se integran cuatro núcleos, dos decenas de avivados, decena y media de microburiles y un centenar de soportes laminares. Son casi nueve las decenas de objetos retocados relacionando: 7 raspadores, dos docenas de muescas y denticulados –de nuevo en soportes laminares y no, y bajo tecnología campinoide y no–, dos decenas más de geométricos, con dominio de los trapecios sobre los triángulos –de cuatro por uno–, una quincena de piezas con retoques de uso y series de perforadores, dorsos y raederas.

– *Restos de fauna*: Dos millares de fragmento –notando un ligero aumento en sus tamaños respecto al nivel superior–, de los cuales casi un centenar permitirán su identificación a nivel de especie.

– *Otros elementos*: tan sólo incluimos un hueso con marcas y una posible espátula, así como algunos fragmentos de ocre.

UEa: Integrado dentro del horizonte II se caracteriza por su alta compacidad (de hecho es muy costoso su rebaje a punta de navaja) y la tonalidad muy blanquecina de las tierras. Éstas son finas, no queda nada tras su criba, y libre de elementos vegetales o de fracción media-grande. La propia unidad tiene una morfología circular y viendo su desarrollo sobre el corte de A. Baldeón, adquiere forma de cubeta. El material arqueológico es muy pobre.

– *Industria lítica*: Doscientos restos de talla donde se incluyen una decena de láminas simples y ocho elementos retocados –muescas, truncaduras y geométricos–.

– *Restos de fauna*: Poco más de centenar y medio de fragmentos de improbable identificación.

Nivel III

Son tierras que se oscurecen respecto al nivel su-prayacente: de tendencia más marrónácea donde la presencia de calizas en descomposición aporta manchones anaranjados y amarillentos. No obstante la nota más característica viene de la abundancia de cantos rodados que van incrementándose a medida que profundizamos, llegando, en algunas zonas, a formar un verdadero enchachado: son, en su tramo final, cantos bien estructurados que o forman parte de una colada proveniente de la pared del abrigo, o es su suelo natural. Aporta además algunas singularidades: un hogar circular perfectamente delimitado por bloques en anillo en la zona sur de lo abierto; una pequeña estructura que interpretamos como posible calce de un poste al norte; un conjunto de tierras muy apelmazadas, secas, con incrustaciones de carbones –e incluso en algún lado con un pequeño «suelo» de cantitos– resultado de unos fuegos intensos. Su potencia máxima es



Socuevasko sutegiak.

Hogares de Socuevas.

baino ez da. Hona bertatik jasotako elementuen zerrenda:

- *Harrizko tresnak*: Taila lanetatik etorritako zazpiehun hondakin baino gehiago, hamarren bat nukleo, berriz ere ukituak izan diren hogeitazera, dozena bat zizel txiki eta hirurogeita hamar xafla oinarri. Ukituen artean, ia hirurogeita hamar elementu, 6 karrakagailu, 4 dortso, bi dozena koxka eta dentikulatu, triangelu eta trapezio itxurako elementu gutxi batzuk eta segmentu bat (edo punta biko txikia), ezpalak eta erabili izanaren arrastoak ageri dituzten dozena erdi xafla.
- *Fauna hondakinak*: Mila zati baino gehixeago. Horietatik berrogeita hamar bat baizik ez dira identifikatzeko modukoak.

IV. maila

Induskatua izateko lauki aurreratuean erregistratu genuen maila hau, enkatxoa –ala jariakina?– osatzen zuten errekarriak altxatuta. Harri horien azpian, harrizko horixka sortak egokitzen dira, lur fin, idor eta limotsuei espazio urria utzita. Induskatutako azalera txikian ia ez genuen material arkeologiko bat ere erregistratu.

Lan arkeologiko honen balorazio orokor eta laburrik honako hauek bereizten ditu: a) isilpeko ekintzetan ateratako lurren metaketatik sortutako maila, I. maila. Lur hori bahetu zuten lekua ere hautematen da. Ekintza haiek itxura guztien araberak gure III. mailaren sabairaino iritsi zirenez, oso litekeena da geuk aurkitu eta bakartu ditugun historiaurreko elementuak II. mailara bildutakoei gehitu behar izatea; b) bigarren maila hau da guztietan lodiena, eta argi eta garbi ikusten da nola harpearen kanpoko alderantz egiten duen, mazelaren aldera. Bertako tresnak homogeenak direla esan behar dugu; c) UEa, II. mailara bildua, kolorez argiagoa da, eta egitura harritsuagoa du: oraindik ez dakigu zein izan litekeen haren jatorria; d) III. maila, frakzio handiagoekin aberastuta dagoenez, erraz bereizten da besteetatik. Gainera, ilunagoak dira bertako lurrak. Haren baitako itxurazko heterogeneotasuna du

de 20 centímetros, pero en algunos puntos alcanza sólo unos 10. El inventario material comprende:

- *Industria lítica*: Siete centenares de restos de talla a los que se deben de sumar una decena de núcleos, dos decenas de avivados, una decena de microburiles y hasta siete decenas de soportes laminares. Entre lo retocado, casi setenta elementos, diferenciados entre raspadores, 6, dorsos, 4, muescas y denticulados, dos docenas, geométricos, unos pocos ejemplares de triángulos, trapecios y un segmento (o bipunta pigmea), esquilados y docena y media de láminas con huellas de uso.
- *Restos de fauna*: Poco más de un millar de fragmentos de los que sólo serán identificables medio centenar.

Nivel IV

Justamente detectado en el cuadro de excavación más adelantada, se rebaja tras la retirada de los cantos rodados que conformaban el «encachado» –¿o colada?-. Bajo ellos se disponen series de pequeñas piedrecillas amarillentas, dejando poco espacio para unas tierras finas, secas y limosas. Apenas si registramos, en la poca superficie excavada, material arqueológico.

Una valoración conjunta y resumida del trabajo arqueológico reconoce: a) un nivel, el I, producto del acúmulo de las tierras exhumadas por acciones furtivas, distinguiéndose, incluso, su área de criba. Dado que, al parecer, sus acciones afectaron hasta el techo de nuestro nivel III, es bastante probable que los hallazgos prehistóricos que hemos individualizado puedan acumularse a los del nivel II; b) un horizonte II, el más potente, con una clara disposición en ladera hacia el exterior del abrigo. Destacamos la homogeneidad de sus industrias; c) la UEa, integrada en el horizonte II, es definida a través de su coloración más clara y su estructura más pedregosa: aún discutimos cual pudiera ser su origen; d) El nivel III, al enriquecerse de elementos de fracción mayor, es de fácil distinción, añadiéndose la coloración algo más oscura de las tierras. Es nota característica del mismo su apa-

ezaugarri: errekarriak indusketaren iparraldeko muturrean (zorua ala jariakina?); gune garbiagoa erdialdean; sutegi bat E10 laukiaren gainean, harrizko zirkulu batek ondo babestua eta; nahasitako sedimentu batzuk, arkuaren modura egokitutako bloke batzuek partzialki mugatuak. Guk uste dugu su bizien, etengabeko suen emaitza direla, zoruak ondo gogortuta baitaude (errautsezko xafla), tartean material antrakologikoak bereizten direla. Bestalde, guk uste dugu harrizko egituretako bat paldo bati eusteko ziriaren hondakina dela, taldearen bizitegia ixteko egiturari eusteko zion paldoari eusteko ziria. Agian maila honetan islatzen da «finkamenduaren fundazioa», agian maila honetan antolatuta zuten espazioa sutegi nagusi batekin, sarri eta luzaroan erabili zutenarekin. Sutegi hau, gutxi gora-behera harpearen erdialdean egongo zen, baina geroago desegin eta kanpoko alderantz eraman zuten.

Tresnen ikuspuntutik, mailen arabera bildumak xumeak izan direla aitortu ondoren, esan dezagun itxura batean gehiago direla koxkak eta dentikulatuak maila sakonetan; aitzitik, gora egin ahala gehiago dira mikrolito geometrikoak. Nola III. hala II. maila Mesolitos aro geometrikora biltzen dira itxurazko barne bilakaerarekin. Bilakaera hau erradiokarbonoaren bidezko azterketek etorkizunean eskainiko dituzten baliokin berretsi ahal izango da. I. paketearen berreskuratutako elementu arkeologikoak seguru asko II. mailara biltzen direnei gehitu beharko zaizkie, egitura berari erantzuten baitiete biek ala biek.

Kanpaina honetan zehar berreskuratutako hondakin arkeologiko nagusien batura 10.400eko kopurura iristen da: hondakinen %62 hezurrezkoak dira, eta %38 harrizko tresnen hondakinak.

Etorkizuneko lanen aurrekoak

2010. urterako bigarren indusketa kanpaina bat egitea planteatzen dugu Socuevasko harpean, ezinbesteko tresna baita aztarnategi honetako kulturaren bilakaera ulertzeko. Helburu nagusia, estratigrafiaren sekuentzian sakontzea, aztarnategiaren parte txiki batean agerian geratutako IV. mailaren edukia behar bezala ezagutzeko. Guk uste dugu interesgarria litzatekeela induskatutako eremua aztarnategiaren hegoalderantz zabaltzea, aurkientza hau hobeto ulertzeko gida izan litezkeen material arkeologikoen bolumen handiago bat lortze aldera. Tresna horiekin, aztarnak diziplinen arabera azterturik eta Socuevasko aztarnategitik gertu Fuente Hoz aztarnategia dagoela kontuan izanik, guk uste dugu gertuago egongo garela Arabako lurretan bizi izan ziren azkeneko gizarte ehibitari-biltzailei buruzkoak jakitetik.

rente heterogeneidad interna: masa de cantos rodados en el extremo norte de la excavación (¿suelo o colada?); un área más despejada en el tramo central; un hogar sobre el cuadro E10 bien delimitado por un cuidado círculo de piedras y; un conjunto de alteraciones sedimentarias, parcialmente delimitadas por unos bloques dispuestos en arco, que entendemos producto de una serie de fuegos muy intensos y continuados, ocasionando unos suelos endurecidos (una placa de cenizas) con participación de material antracológico. Además una estructura pétreo se ha interpretado como los restos de un calce para un poste de lo que bien pudo ser un cierre del área ocupada por el grupo. Este nivel quizá represente el momento de «fundación del campamento», organizando su espacio con un hogar principal, de uso intenso y prolongado, en ubicación aproximadamente central dentro del abrigo, que luego es desmantelado y desplazado hacia el exterior.

Desde el punto de vista industrial, asumiendo lo parco de las colecciones por niveles, sí parece intuirse una mayor participación de las muescas y denticulados en las profundidades inferiores y un enriquecimiento de los microlitos geométricos según ascendemos. Tanto el episodio III como el II encajan en el Mesolítico geométrico con una aparente evolución interna que, quizá, se vea confirmada en un futuro por los valores de los análisis radiocarbónicos. Muy probablemente los elementos arqueológicos recuperados en el paquete I deben sumarse a los del II ya que por tipos reproducen la misma estructura.

La suma total de los restos arqueológicos mayores recuperados durante la campaña ascienden a 10.400 evidencias: corresponde a los restos óseos el 62% del inventario y el 38% a la industria lítica.

Perspectivas de trabajo futuro

Planteamos para el año 2010 una segunda campaña de excavación de Socuevas como la herramienta necesaria para comprender su desarrollo cultural. El objetivo principal será la profundización en la secuencia estratigráfica, observando la consistencia del horizonte IV, justamente evidenciado en una pequeña parte del yacimiento. También consideramos de interés ampliar el área excavada hacia el sur del sitio, con la intención de procurarnos un mayor volumen de materiales arqueológicos que nos guíen en la comprensión del enclave. Con esas herramientas, el estudio interdisciplinar de sus evidencias y el encaje de Socuevas junto al inmediato lugar de Fuente Hoz estaremos en condiciones de mejorar el conocimiento sobre las últimas sociedades de cazadores-recolectores que actuaron en el suelo alavés.

A. Alday Ruiz; A. Cava Almuzara

A.17.2. **Ribako herrixka. Villabezanarako ur hornidura San Migeleko depositutik**

Zuzendaritza: Kepa Cabrerizo Benito
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia.
Ur Zerbitzua

A.17.2. **Poblado de Riba. Abastecimiento de agua a Villabezana desde el depósito de San Miguel**

Dirección: Kepa Cabrerizo Benito
Financiación: Diputación Foral de Álava. Servicio de Aguas

This intervention failed to produce any results of interest.

Esku-hartze honetan 2 x 2 metroko 16 zundaketa egin genituen 320 metro luze zen eraikuntzarako lubaki batean. Lehendik miaketa lan batzuk egin genituen, eta gero obraren gaineko jarraipen lanak egingo genituen. Interbentzioaren emaitzek ez dute inolako garrantzirik historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik. 51. ustezko eremu arkeologikoan (Ribako herrixka, San Migel) obra zibilerako irekitako lubakiaren ekialdea eta mendebaldea etorkizunean aztertzeke geratzen dira.

Obra zibila babestutako eremuaren kotarik behe-renean garatzen zenez, guk uste dugu Ribako herrixka alde honetan egotera kota garaia batean egongo zela, lehen adierazitako puntu kardinaletako biak baino kota garaia batean.

Intervención desarrollada en base a 16 sondeos de 2 x 2 metros sobre una zanja de construcción de 320 metros, además de una prospección previa y seguimiento posterior de la obra, siendo los resultados de la intervención de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro las zonas este y oeste (de la zanja realizada para la obra civil) de la zona de presunción arqueológica nº 51 (Poblado de Riba, San Miguel).

Puesto que la obra civil discurría por la cota más baja de la zona protegida, creemos que de encontrarse el poblado de Riba en dicha zona se ubicaría en algún punto más elevado de los dos puntos cardinales mencionados.

K. Cabrerizo Benito

A.18. RIBERA BAJA / ERRIBERA BEITIA

A.18.1. **Socuevas, San Migelen (Rivabellosa)**

Zuzendaritza: Armando Llanos Ortiz de Landaluze
Finantzazioa: Berak finantzatua

A.18.1. **Socuevas de San Miguel (Rivabellosa)**

Dirección: Armando Llanos Ortiz de Landaluze
Financiación: Propia

Stratigraphic sondages were carried out in the rock shelter known as Socuevas de San Miguel, as a result of post-Palaeolithic cave paintings and engravings. The results of the sondage were null, due to the absolute lack of archaeological materials.

Azarnategi arkeologiko hau, harpe hau, Baia ibai haranaren gaineko amildegi harritsuano dago, 55 metroko luzeran zehar irekitzen diren hainbat leizeen artean. Koordinatuak: 507020 x / 4734198 eta, goratasuna 590 metrokoa itsas mailatik gora. San Migel herrixkan dago, Rivabellosako udal jurisdikzioan.

Este yacimiento arqueológico en forma de abrigo bajo roca, se sitúa en una serie de covachos corridos con una longitud de 55 m, en un acantilado rocoso sobre el valle por el que discurre el río Baias. Coordinadas: 507020 x / 4734198 y, altitud 590 m. s.n.m. Localidad de San Miguel, en jurisdicción del ayuntamiento de Ribavellosa.

1998ko irailean J.I. Vegasek marrazki antropomorfo batzuk irudikatzen zituzten pintura gorri batzuk deskubritu zituen, itxuraz Paleolitos aro ostekoak. Miltzo piktoriko hau, denbora askoan, inolako babesik gabe egon da, kontrolik gabeko balizko giza jardunen mende. Orain dela gutxi Arabako Foru Aldundiak, Arabako Arkeologia Institutuak eskatuta, harpea itxi egin zuen.

Pinturez gainera, trazu oso fineko grabatu ugari deskubritu dira berriki. Trazu hauek, besteak beste sare itxurakoak marrazten dituzten lerro geometrikoak dira. Irudikapen biak, nola pinturak hala grabatuak, zail dira testuinguru kronologiko eta kultural zehatzetan kokatzen. Bil genitzakeen datuei etekinik handiena ateratzearren eta testuinguru kronologiko eta kulturalera hurbiltzeko xedean, irudikapenen oinetara metatutako sedimentuetan, aztarna arkeologikoren bat eskaini zezaketen sedimentuetan, zundaketa batzuk egiteko erabakia hartu genuen.

Lanak 2009ko abuztuaren 17tik 19ra luzatu ziren. Hasteko, erreten bat ireki genuen harpearen perpendikularrean, harpearen erdialdean. Estratigrafian hiru unitate bereizi genituen: 1. UE. Landare geruza, kolorez iluna, mazela hau 1998. urtean kiskali zuen suaren arrastoekin (errautsak eta ikatzak); 2. UE. Geruza kolorez okre argia, harrizko geruzaren deskonposiziotik

En septiembre de 1998 J.I. Vegas descubrió unas pinturas en rojo con representaciones antropomorfas, de carácter postpaleolítico. Durante mucho tiempo, este conjunto pictórico se encontró sin ninguna protección, abierto a posibles intervenciones antrópicas incontroladas. Recientemente, la Diputación Foral de Álava, a petición del Instituto Alavés de Arqueología, procedió a su cierre.

Aparte de las pinturas, recientemente, se descubrieron numerosos grabados de trazo muy fino, de carácter geométrico lineal que trazan reticulados, entre otros temas. Ambas representaciones, pinturas y grabados, son de difícil adjudicación cronológico-cultural. Con el fin de apurar los datos con los que se pudiera contar, para establecer esta adjudicación, se proyectó realizar una serie de sondeos en los sedimentos existentes al pie de las representaciones, que pudieran aportar algún indicio arqueológico.

Se desarrollaron los trabajos entre los días 17 al 19 de agosto de 2009. Estos se iniciaron con un sondeo en zanja, perpendicular al abrigo, en la zona central del mismo. A nivel estratigráfico se aislaron tres UE, que correspondían a: UE1 Capa vegetal de color oscuro con restos del incendio (cenizas y carbones) que asoló esta ladera en 1998. UE2 Capa ocre claro



Socuevas harpea, San Migelen.

Abrigo bajo roca de Socuevas de San Miguel.



Paleolitos osteko pintura harpetarrak Socuevas harpean, San Migelen.

Pinturas rupestres postpaleolíticas en Socuevas de San Miguel.

etorria; 3. UE. Harri naturala. Harri naturalerainoko sakonera gorena eta txikiena 0,38 m-koa izan zen ekialdean eta 0,04 m-koa mendebaldean. Antzuak izan ziren zundaketa honen emaitzak. Material arkeologikoaren gabezia hau soilik gune zehatz honetan ala puntu guztietan gertatzen ote zen jakiteko xedean beste lau zundaketa ireki genituen, zundaketa bakoitzaren artean sei edo zortzi metroko tartea gordeta. Haietan guztietan antzekoa zen estratigrafiaren sekuentzia, egituretan bestelako aldagai batzuk baizuten ere. Beste zundaketa hauetan ere ez genuen inolako material arkeologikorik identifikatu. Harpe honek bizitegiarenak betetzeko nahikoa baldintza ego-kiak eskaintzen baditu ere ez dirudi, emaitza hauen arabera, bizitokiarenak bete zituenik. Halatan, santutegi baten izaera eman zaio hitzaren adierarik zabale-nean

Irudikapen hauei buruzko azterketa bat eman dugu argitara Arabako Arkeologia Ikaskuntzaren 24. liburukian.

formada por la descomposición del sustrato rocoso. UE3 Roca natural. Las profundidades máximas y mínima hasta la roca, fue de 0,38 m, en la parte este y 0,04 en la oeste. Los resultados de este sondeo resultaron estériles. Con objeto de comprobar si esta inexistencia de material arqueológico, solamente se daba en este punto concreto o si era generalizada, se realizaron otros cuatro sondeos separados entre sí entre seis y ocho metros. En todos ellos la secuencia estratigráfica era similar, aunque con algunas variantes estructurales. Los resultados en el resto de los sondeos se repitieron en cuanto a la falta absoluta de materiales arqueológicos. Estos resultados parecen indicar que, a pesar de las buenas condiciones del abrigo para ocuparse como lugar de habitación, no lo fue en ningún momento como tal, considerándolo con un carácter de santuario en un sentido amplio del concepto.

Un estudio sobre estas representaciones, ha sido publicado en el tomo 24 de Estudios de Arqueología Alavesa.

A. Llanos Ortiz de Landaluze

A.18.2. **Errege Bidea Rivabellosan barrena**

Zuzendaritza: F. Rafael Varón Hernández
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.18.2. **Camino Real por Rivabellosa**

Director: F. Rafael Varón Hernández
Financiación: Diputación Foral de Álava

The uncontrolled construction work carried out in Rivabellosa affected the Royal Road built during the 18th century.

Esku-hartzearen arrazoia

Arabako Arkeologia Museoak Armiñón eta Rivabellosa lotzen dituen Errege Bide zahar batean obra batzuek kalteak eragin zitzaizketela jakin ostean, erakunde hau gurekin jarri zen harremanetan 2009ko uztailaren 24an, ostiralez, hara bisita bat egiteko eta egoera bertatik bertara ezagutzeko xedean. Helburu horrekin joan zen talde bat aurkientza hartaraino, Rivabellosako herriraino, A-68 Autopistaren ondora, haren ekialdera, Arabako Foru Aldundiaren kartografiaren arabera Errepide Zaharra izenaz ezagutzen den eremura.

Obren deskripzioa

Rivabellosatik abiatuta, N-1 errepiderantz, Lacorzana herriarekin bat egiten duen auzoendako bide bateko plataforma zabaltzea dute xede obra hauek. Bide hau garai bateko Errepide Zaharreko lubetearen gainetik igarotzen zen, baina eraikuntza lanen ondorioz hondeatzeko makina batek ebaki egin zuen, inolako beharrik ez zegoenean, aspaldiko komunikabide hau, haren ardatzaren perpendikularrean 6 bat metrotan, eta luraren maila 1,80 metrotan beheratu zuen haren lekurik sakonenean. Gainera makineria astuna igaro zen bide zahar honen gainetik, haren baldintza fisikoetan kalteak eraginez, egitura 40 metro koadro inguruan desagerraraziz, bidearen egitura osoa zeharo ebakiz: iparraldeko eta hegoaldeko lubeteak, gainazaletik harlanduz estalitako horma-bularrak eta bidearen barruko egitura, ondo trinkotutako lur eta buztinezko nahasturak osatua. Honek kareharrizko lauzazko geruzaren oinarriarenak egiten zituen, eta lauzen gainean harlandu eta errekarri txikiekin osatutako geruzak, elkarren gainean egokitzen zirenak, zabaltzen zizuten gurpildunentzako geruza egokiak eratzeko. Gurpildunentzako azkeneko geruza hau obrak hasi baino askoz ere lehenagotik desagertua zen, azpiegitura egoki mantentzeko lanak egin ez zirelako eta ondorioz haren gainean landareak hazi zirelako.

Landare hauek obren xede izan ere ziren, erauzi egin zituzten 6-7 metrotan, mendebalderantz, eta babesik gabe utzi zuten, ondorioz, gurpildunentzako geruza eta horma-bularraren ertzetako piezak: gorago adierazi dugun bezala, makineria astunaren joan-etorrien ondorioa da hau guztia. Gainera, bular-hormaren ertzak jatorrizko lekutik mugiaraziak izan dira.

Motivo de la intervención

Tras haber recibido comunicación el Museo de Arqueología de Álava sobre obras que podían estar causando daños en un antiguo Camino Real que comunica Armiñón con Rivabellosa, esta entidad se puso en contacto el viernes 24 de julio de 2009, con nosotros., para que se realizase una visita al lugar y comprobar la realidad de esta situación. A tal efecto se desplazó un equipo hasta el lugar, sito en la localidad de Rivabellosa junto a la autopista A-68, en su lado este, y en el paraje conocido como Carretera Vieja según denominación de la cartografía de la Diputación Foral de Álava.

Descripción de las obras

Las obras consisten en la ampliación de la plataforma de un camino vecinal que parte de Rivabellosa en dirección a la N-1 y comunica con Lacorzana. Este camino pasaba por encima del terraplén de la antigua Carretera Vieja, pero con motivo de la obra de construcción la acción de la excavadora había cortado, de manera absolutamente innecesaria, esta antigua vía de comunicación perpendicularmente a su eje en unos 6 metros, y había rebajado el terreno en torno a 1'80 metros en su parte más profunda. Además se ha producido el paso de maquinaria pesada por el firme de la calzada alterando sus condiciones físicas haciendo desaparecer su estructura en torno a 40 metros cuadrados, cortando la estructura completa de la vía: terraplenes norte y sur, los estribos cubiertos en superficie por piezas de sillería y la estructura interna de la calzada compuesta por una base de tierra/arcilla compactada que sirve como cimentación de una capa de losas calizas sobre los que se superponen capas de sillarejos y cantos rodados para servir de banda de rodadura. Esta última banda de rodadura habrá desaparecido con bastante anterioridad a la acción de las obras debido a la falta de mantenimiento de la infraestructura y la consecuente aparición de vegetación sobre ella.

La vegetación también ha sido objeto de retirada de la obra, en unos 6-7 metros en dirección oeste, dejando desprotegida la banda de rodadura y las piezas cantoneras de los estribos: cómo ya hemos indicado más arriba esto responde al paso de maquinaria pesada que, además, ha desplazado las cantoneras de su ubicación original.

Gainera, bideko material guztiak, aipatutako eraikuntza elementuak barne, ondo landuta daude, harlanduak eta harlandu txikiak dira, eta horiekin erai-ki zituzten horma-bularrak. Aitzitik, lubete berrietan betegarri gisa erabiltzen ari ziren horiek denak.

Obren gelditzea

Kontu horiek guztiak egiaztatu eta gero, telefono bidez jarri ginen harremanetan Arabako Arkeologia Museoarekin, eta obraren egoeraren berri eman genion. Jarraian obrako langileei leku hartan lan guztiak bertan behera uzteko agindua emana zela jakinarazteko eskatu ziguten guri, ondare elementuei eragindako kalteen aurrean zer egin erabaki arte. Esan beharra dago hondeatzeko makinako gidariari Ertzaintzari dei egiteko prest ginela esan behar izan geniola, ez baitzegoen obrak gelditzeko xedean egin genion eskaeraren aurrean amore emateko prest.

Hondakinen deskripzioa

Bide baten hondakinak dira. Alde honetan, Armiñongo herritik Rivabellosako El Buyón Benta zahar-rra doan tartean dagoen altuera aldea gainditzeko xedean, ziri trianguluarraren formako lubete bi eraiki zituzten, lubeteak lurrez eta buztinez osatuak, iparral-

Además todo el material de la calzada, en el que se incluyen los elementos constructivos mencionados, destacando por su buena factura los sillares y sillarejos con los que se habían alzado los estribos, se estaba empleando en los nuevos terraplenes como material de relleno.

Paralización de obras

Tras comprobar todos estos extremos se procedió a comunicación telefónica con el Museo de Arqueología de Álava informando de la situación de la obra y recibiendo como instrucción que se comunicase al personal de la obra la detención de cualquier trabajo en aquel punto hasta la toma de una decisión final sobre los daños causados a los elementos patrimoniales. Hay que aclarar que se tuvo que recurrir a la advertencia de aviso a la Ertzaintza para que el conductor de la excavadora hiciese caso de nuestros requerimientos de detención de la obra.

Descripción de los restos

Se trata de los restos de una calzada que para salvar el desnivel existente en esta zona, que discurre entre la localidad de Armiñón y la antigua Venta de El Buyón, en Rivabellosa, había levantado dos terraplenes en forma de cuña triangular hechos a base de tie-



Ezk. Hondakinak agertu ziren lekua 1932. urteko mapara jasota. Esk. Makinak egindako ebakia.

Izda.: Montaje sobre mapa de 1932 del lugar de aparición de los restos. Dcha. Corte realizado por la máquina.

dean bata eta hegoaldean bestea, harlandu handiekin eraikitako horma-bularrak babesten zituztenak, harlanduak lehorrean ipiniak, gainazala harlandu monolitikozko piezez estalita, harginak ondo landutako piezez estalita, horma-bularretako gailurrarenak eta oinezkoentzako igarobidearenak egiteko. Horma-bular bien artean ondo trinkotutako lurrezko/buztinezko paketea egokitzen da, neurri ederreko kareharrizko lauzez osaturiko geruza baten zimentarriarenak egiten dituena. Aipatutako lauza horiek, aldi berean, gero eta txikiagoak diren harrizko materialen oinarria osatzen dute. Harriak gero eta txikiagoak dira, eta dezimetroko errekarri bihurtzen dira goraxeago. Harri txiki hauek osatutako geruzaren gainean egokituko zen gurpildunentzako geruza, harri txintzarrez osatua: haren gainetik igaroko ziren pertsonak, abereak eta gurdia. Gurpildunentzako azkeneko geruza hau egungo obrei ekin baino dezente lehenago desagertuko zen, azpiegitura hau mantentzeko lanak egin ez zirelako eta ondorioz landareak hazi zirelako haren gainean.

Identifikaziorako proposamena

Alde honi buruzko kartografia berrikusi dugu eta 1932. urtera arte egin dugu atzera identifikaziorako proposamen bat saiatzeko. Izan ere, FEGA-Ingurumen, Landa eta Itsas Ereduak Ministerioko SIGPAC-ek eskaintutako ortoargazkiak aztertu ditugu. Ikusgailuak aukera ematen du Espainiako mapa topografikoari dagokion azken eguneraketan oinarritutako bistaratze planoak ikuskatzeko.

Mapa honetan ondo asko hautematen da kalteak jasandako aldea, eta ondo asko ikusten da zeinen gertu dagoen Donejakue Bidetik, Eusko Jaurlaritzak bide honen inguruan duen web orrian jasotzen den informazioak ondo azaltzen duen moduan.

Puntu hau jasotzen duen kartografia ofizial zaharrena, guk bederen aurkitutako zaharrena, 1:50.000 eskalan egindako Espainiako mapa sortatik jasoa da. Zehatz esateko, 1932. urtean Geografia, Katastro eta Estatistika Institutuaren Zuzendaritza Nagusiak egindako aurrenekoaz ari gara, 137. orriaz, «Miranda de Ebro».

Arabako Arkeologia Museoko teknikariak, Rivabellosako Administrazio Batzordearekin eta Erriberabeitiko Udalarekin harremanetan jarri eta gero esan zizuten Rivabellosako auzoek N-1 errepide zahararekin eta erromatarren garaiko galtzada zahar batekin identifikatzen dutela aztergai dugun bidea.

Madrid eta Irun batzen zituen N-1 errepide zaharra izateko aukera bazterrera geratzen da 1932. urteko kartografian: etorkizuneko Errepide Nazional bihurtuko zen bidea bada dagoeneko, eta bihurgune bat trazatzen du aurkikuntzak egindako puntuaren hegoaldean, 322. eta 323. kilometro puntuen artean. Bide honen gainean egokituko zen N-1 errepidea xx. mendearen bigarren erdialdera.

rra y arcilla, al norte y sur, que protegían los estribos realizados en sillería caliza de gran tamaño, colocada en seco, cubierta en superficie por piezas de sillería monolítica de buen trabajo de cantero que servían tanto de cubrera a los estribos como de lugar de paso para los peatones. Entre los dos estribos se sitúa una base de tierra/arcilla compactada, en este caso de más de un metro de potencia, que sirve como cimentación de una capa de losas calizas de buen tamaño que a su vez soportan materiales pétreos que van reduciendo su módulo hasta convertirse en cantos rodados de modulación decimétrica sobre los que se asentaría una banda de rodadura realizada en canto rodado de granulometría de pequeño tamaño sobre la que circularían personas, animales y carros. Esta última banda de rodadura habrá desaparecido con bastante anterioridad a la acción de las obras debido a la falta de mantenimiento de la infraestructura y la consecuente aparición de vegetación sobre ella.

Propuesta de identificación

Se han revisado las cartografías existentes sobre la zona y retrocediendo hasta 1932 para intentar una propuesta de identificación. En concreto hemos utilizado la ortofotografía proporcionada por SIGPAC del FEGA-Ministerio de Medio Ambiente, y Medio Rural y Marino. El visor también proporciona una capa de visualización basada en el mapa topográfico español que se corresponde a una actualización reciente.

En este mapa se aprecia el lugar de los daños y su proximidad al trazado del Camino de Santiago que coincide con la información recogida en la página web de Gobierno Vasco sobre esta ruta.

La cartografía oficial más antigua que hemos podido localizar de este punto es el conocido juego de mapas de escala 1:50.000 de España, en concreto y para esta zona, el primero que se elaboró por parte de la Dirección General del Instituto Geográfico, Catastral y de Estadística en 1932, en concreto de la hoja 137 «Miranda de Ebro».

Los técnicos del Museo de Arqueología de Álava, puestos en contacto con la Junta Administrativa de Rivabellosa y con el Ayuntamiento de Ribera Baja, nos indicaron que los vecinos de Rivabellosa identifican este tramo de calzada con el antiguo trazado de la N-1 y con una antigua calzada romana.

La opción de que se trate del antiguo trazado de la N-1 Madrid-Irún queda descartado con la cartografía de 1932: la carretera que se convertirá en la futura Carretera Nacional existe y describe una curva al sur del punto de localización de los hallazgos, entre sus kilómetros 322 y 323. Sobre este trazado se superpondrá la N-1 en la segunda mitad del siglo xx.

Bigarren aukera, erromatarren garaiko bidea izatearena, geuk agerian utzitako atalean bederen, bazter uzten du bibliografiak. Micaela Portillaren obra klasiko bat aztertu dugu, *Una Ruta Europea. Por Álava, a Compostela: Del Paso de San Adrián al Ebro*, eta bertan deskribatzen du nola 1765. urtetik aurrera Posta Zerbitzurako Errege Bidearen atal bat diseinatu eta eraiki zuten Armiñóndik Baia ibairaino, Targasen barrera –egungo kartografian kontserbatu egiten da–. Armiñongo zubiaren estuak eragin zuen 1848. urtean trazatu berri bat eraikitzea, baita zubi zabalago bat ere. Ondorioz, inguruko biztanleentzako bide bihurtu zen Targasko bidea.


Egile honek egiten duen deskripzioa bat dator, baita gaur ere, aurkitutako hondakinekin. Eta adierazten ere du egile batzuek, tartean R. Lozak, uste dutela bide honek erromatarren garaiko beste bat ezkutatzen duela, inguruan erromatarren garaiko piezak aurkitu baitira.

Aholku hauek aintzat harturik eta kontsultatutako kartografia historikotik jasotako informazioa eta XVIII. mendeko bideak eraikitzeko eraikuntza tekniken eta aztergai dugunaren arteko antzekotasunak gogoan, guk uste dugu atal hau XVIII. mende bukaeran eraikitako Postarentzako Errege Bidea dela, Armiñón eta Rivabellosako El Buyón benta lotzen zituena, Gaztelako Erresumaren eta Arabako Herrialdearen arteko muga eratzen zuena. M. Portillak proposatzen duen bezala, oraindik kontserbatu egiten da haren atal bat Miranda de Ebron, Burgosko probintzian.

La segunda posibilidad, que se trate de una calzada romana, al menos en el trazado descubierto, queda descartada por la bibliografía. Hemos recurrido a la obra clásica de Micaela Portilla *Una Ruta Europea. Por Álava, a Compostela: Del Paso de San Adrián al Ebro* en que describe como a partir de 1765 se diseñó y ejecutó un tramo del Camino Real de Postas desde Armiñón hasta el río Bayas por el término de Targas –que se conserva en la cartografía actual–. La estrechez del puente de Armiñón provocó en 1848 la construcción de un nuevo trazado y un nuevo puente más ancho que motivó que el camino de Targas se quedase como una ruta local.

La descripción que hace esta autora se corresponde, aún hoy, con los restos localizados y también indica que algunos autores, como R. Loza, han considerado que este trazado oculta la vía romana ya que se han recogido piezas de esta cronología en la zona.

Siguiendo estas indicaciones, y la información recogida en la cartografía histórica consultada, así como la similitud entre las técnicas constructivas de calzadas del siglo XVIII y las descritas en este elemento, proponemos que la identificación de este tramo se corresponde con el Camino Real de Postas realizado en el final del siglo XVIII y que unía Armiñón con la Venta del Bullón (Rivabellosa) que marcaba el límite entre el Reino de Castilla y la Provincia de Álava, del que todavía queda hoy un Confín en Miranda de Ebro (Burgos), tal y como propone M. Portilla.



Aurkitutako elementuen eta XVIII. mendeko bidearen sekzio bikain baten arteko aldeak.

Comparación entre los elementos localizados y una sección ideal de calzada del siglo XVIII.

Proposatutako neurri zuzentzaileak

Kalteak konpondu ezinak zirenez, eta bide azpiegituraren eraikuntza oso aurreratuta zegoenez, inguruko lanak behin-behinean baina premiaz lagatzeko proposamena egin genuen, hondakinak kalte gehiago ez eragiteko. Era berean, hondakinak sare geotextil batez estaltzea proposatu genuen. Esan dezagun berehala bururatu zutela eskatutakoa.

Medidas correctoras propuestas

Dado que los daños no son recuperables, y que la realización de la infraestructura viaria estaba en un estado muy avanzado de construcción propusimos que de manera provisional y urgente se suspendiesen los trabajos en el entorno, sin seguir afectando a los restos, y que se cubriesen los restos con malla geotextil y con tierra, lo que se realizó de manera inmediata a la propuesta.

F.R. Varón Hernández

A.18.3. **San Esteban eliza (Quintanilla de la Ribera)**

Zuzendaritza: José Manuel Martínez
Torrecilla
Finantzazioa: Técnicas de Arquitectura
Monumental S.A.

A.18.3. **Iglesia de San Esteban (Quintanilla de la Ribera)**

Dirección: José Manuel Martínez
Torrecilla
Financiación: Técnicas de Arquitectura
Monumental S.A.

The archaeological intervention was carried out as the result of the comprehensive restoration of San Esteban Church in Quintanilla de la Ribera. The results revealed the occupation of the area from the Middle Ages onwards. Following a primitive use of the slope, on which a series of burial sites were found, an early settlement was built and terraces dug. The next stage corresponds to a graveyard and later on, a retaining wall was built, which is still standing today. The internal distribution of the rectory building was the last action carried out in this zone.

Quintanilla de la Riberako San Esteban elizaren eraberritze integralak nola elizaren hala haren ingurua-
ren azterketa arkeologikoa eskatzen zuen. Izan ere, tenpluaren hegoaldeko fatxadaren aurrean terrazari eusten dion horman drainatze sistema bat egokitu behar zuten. Drainatzeko sistema honek zuzeneko eragina izango zuen estratigrafia arkeologikoan, eta horrexegatik, zundaketa bi egin genituen, hasteko, terrazak hartzen duen aldean.

Hormaren ekialdean zegoen erretore etxea, zaharberritzeko proiektura ere bildua. Beraz, hura desmuntatzeko lanen gaineko jarraipen arkeologikoa egin genuen, eta gero erabat induskatu genuen.

Zundaketetatik eta erretore etxetik lortutako emaitzak osatu egin ziren elizaren sarrera nagusiaren aurreko terrazan bururatutako esku-hartzearekin.

Terrazaren alde honetan bi jarduera mota eraman genituen burura: batetik, eustormari atxikirik eta haren paraleloan lubaki bat ireki genuen geruza naturalera iritsi arte. Bestetik, aipatutako lubakiaren eta elizaren hegoaldeko hormen artean geratzen zen espazioa metro betean beharatu genuen (kota horretara iritsi beharra zegoen saneamendu eta drainadurarako kanalizazioak egokitzeko).

Esparru hauetan guztietan bururatutako jardunetatik, proiektu bakar batera biltzen diren jardunetatik, lortutako emaitzak eskuetan ditugula, honako okupazio sekuentzia hau zehaztu ahal izan dugu alde honetan:

La restauración integral de la iglesia de San Esteban en Quintanilla de la Ribera supuso la realización de un estudio arqueológico, tanto en la iglesia como en su entorno. Se contemplaba la realización de un drenaje del muro de contención que se desarrolla delante de la fachada sur del templo que sustenta la terraza. El drenaje iba a afectar de manera significativa la estratificación arqueológica y por ello se realizaron, en primer lugar, dos sondeos en la zona de la terraza.

Al este del muro se encontraba el edificio rectoral, incluido también en el proyecto de restauración, por lo que su desmontaje fue objeto de control arqueológico y posteriormente se excavó en su totalidad.

Los resultados recogidos, en los sondeos y en el edificio rectoral, fueron completados con la intervención llevada a cabo en la terraza situada delante del acceso principal de la iglesia.

En esta zona de terraza se realizaron dos tipos de actuación: por un lado se abrió una zanja paralela y pegada al muro de contención, hasta alcanzar el sustrato natural. Por otro se rebajó un metro (cota necesaria para introducir canalizaciones de saneamiento y drenaje) el espacio que quedaba entre dicha zanja y los muros del lado sur de la iglesia.

Con los resultados obtenidos de las actuaciones llevadas a cabo en todos estos ámbitos, englobados en un único proyecto, hemos podido establecer la siguiente secuencia ocupacional de la zona:

1. aldia. Aurreneko erabilerak mazelan

Aldi honetara biltzen dira erretore etxearen inguruan aurkitutako hainbat elementu. Bertan urak biltzeko eta putzu batean metatzeko erreten bat dokumentatu genuen. Gainera, geruza naturalaren gainean egokitutako bost hilobiratze identifikatu genituen, haietatik bi haurrei zegozkienak. Badakigu gizaki helduei dagozkien gorpuzkinak (esan beharra dago haietatik bi hobi antropomorfoetan egokituak zirela) maze-la urbanizatu aurrekoak direla. Aitzitik, haurren hilobiak, estratigrafian hartzen duten lekuari erreparatuz gero, mazela urbanizatu aurrekoak edo ondorengoak izan daitezke.

2. aldia. Mazelaren urbanizazioa

Bigarren aldi honetara biltzen dira nola erretore etxearen inguruan hala terraza aldean aurkitutako hainbat aztarna.

Terraza aldean egitura eta balizko silo bana topatu genuen, haien morfologiari eta estratigrafian hartzen duten lekuari erreparatuz gero aldi honetan kokatu beharrekoak. Erretore etxearen espazioan geruza naturalan egindako ebaki bi geratu ziren agerian, gela


Fase 1. Primeros usos sobre la ladera

Esta primera fase corresponde a una serie de elementos hallados en la zona del edificio rectoral. Se documentó una zanja destinada a la recogida de aguas para contenerlas en un pozo. Además se descubrieron cinco enterramientos realizados sobre el sustrato natural, dos de ellos infantiles. Los pertenecientes a individuos adultos (destacar que dos estaban depositados en fosas antropomorfas) sabemos que son anteriores a la urbanización de la ladera. En cambio los enterramientos infantiles, por su posición estratigráfica podrían situarse tanto antes como después de la fase de urbanización.

Fase 2. Urbanización de la ladera

De esta segunda fase tenemos una serie de evidencias tanto en la zona del edificio rectoral como en la zona de la terraza.

Se descubrió una estructura y un posible silo en la zona de la terraza que asociamos por morfología y por estratigrafía a este momento. En el espacio del edificio rectoral se hallaron dos cortes realizados en el sustrato natural correspondientes a dos estancias se-



San Esteban Elizaren planoak (Quintanilla de la Ribera). Berdez, 1. aldiko aztarnak: Aurreneko erabilerak mazelan. Urdinez, 2. aldiko aztarnak: Mazelaren urbanizazioa.

Plano de la Iglesia de San Esteban (Quintanilla de la Ribera). En verde las evidencias de la Fase 1: Primeros usos de la ladera. En azul las evidencias de la Fase 2: Urbanización de la ladera.

erdi harpetar biri zegozkienak. Ebaki hauei atxikirik espazioak mugatzeko egitura sorta bat dokumentatu genuen. Aztarna hauek guztiek mazelaren alde honetako aurreneko okupazio aldia uzten dute agerian, gutxi gora-behera xv. mendean gertatu zena, egungo eliza eraiki baino lehen.

3. aldia. Aurreneko terrazak mazelan

Aldi honetara biltzen dira, haien morfologiari eta estratigrafiari hartzten duten lekuari erreparatuz gero, mazela honetako aurreneko urbanizazioa amortizatu eta aurreneko terraza eraiki zuten garaiari dagozkion elementu batzuk. Garai bertsuan eraiki zuten eliza. Aldi honetakoak dira horma egitura bi, bietan aipagarriena, handiena delako, terraza aldean dagoen horma, aldi berean erretore etxearen atala osatzen duena, aipatu etxearen iparraldeko hormarenak egiten baititu.


Terraza aldean bada beste horma bat, baita zokalo bat ere elizaren hegoaldeko hormaren mendebaldeko muturrean ere. Itxura guztien arabera, ageri dituzten ezaugarri morfologikoengatik eta elizaren hormen estratigrafiaren gaineko azterketa arkeologikoen halaxe adierazten digutelako, egitura biak aldi honetan eraiki zituztela esan behar dugu.

mirupestres. Dichos cortes llevaban asociados una serie de estructuras de delimitación de los espacios. Todas estas evidencias nos hablaban de la existencia de un primer momento ocupacional de esta zona de ladera, aproximadamente en el siglo xv y previo a la construcción de la iglesia actual.

Fase 3. Primer aterrazamiento de la ladera

En esta fase se engloban una serie de elementos que por su situación estratigráfica y su morfología pertenecen a un momento en el que se amortiza la primera urbanización de esta ladera y se efectúa un primer aterrazamiento. Momento que coincide con la construcción de la iglesia. Tenemos dos estructuras murarias, siendo la más destacada, sobre todo por sus dimensiones, un muro situado en la zona de la terraza pero que también forma parte del edificio rectoral ya que es el muro de delimitación norte de éste.

Existe otro muro que también se localiza en la zona de la terraza, y un zócalo situado en el extremo occidental del muro sur de la iglesia. Ambas estructuras podemos suponer que se realizan en este momento, por sus características morfológicas y por estudios arqueológicos realizados referentes al estudio estratigráfico de los alzados de la iglesia.



4. aldia: Urbanizazioa amortizatzea eta hilerri aldia San Esteban elizan (Quintanilla de la Ribera).

Fase 4: Amortización del urbanismo y fase cementerial, en la Iglesia de San Esteban (Quintanilla de la Ribera).

4. aldia. Urbanizazioa amortizatzea eta hilerri aldia

Une honetan aldaketa garrantzitsua gertatu zen elizaren hegoaldeko espazioari ematen zioten erabilerran. Kronologikoki une honek elizaren erabilerrarekin egiten du bat, baina 1635. urtea baino lehenagokoa da (urte hartan eraiki zuten, hurrengo aldian alegia, eustorma). Zegoen urbanizazioa amortizatu egin zuten, baina agian ez guztiz. Izan ere, mendebaldean, aurreneko terrazari dagokion eustorma amortizatu egin zutela esan dezakegu, haren gainean nekropoli hila bat erregistratu genuelako. Aitzitik, baliteke ekialdean errealitate biak aldi berean gertatzea: bizitoki bat izatea (egungo erretore etxearen inguruan) eta eustorma bat eraiki izana zenduentsako ehorzlekurako betegarri eusteko.

Mendebaldean ondo mugatuta dago nekropoliaren luze-zabalera, hari atxikiriko horma bat geratu baitzen agerian. Aitzitik, ez dakigu hegoaldean zer espazio hartzen zuen, egungo eustormaren eraikuntzak betekoz galdu arazi baitzuen alde honetako nekropoliaren atal bat. Nekropoliaren ekialdeko mugak gainditu egiten du gure jarduera esparrua. Horregatik uste dugu nekropolia elizaren kanpoko hego-ekialdeko eremu guztira hedatzen dela.

Nekropoliaren induskatutako betegarriek bat egiten dute elizaren hegoaldean kokatutako kaperarekin. Kaperak hau elizaren gangak eraikitzeke garaian baliatu zuten teknikaren arabera eraiki zuten. Kronologiari dagokionez, hilerriaren azkeneko erabilera uneak XVI. mende amaieran edo XVII. mende hasieran kokatzen ditugu.¹²

Hala eta guztiz ere, esan dezagun ehorzleku hau aski denbora tarte luzean baliatu zutela erabilera hori emanez. Guztira hamar hilobiratze egiaztatu genituen, eta kasuren batean hobia behin eta berriz erabili zutela esan behar dugu. Guztiak zeuden mendebaldetik ekialderako norabidean. Askok kareharrizko lauza handiez osaturiko estalkiak zituzten. Harri xabal txikiak baliatu zituzten hobiak mugatzeko, eta horizontalean ipinitako harri xabala paratzen zuten zenduaren buruaren gainean.

Alde honetan eta gainazalitik behera kontatzen hasita kota metro betean baino beheratu behar ez genuenez, ez genituen nekropoli honi dagozkion depositu guztiak dokumentatu. Hala eta guztiz ere, hilerri honen espazio berean, aurreko ehorzketak aldi bati dagozkion hainbat hilobiratze daudela ikusi ahal izan genuen.

5. aldia. Eustormaren eraikuntza

Egungo eustorma eraikita zegoen 1635. urterako¹³. Gutxi gora-behera ekialdetik mendebaldera

¹² Iban Sánchez Pintok eskainitako datuak, elizaren hormen azterketa.

¹³ Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Hainbat dokumentu zahar. 2221-2, Hargintza lanak Quintanillako elizako hilerrian.

Fase 4. Amortización del urbanismo y fase cementerial

En este momento se produce un cambio importante en el uso que se le da al espacio situado al sur de la iglesia. Temporalmente este momento convive con el uso de la iglesia y es anterior a 1635 (fecha de construcción del muro de contención, de la fase siguiente). Se produce una amortización del urbanismo aunque no tuvo por qué ser completa. Así como en la zona occidental el muro de contención, perteneciente al primer aterramiento, está amortizado porque se apoya en él un enterramiento de la necrópolis, en la zona oriental puede que llegaran a convivir ambas realidades: un lugar habitacional (en la zona del actual edificio rectoral) y la creación de un muro que contendría los rellenos de un lugar de inhumación.

La extensión de la necrópolis queda bien delimitada en la zona occidental por la presencia de un muro que se adosa a ella. En cambio en la zona sur desconocemos su extensión porque con la creación del muro de contención actual se eliminó parte de la necrópolis por esta zona. Los límites orientales de la necrópolis se amplían más allá de la extensión de nuestra actuación, por lo que suponemos que la necrópolis se desarrolla por toda la zona sureste del exterior de la iglesia.

Los rellenos excavados de la necrópolis se adosan a la capilla situada al sur de la iglesia. Dicha capilla presenta un tipo de talla igual que la utilizada en las bóvedas de la iglesia. Podríamos decir que los últimos momentos de uso del cementerio pueden ubicarse cronológicamente a finales del siglo XVI o comienzos del siglo XVII.¹²

Con todo, este lugar de inhumación fue utilizado durante una horquilla temporal bastante amplia. Se exhumaron un total de diez enterramientos constatándose en algún caso la reutilización sucesiva de una misma fosa. Todos tenían una orientación W-E y muchos de ellos presentaban estructura de cubierta a base de grandes lajas de calizas, utilización de pequeñas lajas como delimitación de fosa y una laja dispuesta horizontalmente encima de la cabeza del individuo.

Como nuestra actuación consistía en esta zona, en rebajar un metro desde la superficie, no se documentaron todos los depósitos pertenecientes a la necrópolis. Aún así, se observó la existencia de más enterramientos pertenecientes a un momento de inhumación anterior dentro del mismo espacio cementerial.

Fase 5. Construcción del muro de contención

El muro de contención actual estaba ya construido en el año 1635¹³. Discurre con una orientación

¹² Datos ofrecidos por Iban Sánchez Pinto de los alzados de la iglesia.

¹³ Archivo Histórico Diocesano de Vitoria, Documentos varios antiguos. Sig. 2221-2, Obra de cantería en el cementerio de la iglesia de Quintanilla.

luzatzen da, erretore etxearen mugetatik elizaren mendebaldeko muga gainditu arte. Horma honek horma-bularrak ditu nola kanpoko hala barruko aldetik, presioei egokiro aurre egiteko. Era berean, zabalagoa da oinetan, eta era mailakatu batez estutzen da gora egin ahala. Barruko aurpegian hainbat zokalo dokumentatu genituen.

Geruza naturalaren gainean egokitzen da, eta hura eraiki ahal izateko lubaki bat ireki behar izan zuten, aurreko betegarrien parte bat betikoz galdu araziz. Gero horma eraiki zuten, eta haren neurriei erreparatuz gero, esan dezagun hainbat alditan eraikiko zutela, egitura honi atxikiriko betegarriek argi eta garbi erakusten duten bezala. Gainera, eraikuntza honi dagozkie hormaren oinari atxikiriko hainbat egitura; egitura hauek, egituraren ikuspuntutik, seguru asko aipatutako hormaren puntu ahulenak sendotzeko xedean eraiki zituzten.

Aldi honetara bildu ere ditugu terrazan egindako azkeneko lanak, hau da, elizari sarrera egiten dioten eskailerak eta terrazaren ipar-mendebaldean egokitutako zoladura, hilerria zigilatzeke egiturarenak betetzen dituen.

6. aldia. Erretore etxearen amortizazioa eta azken lanak

Azken aldi honetan dokumentatzen dira erretore etxearen amortizazioari eta espazio honetan gero bururatu zituzten lanei dagozkien aztarna guztiak, denak aro garaikidean kokatu beharrekoak.

Une honetan eta betegarri bat baliatuta berdindu egin zuten espazio hau osoa, eta egitura batzuk altza zituzten eraikina barrutik banatzeko, solairu bitan banatzeko. Aztarna guztiak dokumentatuta, agerian geratu zen eraikinaren iparraldean bizitoki bat zegoena. Hegoaldea beste gela batzuek hartzen zuten, abelburuentzako ukuluek. Ipar-mendebaldeko muturrean kokatutako ateak egiten zion sarrera behe-oinari, elizaren inguruko egungo zoruaren kotatik behera.

aproximada de E a W desde los límites del edificio rectoral hasta más allá del límite occidental de la iglesia. El muro presenta contrafuertes externos e internos para poder contrarrestar sus diferentes empujes. También presenta una anchura mayor en su base, disminuyendo de forma escalonada, documentándose varios zócalos en su cara interna.

Se asienta sobre el sustrato natural y para su construcción hubieron de realizar una zanja, eliminando parte de los rellenos anteriores, y construir el muro que, por sus dimensiones, seguro se realizó diferentes fases de obra, constatadas por los diferentes rellenos que se adosan a esta estructura. Además, a esta construcción se asocian una serie de estructuras adosadas a la base del muro de contención que seguramente se dispusieron a modo de refuerzo en una de las zonas más débiles, desde el punto de vista estructural, de dicho muro.

Dentro de esta fase se documentan también las últimas obras realizadas sobre la terraza como son las escaleras de acceso a la iglesia y el pavimento dispuesto en la zona nororiental de la terraza y que actúa como estructura de sellado del cementerio.

Fase 6. Amortización del edificio rectoral y obras recientes

En esta última fase se documentan todas las evidencias pertenecientes a la amortización del edificio rectoral y las obras posteriores que se realizaron en este espacio, correspondientes a una cronología contemporánea.

En este momento se nivela todo este espacio por medio de un relleno y se disponen una serie de estructuras para la compartimentación interna del edificio, dividiéndose en dos plantas. Tras la documentación de todas las evidencias se puso de manifiesto la existencia de un lugar habitacional situado en la parte norte del edificio. La zona sur estaba ocupada por otras estancias dedicadas a cuadras para el ganado. A la planta baja se accedía por una puerta situada en el extremo nororiental, a una cota inferior del suelo actual del entorno de la iglesia.

B. Renedo Villarroya; A. Rodríguez Costas

A.18.4. **Telegraforako dorrea. II. fasea (Quintanilla de la Ribera)**

Zuzendaritza: Iban Sánchez Pinto
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia;
Quintanilla de la Ribera Administrazio
Batzordea

A.18.4. **Torre del telégrafo. Fase II (Quintanilla de la Ribera)**

Dirección: Iban Sánchez Pinto
Financiación: Diputación Foral de
Álava; Junta Administrativa de
Quintanilla de la Ribera

The intervention served to improve our knowledge of the building and its configuration over the years. It also served to refute and invalidate the working hypotheses on which we had based our activities.

Aurrekariak

Quintanilla de la Ribera telegrafo optikoari leku egiten dion dorreari halako balioa emateko proiektuari jarraiki 2008. urtean zehar burura eramandako lehenengo zundaketa kanpainan indusketa arkeologikoak egin genituen bi sektoretan, zundaketa bi egin genituen. Lehenengoa dorrearen oinetan ireki genuen, hegoaldeko hormatik hurbil. Bigarrena, berriz, metro gutxi batzuetara ireki genuen, hego-mendebaldean, mazelak alde honetan duen terraza txikian, lurra inguratzen duen gainazalaren kotatik kontatzen hasita bi metro beherago geratzen den aldean. Era berean, dorrearen hormen irakurketa egin genuen.

Agerikoak ziren esku-hartze honek bila zituenak. Zundaketa arkeologiko hauekin, batetik, kanpoko aldetik eraikinaren aurreneko solairura igotzeko eskuko eskaileraren beste aztarnarik ba ote zegoen jakitea bila genuen, eta bestetik, beheko terrazan betegarriei eusteko hormarik ba ote zegoen egiaztatu nahi genuen, itxura guztien arabera betegarriok mazelari gehitu baitzizkioten dorrea eraikitzean eta hirugarren karlistaldian babeserako barruti bihurtu zutenean. Hormak irakurrita eraikinak bizi izandako historiaren bilakaera argitzea bila genuen.

Zundaketa hauetatik lortutako emaitzek eta eraikinaren estratigrafiaren irakurketak eskaini zituen datuek aukera eman ziguten eraikinaren eraikuntzaren historia ehuteko. Gisa honetan, hiru alditan artikulatu zen dorrearen eraikuntzaren historiaren bilakaera, ugari baitira aldi guztietatik kontserbatu diren hondakinak. Lehenengo aldikoa da dorrea bera, jatorrian baino motzagoa bada ere. Bigarren aldikoak dira dorrearen kanpoko itxura zeharo aldatuko zuten babes izaerako elementuak, beheko solairuko belarri itxurako saietarak eta lehenengo solairukoak. Eraikinaren inguruan ingurabide esan geniona erregistratu genuen. Ingurabide hau landu gabeko harrizko horma batek, harresitaz hartu genuenak, inguratuta zegoen. Bukatzeko, eraikinaren abandonatzearekin identifikatu genuen hirugarren aldia.

Indusketa lanetan zehar agerian utzitako aztarnak, eraikinaren hormen irakurketa estratigrafikoa eta

Antecedentes

Durante la primera campaña de sondeos efectuada a lo largo del año 2008 con motivo de la redacción del proyecto de puesta en valor de la torre de telegrafía óptica de Quintanilla de la Ribera, se dividió la excavación arqueológica efectuada en dos sectores, realizándose sendos sondeos. El primero de ellos se situaba a los pies de la torre, junto al alzado meridional. El segundo, sin embargo, se emplazó a escasos metros en dirección SW, en la pequeña terraza que describe la ladera en esta zona y que se sitúa cerca de dos metros por debajo del nivel superficial que rodea la tierra. Igualmente, se realizó la lectura de paramentos de la torre.


Los objetivos de esta intervención eran claros. Con los sondeos arqueológicos se pretendía conocer si restaba alguna evidencia de la escalera de mano con la que se ascendía a la primera planta de la edificación desde el exterior y, constatar si realmente en la terraza inferior se situaba un muro de contención para los rellenos que, presumiblemente, se habían aportado a la ladera tras la edificación de la torre y su conversión en recinto defensivo durante la tercera guerra carlista. Con la lectura de alzados se pretendía conocer la evolución histórica por la que había atravesado el edificio.

Los resultados obtenidos a partir de estos sondeos así como los datos que ofreció la lectura estratigráfica del edificio, permitieron hilvanar la historia edilicia de la construcción. Así, la evolución histórico-constructiva del edificio se articuló en tres fases, siendo los restos conservados de todas ellas abundantes. Del primer momento se conserva la torre en sí misma, ligeramente desmochada con respecto a la forma genérica con la que fue concebida. Del segundo momento, se documentaron toda una serie de elementos de carácter defensivo que transformaban el aspecto exterior de la torre, como eran la apertura de troneras de pie en la planta baja y de saeteras a la altura de la primera. En el entorno del edificio se registró lo que denominamos paso de ronda que se encontraba precedido por un muro de mampostería y que identificamos como una muralla. Finalmente, el tercer momento se identificó con el abandono del edificio.

Conjugando las evidencias exhumadas durante las labores de excavación y la lectura estratigráfica del

dokumentatu ahal izan genituen erreferentziak aintzat hartuta azaldu genuen dorrearen eraikuntzaren bilakaera. Agerian utzi genuen deus ere ez zela konserbatzen dokumentazioak adierazten duen aurreko eraikin batetik, eta horrexegatik eraiki zutela Armiñongo lurretatik gertu, seguru asko herritik hurbil. Konklusio gisa dorrea 1844 eta 1846 urte bitartean eraikiko zutela esan genuen, azken urte horretan ipini baitzuten abian telegrafo optikoaren linea. Gainera, Pascual Madozen erreferentzia funtsezko bat genuen, haren obrara jasotako Arabari buruzko atala idazten ari zela dorre hau eraikitzen ari zirela baitzion. Buka-

edificio con las referencias que se consiguieron documentar, se explicó la evolución constructiva de la torre. Se puso de manifiesto que nada restaba de una construcción previa señalada por la documentación, lo que motivó que se situara su erección en el entorno de Armiñón, muy probablemente cerca de la localidad. Se concluyó que la torre se tuvo que construir entre los años 1844 y 1846, momento en el que la línea del telegrafo óptico se puso en funcionamiento. Además, se contaba con la referencia inestimable de Pascual Madoz en la que se señalaba que en el momento de redactar el apartado de su obra referente a Álava, la to-



Quintanilla de la Riberako telegrafo optikorako dorrea. A) Nola barruko hala kanpoko indusketetan dokumentatutako hondakinekin osatutako argazki-planoa. B) Ilustración Española y Americana (1875-11-22) obrara jasotako grabatua, eraikina II. aldirian nolako izango zen iradokitzen duena. C) Egungo egoera zaharberritzeko lanen lehenengo aldia amaitutakoan. D) Iparraldetik hegoalderako sekzioa luzeran.

Torre del telégrafo de óptico de Quintanilla de la Ribera. A) Fotoplano con los restos documentados en la excavación tanto del interior como del exterior. B) Grabado de la Ilustración Española y Americana 22-11-1875 en el que se aprecia cómo pudo ser el edificio en la fase II. C) Estado actual tras la primera fase de restauración. D) Sección longitudinal N-S.

tzeko, eraikin hau barruti militar bihurtu zutela salatzaren duten aztarna batzuk dokumentatu genituen, eta hirugarren karlistaldian alde honetan gertatu zirenak kontuan izanik, aukera izan genuen hondakin edo aztarna horiek borroka militarrek gertatu ziren kronologian kokatzeko, 1875. urteko Trebiñuko gudaren amaiera aldean.

Helburuak

Lehenengo kanpaina honen ostean, nola telegrafo dorrearen eraikinean hala haren inguruan gertatutakoak zehatz-mehatz ezagutzeko beharra planteatu genuen. Horretarako beste indusketa kanpaina bat egitea planteatu genuen dorrearen barruko aldea eta eraikinaren inguru hurbila xehe-xehe aztertze xedean.

Dorrearen barruko aldean bururatu beharreko esku-hartze hauekin eraikinaren beheko solairua nola artikulatzen zen jakin nahi genuen, beste telegrafo dorre batzuk gogoan edukita aukera handiak baitzeuden honetan ere higiezina egituratzen zuen eskailera kiribilaren ardatza eta barruko aldea inguratzen zuen banku jarraitua (Andaluziako telegrafo optikoa) kontserbatzeko. Era berean, bazeuden beheko solairuan egongo ziren gelen arrastoak kontserbatzeko aukerak.

Eraikinaren kanpoko aldean hasierako hipotesia berrestea edo baztertzea bila genuen, hau da, eraikina inguratuko zuen oinplano zirkularreko ingurabiderik, harresi batez inguratutik, bat ote zegoen egiaztatu nahi genuen.

Esku-hartzea

Lanerako estrategia

Lehen ere adierazi dugun bezala, sektore bitan banatu genuen interbentzioa. Honenbestez, eraikinaren barrunbe osoa induskatu genuen, gutxi gora-behera 25 m². Kanpoko aldean, berriz, 300 m² inguruko eremua induskatzea planteatu genuen.

Emaitzak

Indusketa lanak amaitu eta gero osatu egin dugu eraikinari eta haren inguru hurbilari begira genuen informazioa. Halatan, 2008. urtean ingurabidearen oinplanoaren inguruan adierazitakoak okerrak direla esan behar dugu, ez baita, hasieran uste genuen bezala, zirkularra, baizik eta lau angeluduna. Dokumentatutako gainerako aztarnek berretsi egiten dituzte aurreko kanpainaren ostean adierazitako hipotesiak.

Eraikina

Dorrearen barruko aldeko metro bete inguru lodierako abandonatze maila (300. UE) altza eta gero, jato-

rre se encontraba en construcción. Por último, se documentó la presencia de una serie de evidencias que denunciaban la conversión del edificio en un recinto militar, lo que unido a los acontecimientos que se desarrollaron en la zona durante los años en los que sucedió la tercera carlistada, permitió situar dichos restos en la cronología en la que el enfrentamiento militar aconteció y, más concretamente en las postrimerías de la batalla de Treviño, acaecida en el año 1875.

Objetivos

Tras esta primera campaña, se planteó la necesidad de conocer aún mejor lo sucedido exactamente tanto en el edificio de la torre del telégrafo como en el entorno de la misma. Por ello se planteó una nueva campaña de excavación, que contemplaba el análisis del interior de la torre y del entorno inmediato del edificio.

Con estas intervenciones en el interior de la torre, se pretendía conocer cómo se articula el edificio a nivel de la planta baja, ya que a tenor de los ejemplos existentes de torres del telégrafo, cabía la posibilidad de que se conservara tanto el husillo de la escalera de caracol que vertebraba el inmueble como el banco corrido que rodeaba el interior (Telegrafía óptica en Andalucía). Igualmente, cabía la posibilidad de que se conservaran restos de las dependencias que se situaban en la planta baja.

En el exterior del edificio se quería refrendar o desechar la hipótesis de partida, la existencia de un paso de ronda rodeando al edificio con forma en planta circular que se encontraba precedido por una muralla.

La intervención

Estrategia de trabajo

Como ya hemos apuntado, la intervención se dividió en dos sectores. Así, se excavó todo el recinto interior del edificio cuyas dimensiones en planta se aproximan a unos 25 m². Mientras, al exterior se planteó excavar un área cercana a los 300 m².

Los resultados

Tras la finalización de la excavación se ha completado la información que sobre el edificio y el entorno circundante al mismo disponíamos. Así se ha modificado la interpretación que en el año 2008 se dio sobre la forma en planta del paso de ronda, ya que éste no es circular, tal y como pensábamos, sino que presenta una forma en planta cuadrangular. El resto de evidencias documentadas, vienen a confirmar las hipótesis vertidas tras la anterior campaña.

El edificio

Tras retirar el nivel de abandono situado al interior de la torre (UE 300) cuyo espesor rondó el metro, se

rrizko lauzadura geratu zen agerian, eraikinaren 1. aldiari dagokiona (301. UE), lurraren maila berdintzeko geruzaren (322. UE) gainean egokituta. Geruza hau kolore marroiko lurrez osatuta zegoen, karezko nodulu askorekin. Zazpi errenkadek osatua zen lauzadura, guztiak kareharrizko lauzak, eskailera kiribilaren ardatz gisa dokumentatu genuen harria (311. UE) eta moztutako piramide formako erdiko pieza izan ezik, hauek hareharrizkoak baitziren. Azkeneko honek kutxa txiki bat, 10x10x5 cm-koa zuen gainean. Obra honetan hareharriak erabili zituzten kareharriak baino errazagoak baitira lantzeko garaian.

Era berean, eskailera kiribilaren ardatzari loturik, eskailera mailekin zerikusia duten ebaki batzuk erregistratu genituen (UUEE 313., 315., 317., 319. eta 321. UEak). Bukatzeko, inolako funtziorik betetzen ez zuten zulo batzuk dokumentatu genituen (UUEE 303., 305., 307. eta 309. UEak).

Indusketa amaituta ezin izan genuen ustez eraikinaren barruko perimetro osoari atxikita behar zuen banku jarraitua erregistratu, ez eta ustez beheko solairuko gelak banatuko zituzten egituren hondakinak ere. Horregatik guztiagatik esan behar dugu solairu hau osoa espazio garbi batek hartuko zuela, gelarik ga-beak. Guk uste dugu bigarren aldian, belarri formako saieterak ireki zituztenean, banku edo zokalo jarraituren bat eraiki behar izango zutela haietara iritsi ahal izateko, baina ez da, zoritxarrez, haren aztarna materialik kontserbatu.

Ingurua

Eraikinaren inguruan dokumentatutako estratigrafiak 2008. urteko kanpainan adierazitakoari erantzuten dio, ez dugu hartan aldaketa handirik hauteman. Hala eta guztiz ere, landare geruza (100., 101. eta 102. UEak) altxatutakoan bestelakoak diren bi errealitate geratu ziren agerian.

A) Ingurabidea edo lubanarroa eta harresia

Lehen ere adierazi dugun bezala, 2008. urtean bururatutako kanpainan haren presentzia erregistratu genuen, eta haren oinplanoaren forma hipotesi gisa zein izan zitekeen aurreratu bagenuen ere, ez ginen ziur nolakoa zuen. Halatan, kanpaina honetako indusketa lanak amaitutakoan, oinplano koadroko ingurabide edo lubanarro bat zela egiaztatu ahal izan genuen, oinean gutxi gora-behera 15 m (iparraldetik hegoaldera) bider 15 m-koa (ekialdetik mendebaldera). Era berean, nola harresia hala ingurabidea eraikuntza jarduera bati eta berari erantzuten diotela ikusi genuen, harresiak ingurabidearen kanpoko aldea eratzeaz gainera beste egiteko bat betetzen baitzuen, hots, ingurabidea induskatu zen betegarriei eusteko elementuak betetzen zituen.

Harresiak (106. UE) 15x15 metroko lubanarroak dituen neurri berak ditu oinean, baina altueran alde handiak daude, harresia mazelari egokitzen baitzaio eta iparraldera egin ahala garaiagoa delako. Honenbestez, hegoaldean gehienez ere metro bateko altuera

documentó la presencia del enlosado original, y por tanto perteneciente a la fase I del edificio (UE 301), asentado sobre una capa de nivelación (UE 322) compuesta por tierra de color marrón con abundantes nódulos de cal. El enlosado se encontraba compuesto por un total de siete hiladas, todas ellas losas de piedra caliza a excepción de la losa en la que se documentó el husillo de la escalera de caracol (UE 311) y la pieza central con forma troncopiramidal y rematada por una pequeña caja de apenas 10x10x5 cm, que se encontraban realizadas en arenisca. Este cambio en la litología de las piedras empleadas responde a la facilidad de labrado de la arenisca frente a la caliza.

Igualmente, asociados al husillo de la escalera de caracol se registraron una serie de cortes relacionados con los peldaños de esta (UUEE 313, 315, 317, 319, 321). Finalmente se documentaron una serie de orificios carentes de funcionalidad (UUEE 303, 305, 307, 309).

Tras la finalización de la excavación, no se pudo registrar el banco corrido que suponíamos se encontraba adosado a todo el perímetro del interior del edificio, ni los restos de la compartimentación interior que pensábamos habría en la planta baja. Por ello, tenemos que señalar que toda esta planta consistía en un espacio diáfano, sin compartimentar. Pensamos, que en la segunda fase, cuando se abren las troneras de pie, tuvo que construirse algún tipo de banco lígneo, para poder llegar a la altura de las mismas, del que no ha quedado ninguna evidencia material.

El entorno

La estratigrafía documentada en el entorno del edificio responde a la ya señalada en la campaña del año 2008, no habiéndose registrado grandes diferencias con respecto a ésta. Sin embargo, tras la retirada del nivel vegetal (UE 100-102) se registraron dos realidades diferentes.

A) El paso de ronda o foso y la muralla

Como hemos señalado, en la campaña llevada a cabo en el año 2008 ya se registró su presencia y, aunque a modo de hipótesis propusimos cuál podía ser su forma en planta, desconocíamos con seguridad la misma. Así, tras la finalización de la excavación, pudimos constatar que se trataba de un paso de ronda o foso de forma en planta cuadrangular, con unas dimensiones en planta de ca. 15 m N-S y de 15 m E-W. Igualmente, comprendimos que la muralla y el paso de ronda formaban parte de la misma actividad constructiva, ya que la muralla además de constituir el lateral exterior del mismo cumple una función estructural más, al servir como elemento de sustentación de los rellenos en los que se excavó el paso de ronda.

La muralla (UE 106), presenta las mismas dimensiones en planta que el foso de 15x15 m de lado con una altura dispar, ya que se va ajustando a la forma de la ladera, por lo que va ganando en altura en dirección norte. Así al sur tiene una altura máxima que ronda un metro, mientras que los laterales este y oeste van ga-

du, baina ekialdean eta mendebaldean goratu egiten da, iparraldeko muturrean 2 metrotik gorako garaiera iritsiz. Harresia, ia perimetro osoan, gutxi gora-behera 0,70 m lodi da. Harresia landu gabeko hareharrizko bloke handiez egina dago, baina hegoaldeko hormaren goiko partean eta ekialdeko nahiz mendebaldeko hormen hegoaldeko erdian hareharrizko harlandu handiak bereizten dira. Landu gabeko hareharriok horizontalean ipinita daude, halako errenkadak osatzeko joera ageri dute, baina ez dira errenkada erregularrak, landu gabeko harri handiekin batean beste harri txikiago batzuk baliatu baitzituzten.

Bere aldetik, ingurabidea (111. UE), bere oinean, 1,35 metro luze da hegoaldean eta 1,50 m iparraldean, eta haren goiko aldearen zabalerak ez du 2 m-ko tartea gainditzen. Altuera oso aldakorra du nahiz eta kanpoko alboak harresienari egokitzen zaizkion. Aitzitik, barrukoak harriaren goiko partetik ezpandan jautzen direnez, aldea oso handia da altueran, gutxi gora-behera 1,50 metrokoa. Era berean, ingurabidearen iparraldeko barruko alboak landu gabeko harriz osatutako horma batez (208. UE) eraikia dagoela dokumentatu genuen.

Ingurabidearen eraikuntzarekin lotuta, 2008. urtean hainbat betegarri dokumentatu genituen, jatorrizko zoru gisa eta garai bereko zabortege gisa interpretatuak (107. eta 108. UEak). Kanpaina honetako indusketa lanak amaituta, geruza biek ingurabidearen hegoaldeko alboaren gainazal ia osoa hartzen zutela egiaztatu ahal izan genuen. Ez genuen haien arrastorik beste inon ere erregistratu.

B) Zurezko oholesia

Ingurabidearen kanpoko aldean, harresiaren kanpoko aurpegiaren ondoan, paldoei leku egiteko zuloak eta erreten handi bat erregistratu genituen. Guk uste dugu ingurabidea inguratzen zuen eta bertan zirenak babesten zituen zurezko oholesiarekin zerikusia dutela. Zulo guztiek oinplano koadroa dute, izkinak biribildurik, eta denek antzeko neurriak dituzte, 10x10 cm-ko aldeekin eta 20 cm-ko sakonerarekin. Zulo guztiek harri bat zuten oinetan. Paldoei leku egiteko zulo hauek ekialdeko, hegoaldeko eta mendebaldeko aldeetan egiaztatu genituen, baina ez genuen horrelakorik erregistratu iparraldean.

C) Terrazari eusteko horma

2008. urtean adierazitakoaz gainera ezer gutxi erantsi dezakegu horma honen egituraren inguruan, kanpaina honetako esku-hartzea ez baita haren inguruetaraino iritsi.

Zaharberritzeko lanak

Eraikinaren barruko aldea induskatzen amaitu ondoren baina kanpoko aldea induskatzen hasi baino lehen, eraikinaren hormak sendotzeko lanak egin genituen urriko eta azaroko hilabeteetan. Xede horretan

nando en altura hasta llegar al extremo norte donde presentan más de 2 m. Su grosor ronda los 0,70 m en prácticamente todo su perímetro. Se trata de un muro compuesto en su totalidad por mampostería de piedra de arenisca de gran tamaño, a excepción del remate del muro al sur y la mitad meridional de los laterales este y oeste, donde se observa la presencia de grandes sillares de arenisca. La mampostería se dispone de forma horizontal, observándose cierta tendencia a conformar hiladas, aunque no de forma muy regular, ya que alternando con los mampuestos de gran tamaño se observan otros de menores dimensiones.

El paso de ronda (UE 111), por su parte, tiene unas dimensiones en la base que oscilan entre los 1,35 metros del lateral sur y los 1,50 m del norte, mientras que en la parte superior del mismo la anchura no sobrepasa los 2 m. Su altura es muy variable aunque los laterales exteriores se ajustan a la de la muralla, mientras que los interiores al caer en talud desde la parte alta de la roca presentan un desnivel muy marcado de 1,50 metros aproximadamente. Igualmente se ha documentado que el lateral interior de la parte norte del paso de ronda se encuentra construido mediante un muro de mampostería (UE 208).

Asociado a la construcción del paso de ronda en el año 2008 se documentaron sendos rellenos interpretados como el suelo de uso original y un basurero del mismo momento (UUEE 107 y 108). Tras la finalización de la excavación, se pudo comprobar que ambos estratos ocupaban prácticamente toda la superficie del lateral sur del paso de ronda, no habiéndose localizado restos de los mismos en ninguna otra zona.

B) La empalizada de madera

Al exterior del paso de ronda, y contiguo a la cara exterior de la muralla, se registró la presencia de toda una serie de agujeros de poste así como una gran roza, que pensamos se encuentran en relación con una empalizada de madera que circundaba el paso de ronda y protegía a la gente que allí se encontraba. Todos los agujeros presentan forma en planta cuadrada con las esquinas redondeadas siendo sus dimensiones muy similares, 10x10 cm de lado y una profundidad de 20 cm. En la base de todos ellos se ha documentado la presencia de una piedra. La presencia de estos agujeros se ha atestiguado en los laterales este, sur y oeste, no habiendo quedado constancia de los mismos al norte.

C) El muro de aterramiento

Nada podemos señalar sobre su configuración más allá de lo ya señalado en el año 2008, ya que la intervención no se ha prolongado hasta sus inmediaciones.

La restauración

Tras la finalización de la excavación del interior del edificio y previo al inicio de la excavación del exterior, a lo largo de los meses de octubre y noviembre se llevó a cabo la consolidación de los paramentos del edificio.

dorrearen hormetatik sastrakak kendu eta harrien arteko junturak garbitu genituen. Ondoren beheko solairuko bao itsutuak (26. 47. eta 11. UEak) ireki genituen, eta saietarak eta lehenengo solairuko belarri formako saietarak berri genituen. Bukatzeko, dorrearen egitura guztia sendotu genuen kareorea erabilita.

Konklusioak

Honenbestez, burura eramandako indusketa lanak amaitu ondoren, behin betikoz ulertu ahal izan dugu Quintanilla de la Ribera telegraforako dorrearen eraikuntzaren bilakaera nola artikulatzen den. Era berean, denboran zehar harekin estura lotua izan duten elementuen bilakaera zehaztu ahal izan dugu. 2008. urteko kanpainan eraikinaren eraikuntza aldiak osatzen zituzten egiturak identifikatu genituen arren, ezin izan genituen beren osotasunean ulertu, funtsean esku-hartze hartan egindako zundaketak txikiak izan zirelako. Hala eta guztiz ere, orduan egindako hipotesiak ia beren osotasunean berretsi ahal izan dira, ingurabidearen oinplanoaren formaren eta harresiaren lodieraren inguruan aurreratu genituenak izan ezik.

Para ello se procedió a limpiar los alzados de la torre de maleza y se limpiaron las juntas existentes entre los mampuestos. Posteriormente se procedió a la eliminación de los cegados de las ventanas de la primera planta (UUEE 26, 47, 11) así como a la reconstrucción de las saeteras y troneras de pie de la primera planta. Finalmente, se consolidó toda la estructura de la torre mediante el empleo de mortero de cal.

Conclusiones

Por tanto, tras la finalización de la excavación llevada a cabo, hemos podido comprender de forma definitiva cómo se articula la evolución constructiva de la torre del telégrafo de Quintanilla de la Ribera así como de los elementos que a lo largo del tiempo se encuentran en relación con la misma. Aunque tras la campaña del año 2008 se identificaron las estructuras que componían las diferentes fases constructivas del edificio, no se pudieron comprender en extensión debido, fundamentalmente, a lo reducido de los sondeos efectuados. A pesar de ello, las hipótesis vertidas se han confirmado prácticamente en su totalidad, a excepción de la forma en planta del paso de ronda y del espesor de la muralla.

I. Sánchez Pinto; A. Ibisate González de Matauco

A.19. SALVATIERRA / AGURAIN

A.19.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

A.19.1.1. **Santa Maria elizaren ondoko harresi atala. Mendebaldeko fatxadaren iparraldea**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Aguraingo Udala

A.19.1.1. **Muralla junto a la Iglesia de Santa María. Zona al norte de la fachada W**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Ayuntamiento de Salvatierra-Agurain

The Salvatierra-Agurain Local Council ordered the area surrounding Santa María Church, located opposite its western façade, to be restored. This included the restoration of the existing stretch of wall. The action revealed the alterations ordered by the Count of Salvatierra to both Santa María Gate and the church itself during the 15th century. The work was carried out with the obligatory archaeological monitoring, in order to document the development of the process and advise the operators in charge.

Aguraingo Santa Maria elizaren ondoko harresi atala zaharberitzeko obrek nahitaez eskatzen zuten

La restauración del tramo de la muralla de Salvatierra-Agurain localizado junto a la Iglesia de Santa María

lan horien gaineko jarraipen arkeologikoa egitea. Aztergai dugun harresi atala Santa Maria elizaren mendebaldeko portalearen iparraldean dago, elizaren fatxadaren eta Kale Nagusiaren artean. Esan beharra dago 2006. eta 2007. urteetan bi esku-hartze arkeologiko bururatu genituela lehen aipatutako elementuek mugatutako harresiz barneko espazioan. Orduan aurkitutako aztarna batzuk antolamendu arkitektoniko berrira jaso dira haiei balio handiagoa emateko xedean.

Burura eramandako lan arkeologikoetan bertatik bertara jarraitu genituen obrak, behin eta berriz bisitatu genituen atal honetan bururatzeko ari ziren zaharberritze lanak, prozesu osoan zehar argazkiak ateratu genituen eta bertatik bertara aztertu genituen jatorrizko harresiari dagozkion horma atalak eta geroagoko eraikuntzak. Beharrezko iritzi zion guztietan, obraren enpresa esleipendunak bertaratutako arkeologoaren iritzia eskatzen zuen obraren alderdi jakin batzuen inguruan. Hortaz, egokia izan da jarduera bien arteko koordinazioa.

Zaharberritu berri den harresi atala gutxi gora-behera 9,80 metro luze zen, gero hegoaldera egiten zuen, eta batez beste 4,10 metro garai. 50 cm-ko lodierara iristen ez zen gailurrak, landu gabeko harrizko bularrak, burdinazko eskudelak batuta, zituen gainean. Alde bietara agerian geratzen diren formen ezaugarriek ia erabateko ziurtasunez adierazten zuten horma honek inoiz hiribilduko jatorrizko harresi atala osatu izanaren aukerak oso urriak zirela, geroago egiaztatu ahal izan genuen bezala.

Barruko aurpegia, jatorrian, betegarriez guztiz estalita zegoen, lur eremua elizaren mendebaldeko portalearen kotaraino berdintzen zuten betegarriez estalita. Sarrera, beraz, Santa Maria plazatik abiatzen zen baldosazko korridoreak egiten zion. Geroago, 2006. eta 2007. urteetan garatutako jarduera arkeologikoei esker, barruko aurpegi honen parte bat agerian geratu zen, eta oraingoan garatutako jarraipen arkeologikoko lanetan guztiz dokumentatu ahal izan dugu hura.

Kanpoko aurpegia elizaren oinetan dagoenaren jarraipena da; eraiki zuten geroztik osatu du hiribilduko babes egituraren atala. Aurreko atalaren aldean, azkeneko errenkadek baizik ez zuten, landareek estalita baitzeuden, atal honetan halako etenik eragiten, baina esan beharra dago errenkada hauek gailurrean geroago egindako konponketen emaitza direla. Santa Maria elizaren mendebaldeko fatxadaren aurreko espazioak 1858. urtean zuen itxura hau. Urte hartan hiriko udalak elizako bataiategiaren ondoko iparraldeko eta mendebaldeko hormen gainean harrizko gailurrak ipintzeko agindua eman zuen.

Zaharberritze lanei dagokienez, hasteko Aguraingo Kondeak xv. mendearen erdialdera sustatutako eraberritze dagozkien elementu arkitektonikoak azaldu ziren espazioaren iparraldeko eta mendebaldeko hormen gainean metaturiko betegarriak altxatu genituen. Mendebaldeko horma aro garaikidekoa dela bagenekien arren, lan hauek berretsi egin dute iparraldeko hormaren parterik handiena ere garai berekoa dela, 2007. urteko indusketa arkeologikoan dokumen-

conlevaba la necesaria realización de un seguimiento arqueológico de estas obras. El tramo de muralla en cuestión se localiza al norte de la portada oeste de la Iglesia de Santa María entre la fachada de ésta y la calle Mayor. Se da la circunstancia que, durante los años 2006 y 2007, llevamos a cabo sendas intervenciones arqueológicas en el espacio intramuros delimitado por estos elementos. Parte de los restos descubiertos entonces han sido incorporados a la nueva solución arquitectónica adoptada para su puesta en valor.

Jada hainbat argitalpenetan jaso den bezala¹⁷, K.o. vii. mende bukaera arte edo hurrengo mendearen hasiera arte ez zen egun El Campillo izenaz ezagutzen dugun leku honetan gaur egun arte inolako etenik gabe iraun duen finkamenduren presentzia erregistratu. Erregistro arkeologikoa leku honetako hainbat tokitatik jaso bada ere, informazio nagusia egun

Como se ha recogido ya en distintas publicaciones¹⁷, no será hasta finales del s. vii d.C. o comienzos de la centuria siguiente cuando, sobre el lugar que conocemos actualmente como El Campillo, se registre la presencia de un asentamiento que perdurará de forma ininterrumpida hasta la actualidad. Aunque el registro arqueológico provenga de diversos puntos



Santa Maria katedrala (Vitoria-Gasteiz). Omeyako dirham bat (96-99 H./714-718 J.C.) Ardašir Jurran egina (egungo Firuzabad, Iran), Gasteizen dokumentatutako ustiapen unitateko Goi Erdi Aroko mailetan aurkitua.

Catedral de Santa María (Vitoria-Gasteiz). Dirham omeya (96-99 H./714-718 J.C.) acuñado en Ardašir Jurra (actual Firuzabad, Irán), recuperado en los niveles altomedievales de la unidad de explotación documentada en Gasteiz.

¹⁷ Cfr. Azkarate, A., Quirós, J.A., 2001, Arquitectura doméstica altomedieval en la Península Ibérica. Reflexiones a partir de las excavaciones arqueológicas de la catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz, País Vasco, *Archeologia Medievale XXVIII*, 25-60. orr. Eta geroago, Azkarate, A., 2007, Sobre las huellas iniciales de un asentamiento altomedieval en el País Vasco, «Homenaje a Ignacio Barandiarán Maestu» (*Veleia* 24-25), 1283-1299. orr. eta Azkarate, A., Solaun, J.L., 2009, Nacimiento y transformación de un asentamiento altomedieval en un futuro centro de poder: Gasteiz desde fines del siglo VII d.C. a inicios del segundo milenio, *The archaeology of early medieval villages in Europe*, Bilbao, 405-428. orr.

¹⁷ Cfr. Azkarate, A., Quirós, J.A., 2001, Arquitectura doméstica altomedieval en la Península Ibérica. Reflexiones a partir de las excavaciones arqueológicas de la catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz, País Vasco, *Archeologia Medievale XXVIII*, pp. 25-60. O más recientemente Azkarate, A., 2007, Sobre las huellas iniciales de un asentamiento altomedieval en el País Vasco, «Homenaje a Ignacio Barandiarán Maestu» (*Veleia* 24-25), pp. 1283-1299 y Azkarate, A., Solaun, J.L., 2009, Nacimiento y transformación de un asentamiento altomedieval en un futuro centro de poder: Gasteiz desde fines del siglo vii d.C. a inicios del segundo milenio, *The archaeology of early medieval villages in Europe*, Bilbao, pp. 405-428.

Santa Maria katedralak, izen bereko plazak eta inguruek hartzen duten espazioan (gutxi gora-behera 3.300 metro koadro) sistematikoki bururatzen ari diren indusketa lanetatik etorria da. Katedral Zaharraren Zuzendaritza Planari lotutako ikerketa hauek aukera eman dute hirigune batek 1300 urtetik gora bizi izan duen bilakaeraren –jarraipen soluziorik gabea– erregistro arkeologiko guztiz berezia eta guztiz balioetsua osatzeko.

Testu labur honek, funtsean, agerkari honetan bertan¹⁸ egindako azken erreferentziaz geroztik bildutako berrikuntzak jasoko ditu. Hala eta guztiz ere, gauzak behar bezala ulertze aldera, aurreko kanpainetan egindako aurkikuntzekin eta eskaintako interpretazioekin harremanetan ipiniko ditugu kanpaina honetan lortutako berriak.

Ustiapen unitate bat Gasteizko herrixkaren iparraldeko muturrean (K.o. VIII.-X. mendeak)

Lehenengo datu garrantzitsua ustiapen unitate handi baten identifikazioa izan zen, unitate handi honek, muinoan zehar banatutako beste laborantza unitateekin batean, Gasteizko jatorrizko edo lehenengo herrixka osatu baitzuen Europako historiografiak Goi Erdi Aroko herrixken inguruan ondo asko ezagutzen duen sistema bati jarraiki: izaera albeolarreko sistemaz ari gara, zeinetan laborantza unitate autonomoak elkarren ondoan egokitzen ziren, hauek pixkana-pixkana gero eta gehiago, gero eta trinkoagoak ziren, milurtekoaren aldaketak guztiz bestelakoa izango zen hirigintza moldeari ateak ireki zizkion arte. Prozesu honetan hiru etapa edo aldi nagusi bereizten dira: lehenengo aldia (ca. K.o. 700-950); bigarren aldia (ca. K.o. 950-1000); hirugarren aldia (XI. mendea).

1.1. Lehenengo aldian kokatu behar dugu ustiapen unitate bat; espazio hau egitura independenteek osatua da, eta bestelako funtzioa betetzen duten alde biren arabera antolatuta dago: a) Egoitza aldea, erdiko patioaren inguruan antolatua, egoitza eraikin batek, gutxienez birritan berritua izan zenak (bigarrena *longhouse* handi batekin identifikatzen da), lerroan antolatutako silo multzo batek osatutako *stockage* alde batek, buztinak ateratzeko espazio batek, ur-putzu batek eta beste egitura osagarri batzuek (seguru asko biltegiak eta ehundegiak) osatua. b) Tailer aldea, burdinaren langintzari emana, aurrekoaren iparraldean, era berean espazio ireki baten inguruan antolatua. Hartatik hesi txiki bat, ur depositu bat eta etxola-hondo bat kontserbatzen ditugu. Etxola-hondoko zorutik eta amortizazio mailetatik zepa ugari jaso genuen. Azterketa metalografikoek aukera eman ziguten nola mea murrizteko lanekin hala murriztu ostekoekin zerikusia duten hondakinak zirela egiaztatzeko.

¹⁸ *Arkeoikuska 2006* (Gasteiz, 2007), 230-234. orr.

del lugar, la principal información procede de las excavaciones de carácter sistemático que vienen llevándose a cabo en el espacio (ca. 3.300 metros cuadrados) ocupado actualmente por la catedral de Santa María, su plaza y sus aledaños. Estas investigaciones vinculadas al Plan Director de la Catedral Vieja han permitido construir un registro arqueológico excepcional y de un valor inestimable para observar -sin soluciones de continuidad- la evolución de un centro urbano durante más de 1300 años.

Este breve texto recogerá básicamente las novedades producidas desde la última referencia en esta misma revista¹⁸. Para su correcta comprensión, sin embargo, se presentarán relacionadas con los hallazgos e interpretaciones procedentes de campañas anteriores.

Una unidad de explotación en el extremo septentrional de la aldea de Gasteiz (siglos VIII-X d.C.)

El primer dato relevante fue la identificación de una gran unidad de explotación que, junto a otras unidades agrícolas distribuidas por la colina, conformaron la primitiva aldea de Gasteiz según un sistema bien conocido en la historiografía europea sobre las aldeas altomedievales: un sistema de naturaleza alveolar, nacido de la yuxtaposición de unidades agrícolas autónomas que fueron densificándose y compactándose progresivamente hasta que el cambio de milenio alumbró un urbanismo radicalmente diferente. Fueron tres los principales jalones de este proceso: primer periodo (ca. 700-950 d.C.); segundo periodo (ca. 950-1000 d.C.); tercer periodo (siglo XI).

1.1. Para el primero de ellos se pudo documentar una unidad de explotación articulada espacialmente por estructuras independientes y organizada funcionalmente en dos áreas diferentes: a) Una doméstica, en torno a un patio central, constituida por un edificio residencial que es renovado al menos en dos ocasiones (el segundo de ellos identificado con una gran *longhouse*), un área de *stockage* compuesto por un campo de silos en hilera, un espacio destinado a la extracción de arcillas, un pozo de agua y varias estructuras auxiliares (probablemente almacenes y telares). b) Una artesanal dedicada al trabajo del hierro, situada al norte de la anterior, dispuesta también en torno a un espacio abierto. De ella conservamos una pequeña cerca, un depósito de agua y un fondo de cabaña en cuyo suelo y niveles de amortización se recogieron numerosas escorias. Los análisis metalográficos permitieron deducir la existencia de desechos relacionados tanto con labores de reducción como de post-reducción.

¹⁸ *Arkeoikuska 2006* (Vitoria 2007), pp. 230-234.



Gasteizko
Iparraldeko muturra
xi. mende amaieran.

Extremo
septentrional de
Gasteiz a finales
del siglo xi.

1.2. Bigarren aldiko egiturak, bai bederen geuk erregistratutakoak, lehenengo aldikoak baino erregularragoak dira, trinkoagoak. Aurreko aldian hizpide genuen *casa a corte* deitu moldeari eutsi bazion ere, multzoa arkitektonikoki berrantolatu zen, eta harria aurreneko aldiz erabiltzen hasi ziren eraikuntza material gisa.

Aurreko *longhouse*-k hartzen zuen tokian eta espazioa terrazan antolatu baino lehen iparraldetik hegoaldera luzatzen zen beste eraikin bat eraiki zuten, landu gabeko harrizko zokaloekin, zanpatutako lurrezko zoruekin eta oratutako buztinezko paretekin (*façonnage direct*). 30 metro baino luzeagoa eta 7,80 metro zabal izanik, eraikin handia zela esan behar dugu. Haren barruko banaketari dagokionez, iparraldean egokitutako espazio bat baino ezin izan genuen arkeologikoki dokumentatu, sukaldearenak bete zituen espazioa, alegia. Hala eta guztiz ere, pentsatzekoa da beste esparru batzuk egongo zirela, egoitza aldeak eta biltegia esate baterako, barrunbearen erdialdean agerian utzitako siloak berresten duen bezala.

Eraikin honen ipar-mendebaldean sutegi bat eraiki zuten, eta aurreko aldian hizpide izandako burdingintza unitate honen bihotzeraino aldatu zuten lekuz.

1.2. Las estructuras pertenecientes al segundo periodo se diferencian del anterior por una mayor regularidad y compactación de las estructuras registradas. Si bien se mantiene el esquema de *casa a corte* que veíamos en la fase anterior, el conjunto se redimensiona arquitectónicamente y la piedra hace acto de presencia, por primera vez, como material de construcción.

Sobre el mismo lugar que ocupaba la anterior *longhouse* y previo aterramiento del espacio se levantará un nuevo edificio de orientación norte-sur, con zócalos de mampostería, suelos de tierra batida y alzados de barro amasado (*façonnage direct*). Sus más de 30 metros de longitud por 7,80 metros de anchura dan idea de las notables dimensiones de esta construcción. Respecto a su distribución interior sólo pudo documentarse arqueológicamente un espacio ubicado al norte y que funcionó como cocina. Cabe suponer, sin embargo, las existencia de otros ámbitos destinados a uso habitacional y de almacén, como lo confirma la presencia de un silo en la zona central de la estancia.

Inmediatamente al noroeste de este edificio se construyó una fragua que traslada la instalación ferroviaria que veíamos para el periodo anterior al corazón

Hainbat beheko suk osatuta, instalazio honetako jarduna forja lanetara mugatu zen, bazterrera utzi zituzten aurreko aldian bereizitako mea murrizteko lanak. Eraikin hauekin biekien batean, betiere erdiko patioaren inguruan, eutsi egin zieten lehen ere deskribatutako *stockage* (silok errenkadan) sistemari eta ur-putzuari.

Hiri sarearen sorrera (xi. mende hasiera)

Erregistro arkeologikoak islatzen duen herrixkaren morfologian eta antolamendu espazialean gertatutako erabateko aldaketak agerian uzten duen bezala, xi. mendeko aurreneko hamarraldiak oso garrantzitsuak izan ziren Gasteiz zaharreko hirigintzaren bilakaeran. Aurreko mendeetan nagusi izandako izaera albeolarreko hirigintzaren aurrean, kaleetan antolatutako hirigintza sarea nagusitzen hasi zela egiaztatzen da. Funtsen gure garaira arte iraun du antolamendu mota horrek. Antolamendu berriko kale nagusietako bat, egungo Eskola kalearekin identifikatzen dena, egun katedralak hartzen duten tokitik harantzago luzatzen zen, seguru asko Buruileria plazaraino iritsiko zen. Beste kalea, kontserbazio egoera kaskarragoan dagoena, bat dator Santa Maria kaleari leku egiten dion ardatzarekin.

Lekukotasun garrantzitsu hau era berean esanguratsua den beste lekukotasun batekin batean interpretatu behar da. Izan ere –eta gure ustez ez da ausazko kontua–, espazioa goitik behera berrantolatuzeko ekimen honek errespetatu egin zuen egoitza alde zahararen kokalekua. Honenbestez, espazio pribilegiatu gisa sendotu zen mendeetan zehar. Espazio honek eutsi egin zion kokalekuari, baina egitura izaerako aldaketa garrantzitsuak egin zituen bere. Honenbestez, *etxe bateratu* baten eredu berria nagusituko zen: aurreko aldietan ez bezala, orain teilatupe berera bilduko ziren egoitza aldea eta ustiapen unitateak, beren ondoko espazioekin eta gutxienez hiru arteko hormez ondo bereizirik.

Gasteiz harresiz inguratzen (xi. mendearen azken herena)

Mendeko azken hamarraldietan areagotu egin zen Gasteizko hirigintzaren aldaketa sakona, izan ere, harritzko harresi sendo bat eraiki zuten muinoaren gailur aldeko topografiari egokituta. Gutxi gora-behera 1000 metro zuzen luze eta 1,6 metro lodia zen, haren luzeran zehar hogeitik gora dorretxo aurreratu zeuden, eta gutxienez hiru sarrera ziren harresiaren bidean, iparraldean, hegoaldean eta mendebaldean.

2000-2001. urteetatik ezagutzen dugu hiria fundatu aurreko harresi honen presentzia, nola Santa Maria plazan hala katedralaren barrunbean burura eramandako indusketek aukera eman baitzuten harresiaren atal zaharra agerian uzteko eta xi. mendearen azken

mismo de la unidad. Integrada por varios hogares bajos, la actividad de esta nueva instalación parece reducirse a las propias de forja, abandonando las labores de reducción del mineral que documentábamos en el periodo anterior. Junto a estos dos edificios y siempre en torno al patio central se mantuvieron además el sistema de *stockage* (silos en hilera) y el pozo de agua ya descritos.

El nacimiento de la trama urbana (inicios del siglo xi)

Las primeras décadas del siglo xi tuvieron una relevancia notable en la evolución urbana de la vieja Gasteiz, tal y como cabe deducir del cambio radical en la morfología y organización espacial de la aldea que testimonia el registro arqueológico. Frente al urbanismo de naturaleza alveolar predominante en anteriores siglos, se constata la aparición de una trama urbana organizada en calles que, sustancialmente, ha perdurado hasta la actualidad. Una de estas arterias, identificada con el trazado de la actual calle Las Escuelas, extendía su recorrido más allá del lugar que hoy ocupa la catedral, posiblemente hasta la plaza de las Brullerías. La otra, en peor estado de conservación, coincide con el eje sobre el que transcurre la calle de Santa María.

Este importante testimonio debe interpretarse junto con otro no menos significativo. Nos referimos a la circunstancia –no casual en nuestra opinión– de que la profunda reorganización espacial respete el emplazamiento del viejo espacio residencial que, de esta manera, se reafirma como un espacio secularmente privilegiado. Dicho espacio mantendrá su ubicación pero incorporará significativos cambios estructurales que darán lugar a un nuevo modelo de *casa unitaria*: a diferencia de periodos anteriores ahora se reunirán bajo el mismo techo la vivienda y las estructuras de explotación, con sus espacios yuxtapuestos y estrictamente separados por al menos tres medianiles.

El amurallamiento de Gasteiz (último tercio del siglo xi)

Los últimos decenios de la centuria acentuarán definitivamente la profunda transformación urbana de Gasteiz con la construcción de una potente muralla pétreo adaptada a la topografía de la zona somital del cerro. Con un recorrido de ca. 1000 metros lineales y 1,6 metros de grosor, estuvo jalonada regularmente por más de una veintena de torreones avanzados y un mínimo de tres accesos situados al norte, sur y oeste del encintado.

La existencia de esta muralla prefundacional es conocida desde los años 2000-2001, puesto que las excavaciones efectuadas tanto en la plaza de Santa María como en el interior de la catedral permitieron exhumar y datar el viejo lienzo en el último tercio del

herenean datatzeko. Halatan, mende bat aurreratu genuen haren eraikuntza unean. Baina orain arte ez dugu jakin sistema poliortzetiko konplexuago bat osatu zela, harresiaz gainera *lubanarro* handi bat biltzen zuena; izan ere, katedraleko gurutzaduraren zorupean, *lubanarro* horren ibilbidearen 63 metro zuzen baino gehiago identifikatu ahal izan genuen.

Aurtengo kanpainak eskaintako ekarpen garrantzitsuenetako bat seguruki asko *lubanarro* hau arkeologikoki egiaztatu ahal izatea izan da. 8 metro baino zabalagoa zen ahoan, eta 3 metrotik gorako altuera zuen ezpondan, paretak 45°-tan induskatuak. *Lubanarro* honen hondoa sedimentuzko betegarriez beteta zegoen parte handi batean. *Lubanarroa* urez bete ez zedin, hustubide bi eraiki zituzten ezpondaren beste aldean urak ekialdeko mazelara isurtzeko.

Sistema poliortzetikoa sendotzen ***(xii. mendearen 2. erdialdea)***

xii. mendearen bigarren erdialdean babesteko premia berriak sortu ziren, eta hiriaren inguruko harresia sendotzeko erabakia hartu zuten. Honetan zerikusi handia izan zuten Gasteizek xii. mendearen azken hamarraldietan zehar bizi izan zituen zirkunstantziek, lehenik Nafarroako erregearen agintaldian *Nova Victoria* izenaz fundatu baitzuten 1181. urtean, eta geroago, 1200. urtean, Gaztelak konkistatu baitzuen.

Obra garrantzitsuenetako bat izan zen lehen aipatutako *lubanarroaren* paraleloan, 4 metroko tartera, luzatuko zen bigarren *lubanarroaren* eraikuntza. Aurrekoa baino txikiagoa den egitura berri honetan esanguratsuen *lubanarro* bien arteko espazioari sarrera egiten dion aldea da. Sarrera hau lau aldeak agerian zituzten dorretxo bik babesten zuten. Dorretxoetako bat, arku edo zubi txiki baten bidez, harresiko ingurubideari lotuta egon zitekeen, dorre albarrana deitu moldeko dorreak bezala. Jakin badakigu bigarren *lubanarro* honek lehenengo *lubanarroko* hustubideetako bat ebakitzen zuela eta, eta bigarren *lubanarroa*, aldi berean, Alfonsoko VIII.ak xiii. mendearen hasieran proiektatutako tenpluko zimentarrietarako lubakiek ebakita dagoela. Beraz, sekuentzia erlatibo aski ziur batean kokatu dezakegu egitura haren eraikuntza.

Badakigu, era berean, obrak harresi ataleraino iritsi zirela, 2006. urtean zehar Hego Campillon burura eramandako indusketa lanetan egiaztatu ahal izan zen bezala. Izan ere, esku-hartze hartan dokumentatu ahal izan genuen nola jatorrizko harresia beste metro erdi baino gehiagoan loditu zuten, guztira bi metrotik gorako lodiera eduki arte. Lehenengo edo jatorrizko harresian baliatutako eraikuntza moldearen antzekoak dira sendotze lan hauetan baliatutako teknikaren ezaugarriak (kareharrizko estekadura, harriak errenkada erregularretan egokituak). Obra hau mendebaldeko harresiaren hainbat puntutan identifikatu ostean, esate baterako, San Migel kaleko etxebizitzaren gibelaldean eta Eskoriatza-Eskibel jauregiko plazatxoan, esan dezagun harresia sendotzeko proiektu garrantzi-

siglo xi, adelantando en un siglo su fecha de construcción. Lo que desconocíamos hasta ahora, sin embargo, era la existencia de un sistema poliortético más complejo que, además de la propia muralla, incluía un gran *foso* del que pudieron reconocerse –bajo el subsuelo del transepto catedralicio– más de 63 metros lineales de su recorrido.

La constatación arqueológica de este foso es probablemente una de las principales aportaciones de la campaña efectuada durante este año. Sus dimensiones superaban los 8 metros de anchura en la boca y los 3 metros de altura en la escarpa, con las paredes excavadas en talud a 45°. El fondo se encontraba colmatado en buena parte por varios rellenos de sedimentación. Para evitar que el foso se colmatara de agua se construyeron dos canales de desagüe en la contraescarpa que vertía sus aguas a la ladera oriental.

Reforzamiento del sistema poliortético ***(2ª mitad del siglo xii)***

Avanzada la segunda mitad del siglo xii surgieron nuevas necesidades defensivas que hicieron preciso un refuerzo del perímetro defensivo de la ciudad. En ello tuvieron mucho que ver, sin duda, las circunstancias que vivió Gasteiz durante las décadas finales de aquella centuria, primero con su refundación navarra como *Nova Victoria* en 1181 y más tarde con la conquista castellana de la villa en 1200.

Una de las obras más importantes fue la construcción de un contrafoso que discurría de forma paralela al foso a 4 metros de distancia. Lo más significativo de esta nueva estructura, de dimensiones menores que la anterior, es la presencia de un ingreso al espacio entre ambos fosos protegido por dos torres exentas, uno de los cuales pudo estar comunicado con el paso de ronda de la muralla mediante un pequeño arco o puente, en una suerte de torre albarrana. Sabemos que este segundo foso cortaba uno de los canales de desagüe del primero y que se encontraba cortado, a su vez, por las zanjas de cimentación del templo proyectado por Alfonso VIII a principios del siglo xiii, por lo que su construcción puede situarse en una secuencia relativa segura.

Sabemos también que las obras se extendieron al propio lienzo de muralla, tal y como quedó comprobado en las excavaciones efectuadas durante el año 2006 en el Campillo Sur, donde pudo documentarse el engrosamiento de la primitiva muralla en más de medio metro, hasta alcanzar una anchura total superior a los dos metros. Sus rasgos constructivos son semejantes a los utilizados en la muralla original (aparejo de mampostería caliza dispuesta en hiladas regulares). La identificación de esta obra en varios puntos del trazado occidental, como las traseras de San Miguel o la plazuela del palacio Escoriaza-Eskibel, confirma la existencia de un importante proyecto de fortificación que pudo tener también sus correspondencias en otros puntos del

tsu bat izan zela, babes egituraren beste puntu batzuetan ere eragina izango zuena.

Lehenengo Santa Maria eliza (xii. mendearen erdialdea)

xii. mendean zehar berriro ere geratu zen agerian Gasteizko hiriak zuen garrantzia, izan ere, mende horren erdialdera eliza bat eraiki zuten. Eliza hau harresiari atxiki zitzaion multzo geometriko konplexu bat osatuz. Mendeara irauan zuen gure egoitza unitateko lurretan egokitu zuten eliza.

Tenplua, jatorrian, habearte bakarreko eliza txikia zen, burualde kurbatuarekin eta kanoi-gangarekin, hainbat parpain-arkuetan bermatutako gangarekin; parpain-arkuek, iparraldera, horma bular handietan hartzen zuten atsedean. Atelada mendebaldeko fatxadan zuen, habeartearen ardatzarekin bat etorritu eta hiribildura sartzeko eta irteteko atearen ondoan.

Haren alboan, hegoaldean, gutxi gora-behera 100 m² hartzen zituen hilerria zegoen. Hilerrian honetan guztira hogeita hilobi utzi ahal izan dira agerian, hilobiak hobi soiletan eta harri xabalez egindakoetan banaturik. Hilobi mota hauek biak berex egokitzeko eremurik bereizten ez bada ere, ez eta zenduak adin nahiz sexuaren irizpideen arabera berex lurperatzeko eremuak ere, norbanakoak zendu aurretik prestatutako hileta espazioak bazeudela egiaztatu ahal izan zen. Espazio hauetako batzuk sekula ere ez zirela xede horretan baliatu esan beharrean gaude.

Eliza honen geometria guztiz bihurriak luze gabe ekarri zituen berekin batera egonkortasun izaerako arazoak, eta beraz, bilakaeraren sekuentzia guztiz konplexua eragin zuten hainbat berreraikuntza eta berritze lanak egin behar izan zituzten. Lehenengo berritze lan garrantzitsua xii. mendearen azkeneko urteetan bururatu zuten: hegoaldean alboko habearte bat eraiki zuten, horma bularrez hornitua, burualde kurbatu batez osatua. Tenplua hegoaldeetik handitzeaz gainera, obra honen funtsean egitura izaerako egitekoa zuela ematen du, gango alde honetan eragiten zuten presioei aurre egiteko sendogarriarenak betetzen baitzituen. Eraikuntza izaerako konponbide hau, nolana ere den, ez zen nahikoa izango, eraikina urte batzuk geroago hondatu eta, jarraian ikusiko dugun bezala, berreraiki egin behar izan baitzuten, partzialki bada ere.

Santa Maria katedrala (xiii. mendea)

1200. urtean Alfontso VIII.a errege gazteluak hiria konkistatu eta gero, hiribilduaren iparraldeko muturrean hirigintza lan garrantzitsua bururatu zituzten, Katedrala Zaharberritzeko Zuzendaritza Planaren baitan bururatutako ikerketek eskertu ezagunak zaizkigun hirigintza izaerako lan garrantzitsua¹⁹.

¹⁹ Azkarate, A., Cámara, L., Lasagabaster, J.I., Latorre, P., 2001, *Catedral de Santa María de Vitoria de Vitoria-Gasteiz, Plan Director de Restauración*, Vitoria-Gasteiz.

trazado defensivo.

La primera iglesia de Santa María (mediados del siglo xii)

La importancia de Gasteiz durante el siglo xii vuelve a ponerse de manifiesto con la construcción de una iglesia en los años centrales de esta centuria que, adosada a la muralla en una compleja composición geométrica, se emplazó sobre los terrenos de nuestra plurisecular unidad residencial.

El templo se configuró originalmente como una pequeña iglesia de nave única, cabecera curva y bóveda de cañón sustentada por varios arcos fajones apeados al norte en grandes estribos, con su portada emplazada en la fachada occidental, en correspondencia con el eje axial de la nave y junto al portal de ingreso a la ciudad.


Inmediatamente al sur se extendía un área cementerial de aproximadamente 100 m² en el que se han podido exhumar un total de veinte sepulturas repartidas en tumbas de fosa simple y de lajas. Aunque no se reconocen áreas diferenciadas para estos dos tipos de sepulturas, ni tampoco por criterios de edad o sexo, sí se constata la existencia de espacios funerarios previos a la defunción de los individuos que, en ocasiones, nunca llegaron a utilizarse.

La torturada geometría de esta iglesia ocasionó tempranos episodios de ruina corregidos mediante diversas reformas y reconstrucciones que provocaron una compleja secuencia evolutiva. La primera gran reforma puede fecharse en los años finales del siglo xii y se corresponde con la construcción de una nave lateral hacia el mediodía, dotada de contrafuertes y rematada con un testero curvo. Además de ampliar el templo por el sur, esta obra parece tener una función básicamente estructural, sirviendo de refuerzo para soportar los empujes que ejercían las bóvedas por este costado. Esta solución constructiva, en cualquier caso, no debió ser suficiente ya que el edificio colapsará años más tarde, siendo necesaria su reconstrucción parcial como veremos a continuación.

La catedral de Santa María (siglo xiii)

Tras la conquista castellana de la villa por el rey Alfonso VIII en 1200, el extremo septentrional de la villa sufrió importantes obras de urbanización que fuimos conociendo hace ya algunos años con las investigaciones efectuadas durante el Plan Director de Restauración de la Catedral¹⁹.

¹⁹ Azkarate, A., Cámara, L., Lasagabaster, J.I., Latorre, P., 2001, *Catedral de Santa María de Vitoria de Vitoria-Gasteiz, Plan Director de Restauración*, Vitoria-Gasteiz.



Katedraleko gurutzaduraren azpian agerian geratutako lubanarro nagusia eta beste lubanarroa.

Sección de foso y contrafoso descubiertos bajo el transepto de la catedral.

Lehenengo obra garrantzitsua arestian deskribatutako eliza berreraikitzeke lana izan zen, XIII. mende hasierako urte haietan oso egoera kaskarrean behar baitzuen. Aurrekoa baino txikiagoa zen tenplu berria (hartatik jatorrizko absidea aprobetxatu zuen) lodia-goak eta senda-goak ziren zimentarriak, behin betikoz amaitu nahi izan baitzuten etenik ez zuten egonkortasun izaerako arazoekin. Haren inguruan beste nekropoli bat egokitu zuten, eta nekropoli honek, alde batzuetan, hainbat ehorketa maila kontserbatzen dituela esan behar dugu.

Bigarren eliza honetatik gertu teileria baten hondakinak dokumentatu genituen. Teileria honek, ez bairik gabe, elizaren beraren eraikuntzak sortzen zituen beharrak aseko zituen; erregistro arkeologikoak ganbera bikoitzeko labe bati leku egiteko «negatiboa» edo zuloa eskaini zuen lehendik ere aipatu dugun egoitza unitatearen lurretan. Labeak epe laburrean, hilabete gutxi batzuetan, jardun zuela adierazten du hura desmuntatu izanak, eta beraz, teileria lanak xede hartan kontratatutako herriz herriko artisauek eramaten zituztela aurrera.

Hala eta guztiz ere, behin-behineko izaera izango zuen eliza honek, aldi berean beste tenplu handi bat eraikitzen hasi baitziren, egungo Santa Maria katedrala bihurtuko zena, alegia. Obra hau konplexua izaki eta lehendik zeuden espazioak eraikin berriari egokitu behararen ondorioz, behin eta berriz birplanteatu zuten hasierako proiektua. Badira urte batzuk²⁰ proiektuaren aldi honetan hainbat eraikuntza aldiaren presentzia hauteman genuenetik, baina orain arte ezin izan

La primera de ellas fue la reconstrucción de la iglesia descrita anteriormente ante el avanzado estado de ruina que debía presentar en estos primeros años del siglo XIII. El nuevo templo, de dimensiones más reducidas que el primero (del que reaprovecha el primitivo ábside), destaca por el grosor y solidez de sus cimentaciones, destinadas a terminar definitivamente con los continuos problemas de estabilidad. A su alrededor se desarrollará una nueva necrópolis que, en algunas zonas, llega a conservar varios niveles de enterramientos.

En las inmediaciones de esta segunda iglesia se documentaron también los restos de una tejera asociada sin duda a las necesidades generadas por la construcción de la propia iglesia; el registro arqueológico ofreció, concretamente, el «negativo» o fosa de un horno de doble cámara emplazado también en terrenos de la unidad residencial ya mencionada. El desmantelamiento a que fue sometido el horno y su corta actividad, apenas varios meses, evidencian el carácter temporal de la instalación y, por ende, una actividad tejera ejercida por artesanos itinerantes contratados a tal efecto.

Esta iglesia tendrá, sin embargo, un carácter provisional puesto que, paralelamente, se iniciará la construcción de un gran templo que acabará convertido en la actual catedral de Santa María. La complejidad de esta obra y la necesidad de adecuar los espacios preexistentes a la nueva construcción provocaron que el proyecto inicial fuese replanteado varias veces. Hace años²⁰ ya intuíamos la presencia de diferentes momentos constructivos en esta fase

²⁰ *Ibidem*, 168-169.

²⁰ *Ibidem*, 168-169.

dugu hori egiaztatu, hau da, gurutzadura eta absidea zeharo induskatu arte ezin izan dugu presentzia hori berretsi.

Gaur egun badakigu lehenik arestian deskribatutako babes egiturak (lubanarroa nagusia eta beste lubanarroa) suntsitu eta amortizatu zituztela jarraian zimentarri sendo batzuk eraikitzeke gurutzaduraren iparraldeko muturretik hegoaldeko beste muturreraino, harresiz kanpoko hiriko babes egiturekin elkartuz. Lehenengo etapa honetan muinoko bertako kareharri margatsua erabili zuten, eta oinplano hexagonaleko absidioloak eraiki zituzten.

Bigarren etapa batean arestian adierazitako absidioloak eraikitzen jarraitu zuten etorkizuneko tenpluko burualdearen azpian kripta bat eraikitzeke xedean. Kripta hau inoiz ere gauzatuko ez bazen ere, indusketa prozesuan zehar agerian utzitako saietera batzuk dira haren proiektzioa salatzen duten arrastorik garbienak. Saietera hauek sekula ez zuten beren funtzioa beteko. Eraikuntzaren ikuspuntutik esan dezagun etapa honetan beste kareharri mota bat erabili zutela. Kareharri hau Gasteiz ingurutik ekarria da (Olarizuko kalkarenita). Bestalde, absidioloen oinplano hexagonala zortzi aldeko bihurtu zuten. Hala eta guztiz ere, alde nagusia hormek bat egiten duten puntuetan hautematen da, izan ere, zuzenketa garrantzitsuak eta aurreko zimentarrien planoaren aldean, plano aldaketa nabariak sumatzen dira.

Tenplu honetako obrak mendebalderantz handitu zirenean, ^{xiii}. mendearen bigarren erdialdean, behin-behineko eliza txikia amortizatu egin zuten katedralaren obrarekin jarraitu ahal izateko haren oinetaraino. Nolanahi ere den, kanpoko nekropoli zaharra (orain hilobiak katedralaren ardatz nagusiaren araberrako norabidean egokituta daude) ^{xvi}. mendean ondo sartu arte erabiltzen jarraitu zuten.

Katedralaren barruko ehorzlekua

Katedralaren barruko hilobie buruzko aurreneko erreferentzia idatziak ^{xvi}. mendearen azken laurdene-koak badira ere, erregistro arkeologikoak hilobien presentzia hauteman du nola familien kaperetan hala tenpluko beste leku garrantzitsu batzuetan ^{xiii}. mendeko bigarren erdialdetik aurrera. Baina, zalantzarik gabe, barruko ehorzlekuaren kontzeptua ongien adierazten duen obra 1705. urtean eraikitako kaxadura da, ehorzketak familia sailetan banatzen zituena, aurreko argitalpenen batean jada adierazi genuen bezala²¹. 2009. urteko kanpaina honetan hogeita hamarretik gora hilobi utzi dira agerian presbiterio aldean. Beraz, berretsi egiten da alde hau ehorzleku gisa erabili izana ^{xix}. mendera arte. Orduan, jakina denez, ehorzleku hau Santa Isabel udal hilerri berrira eraman zuten, hiritik kanpora.

A. Azkarate; A. Plata; J.L. Solaun

²¹ Cfr. Arkeoikuska, 2001 (Gasteiz, 2002) eta Arkeoikuska 2002 (gasteiz, 2003).

del proyecto, pero ha sido ahora -tras la excavación completa del crucero y el ábside- cuando hemos podido confirmar su existencia.

Hoy en día sabemos que los primeros trabajos consistieron en el arrasamiento y la amortización de las estructuras defensivas descritas (foso y contrafoso) para, a continuación, comenzar la construcción de unas potentes cimentaciones desde el extremo septentrional del crucero hasta el opuesto extremo meridional, enlazando extramuros con las defensas de la villa. Esta primera etapa se caracteriza por la utilización de caliza margosa local procedente del mismo cerro y la construcción de absidiolos con planta hexagonal.

En un segundo momento se continuaron levantando los mencionados absidiolos con intención de construir una cripta bajo la cabecera del futuro templo. Aunque esta cripta nunca llegó a ser una realidad, la prueba más evidente de su proyección queda denunciada por la existencia de unas aspilleras descubiertas en el proceso de excavación y que no cumplieron nunca la función para la que fueron diseñadas. Constructivamente esta nueva etapa se caracteriza por el uso de un nuevo tipo de piedra caliza proveniente del entorno de Vitoria (calcarenita de Olarizu) y el replanteo de la planta hexagonal de los absidiolos, que en adelante será octogonal. Aun con todo, la principal divergencia se observa en el encuentro entre las distintas fábricas, con importantes correcciones y cambios de plano respecto a las antiguas cimentaciones.

Cuando las obras de este templo se desarrollaron hacia el oeste, ya en la segunda mitad del siglo ^{xiii}, la pequeña iglesia provisional fue amortizada para poder continuar con la obra catedralicia hacia sus pies. No obstante, la vieja necrópolis exterior (ahora con las sepulturas dispuestas en una orientación coincidente con el eje axial de la catedral) seguirá en uso hasta bien entrado el siglo ^{xvi}.

El cementerio interior de la catedral

Aunque las primeras referencias escritas a sepulturas en el interior de la catedral son del último cuarto del siglo ^{xvi}, el registro arqueológico ha detectado su existencia en capillas familiares y áreas destacadas del templo desde la segunda mitad del siglo ^{xiii}. Pero, sin duda, la obra que mejor expresa el concepto de cementerio interior es el encajonado construido en 1705 que organizaba las inhumaciones en lotes familiares y al que ya nos referimos en otro momento²¹. Durante esta campaña del 2009 se han exhumado más de una treintena de sepulturas en la zona del presbiterio, confirmando su uso como área cementerial hasta entrado el siglo ^{xix}, momento en el que, como es sabido, se produjo su traslado al nuevo cementerio municipal de Santa Isabel, fuera ya de la ciudad.

²¹ Cfr. Arkeoikuska, 2001 (Vitoria, 2002) y Arkeoikuska 2002 (Vitoria, 2003).

A.21.1.4. **Hedegile kalea, 141. Maturana Verástegui edo Marqués del Fresnoren jauregia**

Zuzendaritza: Agustín Azkárate Garai-Olaun
Finantzazioa: Gasteizko Hiri Historikoa modu Integrlean Biziberritzeko Agentzia

A.21.1.4. **Correría, 141. Palacio Maturana Verástegui o del Marqués del Fresno**

Dirección: Agustín Azkárate Garai-Olaun
Financiación: Agencia para la Revitalización Integral de la Ciudad Histórica de Vitoria-Gasteiz

The study of Maturana-Verástegui Palace has enabled us to understand the complex construction evolution of a building which, in perfect symbiosis with the historic past of the family which lived in it, was gradually transformed in a series of alterations until it became the structure we see today. Nevertheless, one of the most surprising results of the study was the discovery that the palace was built on the ruins of two former properties, which burned down during the first half of the 15th century and whose construction dates back to the gradual occupation of the site during the 13th century.

The good state of conservation of the burned-down remains presented a unique opportunity for us to learn not only about the construction techniques used in the city from the 13th century onwards, but also about the different activities carried out inside a building dating from that period. In this sense, industrial activities seem to have played a key role, since the ground floor contained a forge specially designed to manufacture weapons (non-firearms). However, we should not forget the everyday activities of the family which lived and worked inside the building, since a fabric washing zone was discovered, and it was even possible to distinguish the pottery and metal implements located on each of the floors, a finding which is of great importance for the study of the cultural material of the era.

Maturana-Verásteguitarren jauregia Gasteizko hirigunearen iparraldeko muturrean dago, Hedegile kaleko 141.-143. zenbakietako orubean. Higiezin hau Gasteizko oligarkiak xv. mende bukaeran eta xvi. mendean hiriko alde zaharrean eraikitako jauregien multzora biltzen da. Garai hartan, batez ere Errege-erregina katolikoen 1476. urtean aldarrikatutako bakeak bultzaturik, biziki azkartu zen eraikuntza hirian. 1476. urteak inflexio-puntu bat ipini zuen hiriaren bilakaera historikoan, boterea eskuratzeko xedean hiriko ahaideek (Ayalatarrek eta Callejatarrek) eusten zioten borroka lazgarriari amaiera eman zion «Kapitulazioa» izenpetu baitzuten. Borroka lazgarri horrek politika, gizarte eta ekonomia izaerako nahasketak eragin zituen ehun eta berrogeita hamar urtean baino denbora luzeagoan.

xv. mendean amaiera arte izaera militar agerikoa zuen nobleziaren arkitekturak. Babesteko dorreak ziren eraikinik arruntenak, hauek hiriko sarearen puntu estrategikoetan altxatzen ziren, batez ere harresiko ate gotortuen ondoan. Bakearekin eta ekonomiaren susperraldiarekin batean alboratu zen babes izaerako arkitektura molde hau, eta familia botere-tsueneke jauregi handiak eraiki zituzten. Jauregi hauen diseinuan garrantzi handia izango zuten garaiko balio berriek. Halatan, jauregien barruko aldean gela handiak, ondo argiztatuak, erosoak, lehenetsi zituzten, eta kanpoko aldean bertan bizi zen familiaren boterea arkitekturaren ikuspegiak irudikatzen saiatzen ziren fatxadak eraiki zituzten.

Azterketa honen xede den jauregia prozesu honetara biltzen da ez bairik gabe, haren promotorea, Antonio Sáez de Maturana, Callejatarrek gobernatzen zituzten familietako bateko kidea baitzen. Talde honek

El palacio de los Maturana-Verástegui se encuentra en el extremo septentrional del casco histórico de Vitoria-Gasteiz, en los números 141-143 de la calle Correría. El inmueble forma parte del conjunto de palacios edificados en el casco antiguo de la ciudad por la oligarquía vitoriana entre finales del siglo xv y el xvi. Durante esa época, se produjo un fuerte impulso constructivo motivado principalmente por la pacificación de la ciudad decretada en 1476 por los Reyes Católicos. Ese año supuso un punto de inflexión en el devenir histórico de la ciudad, al firmarse el «Capitulado» que puso fin a la cruenta lucha por el poder entre los bandos de la ciudad, los Ayalas y los Callejas, que había causado la inestabilidad política, social y económica durante más de ciento cincuenta años.

Hasta finales del siglo xv, la arquitectura de la nobleza tenía un marcado carácter militar. Los edificios más característicos eran torres defensivas que se emplazaban en puntos estratégicos del entramado urbano, sobre todo junto a las puertas fortificadas de la muralla. Con la paz y el auge económico, esta arquitectura defensiva cayó en desuso y las familias más notables construyeron grandes residencias palaciegas. En su diseño cobraron importancia los nuevos valores de la época. Así, en su interior se promovió la comodidad con grandes estancias y mucha luz, mientras que en su exterior se impulsó la construcción de fachadas en las que se trataba de representar arquitectónicamente el poder de la familia que en ella residía.

El palacio objeto de estudio forma parte clara de este proceso, puesto que su promotor, Antonio Sáez de Maturana, pertenecía a una de las familias que dirigían a los Callejas. Este bando controlaba la calle

kontrolpean zuen Zapatari kalea, jauregiaren gibelaldeko fatxadari begira dagoena, eta San Pedro elizan zuen batzarlekua. Esanguratsua da oso fatxada nagusia Hedegile kaleari begira egotea. Baina badago horretarako arrazoi sendo bat, alde horretan egokitzen baitzen barruti gotorturako sarrera garrantzitsuenetako bat, eta beraz, lekurik hoberenetako bat zelako ikusteko eta ikusia izateko. Gainera, ez da ahantzi behar Antonio Sáez de Maturana Santa Maria parrokiako kalonjea zela eta hirian oso izen ona zuela. Izan ere, hiriak bera aukeratu zuen Erromara joateko Armentia San Andres kolegio eliza –etorkizunean Santa Maria katedrala bihurtuko zena– lekuz aldatzeko baimena eskatzera.

Azterketa integral hau burura eramateko gure abiapuntua izan da aztarnategi bakar eta konplexutzat hartzea. Gisa honetan eskura dugun tresneria hermeneutiko guztia aplikatu dugu haren eraikuntzaren bilakaeraren nondik norakoak, eraikinaren historia garatu zen gizartearen testuinguruaren ingurukoak eta hartan bizi izan ziren pertsonen ingurukoak argitu ahal izateko. Proiektu honetan zehar 3D-tan osatu dugu dokumentazio grafikoa, azterketa arkeologikorako oinarri sendoa edukitzeko eta gerora higieztina zaharberritzeko lan arkitektonikoko prozesuari egokiro ekiteko. Era berean, kontserbatutako dokumentazio eta historiografia funtsak aztertu ditugu, hormen azterketa estratigrafikoa egin dugu gutxieneko xehetasun unitateak, Unitate Estratigrafikoak, bereizi arte, eta bukatzeko, estrategiaren ikuspuntutik bereizitako lau gunetan beste hainbeste indusketa egin ditugu.

Horren guztiaren ondorioz, esan dezagun dokumentatutako historiaren eta eraikuntzaren sekuentziak gutxi gora-behera zortzi mendeko arku kronologikoa hartzen duela, abiapuntua XIII. mendean kokatuz.

Orubearen aurreneko okupazioa

Jauregi hau lehendik bazeuden eraikin biren gainean eraiki zuten. Eraikin haien bien hondakinak batez ere mendebaldeko patioan kontserbatzen dira, Zapatari kaleari begira dagoen aldean. Bertan obrak ondoz ondo egin badituzte ere, haren jatorriari eta bilakaerari buruzko datu ugari erregistratu ahal izan ditugu.

Dokumentatutako eraikin nagusiak ekialdetik mendebaldera egiten zuen, eta oinplano angeluzuzena zuen. Hartziko zokalo irregular batek osatuak ziren perimetroko hormak, eta haren gainean hartzen zuen atsedean eskuairatutako zurezko habeez osatutako egiturak. Adobez estalita zeuden egiturako hutsarteak. Behera etorritako elementuak aztertuta esan dezagun solairu bi zituela, eta seguru asko isuri biko teilatu batez estalita egongo zela, teila arabiarrez osatutako teilatuaz.

Eraikina, bere luzeran, bi gelatan banatuta zegoen, bakoitza lau metro zabal zen, eta adobezko arteko horma batek bereizten zituen. Adobeak zurezko zutikoen artean egokitzen ziren, zutikoak, beren aldetik, hartziko oinarrietan bermatzen ziren bitartean. Guztiz

Zapatería, hacia donde se abre la fachada posterior del palacio, y tenía como centro de reunión la iglesia de San Pedro. Resulta significativo que la fachada principal se disponga en la calle Correría. Pero esto responde a una motivación muy clara, pues es allí donde se emplazaba una de las principales entradas del recinto fortificado, y por lo tanto era uno de los mejores lugares para ver y ser visto. Además, no hay que olvidar que Antonio Sáez de Maturana era el canónigo de la parroquia de Santa María y gozaba de gran prestigio en la ciudad. Como lo demuestra el hecho de que fue elegido por la ciudad para ser enviado a Roma a solicitar el traslado de la Colegiata de San Andrés de Armentia a la que en el futuro iba a convertirse en la Catedral de Santa María.

Nuestro punto de partida para llevar a cabo este estudio integral ha sido considerarlo como un yacimiento único y complejo. De este modo, hemos aplicado todo el utillaje hermenéutico disponible para poder desentrañar tanto su evolución constructiva como el contexto social en el que desarrolló la historia del edificio y las personas que lo habitaron. Durante el proyecto hemos efectuado la documentación gráfica en 3D con el fin de obtener una base para el estudio arqueológico y para el posterior proceso de restauración arquitectónica del inmueble; el vaciado de los fondos documentales e historiográficos conservados; el análisis estratigráfico de los alzados llegando a la unidad mínima de detalle, –la Unidad Estratigráfica– y finalmente, hemos ejecutado excavaciones en cuatro áreas elegidas estratégicamente.

Como resultado de todo ello, la secuencia histórica-constructiva documentada abarca una horquilla cronológica de unos ocho siglos, cuyo origen se remonta al siglo XIII.

La primera ocupación del solar

El palacio fue construido sobre dos edificaciones preexistentes cuyos restos se han conservado sobre todo en el patio occidental, el que da a la calle Zapatería. A pesar de las sucesivas obras que se han llevado a cabo, hemos podido registrar abundantes datos sobre sus orígenes y evolución.

El principal edificio documentado está orientado este-oeste y tiene planta rectangular. Los muros perimetrales están formados por un zócalo de mampostería irregular, sobre el que apoya un entramado de vigas de madera escuadradas. Los huecos del entramado estaban cubiertos con adobes. El análisis de su derrumbe indica que poseía dos plantas y estaba cubierto por una techumbre, probablemente a dos aguas, rematada con teja árabe.

La edificación estaba dividida longitudinalmente en dos estancias de cuatro metros de anchura cada una y se separaban por un muro medianil de adobes dispuestos entre pies derechos de madera apoyados sobre bases de piedra. Su estructura se completa con una gran cantidad de agujeros para asentar pies

suntsituta dagoenez, zaila da haren funtzioa zein izango zen jakitea, batzuei soilik egitura erabilera eman zitzaielako eta beste batzuk eraikinaren barruko banaketari zegozkielako. Kontu honi loturik, esan dezagun hegoaldeko gelan goiko solairura iristeko eskailera baten arrastoak kontserbatu direla.

Ez dakigu etxebizitzaren lehenengo okupazioaldi honetan hegoaldeko gelari zer erabilera eman zioten. Aitzitik, baditugu iparraldekoari buruzko datu batzuk. Identifikatutako elementuek aukera ematen digute bertan sutegei bat egokitu zutela baieztatzeko. Hego-mendebaldeko muturrean, arteko hormari atxikirik, burdinazko ingude baten oinarriaren arrastoak hautematen dira, eta haren ondoan, beheko su baten arrastoak eta harriaren induskatutako zulo zirkular batenak erregistratzen dira. Zuloan zurezko ontzia paratzen zuten, lantzen ari ziren objektuak hozteko ura edukitzen zuen ontzia.

Elementu hauek elkarrengandik gertu daude sutan bururatzen ziren lanak ez zirelako altueran egiten, geroagoko garaietan sarri dokumentatzen den bezala, baizik eta zoruaren mailan. Behargina, zuzenean zoruaren eserita edo aulki baten gainean, eskuragarri eduki behar zituen lanerako lanabes guztiak (ingudea, sua, ura eta eskuko erremintak).

Harriaren egindako ebaki sorta bat da sutegeiarekin lotuta identifikatu ahal izan dugun beste datu bat. Erretzen hauek zurezko egitura bat (mahaia) finkatzeko egin zituzten, gisa honetako industria instalazio batean hotzean egiten ziren lanetarako beharrezkoa zen mahaia finkatzeko.

Kronologiari dagokionez, aurkitutako zeramikazko materialak adierazten digu eraikin hauek XIII. mendean eta XIV. mendean lehenengo erdialdean eraikiak izan zirela, batez ere XIII. mendean. Hiriko hirigintzaren bilakaera ere ez da oso lagungarria arku kronologiko honen muturrak hurbiltzeko, izan ere, noiz okupatua izan zen halako ziurtasun batez ez dakigun lekuan kokatzen dira. Hipotesi zentzuzkoena da Alfontso X. aren garaian jatorrizko Gasteiz hura handitzeko proiektura bildu izana, garai bertsuan eraiki ere baitzuten Santo Domingo komentua.

Berritze lanak eraikinean

Aztergai dugun arku kronologikoaren une zehaztu gabe batean hainbat berritze lan egin zituzten sutegei aldean. Lan hauetako batzuk egitura izaerakoak dira, beste batzuk erabilera izaerakoak. Iparraldeko gelan erdiko zutarriari eusten zieten harrizko oinarrietako batean egindako konponketak baizik ez genituen identifikatu. Aitzitik, hegoaldeko gelari beste erabilera bat eman ziotela egiaztatu ahal izan genuen, gela honen hego-ekialdeko muturrean arropak garbitzeko alde bat antolatu baitzuten, lixiba jotzeko harri bat instalatu baitzuten. Garbitzeko prozesutik gertatzen ziren ur soberakinak husteko, orubea ekialdetik mendebaldera

derechos de madera. Debido al nivel de arrasamiento, resulta muy complicado determinar su funcionalidad, puesto que algunos tuvieron únicamente un uso estructural y otros, en cambio, formaron parte de parcelaciones internas de la edificación. En relación con este aspecto, en la estancia sur han quedado las huellas de una escalera de acceso al piso superior.

No hemos podido precisar el uso de la estancia sur durante esta primera etapa de la ocupación de la vivienda. Sin embargo, sí tenemos datos sobre la norte. Los elementos identificados nos permiten afirmar que en ella se instaló una fragua. En el extremo suroeste aparece adosada contra el muro medianero la huella de apoyo de un yunque de hierro y junto a él los restos de un fuego bajo y un pozo circular excavado en la roca. En él se introducía una cubeta de madera donde se almacenaba el agua destinada a enfriar los objetos que se estaban forjando.


La principal conclusión extraída de estos trabajos es que los edificios conservados en la actualidad son obras cuya antigüedad no puede ser llevada más allá del siglo XIX, momento en que el solar fue ocupado masivamente. Todo apunta, en efecto, a que el espacio existente entre Santa María y la C/ Cuchillería fue un solar mayoritariamente libre hasta el siglo XIX, dotado de algunas construcciones de menor o mayor entidad (huertas, almacenes...) y delimitado por un muro de cierre perimetral, probablemente una tapia de piedra.



Aiztogile kalea, 85-103. Eraikinen eraikuntza aldia.

Cuchillería, 85-103. Fases constructivas de los edificios.

Lehenengo eraikinak

xvi. mendean kokatu behar dira okupazioaren lehenengo arrastoak. Hauek hemeretzigarren mendean

Las primeras construcciones

Los primeros indicios de ocupación deben llevarse al siglo xvi y se registraron bajo algunas de las vi-

aurreko eraikin batzuen gainean eraikitako etxebizitza batzuen azpian erregistratu genituen. Aiztogile kaleko 87. eta 89. zenbakietako etxeek ari gara, Santiago kaperearen gibelaldean daudenez. Etxe hauen barruko patioetan *xvi.* eta *xvii.* mendeetako aztarnak topatu genituen. Zehatz esateko, harrizko horma batzuk, putzu edo depositu zirkular bi eta urak bideratzeko azpiegitura batzuk identifikatu genituen. Aurreneko eraikin hauen bolumetria eta funtzionaltasuna ezezagun bazaizkigu ere, oso litekeena da Santa Maria tenpluaren hormari atxikiriko aurreneko etheen hondakinak izatea.

Denboraren joanean tenpluak behar berriak izan zituen, espazio berriak behar zituen katedraleko kabildoaren egitekoak egokiro bururatzeko. Honenbestez, *xviii.* mende amaiera aldera, egungo sakristia eraiki zuten, absidearen eta Santiago kaperearen arteko espazioa hartuko zuena. Eraikin honen bolumetria garrantzitsua albo batera utzita, eraikuntza honek ez zuen aztertutako espazioan beste aldaketa esanguratsurik eragin.

xix. mendeko hiriaren trinkotzea

Arestian azaldu dugun bezala, *xix.* mendean masiboki okupatu zuten Aiztogile kaleko orubea. Beraz, kabildoaren beharren –behar zuenean orubeak partikularrei saldu zizkien, eta behar zuenean katedralaren osagarri izango ziren instalazioak eraiki zituen espazio honetan– araberako erritmora beteko ziren orube hauek.

Harrigarria da erregistratutako aurreneko bi eraikinak 87.-89. zenbakietako atariekin bat egitea, hauek *xix.* mendearen lehenengo erdialdean eraiki baitzituzten *xvi.* mendeko egitura zaharren hondakinen gainean. Zalantzak zalantza, itxura guztien arabera garai bertsuan eraiki zituzten 95. zenbakiko etxeak beheko solairuak, eta ez dugu baztertzin orubearen iparraldeko muturrean beste eraikin batzuk azaltzea.

xix. mendearen bigarren erdialdean *ex novo* eraiki zituzten 91.-93. zenbakietako etxeak, eta 95. zenbakikoa goratu zuten; azkeneko honek, 97. zenbakikoarekin batean, katedraleko kabildoaren instalazioei egiten die leku. Interesgarria da ikustea nola ordura arte eraikitako etxeek (87. zenbakitik 93. zenbakira artekoak) tarte bat gordetzen duten katedraleko hormekin (hau da, patio edo obra arteko espazio libre). Zirkunstantzia hau ez da dokumentatzen kabildoari loturiko eraikinetan (95.-97. zenbakiak), hauek zuzenean baitaude tenpluari atxikirik.

xx. mendearen lehenengo erdialdean egungo itxura hartuko zuen orubeak 85. zenbakikoan apaiza etxea eraiki zutenean, Aiztogile kalearen eta San Markosko kantoia arteko izkinan, 99.etik 103. zenbakira biltzen diren etxeak eraiki zituztenean (estratigrafiaren ikuspuntutik 97. zenbakikoaren ondorengoak dira), eta 91. zenbakiko eraikina goratu zutenean. Garrantzitsuak dira, era berean, aurrez zeuden eraikinetan bideratutako azpiegitura lanak; esate bate-

viendas decimonónicas, levantadas sobre edificaciones anteriores. Nos referimos a las casas de la C/ Cuchillería identificadas con los números 87 y 89, justo detrás de la capilla de Santiago, en cuyos patios interiores se documentaron varias preexistencias dadas en los siglos *xvi* y *xvii*. En concreto, algunos muros de piedra, dos pozos o depósitos circulares y varias infraestructuras destinadas a la canalización de las aguas. Aunque desconocemos la volumetría y funcionalidad de estas primeras construcciones, es plausible sospechar que se trate de las primeras casas adosadas contra la fábrica de Santa María.

Con el paso del tiempo, las necesidades del templo fueron demandando también nuevos espacios de servicios para el cabildo catedralicio. De esta manera, hacia finales del siglo *xviii* se levantó la actual sacristía, que ocupará el espacio existente entre el ábside y la capilla de Santiago. Más allá de la importante volumetría de éste edificio, su construcción no supuso, sin embargo, ningún otro cambio sustancial en el espacio estudiado.

La densificación urbana del siglo xix

Como señalábamos más arriba, la ocupación generalizada del solar de la C/ Cuchillería se produjo a lo largo del siglo *xix*. Su densificación se redibujará al ritmo que marcan las necesidades del cabildo, tanto económicas con la venta de solares a particulares, como espaciales con la construcción de instalaciones auxiliares a la catedral.

Curiosamente, los dos primeros edificios registrados se corresponden con los portales nº 87-89, reconstruidos en la primera mitad de esta centuria sobre los restos de las antiguas estructuras del siglo *xvi*. Aunque con mayores dudas, todo apunta también a la construcción de los pisos inferiores del nº 95, sin que se descarte la presencia de otras edificaciones en el extremo norte del solar.

Durante la segunda mitad del siglo *xix* se levantan *ex novo* las casas nº 91-93 y se recrece el edificio nº 95 que, junto al nº 97, se destinan a instalaciones para el cabildo catedralicio. Resulta interesante observar cómo las viviendas levantadas hasta el momento (nº 87 al 93) generan un área de esponjamiento con los muros de la catedral (es decir, un patio o espacio libre entre obras), circunstancia que no se documenta en los edificios asociados al cabildo (nº 95-97), adosados directamente contra el templo.

En la primera mitad del siglo *xx* se configura definitivamente el aspecto actual del solar con la construcción de la casa curial nº 85, situada en la esquina de la C/ Cuchillería y el cantón de San Marcos, las viviendas nº 99-103 (estratigráficamente posteriores al edificio nº 97) y la elevación de la vivienda nº 91. Importantes son también las obras de infraestructura ejecutadas en edificios ya existentes, como por ejemplo las reformas en la red de conducción y evacua-

rako, 87. eta 91. zenbakietako etxeetan berritu egin behar izan zuten urak bideratzeko eta husteko sarea. Hauetan harrizko erreten handian eraiki zituzten.

Laburbilduta, esan dezagun esku-hartze arkeologiko honi esker ondo asko dokumentatu ahal izan dugula xvi. mendean abiaraziko zen okupazioaren prozesu diakronikoa. Hasteko, hegoaldean, katedralari atxikiriko aurreneko eraikinak altxatu zituzten, eta prozesua xix. eta xx. mendeetan amaituko zen, orubea egungo etxadia eratu arte okupatu zutenean.

ción de aguas de los portales nº 87 y 91, donde se instalaron grandes atarjeas de piedra.

En síntesis, la intervención arqueológica ha podido documentar un proceso diacrónico de ocupación que comenzaría en el siglo xvi con la construcción, por el sur, de las primeras edificaciones adosadas a la catedral y culminaría en los siglos xix y xx con la densificación del solar hasta configurar la manzana actual.

V. Benedet; A. Plata; A. Rodríguez

A.21.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

A.21.2.1. **Arkaia kalea, 13. Hegoaldeko eraikina (Arkaia)**

Zuzendaritza: Miguel Loza Uriarte
Diru-laguntza emaila: Álvaro Iturrutxa
Vélez de Elburgo; Arabako Foru
Aldundia

A.21.2.1. **Arcaya, 13. Edificio sur (Arcaya)**

Dirección: Miguel Loza Uriarte
Subvención: Álvaro Iturrutxa Vélez de Elburgo; Diputación Foral de Álava

During 2006 and 2007 the archaeological assessment focused on the sites occupied by two buildings located to the north of the one excavated in 2009. The results obtained repeat the stratigraphic sequence identified for the previous sites, with remains from the pre-Roman era, remains of the late-imperial Roman gravel street (documented in the northern sites also) and a large structure excavated in the fillings from the Roman era, which were covered by a filling dating from approximately the 13th century.

Arkaia kaleko 13. zenbakiko orube honen gaineko balorazio arkeologikoak bete egin ditu hasieran genuzkan itxaropenak, haren historiaren sekuentzia oso antzekoa baita iparraldean atxikirik dauzkan eraikinetan bururatutako esku-hartze arkelokikoetan egiaztatutakoaren ondoan. Urri dira berreskuratutako hondakinak, baina arku kronologiko zabala hartzen dute, erromatarren aurreko garaietatik gure garaira artekoak bereizten baitira horien artean.

Elkarren artean ondo asko bereizten diren bost aldi identifikatu daitezke, baina baliteke ondorengo azterketek beste aldiren bat identifikatu ahal izatea.

Erromatarren aurreko kronologia duen depositu bakar batek hartzen du 1. aldia. Haren osaera eta lur eremuko geruza geologikoaren gainean agertu zela aintzat hartuta, leku honek ezagutu duen aurreneko erabilera maila dela esan behar dugu. Depositua hau nola zundaketan hala eraikin berriaren zimentarrirako erretenetan identifikatu dugu.

2. aldikoa da Goi Inperioaren garaiko kalea, eraikinaren iparraldeko muturrean irekitako erretenetan, baratze aldean, dokumentatua. Seguru asko orube honetako ukui lu zaharrea jada agerian utzitako kale bera da. Prestakin geruza -legarrez osatutako geruza

La valoración arqueológica de este edificio del solar nº 13 de la C/Arcaya ha cumplido las expectativas iniciales, ya que su secuencia histórica es muy similar a la vista en las intervenciones arqueológicas de los edificios anexos al norte. Son escasos los restos recuperados, si bien tienen una gran amplitud cronológica, desde época prerromana hasta nuestros días.

Se pueden establecer cuatro fases bien diferenciadas entre sí, sin renunciar a la existencia de alguna más que los estudios posteriores puedan identificar.

La fase 1 vendría dada por un único depósito de cronología prerromana. Su composición y su aparición justo encima del estrato geológico del terreno, sugieren que se trata del primer nivel de uso en este lugar. Este depósito se ha localizado tanto en el sondeo como en las diferentes zanjas para la nueva cimentación del edificio.

A la fase 2 pertenece la calle de época romana altoimperial documentada en las zanjas situadas en el extremo norte del edificio, en la zona de huertas. Posiblemente, se trate de la misma calle ya vista en el antiguo establo de este solar. Esta calle, de la cual

lodi samarra, toki batzuetan harri xabalezko ohearen gainean egokitua— baino kontserbatzen ez duen kale honek *Suessatio* hirigune zaharreko hiri-sarera bilduko zen. Antza iparraldetik hegoaldera egiten du, eta ziur asko hegoaldera metro gutxi batzuetara dagoen bide-raino iritsiko zen. Zundaketa honetan, gainera, kronologia berari erantzuten dion depositu bat bereizi genuen. Ez dakigu zein funtzio beteko zuen.

3. aldia da, zalantzarik gabe, orube honetan garrantzitsuena. Erdi Aroan induskatutako egitura bik hartzen dute aldi hau, biak zundaketan dokumentatuak. Lehenengoa maila freatikotik iragazten zen ura biltzeko putzu handi bat da, antza XIII. mendean bete zutena, edo mende horren amaieran, baina hori materialen azterketak argituko digu. Bestea paldo bati leku egiteko balizko zuloa da, kronologiaz putzua baino pixka bat lehenagokoa litzatekeena. Egitura hauekin batean kronologia honi erantzuten dioten beste hondakin batzuk geratu ziren agerian lubakian. Guztiek berresten dute aldi historiko honek aztarnategiaren alde honetan izan zuen garrantzia.

Zaharberritu nahi den eraikinari dagozkion egitura guztiek hartzen dute 4. aldia. Espazio honetako erabilerarako zoru biekkin batean, zaharrena buztinezkoa eta egungoa hormigoizkoa, espazio honetako saneamenduarekin zuzeneko lotura duen egitura bat dokumentatu digu. Teila sorta batek eraturako areka-kanaleta bat da, itxura guztien arabera urak eraikinaren iparraldeko baratze aldera husten dituen.

sólo se conserva su preparación a base de un importante nivel de gravas en algunos casos sobre una cama de lajas, formaría parte del entramado urbano del antiguo núcleo de *Suessatio*. Su orientación parece ser norte-sur, llegando con bastante probabilidad hasta la calzada situada a escasos metros al sur. Además, en el sondeo se ha localizado un depósito de esta misma cronología, del cual no se ha podido establecer su funcionalidad.

La fase 3 es, sin duda, la más importante en este solar y está formada por las dos estructuras excavadas de cronología medieval documentadas en el sondeo. La primera de ella se trata de un gran pozo de captación de agua del nivel freático que parece rellenarse en el siglo XIII, quizás a finales a la espera del estudio de sus materiales. La segunda, un posible agujero de poste de una cronología ligeramente anterior a la del pozo. Junto a estas estructuras, en las zanjas se han evidenciado distintos restos de esta cronología, que confirman la importancia de esta fase histórica en esta zona del yacimiento.

La fase 4 está compuesta por todas las estructuras pertenecientes al edificio que se pretendía rehabilitar. Junto a dos suelos de uso de este espacio, uno más antiguo de arcilla y el actual de hormigón, se ha documentado una estructura relacionada con el saneamiento de este espacio. Se trata de una canaleta compuesta por una serie de tejas que parecen evacuar el agua hacia la zona de huertas al norte del edificio.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.21.2.2. Mariturri (Armentia)

VIII. kanpaina
Zuzendaritza: Paquita Sáenz de Urturi;
Julio Núñez
Finantzazioa: Zabalganako 6.
Sektoreko Exekuzio Unitate Bakarreko
Konpentsazio Batzordea

A.21.2.2. Mariturri (Armentia)

VIII Campaña
Dirección: Paquita Sáenz de Urturi;
Julio Núñez
Financiación: Junta de Compensación
de la Unidad de Ejecución Única del
Sector 6 de Zabalzana

During the last season, the archaeological work had a twofold objective. On the one hand, it aimed to analyse the evolution of the thermal bathing complex which existed in the Vicus, where a hypocaust and swimming pool were discovered, and to examine the walls of the hydraulic complex existing on the eastern side of the Vicus. And secondly, after the site had been excavated, the ruins were completely covered in order to enable their total recreation on the surface, with the aim of turning the area into an Archaeological Park.

2009. urtean zehar Mariturriko aztarnategian bururatu ditugun esku-hartze arkeologikoak multzo arkeologiko honetan egindako VIII. eta azkeneko kanpainara bildu behar ditugu. Lan hauek 2001. urtean abiarazi genituen, eta urteotan zehar bisitasun handiagoa edo motelagoa izan dute gure jardunek. Azkeneko kanpaina honetan oinarritzko behar biren arabera ezarri genituen helburuak, ikertzeko behararen arabera eta az-

Las intervenciones arqueológicas llevadas a cabo en el yacimiento de Mariturri durante el año 2009, suponen ya la VIIIª, y última, campaña de trabajos realizados en este conjunto arqueológico, trabajos que vienen realizándose desde el año 2001, con diferentes grados de intensidad. En el planteamiento de esta última campaña nuestros objetivos se establecieron en función de dos necesidades básicas: una de in-

tarnategia kontserbatzeko eta hari balioa emateko behararen arabera.

- *Vicus* gisa definitutako sektorearen indusketa arkeologikoa.
- Aztarnategiaren prestatzea Parke Arkeologiko bihurtzeko.
- Parkea eratzeko lanak bururatuko zituen enpresa esleipendunen lanen gaineko kontrola eta jarraipena.

2009ko ekainean eta uztailean zehar Mariturriko aztarnategi arkeologikoan burura eramandako eskuhartze laborra aztarnategiaren ekialde erdi osoa hartzen duen sektorera mugatu genuen, *vicus* gisa definitutako sektorera. Hirigunearen erdian sortu eta hiriguneko hirigintza osoa egituratzen zuen plaza publikoaren²² ekialdeko eraikinen funtzio, bilakaera eta kronologiari buruzko galdera batzuei erantzutea zuen helburu nagusi esku-hartze honek.

Vicus honetako hirigintzari begira 5 bilakaera-aldi bereizi genituen, eta hain zuzen ere 3. aldian sortu zuten espazio publiko bat herrixkaren ekialdean, betiere aurreko aldiak eraikinak berrerabiliz. Honenbestez, erdiko plazaren ekialdean eraikin bat eraiki zuten une honetan, eta eraikin honetako gela bat hipocausto batez horniturik zegoen, beraz terma txiki batzuekin identifikatu liteke. 4. bilakaera-aldian sektore hau guztia berriro ere egokitu zuten, eta une honetan, arestian deskribatutako eraikinaren hego-mendebaldean urmael handi bat eraiki zuten, iparraldetik eraikin arkupe dun batek inguratuz, eraikuntza multzo bakarra osatuz. Dokumentatutako azkeneko aldiak zeharo berriro zuten hipocaustoa dokumentatu genuen etxadia, multzoa hegoalderantz eta iparralderantz handitu zuten, baina ez zuten aurreko eraikina lekuz aldatu. Beraz, 2009. urteko kanpaina zehar aztertu ditugun aldeak, denboraren ikuspuntutik, eraikuntza multzo ezberdin bi dira, baina funtzioaren ikuspuntutik bateragarriak dira multzo bien egitekoak. Gure deskripzioan identifikatzeko garaian terma multzo esango diogu batari, eta izaera hidraulikoko eraikin multzoa besteari.

Lehenengo multzoari dagokionez, azkeneko kanpaina honetan multzoaren iparraldean dagoen gelara mugatu ditugu gure lanak. Gela honek oinplano angeluzuzena du, eraikineko gainerako gelen kontrako norabidea du, ekialdetik mendebalderako ardatzaren arabera egokituta dago, eta terma multzoak hartzen duen etxadiaz haratago luzatzen da. Gela hau partzialki induskatu genuen 2006. urteko kanpaina, eta haren ekialdean mosaiko batez osatutako zoladurari leku egiteko ondoko prestakin geruzak erregis-tratu genituen, baina zoladura hori ez genuen *in situ* aurkitu, apur bat mugitua baizik, aztarnategi honek

vestigación y otra de conservación y puesta en valor del yacimiento.

- Excavación arqueológica en la zona del *vicus*.
- Preparación del yacimiento para su conversión en Parque Arqueológico.
- Control y seguimiento de los trabajos de las empresas adjudicatarias para la recreación del Parque.

La breve intervención arqueológica llevada a cabo durante los meses de junio y julio de 2009 en el yacimiento arqueológico de Mariturri, ha incidido en el sector que se extiende por toda la mitad oriental del yacimiento, el denominado *vicus*. El principal objetivo fue el de dar respuesta a ciertas cuestiones de índole funcional, evolutiva y cronológica referidas a los edificios que se levantan al este de la plaza pública que surge en el centro del poblado y estructura todo su urbanismo²².

Dentro de las 5 fases evolutivas establecidas para el urbanismo del *vicus*, es en la fase 3 cuando se produce la creación de un espacio público en la zona más oriental del poblado, a partir de la reutilización de edificios de las fases anteriores. Así, en el lateral este de la plaza central se construye en ese momento un edificio, una de cuyas habitaciones está provista de hipocausto, y puede identificarse con unas pequeñas termas. En la fase 4, todo este sector volvería a sufrir una nueva reestructuración, levantándose en este momento, en la parte suroriental de este edificio, un estanque de gran tamaño con un edificio porticado que lo flanquea por su lado norte, formando un conjunto constructivo unitario. La última fase documentada supuso una reforma integral de la manzana en la que se documentó el hipocausto, ampliándose ahora este complejo hacia el sur y el norte, respetando no obstante la disposición orgánica del edificio precedente. Por lo tanto, los distintos puntos sobre los que se ha intervenido durante la campaña del 2009, guardan relación con dos conjuntos constructivos diferenciados desde el punto de vista temporal, aunque funcionalmente complementarios. Para identificarlos en nuestra descripción, nos referiremos a ellos como: conjunto termal y conjunto de edificaciones con carácter hidráulico.

En lo que se refiere al primero de ellos, las actividades desarrolladas en la última campaña se han centrado en la habitación situada más al norte del conjunto, en concreto, de planta rectangular y desarrollo longitudinal inverso al resto del edificio, ya que esta habitación mantiene un eje direccional E-W, y se prolonga más allá de la manzana que ocupa el conjunto termal. Dicha habitación fue parcialmente excavada en la campaña de 2006, pudiéndose documentar en su lado oriental sucesivas preparaciones constructivas para un pavimento musivo que no se localizó *in situ*, sino desplazado como consecuencia de

²² Ikus Sáenz de Urturi, P., Núñez Marcén, J., 2006, Mariturri, Armentian, Arkeoikuska, 240-244. orr.

²² Ver Sáenz de Urturi, P., Núñez Marcén, J., 2006, Mariturri en Armentia, Arkeoikuska, pp. 240-244.



Marituri. Hipocaustoaren xehetasunak.

Marituri. Detalle del hipocausto.

duen topografiaren ondorioz gertatzen diren arrasteek hartaraturik. Gela honen mendebaldea (6416. UE), berriz, guztiz arpilatuta zegoen, eraikuntza materialak ostu eta mosaikoari leku egiteko prestakin geruzak ebakita zeuden. Gela honetako zorua egokitzeko prestakin geruzak dokumentatu ahal izateko eta arpilatze ebakiaren profilak eskainiko zigun estratigrafiaren sekuentziatik abiatuta, induskatu egin genuen unitate hau, eta hasieran uste genuena baino askoz ere konplexuagoa den eraikuntza sekuentzia dokumentatu genuen gelaren mendebaldean. Honenbestez, gelako arpilatze mailari zegokion betegarria altxatuta, azkeneko funtzio aldiko zoru-mailaren hondakinak geratu ziren agerian. Era berean, hegoaldean, hormaren erdian irekitako sarreran, gelara iristeko eskailera maila bat dokumentatu genuen. Azkenaldi honetako zoladura buztin oso trinkozko geruza mehe baten gainean egokitutako bertako kareharrizko harri xabalez eratuta egongo zen. Nola gelako paretak hala erabilerarako zorua aurreko urmael baten hondakinaren gainean eraiki zituzten. Lehenik arpilatua izan zen urmael honek oinplano angeluzuzena zuen, iparraldetik hegoalderako ardatzarekin, eta 2'84 x 1'82 m-ko azalera zuen barrutik neurtuta. Urmael txiki hau soilik tesela zuriz *-opus tessellatum-* osatutako mosaiko batez zolatuta zegoen. Gainera, mosaikoari leku

los continuos arrastres a los que se encuentra sometido el yacimiento por su topografía. La mitad occidental de esta habitación se encontró completamente saqueada (UE 6416) por una acción de robo de materiales constructivos que cortó las diferentes preparaciones del mosaico. Con la intención de poder documentar las diferentes preparaciones del suelo de esta habitación, a partir de la secuencia estratigráfica que nos proporcionaría el perfil del corte del saqueo, se llevó a cabo la excavación de esta unidad, consiguiendo establecer una secuencia constructiva de la parte occidental de la estancia, mucho más compleja de lo que se suponía en un principio. De este modo, al retirar el relleno correspondiente al saqueo de la estancia, aparecieron restos del nivel de suelo de la última fase de su funcionamiento pudiéndose documentar, también, un escalón de acceso desde el lateral sur a través del umbral abierto en el centro del muro. El pavimento de este momento final estaría compuesto por una preparación de arcilla muy compacta y de ligero espesor, sobre la que apoyaría directamente un enlosado formado por lajas de cayuela local. Tanto los muros perimetrales de la estancia, como su nivel de uso, se construyeron directamente sobre los restos de una piscina anterior, previamente saqueada, de planta rectangular con orientación N-S, de 2'84 x

egiteko prestakin geruzak dokumentatu ahal izan genituen: lehenengoa, oinarriarenak egiten zituena, gutxi gora-behera 0,12 m lodi, neurri txikiko kareharriek eta kareore zuri aski trinko batez osatua –*statumen*–; eta haren gainean beste geruza meheago bat –*nucleus*– txikitutako zeramika zati txikiez eta kareaz –*opus signinum*– osatua; azken honen gainean zuzenean ipini zituzten mosaikoko teselak. Urmaelaren alde luze bietan haren hormei leku egiteko erretanak dokumentatu genituen, eta erretanak induskatzean zimentarrien hondakin gutxi batzuk geratu ziren agerian. Urmaelaren alde laburretan, berriz, ezin izan genituen itxitura hormak aurkitu, elementu hau amortizatzen duten gelaren alde luzeetako hormak zuzenean urmael zahararren hondakinen gainean bermatzen baitira. Nolanahi ere den, urmael txiki honek okupatzen zuen eremu osoa identifikatu ahal izan genuen; izan ere, *opus signinum*-a inguratzen duen ia 0,20 metro zabaleko zerrendak –haren atal batzuk osorik kontserbatu diraharen perimetro osoa inguratzen du toro laurdenean, urmaelaren pareten eta zoruaren arteko hutsunean zigilatze eta gisa honetan ur ihesak edo irazteak saihesteko. Urmaelaren paretak ere zarpiatu zituzten berriro ere *opus signinum* moldeari jarraiki, paretok era berean irazgaitzak izan zitezten. Egitura honetako pareten eta zoruaren artekoa zigilatze zerrendaren hondakinak dokumentatu ahal izan genituen kanpoko aurpegian. Urmael honek bere ipar-ekialdeko angeluan hustubide bat zuen, ekialdetik mendebaldera egiten zuena, aztarnategi osoari leku egiten dion mazelaren alde. Hustubide honetako urak, beraz, arian-arian ekialderantz jaisten ziren Mariturriko errekaen ibilguarekin bat egin arte.

Gela honen hegoaldeko gelan 3x3 metroko zundaketa bat egin genuen. Arpilatze-maila lodi bat dokumentatu genuen, nola gelako perimetroko paretak –gehienak zimentarrien mailaraino arpilatuak izan baitziren– hala barruko egiturak –kasu honetan *pilae* koadroekin eraikitako hipocaustoa– hartzen zituena. Zortzi *pilae* dokumentatu ahal izan genituen, baina haietatik bik baino ez zuten hipocaustoko zoladuraren gaineko aurreneko adreilua kontserbatzen; aipatutako zoladura hori kareore hori oso trinko batez osatua zen. Kontserbatzen ere zen gela honen hego-ekialdeko angeluko zimentarria, hareharrizko harlandu handi batez, eskantzu baten gisara, eta metro erdia baino lodiagoak ziren hormez osaturik; horma hauen estekadura neurri ertaineko kalkarenitekin, kareore trinko batez batutako kalkarenitekin, osatua zen. Ekialdean hipocaustoa aire beroarekin elikatuko zuen *praefurnium* baten hondakinak kontserbatzen dira, baina haren egiturak kontserbazio egoera oso kaskarrean zeuden, materialak ostuak izan baitziren. Argi dago, beraz, gela hau terma multzoko azpiegituretako alde epel edo beroetako bat zena.

1'82 m en su perímetro interior. Esta pequeña piscina se encontraba pavimentada con un mosaico –*opus tessellatum*– monocromo de teselas blancas. Se pudieron documentar además las capas de preparación del mismo: una primera como base de unos 0,12 m de espesor compuesta por calizas de pequeño tamaño y argamasa blanca de bastante compactación –*statumen*–; y otra sobre esta de menor espesor –*nucleus*– realizada a base de pequeños fragmentos de cerámica machacada y cal –*opus signinum*–, sobre la que se colocaron directamente las teselas del mosaico. En los dos lados mayores de la piscina, se pudieron documentar las zanjas de robo de los muros perimetrales de la misma, y una vez excavado su saqueo, restos muy escasos de las cimentaciones de estos. En los lados menores en cambio, no pudimos localizar los muros de cierre, ya que los muros de los lados mayores de la estancia que se encuentra amortizando este elemento, apoyan directamente sobre los de la antigua piscina. En cualquier caso, conocemos la totalidad del área ocupada por esta pequeña piscina, ya que un cordón perimetral en *opus signinum* de casi 0'20 m de anchura, del que se conservan algunos restos completos, circunda todo su perímetro en forma de cuarto de bocel, con la función de sellar los huecos existentes entre las paredes y el suelo de la piscina y de este modo evitar fugas o filtraciones de agua. Podemos asegurar también, la existencia sobre las paredes de un enlucido, de nuevo de *opus signinum*, que actuaría igualmente como impermeabilizante, y del que se documentaron diferentes restos en la cara externa del cordón de sellado entre el suelo y las paredes de esta estructura. En el ángulo nororiental, la piscina disponía de un canal de desagüe con orientación este-oeste, en la dirección de la pendiente en la que se encuentra situado todo el yacimiento, y que descende paulatinamente hacia el este hasta alcanzar el cauce del arroyo Mariturri.

En la estancia situada al sur de esta habitación se realizó un sondeo de 3x3 m, documentándose un potente nivel de saqueo que afectaba tanto a los muros perimetrales de la habitación, en su mayoría robados hasta su nivel de cimentación, como a las estructuras internas, que en este caso se trataban de un hipocausto construido con *pilae* cuadrangulares. Pudieron documentarse ocho de ellas, de las que sólo dos conservaban el primer ladrillo asentado sobre la solera inferior del hipocausto, solera construida en argamasa amarillenta de alta compactación. Se conservaba, también, la cimentación del ángulo suroriental de esta habitación, compuesta por un gran sillar de arenisca, a modo de esquinal, y muros de más de medio metro de anchura aparejados con calcarenitas de mediano tamaño trabadas con argamasa de cal de buena consistencia. En el lateral E se conservan los restos del *praefurnium* que alimentaría al hipocausto de aire caliente, pero sus estructuras presentaban un estado de conservación muy deficiente debido al saqueo de materiales. Queda claro por lo tanto, que esta habitación se correspondía con una de las zonas templadas o calientes de las infraestructuras del conjunto termal.

Bigarren multzoari dagokionez, izaera hidrauliko agerikoa duen multzoari dagokionez, urmaeleko paretan irakurketa egin genuen eraikinaren eraikuntzaren bilakaera zehaztu ahal izateko, eta aipatutako eraikinaren alboko gune bitan induskatu genuen: lehenengo, ipar-ekialdeko izkinan, urak errekarantz bideratzeko kanalizazio baten presentzia ezagutzen genuen tokian, eta bigarrena urmaelaren mendebaldeko goiko terrazan egokitutako espazioan, bertan urmaela uraz hornitzeko kanal baten ustezko presentzia egiaztatu nahi baikenuen.

Lan hauek eskainitako emaitzei dagokienez, esan dezagun hormen irakurketak aukera eman zigula ondo asko bereizten diren hiru bilakaera aldi bereizteko. Horrek ez du esan nahi hartan bereizitako ekintza guztiak une kronologiko batera eta berera bildu behar direnik:

Lehenengo urmaela eraiki aurreko aldia

Aldi honetara biltzen dira urmaelaren eraikina eraiki aurreko kronologia duten unitate stratigrafiko batzuk. Unitate hauek urmaelaren ekialdeko eta iparraldeko hormen azpian azaldu ziren, eta denak dira

En relación al segundo conjunto, el de marcado carácter hidráulico, se ha realizado la lectura de los alzados del estanque con la intención de establecer la evolución constructiva del edificio, y se ha excavado en dos puntos adyacentes a dicho edificio: el primero de ellos en la esquina NE, donde se conocía la existencia de una canalización para la evacuación de las aguas hacia el río y, el segundo, en una estancia situada en la terraza superior inmediata al estanque por su lateral O, con la intención de comprobar la probable existencia de un canal de abastecimiento de agua al estanque.

En cuanto a los resultados, la lectura de alzados de sus muros ha permitido documentar tres fases evolutivas bien diferenciadas, sin que por ello respondan todas las acciones en ellas agrupadas a un mismo momento cronológico:

Fase previa a la construcción original del estanque

Se agrupan en esta fase una serie de unidades estratigráficas de cronología anterior a la construcción del edificio del estanque que aparecen bajo los muros de su lateral E y N, respondiendo en todos los casos



Mariturri. Urmaela.

Mariturri. Piscina.

zimentarriaren mailan kontserbatzen diren eraikuntza unitateak. Kontserbazio egoera kaskarrean daudenez gero –urraelaren eraikuntzak zuzeneko eragina izan zuen haietan– ez dakigu alde aurreko egitura hauek eraikin bati ala bati baino gehiagori dagozkien ala ez, baina argi dago urmaela eraiki aurreko aldi batean baliatu zituzten eraikinen baitara biltzen direla.

Lehenengo urraelaren eraikuntzari dagokion aldia

Une honetan urmaeleko deposituari leku egiteko zulo bat induskatzen hasi ziren, zuzenean geruza naturalaren gainean, dokumentatutako alde aurreko egituren gainean. Eraikuntzarako erreten handi honen perimetro osoari atxikirik oinarritu zuten urmaela. Hegoaldean kokatutako eskailera-maila batek egiten zion sarrera urmaelari, urak mendebaldean egokitutako erreten batetik iristen ziren, eta hustubidea urraelaren ipar-ekialdeko angeluan egokitu zuten.

Iparraldeko, hegoaldeko eta ekialdeko hormek seguru asko kareharrizko pieza handiak izango zituzten goiko partean, hauek urraelaren barruko aldera irten-go ziren, eta uraren kota gorena zein zen adieraziko zuten. Mendebaldeko fatxada garaiagoa izango zen, kota garaiago batean egokitutako eraikinen atal bat osatzen duten hormak baitira.

Urraelaren azken aldia

Aldi honetara biltzen dira konponketa jakin batzuk. Konponketa lan hauek ezin une jakin batean koka ditzakegu, baina argi eta garbi dago dokumentatu ditugunak egituraren albo bi ukitzen dituztela, iparraldekoa eta ekialdekoa.

Ekialdeko horman egindako lanak horma hau urraelaren barruko aldera erortzeko joera zuzentzeko asmoarekin egin zituzten, seguru asko errekarren presioak eraginda etorriko baitziren horma atal batzuk behera. Alde hau konpondu zutenean ez zituzten jatorrizko hormatik behera etorritako hondakin guztiak jaso. Iparraldean, konponketak antzekoak diren arren, era berean behera etorritako horma atalen hondakinak guztiz jaso gabe konpondu bazuten ere, kalteak eragin zituzten arrazoiak bestelakoak izan zitezkeen, agian iparraldetik mugatzen duen gelako zoladura behin eta berriz aldatu izanaren ondorioz kaltetuko ere zen. Hala eta guztiz ere, esan dezagun alde honetako konponketa lanak direla interpretaziorako aukera interesgarrienak eskaintzen dituztenak, haren eraikuntzak bat egingo baitzuen 90º-ko bihurgune baten ostean luzatzen den horma atal baten amortizazio mailarekin, eta gainera aukera ematen baitu urraelaren erabilera aldiatiko bat ondoko eraikin arkupedunarekin lotzeko.

Indusketa arkeologikoen aurreneko kanpainak abian jarri zirenez geroztik, Udala, Gasteizko Udala Hirigintza Elkarteak, *ENSANCHE 21 ZABALGUNEA S.A.* elkarteak ordezkatuak, aztarnategi hau, bertan

a estructures constructivas que se conservan a nivel de cimentación. No podemos determinar, a causa de la parcialidad en la conservación de estas -muy afectadas por la construcción del estanque-, si este conjunto de estructuras preexistentes forman parte de uno o varios edificios, pero en cualquier caso responden a realidades constructivas que funcionarían en una etapa anterior a la del estanque.

Fase correspondiente a la construcción del estanque original

En este momento se acometería la excavación del hueco, directamente en el sustrato natural y sobre las estructuras preexistentes documentadas, del depósito del estanque. Adosado a todo el perímetro de esta gran zanja constructiva se cimentó el estanque, que dispondría de un acceso en el tramo occidental de su lateral sur por medio de una escalinata, una entrada de aguas por el lateral O, y una salida de aguas en su esquina nordeste.

Posiblemente los laterales N, S y E se encuentran coronados por grandes piezas calizas, que sobresaldrían ligeramente al interior, marcando la cota máxima del agua. La fachada O tendría un mayor desarrollo en altura, ya que se trata de muros que forman parte de construcciones situadas a una mayor cota.

Última fase del estanque

Se han agrupado aquí una serie de reparaciones, sobre las que no podemos asegurar su correspondencia a un momento concreto, pero si resulta evidente que las que hemos podido documentar afectan a dos de los laterales, el N y el E.

Las correspondientes al lateral E se realizaron para reparar el hundimiento del muro hacia el interior del estanque, seguramente provocado por el empuje del río, reparación que se realizó sin retirar por completo los restos del muro anterior. En el lateral N, aunque las reparaciones presentan una factura muy similar y se realizan también sin retirar completamente los restos de los muros derribados, pueden tener otros condicionantes además del hundimiento, condicionantes que quizás estén relacionados con los sucesivos cambios de pavimentación de la estancia que lo delimita por el N. No obstante es esta reparación la que reviste un mayor interés interpretativo, ya que su construcción coincidiría con la amortización de un tramo de muro que continúa tras un quiebro de 90º y permite relacionar alguno de los momentos de uso del estanque con la zona del edificio porticado inmediato.

Ya desde las primeras campañas de excavación arqueológica, por parte del Ayuntamiento, representado por la Sociedad Municipal Ensanche 21, comenzó a gestarse la idea de conservar el yacimiento

proiektatutako hiri parkearen esparruan, Parke Arkeologiko gisa kontserbatzeko ideiaaren inguruan hasi zen hausnarrean. Landa-lanetan oinarritutako egiteko arkeologikoak amaitu ondoren eta aipatutako elkartearekin elkarlanean, ideia gorpuztu eta *Mariturri – Armentum* Parke Arkeologikoa deitutako proiektu integral bat idazteko prozesuari ekin zitzaion.

Jatorrizko hondakinak hasiera batean pentsatu bezala in situ ikusi ahal izatea egokiena izango bazen ere, haiek estaltzeko eta gainazalean irudikatzen erabakiaren aldeko hautua egin zen. Izan ere, bestela oso zaila izango zen hondakinak beren jatorrizko egoeran kontserbatzeko bermeak eskaintzea, eguraldiaren gora-beheren mende geratzeaz gainera bisitariek berek ere kaltetuko baitzituzten hondakinok. Nolanahi ere den, atzera egiteko moduko babes sistema bat da, etorkizunean ere aztarnak berreskuratzeko aukera bermatzen duena.

Kontuan izanik aztarnategi honetan giza okupazioak luzaroan iraun zuela, Protohistoriatik gure garaiko gutxienez v. mendera arte, gogoan izanik agerian utzitako egituren hondakin ugariak, eta kontuan izanik finkamenduaren ingurukoak hiritarrei azaltzeko orduan lan batere erraza ez dela, gure ustez esanguratsuenak diren une historikoak bereizi ditugu espazio osoa banatu dugun hiru eremuetan: bideetan, abereentzako barrutian eta *vicus*-ean. Elementu jakin batzuk izan ezik, aztertu beharreko hondakin gehienak aztarnategiaren multzoko azken okupazio aldikoak dira.

Kontserbatutako hondakinak garrantzitsuak izaki eta hondakin horietako askoren kontserbazio egoera kaskarra izaki, berriro ere estali aurretik eta ondo garbitzeko orduan lan metodologia guztiz zorrotza aplikatu behar izan genuen nola eraikuntza egituren hala testuinguru estratigrafikoen osotasuna bermatzeko.

Kasu bakar batean ere ez genuen lurra erazteko aukera aurreikusi, ez genuen landa-lanetan oinarritutako lan arkeologikoen ostean utzitako hondakinen azken egoera nahasi zezaketen lanik aurreikusi. Besterik gabe, ikerketa lan horien ostean gure esku-hartzetik kanpoko arrazoiengatik iritsitako materialak jasoko genituen.

Honatx helburu hauek lortzeko xedean jarraitutako prozesua:

- Egokitu beharreko elementuaren eta hari leku egiten dion testuinguruaren hasierako egoeraren dokumentazio grafikoa.
- Arrotzak diren objektu guztiak atera, batez ere inguruko eraikinen eraikuntzatik etorritakoak (plastikoak, eraikuntza zaborrak eta beste).
- Esku-hartze arkeologikoen ostean hazitako landareak eta zuhaixkak erazi. Egiturei eta tes-

como Parque Arqueológico en el marco del patio urbano allí proyectado. Una vez concluidos los trabajos arqueológicos en su faceta de intervención de campo, en colaboración con la citada Sociedad se materializa la idea y se inicia el proceso de redacción de un proyecto integral que ha culminado en el denominado Parque Arqueológico de *Mariturri – Armentum*. El fin que se pretende con su creación es la de recrear y mostrar en superficie los restos arqueológicos más significativos y, a su vez generar un espacio de ocio.

Aunque hubiese sido deseable poder contemplar las ruinas originales in situ, como en un primer momento se pensó, se ha optado por la solución de cubrirlas y recrearlas en superficie como se ha señalado. La elección de este sistema ha estado motivada por la dificultad que entrañaría garantizar la conservación e integridad de los restos en sus condiciones originales, estando expuestos tanto a los rigores climáticos como al acceso de los visitantes. Se trata además de un sistema de protección reversible que garantiza además su recuperación en un futuro.

Teniendo en cuenta la dilatada evolución temporal de la ocupación humana del yacimiento, desde la Protohistoria hasta por lo menos el siglo v de nuestra era, y los numerosos restos de estructuras puestos al descubierto, dada su complejidad interpretativa a la hora de su exposición al público en general, se ha optado por seleccionar los momentos históricos que se consideran más representativos de cada una de las tres zonas en las que se ha dividido todo el espacio: las vías, el recinto ganadero y el *vicus*. Salvo en elementos muy puntuales la mayoría de los restos a recrear corresponden a la última fase de ocupación del conjunto del yacimiento.

Dada la entidad de los restos a conservar y el delicado estado de muchos de ellos, fue preciso establecer una metodología de trabajo muy metódica que garantizase la integridad, tanto de las estructuras constructivas como de los contextos estratigráficos, a la hora de proceder a la limpieza previa a su cubrimiento.

En ningún caso se contempló la posibilidad de proceder a remociones de tierra que alteraran el estado final en el cual se dejaron las ruinas tras los trabajos arqueológicos de campo, salvo cuando se tratase de arrastres o aportes producidos por causas ajenas con posterioridad a esos trabajos de investigación.

El proceso seguido para lograr estos objetivos fue el siguiente:

- Documentación gráfica del estado inicial del elemento a acondicionar y del contexto al que pertenece.
- Retirada de todos los objetos ajenos, principalmente aportados por la construcción de las viviendas cercanas (plásticos, restos de obras, etc.).
- Retirada de todas las herbáceas y plantas arvustivas de cierto porte, crecidas tras las inter-

tuinguruei atxikiriko belarrak eta likenak kontu handiago batez erauziko genituen eskuz garbitzeko prozesuan.

- 2005. eta 2006. urteetako kanpainetan *Vicus*-eko alde batzuk uraren jarioetatik babesteko xedean instalatutako eustormetarako hormatxoak desmuntatu.
- Proiektuan aurreikusi bezala jada lehendik zeuden aridoak eta babesteko beste elementuak ateratzeari dagokionez, lehenengo esperientziaren ostean hondakinak beren osotasunean kontserbatzeko emaitzak negatiboak izan eta gero, haiek hondakinak ez kaltetzeko berme guztiak zeudenean baizik ez ziren aterako.
- Garbitzeko prozesua. Eskuz garbituko genituen, ondo garbituko ere, egitura eta zoladura esanguratsuenak. Lanabes arinak baizik ez genituen baliatuko.
- Hondakinak estaltzeko prozesuari ekin aurretik haien azkeneko egoera jasoko genuen grafikoki.
- Egiturak edo testuinguruak ehun batez babestuko genituen behin-behinean, haien forma eta neurrietara egokituz, ehuna ondo finkaturik, multzoa legarrez estalia izan zedin arte. Lan hau enpresa esleipendunaren langileek eraman zuten burura, betiere arkeologoek begiradapean.
- Pikor fineko harri txintzar beltzez estali zituzten hondakin guztiak, baita ehunez babesteko beharra ez zutenak ere.
- Hondakin arkeologikoak estaltzen eta babesten ziren heinean, lurra irauli ziren haien gainean proiektuan ezarritako topografia kotetara iritsi arte. Jarraian parkea eraikitze lanak hasi zituzten, ustez 2010. urteko azken hiruhilekoan amaituko direnak.

venciones arqueológicas. Las hierbas y líquenes adheridos a las estructuras y contextos se eliminaron de manera más minuciosa en el proceso de limpieza manual.

- Desmonte de los muretes para diques de contención que se habían instalado tras las campañas de 2005 y 2006, con la finalidad de proteger las zonas del *Vicus* de los arrastres del agua.
- En relación con la retirada de áridos y otros elementos de protección ya existentes como estaba previsto en el proyecto, tras la primera experiencia, dados los resultados negativos para la integridad de los restos, sólo se llevó a cabo cuando existieron garantías de la no alteración de los mismos.
- Proceso de limpieza, consistente en una limpieza manual meticulosa de las estructuras y pavimentos destacados. La herramienta a emplear fue de tipo ligero.
- Documentación gráfica del estado final previo al proceso de cubrimiento.
- Protección de la estructura o contexto con geotextil, adaptándolo correctamente a su forma y dimensiones, sujetándolo de forma provisional hasta que se procediera a su cubrimiento con gravilla, tarea esta última llevada a cabo por parte de los empleados de la contrata, bajo supervisión de los arqueólogos.
- Cubrimiento con gravilla negra de grano fino, de todos los restos acondicionados, incluso algunos que no precisaban ser protegidos con geotextil.
- A medida que se fueron cubriendo y protegiendo los diferentes restos arqueológicos, se procedió al vertido de tierras sobre todo ello hasta alcanzar las cotas topográficas establecidas en el proyecto, e iniciar los trabajos de construcción del parque, que se espera estén concluidos para el último trimestre del año 2010.

J. Nuñez Marcén; P. Saénz de Urturi Rodríguez

A.21.2.3. **Ama Birjinaren Jasokunde eliza, Gamarran**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez
Zufiaurre
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.21.2.3. **Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción de Gamarra Mayor**

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre
Financiación: Diputación Foral de Álava

The stratigraphic reading of the walls of Gamarra Mayor Church, enabling its historical sequence to be documented, from the construction of the original church, possibly from the 16th century, right up to the modern day, including the large-scale alterations of the 18th century.

Sarrera

Ama Birjinaren Jasokunde eliza Gamarrako herrian dago, Gasteizko hiriaren iparraldean. Herri hau 1025. urteaz geroztik dago dokumentatuta.

Egungo elizak gurutze latindarraren araberako oinplanoa du, habearte atal birekin, burualdearekin eta gurutzadurarekin. Atari neoklasikoa du, sakristia bi, kanpandorra eta kapera bat habeartearen iparraldean. Kapera honetan dago Avilako Gotzain eta kaperaren onuradun Francisco Gamarra jaunaren hilobia.

Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuak sustatutako zaharberritze prozesuan murgilduta dago eliza hau. Une honetan teilatuak berritzea du xede nagusi proiektu honek.

Hormetan egindako irakurketa estratigrafikoari esker sei eraikuntza alditan banatutako sekuentzia berrei ahal izan dugu eliza eraiki zutenetik xx. mendera arte.

Emaitzak

I. aldia. Elizaren eraikuntza

Habearte nagusiko hormen atal batzuk eta jatorriko gangen abiapuntuak, egungo gangen gainean daudenak, dira eliza honetan kontserbatzen ditugun hondakin aspaldikoenak.

Lehenengo eraikin honen liraintasunak, ganga oso goratuekin, arku apur bat zorrotzekin errematatuak, kanpoko horma bularrrik gabeak, xvi. mendean arruntak edo ohikoak ziren eredueta eramaten gaitu. Izan ere, liraintasun hau habearteak gerora biziko zuen egoera guztiz kaskarraren eragile nagusia izango zen; fenomeno hau, argi esan behar baita, oso arrunta da garaiko eliza asko eta askotan, ugari dira gure Elizbarrutian adibideak (ikus, esate baterako, Izarrako Ama Birjinaren Jaiokundea parrokiaren kasua).

Seguru asko lehendik ere eliza bat izango zen bertan, Erdi Aroko eliza bat. San Millango Kartularioan Gamarrako herriari egiten zaizkion aipamen ugariak

Introducción

La iglesia de Nuestra Señora de la Asunción se encuentra en la población de Gamarra Mayor, localidad documentada desde el año 1025 y situada al norte de la ciudad de Vitoria-Gasteiz.

Su actual iglesia presenta planta de cruz latina con dos tramos de nave, cabecera y crucero. Tiene un pórtico neoclásico, dos sacristías, el campanario y una capilla en el lateral norte de la nave, donde se encuentra la sepultura de D. Francisco Gamarra, Obispo de Ávila, benefactor de esta capilla.

Esta iglesia está en proceso de restauración, promovido por el Servicio de Patrimonio Histórico-Arquitectónico de la Diputación Foral de Álava, con un proyecto cuyo principal objetivo es actualmente la sustitución de las cubiertas.

Gracias a la lectura estratigráfica de alzados hemos podido articular su secuencia histórica en 6 fases constructivas, desde la construcción de la iglesia hasta el siglo xx.

Resultados

Fase I. La construcción de la iglesia

Los restos más antiguos que conservamos de la iglesia son parte de los muros de la nave principal así como los arranques de las bóvedas originales, por encima de las actuales.

La esbeltez de esta primera edificación, con bóvedas muy elevadas rematadas en arcos ligeramente apuntados y sin contrarrestos exteriores, nos remite a modelos más habituales en el siglo xvi. Esta esbeltez pudo ser, de hecho, el motivo de la posterior ruina de la nave; es un fenómeno, por otra parte, muy habitual en las iglesias de la época con numerosos ejemplos en nuestra Diócesis (ver el caso, por ejemplo, de la parroquia de Nuestra Señora de la Natividad de Izarra).

Lo más probable es que existiese previamente una iglesia de origen medieval. Las numerosas menciones a la población de Gamarra Mayor en el Cartu-

(partikularrek burdina biren bidez eta beste emaitza garrantzitsu batzuen bidez egindako ordainketarekin estu lotuak) adierazten digute herri koskorra zela, zalantzarik gabe *x*. menderako bere eliza edukiko zuena. Izan ere, mende horretara garamatza herri honi buruzko aurreneko aipamen kronologikoak.

II. aldia. Kanpai-horma baten eta luzapen baten eraikuntza iparraldean

creta.

E. Telleria Sarriegi

A.25. BESTE BATZUK / VARIOS

A.25.1. **Cantoblancoko parke eolikoa (Añana, Erriberagoitia)**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez
Zufiaurre
Finantzazioa: Basoinsa S.L. - Guascor

A.25.1. **Parque eólico de Canto Blanco (Añana, Ribera Alta)**

Dirección: Leandro Sánchez
Zufiaurre
Financiación: Basoinsa S.L. - Guascor

Archaeological prospection for the Canto Blanco wind farm, in the high areas of the Valdelasierra gorge. The results of the prospection were negative.

Cantoblancoko parke eolikoak Arabako Barranco Valdelasierra aldeko kota garaietako linea ukitzen du. Alto Limpio (930 m), Los Pinachos (989 m), Canto Blanco (1005 m) eta La Manzanera (994 m) izenekin ezagutzen diren gailurren gainean egokitzen da. Proiektatutako zortzi haize errotek, bakoitzak bere bi-dearekin, 2,5 km luze den eremua hartzen dute.

El parque eólico de Canto Blanco afecta a la línea de cotas altas de la zona del Barranco Valdelasierra, en Álava. De manera directa se asienta sobre las cimas conocidas como Alto Limpio (930 m), Los Pinachos (989 m), Canto Blanco (1005 m) y La Manzanera (994 m). Los ocho molinos proyectados, con sus caminos, alcanzan una zona afectada con una longitud lineal de 2,5 km.

Ukitu beharreko lur eremu osoan xehe-xehe miatu genuen gainazala.

Ez genuen egiturarik ez aspaldiko material hondakinik aurkitu, ez bederen gainazaleko aztarnategi arkeologikoen presentzia iradokitzen duen hondakinik.

Errota hauek eraikitzen baldin badira, kontrolpean egin beharko dira lurra altxatzeko lanak.

Se llevó a cabo una prospección superficial exhaustiva de todo el terreno afectado.

No se han encontrado ni estructuras ni restos materiales antiguos, que pudieran indicar la presencia de yacimientos arqueológicos en superficie.

En caso de construirse los molinos, habrá que llevar a cabo un control de la retirada de tierras.

L. Sánchez Zufiaurre; B. Renedo Villarroya

A.25.2. **Miaketa arkeometalurgikoa Arabaren iparraldean (Aramaio, Asparrena)**

I. miaketa kanpaina
Zuzendaritza: Marta López de Armentia Iturralde
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.25.2. **Prospección arqueometalúrgica en el norte de Álava (Aramaio, Asparrena)**

I Campaña de prospección
Dirección: Marta López de Armentia Iturralde
Financiación: Diputación Foral de Álava

The results of the initial archaeometallurgic prospections revealed the first indications of iron production from the medieval period, prior to the incorporation of hydraulic power in Alava, through its production indicators. Also, the prospections currently being carried out in various municipalities in the north and north-east of Alava form part of a research project on pre-hydraulic ironworks, the objective of which is to analyse this metal producing technique and determine its relevance in medieval Basque society.

Aro modernoan metalurgiaren esparruan tradizio handiagoa izan duten beste herrialde batzuetan, batez ere Bizkaian, badira urte batzuk Erdi Aroko burdinola aurre-hidraulikoei buruzko aurreneko emaitzak aurkezten dituztela, azpiegitura horiek aurkitu, egiturak induskatu eta hondakin arkeometalurgikoen hondakinak aztertzen dituztela. Araban, aitzitik, energia hidraulikoa erabili aurreko Erdi Aroko burdinaren ekoizpenak ez du ia inolako oihartzunik izan.

Euskal Herriaren iparraldeko hainbat tokitan gisa honetako hondakin arkeologikoak aurkitu izanak piztu zuen gure herrialdeko Erdi Aroko gizartean burdinaren ekoizpenak izango zuen garrantzia ulertzeko interesa. Honenbestez, hainbat miaketa lan egitea erabaki genuen.

Metodologia

Herrialdeko eskualdeak ebaluatu ostean, Aramaio udalerrira –Olaeta, Otxandio eta Urkiolako inguruetara– eta Asparrenako udalerrira –Araia, Ilarduia, San Adrian eta Arriola iparralde aldera– mugatu genuen gure jarduera esparrua, hots, halako interes arkeometalurgikoa eskain dezaketen tokietara. Eta alde hauek bereizi ditugu geologiaren, historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik halako interes berezia erakusten dutelako.

En otras provincias de mayor tradición metalúrgica en época moderna, especialmente en el caso de Bizkaia, se han empezado a presentar desde hace algunos años los primeros resultados sobre las ferrerías pre-hidráulicas de época medieval, con su localización, la excavación de estructuras y los análisis de restos arqueometalúrgicos. En Álava, por el contrario, la producción de hierro en época medieval antes de la incorporación de la energía hidráulica, ha pasado casi completamente inadvertida.

La presencia de este tipo de restos arqueológicos en distintas zonas del norte del País Vasco, despertó el interés por comprender la importancia de la producción del hierro en la sociedad medieval en nuestra provincia, motivando la realización de las prospecciones.

Metodología

Tras la evaluación de los distintos territorios de la provincia, el marco de actuación se ha centrado en los términos municipales de Aramaio, en concreto, los alrededores de Olaeta, Otxandio, Urkiola y, en Asparrena y las proximidades de Araia, Ilarduia, San Adrián y norte de Arriola entre otras zonas de interés arqueometalúrgico. Estas áreas han sido elegidas por mostrar un particular interés desde una perspectiva geológica e histórico-arqueológica.

Landa-lanei ekin baino lehen, iturri idatzietan jasotakoak bildu, meatzaritza eta metalurgia jarduerekin zerikusia izan zezakeen toponimia aztertu eta inguru fisikoa eta baliabide geomineralogikoak aztertu genituen. Era berean, xehe-xehe erreparatu genien erliebeari, hidrografiari, klimari eta landarediari, horietatik baitira burdina ekoizteko testuinguru gutxi gora-behera egokia osatzeko elementu nagusiak. Alderdi horiek guztiak kontuan izan ere zituzten aro modernoan eta aro garaikidean, batez ere xvi. mendean, ustiari zituzten burdinolek eta meategiek, esate baterako, Aramaio udal barrutian dauden Lurgorri, Alberti, Jarindo, Ipiztikarriaga eta San Bernabe izenekoek, besteak beste. Bestalde, nola Arabako Herrialdeko Artxiboan hala udal artxibo zenbaitetan ustiategi batzuei buruzko datuak aurkitu eta jaso genituen. Horien artean daude Zulampo, Ilarduiako herriaren iparraldean, Zalduendoko mea, San Adriango igarobidetik gertu, eta Asparrenako Araia, Alzania eta Arriolako ola ugariak.

Bigarren aldirian landa-lanetan baliatu beharreko metodologia diseinatu genuen ahalegin guztiak burdinaren ekoizpenaren hondakinak aurkitzeko eta egokiro dokumentatzeko bideratzeko xedean. Horretarako miaketa arkeometalurgikorako fitxetan oinarritutako erregistro sistema bat prestatu genuen, baita lekuarekin batera lortutako datuak kokatzeko eta aztertzeko georreferentziatzeko euskarri informatiko bat ere.

Aldez aurreko dokumentazio aldirian bildutako aztertutako oinarritu eta haien arabera bereizirik aldeetan miaketa arkeologiko bat egitea proposatu zen. Gainazala miatzeko aurreneko kanpaina honetan jardura metalurgikoa burura eramateko egokiak izan litezkeen puntu eta eremu zehatzak egiaztatzen saiatu gara. Hala eta guztiz ere, puntu hauetako askotarako irisgarritasuna zaila izateak, ikusgaitasuna apala izateak eta egituren kontserbazio kaskarrak nabarmen mugatu dituzte hasieran genituen itxaropenak, beste ikerketa talde batzuek Bizkaian bururatutako beste lan batzuetan gertatu bezala. Gainera horiei denboraren eta eskura genituen baliabideen faktorea gehitu behar zaie, izan ere, urteko sasoi batzuetan ezin arakatu izan ditugu interesgarrienak izan daitezkeen alde batzuk, eta arakatzeko lan horiek dira egiturak ikusten errazten dutenak. Baldintza hauek guztiak kontuan harturik, alde aurretik antolatutako laginketa-miaketa bat egiteko erabakia hartu genuen. Laginketa honek ahalik eta baliabiderik gutxienak galduta informazio fidagarria biltzea zuen xede, neurri handiagoko eta esanguratsuagoko testuinguru bati buruzko informazioa jaso ahal izateko.

Landa-lana eta emaitzak

2009. urteko irailean eta urrian zehar bururatu genuen Arabako herrialdeko miaketa arkeometalurgikoen aurreneko kanpaina. Esanguratsuak dira Aramaio eta Asparrenako udal barrutietako hainbat tokitan topatutako burdinaren ekoizpenaren arrastoak edo aztarnak. Aramaio udalerriko lurretan barrena

Durante un trabajo previo se llevó a cabo una primera fase de documentación de las fuentes escritas, de análisis de la toponimia relacionada con las actividades minerometalúrgicas, y un estudio del medio físico y de los recursos geomineralógicos, prestando también atención al relieve, la hidrografía, el clima y la vegetación, que configuran los principales elementos para crear un contexto más o menos propicio para la producción del hierro. Estos factores también fueron tenidos en cuenta en época moderna y contemporánea, como lo demuestran las ferrerías y minas explotadas especialmente durante el siglo xvi, como la de Lurgorri, Alberti, Jarindo, Ipiztikarriaga o San Bernabé, entre otras de Aramaio. Además se recogieron noticias de distintas explotaciones en distintos archivos municipales, así como en el Archivo Provincial de Álava. Este era el caso de Zulampo, al norte de Ilarduia, la mina de Zalduendo muy próxima al paso de San Adrián, o las numerosas ferrerías de Araia, Alzania y Arriola en Asparrena.

En una segunda fase se diseñó la metodología a emplear en el trabajo de campo, con el único objetivo de centrar todos los esfuerzos en la localización y la correcta documentación de los restos de producción de hierro. Para ello, se elaboró un sistema de registro basado en fichas de prospección arqueometalúrgicas y un soporte informático de georeferenciación para localizar y analizar junto con el territorio los resultados obtenidos.

Se propuso una prospección arqueológica a través de una cobertura del terreno selectiva y dirigida, en base a los indicios recogidos en la fase de documentación previa. En esta primera campaña de prospección de superficie, se ha tratado de verificar los puntos y áreas concretas más susceptibles a este tipo de actividades. Sin embargo, la difícil accesibilidad a muchos de estos puntos, la escasa visibilidad y la mala conservación de los mismos, como ya se había comprobado en Bizkaia a través de otros trabajos realizados por distintos equipos de investigación, han limitado en parte las expectativas iniciales. A todo ello, han de añadirse el factor temporal y los recursos disponibles, lo que supone que no han podido efectuarse repetidas batidas en las zonas de mayor interés en las distintas épocas del año, lo que suele favorecer la visibilidad. Por todos estos condicionantes, se consideró oportuno llevar a cabo una prospección de muestreo dirigido. El objetivo del muestreo era el de recoger información fiable con la mínima pérdida de recursos, para obtener información sobre un contexto de dimensiones más amplio y significativo.

Trabajo de campo y resultados

Durante los meses de septiembre y octubre del año 2009, se realizó la primera campaña de prospecciones arqueometalúrgicas en la provincia alavesa. Los indicios de la producción ferrona localizados en las distintas zonas de Aramaio y Asparrena son significativos. Se han prospectado 15 áreas en Aramaio



Ezk. Aitzatik (Asparrena) iritsitako limonita zatiak. Burdina-mean aberatsak dira alde hauek. Esk. Zepaditik iritsitako zepa jariakinak, haiek aztertzekeo prozesuan.

Izda. Fragmentos de limonita procedente de Aitza (Asparrena). Son zonas de alta presencia en mineral de hierro. Dcha. Escorias coladas procedentes del escorial de San Adrián (Asparrena) en proceso de análisis.

hedadura askotako 15 eremu miatu ditugu, hegoaldeko Legutioko herriaren mugatik hasi eta Otxandio inguruak (Olazar-Olaeta, Iñola), Olaetako inguruak (Zalduena-Larra, Kortatu-Bekomintei), Urkiolako parkeko alde batzuk (Prezalde-Narbaiza, Olaeta) eta Ibarra (Arriola, Arejola, Aspístico-Andra Mari, Iturrigorri, Lurgorri-Asuola, Unzeta eta Barraus), betiere haietarako irisgarritasunaren arabera. Era berean Asparrenan beste 15 eremu miatu genituen iparraldean (San Adrián-Kalderondo), Araiaiko herriaren inguruetan (Aitza-Marutegi, Allondo-Tocatorre, Los Rojos-Lurgorri, Ferreriaburu) eta Ilarduiaiko herriaren iparraldean (Matxingerra-Los Mineros, La Lece-Escabita).

Identifikatutako adierazle arkeometalurgikoek kokalekuei buruzko hiru baldintza nagusi betetzen dituzte.:

Burdina-mearen ugaritasuna

Burdina-mea ugariko alde baten hurbiltasuna estu lotuta dago Goi Kretazikoko (Albiarra, Kanpaniensea eta Zenomaniensea) eremuekin, hauetan burdina-oxidoak errazago agertzen baitira gainazalera. Burdina-eremu hauen ugaritzea agerikoa da, besteak beste, Pagolan, Aramaio eta Legutiok muga egiten duten aldean, Prezalde-Narbaizan, Urkiolako parkearen mendebaldean eta Lurgorri. Alde hauetan kareharria arrunta da, eta kareharri hau baliatuko zuten agente erreduktore gisa, mea eraldatzeko garaian hura murrizteko labean tenperatura altuago bat lortzeko. Eredu hau agerikoa da, halaber, Asparrenako kasuetan, esate baterako, Los Rojos-Lurgorri, leku-izenak berak azpimarratzen du lur hauen kolore gorrixka, Allondo-Tocatorren eta San Adrián-Kalderondon.

de distintas dimensiones distribuidas por todo el territorio municipal, desde el sur en el límite con Legutiano (Pagola, Oreisigor), en torno a Otxandio (Olazar-Olaeta, Iñola), los alrededores de Olaeta (Zalduena-Larra, Kortatu-Bekomintei), zonas del parque de Urkiola (Prezalde-Narbaiza, Olaeta) e Ibarra (Arriola, Arejola, Aspístico-Andra Mari, Iturrigorri, Lurgorri-Asuola, Unzeta y Barraus), dependiendo principalmente de la accesibilidad a las mismas. Así también en Asparrena se han prospectado otras 15 áreas situadas en la parte norte (San Adrián-Kalderondo), alrededores de Araya (Aitza-Marutegi, Allondo-Tocatorre, Los Rojos-Lurgorri, Ferreriaburu) y norte de Ilarduia (Matxingerra-Los Mineros, La Lece-Escabita).

En los indicativos arqueometalurgicos localizados mantienen tres condiciones determinantes respecto a su ubicación:

Alta mineralización de hierro

La cercanía de una zona de alta mineralización de hierro está relacionada con las áreas pertenecientes al Cretácico superior (Albense, Campanense y Cenomanense), donde la presencia de estos óxidos de hierro en superficie es mayor. Esta proliferación de áreas férricas se hace visible en los casos de Pagola, en el límite sur de Aramaio con Legutiano, en Prezalde-Narbaiza a oeste del parque de Urkiola, o en Lurgorri, entre otros. En estas zonas es también común la presencia de roca calcárea, que podía servir como agente reductor, para alcanzar mayor temperatura en el interior del horno de reducción en el momento de transformación del mineral. Esta característica se hace también evidente en los casos de Asparrena como Los Rojos-Lurgorri, también recalado en su toponimia por el color rojizo que presentan, Allondo-Tocatorre, o San Adrián-Kalderondo.

Erreka baten hurbiltasuna

Erreka edo ur emari apaleko ibai baten presentzia betiere egiaztatzen ez bada ere, ia kasu guztietan mea gunetik 20 metroko tartera baino hurbilago izaten da erreka baten, esate baterako Olazar-Olaetan, Otxandiotik gertu (Aramaio), eta Ferreriaburur (Asparrena), baina kasu batzuetan 100 eta baita 200 metroko tartera ere.

Egurrez hornitzeko erraztasuna

Ezinbestekoa zen, nahitaezkoa, landaretza oparoko aldeetan kokatzea, egur asko behar baitzen landare ikatza ekoizteko, landare ikatza behar-beharrezkoa baitzen burdina-mea murrizteko prozesuaren araberako erreka aldian. Hondakin arkeometalurgikoak mendien erdialdera topatu ditugu, eskuarki 550-800 m bitarteko garaieran, baina baita 950 m-ko altueran ere, esate baterako, San Adrian-Kalderondon. Gainera, hondakin hauei leku egiten dieten tokien garaierak eta lur eremu betiere aldapatsuek adierazten digute gisa honetako lekuak nahiago zizutela aldeko haizeak nagusi zirelako eta labeek behar zuten aireztapena zirutatzen zutelako, nahiz eta labe hauek aireztatzeko beste sistema artifizialen bat izan zezaketen, esate baterako, hauspoen bidezko aireztapena.

Hiru baldintzetatik bat eskasa edo urria izaten hasten zenean, ekoizpena ez zen nahikoa errentagarria izango, eta jarduera abandonatu egiten zuten.

Zepadiak dira horren adierazle arruntenak. Badi-tuzte berezitasun batzuk. Neurrien arabera, zepadiak, handi, ertain, txiki eta eskasetan sailkatu ditugu. Azken talde honetara biltzen dira oso sakabanatuta daudenak edo baso bideek edo baso landatzeek kaltetutakoak. Haietatik batzuk isolatuta daude, eta beraz, batzuk zail izan dira neurtzen. Guk uste dugu behin baino berriz erabiliak izan direla edo sakabanatuta izan direla lur eremua berdintzeko xedean, esate baterako, Asparrenako Matxinguerra-Los Minerosen eta La Lece-Escabitan bezala. Zepadi hauek gehienak luzeak dira formaz eta izaera bitarikoa dute, hau da, tipologia eta neurri askotako zepaz osatuta daude.

Zepak dira, alegia ekoizpen egituratik bazterrera gelditutako materialak, burdina-mea burdina bihurtzeko prozesuaren adierazle nagusiak. Honako sailkapen honetara bildu dira: jariakinak (edo *tapped*), porotsuak eta barrukoak, ezaugarri morfologikoen arabera, oxidaziotik etorriak (edo *weathing*), magnetismoa, kolorea, porositatea, inklusioen presentzia edo absentzia, pisua eta heiei leku egiten dieten testuingurua. Zepa jariakinak dira guztietan ugariak, egitura isurkaria dute, magnetikoak dira, kolorez beltzak eta itxura batean, azterketa makroskopikoak eginda, inklusiorik gabeak. Ondotik datoz porotsuak, itxuraz irregularragoak, kolorez beltz-gorrixkak eta inklusio oso txikiekin, zepa hauek labearen barruan gorde baitira. Aurrenekoak, labearen kanpoko aldera botatzen direnean, hautsi egiten dira tenperatura al-

Proximidad a un curso fluvial

Pese a que no en todos los casos se hace evidente la presencia de un arroyo o río de poco caudal, en la mayor parte se hallaba al menos a una distancia de 20 m en el caso de Olazar-Olaeta en las proximidades de Otxandio (Aramaio), o Ferreriaburu (Asparrena) y hasta 100 m o 200 m en otros.

Facilidad de abastecimiento de maderamen

La ubicación en zonas de abundante vegetación para el aprovechamiento de la leña en la producción del carbón vegetal necesario en la combustión durante el proceso de reducción, se convertía en otro elemento imprescindible. Los restos arqueometalúrgicos se han localizado en zonas de media montaña, a una altitud entre 550-800 m y 950 m como caso excepcional en San Adrián-Kalderondo. Además, la altitud a la que se encuentran estos indicios, sumado a la siempre presente pendiente del terreno, sugiere inevitablemente la preferencia de estos lugares por el predominio de vientos favorables para la aireación necesaria de los hornos, acompañada o no de otra aireación artificial, como la que pueden proporcionar los fuelles.

En el momento que una de las tres condiciones comenzaba a escasear, la producción dejaría de ser suficientemente rentable y supondría su abandono.

Los escoriales son el indicativo más común, que cuenta con algunas particularidades. Se han clasificado por sus dimensiones en grandes, medianos, pequeños y escasos. Estos últimos son los que aparecen esparcidos o muy afectados por pistas forestales o reforestaciones. Algunos de ellos de carácter disperso, por lo que en algunos casos ha sido difícil establecer sus medidas y lo que hace sospechar que han sido reutilizados o esparcidos para regularizar el terreno como en los casos de Matxinguerra-Los Mineros o La Lece-Escabita en Asparrena. La mayoría de estos escoriales presentan forma alargada y son de carácter mixto, es decir, que están formados por escorias de distinta tipología y tamaño.

Las escorias, el material de descarte localizado fruto de las estructuras productivas, son el principal indicador del proceso de transformación: del mineral de hierro en hierro metal. Se han clasificado en: coladas (o *tapped*), porosas e internas, según sus características morfológicas, de oxidación (o *weathing*), magnetismo, color, porosidad, presencia o no de inclusiones, peso y contexto en el que se hallan. Los tipos más abundantes son los de las escorias coladas, de estructura fluida, magnéticas, de color negro y aparentemente sin inclusiones tras los análisis macroscópicos, seguidas de las porosas, de aspecto más irregular, color negro-rojizo, y con inclusiones muy pequeñas, ya que estas escorias han permanecido en el interior del horno. Las primeras se caracterizan porque en el momento en el que son expulsa-

dearen ondorioz. Egitura jariakorra ageri dute eta kanpotik oxidatu gabe daude.

Une honetan zepadi hauetatik jasotako laginekin bururatzen ari diren azterketa mineralogiko eta kimikoen emaitzek informazio gehiago eskainiko digute gure herrialdeko burdinaren ekoizpen prozesuaren inguruan.

Konklusioak

Ikerketa honen lehen emaitzen argitara, esan dezagun Aramaio eta Asparrenako udalerrietan egindako aurkikuntzen kopuruak agerian uzten duela burdinaren ekoizpenaren presentzia, ekoizpena apala bazen ere. Lehenengo miaketa kanpaina honen beste alderdi garrantzitsu bat da gisa honetako miaketa arkeometalurgikoetarako metodologia eta erregistro sistema berezia itxuratu izana. Metodologia honekin eta metodologia hau abiarazita bazterreko materialez osatutako aztarnategiak aurkitu ditugu, eta material horixe baliatu dugu egin beharreko azterketak egiteko.

Aurreneko emaitza hauek dira gure herrialdearen ipar-mendebaldeko eta Erdi Aroko burdinaren ekoizpen aurre-hidraulikoari buruzko informazio urria osatzen dutenak. Beraz, lurraldearen esparrua gaitutako duten etorkizuneko azterketetan informazio gehiago jasotzea espero dugu, eta horretarako ekoizpen egituretako eta hauetatik etorritako zepadietako aztarna metalurgikoetan esku-hartze arkeologikoak bururatu beharko dira.

Txosten honetan argitara emandako miaketa lanak ezinezkoak gertatuko ziren aurreneko miaketa kanpaina honetako landa-lanetan zehar zuzeneko parte-hartzea izan duten boluntarioen eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) Estratigrafia eta Paleontologia Sailen eta Mineralogia eta Petrologia Sailaren laguntzarik gabe, azken hauetan bururatzen ari baitira arestian adierazitako azterketa xeheak.

das al exterior del horno, se fragmentan por la diferencia de temperatura. Presentan una estructura fluida y carecen de oxidación en su exterior.

Los resultados de los análisis y los estudios mineralógicos y químicos que actualmente se están realizando sobre las muestras de estos escoriales, nos proporcionarán más información sobre el proceso de producción del hierro en nuestra provincia.

Conclusiones

A la luz de los primeros resultados de esta investigación, se puede concluir que el número de hallazgos en el municipio de Aramaio y Asparrena, indican la presencia de producción de hierro, aunque de dimensiones aún reducidas. Otro de los aspectos importantes de esta primera campaña de prospección es la elaboración de una metodología y un sistema de registro específicos para este tipo de prospección arqueometalúrgica. Con esta metodología y su puesta en práctica se han localizado yacimientos con material de descarte, a través del cual se están llevando a cabo los correspondientes análisis y estudios.

Estos primeros resultados constituyen la escasa información sobre la producción ferrona pre-hidráulica en época medieval en el noroeste de nuestra provincia, por lo que se espera poder continuar en la ampliación de su estudio en futuras prospecciones que amplíen el marco territorial, y con la realización de intervenciones arqueológicas sobre los indicios metalúrgicos de las estructuras productivas y de sus escoriales.

Los trabajos de prospección aquí presentados no habrían sido posibles sin la colaboración de los voluntarios que han participado activamente en las labores de campo durante esta primera campaña de prospección y de los Departamentos de Estratigrafía y Paleontología, y Departamento de Mineralogía y Petrología de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU), donde se están llevando a cabo estos análisis.

M. López de Armentia Iturralde

A.25.3. **A-2622 errepidea. Olabarri (Iruña Oka) eta Subilla Morillas (Erriberagoitia)**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Ismael Andrés S.A.

A.25.3. **Carretera A-2622. Ollabarre (Iruña de Oca) y Subijana-Morillas (Ribera Alta)**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Ismael Andrés S.A.

The discovery of a supposed floor area in «San Pedro de Solaices», Ollabarre, during the work carried out on the A-2622 road, prompted the excavation of this zone. The results indicate that the archaeological material recovered from both the Bronze Age and/or the Early Iron Age came from the dispersion provoked by the agricultural work carried out both here and near «El Riberón». «El Crucero» in Subijana-Morillas was also excavated for the same reason, with similar results. The material recovered here came from the dispersion of «El Robledal» and dates back to the Bronze Age.

Aurrekariak

Arabako Arkeologia Institutuak A-2622 errepidean burura eramandako lur-erazketetako baten profilean ustezko etxola-hondo bat eta harekin zuzeneko lotura zuten zeramikazko zati batzuk azaldu zirela jakinarazi zuen, eta obra horiek nahitaezko proiektu arkeologiko bat aurkeztu gabe abiarazi zirela. Olabarritik (Iruña Oka) Subilla Morillaseraino (Erriberagoitia) doan A-2622 errepide-atala ukitzen dute obra hauek. Eta proiektu arkeologikoa nahitaez aurkeztu beharra zegoen haren bidean ustezko bi eremu arkeologiko daukelako. Haietatik bat Iruña Oka udalerriko 25. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikoa da: «*San Pedro de Solaices*», non zehaztu gabeko kronologiako aurkikuntza egin zen eta Arabako Karta Arkeologikoan 9090. zenbakiko dokumentuan agertzen den; bestea Iruña Oka udalerriko 26. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikoa da: «*Poblado de Llerzas*», kronologikoki Goi Erdi Aroan kokatzen den herri hustua. Bi eremu horiez gainera, obra hauek Olabarriko «*El Riberón*» izeneko aurkikuntza izango zuten eragina, Félix Murgak 1982an eta 1993an era askotako material arkeologikoa bildu zuen aldean, baita «*El Crucero*» eta «*El Robledal*» izeneko eremuetan ere, Subilla Morillasko herriaren hegoaldean, non 2001. urtean Félix Murgak berak zeramikazko zati batzuk eta harrizko tresnak aurkitu zituen..

Horren guztiaren ondorioz, lanen enpresa esleipendunak lanen gaineko jarraipen arkeologikoa egiteko proiektua idaztea eskatu zigun, eta jarraian, hartan azaldutako lan-aldiak lehenbailehen abian jartzeko. Gure lanak, beraz, Arabako Foru Aldundiaren baime-na jaso genuen egun berean abiarazi genituen.

Obrek jada ukitutako aldean ikuskatzea

Hasteko, burura eramandako lur-erazketak gainbegiratu genituen bertatik bertara, lehen aipatutako «*San Pedro de Solaices*» izeneko etxola-hondoaz gainera beste ondare elementuren bat kaltetuta gertatu ote zen ikusteko. «*Solaices*» izeneko aldean

Antecedentes

El aviso por parte del Instituto Alavés de Arqueología de la localización de un supuesto fondo de cabaña y algunos fragmentos cerámicos relacionados con éste en el perfil de uno de los desmontes realizados en la carretera A-2622, puso sobre aviso del inicio de las obras sin la obligada presentación de un proyecto arqueológico. El tramo de la carretera A-2622 afectado por las obras era el que va desde Ollabarre (Iruña de Oca) a Subijana-Morillas (Ribera Alta). La obligación de presentar un proyecto arqueológico se debía a la existencia en su trazado de dos zonas de presunción arqueológica. Una de ellas era la Z.P.A. nº 25 del municipio de Iruña de Oca: «*San Pedro de Solaices*», donde reprodujo el hallazgo, de cronología indeterminada y que en la Carta Arqueológica de Álava aparece en el documento nº 9090, y la Z.P.A. nº 26: del municipio de Iruña de Oca: «*Poblado de Llerzas*», despoblado atribuido cronológicamente a la Alta Edad Media. Junto a los anteriores, también se vería afectado el término de «*El Riberón*», en Ollabarre, donde Félix Murga recogió diverso material arqueológico en los años 1982 y 1993, así como los términos de «*El Crucero*» y «*El Robledal*» al sur de Subijana-Morillas al haber recogido, también Félix Murga, diversos fragmentos cerámicos y materiales líticos en el año 2001.

A consecuencia de este hecho, la empresa adjudicataria de las obras nos encargó la redacción del proyecto de seguimiento arqueológico de las mismas y, seguidamente, la puesta en práctica de las fases de trabajo expuestas en él, que comenzaron a desarrollarse el mismo día en que se obtuvo el permiso por parte de la Diputación Foral de Álava.

Revisión de las zonas ya afectadas por las obras

Los primeros trabajos consistieron en la revisión de los desmontes ya realizados por si pudieran haber sido afectados otros elementos de valor patrimonial además del ya citado fondo de cabaña de «*San Pedro de Solaices*». Entre ellos se volvió a revisar toda la

obrek ukitutako eremu osoa ikuskatu genuen, baina Arabako Arkeologia Museoak jada salatutakoaz aparte ez genuen beste inolako kalterik hauteman. Aitzitik, obrek ukitutako bide osoa miatzeko lanetan, batez ere aurreko paragrafoan zehaztutako aldeak xehe-xehe miatzeko lanetan, honako hau jakinarazi genuen: «*El Riberón*» izeneko lekuari dagokionez, non Félix Murgak 1982. urtean materialak bildu zituen, ia guztiz desagertua zen, baina 1993. urtean egindako aurkikuntzei leku egiten zien tokiak arrisku orotatik jarraitzen zuen, obrek ukitu beharreko eremuetatik urrutira geratzen baitzen. Hala eta guztiz ere, obren ondorioz sortutako profila arakatuta tornuan landutako zeramikazko zati txiki bi aurkitu genituen, beiratu gabea bata eta zuriz beiratu bestea, biak oso higituta.

Subilla Morillasko (Erriberagoitia) «*El Crucero*» izeneko lekuan, berriz, aurkikuntza garrantzitsua egin genuen Pobesera doan errepidetik hurbil. Obren xede zen bidearen 6+500 kilometro-puntuan hasiera batean etxola-hondotzat hartu genuen egitura identifikatu genuen, izan ere, hondeatzeko makinek legar hobi naturaletan sortutako profilean ebaki kurbatu bat geratu zen agerian, buztin gorriek betea, landare-lurren hondakinen azpian. Puntu honetan eskuz egindako zeramika zati batzuk aurkitu eta jaso genituen. Félix Murgak aurkitutako materialei leku egiten zien tokietako batekin bat dator honakoa, eta gainera «*El Robledal*» izeneko eremutik gertu dago. Hortaz, hura induskatzeko gomendioa egiten genuen txostena idatzi genuen.

Indusketa arkeologikoa «*El Crucero*» eremuan

Batez beste 9,5 metro luze eta 2,5 metro zabal zen espazio bat mugatu eta gero, gainazaleko lurrezko geruza, geruza lodia, gune batzuetan metro beteko sakonera gainditzen ere zuena, altxatzen hasi ginen hondeatzeko makina baten laguntzarekin, desjabetu gabeko alderaino iritsi gabe. Landare-lurraren azpian geruza marroi oso iluna geratu zen agerian, ehunduraz buztintsua eta oso trinkoa. Geruza honetan eskuz egindako zeramikazko zati ugari azaldu ziren, hori bai, oso zati txikiak eta oso gaizki kontserbatuak, kronologikoki Brontze Aroan kokatu beharrekoak. Maila hau, oinean bederen profilean hautematen zen ebakiaren mugak handitzen zituena, batez beste 5 cm lodi zen hegoaldeko muturrean eta 17 cm lodi iparraldeko muturrean.

Guztiz altxatu eta gero, legar hobiko ebaki kurbatua betetzen zuen depositua azaldu zen, ehunduraz buztintsua, oso plastikoa eta homogenea, oso trinkoa. Gehenez ere 70 cm lodi zen depositua, baina guztiz antzua zen arkeologiaren ikuspuntutik. Ez zuen zeramikazko zatirik edo bestelako material arkeologikorik ezkututzen, ez zen ikatz zatitxo bat bera ere agertu, ez eta paretaren baten presentzia iradoki lezakeen adobe edo buztin puskarik bat ere.

zona afectada en el término de «*Solaices*», no hallándose más afecciones que la ya denunciada por el Instituto Alavés de Arqueología. Pero durante la prospección de todo el trazado de las obras, haciendo un especial hincapié en las zonas especificadas en el apartado anterior, se dio cuenta de lo siguiente: respecto a «*El Riberón*», la zona en la que Félix Murga recogió material en el año 1982 casi había desaparecido por completo mientras que la de los hallazgos de 1993 se comprobó que no corría peligro al estar alejada de los terrenos afectados por las obras. De todos modos, tras la revisión del perfil resultante, se encontraron dos pequeños fragmentos de cerámica a torno muy rodados, uno sin vidriar y otro vidriado en blanco. °

Fue, sin embargo, en el término de «*El Crucero*», en Subijana-Morillas (Ribera Alta), ya junto a la carretera en dirección a Pobes, donde se realizó un hallazgo significativo. En el pk. 6+500 del trazado de las obras se localizó lo que, en principio se identificó como un fondo de cabaña, ya que en el perfil producido por las excavadoras en las graveras naturales se advertía un corte curvo colmatado por arcillas rojizas bajo los restos de la tierra vegetal. En este punto se recogieron diversos fragmentos cerámicos fabricados a mano. Coincide con uno de los puntos ya mencionados de recogida de material por parte de Félix Murga y, además, está cerca de «*El Robledal*». Esto dio lugar a la elaboración de un informe en el que se recomendaba su excavación.

Excavación arqueológica en «*El Crucero*»

Tras delimitar un espacio de 9,5 m de largo por 2,5 m de anchura media se procedió a retirar el nivel de tierra superficial, muy potente, superando incluso el metro de profundidad en algunos puntos, con ayuda de una máquina excavadora, evitando extendernos en la zona sin expropiar. Se localizó así, bajo la tierra vegetal, un estrato marrón muy oscuro, de textura arcillosa y muy compactado, en el que aparecieron numerosos fragmentos cerámicos elaborados a mano, aunque eso sí, de pequeño tamaño y muy mal conservados, cronológicamente pertenecientes a la Edad de Bronce. Este nivel, que en planta sobrepasaba los límites del corte que se advertía en el perfil, tenía una potencia media de 5 cm en el extremo sur y 17 cm en el extremo norte.

Retirado en su totalidad, apareció el depósito de colmatación del corte curvo de las graveras, de textura arcillosa, muy plástica y homogénea, de gran compactación. Con una profundidad máxima de 70 cm, era absolutamente estéril desde el punto de vista arqueológico. No sólo no contenía fragmentos cerámicos o cualquier otro tipo de material arqueológico, sino que no se halló el más mínimo rastro de carbonos o trozos de adobe o arcilla que indicara la existencia de algún tipo de mantenido.

Ebakia bera guztiz naturala zen, itxuraz aspaldi idortutako erreka baten ibilgua izana, lur eremua nabarmen makurtzen baita ondoko Baia ibairantz. Haren sekzioak, gainera, legar hobian induskatutako kurba bat eratzten zuen, gutxi gora-behera 7,40 metroko zabalerarekin.

Indusketa arkeologikoa «San Pedro de Solaices» eremuan

Aurreko eremuan bezala, hasteko goiko lurrezko geruza altxatu genuen hondeatzeko makina baten laguntzaz. Geruza hau laborantzari emandako lurrez osatua zen, eta gune batzuetan 70 cm baino lodiagoa zen. Tornuan landutako zeramikazko zati txiki batzuk zituen, zalantzarik gabe Erdi Arokoak, baita eskuz landutako zeramika zati txiki eta oso higatu batzuk ere, seguru asko Brontze Arokoak. Laborantza lurren azpiko ebakian hautematen zen kolore beltzeko orbana- ren hasiera puntutik abiatuta 12,50 metro luze eta 4 metro zabal zen zerrenda batean jardun genuen, desjabetutako eremuaren mugaraino. Agerian utzitako deposituak inolaz ere segida zuen sortutako ertzaren azpitik, eta guztiz estaltzen zuen harri naturalaren presentzia iradokitzen zuen *kareharria*, ekialdetik mendebalderantz 1,50 metrotan makurtzen zena, oso modu irregularrean baina.

Kolore beltzeko geruza zen, oso-oso trinkoa, buztintsua eta oso homoginoa. Eskuz egindako zeramikazko zati txiki batzuk bereizi genituen geruza honetan, baina ez ikatz hondakinik ez eta jatorri antropikoko beste elementurik bat ere. Ia 80 cm-ko lodi zen geruza hau.

Beste obren gaineko jarraipen arkeologikoa

Lur-erazketak egiteko zeuden errepidearen beste ataletan obren gaineko kontrol arkeologikoa egin genuen. Xede horretan, hainbat aldiz izan ginen lanak bertatik bertara ikuskatzen, baina ez genuen aurkikuntza aipagarririk egin.

Esan beharra dago obrek Iruña Okako 26. zenbakiko Ustezko Eremu Arkeologikoan, «*Poblado de Llerzas*» izenekoan, Olibarrin, ez zutela inolako eraginik izan elementu arkeologikoetan. Besterik gabe, lur eremua landareez garbitu eta berriro ere legarrez bete zuten makineriaren eta kamioien joan-etorrietarako bide osagarri bat eratzeko, bide berria hegoalderago antolatzen baita. Laborantzari emandako lur hauetan 30 cm-ko sakonera mailara iritsi ginen.

Konklusioak

A-2622 errepidean bururatutako obren gaineko kontrol arkeologikoko lan hauek aitzat harturik, esan dezagun ez dela ondarean, ez eta ondare arkeologikoan ere, kalte aipagarririk eragin. Izan ere, ustez protohistoriako etxola-hondo bi agertu ziren lekuan in-

El propio corte resultó ser de origen natural, aparentemente algún antiguo cauce seco, ya que el terreno buzaba fuertemente hacia el cercano Río Bayas y su sección formaba una curva excavada en las gravas de unos 7,40 m de anchura.

Excavación arqueológica en «San Pedro de Solaices»

Como en el caso anterior, con ayuda de una máquina excavadora se procedió en primer lugar a retirar la capa de tierra superior, compuesta de tierra de cultivo con más de 70 cm de potencia en algunos puntos. Contenía algunos pequeños fragmentos de cerámica a torno de cronología claramente medieval así como algunos otros, también muy pequeños y rodados, de cerámica a mano, seguramente de la Edad del Bronce. Nos extendimos por una zona de 12,50 m de largo desde el inicio de la mancha de color negro que se advertía en el corte del terreno bajo la tierra de cultivo y 4 m de anchura, hasta el límite de la zona expropiada. El depósito puesto al descubierto, continuaba de todos modos bajo el cantil resultante y cubría en toda su extensión a la *cayuela* que anunciaba la presencia de la roca natural, que buzaba de este a oeste hasta en 1,50 m, pero de forma muy irregular.

Se trataba de un estrato de color negro extremadamente compactado, arcilloso y muy homogéneo, que contenía algunos pequeños fragmentos cerámicos elaborados a mano, pero no así restos de carbones u otros elementos de origen antrópico. Su potencia llegó a alcanzar casi los 80 cm.

Seguimiento arqueológico del resto de las obras

En el resto del trazado de la carretera en el que quedaban desmontes pendientes se llevó a cabo un control arqueológico de las obras mediante visitas sistemáticas, no realizándose hallazgos dignos de mención.

Sí debemos mencionar, no obstante, que cuando las obras alcanzaron la Z.P.A. nº 26 de Iruña de Oca: «*Poblado de Llerzas*», en Ollábarre, no se vieron afectados elementos arqueológicos. Los trabajos se limitaron al desbroce del terreno para volver a rellenar con grava y habilitar así un camino auxiliar para la maquinaria y los camiones, ya que el trazado de la nueva calzada discurre más al sur. La profundidad alcanzada fue de 30 cm en la tierra de cultivo.

Conclusiones

De los trabajos de seguimiento arqueológico de las obras de la carretera A-2622 podemos concluir que no se han producido daños de consideración en el patrimonio arqueológico y/o patrimonial. De hecho en los dos casos en que se ha visto la necesidad de llevar a

dusketa arkeologiko bat egin behar izan genuen, baina lanak bururatuta egitura haiek etxola-hondoak ez zirela ikusi genuen argi eta garbi.

«*El crucero*» eremuaren kasuan, itxura batean Baia ibaiarekin bat egingo zuen aspaldiko erreka baten ibilgua dela ematen du; egun idortuta dago, luraren berezko sakonune honetan pausatu diren buztinez beteta. Izan ere, buztin gorriak estaltzen zituen lurrezko geruzarik jaso genituen zeramikazko zatiak, itxura guztien arabera puntu zehatz honetan egoitza alde baten presentzia baino laborantza lanek eta luraren berezko lerradurak nahasitako egoera iradokitzen duena.

«*San Pedro de Solaices*» eremuari dagokionez, goratze lan bitatik etorritako eta elkarren gainean egoikitutako geruza bi bereizten dira, bata errepidearen iparraldean, «*Solaices*», eta bestea hegoaldean, «*El Riberón*». Egungo obrei dagozkien lur-erazketek ebaki ondoren, agerian geratu den sekzioan, oso ondo nabaritzen da kolorearen aldea harriaren deskonposizioetik etorritako marga oso argien gainean. Eskuz egindako zeramikazko zatiak, buztin ilunez osatutako geruzaren behe aldean bereizitakoak, «*El Riberón*» izeneko aldetik etorriak izango dira, Félix Murgak 1982. urtean hainbat aurkikuntza egin zituen lekutik. Laborantzari emandako goiko geruzan aurkitutako Erdi Aroko zeramikazko zatiak «*San Pedro de Solaices*» eremuko materialen sakabanaketatik iritsiak ziren.

Nola azken horretan hala «*El Crucero*» izeneko eremuan ez genuen ikatz edo errautsen arrasto bat ere topatu, eta beraz, baztertu egiten dugu haietan sutegiren bat izateko aukera. Era berean, buztinezko pareta atalen hondakinen bat edo harrizko zoladura motaren bat agertu ez izanak eramaten gaitu etxola-hondo baten aurrean egon gaitezkeelako aukera guztiz baztertzera. Gainera, deposituetan eta geruza naturalean ez dugu induskatutako zulorik identifikatu, ez paldoei leku egiteko zulorik ez eta bestelakorik.

cabo una excavación arqueológica ante la posibilidad de haber hallado sendos fondos de cabaña protohistóricos, se ha llegado a la conclusión de que no eran tales.

En el caso de «*El crucero*», parece tratarse de un antiguo cauce que desembocaba en el curso del Río Bayas, seco y colmatado de arcillas que se han depositado en esta depresión natural del terreno. De hecho, los fragmentos cerámicos han sido recogidos en el nivel de tierra que cubría a las arcillas rojizas y parecen estar más en relación con su dispersión por las labores agrícolas y por deslizamientos naturales del terreno que por la existencia de un lugar de habitación en ese punto concreto.

En cuanto a «*San Pedro de Solaices*», nos encontramos ante la superposición de dos estratos procedentes de sendas elevaciones, una al norte de la carretera, «*Solaices*», y la otra al sur, «*El Riberón*», que al ser cortados por los desmontes de las obras actuales han dejado una sección en la que se refleja su diferencia de color sobre las margas muy claras de descomposición de la roca. Los fragmentos cerámicos fabricados a mano y recogidos de la excavación del estrato inferior de arcillas oscuras estarían relacionados con la zona de «*El Riberón*» donde ya recogió material Félix Murga en el año 1982. Los fragmentos cerámicos de origen medieval recuperado de la tierra de cultivo superior provendrían de la dispersión del material del propio «*San Pedro de Solaices*».

Tanto en este caso como en el de «*El Crucero*» no se ha hallado ni el más mínimo rastro de carbones o cenizas, con lo que se descarta la existencia de hogares. Así mismo, el que no hayan aparecido restos de manteados de arcilla o algún tipo de encachado descarta la posibilidad de que nos encontremos antes fondos de cabaña. A esto se suma el que no aparezcan excavados en los depósitos o en el estrato natural agujeros de poste u otro tipo de hoyos y/o cubetas.

F.J. Ajamil Baños

A.25.4. **Karkamuko haize-erroten parkea (Añana, Lantarón, Erriberagoitia, Gaubea)**

Zuzendaritza: Maite Pérez Gil
Finantzazioa: Crisol Corporación
Energética

A.25.4. **Parque eólico de Arkamo (Añana, Lantarón, Ribera Alta, Valdegovía)**

Dirección: Maite Pérez Gil
Financiación: Crisol Corporación
Energética

Archaeological intervention which documented the disturbance of various existing sites, prompting the proposal of preventative measures to avoid any further destruction.

Lantarón, Gaubea, Añana eta Erriberagoitiko udal-errietako lurretan kokatutako Karkamuko haize-erroten parkearen eta hari atxikiriko 132 KW-ko argindar

Con motivo de la construcción del parque eólico Arkamo y la línea eléctrica asociada a 132 kV, ubicados en los municipios de Lantarón, Valdegovía, Añana

linearen eraikuntza tarteko, 2009. urteko azaroan zehar azterketa arkeologiko bat bururatu genuen. Hala, argindar linearako eta haize-erroten parkeari begira proiektaturiko bidearen gainazaleko miaketa arkeologiko sakona egin genuen.

Inventario Arkeologikoa kontsultatuta, Asentamiento de Canalejas eta Pieza de la Choza izeneko aztarnategietan zuzeneko eragina izango zutela ikusi genuen. Hala eta guztiz ere, esan dezagun miaketa lanetan zehar ez genuela adierazitako aztarnategien presentzia berretsi zezakeen material arkeologiko bat bera ere dokumentatu. Bestalde, bi elementu etnografiko (ehizarako postu bi) dokumentatu genituen, eta horietatik bat kalte ertainak jasan dituela esan behar dugu.

Landa-lanetan lortutako emaitzak kontuan izanik, prebentziozko neurri batzuk hartzeko proposamena egin genuen kaltetutako aztarnategiei begira: 50 m-ko perimetroko babesgune arkeologiko bat ipintzea, zerrrendara bildutako elementuak balizen bidez bereiztea eta mugetako euskarrien eraikuntzaren gaineko jarraipen xehea egitea. Era berean, obrak bururatzeko ziren bitartean jarraipen eta kontrol arkeologikoak bertatik bertara egiteko gomendioa egin genuen.

y Ribera Alta, se realizó en noviembre de 2009 un estudio arqueológico que comprendía la prospección arqueológica superficial intensiva del trazado proyectado para la línea eléctrica y el parque eólico.

En la consulta del Inventario Arqueológico se observó una afección directa a los yacimientos Asentamiento de Canalejas y Pieza de la Choza. A pesar de esta afección, es necesario indicar que durante los trabajos de prospección no se documentó en superficie ningún fragmento de material arqueológico que pudiera corroborar la existencia de dichos yacimientos. Por otro lado, se documentaron dos elementos etnográficos (dos puestos de caza), uno de los cuales sufre una afección moderada.

Debido a los resultados obtenidos en el trabajo de campo, se propusieron como medidas preventivas para los yacimientos afectados el establecimiento de un perímetro de protección arqueológica de 50 m, el balizamiento de los elementos inventariados, así como un seguimiento intensivo de la construcción de los apoyos limítrofes. Así mismo, se recomendó el control y seguimiento arqueológico durante la realización de las obras.

M. Pérez Gil

A.25.5. **Arabako Lautada. Miaketak**

Zuzendaritza: Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez
Finantzazioa: Berak finantzatua

A.25.5. **Llanada Alavesa. Prospecciones**

Dirección: Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez
Financiación: Propia

Review of the archaeological sites located in the Llanada Alavesa area, particularly in the municipality of Vitoria-Gasteiz.

Aurreko urteetan gerok aurkitutako aztarnategi arkeologikoak (Regadío Arrato eta Regadío Noryste) aztertzen hasteko xedean, finkamendu hauetako batzuen gainazala miatu genuen haien luze-zabalera eta ezaugarriak zehazteko.

Aztertutako aztarna hauen esparru geografikoa Gasteizko udal barrutira biltzen da bere osotasunean. Era bereak geuk ez baizik eta beste batzuek aurkitutako finkamendu batzuk miatu genituen Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusten hasi aurreko Azterketara jaso ahal izateko. Esan beharra dago geu ere talde horretako partaide garela.

Honatx aurrean miatutako aztarnategien zerrenda:

— Bidegutxi Oreitian, erromatarren garaikoa

Con la finalidad de proceder al estudio de diferentes yacimientos arqueológicos descubiertos en actuaciones llevadas a cabo en años anteriores por nosotros (Regadío Arrato y Regadío Noryste), se han realizado prospecciones superficiales en algunos de estos asentamientos, especialmente para determinar la extensión y características geomorfológicas de los mismos.

El marco geográfico en el que se han situado los yacimientos revisados corresponde en su totalidad al municipio de Vitoria-Gasteiz, donde también se han prospectado otros asentamientos que no fueron descubiertos por nosotros, con la finalidad de incluirlos en el Estudio previo a la revisión del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, equipo del que hemos formado parte.

La relación de los yacimientos revisados durante el presente año es la siguiente:

— Bidegutxi en Oreitia, de época romana

- Bidezabal Oreitian, Erdi Arokoa
- La Larra (ARRA-1) Arangizen, erromatarren garaikoa
- El Prado/Labiturri (ARRA-5), Mendozan/ Uribarri Dibiñan, Brontze arokoa
- Bazalandea (ARRA-10) Gereñan, erromatarren garaikoa
- Arlaza (ARRA-19) Mendigurenen, erromatarren garaikoa
- Monte Abajo (ARRA-34) Estarroan, erromatarren garaikoa
- Artzua Lasarten, erromatarren garaikoa. José Luis Sáez Angulok aurkitu zuen.

Era berean, Astorgatik Bordelera iristen zen erromatarren garaiko bidearen inguruan burura eramaten ari garen azterketaren baitan, komunikabide honen eraginpeko eremu bat, Iruña/Veleia (Iruña Oka) eta Dulantzi artekoa, miatu genuen. Oso datu interesgarriak bildu genituen bide haren ibilbidea hobezagutzeko.

- Bidezabal en Oreitia, de la etapa medieval
- La Larra (ARRA-1) en Aranguiz, de época romana
- El Prado/Labiturri (ARRA-5), en Mendoza/ Ullibarri Viña, de la Edad del Bronce
- Bazalandea (ARRA-10) en Guereña, de época romana
- Arlaza (ARRA-19) en Mendiguren, de época romana
- Monte Abajo (ARRA-34) en Estarrona, de época romana
- Arzua en Lasarte, de época romana. Fue descubierto por José Luis Sáez Angulo.

Igualmente, en el marco del estudio que estamos llevando a cabo sobre la calzada romana de Astorga a Burdeos, se ha prospectado la zona de influencia de esta vía de comunicación entre Iruña/Veleia (Iruña de Oca) y Alegría-Dulantzi, con resultados muy satisfactorios para el conocimiento de su trazado.

P. Sáenz de Urturi Rodríguez

B. BIZKAIA

B.1. ABADIÑO

B.1.1. **Bolinkoba**

II. kanpaina
Zuzendaritza: María José Iriarte
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia
eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza
Ministerioa

B.1.1. **Bolinkoba**

II Campaña
Dirección: María José Iriarte
Financiación: Diputación Foral de
Bizkaia y Ministerio de Ciencia,
Tecnología e Innovación

Once the cave had been cleaned, and the majority of out-of-context sediments removed, a two-metre-squared sondage was carried out. Despite having dug down to a depth of around one metre, with negative archaeological results for this primary position, the bedrock was not reached.

2008. urtean hasitako planak, Bolinkobari halako balioa emateko planak, leizearen beraren azterketatik, hormen azterketatik eta kontserbatutako sedimentuzko betegarri mehearen azterketatik, lortu daitekeen informazio guztia bere testuinguruan berreskuratzea du xede. Horretarako berriro ere aztertuko genituen urte hartan bildutako material arkeologikoak. Aztarnategi honetan lehendik bururatutako ekintzen benetako eragina argitu eta gero, geratzen den lekukoaren zati bat aztertuko dugu guztiz eguneratuta dagoen metodologiaren arabera (ingurumenaren inguruko era guztietako azterketa analitikoak, aurkitutako materialen datazioak eta azterketa arkeometrikoak).

2009. urteko kanpainara biltzen da aurreneko egitekoea. Ondoko Atxarteko harrobietako urteetako jardunak leizearen itxura aldatu duenez, sabaian ur kopuru handiari bide egiten diten arrakalak ireki direnez, ura biltzeko eta kanalizatzeko aldi baterako egitura bat eraiki dugu. Bolinkobako zorua saneatu eta ondoren berriro ere garbitu ostean, bi metro koadroko zundaketa bat ireki dugu lekuko estratigrafiko nagusiaren ondoan. Zundaketaren helburua, bikoitza zen. Batetik, Aranzadik eta Barandiaranek orain dela ia laurogei urte dokumentatutakoen azpian beste maila arkeologikorik ba ote zegoen ala ez egiaztatzea bila genuen; bestetik, ahalik eta osoena izango zen ebaki estratigrafikoa bereizi nahi genuen, hartatik azterketa georkeologikoak, paleoambientalak eta kronometrikoak egiteko laginak atera ahal izateko. Zundaketa honetan gutxi gora-behera metro bete sakondu dugu, baina ez dugu giza okupazioaren adierazgarri litzatekeen mailarik topatu.

El plan de puesta en valor de Bolinkoba iniciado en 2008 pretende recuperar cuanta información contextualizadora pueda obtenerse del análisis de la propia cavidad, de sus paredes y del escaso relleno sedimentario conservado, revisando de nuevo los materiales arqueológicos de aquella excavación. Una vez dilucidado el impacto real de todas las anteriores actuaciones sobre el yacimiento, se examinará con una óptica metodológica actualizada (todo tipo de analíticas medioambientales, dataciones y estudio arqueométrico de los materiales obtenidos) una porción del testigo restante.

La campaña 2009 enlaza directamente con la primera actuación. Como quiera que los años de actividad de las vecinas canteras de Atxarte han cambiado la configuración de la cueva, abriendo hendiduras en su techo por las que se cuela gran cantidad de agua, hemos construido una estructura temporal de recogida y canalización de la misma. Una vez saneado el suelo de Bolinkoba y vuelto a limpiar, hemos abierto un sondeo de dos metros cuadrados en una zona vecina al principal testigo estratigráfico. El objetivo es doble. Por un lado, comprobar si existen o no niveles arqueológicos por debajo de los documentados por Aranzadi y Barandiarán hace casi ochenta años; por otro, ir perfilando un corte estratigráfico, tan completo como sea posible, para acometer sobre el mismo el conjunto de muestreos georkeológicos, paleoambientales y cronométricos del yacimiento. Hemos profundizado aproximadamente un metro en este sondeo, sin encontrar nuevos niveles de ocupación humana.

Bestalde, aspaldiko indusketa lanetatik sortutako zabortegiko hiru puntuan zundaketa batzuk egin genituen ausazko laginketen bidez. xx. mende hasierako landa-lanetan baliatzen zituzten metodoak ez ziren egungoak bezain sistematikoak, batez ere sedimentuak bahetzeko lanei bagagozkie. Aspaldiko indusketa lanetan berreskuratutako tresna eta fauna hondakinak berraztertu dituzten lanei azpimarratu egiten dute Bolinkoban eskura dauden bildumetan horrek eragin duen joera. Guk, ordea, ausazko laginketetatik abiatuta horiek kuantifikatzeko ahaleginak egingo ditugu. Burura eramandako aurreneko lanen aurreneko emaitzen arabera harrizko tresnak (batez ere euskarri txikiak) urriagoak direla ematen du, baina asko direla faunaren hondakinak.

Por otro lado, mediante muestreos ciegos hemos sondeado tres puntos aleatorios de la escombrera de la excavación antigua. Los métodos de trabajo de campo durante el inicio del siglo xx no eran tan sistemáticos como los actuales, sobre todo en lo referido al tamizado del sedimento. Diversas revisiones de la industria y la fauna de la excavación antigua hacen hincapié en el sesgo que esto ha provocado en las colecciones disponibles de Bolinkoba, que nos proponemos cuantificar a partir de estos muestreos aleatorios. Los primeros efectuados apuntan hacia un sesgo menor para la industria lítica (referido sobre todo a los soportes de pequeña talla), pero considerable para los restos de fauna.

M.J. Iriarte

B.2. AMOREBIETA-ETXANO

B.2.1. **San Lorenzoko nekropolia (Montorra)**

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantzazioa: Amorebieta ABEE

B.2.1. **Necrópolis de San Lorenzo (Montorra)**

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: UTE Amorebieta

The construction work of the High Speed Train around San Lorenzo Chapel in the Montorra neighbourhood of Amorebieta-Etxano prompted an archaeological excavation in an open area. The excavation revealed part of a medieval cemetery. The graves were simple pits dug into the ground, reinforced in many cases with sandstone slabs at the foot and head. The covers that remain almost always consisted of two sandstone slabs. None of the graves contained human bone remains, probably because of the acidity of the soil in this location.

2009ko maiatzetik abuztuaren erdialdera arte ondoz ondo etorritako hiru alditan bururatu genuen San Lorenzo basilizaren inguruko jarduera arkeologikoa. Aldi bakoitzak bere helburuak eta lan egiteko prozedurak biltzen zituen.

Baselizari eta inguruari begira ondare arkeologikoa kudeatzeko tresna administrazioetan ez zen inolako babes mailarik aurreikusten. Eraikinaren izenak iradokitzen duen antzintasuna alde batera uzten badugu, haren arkitekturak ez gaitu mende barrokoaren aurreko garaietara eramaten, gehienez ere berpizkundearen garaietara baino ez. Iturri historiografiko klasikoek ere, esate baterako Iturriza y Zabalaren obrak, ez zuten eraikuntzaren edo inguruaren gaineko berririk eskaintzen. Hala eta guztiz ere, toki honetan orain arte hauteman gabeko ondare arkeologikoaren aurreko prebentziozko neurri gisa, Euskadiko Burdinbide Sare Berriko Amorebieta-Etxano/Amorebieta Adarra eraikitzekeko proiektuak gomendatzen zuen eraikinaren inguruetan zundaketak egitea eta lur mugimenduen gaineko kontrol lanak egitea.

La actuación arqueológica en el entorno de la ermita de San Lorenzo se desarrolló en tres etapas sucesivas, desde mayo hasta mediados de agosto de 2009. Cada una de las fases con objetivos y procedimientos de trabajo diferenciados.

La ermita y su entorno no contaban con ningún tipo de protección en los instrumentos administrativos de gestión del patrimonio arqueológico. Salvo la antigüedad que pudiera reclamarse para la advocación del edificio, nada en su arquitectura remite a tiempos anteriores a los siglos barrocos, o como mucho renacentistas. Tampoco las fuentes historiográficas clásicas, como pudiera ser la obra de Iturriza y Zabala, aportaban noticias para la construcción o el entorno. No obstante, y como medida preventiva para el patrimonio arqueológico no sospechado del enclave, el Proyecto de Ramal Amorebieta-Etxano/Amorebieta de la Nueva Red Ferroviaria del País Vasco recomendaba efectuar sondeos mecánicos y control de movimiento de tierra en las inmediaciones del edificio.

Jarduera arkeologikoaren aldiak, helburuak eta prozedurak

Ondo bereizitako hiru alditan garatu genuen programa arkeologikoa. Lehenengo aldirian San Lorenzo aldean hondakin arkeologikoak ba ote ziren ala ez egiaztatzea bila genuen. Xede horretan bost zundaketa egiteko erabakia hartu genuen, horietatik lau bitarteko mekanikoez lagundurik eta bosgarrena, eraikinetik gertuena, eskuz irekia. Zundaketa haietatik bik emaitza positiboak eskaini zituzten, hareharrizko lauza batzuk geratu baitziren agerian ondo lerrokatuta, horizontalean ipinita.

Bigarren aldirian, oso-osorik eta soilik eskuz garatuan, obrak ukitu beharreko azaleraren baitako balio arkeologikoko eremua zehatz-mehatz mugatzea bila genuen. Gainera, aurreko aldirian dokumentatutako aztarnen hilobi izaera berresteko helburua bete genuen, eta tokiko estratigrafia hobeto ezagutzeko aukera izan genuen.

Hirugarren eta azkeneko aldirian, era berean soilik eskuz garatuan, zenduei lur emateko nekropoli bati atxikiriko lur eremuaren gainazalean induskatu genuen.

Emaitzen laburpena

Toki honetako estratigrafia antropikoa bi mailatan egituratzen da kronologiaren ikuspuntutik, eta leku batzuetan goikoak nabarmen nahasten du behekoa.

Tokiko aro modernoko okupazioaren isla dira luzeran egindako bi ebaki multzo (hego-ekialdetik ipar-mendebaldera eta ekialdetik mendebaldera), zorupean bestelako eragina izan dutenak. Multzo garrantzitsuenak, bertara biltzen baitira erreten gehienak, handia baita hartzen duten guztizko azalera eta handia baita haietako batzuen sakonera maila geruza naturalak horretarako bidea errazten duelako, induskatutako eremuaren parte handi bat hartzen du. Oraingo zer funtzio zehatz betetzeko xedean eraiki zuten ez dakigun arren, guk uste dugu euri aldirian goiko aldeetatik iristen zen ura topografiaren beheko aldera bideratzeko xedean irekitako erreten sare bat dela. Erreten hauen norabideak eta haietako batzuek egungo San Lorenzo eraikinarekiko duten kokalekuak agian jariatze ur horiek tenpluaren hormetan eragiten zituzten kalteetatik babesteko prozesuak islatzen dituzte, agian. Hala balitz, egungo basiliza eraiki zuten une kronologikoaren identifikazioak aukera emango liguke erreten horiek eraiki zituzten datara hurbiltzeko. Nolanahi ere den, Erdi Aro osteko egiturak direla aurreratu dezakegu. Hasteko, eremua drainatzeko erreten hauek ordurako erabiltzen ez zuten Erdi Aroko hilerri alde baten gainean ireki zituztelako. Bigarrenik, egungo San Lorenzo eraikinean ez delako Erdi Aroko garai haiek berezko zuten arkitektura moldearen arrastorik bat ere identifikatu, bai ordea geroagoko mendeetan nagusi izan ziren formak eta moduak.

Fases, objetivos y procedimientos de actuación arqueológica

El programa arqueológico se acometió en tres fases diferenciadas. La primera de ellas tuvo como objetivo determinar la presencia o ausencia de restos arqueológicos en el paraje de San Lorenzo. Para dar cumplimiento a tal fin se estimó la realización de cinco sondeos, cuatro ejecutados por medios mecánicos y el quinto, el más inmediato al edificio, por medios manuales. Dos de los sondeos dieron resultados positivos al mostrar algunas losas areniscas en ordenación alineada y con disposición horizontal.

La segunda fase, acometida de manera íntegra con procedimientos manuales, persiguió la delimitación exacta del área con valor arqueológico dentro de la superficie de afección por obra. Se cumplió además el objetivo de confirmar el carácter sepulcral de las evidencias documentadas en la fase previa y se logró un mejor conocimiento de la estratigrafía del enclave.

La tercera y última fase, también lograda en su integridad por medios manuales, supuso la excavación en área abierta de la superficie de terreno adscrito a una necrópolis de inhumación.

Síntesis de resultados

La estratigrafía antrópica del enclave se estructura en dos niveles diferenciados en lo cronológico, con profunda alteración, en algunos casos, del superior sobre el subyacente.

Identifican la ocupación más moderna del emplazamiento dos conjuntos de cortes longitudinales (sureste-noroeste y este-oeste), con distinta incidencia sobre el subsuelo. El grupo más relevante, por el número de zanjas que se le asocian, por la superficie total afectada y por la anchura y profundidad de algunos de ellos, más acusada donde el sustrato natural lo favorece, alcanza a cubrir buena parte del área excavada. Aunque se desconoce por el momento la función precisa con la que fueron abiertos, se interpretan como una red de canales destinados a guiar las aguas de los periodos de lluvia desde las zonas altas a las inferiores de la topografía. La dirección de los canales y la posición que guardan algunos de ellos en relación con la localización del actual edificio de San Lorenzo, tal vez refieran procesos tendentes a liberar la construcción de los efectos perjudiciales para la fábrica de esas aguas de escorrentía. Si eso fuera así, identificar el momento cronológico en el que se logró la actual ermita permitiría avanzar en la data de ejecución de los canales. Cabría aventurar, en cualquier caso, una fecha posmedieval. Primero porque las zanjas para drenaje se abren sobre un espacio cementerial propio del medievo que había caído ya en desuso. Segundo, porque en la actual construcción de San Lorenzo no se identifican trazas de una arquitectura propia de aquellos tiempos medievales, evidenciando formas y modos de centurias posteriores.



Bitariko tipologia duen hilobia, San Lorenzoko nekropolian.

Sepultura con tipología mixta de la necrópolis de San Lorenzo.

Erreten guztiek nahasten zuten, gutxi-asko, azpiko maila estratigrafikoa. Maila hau ia soilik hileta izaerako aztarnak baizik ez zuten hartzen, denak zenduei lur emateko nekropoliari zegozkion. Nekropoliaren formaren ezaugarriek Erdi Aroko kronologietan ohikoak ziren ereduak ekartzen dizkigute gogora, Bizkaiko lurraldean induskatutako kasuetan dokumentatuek bezala.

Aitzitik, ez genuen giza hezur zatirik txikiena ere aurkitu induskatutako hileta unitateen baitan. Guk uste dugu hobiak betetzen zituen sedimentuak berezko dituen ezaugarriengatik gertatu dela hori, sedimentu hauek azidoegiak baitira gisa honetako aztarnak kontserbatzeko. Baina hezurrezko hondakinen gabeziak ezerezean uzten du hileta erritoaren araberako lur emateko izaera hori. Hasteko, hilerriaren tipologia praktika horri atxikiriko hilerri ereduak ekartzen dizkigulako gogora, hain zuzen ere ustezko praktika hau berresten den une kronologikoan. Eta gero, dokumentatutako ehorzketa ereduak eta haren neurriak giza hilotz bati leku egiteko moduan egokituta daudelako, eta ez norbanakoaren errekuntzatik sortutako hondakinei leku egiteko.

Kanpaina honetan zehar arkeologikoki ebaluatutako hilerriaren baitan gutxienez hirurogei hilobi daude. Hileta izaerako aztarna hauek hautematea ez da

Todas las zanjas alteraban en distinto grado el nivel estratigráfico subyacente. Se encontraba integrado éste, de manera exclusiva, por evidencias de carácter funerario, correspondientes todas ellas con una necrópolis de inhumación, cuyos caracteres formales la relacionan con los modelos más frecuentes en las cronologías medievales, tal y como se han venido documentado en los casos excavados en el territorio vizcaíno.

Dentro de las unidades funerarias excavadas, sin embargo, no se localizó resto óseo humano alguno. Tal ausencia de restos se atribuye a las características propias del sedimento que rellenaba las fosas, demasiado ácido para la conservación física de tales evidencias. Pero la ausencia de restos óseos anula el carácter inhumatorio del rito funerario. Primero, porque la tipología del cementerio remite a modelos cementeriales asociados a tal práctica, en momentos cronológicos en los que, además, se confirma como única practica posible. Segundo, porque el modelo de sepultura documentado y su dimensión parecen reclamar un cuerpo humano y no los restos logrados tras la cremación del individuo.

El cementerio, dentro del espacio arqueológicamente evaluado durante esta actuación, aparece integrado por un número no inferior a sesenta tumbas. De-

lan erraza izan, batez ere hiru arrazoi hauengatik. Hasteko, hilobi unitateetan ez direlako beti euren presentzia ezagutzeko aukera ematen duten elementu materialak atxikirik aurkitzen: estalkiak, harrizko kutxak eta beste. Bigarrenik, lehen ere adierazi bezala, ez direlako giza hezurren hondakinak fisikoki kontserbatu. Eta hirugarrenik, zalantzarik gabe eragin handiena duena, alde honen parte handi baten geologiak berezko dituen ezaugarriengatik, hauek ez baitute hilobiekin zerikusia izan lezaketen ebakiak, zorupean egindakoak, ezagutzeko aukerarik ematen.

Aspaldiko ibai terraza bat izango zen geruza geologikoaren gainean antolatuta zuten hilerria. Arkeologikoki aztertutako espazioaren erdia baino gehiago zorupeko estratigrafiaren lodieraren kota ezberdinetan egokitutako hareharriek hartzen dute. Hareharri hauek gainazalean ageri dira toki honetako goiko topografian, baina maila horretarik mendebalderantz eta beherantz egin ahala pixkana-pixkana desagertu egiten dira, hareharriek osatutako geruza mehetu egiten baita hego-ekialdetik ipar-mendebaldera. Induskatutako eremuko topografiaren erdi eta behe aldeetan, buztinezko geruza bat metatu da hareharrien gainean, eta geruza hau loditu egiten da mendebaldera egin ahala, hareharrien maila sakondu egiten den eta haren presentzia urriagoa den heinean.

Hareharriak ukitzen dituzten hobiak induskatu ahal izan diren lekuetan, hileta unitateak identifikatu ahal izan dira, baita hilobiak egitura erreferentziarik (estalkiak, harri xabalak eta beste) eskaintzen ez zuenean ere. Hareharriek osatutako geruzan sortutako etenak aukera ematen zigun egin beharreko identifikazioa egiteko lehen irizpide bati heltzeko. Aitzitik, kota garaietan hareharriek ez zegoen topografia puntuetan hilobiak dokumentatzeko orduan zailtasun handiak izan genituen lur eremuaren gainazalean eten horiek identifikatzeko, pakete hau osoa buztinez osatuta baitago, eta buztinetan ez baita beti erraza izaten hilobiak induskatzeko garaian egindako ebaki lerroak hautematea.

Hilobi gehienak hilerriaren goiko erdian zeuden, ipar-ekialdean. Aztarna materialak aintzat hartuta, hilerri alde hau da, era berean, okerren kontserbatzen dena. Bertan egokitutako hilobiek ez zuten, oro har, estalkirik, baina ez zen horrelakorik gertatzen hileta hondakinak estaltzen zituzten sedimentuzko geruzen lodiera handiagoa zen tokietan. Hala eta guztiz ere, garbi esan dezagun ez gaudela ziur estalkia hilobi guztiei atxikiriko elementua izango ote zen ala ez erabakitze orduan.

Toki honetako goiko aldean gertatzen den hilobien kontzentrazio handiago honetan ez dira hilobi batzuk besteekin nahasten edo ebakitzen. Hilobi nahasi bat egiaztatzen den nekropoliko puntu zehatz bat alde batera utzita, hilerri osoa ondo baino hobeto antolatuta ageri zaigu, pixkana-pixkana jaso beharreko hilobiei leku egiteko nahikoa tokiarekin. Horrek guztiak, multzoaren batasun tipologikoarekin batean, adierazten digu, agian, San Lorenzoko hilerria erabiliko zutela babiliza hau jardunean ari izan zen kronologiako aldi jakin batean.

tectar las evidencias funerarias no ha resultado tarea fácil por tres condicionantes. El primero, porque las unidades sepulcrales no siempre aparecen asociadas a elementos materiales que permitan reconocer su presencia: cubiertas, cajas de piedra, etc. El segundo, ya avanzado, por la no conservación física de restos óseos humanos. El tercero, y sin duda el de mayor incidencia, por las características geológicas de una parte del emplazamiento, que no siempre facilitan el reconocimiento de evidencias de corte en el subsuelo que pudieran relacionarse con fosas sepulcrales.

La necrópolis se construye sobre un estrato geológico definido como una antigua terraza fluvial, en la que más de la mitad del espacio arqueológicamente intervenido está relacionado con cantos de arenisca instalados en diversas cotas de la potencia estratigráfica del subsuelo. Tales cantos aparecen en superficie en la topografía superior del enclave, desapareciendo progresivamente de tales cotas a medida que avanza el desnivel hacia el oeste, al producirse el adelgazamiento de la capa de areniscas en sentido sureste-noroeste. En las zonas medias e inferiores de la topografía del área excavada, se ha depositado un manto de arcillas sobre las areniscas, que progresa en su espesor hacia el oeste, a medida que las areniscas descienden en cota y su presencia se hace menor.

Allí donde las fosas han podido excavararse en coincidencia con los cantos areniscos, se ha facilitado la identificación de las unidades funerarias, especialmente cuando éstas carecían de referentes estructurales (cubiertas, lajas, etc.). La discontinuidad creada en la sucesión del manto de cantos permitía disponer de un criterio inicial para tal identificación. Por el contrario, la documentación de sepulturas en los puntos topográficos del enclave donde las areniscas estaban ausentes en cotas altas impuso serias dificultades para identificar discontinuidades en la superficie del terreno, puesto que todo él se compone de arcillas y en éstas no siempre es fácil detectar las líneas de corte marcadas al abrir las fosas funerarias.

La mayor concentración de sepulturas correspondía a la mitad superior del cementerio (noreste). Ese núcleo funerario también se revelaba como el peor conservado en sus referentes materiales. Las sepulturas allí instaladas carecían por lo general de cubierta, algo que no sucedía donde el espesor de los sedimentos que cubría los restos funerarios era mayor. Si bien no existía certeza de que la cubierta fuera un elemento asociado a todas las sepulturas.

Esa mayor concentración de sepulturas en la zona alta del enclave no se manifiesta, sin embargo, con alteraciones de unas unidades funerarias sobre otras. Salvo en un punto concreto de la necrópolis donde se constata una alteración funeraria, todo el cementerio aparece perfectamente organizado, con suficiente cabida para las tumbas que se fueron incorporando. Tal hecho, unido a la uniformidad tipológica del conjunto, quizá esté revelando el uso del cementerio de San Lorenzo durante un estadio concreto de la cronología en la que se mantuvo activo.

Hilobiak eskuarki hainbat lerrotan antolatuta daude, mendebaldetik ekialdera, mailatan antolatuta ere, iparraldetik hegoalderantz, nekropoliari leku egiten dion topografiaren aldaparen gainean.

Hilobiei dagozkien aztarnek induskatutako eremuaren ekialdeko mugatik harantz egiten zutenez baina jarduera esparruaren beste ertzetatik harantzago hilobiek segidarik ez zutela egiaztatu genuenez, dokumentatutako hilerri aldea itxura guztien arabera jatorrian okupatutako hileta esparruaren mendebaldera mugatzen dela esan dezakegu. Aipatutako hilerriaren ekialdeko sektorearen ezaugarriak zehaztea falta da, baita hileta esparru hau antolatuko zuen eta zerbitzatuko zuen ustezko eraikinarekin gordeko zuen harremana ere.

Hilerria artikulatuko zuen eraikin bat izatera, ez dirudi egungo San Lorezko basiliza dagoen lekuan egongo zenik, ez bederen haren ardatz nagusia edo nekropolitik kanpoko ustezko kokalekua aintzat hartzen baditugu. Hala eta guztiz ere, kontu hau zehaztasun handiago batez aztertu behar da.

Hilobien ezaugarriek dagokienez, esan dezagun badirela arrasto interesgarri batzuk. Tipologia mota bikoak dira. Lehenengoa, arkeologiaren literaturak «hobi soil» gisa izendatuek osatzen dute. Hauek hilotz bati leku egiteko moduko zuloak baino ez dira. Zuloaren forma eta erregularitasuna ebakian induskatzen den materialaren arabera dira. Burualdeak betiere dira zuzenak, edo arku txiki bat eratuta daude, baina hauetan ez da ebaki antropomorforik hautematen. Eredu hau ez da hilerriaren baitan soilik gune jakin batera mugatzen.

Bigarren tipologia bitarikotzat har genezake (erdi induskatua-erdi eraikia). Eredurik arruntena da. Kasu honetan, zoruari irekitzen den zuloa sendotu egiten da burualdean eta oinaldean hareharrizko harri xabalak egokituta. Harri xabal hauek betiere ageri dira bertikalean ipinita alboetako baten ertzean, eta eskuarki pieza bakar batek osatzen du egitura. Toki bereko geruza geologikotik erauzi ez zen materiala baliatu zuten horietan. Harri xabal hauetako asko berdinduta dituzte ertz edo koska batzuk.

Hilobi batean izan ezik, besteetan ez zuten gisa honetako elementurik erabili ebakiaren beste aldeak estaltzeko. Zuloako puntu zehatzen batean lur eremuak berak eskaintzen zuen hareharrizko piezaren bat berregokitzea zen normalena, bai paretak sendotzeko bai burualdeko eta oinaldeko harri xabalak finkatzeko.

Hilobi eredu bietan estalki mota bertsuak erabili zituzten: bi lauza handi etzanak. Pieza hauek bestelako neurriak dituzte, handiena betiere hilobiaren mendebaldean egokitua. Pieza hauek hareharrizkoak dira. Batzuk, zalantzarik gabe, landuak izan dira. Estalkietako batek zulo zirkular bat zeukan ekialdeko lauzan.

Las sepulturas tienden a ordenarse en alineaciones longitudinales oeste-este, que se suceden escalonadas desde el norte hacia el sur sobre la topografía en cuesta de la necrópolis.

Al prolongarse las evidencias sepulturales más allá del límite oriental del área excavada, y no revelarse la continuidad de las tumbas hacia otros bordes del espacio de actuación, la parte del cementerio documentada parece corresponder a la mitad occidental del ámbito funerario originalmente ocupado. Falta por determinar las características del sector oriental de dicho cementerio y la relación que pudo establecerse respecto a un teórico edificio que organizase y sirviese espiritualmente a ese ámbito funerario.

De haber existido un edificio articulador del cementerio, no parece probable que ocupase idéntico emplazamiento a la actual construcción de San Lorenzo, constatada la orientación de su eje axial o su aparente posición excéntrica a la necrópolis. Esta cuestión, sin embargo, carece aún de un análisis preciso.

En relación con las características de las sepulturas cabe señalar algunos rasgos de interés. Obedecen éstas a dos tipologías. La primera es aquella que en la literatura arqueológica ha venido denominándose como «de fosa simple» y que supone la apertura de un hueco en la tierra con capacidad suficiente como para contener el cadáver. La forma y regularidad de la fosa dependerá del material en el que se excava el corte. Las cabeceras son siempre rectas, o en ligero arco, sin revelar en ningún caso cortes antropomorfos. No evidencia este modelo una localización específica dentro del cementerio.

La segunda tipología cabría definirla como mixta (mitad excavada-mitad construida). Resulta el modelo más frecuente. En este caso, la fosa que se abre en el suelo se refuerza con lajas de piedra arenisca en la cabecera y pies. Dichas lajas se disponen siempre en posición vertical sobre uno de sus bordes laterales, y una sola pieza compone por lo general el dispositivo. Se utiliza un material que no se ha tomado del sustrato geológico del mismo enclave. Muchas de estas lajas evidencian huellas de labra en algunos puntos de su contorno.

Salvo en un caso, no se han utilizado tal tipo de elementos para forrar otros lados del corte. Más frecuente es que se proceda a recolocar alguna pieza arenisca de las que proporciona el terreno en algún punto concreto de la fosa, bien como refuerzo de sus paredes, bien como afianzamiento de las lajas de cabecera y pies.

Ambos modelos de sepulturas se han asociado con el mismo tipo de cubiertas: dos grandes losas acostadas. Las piezas suelen ser de distinto tamaño, quedando la de mayor dimensión en la zona occidental de la sepultura. Su litología es arenisca. En ocasiones hay claros indicios de labra. Una de las cubiertas presentaba una perforación circular en la losa oriental.

Hilobietako bat bereizi egiten da deskribatutako eredutik. Honakoa lauza bakar batek estalita dago, agian bertan gazte baten gorpuari egin ziotelako leku.

Konklusioak

Ez da erraza San Lorenzoko nekropoliari begira data bat aurreratzea. Eta ez da erraza egiteko hontan lagungarri liratekeen irizpide estratigrafiko garbiak ez daudelako.

Aztarnategian oso xumea da estratigrafia, eta horrek ez du batere laguntzen hileta izaerako gertaeren sekuentzia egokiro osatzeko orduan. Hilerrak hartzen duen espazioaren ezaugarri guztiz berezia da bertako hilobien antolamendu eta egokiera guztiz zaindua, okupazioaren prozesu guztia zehatz-mehatz planifikatuta egongo balitz bezala. Hilobiak ez dira elkarren artean nahasten, eta beraz, ez daukagu lehenik zer izan zen eta gerora zer gertatu zen argitzeko moduko adierazle estratigrafikorik, ez bederen dokumentatutako hilobi tipologia nagusi bien mailan. Hilobien tipologiaren eta haien banaketaren itxurazko uniformetasuna, beraz, erabilerarako une kronologiko oso zehatz bati erantzuten dion nekropoliaren isla izan liteke, hau da, hilerrri hau ez zuten luzaroan baliatuko. Honenbestez, lehenagoko hilobien gainean egokitutako hilobien edo elkar ebakitzen duten hilobien tipologietatik at kokatzen da hilerrri hau.

Hala eta guztiz ere, ez da erraza aieruka aritzea eta lan hipotesiak egitea, ez baitakigu jarduera arkeologikoaren xede izan ez den hilerrri atalak zer-nola funtzionatzen zuen. Izan ere, baliteke induskatutakoa hilerrriaren erdialdea ez baizik eta haren bazterreko eremu bat izatea, eta beraz, baliteke hilobien tipologian eta haien banaketan hautematen dugun itxurazko uniformetasunak gu erabat tronparaztea jatzotakoak interpretatzeko garaian.

Kronologiak zehazteko garaian estratigrafiak halako informazio baliotsua eskaintzen ez badu, datazioak eskaini dezaketen hondakin materialek ere ez digute inolako laguntzarik ematen. Geruza arkeologikoez ez dute informazio hori eskaini dezakeen material hondakin bakar bat ere eskaini. Aurkitutakoa urria izan da oso, eta ez dute kronologiak zehazteko aukerarik ematen. Izan ere, San Lorenzoko hilobietan ez dugu inolako objekturik identifikatu. Ore beiratzuko zintzilario-ale bat baizik ez genuen hilobietako batean dokumentatu.

Informazioa eskaini dezaketen maila horiek gabe, ondoko beste nekropolietako tipologiarekin alderatzea baizik ezin genuen egin, inguruko nekropolietako hilobi batzuk induskatuak baitziren lehendik.

Oso litekeena da hilerrri hau Erdi Aroaren azken garaietakoa ez izatea, parrokiatako nekropoliak berantolatatu ziren garaikoa ez izatea, itxura batean ez baititu ikerlari batzuek gisa honetako nekropoliei begira deskribatu dituzten ezaugarri batzuk. Bestalde,

Una sepultura se aparta del modelo descrito al cubrirse con una única losa, circunstancia que pudiera quedar explicada por su correspondencia con el enterramiento de un individuo juvenil.

Conclusiones

Avanzar una fecha para la necrópolis de San Lorenzo no resulta tarea fácil. Y no lo es porque no se dispone de criterios estratigráficos claros que orienten la labor.

El yacimiento ofrece una estratigrafía muy sencilla, que no favorece en ningún caso la ordenación secuencial de los sucesos propiamente funerarios. Un rasgo característico del espacio cementerial es la cuidada organización y disposición de sepulturas que registra, como si todo el proceso de ocupación hubiera estado rigurosamente planificado. No hay, en general, alteraciones de unas sepulturas sobre otras, con lo que se carece del indicativo estratigráfico de qué pudo ser antes y qué pudo sucederse después, por ejemplo a nivel de las dos tipologías de sepulturas principales documentadas. La aparente uniformidad tipológica y distributiva cabría entonces interpretarla, tal vez, como la correspondiente a una necrópolis que obedece a un momento cronológico de uso muy concreto, sin mucha prolongación en el tiempo, lo que permite sustraerla de una variación en las tipologías de sepulturas o de las alteraciones sepulturales de nuevas tumbas sobre las precedentes.

Sin embargo, no es fácil hacer conjeturas y establecer hipótesis de trabajo, porque desconocemos cómo funcionó la parte de la necrópolis que no ha sido objeto de actuación arqueológica. Porque pudiera suceder que lo excavado corresponda a un área marginal del cementerio y no central, con lo que la aparente uniformidad tipológica y distributiva que observamos nos conduzca a engaño en el momento de interpretar los hechos.

Si la estratigrafía no parece aportar información de valor en la tarea montar las cronologías, tampoco los restos materiales con capacidad de fechación nos ofrecen ayuda alguna. Los estratos arqueológicos no han ofrecido ningún resto material que pudiera ofrecer información a tal fin. Lo localizado ha sido muy escaso e inservible con tales fines. Porque lo cierto es que las sepulturas de San Lorenzo no han suministrado objetos de ajuar. Apenas cabe señalar una cuenta de collar en pasta vítrea como único vestigio de ajuar funerario.

Privados de esos niveles informativos, solo cabe recurrir a la comparación tipológica con otras necrópolis del entorno inmediato, de las que se han excavado algunos ejemplares.

Quizá es posible descartar para el cementerio las fechas más tardías del medievo, cuando se asiste a la organización de las necrópolis parroquiales, porque no parecen exhibir algunos de los caracteres que los investigadores han descrito para las mismas. Por otra

Etxanoko Andra Maria elizak funtzio hori bere egin izanak adierazi lezake San Lorenzoko okupazioa Goi Erdi Aroan edo Erdi Aro Betean gertatu izana. Egon liteke beste argudioren bat data hori sendotzeko, esate baterako, estalki zulatuaren presentzia, zuloa berariaz itxia duena. Gisa honetako elementuei begira Erdi Aro Beteko datak proposatu dira Garaiko nekropolian, bertako azken garaietako okupazio aldean.

Zalantzarik gabe, aztarnak zehatzago eta xehetasun handiago batez aztertu behar dira, eta ezagutzen diren hilerri ereduak egokiro alderatu behar da aztergai dugun hau, emaitza zehatzagoak eta ziurragoak lortuko badira. Baina horretarako ezinbestean ezagutu behar da zer gertatzen den induskatu ez den hilerri aldean. Izan ere, burdinbidearen eraikuntzak ukitutako eremutik informazio arkeologikoa lortzeko aukerak oro agortu ondoren, ebaluatu gabeko eremua agertzen zaigu galderei erantzuteko eta soilik partzialki ezagutzen dugun nekropoliaren errealitatea interpretatzeko bide bakar gisa.

parte, el hecho de que tal función pasara a ser desempeñada por Santa María de Etxano quizá apunte hacia la alta o plena Edad Media para la ocupación de San Lorenzo. Tal fechación quizá pudiera encontrar algún argumento añadido en la presencia de la cubierta horadada con el hueco intencionalmente tapado, para cuyo uso se han propuesto fechaciones de plenomedieval en la necrópolis de Garai, en las zonas de ocupación más tardía de la necrópolis.

Indudablemente, falta un análisis más preciso y detallado de las evidencias, así como una contrastación más adecuada con los modelos cementeriales conocidos, para obtener resultados más concretos y seguros. Pero parte del problema pasa inevitablemente por conocer lo que ocurre en la parte cementerial no excavada. Porque, agotadas las posibilidades de información arqueológica en el área intervenida afecta la construcción de la infraestructura ferroviaria, es la zona no evaluada la que se erige como posible vía para solucionar problemas e interpretar una realidad sepulcral que se ha logrado conocer de manera parcial.

R. Rodríguez Calleja; J.L. Ibarra Álvarez

B.3. ARRIGORRIAGA

B.3.1. **Agirre dorrea eta Kantarepe eta Angoiti errotak**

Zuzendaritza: Daniel Vallo Espinosa
Finantzazioa: Eroski S. Coop.

B.3.1. **Torre de Aguirre y molinos de Kantarepe y Angoiti**

Director: Daniel Vallo Espinosa
Financiación: Eroski S. Coop.

From September 2008 to January 2010, a series of archaeological activities were carried out as a result of the specific modification of the Arrigorriaga urban planning bylaws in the Bentako-Erreka area. These activities included the intense prospecting of the areas to be affected by future building work, the carrying out of prospecting with soil pits and an excavation in Aguirre Tower. As a result, the remains of the Kantarepe and Angoiti mills were documented, along with the channel that linked them. An interesting stratigraphic sequence was discovered in Aguirre Tower, ranging from the moment of its construction to the moment at which it was abandoned.

Sarrera eta Miaketa

«Arrigorriagako Bentako-Errekako esparruko arau subsidiarioetan egindako aldaketa puntualek» eta aldaketa hauek eraginda burura eramango diren obra zibilek eremu zabal bat hartuko dute, ustezko eremu arkeologiko hiru biltzen dituen eremu zabala: Kantarepeko Errota, Angoitiko Errota eta Agirre dorrea.

Hasteko, miaketa lan intentsibo bat bururatu genuen lanek ukitu beharreko eremu osoan, guztira

Introducción y Prospección

La «Modificación puntual de las normas subsidiarias de Arrigorriaga en el ámbito de Bentako-Erreka» y las obras civiles que mediante estas modificaciones se van a producir afectan a una amplia zona en la que se concentran tres zonas declaradas de presunción arqueológica: Molino de Kantarepe, Molino de Angoiti y Torre de Aguirre.

La primera parte del trabajo ha sido una prospección intensiva de toda la zona afectada, en total

276.701,65 m² miatu genituen. Eremu hau ondo asko bereizten diren hiru ataletan banatu daiteke:

- haraneko mazelak, pendiz handikoak. Alde hauetan guztiz emaitza negatiboak izan genituen.
- errekatik hurbilen dagoen alde zelaia, egun etxebizitza, fabrika eta larre batzuei leku egiten diena. Alde honetan aurkitu ahal izan ditugu Angoiti errota hondakinak eta urak Kantarape errota biltzen zituen kanala, biak ala biak XIX. mendekoak. Kantarape egun etxebizitza bihurtu da eta osorik kontserbatzen da, kuboaren egitura bera kontserbatzen du. Aitzitik, leku honetan eta gure garaian burura eramandako obren ondorioz, ez dugu kanal edo presarik dokumentatu.

Angoiti errota, bere aldetik, kuboaren hormako bi atal kontserbatzen ditu zutik, baina bereizten ere dira eraikinari dagozkion harri handien metaketa batzuk. Alde honetako sastrakak erauzi eta ingurua garbitu ostean, gutxi gora-behera 10 x 6 metroko kubo bat dokumentatu genuen, landu gabeko harri irregularrekin, hormak 74 eta 95 zentimetro bitarte lodi, barruko aldera kareore hidrofugo batez zarpiatuta. Kuboaren egituraren itxura mazelaren aurka eraikia du, eta ekialdeko hormak perpendikularrean egiten du bat harekin. Mendebaldeko hormak, berriz, mendebalderantz egiten du mazelaren paraleloan egokitzeke eta kuborako uren sarrera-kanala eratzeke. Kanal hau Kantarape errota iristen da. Honenbestez, ur berdina baliatzen zituzten berex eraikitako bi errota hauek.

- Bentakoerreko harana eratzen duen muinoetako baten gailurra. Bertan dago Agirre Dorrea jauregia.

Jarraian katen bidezko miaketa lan bat bururatu genuen erroten inguruan egitura bien arteko kanalak dokumentatu ahal izateko. Bitarteko mekanikoak baliatuta hiru kata egin genituen, baina bakar batek eskaini zizkigun emaitza positiboak. Ura garraiatzeko kanalaren eta haren sekzioa dokumentatu ahal izan genituen. Metro beteko tartea gordetzen zuten hormatxo paralelo bik osatua zen, hormak landu gabeko harri oso irregularrekin osatua, errenkada bakar batekin, kareorik gabe.

Agirre Dorrea

Eraikin honek hartzen duen aldea obrarako plan osotik ukituena izangoenez, hasteko guztiz induskatu genuen haren barrunbea. Era berean, bost metroko zabalera izan zuen zerrenda bat ireki genuen haren inguruan, kanpoko aldetik. Geroago, hego-mendebaldean erretan handi bat agerian geratu zenean, zundaketa batzuk egitea erabaki genuen hego-ekialdean, ipar-mendebaldean eta ipar-ekialdean, hasieran genituen susmoak berresteko, hau da, eraikina babesteko lubanarro bat zela egiaztatzeke, dorrearen aurreneko

276.701,65 m². Podemos dividir este área en tres partes bien diferenciadas:

- las laderas del valle, de gran pendiente, donde el resultado ha sido del todo negativo.
- la zona más llana inmediata al arroyo, lugar donde actualmente se encuentran algunas viviendas, fábricas y lugares de pasto. Es en esta zona donde hemos podido localizar los restos del molino de Angoiti y el canal al que le llegaba el agua desde el molino de Kantarape, ambos del siglo XIX. Este último es actualmente una vivienda y se conserva en su práctica totalidad, incluida la estructura del cubo. No hemos podido documentar, sin embargo, ningún canal o presa debido a las obras modernas realizadas en el lugar.

El molino de Angoiti sin embargo únicamente conserva en pie dos tramos de muro del cubo, aunque se pueden observar varias acumulaciones de grandes piedras correspondientes al edificio. Tras limpiar y desbrozar la zona pudimos documentar un cubo con unas dimensiones aproximadas de 10 x 6 metros, realizado en mampostería irregular y con un grosor que ronda entre los 74 y 95 centímetros, revocado al interior con armagasa hidrófuga. El cierre de la estructura del cubo se realiza contra la ladera de forma que el muro este se adosa perpendicularmente contra ésta, mientras que el muro oeste va girando en dirección también oeste situándose paralelo a la ladera para formar el canal de entrada del agua al cubo. Este canal proviene del molino Kantarape, aprovechando de esta manera el mismo agua dos edificios de molienda diferentes.

- la cima de una de las colinas que forma el valle de Bentakoerreka. Es en este lugar donde se encuentra la Torre-palacio de Aguirre.

A continuación se procedió a realizar una prospección con catas en la zona de los molinos para documentar los canales existentes entre ambas estructuras. Se llevaron a cabo tres catas por medios mecánicos de las que tan solo una dio resultados positivos. Se pudo documentar la presencia del canal de agua y su sección. Este canal estaba constituido por dos muretes paralelos con 1 metro de distancia formados por mampuestos muy irregulares sin argamasa formando una sola hilada.

Torre de Aguirre

Puesto que la zona que ocupa este edificio va a ser el lugar más afectado de todo el plan de obra lo primero que se realizó fue una excavación completa de su interior, así como una franja de cinco metros de anchura a su alrededor, en el exterior. Posteriormente, tras la aparición en el suroeste de una gran zanja decidimos realizar una serie de sondeos al sureste, al noroeste y al noreste para corroborar lo que en un principio sospechamos, esto es, que se trataba de un foso defensivo coetáneo o inmediatamente posterior



Agirre Dorrea. Kanpoko eremua, haren hego-ekialdean.

Torre de Aguirre. Zona sureste al exterior.

aldiaren garai berekoa edo ondoren hurbilekoa. Horregatik guztiagatik, indusketak amaitutakoan, jada induskatutako eremuaren inguru beste 15 metrotan zabaltzea erabaki genuen. Helburu bikoitza zuen esku-hartze honek: batetik, lubanarroaren bide osoa dokumentatzea, eta bestetik, atxikiriko beste egitura edo eraikinen presentzia hauteman ahal izateko moduko espazio zabalean *open area* deitu teknikaren arabera induskatu ahal izatea.

a la primera fase de la torre. Es por ello que, tras terminar la excavación, se decidió una ampliación en todo el perímetro de 15 metros alrededor de la zona ya excavada. El objetivo era doble: por una parte descubrir todo el trayecto del foso y, por otra, poder excavar en *open area* un espacio lo suficientemente grande como para permitirnos detectar la presencia de otras estructuras o edificios anejos.

Agirre Dorre-jauregiaren aldiak

Dorrearen eraikuntza eta erabilera

Dokumentatutako aldirik aspaldikoena da. Dorrearen eta haren inguruko babeserako lubanarroaren eraikuntzak hartzen du aldi hau. Aldi honetako eraikineren zimentariak baizik kontserbatzen ez dituen arren, haren oinplanoak bat egiten du egungo eraikinarekin. Ina koadroa den egitura bat osatzen du, 11 metro (hego-mendebaldetik ipar-ekialdera) bider 9,3 metrokoa (ipar-mendebaldetik hego-ekialdera). Zimentaria 1,45 metro zabal da, eta hormek 61,65 m²-ko azalera mugatzen dute barruko aldetik. Multzoa babesteko ahalmena emendatzeko xedean, une honetan perimetrotako lubanarro bat eraiki zuten 4 eta 5 metro bitarteko tartera. «V» sekzioko lubanarro hau 5 metro baino zabalagoa zen, eta gutxienez 1,6 metro sakon zen.

Fases de la Torre-palacio de Aguirre

Construcción y uso de la Torre

Es la fase más antigua documentada. Se corresponde con la construcción del edificio de la torre y de un foso defensivo a su alrededor. Aunque sólo se conserva la cimentación del edificio de este período su planta se corresponde con la del edificio actual, formando una estructura de planta casi cuadrangular de 11 metros (SW-NE) por 9,3 metros (NW-SE) con una anchura de cimentación de 1,45 metros de ancho y un área interna de 61,65 m². Para aumentar la capacidad defensiva del conjunto se le añade en este momento, a una distancia entre 4 y 5 metros, un foso perimetral de sección en «V» con una anchura superior de 5 metros y una profundidad mínima de 1,6 metros.

Aldi honekin lotuta, betegarri naturalean induskatutako hainbat zulo dokumentatu genituen. Esanguratsua da dorrearen hego-ekialdea, alde honetan tipologia askotako 16 zulo geratu baitziren agerian. Egitura hauek guztiak une honetan aztertzen ari bagara ere, guk uste dugu dorreari atxikiriko egitura osagarri bazuk izango zirela. Era berean, gehiago izango zirela uste dugu guk, baina, zoritxarrez, dorrea berritzeko lanek betikoz galdu arazi ditu horiek. Lubanarroaren ebakian, hego-ekialdean, horman egindako zulo edo ebaki txiki lau geratu ziren agerian. Zulo hauek zurezko habeei edo paldoei eusteko irekiko zituzten, lubanarroarekin estu lotuta egongo zen baina ezagutzen ez dugun egitura bateko paldoei eusteko. Etorkizunean kontu hau argituko dugulakoan gaude.

Lubanarroaren ekialdean, kanpoko paretan, beste bi ebaki dokumentatu ditugu, biak garaiera berean, 30 zentimetroko tartea gordez. Zulo horiek hartzen duten lekuari eta garaierari erreparatuz gero, agerikoa da lubanarroa gainditzeko zurezko igarobidea zulo haietan bermatuko zena, eta igarobide hori altxatu egingo zutena dorreko biztanleak arriskuan egotera.

Lubanarroa hein batean beteta zegoen metatutako uraren eraginaren ondorioz oso dekantatuta zeuden buztinezko geruza batez. Betegarri honetan aurkitutako material arkeologikoak aintzat harturik, babesteko egitura gisa ez ezik itxura guztien arabera zabortegi gisa erabili ere zuten lubanarro hau. Ugari dira gizakien kontsumotik etorritako abereen hezur kopuruak. Gainera, esanguratsua da zurezko hondakinen presentzia, oholak eta hesolak. Era berean, ondo kontserbatutako larru zatiak agertu dira, dorreko biztanleek erabiliko zituzten oinetako eta jantzietatik etorriak. Dokumentatutako zeramika oso oparoa ez bada ere, zeramika arrunten multzo homoginoa osatzen dutela esan behar dugu. Une honetan zeramika horiek aztertzen ari bagara ere, guk uste dugu Behe Erdi Arokoak direla (xiv.-xv. mendeak). Gainera, brontzezko txanpon bat aurkitu genuen betegarrian, Enrike II.aren garaiko (1369-1379) Kruzado bat, 1369

Relacionados con esta fase se han documentado una serie de agujeros excavados en el relleno natural. Es significativo el lado sureste de la torre, donde han aparecido hasta 16 agujeros de diferente tipología. Aunque todas estas estructuras están siendo actualmente objeto de estudio creemos que se corresponden con diferentes edificios anexos y auxiliares de la torre. Pensamos que su número debió de ser mayor y que las diferentes obras de reforma de la torre han hecho que no se hayan conservado. Dentro del corte del foso en la zona sureste aparecieron cuatro pequeños recortes o agujeros en las paredes. Estos cortes servirían para sustentar vigas o postes de madera para alguna estructura relacionada con el foso de uso desconocido, pero que esperamos esclarecer en el futuro.

En el lado este del foso en la pared externa hemos documentado otros dos recortes, ambos a la misma altura y separados por 30 centímetros. Por la posición que ocupan y la altura a la que aparecen resulta evidente que se trata de dos agujeros en los que iría apoyada una pasarela de madera para salvar el foso, que sería retirada en caso de peligro para los ocupantes de la torre.

El foso estaba parcialmente relleno por un estrato de arcillas muy decantadas formado por la acción del agua acumulada. Por los materiales arqueológicos encontrados en este relleno parece que el foso funciona no solo como estructura defensiva, sino también como basurero. Aparece un gran número de restos óseos animales procedentes del consumo humano, además es significativo la presencia de restos de madera en forma de tablones y estacas. Han aparecido a su vez algunos fragmentos de cuero bien conservados que podrían proceder del calzado o las vestimentas utilizadas por los habitantes de la torre. La cerámica recogida, aun no siendo demasiado numerosa, conforma un conjunto homogéneo de cerámicas comunes, que están siendo estudiadas en este momento, pero que parecen de cronología bajomedieval (Siglos xiv.-xv). Además encontramos una moneda de bronce, un Cruzado de Enrique II (1369-



Ezk. Agirre Dorrea. Airetiko ikuspegia, lubanarroa induskatu aurretik. (090.jpg) / Esk. Airetiko ikuspegia, lubanarroa induskatu ondoren.



Torre de Aguirre. Izda. Foto aérea antes de la excavación del foso. 090.jpg / Dcha.: Foto aérea después de la excavación del foso.

eta 1379 urte bitartean egina, lubanarro hau, amortizatu baino lehen, xv. eta xvi. mendeetan erabiltzen zutela agerian utziz.

Agirre Jauregia

xvi. mendetik aurrera ahaideen arteko liskarrak barretu zirenean, dorre zaharrek galdu egin zituzten beren egiteko militarrek, eta pixkana-pixkana baserri eta jauregi bihurtu ziren. Halaxe gertatu zen aztergai dugun eraikinarekin xviii. mendean, Erdi Aroko dorre zaharrak horma guztiak berritu zituenean eta jauregi moderno bihurtu zenean. Jauregi honek zimentarria baizik ez zuen aurreko aldiko eraikinetik kontserbatu.

Dorrearen barruan hainbat erreten ireki zituzten zorian. Erreten hauek erreten nagusiarekin egiten zuten bat urei irteera emateko, eta erreten sare honen gainean lurrez eta harriz prestatutako oinarria prestatu zuten, ura egokiro iragazi ahal izateko. Erdiko kareharrizko zutari handiak eusten dio zurezko egiturari, bigarren solairuari eusten dion egiturari. Une honetan eta kanpoko hormari atxikirik eraiki zuten harrizko patinari esker kanpotik zuzenean iritsi zitekeen bigarren solairu honetara. Era berean, eraikinaren ekialdeko horman ate bat ireki zuten zuzenean lehenengo solairuan sartzeko.

Obrak munta handikoak dira, eta inguru osoa eraldatzen dute. Halatan, lubanarroa erabat amortizatu zuten aurreko eraikinetik ateratako erakuntza materialekin beteta, eta aurreko eraikin atxikiak desagertu egin ziren pixkana-pixkana beste eraikinei, harriz eraikiko ziren eraikinei, leku egiteko. Honenbestez, iparraldean bada, jauregiaren eta sarrera egiten duen patinaren artean, horma batek mugatuko espazio bat, 2,35 x 2,40 metrokoa; ekialdera neurri handiko beste egitura bat ageri da, 9,4 x 4 metrokoa, hainbat eraikuntza aldi bizi izan zituena. Mendebaldean dorrearen paraleloan luzatzen den beste horma bat ageri da ebaki handi baten eta lur eremua berdintzeko betegarriaren ondoan, eta hauek denek 73 m²-ko gorputz atxiki bat eratzen dute. Eraikin hau Dorrea Jauregi bihurtu zuten garaian eraiki zuten. Eta hegoalde-dera badira beste horma hondakin batzuk, baina txikiak dira eta ez dakigu zer funtzio beteko zuten.

Jauregiaren abandonatzea

xix. mendearen eta xx. mende hasieraren arteko une batean jauregi hau abandonatu edo eraitsi zuten. Eraikinaren barruko eta kanpoko aldeetan betegarri lodi bat identifikatu dugu. Betegarri hau harriz, teilzez, zarpiatu eta kareore zatiez osatua da, eraikinaren lur jotze partzialetik sortua da. Lur jo ondoren, Agirregoiko baserria eraikitzeko behin-behineko harrobiarenak egin zituen, jauregiko eskantzutik erauzitako harriak erabili baitzituzten baserria eraikitzeko. Hain zuzen ere Agirregoiko baserriaren barruan zundaketa bat egin genuen, baina ez zigen emaitza positiborik eskaini.

Lur jo eta abandonatu ostean, jauregi bihurtutako dorre zaharrak lanabesen biltegiarenak eta untxi eta oilategiarenak betetzen eman zituen azkenekoak.

1379) que se acuñó entre 1369 y 1373 lo que nos demuestra que el foso estuvo en uso durante los siglos xv y xvi antes de su amortización.

El Palacio de Aguirre

Con la desaparición a partir del s. xvi de la conflictividad banderiza las antiguas torres van perdiendo sus funciones militares y poco a poco se transforman en caseríos o palacios. Así ocurre en nuestro caso durante el s. xvii, cuando la antigua torre medieval renueva completamente su alzado convirtiéndose en un moderno palacio que únicamente conserva de su anterior fase la cimentación.

Al interior de la torre el suelo se prepara con varios canales que convergen en uno sólo de salida para evacuar el agua y sobre ellos se construye una base de tierra y piedras para que ésta filtre correctamente. Un pilar central calizo de gran tamaño sustenta todo el entramado lúneo sobre el que se apoya el segundo piso, al cual ahora se podrá acceder directamente desde el exterior gracias al patín pétreo que se construye. También se abre una puerta en la pared este del edificio para acceder independientemente al primer piso.

Las obras son de gran calado y modifican igualmente todo el entorno. Así, el foso se amortiza completamente rellenándolo con material constructivo extraído de la anterior construcción, mientras que los edificios anexos anteriores desaparecen dando paso progresivamente a otros nuevos, construidos en piedra. Así, al norte se encuentra un espacio cerrado por un muro entre el palacio y patín de acceso de 2,35 x 2,40 metros; al este encontramos otra estancia de gran tamaño (9,4 x 4 metros) con varias fases a su vez de construcción. Al oeste otro muro paralelo a la torre, junto con un gran corte y nivelación del terreno, crean una estancia anexa de 73 m² construida en el momento de la transformación de la Torre en Palacio. Y al sur existen restos de muros pero su poca entidad nos impiden concretar su funcionalidad.

Abandono del Palacio

En algún momento entre el s. xix y principios del s. xx se produce el abandono o destrucción de este palacio. Hemos identificado un potente relleno tanto al interior como exterior formado por piedras, teja, restos de enlucido y argamasa que corresponde al derrumbe parcial del edificio. Tras su ruina, sirvió de cantera eventual para la construcción del caserío de Aguirregoiko, para el cual se extrajeron parte de los esquinales del palacio. Precisamente en este caserío se realizó un sondeo en su interior que dio resultados negativos.

Tras su ruina y abandono la antigua torre reconvertida en palacio acabó sus días como almacén de herramientas de labor y corral de gallinas y conejos.

B.4. BALMASEDA

B.4.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.4.1.1. **Martin Mendia kalea, 16. Horcasitas jauregia**

Zuzendaritza: Sonia Aníbarro Sánchez
Finantzazioa: Balmasedako Udala

B.4.1.1. **Martín Mendia, 16. Palacio Horcasitas**

Dirección: Sonia Aníbarro Sánchez
Financiación: Ayuntamiento de Balmaseda

The results obtained during this first season of interventions in Horcasitas Palace in Balmaseda revealed four major phases. The first corresponds to the period prior to the foundation of the town in 1199. The second ranges from the foundation to the construction of the Palace in 1684. The third corresponds to the construction of the palace itself (1684 – 1689) and the last phase corresponds to the period following the end of construction to the present day. We hope that future actions both outside the building and in the inside areas that were not analysed during this season will enable us to gain a more in-depth knowledge of the first phase, which is the one we currently know least about.

Horcasitas Jauregia Balmasedako alde zaharraren erdian dago, Pio Bermejillo eta Martín mendia kaleen artean. Lucas de Horcasitas y Gutiérrez de Rozas jaun aberatsak, Balmasedako aduanako arduradun nagusia zenak, eraikiarazi zuen 1684. urtean.

Obra hura anaia Simonek eta Miguel de Horcasitas y Avellaneda amaitu zuten 1689an, Kantabriako Pedro del Pontón Setién eta Andrés del Collado maisuen zuzendaritzapean.

Bizkaiko jauretze garrantzitsuenetakoa da, bolumen handiko eraikina, barruan patio bati leku egiteko modukoa. Oso-oso gutxi dira Enkarterriko eta Bizkaiko Jaurreriko egoitza arkitekturan patio batez horniturik dauden eraikinak.

Ukitu barroko batzuk eduki arren eraikin klasikoan multzoan sailkatzen da. Bolumen handiko eraikina da, oinplano angeluzuzenekoa. Kale biei begira dauden fatxadetako hormak harlanduz eginak dira, baina alboetakoak landu gabeko harriz altxatuak dira, baoen inguruak, solairuak bereizten dituzten lerro dekoratu gabeak, eraikineko erlaitz osoa eta eskantzuetakoa harritzko kateak izan ezik. Fatxada nagusia lorategiari begira dago. Fatxadan kapitela korintoarrak dituzten zutabeen arteko sarrera da elementurik esanguratsuenak. Zutabe horiek idulkietan bermatzen dira eta solairu nagusiko balkoiari eusten diote. Sarrerak leiho zirkular edo idi-begi bana du alboetan, burdinsareak itxita, kristalik gabe, eta kanporago karelez babesturiko beste bi leiho ditu. Hauen azpian beste bi leiho oso hermetiko bereizten dira, baoz beterikoa ez baizik eta obra mazioa lehenetsi baitzuten. Horma lau solairutan antolatzen da, moldura finez apaindutako bao dinteldunen bost ardatzekin, eta molduren gainean orejetak ageri dira. Goiko solairuan Horcasitas familiaren armari bi ikusten dira.

El Palacio Horcasitas, se halla ubicado en el centro del casco antiguo de Balmaseda, entre las calles Pío Bermejillo y Martín Mendía. Fue construido por D. Lucas de Horcasitas y Gutiérrez de Rozas, acaudalado caballero, y responsable de la Aduana de Balmaseda, en el año 1684.

La obra fue acabada por sus hermanos, Simón y Miguel de Horcasitas y Avellaneda en 1689, bajo la dirección de dos maestros cántabros, Pedro del Pontón Setién y Andrés del Collado.

Es una de las mansiones señoriales más importantes de Bizkaia, edificio de gran volumen que permitió el desarrollo de patio interior, uno de los pocos que se construyeron dentro de la arquitectura residencial de las Encartaciones y del Señorío de Vizcaya.

Clasificado dentro del clasicismo, a pesar de ciertas licencias barrocas, el edificio es un espacioso volumen cúbico de planta rectangular en el que los muros de las fachadas que dan a ambas calles son de sillería y en sus laterales se utiliza el mampuesto con excepción del enmarque de los vanos, las impostas lisas que separan sus pisos, la cornisa general de todo el edificio y las cadenas de las esquinas. La fachada principal asoma hacia el jardín, su elemento más característico es el acceso entre dos columnas con sus capiteles corintios que se alzan sobre plintos sosteniendo el balcón central de la planta noble o principal, esta entrada esta jalonada por dos ventanas circulares u ojos de buey enrejados sin acristalar y mas hacia el exterior dos ventanas protegidas con antepechos, bajo estas van otras dos muy herméticas, ya que predomina el macizo sobre el hueco. El muro se organiza en cuatro alturas con cinco ejes de vanos dintelados enmarcados con finas molduras que rematan en orejetas. En la planta superior, lucen dos escudos con las armas de la familia Horcasitas.

Lehenengo kanpaina honetan, batetik, geure esku-hartzeari ekin baino lehen jauregian zeuden elementu higikor garrantzitsuak zerrendaratu eta dokumentatu genituen, argazkien bidez dokumentatu ere, eta bestetik, indusketa bat egin genuen behe-oinean bereizten ziren bederatziz geletatik seitan, betiere metodologia arkeologikoa baliatuta.

Indusketa arkeologikoan, oro har, Balmasedako hiribilduaren sorreraren garapen historikoarekin zerikusia duten hainbat aldi bereizi ahal izan genituen. Era berean, gerora bururatutako hirigintza aldaketak dokumentatu genituen, jada dokumentazioan adierazten diren era askotako jarduera ekonomikoei leku egiteko espazioan.

Honenbestez, esan dezagun indusketa prozesuan identifikatutako deposituak eta egiturak lau aldi handitara biltzen direla, hau da, hiribildua fundatu (1199. urtea) aurreko aldira, hiria fundatu zutenetik jauregia eraikitzen hasi ziren arte (1684) luzatzen den aldira, jauregia bera eraiki zuten aldira (1684-1689) eta jauregiaren eraikuntza unetik gure garaira arte luzatzen den aldira.

1. aldia

Aski urria da hiria fundatu aurreko aldi honi buruzko dokumentazio historikoak eskaintzen duen informazioa. Hala eta guztiz ere, erregistro arkeologikoak aldi honetara biltzen diren aztarna materialak eskaini dizkigu. Ez dakigu zer funtzio beteko zuten, baina guk uste dugu depositu arkeologiko horiek zuzeneko zerikusia dutela burdinaren langintzarekin lotutako artisautza jardunarekin, izan ere, okupazio mailak erretako buztinezko zoru osatuta zeuden, eta burdinazko zepeaz, ikatzez eta errautsez betetako kubeta itxurako egitura zirkular batzuk identifikatu genituen.

2. aldia

1199. urtean Bortedo Jaunak Balmasedako hiria fundatu zuen. Horren ondorioz, hiriak hirigintza aldaketa batzuk bizi izan zituen, espazioa lursail simetrikotan egituratu zuten alde aurretik planifikatutako hirigintza eredu bati jarraiki. Espazio honetako lursail zatikatzearekin zerikusia izan ditzaketen hainbat paramentu dokumentatu ahal izan ditugu.

3. aldia

Jauregiaren eraikuntza. Eskura dagoen dokumentazioaren arabera, eraikin hau 1684. eta 1689. urte bitartean eraiki zuten, eta horretarako aurreko hirigintza antolamenduaren arabera hamahiru lursail hartu zituen.

Obra honek, zuzenean aurreko lur-zatikatzeko go-tikoaren gainean eraikiak, hiri espazio aski handi bat

La intervención desarrollada en esta primera campaña, consistió por una parte en el inventariado y documentación fotográfica de los elementos muebles relevantes que contenía el palacio al inicio de la intervención, así como la excavación íntegra mediante metodología arqueológica de seis de las nueve salas en las que se dividía la planta baja.

En términos generales, en la excavación arqueológica pudimos reconocer diferentes fases relacionadas con el desarrollo histórico de la génesis de la villa de Balmaseda, así como posteriores modificaciones urbanísticas de los espacios destinados al desarrollo de diversas actividades económicas ya presentes en la documentación.

De este modo los depósitos y estructuras identificadas en el proceso de excavación, están vinculadas a cuatro grandes fases, a saber, una primera fase anterior a la fundación de la villa, (1199), una segunda fase desde dicha fundación hasta la construcción del palacio (1684), otra fase propia de la construcción de este (1684-1689), y una última fase desde la edificación hasta la actualidad.

1.ª fase

La información aportada por la documentación histórica referida a esta etapa prefundacional es relativamente escasa. Aún así, el registro arqueológico nos ha proporcionado evidencias materiales circunscritas a este período, de difícil adscripción funcional, aunque podemos aventurarnos a sugerir la relación de dichos depósitos arqueológicos con la manipulación y gestión vinculados con trabajos artesanales de tratamiento del hierro, debido a la presencia de niveles de ocupación, compuestos por suelos de arcillas rubefactadas con la presencia de estructuras circulares a modo de cubetas colmatadas por escorias de hierro, carbones y cenizas.

2.ª fase

En el año 1199 el Señor de Bortedo funda la villa de Balmaseda, a consecuencia de este hecho, la villa irá sufriendo diversas remodelaciones urbanísticas, estructurando el espacio en parcelas simétricas respondiendo a una planificación urbanística predefinida. Se han podido documentar varios paramentos que creemos poder poner en relación con esta lotización del espacio.

3.ª fase

Construcción del palacio. La documentación existente fecha esta obra entre los años 1684 a 1689, e indica la destrucción de trece parcelas de la ordenación urbanística anterior.

Esta obra, realizada directamente sobre los restos del antiguo parcelario gótico, presenta como elemen-



Martin Mendia kalea, 16. Horcasitas jauregia. Lehenengo aldiari dagozkion testuinguruak, 2. gelan.

Martín Mendia, 16. Palacio Horcasitas. Contextos pertenecientes a la primera fase, en la sala 2.

biltzen du bere baitara. Dokumentazioaren arabera, hamahiru etxebizitzaren bat egitea eskatu zuen obra handi honek.

Jauretxe hau Bizkaiko garrantzitsuenetakoa da. Bolumen handiaren erdian patio bat irekitzen da, eta eraikin osoa lorategi eder batez inguratuta dago. Lorategi aldeak aukera eman du jauretxea eraiki aurreko erregistro arkeologiko garrantzitsu bat kontserbatzeko, jauretxearen eraikinak baizik ez baitu erregistro hau nahasten.

4. aldia

Azken aldi honetara biltzen ditugu jauregiaren barrunbeko zoladuretan egindako berritze lanak eta barruko espazioen antolamendu berria.

Nola eraikinaren kanpoko aldean hala kanpaina honetan ukitu gabe utzitako tokietan etorkizunean egin beharreko lanek aukera emango dute Balmasedako hiriaren historiaren garapena ezagutzeko funtsezkoa den espazio honetan sakontzeko eta hobeto ulertzeko.

to característico la ocupación relativamente grande del espacio urbano, la documentación nos indica que fue necesaria la unificación de trece viviendas.

Esta mansión está considerada como una de las más importantes de Bizkaia. Su imponente volumen está constituido por un patio interior y rodeado por un amplio jardín, que ha permitido la conservación de un importante registro arqueológico previo a su fabricación, afectando a este registro únicamente la construcción de este edificio.

4.^a Fase

A esta última fase, se adscriben las reparaciones de los pavimentos interiores del palacio y reorganización de los espacios interiores.

Las actuaciones venideras, tanto al exterior del edificio como en los espacios que quedaron sin intervenir en esta campaña, permitirán profundizar en la comprensión de este espacio clave para el conocimiento del desarrollo histórico de Balmaseda.

B.5. BARRIKA

B.5.1. Zabaletxe

I. kanpaina
Zuzendaritza: Mikel Aguirre Ruiz de
Gopegui
Diru-laguntza emailea: Barrrikako Udala;
Bizkaiko Foru Aldundia

B.5.1. Zabaletxe

I Campaña
Dirección: Mikel Aguirre Ruiz de
Gopegui
Subvención: Ayuntamiento de Barrika;
Diputación Foral de Bizkaia

An account of the archaeological study of the quaternary sand pits of the Zabaletxe site in Meñakotz (Barrika). The aim is to assess its archaeological and palaeoenvironmental potential, by means of a prior geophysical prospection using a geo-radar. A stratigraphic sondage will serve as a contrast, to obtain a sequence on the basis of which to carry out palaeoenvironmental and precise radiochronological scientific analyses, in order to contextualise the site and detect those points of the rock layers which contain lithic material. At the base of the dune, the sondage located an archaeological level containing a high density of materials of musteroide appearance.

2009ko apirilaren 28ko Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua onartuta, zeinak Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalek eta toki erakundeek eremu arkeologikoak eta kultura ondasunak kontserbatzeko, babesteko, induskatzeko eta haiei balioa emateko xedean sustaturiko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituen, Kurtziako eremu arkeologikora biltzen den Meñakotz-Zabaletxe aldeko laugarren aroko hareatzen azterketa arkeologikoa egitea proposatu genuen guk. Proiektu hau 2009ko irailean onartu eta baimendu zuten. Urrian, geo-radarrak lagunduta, miaketa geofisikoa egin genuen aipatu aldean, azaroan zundaketa estratigrafikoa egin genuen, eta abenduan aurreneko laginketa analitikoa egin genuen.

Con motivo de la aparición del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 54/2009, de 28 de abril, por el que se regula la concesión de subvenciones de conservación, protección, excavación y puesta en valor de áreas arqueológicas y bienes culturales promovidas por los Ayuntamientos y entes locales del Territorio Histórico de Bizkaia, propusimos un estudio arqueológico de los arenales cuaternarios del área de Meñakotz-Zabaletxe, como parte de la zona arqueológica de Kurtzia. Este proyecto fue aprobado y autorizado en septiembre de 2009, en octubre se realizó una prospección geofísica por georadar, en noviembre un sondeo estratigráfico y en diciembre un primer muestreo analítico.

Aurrekariak

Zabaletxeko duna eta aztarnategia, Meñakozko golko txikiaren ondoan (Barrika, Bizkaia), Getxo, Berango, Sopela eta batez ere Barrrikako udalerrietan barrena egokitzen diren aztarnategi arkeologikoen multzora, historiaurreko aztarna isolatu batzuk aurkitzeko parada eskaini duen multzoaren baitara, biltzen dira. Historiaurreko okupazioen multzo hau estu lotuta dago Kantauri aldeko erlaitzean sukarriz hornitzeko iturri garrantzitsuenetako batekin. Flyschak osatutako geruza geologikoa, Goi Kretazikokoa, aberatsa da sukarrizko osaera bioklastikoetan²³, eta hauek biziki ustiatuak izan dira tresnak sortzeko, gutxienez Erdi Paleolito Arotik Brontze Arora arte. Lehengai honetaz hornitzeko jarduera sarri eta etengabe honen ondorioz, aztarnategi sare zabal bat eratu zen Bizkaiko itsasbazterreko zerrendan, eta bertan aurkikuntza isolatu batzuk egin dira han eta hemen.

Antecedentes

La duna y yacimiento de Zabaletxe, junto a la cala de Meñakotz en Barrika (Bizkaia) forma parte de un extenso conjunto de yacimientos arqueológicos y hallazgos aislados de época prehistórica, que se extiende a lo largo de los municipios de Getxo, Berango, Sopela y especialmente en Barrika. Esta concentración de ocupaciones prehistóricas se halla directamente relacionada con una de las fuentes de aprovisionamiento de sílex más importantes de la cornisa cantábrica. El sustrato geológico de *flysch*, perteneciente al Cretácico superior, es rico en formaciones bioclásticas de sílex²³ que han sido explotadas de forma intensa para la obtención de utensilios, al menos, desde el Paleolítico Medio hasta la Edad del Bronce. Esta constante y frecuente actividad de aprovisionamiento, ha dado lugar una extensa red de yacimientos y hallazgos aislados a lo largo de esta franja costera vizcaína.

²³ Tarrío, A. (2006): *El sílex en la cuenca Vasco-Cantábrica y Pirineo navarro: caracterización y su aprovechamiento en la Prehistoria*. Altamirako Museo Nazionaleko eta Ikerketa Zentrokoko monografiak, 21, Santander, 66. or.

²³ Tarrío, A. (2006): *El sílex en la cuenca Vasco-Cantábrica y Pirineo navarro: caracterización y su aprovechamiento en la Prehistoria*. Monografías del Museo Nacional y Centro de Investigación de Altamira, 21, Santander, p. 66.

A. Aguirre adituari zor zaizkio aztarnategi hauen aurkikuntzari buruzko aurreneko albisteak (1955). Apur bat geroago, 1959. urtean, J.M. Barandiarán²⁴ zundaketa arkeologiko batzuk egin zituen Ollagorta, Iturralde, Kurtzia eta Aspiribil barrutietan, nahiz eta gainazalean aurkitutako aztarnak Getxoko Abratik Muriolako hareatzeetaraino topatu zituen. Erdi Paleolito Arotik Metalen Arora arteko historiaurreko okupazioen sekuentzia bat bereizi zuen Barandiaranek.

Denboran gertuago, M. Muñoz adituak indusketa sistematiko batzuk egin zituen 1984tik 1990. urtera arte Kurtziamendi mendiaren mazelatan, eta mazelaren higidurak baldintzatutako estratigrafia jakin bat dokumentatu zuen, zeinetan Mouster aldiko geruza bat (levallois teknikaren arabera landutako dentikuluak) bereizi zuen. Era berean, azken honekin inolako loturarik ez zuen beste depositu batean, industriari lotu gabekoan (ez da horrelakorik aipatzen), erradiokarbonoaren bidezko datazio bat lortu zuen (41.400 ± 2.500 , UGRA-293) Atxabiribilen, Sopelan²⁵. Bestalde, kolubioiek Zabaletxeko *cliff-top* duna estaltzen dutela egiaztatu zen.

1995ean (M. Muñoz), 1997an (M. Muñoz eta J. Gorrotxategi), 2000an eta 2001ean (M. Aguirre eta J.C. López Quintana), eta 2007an (M. Aguirre, 2008) hainbat kontrol arkeologiko egin zirela egiaztatu genuen, eta haietan historiaurreko beste tailer alde batzuk dokumentatu zituztela. Era berean, ugari dira gainazalean aurkitutako material arkeologikoei buruzko erreferentzia bibliografikoak.

2000. urteko udan zehar M. Aguirre eta J.C. López Quintana adituek kontrol arkeologiko bat bururatu zuten Barrikako Goierriko HI lursailean, Goierri auzotik gertu²⁶. Burura eramandako zundaketetan harrizko aztarnen bilduma oparoa berreskuratu zuten. Era berean, geruza harritsuak, gure garaiko lur higidurek eta laborantza lanek baldintzatutako estratigrafia aldakor bat dokumentatu zuten lursailaren parterik handienean. Gainera, Lehen Pleistozeno aroko materiala (Mouster aroko eta xafla moldeko teknologiak nahasian) bigarren egokieran eta seguru asko bereizirik gordetzen zuen buztinezko pakete bat dokumentatu zuten oinean (espazioaren ikuspuntutik eremu mugatu batean).

2001. urteko maiatzetik urrira arte, era berean M. Aguirre eta J.C. López Quintana adituen zuzendaritzapean²⁷, Barrikako udalerrian gas sarea instalatzeko lanen gaineko jarraipena egin zuten, eta zundaketa

Las primeras noticias referentes a su localización se deben a A. Aguirre (1955). Poco después, en el año 1959, J.M. Barandiarán²⁴ realizó una serie de sondeos arqueológicos en los términos de Ollagorta, Iturralde, Kurtzia y Aspiribil, con los que estableció una secuencia de ocupaciones prehistóricas desde el Paleolítico medio a la Edad de los Metales, aunque los hallazgos superficiales se extendían desde el Abra getxotarra hasta los arenales de Muriola.

Más recientemente, M. Muñoz realizó excavaciones sistemáticas en las laderas del Kurtziamendi, desde 1984 a 1990, documentando una estratigrafía condicionada por movimientos de ladera, aislando en cualquier caso un horizonte Musteriense (de denticulados con técnica levallois). Se obtiene asimismo una datación radiocarbónica (41.400 ± 2.500 , UGRA-293) en otro depósito sin relación con aquel y no asociado a industria (al menos no se menciona) en Atxabiribil, Sopela²⁵. Así mismo se comprueba que los coluviones cubren la duna de *cliff-top* de Zabaletxe.

Se han verificado diversos controles arqueológicos en 1995 (M. Muñoz), 1997 (M. Muñoz y J. Gorrotxategi) y 2000 y 2001 (M. Aguirre y J.C. López Quintana), y 2007 (M. Aguirre, 2008) documentando la presencia de nuevas áreas de taller prehistóricas. Asimismo, son numerosas las referencias bibliográficas de materiales arqueológicos de superficie.

Durante el verano de 2000, M. Aguirre y J.C. López Quintana llevaron a cabo un control arqueológico en la parcela H Goierri I en Barrika, junto al barrio de Goierri²⁶. Se recuperó una extensa colección de evidencias líticas en los sondeos realizados, documentándose una estratigrafía variable condicionada por el sustrato rocoso, afectada por remociones modernas y actividades de cultivo en la mayor parte de la extensión de la parcela, y localizando un paquete arcilloso de base (especialmente restringido) con material antiguo pleistocénico (en una mezcla de tecnología musteroide y laminar) en posición secundaria y posiblemente seleccionado.

Entre mayo y octubre de 2001, también bajo la dirección de M. Aguirre y J.C. López Quintana²⁷, se realizó el seguimiento de la instalación de la red de gas en el municipio de Barrika, realizándose sondeos es-

²⁴ Barandiarán, J.M.; Aguirre, A. eta Grande, M. (1960): «Estación de Kurtzia (Barrica-Sopelana)», Servicio de Investigaciones Arqueológicas de la Excma. Diputación Provincial de Vizcaya, Bilbao.

²⁵ Muñoz, M.; Sanchez-Goñi, M.F. eta Ugarte, F.M. (1990): «El entorno geo-ambiental del yacimiento arqueológico de Kurtzia. Sopela-Barrika. Costa occidental de Bizkaia». *Munibe (Ciencias Naturales)* 41, 107-115. orr.

²⁶ Aguirre, M. eta López Quintana, J.C. (2001): «Kurtzia: Goierriko HI sektorea (Barrika)». *Arkeoikuska* 00, 297-300. orr.

²⁷ Aguirre, M. eta López Quintana, J.C. (2002): «Kurtzia (Barrika)». *Arkeoikuska* 01, 202-204. orr.

²⁴ Barandiarán, J.M.; Aguirre, A. y Grande, M. (1960): «Estación de Kurtzia (Barrica-Sopelana)», *Servicio de Investigaciones Arqueológicas de la Excma. Diputación Provincial de Vizcaya*, Bilbao.

²⁵ Muñoz, M.; Sanchez-Goñi, M.F. y Ugarte, F.M. (1990): «El entorno geo-ambiental del yacimiento arqueológico de Kurtzia. Sopela-Barrika. Costa occidental de Bizkaia». *Munibe (Ciencias Naturales)* 41, pp.107-115.

²⁶ Aguirre, M. y López Quintana, J.C. (2001): «Kurtzia: sector H Goierri I (Barrika)». *Arkeoikuska* 00, pp. 297-300.

²⁷ Aguirre, M. y López Quintana, J.C. (2002): «Kurtzia (Barrika)». *Arkeoikuska* 01, pp. 202-204.

estratigrafiko batzuk egin zituzten Goierriko auzoan, Urgoso baserrian, eta Lepolako sektorean. Hauetan ere, harrizko materialen presentzia egiaztatu zuten, baina ez zuten material arkeologikoa lehenengo egokieran kontserbatzen zuen zorurik identifikatu.

Jarduera arkeologiko sistematiko hauetaz gainera –horien artean ezin aipa gabe utz daitezke gainazalak miatzeko lanak (Martiarena 1971²⁸, Gorrochategui eta Yarritu 1984²⁹, besteak beste)–, ugari dira han eta hemen modu isolatuan topatutako harrizko materialei buruzko berriak (esate baterako, Nolte eta Aramburu adituek Kobie aldizkarian eta «Miscelánea arqueológica» atalean 1976. urteaz geroztik emandako albisteak; Fernández 1977 eta 1980³⁰), sarri askotan Historiaurreko azken alditan kokatu beharrekoak: horien arten aipagarri dira aizkora landuak eta ukitu lauko gezi murrak.

2007. urtean Harpea Kultur Elkarteko kide eta arkeologo J. Rios Garaizarrek³¹ Bizkaiko Aldundiaren Ondare Zerbitzuari jakinarazi zion Muriola aldean harrizko materialen kontzentrazio batzuk bazirela jabetza pribatuko lur eremu batzuetan eta mahasti batean. Haren txostenean (eta elkartearen web orrian) ehundik gora harrizko aztarnaren berri ematen dute, xafla eta xaflatxo nukleoak, teknologia aurreratu batez eginak (zeharkako perkusioa edo presioa), zentripeto batzuk, laska batzuk eta ukitutako material gutxi batzuk (karrakagailu bi, karraskailu bat, trunkadura ahur bat, *ecaillé* bat eta hostoaren formako gezi mutur partzial bat); aipagarria da ehotzeko tresnen presentzia (eskuko errota baten zati bat eta ehotzeko gailua), egilearen arabera aztarnategiari bizitegi izaera ematen diotenat. Egile honen beraren aburuz, okupazio hau Azken Neolito aroaren eta Kalkolitikoaren artean kokatu behar da, K.a. IV. milurtekoan.

Albiste horretatik abiatutik, miaketa sistematiko batzuk egin genituen Muriola aldean, eta berretsi egin genuen Harpea Kultur Elkarteko kideek aurkitutako MU1 aztarnategiaren garrantzia. Izan ere, aipatutakoaz gainera, beste finkamendu bi bereizi genituen (MU2 eta MU3), denak azken Neolito aroko testuinguru kulturean kokatu beharrekoak (K.a. IV.-III. milurtekoetan).

²⁸ Martiarena Bengoechea, I. (1971): «Nuevas localidades con yacimiento arqueológico en la costa de Sopelana». *Kobie*, 3, 75-76. orr.

²⁹ Gorrochategui, J. eta Yarritu, M.J. (1984): «La prospección arqueológica durante 1981-82 en Vizcaya». *Cuadernos de sección (Prehistoria y Arqueología)* 2, Eusko Ikaskuntza, 139-169. orr.

³⁰ Fernández Ibáñez, C. (1977): «Descubrimiento de nuevos yacimientos prehistóricos en las provincias de Burgos, Vizcaya, Logroño, Valladolid y hallazgo de diversas piezas aisladas en las mismas». *Kobie*, 7, 73-113. orr. eta Fernández Ibáñez, C. (1980): «Noticia de nuevos útiles prehistóricos pulimentados y relación-catálogo del resto de los conocidos de la provincia de Vizcaya». *Kobie*, 10, 2, 373-396. orr.

³¹ Rios Garaizar, J. eta Garate Maidagan, D. (2004): «Mendieta I eta II aztarnategiak (Sopelana)». *Arkeoikuska* 03, 345-348. orr. eta Rios Garaizar, J.; Garate Maidagan, D.; Zapata Peña, L. Marcos Gómez, Z. eta Regalado Bueno, E. (2007): «El yacimiento prehistórico al aire libre de Mandañu (Gorliz, Bizkaia)», *Kobie* 27, 59-72. orr.

tratigráficos en Goierri, en el caserío Urgoso y el sector de Lepola, constatándose la presencia de material lítico y la práctica ausencia de suelos que conservaran material arqueológico en posición primaria.

Además de estas actividades arqueológicas sistematizadas, entre las que hay mencionar también prospecciones superficiales (Martiarena 1971²⁸, Gorrochategui y Yarritu 1984²⁹, entre otras) son frecuentes los hallazgos de material lítico aislado (por ejemplo, varias noticias de Nolte y Aramburu en la «Miscelánea arqueológica» de la revista *Kobie*, desde el año 1976; Fernández 1977 y 1980³⁰) frecuentemente encuadrables en la Prehistoria reciente, entre los que suelen destacar hachas pulimentadas y puntas de flecha de retoque plano.

En 2007 se pone en conocimiento de la Sección de Patrimonio de la Diputación de Bizkaia la presencia de materiales líticos concentrados en el término de Muriola, en terrenos privados y en un área de viñedo, por parte de J. Rios Garaizar, arqueólogo miembro del Harpea Kultur Elkartea³¹. En su informe (y en la página web de su asociación) mencionan más de un centenar de evidencias líticas, con núcleos de láminas y laminillas, de tecnología avanzada (percusión indirecta o presión) algunos centrípetos, productos de lascado y escaso material retocado (dos raspadores, una raedera, una truncadura cóncava, un *ecaillé* y una punta foliácea parcial); destacan la presencia de útiles de molienda (fragmento de molino y moledera) que dan carácter doméstico, según el autor, a una ocupación encuadrable en un contexto Neolítico final-Calcolítico del IV milenio AC.

A raíz de esta noticia, se llevaron a cabo labores de prospección sistemática en la zona de Muriola por nosotros, confirmándose la entidad del yacimiento de MU1 descubierto por parte de miembros del Harpea Kultur Elkartea, definiéndose otras dos áreas de asentamiento además de la anterior (MU2 y MU3), todas ellas inscritas en el mencionado contexto cultural del Neolítico avanzado (IV-III milenio a. C.).

²⁸ Martiarena Bengoechea, I. (1971): «Nuevas localidades con yacimiento arqueológico en la costa de Sopelana». *Kobie*, 3, pp. 75-76.

²⁹ Gorrochategui, J. y Yarritu, M.J. (1984): «La prospección arqueológica durante 1981-82 en Vizcaya». *Cuadernos de sección (Prehistoria y Arqueología)* 2, Eusko Ikaskuntza, pp. 139-169.

³⁰ Fernández Ibáñez, C. (1977): «Descubrimiento de nuevos yacimientos prehistóricos en las provincias de Burgos, Vizcaya, Logroño, Valladolid y hallazgo de diversas piezas aisladas en las mismas». *Kobie*, 7, pp. 73-113 y Fernández Ibáñez, C. (1980): «Noticia de nuevos útiles prehistóricos pulimentados y relación-catálogo del resto de los conocidos de la provincia de Vizcaya». *Kobie*, 10, 2, pp. 373-396.

³¹ Rios Garaizar, J. y Garate Maidagan, D. (2004): «Yacimiento de Mendieta I y II (Sopelana)». *Arkeoikuska* 03, pp. 345-348 y Rios Garaizar, J.; Garate Maidagan, D.; Zapata Peña, L. Marcos Gómez, Z. y Regalado Bueno, E. (2007): «El yacimiento prehistórico al aire libre de Mandañu (Gorliz, Bizkaia)», *Kobie* 27, pp. 59-72.

Landa-lanak

2009ko urritik 2010eko apirilaren hasierara arteko tartean, honako fase eta helburu hauek bete ditugu:

- Aztertu beharreko eremua topografikoki zehaztu dugu, Zabaletxeko eremu osoaren topografia jaso dugu eta laukiak bereizteko erreferentziak ipini ditugu.
- Geo-radarraren bidezko miaketa lanak egin ditugu.
- Zabaletxeko dunaren profil osoa atera dugu.
- Azterketa analitikoetarako laginketak. 2009ko abenduan aurreneko laginketa analitikoak egin genituen sedimentologia, geokimika, palinologia eta mikromorfologia izaerako emaitzak lortzeko, eta indusketa lanetan zehar laginak jaso genituen C14ren bidezko eta arkeobotanikaren bidezko datazioak lortzeko.

Miaketa geofisikoa

2009ko urriaren 24an egun osoz bururatu zuten geo-radarraren bidezko miaketa Valentziako Unibertsitate Politeknikoko katedraduna eta miaketa geofisikoetan aditua den Francisco García Garcíaen zuzendaritzapean. Lan haietan parte hartu ere zuen proiektu honetako ikerketa taldeko kide Arantza Aranburu sedimentologia arloko arduradunak.

Honako hauek dira miaketa metodo hau aplikatuta planteatutako helburuak:

- Arkeologiaren ikuspuntutik maila emankorrak direnak hautematea eta kartografiatzea.
- Harri amaren mailaren sabaia zein sakonera mailan dagoen zehaztea.
- Historiaurreko hondakinen presentzia agerikoa duten balizko eremuak hautematea.
- Geo-radarraren bidez lortutako datuak esku-agarri egotea burura eramaten diren beste azterketa geologiko eta arkeologikoetatik iritsi litezkeen emaitzekin erkatzeko eta haiek inbatzeko.

Xede horretan, laukiez osatutako sarearen gainean 101 profil atera genituen, 200 MHz-ko antenak paratu genituen maila sakonak eta harri ama aztertzeko eta 400 MHz-ko antenak gainazaleko mailak xehe-xehe aztertzeko.

Lortutako emaitzak egiaztatzeko xedean, 90. zenbakiko profilaren ardatzean (200 MHz) eraman genituen burura aurreikusitako zundaketa stratigrafikoa, eta hasiera batean harri ama gisa identifikatu zenaren sakonera mailak Zabaletxeko dunaren oinarriaren egiten dituen deskonposatutako margen sabaiarekin bat egiten dutela egiaztatu genuen. Zundaketa honek aukera eman zigun lur eremuko geruza bakoitzak

Los trabajos de campo

Desde octubre de 2009 hasta principios de abril de 2010, se han cumplimentado las siguientes fases y objetivos:

- Marcaje topográfico del área a intervenir, topografía de detalle de todo el área de Zabaletxe y colocación de referencias para la cuadrícula.
- Prospección por georadar.
- Realización del perfil completo de la duna de Zabaletxe.
- Muestras analíticas, en diciembre de 2009 se realizó una primera tanda de muestreos analíticos para sedimentología, geoquímica, palinología y micromorfología, y durante la excavación se recogieron muestras para fechaciones de C14 y arqueobotánica.

La prospección geofísica

La prospección de georadar se llevó a cabo el 24 de octubre de 2009 durante toda la jornada, bajo la responsabilidad de Francisco García García, catedrático de la Universidad Politécnica de Valencia y experto en prospección geofísica, y con la colaboración de Arantza Aranburu, miembro del equipo de investigación de este proyecto y responsable de la sedimentología.

Los objetivos planteados en la aplicación de este método de prospección han sido:

- Detección y cartografiado de niveles fértiles arqueológicos.
- Determinación de la profundidad del techo del nivel de la roca madre.
- Detección de eventuales zonas con presencia notable de restos prehistóricos.
- Disposición de los datos de georadar para correlacionarlos e integrarlos con resultados de otros estudios geológicos y arqueológicos que se realicen.

Para ello se realizaron 101 perfiles, sobre la malla de la cuadrícula, con antenas de 200 MHz para estudiar los niveles profundos y la roca madre, y de 400 MHz para un estudio de detalle de los niveles más superficiales.

Con el fin de realizar un primer contraste de los resultados obtenidos se emplazó el sondeo estratigráfico previsto en el eje del perfil 90 (200 MHz), comprobando la coincidencia de las profundidades de lo que se interpretó en primera instancia como roca madre con el techo de margas descompuestas que sirven de base a la duna de Zabaletxe. Este sondeo nos permitió realizar una primera evaluación de la res-

geo-radarrari emandako erantzunaren aurreko lehenengo ebaluazioa egiteko. Oro har, esan dezagun ebakian bereizitako geruza gehienek erantzun jakin bat ematen diotela geo-radarrari, eta beraz, ondo asko bereiz daitezkeela radargrametan. Era berean, sakonera maila ezberdinetan kontzentratu irregulartasunak hautematen dira, zuzeneko zundaketen bidez egiaztatu behar direnak. Artean aztertzen jarraitzen dugu lortutako informazio bolumen handia hautemandako irregulartasun askorekin erkatzeo estrategia bat zehazteko xedean.

Zundaketa estratigrafikoa

Zundaketa estratigrafikoa 50. urteetan Zabaletxeko dunaren parte bat ukitu zuten harrobia ustiatzeko lanetatik etorritako ezponda batean kokatu ginen. Honatx helburuak:

- Dunaren sekuentzia estratigrafiko osoa harri amaraino dokumentatzea.
- Sekuentzia horretan giza jardueraren lekukotasunen presentzia zehaztea.
- Zuzeneko zundaketatik lortutako emaitzak 90. zenbakiko profil berean geo-radarren bidez egin dako miaketetan lortutako emaitzekin erkatzea.
- Laginak biltzen hastea irekitako ebakiaren inguruko azterketa analitikoak egiteko.

Indusketa lanak 2009ko azaroko hilabete osora luzatu ziren, zailtasunak ugari izan ziren datak ez zirelako egokienak, eguraldia ez gurelako lagun izan (haizeek 100km orduko abiadura gainditu zuten kanpainaren hasieran eta oso agerian dagoen eremuan). Lan hauetan lau arkeologok eta zuzendariak jardun zuten buru belarri.

Jarraian zundaketan dokumentatutako estratigrafia deskribatuko dugu. Irudian ebaki estratigrafikoa ikus daiteke, eta leku berean geo-radarraren bidez (200 MHz-ko antena) lortutako emaitzarekin erkatzen da.

Sln

Humusak hartutako gainazaleko geruza, hareatsu-limotsua, beltzaxka (zoruak sailkatzeko Münsellen kodearen arabera 5Y3/2, «dark olive gray»), 10 eta 20 cm bitarteko lodiera aldakorrarekin, azpiko Sln geruzara hurbildu ahala argitu egiten dena. Harrizko material barreiatu gutxi batzuk eskaintzen ditu: taila lanetatik etorritako hondakin txiki zehaztu gabeak, aro modernoko eta aro garaikideko zeramikazko zatiekien eta beste elementu batzuekin nahasirik.

SIm

Hareatsu-limotsua, marroia (5Y4/4, «olive»), trinkoa, harrizko material kopuru apalarekin, kolpekar

puesta de cada capa de terreno al georadar. En términos generales, puede decirse que la mayoría de estratos observados en el corte responde de forma diferenciada al georadar y son por tanto discernibles en los radargramas. Se observan asimismo anomalías concentradas a diferentes profundidades que deben ser contrastadas por sondeo directo. Nos encontramos aún analizando el gran volumen de información obtenida para establecer una estrategia de contraste de las numerosas anomalías detectadas.

El sondeo estratigráfico

El sondeo estratigráfico se emplazó en el talud resultante de las explotaciones de cantera que afectaron en los años 50 a parte de la duna de Zabaletxe, con los siguientes objetivos:

- Documentar la secuencia estratigráfica completa de la duna hasta la roca base.
- Determinar en esta secuencia la presencia de testimonios de actividad humana.
- Contrastar los resultados del sondeo directo con los obtenidos en la prospección por georadar en su mismo perfil 90.
- Iniciar el proceso de recogida de muestras para las analíticas pertinentes sobre el corte obtenido.

La excavación se llevó a cabo durante todo el mes de noviembre de 2009, con muchas dificultades debido a lo inadecuado de las fechas, con tiempo muy adverso (con vientos que superaron los 100 km por hora en un área muy expuesta a temporales a inicios de la campaña), con un equipo de cuatro arqueólogos y el director.


Describiremos a continuación la estratigrafía documentada en el sondeo. La figura muestra el corte estratigráfico, y su contraste con el resultado del georadar (antena de 200 MHz) en el mismo emplazamiento.

Sln

Nivel superficial húmico, areno limoso negruzco (5Y3/2, «dark olive gray» del código Münsell de suelos), de potencia variable entre 10 y 20 cm, que va aclarando en transición al infrayacente SIm. Aporta material lítico disperso, escaso; restos de talla de pequeño tamaño poco definido, junto con evidencias modernas y contemporáneas en forma de fragmentos de cerámica y otros elementos.

SIm

Areno limoso marrón (5Y4/4, «olive»), compacto, con material lítico en cantidad discreta, algún canto



Ezkerretara Zabaletxeko (Barrika) dunaren estratigrafia; eskuinetara geo-radarrak (200 HMz) leku berean (90. profila) emandako erantzuna.

A la izquierda, estratigrafía de la duna de Zabaletxe (Barrika); a la derecha, la respuesta del georadar (200 MHz) en el mismo emplazamiento (perfil 90).

gisa erabilia izan delako arrastoak dituen errekarrien bat, hareharrizko harri xabal handi batzuk, ikatzak barreiatuak, batez ere 16A laukian; material arkeologikoa eta antrakologikoa desagertu egiten da gainazaletik kontatzen hasita gutxi gora-behera 40 cm-ko sakonera mailan. Diagnostia egiteko halako balioa duelako, aipagarria da xafla nukleo bat, 10A laukian aurkitua. Kurbadura apaleko frontearen nukleo hau biziki erabilia izan dela ikusten da, era eraginkor batez erabilia izan dela (hausturarik gabe), eta bertan nukleoaren osaera oso zaindua dela hautematen da. Ustiatze prozesuaren gaineko kontrol hau oso ohikoa da Holozeno, Mesolito, Neolito eta Kalkolito Historiareko artean baliatzen zuten taila sistemetan. Lehen ere adierazi dugun bezala, materiala gainazaletik gutxi gora-behera 40 cm-ko sakonera desagertzen da, jarraian deskribatuko dugun harea kolorez horiek osatutako paketera hurbildu ahala.

rodado con evidencias de uso como percutor, algunas grandes lascas de arenisca, carbones dispersos, especialmente en el cuadro 16A, material arqueológico y antracológico que desaparece a unos 40 cm de la superficie. Destaca por su cierto valor diagnóstico un núcleo de láminas recuperado en el cuadro 10A. Muestra una explotación intensa y eficaz (sin accidentes) en un frente de escasa curvatura, evidenciando al dorso una cuidada conformación inicial del núcleo. Tal control del proceso de explotación es típico de sistemas de talla ya de la Prehistoria holocénica mesolíticos, neolíticos y calcolíticos. Como hemos mencionado, el material desaparece a unos 40 cm de la superficie, coincidiendo con la transición al paquete de arenas amarillas que a continuación describimos.

Sla

Gainazalaren mailatik kontatzen hasita 40 cm-ko sakonera maila honetatik behera harea limotsuek hori kolorea egiten dute bere (5Y6/4 «pale olive», 2.5Y 7/6 «yellow» mailaren oinean, batez beste 90 cm-ko sakonera mailan), eta material arkeologikoa guztiz urritu edo zeharo desagertzen da. Burdinazko nodulu ilunen presentzia da maila honek duen berezitasun aipagarri bat.

Sla

A partir de estos 40 cm bajo la superficie las arenas limosas viran hacia el amarillo (5Y6/4 «pale olive», hasta 2.5Y 7/6 «yellow» en la base del nivel, a unos 90 cm de media), observándose un enrarecimiento o práctica desaparición del material arqueológico. Una característica peculiar de este nivel es la presencia de micronódulos ferruginosos oscuros.

Sg1

Aurreko maila gutxi asko ukitzen, harea trinkoko maila bat bereizten da, kolorez grisak eta gorrixkak (oxidoen orbanen eraginez; ondorioz honako kolore nahasketa hau gertatzen da: 10YR 6/6 «brownish yellow»). Gutxienez 3 sedimentu ziklok osatutako sekuentzia beten azkeneko maila kolorez grisa da; sedimentuzko pakete horiek, beren aldetik, kolorez grisak dira, homogeenak eta trinkoak. Maila honen goiko aldean sukarran landutako elementu isolaturen bat aurkitu genuen.

Sr-FeO(v)

Harea trinkoak, kolorez gorrixkak (5YR 5/6 «light brown»). Kolore hau biziagoa da erdialdean ugari direlako burdinazko oxidoak esferulito burdintsuetan. Hauek zerrenda bertikaletan agertzeko joera dute (v).

Haren goiko sekzioan tailatutako elementu hondakin isolatu bat aurkitu genuen.

Sg2 (tb)

Harea trinkoak eta grisak (5Y 7/2 «yellowish gray») turbazioak (tb) eragindako orban organiko ilun txertatuekin (5YR 2/2 «dusky brown»); hartatik lagin bat jaso genuen C14ren bidezko datazioak lortzeko. Sekuentzia osoko bigarren maila grisa (erdikoa) da. Ez genuen aztarna arkeologikorik identifikatu.

Sa

Harea kolorez hori laruez osatutako pakete konplexua da, nahasia eta nola landareek hala seguru asko baita animaliek ere eragindako bioturbazio biziak eraldatua izan delako arrasto garbiak ageri dituenak. Harea zuriko maila mehe batek bitan banatzen du geruza hau, eta maila bietan harea grisezko masa globularak bereizten dira. Sabaian, Sa maila honek harea zuriek eraturiko dilistatza meheak erakusten ditu 10A laukiaren mendebaldeko muturrean, eta haren aurreneko 20 zentimetroetan partikula karbonotsu eta organikoen kontzentrazio bat (Sa-c) bereizten da; bertan harrizko elementu arkeologiko isolaturen bat identifikatu genuen. Goiko aldea (Sa sup, 10YR 7/6 «yellow») mendebaldeantx makurtzen da arinki, eta harea zuriez osatutako maila batean (Sb, 10YR 8/2 «white») hartzen du atseden. Maila honetan harea grisezko globulu batzuk bereizten dira, azpiko harea horiek osatutako paketea (Sa inf 2.5Y 7/4 «pale yellow») ukitzen duten katazuloen, animaliek eragindako bioturbazioen (Sa-bim) forma hartzen dutenak. Behe aldeko pakete kolorez hori horrek era berean dilistatza eta harea zuriko orbanak ditu, baita hareazko lerro zuriagoak ere, garai seguru asko epel hartan duna kolonizatuko zuten landareen sustrai sistemaren eraginaren erakusgarri.

Sg1

En contacto más o menos neto se presenta un nivel de arenas compactas grises rojizas (por efecto de manchas de óxidos, y que con su mezcla para el muestreo de color da un tono 10YR 6/6 «brownish yellow»). Se trata posiblemente del último nivel gris de una secuencia de al menos 3 ciclos sedimentarios que parecen culminar con estos paquetes grisáceos homogéneos y compactos. Ha proporcionado algún elemento tallado testimonial aislado en sílex en su parte alta.

Sr-FeO(v)

Arenas de color rojizo compactas (5YR 5/6 «light brown»), tonalidad que intensifica por el aumento muy destacable de óxidos de hierro en esferulitos ferruginosos en su sección central, con tendencia a presentarse en bandas verticales (v).

Se recuperó un resto de talla aislado en su sección superior.

Sg2 (tb)

Arenas grises compactas (5Y 7/2 «yellowish gray») con manchas orgánicas turbosas (tb) oscuras insertas (5YR 2/2 «dusky brown») de las que se recogió una muestra para datación por C14. Se trataría del segundo nivel gris (central) de la secuencia completa. Sin evidencias arqueológicas.

Sa

Se trata de un complejo paquete de arenas amarillentas pálidas con evidencias de removilizaciones y bioturbaciones intensas, por vegetación y probablemente por animales. Un delgado nivel de arenas blancas divide el estrato en dos, y en ambos se encuentran masas globulares irregulares de arenas grises. A techo, Sa muestra lentejones delgados de arenas blancas en el extremo occidental del cuadro 10A, y en sus primeros 20 centímetros presenta una concentración de partículas carbonosas y orgánicas (Sa-c) que ha librado algún elemento lítico arqueológico aislado. El paquete superior (Sa sup, 10YR 7/6 «yellow») buza ligeramente hacia el oeste, y se apoya en un nivel de arenas blancas (Sb, 10YR 8/2 «white») penetrada por glóbulos de arenas grises, que toman aspecto al corte de madrigueras, de bioturbaciones animales (Sa-bim) que afectan al paquete de arenas amarillas inferior (Sa inf 2.5Y 7/4 «pale yellow»). Éste presenta también lentejones y manchas de arenas blancas, y líneas de arenas más claras testimonio de la red radicular de la vegetación que colonizó la duna en este momento de su formación, probablemente templado.

Pakete hau guztia azpiko mailan eragiten duen higadura-geruza garbi baten gainean egokitzen da, ebakiaren ezkerreko (mendebaldea) muturrean izan ezik. Bertan, sabaitik oinetara, sekuentzia mehe bat (20 cm-koa) bereizten da, harea zuriek (Sb), marroiek (Sm) eta zohikatz beltzek osatutako paketeak (Sn) eratua, erdialdean harea zuriko lerro mehe bat duela. Itxura guztien arabera, higadurak eta bioturbazioek eragin gabeko sekuentzia da.

Sg3-FeO (I)

Sabaian arestian azaldu dugun moduan higaturik, harea grisek osatutako pakete bat bereizi genuen (sekuentzian hirugarrena, Sg3, 10YR 7/2 «light grey»). Pakete hau burdinazko oxidoek guztiz eraginda zegoen, Liesegang (I) eratzun sorta ederra eratu. Arkeologiaren ikuspuntutik guztiz antzua da maila hau.

Asm-FeO (I)

Gutxi gora-behera -690 kotan (gainazaletik kontatzen hasita 4 metro eskasera), harea grisezko paketera buztinak biltzen dira era nagusi batean, hauek gero eta dentsitate handiagokoak, trinkoagoak, dira, baina kontserbatu egiten dute zain gorri marroia, baita morea ere (buztintsu-hareatsua, kolorez marroia, 10YR 5/8 «yellowish brown»). Zenbat eta gehiago sakondu orduan eta trinkoagoa da, eta buztin grisak agertzen hasten dira; aldi berean, arian-arian desagertu egiten dira oxido zainak, eta forma horizontalak hartzen dituzte. Antzua da arkeologiaren ikuspuntutik.

Asgc (Casg)

Gutxi gora-behera -812 kotan (gainazaletik kontatzen hasita 5,30 m-ko sakone mailan) buztin grisezko maila trinko bat agertzen da, dilista txikien gisako hareekin (10YR 7/2 «light gray»). Maila honetan oso ugari dira berezko sukarrak, tailatutako piezekin nahasiak, batera bolumeneko frakzio nagusia osatzen dutenak (Casg). -8,47 kotan (gainazaletik kontatzen hasita 5,50 m-ko sakonera mailan) oinarriko harritik edo haren erregolotik deskonposatutako margazko geruzaren gainean egokitzen da maila hau.

Maila honetan berreskuratutako industria izaerako aztarnak ugari dira 20-30 cm bitarte lodien pakete batean eta metro koadroko azaleran. Hondakin gehienak (60 baino gehiago) laskak eta bertako sukarraren laska zatiak dira (kuartzitazko laska zati bat izan ezik), baina aipagarri ere dira ukitutako 13 pieza: 5 denticulatu, 4 pieza lakar zehaztu gabe eta 4 karraskailu (1 amortizatutako nukleo batean landua, 1 zeharra eta karenatua, 1 albokoa eta era berean karenatua eta 1 albo laua duena).

Karraskailuetako baten euskarriarenak egiten dituen nukleoak joera zentripetoko lasken ustiapena uzten du agerian, haren gainean berau amortizatzen

Todo el paquete se apoya sobre un contacto erosivo neto que afecta al nivel subyacente, salvo en el extremo izquierdo (oeste) del corte, donde se observa una corta secuencia (20 cm), de techo a muro, de arenas blancas (Sb), marrones (Sm) y un paquete turboso negruzco (Sn) con una delgada línea de arena blanca central. Su apariencia es que se trata de la secuencia no afectada por erosión o bioturbación.

Sg3-FeO(I)

Erosionado a techo como se ha descrito, hallamos un paquete de arenas grises (el tercero de la secuencia, Sg3, 10YR 7/2 «light grey»), completamente afectado por óxidos de hierro en un bello juego de anillos de Liesegang (I). Arqueológicamente estéril.

Asm-FeO(I)

En torno a la cota -690 (a algo menos de 4 m de la superficie) el paquete de arenas grises incorpora arcillas predominantes que aumentan considerablemente su densidad y compacidad, conservando el vetado rojizo marrón o incluso violáceo (arcillo arenoso marrón, 10YR 5/8 «yellowish brown»). A medida que se profundiza se torna más compacta y aparecen intrusiones de arcillas grises, y las vetas de óxido tienden a desaparecer y a adoptar formas horizontales. Estéril.

Asgc (Casg)

En torno a la cota -812 (a 5,30 m de la superficie) aparece un compacto nivel de arcillas grises con arenas en pequeños lentejones (10YR 7/2 «light gray»), con abundantísimos cantos de sílex natural mezclados con industrias talladas, que en conjunto tienden a constituir la fracción predominante en volumen (Casg). Apoya en la cota -8,47 (a 5,5 m de la superficie) sobre margas descompuestas de la roca base o su regolito.

Las evidencias industriales recuperadas en este nivel pueden calificarse como muy densas, en un paquete de 20-30 cm de espesor y en 1 m cuadrado de superficie. La mayor parte de los restos (más de 60) son lascas y fragmentos de lasca de sílex local (salvo un fragmento de lasca de cuarcita), y 13 piezas retocadas: 5 denticulados, 4 abruptos indiferenciados y 4 raederas (1 sobre núcleo amortizado, 1 transversal carenada, 1 lateral también carenada y 1 lateral plana).

El núcleo que sirve de soporte a una de las raederas muestra una explotación de lascas de tendencia centrípeta, sobre la que se superpone el retoque

duen ukitua nagusitzen da. Seguru asko azken garaiko Mouster aroko industria iradokitzen du multzoak, dunaren oinean hartzen duen lekuak, gainazaletik kontatzen hasita 5,5 metroko sakonera mailan, horixe iradokitzen baitugu.

que lo amortiza. El conjunto apunta a una industria musteroide, de cronología muy probablemente antigua, a tenor de su posición en la base de la duna y bajo 5,5 m de estratigrafía.

M. Aguirre

B.6. BERMEO

B.6.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.6.1.1. **Lope Díaz de Haro kalea-Lamera. Zerbitzuen urbanizazioa eta berritzea**

Zuzendaritza: Sonia Aníbarro Sánchez
Finantzazioa: Bermeosolo S.A.

B.6.1.1. **Calle Lope Díaz de Haro-Lamera. Urbanización y renovación de servicios**

Dirección: Sonia Aníbarro Sánchez
Financiación: Bermeosolo S.A.

Excavation using an archaeological methodology consisting of a series of sondages followed by the monitoring of the works carried out, during which different structures were discovered corresponding to the diverse phases of the Bermeo pier in this area of Artza port or Puerto Mayor.

Esku-hartze honetan eta metodologia arkeologikoa baliaturik, bost zundaketa eta luze-zabaleran garatutako indusketa bururatu genuen eremu bitan; era berean, kontrol lan zorrotzak egin genituen obrek aurrera egiten zuten neurrian.

Ireki beharreko lubakiaren bideko hainbat puntutan zehar bururatu genituen proiektaturiko esku-hartzeak, *a priori* interes arkeologiko handiena piztu zezaketen guneetan. Dokumentazioaren arabera hiriko Erdi Aroko harresian irekitako ate edo sarrerak zeuden aldeetan luze-zabaleran induskatu beharreko bi eremu bereizi genituen, San Migel (1. eremua) atari leku egingo zion eremua eta Gerra (2. eremua) atari egingo ziona. Bost zundaketak, berriz, proiektatutako lubakiaren bideko beste hainbeste puntutan egin genituen aurkitu genitzakeen egituren garapena eta plano dokumentatu ahal izateko. Esan beharra dago ukitu beharreko alde hau osoa aski nahasita dagoela nola xix. mendean zehar bururatutako lanen eta zorupean eraikitako estolderia nahiz ur hornidurarako azpiegituren hala xx. mendean, eta baita xxi. mendean ere, alde honetan egokitutako zerbitzuen ondorioz.

Ireki beharreko lubakia Lamera Parkeari begira dauden etheen lerroaren paraleloan garatuko zen, Prantzizko Deunaren Atea (garai batean Portu Nagu-

Intervención desarrollada en base a la excavación mediante metodología arqueológica de dos áreas en extensión y cinco sondeos; así como el control realizado durante el desarrollo de las obras.

Las intervenciones proyectadas se ejecutaron en diferentes puntos a lo largo del trazado de la zanja a realizar, eligiéndose las localizaciones que a priori presentaban mayor interés arqueológico. Se proyectaron dos áreas a excavar en extensión en las zonas donde la documentación señala la presencia de los accesos abiertos en la cerca medieval de la villa, concretamente en la zona en la que se situarían el portal de San Miguel (Área 1) y el de la Guerra (Área 2). Los sondeos, en número de cinco, se plantearon en diversos puntos del trazado de la zanja proyectada, con la intención de documentar el desarrollo y trazado de las estructuras susceptibles de ser localizadas. Es necesario destacar que toda la zona a intervenir se encuentra bastante alterada por la introducción de servicios y diferentes obras realizadas desde el siglo xix, con la implantación de la red de alcantarillado y suministro de agua, hasta los servicios introducidos durante el siglo xx e incluso xxi.

Las obras ejecutadas consistían en la realización de una zanja que discurría paralela a la línea de fachada de las casas que se abren al Parque Lamera, y

sia izenaz ezagutzen zen kaleak izango zuen bideari jarraituz) kalean barrena luzatuko zen eta Prantzisko Deuna, Eskinarruaga, Arresia eta Segundo Ispizua kaleek bat egiten duten bidegurutzeraino iritsiko zen. Azken atal honetan itxaropen handiak genituen hiribildua inguratzen zuen harresiaren atalen bat topatzeko, 2005. urtean³² J.A. Lecandak Eskinarruaga kaleko 5. zenbakiko orubean burura eramandako indusketa lanetan harresiaren atal bat dokumentatu baitzuen. Gainera, bertako stratigrafiaren garapena oso bestelakoa izango zela aurreikusten genuen, Lamera parkea XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran itsasoari kendutako espazioan egokitzen baita.

Zoritxarrez, ez ziren gure itxaropenak bete, kronologikoki eta tipologikoki zehazten zail diren horma atal batzuk bereizi ditugun arren ez dugulako horiek hiriko harresiarekin identifikatzeko aukera emango ligukeen argudio sendorik, identifikatutako horma atalak kontserbazio egoera oso kaskarrean daudelako eta atal horiek osorik dokumentatzea ezinezkoa delako (2. eremuan eta 5. zundaketan). J.A. Lecandak Hiriko harresiko horma atal hartutakoari begira egiten duen deskripzio morfologikoarekin guztiz bat datorren horma atal bat identifikatu genuen 1. eremuan, baina puntu honetan egonik ezinezkoa da aipatutako harresiaren atal bat izatea.

Aurreikuspenen arabera, Lamera Parkeak hartzen duen eremu osoan topatuko genuen Portu Nagusiko kai zaharra, itsasoari irabazitako espazioa baita. Agian kaia ez baizik eta kaiak izan beharko genituzke hizpide, seguru asko hainbat nasak eratutako kai-lerroko egiturak identifikatu baikenituen. Kontua da funtsean bi horma mota aurkitu ditugula: lehenengoa metro bete baino lodiagoa, eta bigarrena 0,7 eta 0,8 metro bitarte lodi.

Lehenengo horma alderik urrunenean dago (etxeen fatxadek osatutako lerrotik urrunen), eta puntu batzuetan kanpoko horma hori eta beste txikiago bat topatu ahal izan ditugu barrurago, etxeen lerrotik gertuago. Horregatik pentsatu genuen barrurago atxatutako horma hori harresia bera izan zitekeela, baina barruko horma honi atxikirik nasara jaisteko eskailera bat aurkitu genuenean argi eta garbi ikusi genuen kai baten hormaren aurrean ginela.

Kontua da kanpoko kaia XIX. mendearen erdialdeko urteetan bururatutako obren emaitza izan daitekeela, izan ere, urte horietan Portu Nagusiko kalea birmoldatu eta gurdien joan-etorrietarako egokitu zuten. Xede horretan kalea zabaldu beharko zuten, eta ez da erokeria kalea kanpoko alderantz zabalduko zutela pentsatzea, itsasoari espazioa kenduz, eta horretarako kai berri bat eraiki beharko zuten.

Aurreko kaiaren kronologia zail da zehazten, oraingoz ez baitugu haren eraikuntzaren data adieraziko ligukeen idatzizko erreferentziarik bat ere aurkitu. Hala

³² Lecanda J.A.: «Eskuinarraga 5 (Bermeo)» ARKEOIKUSKA 2005 334. or.

se prolongaba por la calle Prantzisko Deunaren Atea (siguiendo el trazado que tendría la anteriormente conocida como calle del Puerto Mayor), hasta la confluencia de las calles Prantzisko Deuna, Eskinarruaga, Arresia y Segundo Ispizua. En este último tramo las expectativas de localizar la muralla que circundaba la villa eran importantes, habida cuenta de que en la excavación llevada a cabo por J.A. Lecanda en Eskinarruaga 5 en el año 2005³² se documentó un tramo de ésta. Además el desarrollo stratigráfico de esta zona se preveía muy diferente, ya que en el parque Lamera nos encontramos en un espacio ganado al mar a fines del XIX y principios del XX.

Tristemente, nuestras expectativas no llegaron a materializarse, ya que si bien, se han localizado varios paramentos de difícil adscripción crono-tipológica, carecemos de argumentos que nos permitan asimilarlos con la muralla de la villa, al hallarse en muy mal estado de conservación y resultar imposible su documentación completa (caso del Área 2 y sondeo 5). En el Área 1 se localizó un paramento cuyas características morfológicas son idénticas a las descritas por J.A. Lecanda para el paramento interpretado por él como la muralla de la Villa, pero su ubicación la descarta como tal.


La localización del antiguo muelle del Puerto Mayor se hacía previsible en toda la zona del Parque Lamera, ya que nos hallamos en un espacio ganado al mar. Quizá debiéramos hablar de los muelles, ya que encontramos diferentes estructuras que muy probablemente se correspondan con distintas líneas de muelle. Lo cierto es que básicamente se han localizado dos tipos diferenciados de muro: el primero con un grosor superior al metro y el segundo con un grosor variable de entre 0,7 y 0,8 m.

El primero de los muros se localiza en la zona más exterior (entendiendo por exterior la zona más alejada de las fachadas de las casas), y en algunos casos ha sido posible localizar este muro exterior y otro de menor envergadura al interior. Ello nos llevó a plantearnos la posibilidad de que el muro situado al interior se correspondiera con la muralla, pero la localización de una escalera de bajada al puerto en relación con éste muro interior nos demostró que nos hallábamos ante el muro de un muelle.

Lo cierto es que el muelle exterior bien podría corresponder con la obra llevada a cabo en los años centrales del siglo XIX cuando se arregla la calle del Puerto Mayor y se decide hacerla transitable para los carros. Ello conllevaría el necesario ensanchamiento de la calle por lo que no es descabellado pensar que se ensanchara hacia el exterior, ganando terreno al mar, para lo que habría de construirse un nuevo muelle.

La cronología del muelle anterior es difícil de establecer ya que por el momento no hemos encontrado ninguna referencia documental que nos indique la fe-

³² Lecanda J.A.: «Eskuinarraga 5 (Bermeo)» ARKEOIKUSKA 2005 pag. 334.



Lope Díaz de Haro kalea -Lamera. Aztertutako eremuen kokalekua.

Calle Lope Díaz de Haro-Lamera. Localización de las zonas de intervención.

eta guztiz ere, badugu Portu txikiko (soilik neurrietan oinarritutako irizpideei erantzuten die izen honek, hiriko portu nagusia izan baitzen xix. mendeko aurreneko hamarraldietan) azpiegiturei buruzko informazioa. Badakigu 1353. urtean portu honek ez zuela hormarik ez eta nasarik ere, xv. mendearen azken urteetakoak baitira gisa honetako obrei buruzko aurreneko aipamenak. Horregatik uste dugu Portu Nagusia edo Artza izenaz ezagutzen den portuko azpiegiturak garai bertsuan edo agian geroxeago eraikiko zituztela. Azken batean ezin dugu Artzako alde honetan egokitzapen lan hauek noiz bururatu zituzten zehaztasunez jakinarazi, baina guk uste dugu aro modernoan bururatu zituztela.

Ezin bazterrera utzi dezakegu lan hauek burura eramateko garaian topatutako hiriko estolderia sistemari atxikiriko egitura ugarien dokumentazioa. Gehienak urak bideratzeko kanalak dira, paraleloan luzatutako hormatxoek eratuta, hormak harlandu txikiz eginak, harri xabalez estaliak. Galeria edo kanal hauek xix. mendearen bigarren hamarraldian hasi ziren instalatzen eta hirigune osora eraman ziren xix. mendean zehar. Horietatik asko eta asko gaur egun ere erabiltzen dira.

1. zundaketan Portu Nagusia kalea estaltzen zuen zoladura osatuko zuen enkatxoaren atal bat dokumentatu ahal izan genuen. Seguru asko xix. mendearen erdialdera bururatutako birmoldatze lanen emaitza da. Kontua da soilik puntu honetan dokumentatu genuela gisa honetako zoladuraren hondakinak, ustez gerok aztertutako eremu guztian azaldu behar zuten.

Bukatzeko, hiriko harresian irekitako ateei legokiekeen testuinguru bakar bat ere ez dugula dokumentatu esan behar dugu. Dokumentazioari esker badakigu hiriko behe alde honetan gutxienez hiru sarrera zeudela: San Frantzisko atea, San Migel atea eta Gerra atea, baina agerian utzitako testuinguruetatik bakar batek ere ez du horiekin inolako loturarik.

Gisa berean, aipagarria da berreskuratutako material arkeologikoaren urria. Izan ere, induskatutako depositu gehienak dokumentazioaren arabera hiribildutik kanpoko legar hobietatik ekarritako betegarriak dira.

Behin betiko memoria artean osatu gabe dugun arren, esku-hartze honetan iritsitako konklusioek iradokitzen dute fatxaden lerroa aurreratu egin zutela espazio publikoa okupatuz, hiriak itsasoari espazioa kendu zion modu bertsuan. Beraz, hiribilduko harresia egungo etxadien azpian egongo da, fatxadak Lamera parkeari begira duten etxeen azpian. Hiriko alde honetan eta etorkizunean bururatuko diren esku-hartzeek informazioa osatzen lagunduko digutelakoan gaude.

cha de su construcción. Sin embargo, si que disponemos de información sobre las infraestructuras del Puerto Menor (denominación que obedece únicamente a criterios basados en el tamaño, ya que hasta bien entrado el siglo xix sería el puerto principal de la villa.). Por ella sabemos que en 1353 no disponía de fábrica ni muelles, y las primeras referencias a obras de este tipo no se recogen hasta los años finales del siglo xv. Por ello creemos que las infraestructuras del llamado Puerto Mayor o Artza se desarrollarían por estas mismas fechas, aunque quizá sea más acertado atribuirles una datación más tardía. No podemos, en definitiva, asignar una datación concreta para la realización de estas obras de acondicionamiento en la zona del Artza, aunque creemos acertado situarlas en la época moderna.

No podemos obviar la documentación de numerosas estructuras atribuibles al sistema de alcantarillado de la villa que se han localizado durante la realización de los presentes trabajos. Se trata en su mayoría de galerías de conducción de aguas realizadas mediante un doble levante paralelo de sillarejo cubiertas con lajas. Estas galerías comenzaron a instalarse en la segunda década del siglo xix y se desarrollaron por todo el casco urbano durante todo el siglo xix, siguiendo muchas de ellas aún hoy en uso.

En el sondeo 1 se pudo documentar parte de un pavimento encachado que podría corresponderse con el pavimento que cubriría la calle del Puerto Mayor, probablemente el resultante de la reforma realizada a mediados del xix. Lo cierto que es el único punto en el que se documentaron restos de este tipo de pavimento, que en un principio, debía cubrir toda la zona intervenida.

Para finalizar nos gustaría destacar que no se han documentado contextos atribuibles a los accesos abiertos en la muralla de la villa. Por documentación conocemos que en esta zona baja de la población se localizaban al menos tres accesos: el portal de San Francisco, el de la San Miguel y el de la Guerra, pero no ha sido posible poner en relación ninguno de los contextos exhumados.

Del mismo modo, nos gustaría subrayar la escasez de materiales arqueológicos recuperados, hecho explicable al tratarse la mayoría de depósitos excavados de depósitos de relleno procedentes según la documentación de graveras de los exteriores de la villa.

Las conclusiones obtenidas en esta intervención, a la espera de la realización de la memoria definitiva, apuntan la idea de un adelantamiento de las fachadas que, del mismo modo que la villa arrebató terreno al mar, invadieron el espacio público. Por lo tanto, la muralla de la villa se hallaría soterrada bajo las manzanas actuales que abren sus fachadas al parque Lamera. Esperamos que intervenciones futuras en esta zona de la villa ayuden a completar la información al respecto.

B.7. BILBAO

B.7.1. **Saneamendu lanak Bilbo Zaharrean**

Zuzendaritza: Mikel Neira Zubieta
Finantzazioa: SURBISA

B.7.1. **Obras de saneamiento en Bilbao La Vieja**

Dirección: Mikel Neira Zubieta
Financiación: SURBISA

This intervention failed to produce any results of interest.

Bilbo Zaharra auzoan, ibaiaren eskuinaldean, saneamendu sarea instalatzeko lanak tarteko, kontrol arkeologiko zorrotz bat egin genuen. Emaitzak ez ziren batere garrantzitsuak izan historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik, eta agortu egin dira aztertutako lekuetan beste ikerketa bat egiteko aukerak oro.

Se ha llevado a cabo un control arqueológico con motivo de las obras para la instalación del saneamiento en el barrio de Bilbao La Vieja, en la margen derecha de Bilbao, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, agotando la posibilidad de nueva investigación en las zonas intervenidas.

M. Neira Zubieta

B.8. DIMA

B.8.1. **Baltzola**

II. indusketa kanpaina
Zuzendaritza: Lydia Zapata
Diru-laguntza emailea: Bizkaiko Foru
Aldundia, UPV/EHU

B.8.1. **Balzola**

II Campaña de excavación
Dirección: Lydia Zapata
Subvención: Diputación Foral de Bizkaia, UPV/EHU

Since 2008, and following two years of sondages, we have been carrying out a year-on-year excavation project focusing on the archaeological sequence conserved in the upper zone of the cave, containing stratigraphic units corresponding to the Palaeolithic and Mesolithic. The 2009 season of excavations focused mainly on stratigraphic unit num. 6, dating from the Late - End Magdaleniense / Aziliense era. The unit is of great archaeozoological and taphonomic interest due to the high concentration of macro-vertebrate animal fossil remains, with evidence of intense use of the fauna by human groups.

Baltzolako aztarnategiaren interes arkeologikoa eta kontserbazio egoera orokorki baloratzeko xedean, 2006. eta 2007. urteetan zundaketa mekanikoak eta arkeologikoak bururatu genituen, eta halako interes arkeologikoa zuten bi eremu bereizi ahal izan genituen: bata, leizearen beheko partean, non Historiaurreko azken garaietako testuinguruei dagozkien zeramikak gordetzen zituzten unitate estratigrafikoen sekuentzia bat identifikatu genuen, eta bestea, leizearen goiko partean, «El Redil» (Artegia) izenaz ezagutzen den aldean, non Paleolito-Mesolito aroetako kronologia duten 12 unitate estratigrafiko eta nahasketak

Con el objetivo general de valorar el interés arqueológico y el estado de conservación del yacimiento de Balzola, durante los años 2006 y 2007 se realizaron campañas de sondeos mecánicos y arqueológicos que permitieron definir dos zonas de interés arqueológico: una situada en la zona baja de la cueva donde se definió una secuencia de unidades estratigráficas con cerámica correspondientes a contextos de Prehistoria reciente, y otra en la zona superior de la cueva, también conocida como «El Redil», con 12 unidades estratigráficas de cronología Paleolítico-Mesolítico y otras unidades estratigráficas super-

eta material modernoagoak biltzen dituzten azaleko beste unitate estratigrafikoak bereizi genituen.

Datozen lau urteetan segida izango duen indusketa proiektu bat abiarazi genuen 2008. urtean metodologia eta azterketa lan berriak aplikatuta, Kantauri aldeko Lurraldeko Paleolito aroa ezagutzeko orduan Baltzolako leizeak eskaintzen duen aniztasun eta potentzialitate handiko materiala erregistratzeko xedean. 2008. urteko aurreneko indusketa kanpaina hau azkeneko Goi Madalen aldiko – Azil aldiko sekuentziara mugatu genuen, ^{14}C AMS datazioen arabera 12440 ± 60 BP (7. unitate estratigrafikoa) eta 10270 ± 60 BP (9. unitate estratigrafikoa) datak eskaintzen dituen sekuentziara.

2009. urteko kanpainak segida eman dio 2008. urtean abiarazitakoari, eta 6. eta 16. unitate estratigrafikoak sakontzen eta induskatzen jarraitu genuen AE54, AE55, AF55 eta AG55 laukietan eta 2,5 m bider 2 m-ko gainazalean, ipar-ekialdetik hego-mendebaldera nabarmen makurtzen den gainazalean. Indusketa lanen xede nagusia izandako 6. unitate estratigrafikoan iritsitako kota gorenak 98,40 metrotara iristen dira mendebaldeko muturrean eta 88,20 metrotara ekialdeko muturrean, betiere Bizkaiko Foru Aldundiari emandako topografian.

6. unitate estratigrafiko hau lodiera handiko geruzada, granulometria oso fineko sedimentu hareatsu zurrikak osatua, sedimentu harroa eta idorra, kareharrizko klasto eta hareharrizko kosko askorekin. Material hauen deskonposizioa eragiten duten temperatura aldaketak bizi ditu geruzak honek. Unitate estratigrafiko

ficiales que incluyen alteraciones y materiales recientes.

En 2008 inauguramos un proyecto de excavación plurianual a 4 años vista con el objetivo de recuperar, a partir de la aplicación de metodologías y análisis de trabajo novedosos, el registro material de gran variabilidad y potencial que ofrece la cueva de Balzola para el estudio del Paleolítico de la Región Cantábrica. Esta primera campaña de excavación de 2008 se centró en la secuencia Magdaleniense Superior Final - Aziliense definida culturalmente a partir de dataciones de ^{14}C AMS que se sitúan entre 12440 ± 60 BP (Unidad estratigráfica 7) y el 10270 ± 60 BP (Unidad estratigráfica 9).

La campaña de 2009 supone una continuación del trabajo iniciado en 2008 y se centra en la excavación en profundidad de las unidades estratigráficas 6 y 16 en los cuadros AE54, AE55, AF55 y AG55 a lo largo de una extensión superficial de 2,5m x 2m cuadrados que buza claramente en dirección NE-SW. Las cotas máximas alcanzadas para la UE 6, en el que se ha centrado la excavación principalmente, son de 98,40 m en el extremo W y de 99,20 m en el extremo E según la topografía entregada a la Diputación Foral de Bizkaia.

La unidad estratigráfica 6 es un estrato de gran potencia caracterizado por un sedimento arenoso blanquecino de granulometría muy fina, muy suelto y seco, con abundantes clastos calizos y cantos de areniscas que presenta alteraciones térmicas que dan lugar a la descomposición de estos materiales. El re-



Balzola. Indusketa eremuaren ikuspegi orokorra, aurrean 6. unitate estratigrafikoa agerian duen AE54 laukia eta AE55, AF55 eta AG55 laukiak.

Balzola. Vista general del área de excavación con la unidad estratigráfica 6 en los cuadros AE54 en primer término y los cuadros AE55, AF55 y AG55.

honetara bildutako materialen artean aipagarri dira ornodun handien hondakinen kontzentrazio handia eta, neurri apalago batean, harrizko tresna hondakinen multzoa. Artean induskatzen amaitu gabe dugun 6. unitate estratigrafiko hau ezin izan dugu erradiokarbonoaren bidez datatu, igorritako hezurrek galdua dutelako kolagena. Aitzitik, 6. unitate estratigrafiko hau estratigrafiaren ikuspuntutik 7. eta 8. unitate estratigrafiko datadunen artean egokituta dagoenez, Azil aldieren eta azkeneko Goi Madalen aldiaren arteko arku kronologikoan kokatu behar dugu.

16. unitate estratigrafikoa, xumeagoa, 6. unitate estratigrafikoa ebakitzen duen ebakiak hartzen du. Dilistatzar baten itxura du, sedimentu hareatsu gorriak osatua, idorra, pikor oso finekoa eta harroa, neurri ertaineko klastoekin. 6. unitatean azaldutakoekin alderatuta, askoz ere urriagoa da hezur hondakinen presentzia 16. unitate honetan.

2009. urteko kanpainan berreskuratutako materialen guztizkoaren %94 ornodun handien hezur hondakinak dira (hezurrak, adarra eta hortza), espezie nagusia oreina. %6 baizik ez dira harrizko hondakinak, sukariak nagusi, baina baita lutita, zeramika eta errekarriak ere. Fauna hondakinen presentzia nagusia aintzat hartuta, 60.000tik gora elementu berreskuratutako guztiak, induskatutako lauki guztietako hezur multzo esanguratsuenekin burura eramandako lehen azterketa tafonomikoen emaitzak aurreratuko ditugu hemen. Fauna hondakinak aski puska txikitik ageri dira, eta harpeek berezko dituzten nahasketa tafonomiko naturalen eragin handia, uraren presentzia, heze-aldi eta lehortealdiak, tenperatura aldaketak, bakterioen eta landareen sustraien eragina eta beste hautematen da 6. unitate estratigrafikoaren osieran. Hala eta guztiz ere, hezurren multzoaren parte baten zatikatze handia eta kontserbazio egoera kaskarra, materiala desegituratuta baitago, korrosioak hartuta, ez dira eragozpen hezurren multzoaren azterketa anatomikoa, taxonomikoa eta tafonomikoa egiteko. Azterketa horiek bururatu ari dira une honetan, eta emaitzek aukera emango dute interpretazio paleoambientalak eta paleoekonomikoak egiteko eta Balzolak depositu arkeologikoaren osakeraren sekuentzia zehazteko.

Hondakinak oso zati txikitik ageri dira. Batetik, 6. unitate estratigrafikoa osatzen duen metaketaren ondorioz, hezurak ezkutatu egiten baitira unitate estratigrafikoaren makurdurak eragindako pendizera egokitzen diren klastoen gibelean eta ez baitago sedimentuzko betegarririk. Honenbestez, teilakatze fenomenoak eta deposizio osteko ustezko zatikatzeak gertatuko ziren. Bestetik, burura eramandako azterketa tafonomikoek iradokitzen dute zatikatze horren parte handi bat giza taldeek abereak guztiz aprobetxatu izanaren emaitza direla. Halatan, esan dezagun azaleko elikagaiak (larrua, okela, odola, gantza eta beste) ez direla gutxi morfologia askotako ebaki arrastoetan (ebakiak, karrakatzeak), betiere okela bereizteko harrizko tresnak erabili zituzten helburuen arabera. Era berean, hezurren baitako elikagaiak, hezur muina,

gistro material de esta unidad estratigráfica se caracteriza por una alta concentración de restos de fauna de macrovertebrados y en menor medida de restos líticos. Esta UE 6, aun por concluir de excavar, no ha podido ser datado por radiocarbono a falta de colágeno en los huesos enviados, sin embargo su localización estratigráfica entre dos unidades estratigráficas datadas, UE 7 y UE 8, lo sitúan en una horquilla cronológica entre el Aziliense y el Magdaleniense Superior Final.

La unidad estratigráfica 16, de menor entidad, se corresponde con una fosa que corta la unidad estratigráfica 6 y que se presenta a modo de lentejón de sedimento rojizo arenoso, seco, de grano muy fino y suelto con clastos de mediano tamaño. La presencia de restos óseos proporcionalmente es mucho menor.

De la totalidad del registro material recuperado en la campaña de 2009 el 94% está representado por restos óseos de macrovertebrados (hueso, asta y diente) con el ciervo como especie predominante, frente a un 6% correspondiente a restos líticos, principalmente sílex, pero también lutita, cerámica y canto rodado. Considerando la presencia mayoritaria de los restos de fauna con más de 60.000 elementos recuperados, adelantamos aquí algunas observaciones tafonómicas de carácter preliminar realizadas sobre una parte del conjunto fósil representativo de todos los cuadros excavados. El grado de fragmentación de los restos de fauna es considerable y se aprecia una alta incidencia de alteraciones tafonómicas naturales características de medios cavernarios que ponen de manifiesto la presencia de agua, ciclos de humidificación y desecación, cambios de temperatura, actividad bacteriana y de raíces de plantas, etc. en la formación de la unidad estratigráfica 6. Sin embargo, la fragmentación y el estado de conservación en forma de desestructuración material y corrosión de una parte del conjunto fósil no impide la realización de análisis anatómico, taxonómico y tafonómico del conjunto fósil, trabajos actualmente en curso que permitirán hacer interpretaciones paleoambientales y paleoeconómicas, así como definir la secuencia de formación del depósito arqueológico de Balzola.

La fragmentación de los restos se entiende por un lado por el tipo de acumulación en la unidad estratigráfica 6 donde los huesos se solapan con los clastos a favor de la pendiente producida por el buzamiento de la unidad estratigráfica y en ausencia de un relleno sedimentario dando lugar a fenómenos de imbricación y a posibles fragmentaciones postdeposicionales. Por otro lado, las observaciones tafonómicas realizadas sugieren que una parte importante de esta fragmentación se debe al máximo aprovechamiento de los animales por parte de los grupos humanos. Así, podemos decir que el acceso a los nutrientes externos (piel, carne, sangre, grasa, etc.) está bien representado en las marcas de corte de diferente morfología (tajos, incisiones, raspados) según la finalidad con la que se han utilizado las herramientas líticas en



Baltzola. AF55 laukian aurkitutako hezur luze baten zatia, berariaz hautsia izan zelako arrastoekin. Beheko marrazkian, kolpearen arrastoa eta hausturaren ertzean kontserbatutako printza parasitoa biak.

Baltzola. Evidencias de fracturación en un fragmento de hueso largo procedente del cuadro AF55. El dibujo inferior recrea la huella del impacto y las dos esquirlas parasitas conservadas en el borde de fractura.

aprobetxatuta daude, hezur batzuk kolpatuta izan direlako arrastoak ageri baitituzte, eta kolpe arrastoak ageri ere baitituzte hezur batzuek azalean, haietan zuzeneko haustura iradokitzen duten kolpeak eta perkusio konoak eta hezur printza parasitoak bereizten baitira. Gainera, ugari dira haustura kurbatuak eta oso luzeak ageri dituztenak, hezur luzeak artean fresko zeudela hautsi izanaren erakusgarri.

Baltzolako fosilak eraldatu dituzten nahasketa antropiko eta ez antropiko hauen guztien ondorioz sortutako eragin mailaren gaineko balorazioak, lagin handiago batetik abiatutako multzoaren azterketa eskatzen du, aldagai biologikoak eta geologikoak eraldatzeko agenteen, prozesuen eta mekanismoen eta erregistro fosila osatu zeneko baldintza mikroambientalen eragina egokiro interpretatu ahal izateko

Baltzolako leizean lehendik bururatutako eskuhartze arkeologikoetan egin bezala, induskatutako eremua guztiz estali genuen ehunezko sare batekin eta poliespan, harri eta gainazaleko sedimentuez betetako zakuekin. Honenbestez, jarduera arkeologikoari ekin baino lehen zegoen bezala utzi genuen leizearen gainazala.

la consecución de las diferentes labores de carnicería. Igualmente el acceso a los nutrientes internos de los huesos, la médula ósea, viene dado por la presencia de evidencias de fracturación en forma de percusiones en la superficie de los huesos así como de impactos, esquirlas parásitas y conos de percusión que sugieren una fracturación por percusión directa. A estas evidencias se suma la presencia frecuente de fracturas curvas y longitudinales de gran recorrido características de una fracturación en fresco de los huesos largos.

La valoración del grado de incidencia de todas estas alteraciones, tanto antrópicas como no-antrópicas, que han modificado los fósiles de Baltzola, requiere de un estudio conjunto a partir de una muestra mayor que permita interpretar la incidencia de los agentes, procesos y mecanismos de alteración biológicos y geológicos y las condiciones microambientales en las que se formó el registro fósil.

Al igual que en anteriores intervenciones arqueológicas en la cueva de Baltzola, la zona excavada se ha cubierto en su totalidad con geotextil, sacos de poliespán, piedra y sedimento superficial. El resultado final es una superficie igual a la que existía antes de la realización de la actividad arqueológica.

B.9. DURANGO

B.9.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.9.1.1. **Barrenkale, 15**

Zuzendaritza: Unai Aurrekoetxea
Fernández
Finantzazioa: Jabekideen Komunitatea

B.9.1.1. **Barrenkale, 15**

Dirección: Unai Aurrekoetxea
Fernández
Financiación: Comunidad de
Propietarios

Sondage in which three cuts of uncertain date and function were found in the natural clay, along with various levelling deposits dating from the contemporary era and a wall which may correspond to a partition wall from the gothic distribution of the town of Durango.

Orubea hartzen duen etxebizitzaren eraikinean igogailu bat instalatzeko lanek eraman gintuzten bertan 1,95 bider 1,50 metroko zundaketa bat egitera.

Esku-hartze honetan zehar bildutako informazioa aski mugatua da, aztertutako eremua ere aski mugatua delako. Halatan, erregistratutako elementuen ikuspegi partziala baizik ez dugu lortu. Hala eta guztiz ere, buztinean egindako hiru ebaki beren luzera osoan zehar dokumentatu ahal izan genituela esan behar dugu.

Bistakoa denez, ebaki hauek hobe ulertu ahal izateko orube osoa bere luze-zabaleran induskatu behar harko litzateke, ebaki gehiago ba ote ziren ala ez egiaztatzeko eta, hala izatera, euren artean egon izateke harremanak identifikatu ahal izateko.

Nolanahi ere den, esan beharra dago hirian laurogeita hamargarren urteen hasieratik bururatu diren esku-hartzeetan erregistratutako ebakien presentzia, buztin naturalean egindako ebakien presentzia, arrunta dela oso. Interbentzio horien arabera, Erdi Aroko kronologietara biltzen dira gisa honetako testuinguruak. Guk aztergai ditugun hauek ezin ditugu kronologia jakin batean kokatu, egitura hauetan ez baitugu kultura materialaren presentziarik identifikatu.

Gainera, estratigrafiaren ikuspuntutik ebakiak amortizatzen dituen betegarriarekin (7. unitate estratigrafikoa) baizik ezin dugu harremanetan jarri. Betegarri honetatik jasotako materialetan oinarrituta, ^{xix}. mendean kokatu behar dugu.

Ebaki horiei begira badugu, beraz, *post quem* datazio bat, baina arku kronologikoak artean oso zabala izaten jarraitzen du, eta ez litzateke astakeria izango Erdi Aroko testuinguruetan ari garela esango bagenu.

Izan ere, jatorrizko hirigunean gaude, Durangoko hiriko aurreneko hiriguneko erdiko kalean. Durango,

Intervención realizada en base a un sondeo de 1,95 por 1,50 metros motivado por las obras de instalación de un ascensor en el edificio de viviendas que ocupa el solar.

La información recogida durante esta intervención es muy limitada dadas las reducidas dimensiones del área intervenida, que provoca una visión parcial de los elementos registrados, si bien es cierto que se documentaron en la totalidad de su desarrollo tres cortes realizados en la arcilla.

Obviamente, para una mejor comprensión de estos cortes, sería necesario excavar todo el solar en extensión, para poder certificar la presencia o no de un mayor número de ellos, y en caso positivo, intentar establecer las relaciones que puedan darse entre ellos.

En todo caso, hay que señalar la habitual presencia de cortes en la arcilla natural registrados en las distintas intervenciones llevadas a cabo en la villa desde principios de los años noventa. En estas intervenciones, se vienen interpretando este tipo de contextos dentro de cronologías medievales. En nuestro caso, nos es imposible adscribirles una cronología concreta, debido a la nula presencia de cultura material en relación con ellos.

Además, desde el punto de vista estratigráfico, únicamente podemos establecer una relación con el relleno que amortiza estos cortes, U.E.7 y que, basándonos en los materiales recogidos en él, situamos en el siglo ^{xix}.

Por tanto, disponemos de un término *post quem* para estos cortes, pero que ofrece una horquilla temporal muy amplia, ya que no sería descabellado suponer que nos hallamos ante contextos de época medieval.

No en vano, nos hallamos en el núcleo primigenio, la calle central del primer trazado urbano de la villa de

gaur egun ia denek onartzen duten bezala, XIII. mendeko azken urteetan fundatu zuten.

Gainera, 7. unitate estratigrafikoko deposituan, ondorengo garaietako materialekin nahasita, Erdi Aroko kronologia izan dezaketen materialen presentziak adierazi dezake orube hau Erdi Aroaz geroztik eta etenik gabe okupatua izan dela. Hala eta guztiz ere, ez dugu baztertzeko depositu hau osatzen duen betegarri hau beste leku batetik ekarria izana.

Induskatutako eremuaren hegoaldeko ertzean aurkitutako horma atala interpretatzen saiatu ginean zailtasun berdinak topatu genituen nola espazioaren hala estratigrafiaren ikuspuntutik. Aitzitik, hautemandako depositu guzti-guztiak horma atal hari atxiki zaizkiola esan dezakegu, eta beraz, haren ondorengoak direla.

Buztinetan bermatzen bada ere, horma hau ez zaie haietan egindako ebakiei jarraitzen, eta ez dugu zimentarrirako ebaki edo kutxarrik dokumentatu, ez bederen haren iparraldean, agerian utzi ahal izan den alde bakarrean.

Ez dugu askoz ere gehiago esateko. Hormaren ekialdetik mendebalderako norabideari erreparatuz gero, kalearen norabidearen perpendikularrean gartzen baita, baliteke hiriko lur-zatikatzeko gotikoetan egokitutako etxeetako arteko hormetako bat izatea.

Eta ideia hori ezin baztertera utz daitekeen arren, ez daukagu hipotesi horren alde egingo lukeen beste datu bakar bat ere.

Deposituei dagokienez, guk uste dugu errazagoa dela haien jatorria identifikatzen. Euren arteko harremanak eta hormarekikoak xumeak dira, euren arteko horizontaltasuna partekatzen dute, eta hormari atxikita daude.

Lehen deskribatutako 7. unitate estratigrafikoa da guztietan aspaldikoena, eta lehen ere esan dugun bezala, XIX. mendera garamatzate bertan dokumentatutako materialek. Guk uste dugu depositu hau XIX. mendearen³³ amaieratik aurrera hirian planteatu ziren hirigintza birmoldaketan emaitza dela, hiriaren irudia berdintzeko beharra planteatu baitzen garai hartan hainbat ekimen burura eramanez, esate baterako, faxadak lerro berera bilduz.

Geuk identifikatutako bigarren depositu/betegarriak, 5. unitate estratigrafikoak, hiri honek 1937. urteko maiatzaren 31n, Espainiako Gerra Zibilean, jasan zuen bonbardaketa traumatikoarekin du lotura. Lehen ere esan dugun bezala, aurreko betegarria ez bezalakoa da depositu hau. Depositu hareatsua da, bestearen antzeko osaera du, baina bestelakoa da gordezten duen kultura materiala. Izan ere, modernoagoak dira materialak depositu honetan azpikoan baino.

Durango, que fue fundada en los años finales del siglo XIII como parece aceptado mayoritariamente hoy en día.

Además, la presencia de materiales atribuibles a cronología medieval, aunque mezclados con otros propios de épocas posteriores, en el depósito U.E.7, puede tomarse como indicativo de la ocupación continuada de este solar desde épocas medievales, si bien no es descartable que este depósito de relleno podría proceder de algún otro lugar.

Al intentar interpretar el paramento localizado en el perfil sur del área excavada, encontramos las mismas dificultades, tanto de espacio como desde el punto de vista de la estratigrafía, desde el cual podemos afirmar que todos los depósitos detectados se le adosan, por lo que lógicamente le seguirían en el tiempo.

El muro no guarda una dirección directa con los cortes en la arcilla, en la que se apoya, y no se ha documentado ningún tipo de corte o caja de cimentación, al menos en su cara norte, única que se ha podido observar.

No es mucho más lo que podemos decir, quizás, observando la orientación este oeste del muro, que es perpendicular a la orientación de la calle, podemos aventurar la idea de que podría tratarse de uno de las paredes medianeras de las casas correspondientes a la lotización gótica de la villa.

Y aunque esta idea no debe descartarse, no podemos sustentarla con ningún dato mas que la avale.

Con respecto a los depósitos, creemos que su desarrollo puede rastrearse más fácilmente. Las relaciones físicas entre ellos, y con el muro, son relaciones sencillas, de horizontalidad entre ellos y de adosamiento con el muro.

El ya comentado depósito U.E.7, sería el mas antiguo de ellos y como ya hemos señalado sus materiales nos llevan a cronologías del XIX. Creemos posible aceptar la idea de que este depósito es fruto de las remodelaciones urbanísticas planteadas en la villa a finales del XIX³³, cuando se plantea la necesidad de homogenizar la imagen de la villa, mediante diferentes iniciativas, como la alineación de las fachadas.

El segundo depósito de relleno localizado, la U.E.5, creemos esta en relación con el traumático bombardeo sufrido por la villa el 31 de mayo de 1937, durante el desarrollo de la Guerra Civil Española. Como ya hemos dicho es una depósito claramente diferenciado del anterior, por un nivel arenoso, pero de una composición muy similar, pero con diferencias en la cultura material que engloba, localizándose materiales mas modernos que en el depósito inferior.

³³ Bengoetxea Rementeria, B. eta Cajigas Panera, S. *Durango: transformaciones Históricas de su configuración urbana*, Biblioteca Duranguesa 3, Arte eta Historia Museoa, Durango 1997.

³³ Bengoetxea Rementeria, B. y Cajigas Panera, S. *Durango: transformaciones Históricas de su configuración urbana*, Biblioteca Duranguesa 3, Museo de Arte e Historia, Durango 1997.

Depositu honek, gainera, agerian utzitako horma atala amortizatzen duen hormigoizko zolaren bermearenak egiten ditu, xx. mendean zehar guztiz arrunta izan den prozesuari jarraiki.

Azkenik, esan dezagun zoladura honen ginetik dokumentatutako testuinguruak egungo eraikinari dagozkiola, 1952. urtean eraiki zuten eraikinari.

Además, este deposito sirve de asiento a una solera de hormigón que amortiza el paramento localizado, muy habitual durante el siglo xx.

Por ultimo, hay que señalar que los contextos localizados por encima de esta solera se corresponderían con la construcción actual, realizada en 1952.

U. Aurrekoetxea Fernández

B.9.1.2. **Kalebarria, 2**

Zuzendaritza: Maite García Rojas
Finantzazioa: Jabekideen Komunitatea

B.9.1.2. **Kalebarria, 2**

Dirección: Maite García Rojas
Financiación: Comunidad de Propietarios

Sondage in which a wall was found which may correspond to a partition wall from the gothic town. The sondage also revealed a studded structure in a good state of conservation.

Higiezin honetan igogailu bat instalatzeko proiektua aurkeztu zutenez, 1,20 bider 1,70 metroko zundaketa bat egin genuen.

Esku-hartze honetan lortutako emaitza aipagarriak, zalantzarik gabe, ziriez sendotutako zurezko egituraren dokumentazioa eta haren berreskuratzea izan dira. Gutxi dira Bizkaian berreskuratutako gisa honetako egiturak, eta aztergai dugun hau kontserbazio egoera onean dagoenez, aurkikuntza arrazantzitsuagoa dela esan behar dugu.

Zurezko egitura bat da, erdiko paldo batez eta paldo hau zoruan sendo finkatzen zuten habexka-ziriez, maila hirutan egokituak, osatua.

Erdiko paldoa landutako zurezko pieza bakar batek osatua da, pieza eskuairatuta eta mailakatuta.

Goiko partean bi zulo ikusten dira, gutxi gora-behera zulo zirkularrak. Egun betikoz galdua den beste pieza bat ahokatzeko zuloak direla ematen du.

Pieza hau zoruan egokiro finkatzeko, elkarren artean gurutzatutako eta geruza naturalean txertatutako habexka-sistema bat erabili zuten.

Sei habexka baliatu zituzten hiru mailatan, binaka, elkarren paraleloan, erdiko paldoaren ziriarenak eginez, aurreneko bi mailak zurezko paldoan landutako mailetan bermaturik.

Lehenengo eta hirugarren mailetan, habexkak iparraldetik hegoaldera egokituta daude, baina bigarren mailan ekialdetik mendebaldera.

Bigarren mailako habexkak luzeagoak izango ziren, agerian utzitakoa 1,80 metro luze baita, baina iparraldetik hegoaldera luzatzen zirenak laburragoak izango ziren, 1,10 metro pasatxo, gehienez ere.

Intervención realizada en base a un sondeo de 1,20 por 1,70 metros, para la posterior instalación de un ascensor en el inmueble.

Como resultado más destacable de esta intervención, no cabe duda de que hay que subrayar la documentación y recuperación de una estructura de madera encepada. No son muchas las estructuras de este tipo recuperadas en Bizkaia, y el buen estado de conservación de ésta dota de mayor relevancia su rescate.

Se trata de una estructura lúnea compuesta de un pilar central o bernia y un encepado de viguetas dispuestas en tres niveles, que fijaban la bernia firmemente al suelo.

La bernia central está constituida por una única pieza de madera tallada, escuadrada y escalonada.

En su parte superior, se observan dos orificios más o menos circulares. Estos orificios, parecen obedecer a que en ellos se encajara alguna otra pieza hoy perdida.

Para fijar esta pieza al suelo, se utiliza un sistema de viguetas cruzadas e intestadas en el sustrato natural.

Se utilizan seis viguetas dispuestas en tres niveles, de dos en dos en paralelo unas a otras, encepando la bernia central, apoyándose los dos primeros niveles en los escalones realizados en ésta.

En el primer y tercer nivel, las viguetas aparecen orientadas de norte a sur, y en el segundo, de este a oeste.

Las viguetas del segundo nivel serán mas largas, con una longitud máxima observable de 1,80 metros por poco más de 1,10 metros de la orientadas nortesur.



Kalebarria, 2. Erloju-orratzen arabera: Orubearen kokalekua. Zundaketa gunea. Habexken lehenengo eta bigarren mailak eta erdiko paldoa. Erdiko paldoaren ikuspegia zorupetik atera eta museoa utzi eta gero.

Kalebarria, 2. En el sentido de las agujas del reloj: Plano de localización del solar. Situación del sondeo. Vista del primer y segundo nivel de viguetas y la bernia central. Vista de la bernia central tras su extracción y depósito en el museo.

Goian azaldu bezala, burura eraman beharreko obrak elementu hau kaltetuko zuen ezinbestean, eta beraz, hura atera egin genuen gero Arkeologia Museoko geletara eramateko. Beraz, kontserbazio egoera ezin hobean zegoen egiturara moldatu behar izan genuen, zundaketaren neurriak gainditzen baitzituen eta zundaketa ezin handitu baikenezakeen, aztergai dugun espazioa benetan txikia delako.

Zundaketa ezin handitu genezakeenez, zirien multzoa osatzen zuten habexka batzuk moztu behar izan genituen erdiko paldoa berreskuratu ahal izateko. Izan ere, egitura osoa bere horretan ateratzerik ez genuenez, pieza hau babesteko aukeraren alde egin genuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondare Historikoaren Zerbitzuaren gomendioei jarraiki.

Como ya hemos señalado, la obra a realizar exigía la alteración de este elemento por lo que se procedió a su extracción para su posterior traslado a las dependencias del Arkeologi Museoa. Esto acarrió la necesidad de alterar la estructura, que se encontraba en un óptimo estado de conservación, ya que sus dimensiones excedían las del sondeo, y resultaba del todo imposible ampliar éste, debido a las reducidas dimensiones del espacio en que nos encontrábamos.

Para ello, y al no ser posible ampliar el sondeo, se procedió a cortar algunas de las viguetas que conformaban el encepado, para así poder rescatar la bernia central, ya que al no poder recuperarse toda la estructura, se optó por salvaguardar esta pieza siguiendo las directrices del Servicio de Patrimonio Histórico de la Diputación Foral de Bizkaia.

Egitura hau osoa ziri handiekin finkatu zuten, eta harri kosko ugari zituen mami buztintsuzko depositu batez (6. UE) estali zuten zurezko egitura txertatzeko xedean buztin naturalean egindako ebakia.

Depositua honen gainean, induskatutako eremuaren iparraldeko profil osoan barrena garatzen den horma atal bat identifikatu genuen. Neurri txiki eta ertaineko hareharrizko piezez altxatutako horma da, haren hegoaldeko aurpegia baizik ez dugu ikusi. Horma hau osatzen duten harriak ez dirudi eskuairatuta daudenik, bai ordea kareztatuta. Horma aski irregularra da, eta ekialdetik mendebaldera egiten duela kontuan izanik, Kalebarria kalearen paraleloan, guk uste dugu lur-zatikatzeko gotikoari erantzuten dioten etxebizitzetako arteko hormetako bat dela.

Gainera, egitura hau hiriko lur-zatikatzeko gotikoari dagokion arteko horma bati atxikirik agertzen denez, oso litekeena da Erdi Arokoa izatea, seguru asko Kalebarria kalea sortu zen garaikoa, Durangoko hiribilduko aurreneko zabaltzaren garaikoa, xv. mendearen lehenengo laurdenean.

Zepazko depositu baten presentziak adieraz lezake leku honetan burdinaren langintza motaren bat garatu izana, baina baliteke, era berean, lur eremua berdintzeko betegarri bat baino ez izatea. Izan ere, burdinarekin lotutako ekoizpen instalazioak ugari izaten ziren lekuetan oso ohikoa zen zepa betegarri gisa erabiltzea.

Alde honetan bereizten den azkeneko une garrantzitsuak harremanetan jartzen gaitu hiriak, 1937. urteko martxoan, Espainiako gerra Zibilaren testuinguruan, jasan zuen bonbardaketa eta ondorengo sutearekin.

Berriro ere adierazi nahi dugu induskatutako testuinguruetan ez dugula kultura material bat bera ere dokumentatu. Horrek izugarri zailtzen du testuinguruak denboran kokatzeko lana.

En el siglo xviii se rehizo también el cauce del molino, ya existente con anterioridad. Parte de los restos del canal localizados, de una calidad excepcional en el interior, se realizó en este momento. Dicho canal presenta diferentes fases constructivas, pero las técnicas empleadas en su ejecución son muy destacables. Las paredes, de aproximadamente 1,50 m de altura, están realizadas con sillarejo de arenisca muy bien trabajado, formando hiladas muy regulares, con un acabado fino realizado a picón. Los bloques están trabados con argamasa. La base estaba compuesta por losas también de piedra. El canal desemboca en una antepara, que actualmente se conserva bajo el actual bar «El Arco», realizada con técnicas constructivas similares a la descrita.

Finalmente, en la década de los 40 de ese siglo xviii se realizó otra gran obra que remata de alguna manera el nuevo espacio de plaza, como es la construcción del que hoy denominamos Arco de Santa Ana, que viene a sustituir a otro anterior, al que los documentos llaman «Portal del Mercado». El arco actual lleva reutilizado en su cara externa el escudo que portaba el portal del siglo xvi. De esta manera se configuró definitivamente la plaza que nosotros conocemos. Se puede decir que esta gran transformación barroca de la zona sur de la villa viene a ser la segunda, tras la primera planificación medieval de la que hemos hablado en un apartado anterior. Ambos proyectos modificaron sustancialmente el paisaje urbano preexistente.

La excavación, realizada en un espacio público durante los meses de verano, levantó una expectación importante entre la ciudadanía. Los medios de comunicación también colaboraron a la hora de dar a conocer los hallazgos que se venían realizando. Teniendo en cuenta esta circunstancia, así como el interés de los resultados de la intervención, el Ayuntamiento de Durango tomó la iniciativa de parar la obra durante un intervalo de un mes para poder acondicionar el espacio de excavación para acoger una serie de visitas guiadas. Las previsiones de visitantes se quedaron realmente cortas, puesto que dada la respuesta de la gente, hubo que ampliar, hasta prácticamente doblar el

zirela induskatutako eremuan bereziki bisitaldiak egiteko antolatutako hiru asteburutan, horratx ekimenak piztutako interesa, horratx hirigune historikoetan bururatzaren diren jarduera arkeologikoen aurrean informazioa jasotzeko gizarteak egiten duen eskaera. Durangoko Udalaren ekimenari eta laguntzari esker bururatutako indusketa aukera paregabea izan da hiritar guztiek hiri batean bideratzen den indusketa arkeologiko bat bertatik bertara jarraitu ahal izateko eta, gisa honetan, esku-hartzen honek eskaintako emaitzak ez ezik haren arrazoiak eta, labor-labor bada ere, molde honetako esku-hartze batean arkeologikoki nola lan egiten den ulertzeko.

Konklusio gisa esan dezagun dokumentatutako hondakinek, lerro batzuk gorago deskribatutakoek, orain arte ezezagun zitzaizkigun Durangoko historia- ren atal batzuk argitzeko modua eskaini digutela. Hondakin horiek, beraz, garrantzi handiko multzoa osatzen dute. Nolanahi ere den, indusketa lanek eskaintako emaitzez gainera, beste «aurkikuntza» baten berri eman behar dugu: Lehenengo Santa Ana elizari buruz idatzitako dokumentuek ari gara. Udal Artxiboan artean ia ukitu gabe daude 1535. urtetik aurrera egindako obrei buruzko liburuak. Dokumentuen artean halako zundaketa bat egin dugu, baina guk uste dugu merezi duela kontsulta xeheago eta lasaia- go bat egiteak; datozen hilabeteetan ekingo diogu egiteko honi. Izaera ezberdineko dokumentuak baliatzea, hau da, emaitza arkeologikoak eta iturri idatziak batera erabiltzea ez da lan samurra, baina oso emaitza onak eskaini ditzake historia ikertzeko prozesuan zehar.

B. Bengoetxea Rementeria

número de grupos. La conclusión es que más de 800 personas han pasado por la excavación en tres fines de semana habilitados para hacerlo, lo que da idea del interés que ha despertado la iniciativa, y en definitiva, de la demanda de información que existe en la sociedad sobre las actividades arqueológicas que se realizan en sus cascos históricos. La excavación, gracias a la iniciativa y apoyo del Ayuntamiento de Durango, ha sido una ocasión única para que el público en general tuviera acceso directo a una excavación arqueológica urbana para poder entender de esa manera, no sólo los resultados de esta intervención, sino las causas de la misma, o –aunque sea de forma somera– la forma en la que se trabaja arqueológicamente en una intervención de estas características.

A modo de conclusión se puede decir que los restos detectados, que hemos descrito brevemente líneas más arriba, dan luz sobre aspectos de la historia de Durango desconocidos hasta el momento y constituyen por lo tanto un conjunto de primera importancia. De todas maneras, aparte de los resultados de la excavación propiamente dichos, tenemos que mencionar otro «hallazgo» como es el de la documentación escrita referente a la antigua iglesia de Santa Ana. Quedan en el Archivo Municipal, prácticamente intactos hasta el momento, los libros de fábrica desde 1535. Se ha procedido a realizar un sondeo consultando parte de esta documentación, pero creemos que merece la pena una consulta más detenida y detallada, que abordaremos en los próximos meses. Conjugación de documentos de diferente naturaleza, como son los arqueológicos y los escritos presenta su dificultad, pero puede llegar a ser gratificante en el proceso de investigación histórica.

B.9.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

B.9.2.1. **Murueta Dorrea**

Zuzendaritza: Mikel Neira Zubieta
Finantzazioa: Durangoko Udala

B.9.2.1. **Torre Murueta**

Dirección: Mikel Neira Zubieta
Financiación: Ayuntamiento de Durango

The archaeological intervention in Murueta Tower (Durango) was carried out in order to assess the impact of the renovation work on the building. The working stages were divided into the documentary analysis, the stratigraphic reading of the walls, the excavation of the inside area and the corresponding monitoring of the elements scheduled to be demolished. The intervention has enabled us to identify a number of different construction phases and to record the stratigraphy of the inside of the building, offering a general overview of the history of the site.

Murueta Dorrea nekazaritzari emandako baserri bat zen, oinplano angeluzuzenekoa eta lau isuriko teilatuarekin. Iparraldeko fatxadari atxikirik beste gorputz bat zuen. Landu gabeko hareharriekin eginak ziren hormak, egitura zurezkoa zuen, eta horma atalak adreilu totxoz eginak.

El caserío Murueta Torre era un edificio agrícola de planta rectangular cubierto a cuatro aguas y con un añadido en la fachada norte. La construcción estaba realizada a base de muros de mampostería de piedra arenisca, entramado de madera y entrepaños de ladrillo macizo.

Hasieran xvii. mendearen bigarren erdialdean, 1660. urte aldera, datatu beharreko eraikintzat hartu zen, horixe iradokitzen zuen hautemandako bolumetriak. Datu horiek berretsi edo baztertu nahi genituen hormak eta zorupea nola dokumentuen bidez hala estratigrafikoki aztertu ostean.

Murueta Dorrean bururatutako lanaren emaitzek aukera ematen digute denboran zortzi alditan banatzen den artikulazioa proposatzeko.

1. aldia. Tailerrari emandako espazioaren une gorena

Dorrea eraiki aurrekoak dira geuk identifikatutako hondakin arkeologiko zaharrenak, eraikin nagusiaren perimetroko hormetako batek estalita baitaude estratigrafikoki.

Harian induskatutako zuloak amortizatzen zituzten geruzen ezaugarriak eta jaso dugun zeramikazko materialari erreparatu gero, badugu tailerra abandonatu zuten unea mugatzea. Seguru asko eraikina eraikitzerakoan abandonatuko zuten tailerra.

Sasi-portzelanazko zati batzuk, euskal herri loza eta «zamorar» moldeko zeramika puskek berreskuratu ditugu. Beste depositu batean, zaborrez osatutako betegarrian, ezaugarri bertsuko zeramikak berreskuratu ditugu, baita buztin zuriko edo kaolinezko pipa baten tutu zati bat ere.

2. aldia. Eraikin nagusia

Eraikin nagusia osatzen duten elementuen presentziak hartzen du aldi hau, dorrearen atal nagusiak alegia, kalitate handiago batez landutako hormak dituenak. Lau angeluko oinplanoa zuen higiezinen hiru horma kontserbatzen dira. Hormak errekarri eginak dira, eta eskantzuetan harlanduak erabili zituzten, ertzak lauak zituzten harlanduak.

Eraikina aztertzeke lanetan zehar benetan interesgarria den elementu bat topatu dugu, eraikinaren nondik norakoak azaltzeko balio izan dezakeena.

Eraikina ekialderantz handitu baino lehen ekialdeko gela osatuko zuten hormen parte bat dokumentatu dugu; zurezko egitura bat izatea du ezaugarri nagusia. Hareharrizko blokeekin egindako obra bi dira, harriak azaletik landuak, luze-zeharka ipiniak, junturetan kare-ore grisa eta guztia igeltsu geruza fin eta gogor batez, zarpiatze baten antzera, estalia. Ekialdeko lehenagoko gela baten egituraren oinarria izango zen, eta elementu honi 2. aldiaren identifikatu dugun handiagotzeko obra atxikiko zitzaion, geroago deskribatuko dugun bezala.

Aldi honetara bildu ere dugu fatxada nagusian da goen armaria. Arteaga familiaren armaria da³⁴, harlandu markodun batean landua, oinetan otso bat eta goian

Inicialmente se identificó como un edificio que databa de la segunda mitad del siglo xvii, en torno al año 1660, erigiéndose la volumetría total que se apreciaba. Datos que pretendíamos corroborar o rebatir tras el estudio documental y estratigráfico de los alzados y del subsuelo.

Los resultados del trabajo realizado en la Torre Murueta nos permiten proponer una articulación en el tiempo en ocho fases.

Fase 1. Apogeo del espacio taller

Los restos arqueológicos más antiguos que hemos identificado son anteriores a la construcción de la torre, ya que están estratigráficamente cubiertos por uno de los muros perimetrales del edificio principal.

Si atendemos a las características propias de los estratos que amortizaban los agujeros excavados en la roca y del material cerámico recogido, es posible acotar el momento de abandono del taller, probablemente relacionado con la reconstrucción del inmueble.

Se han rescatado varios fragmentos de pseudoporcelana, loza popular vasca y cerámica del tipo «zamorana». Por otro lado, en otro depósito, identificado como relleno de basura, se han recuperado materiales cerámicos de similares características, al que se une un fragmento de caña de una pipa de arcilla blanca o caolín.

Fase 2. Edificio principal

Esta fase está caracterizada por la presencia de los elementos que integran el edificio principal. La parte más noble de la torre y con una fábrica de mayor calidad. Se conservan tres paños de un inmueble de planta cuadrangular, construido con canto rodado y sillares con los bordes a listel para los esquinales.

Durante la lectura del edificio nos hemos encontrado con un elemento ciertamente interesante y que puede servir para explicar el desarrollo del edificio.

Se han documentado parte de los muros que formarían la estancia este, antes de la obra de ampliación, cuya principal característica es el armazón ligneo. Lo constituyen dos obras construidas con bloques de arenisca, levemente trabajadas, dispuestos a soga y tizón, con mortero grisáceo entre las juntas y una capa de enlucido, fina y de gran dureza como enfoscado. Formaría la base estructural de una estancia oriental anterior, elemento al que se le adosa la obra de ampliación que hemos identificado en la segunda fase y que describiremos posteriormente.

Se ha incluido en esta fase el escudo ubicado en la fachada principal. Se trata de un escudo de la familia Arteaga³⁴, en un sillar enmarcado, con un lobo al

³⁴ Arteaga euskal leinu bat da, x. mendetik aurrera Arteagan bizi izan zena, Busturiatik gertu, Markinako barruti judizialean (Bizkaia).

³⁴ Arteaga es un linaje vasco establecido desde el siglo x en Gautegiz de Arteaga, en la vecindad de Busturia, partido judicial

gurutze bat, kasko lumadunaren gainean. Armarrian zerranda bati ahoekin eusten dioten herensugeak ageri dira, gainean galdara bat dutela eta azpian beste bat.

3. aldia. Konponketak tailerlean eta aurreneko zoru berdintzeak

Aldi honetara bildu ditugu dorrearen barrunbean burura eramandako konponketa gisa identifikatu ditugun unitate batzuk. Lehendik tailerrari emandako espazioan enkatxo bat eraiki zuten inguruko zorupe naturaletik ateratako errekarriekin. Harri hauek modu irregularrean ipiniak dira.

4. aldia. Aurreko jardueraren azkeneko arrastoak

Aurreko elementuen abandonatzea iradokitzen duten depositu eta egitura batzuk erregistratu genituen. Hauek etorkizuneko eraikuntzak prestatzeko baliatu zituzten.

5. aldia. Ekialderantz handitzea. Geletan banatzeko obrak

Bigarren aldi honetara biltzen diren lanak argi eta garbi bereizten dira besteetatik. Eraikinean gertatutako aldaketaren parte garrantzitsua osatzen dute, higiezina neurri eta munta handiko gela batez handitu baitzen ekialderantz. Aldi honetara bildu ere dugu erantsitako gorputz baten eraikuntza, eraikin nagusiari atxikiriko hiru hormek osatua, iparraldean espazio txiki bat eratzen dutenak.

Barruko aldean ekialdeko gelaren eraikuntzarekin zerikusia duten egitura batzuk dokumentatu ahal izan ditugu.

Hasteko, handitutako atalaren perimetroko mendebaldeko hormaren zimentaria identifikatu genuen. Egitura hau, barruko aldetik, errekarri txikiekin eraikia da, inguruko zorupe naturaletik aterarako errekarri txikiekin. Eraikina ekialderantz handitzeko lanei ekin ziotenean, higiezinaren hainbat aldetako zoruak berdindu egin zituzten xede horretan baliatutako betegarriekin. Lehenik handitutako gorputzaren mendebaldeko hormari zegokion zimentaria identifikatu genuen.

Bestalde, dorreko ezkaratzean, zorua lautzeko beste pakete bat erregistratu genuen. Betegarri hau buztin plastiko oso dekantatu batez osatua zegoen, ez zuen bestelako materialik. Bukatzeko, mendebaldean, dorrearen perimetroaren mendebaldeko hormari atxikirik, beste betegarri bat (105. UE) dokumentatu genuen, errekarriez eta kareore grisaxkaz osatua, orubearen alde hau berdintzeko xedearekin baliatua.

Leinu honen adar bat txilera joan zen, eta *xix.* mende hasieran Mexikora iritsi ziren. Arteagatarren adarrak Bizkaian zehar egokitu ziren eta etxe berriak eraiki zituzten; Durangon 1469. urtean.

pie y una cruz en lo alto sobre el casco con plumaje. El escudo se compone de banda en boca de dragantes, con una caldera encima y otra debajo.

Fase 3. Refacciones en el taller y primeras nivelaciones

En esta fase se han identificado una serie de unidades que se han interpretado como refacciones realizadas al interior de la torre. En el espacio que anteriormente se había destinado como taller, se procede a construir un encachado formado con cantos rodados extraídos del sustrato natural del entorno, dispuestos de manera irregular.

Fase 4. Últimos restos de actividad al interior

Se registraron una serie de depósitos y estructuras que marcan el abandono de los elementos anteriores y sirven de preparaciones para las construcciones futuras.

Fase 5. Ampliación este. Obras de compartimentación

Las obras implicadas en esta segunda fase se distinguen con mucha claridad. Forman parte de una labor importante de cambio en el edificio, ya que proporciona al inmueble una estancia oriental de gran tamaño y porte. Se ha incluido en esta fase la construcción de un anexo, formada por tres paños que se adosan contra el edificio principal formando un espacio pequeño al norte.

Al interior se ha podido documentar una serie de estructuras asociadas a la construcción de la estancia este.

Primeramente se identificó la cimentación del muro perimetral oeste de la ampliación. Estructura construida con pequeños cantos rodados en la parte interna, extraídos del propio sustrato natural del entorno. Cuando acometen la obra de ampliación, se procede a allanar las diferentes zonas del inmueble con varios paquetes de nivelación.

Por otro lado, en la zona de vestíbulo de la torre, se ha registrado otro paquete para allanar el terreno, formado por arcilla plástica, muy decantada, con ausencia total de intrusiones. Finalmente, al oeste, adosado al muro perimetral occidental de la torre, se ha documentado un relleno (UE 105) formado por cantos de río y mortero grisáceo, destinado a aplanar esa zona del solar.

de Marquina (Bizkaia). Una rama pasó a Chile y a principios del siglo *xix* llegaron a México. Ramas de Arteaga se extendieron por Vizcaya y crearon nuevas casas; en Durango en el año 1469.

6. aldia. Erabilerarako azken zoruak

Barruko aldean eraikin honek harrizko enkatxo sorta bat zuen, eraikinean prestatutako geletako zoruaren parte bat osatuz.

Honenbestez, tailerrari emandako gelan, errekarritz osatutako zoladura bat egokitu zuten. Ez dute marrazki homogeenoa bat osatzen harriok. Besterik gabe, ekialdeko gelako eta eraikinaren perimetroko hormetako oin-zerrendan errekarri batzuk txertatuta ageri dira zirienak eginez.

Bestalde, aipagarria da ekialderantz handitutako aldean agerian utzitako galtzadarrizko zorua. Tamaina txikiko errekarritz osatutako lauzadura da, eta pieza gutxi batzuek ertzak berdinduta dituzte forma angeluzuzena edukitzeko. Ez daude modu homogeenoa ipinita, eta beraz ez dute marrazkirik ez sarerik eratzten.

7. aldia. Mendebaldeko gelaren eraispena

Dorrearen mendebaldeko fatxadan hautemandako konponketak biltzen dira aldi honetara. Guk uste dugu higiezinaren alde honetan zegoen gelaren eraispenak utzitako arrastoak direla.

8. aldia. Gure garaiko obrak

Aldi honetan konponketa txiki batzuk egin zituzten dorrean, funtsean baoak eta ateak itsutzeko.

Fase 6. Últimos suelos de uso

El edificio va a disponer al interior de una serie de enchachados de piedra formando parte de los suelos de las diferentes estancias que se han preparado.

Así, en la estancia taller, se coloca un pavimento de canto de río No forman un dibujo homogéneo, únicamente se dispone algún canto contra el zócalo de los muros perimetrales del edificio y de la estancia este, para actuar como calces.

En segundo lugar destaca el adoquinado descubierto en la ampliación este. Constructivamente se trata de un enlosado formado por guijarros de río de pequeño tamaño, con alguna pieza levemente desbastada de forma rectangular y sin disposición homogénea, por lo que no forma dibujo ni entramado.

Fase 7. Derribo de estancia oeste

Está fase se caracteriza por las improntas detectadas en la fachada occidental de la torre y que se han interpretado como las marcas del derribo del recinto situado en esa parte del inmueble.

Fase 8. Obras contemporáneas

Durante está periodo se procede a cometer una serie de pequeñas refacciones en la torre, destinadas a cegar vanos y puertas

M. Neira Zubieta

B.10. EA

B.10.1. **Urtubiagako Ola-Errota**

Zuzendaritza: Sonia Anibarro Sánchez
Finantzazioa: Eako Udala

B.10.1. **Ferrería-Molino de Urtubiaga**

Dirección: Sonia Anibarro Sánchez
Financiación: Ayuntamiento de Ea

Given the interest exhibited by the Ea Local Council in the Urtubiaga hydraulic complex, its conservation, protection, study and establishment as a recreational area for the municipality, following the work carried out during 2008, and in light of the size of the project required and its economic cost, it was deemed necessary to draft a list of activities to be carried out, in rough order of priority and over a fairly long period, always in accordance with the economic capacities of the moment.

II. fasea. 2009. urtean bururatutako lanak

Sastrakak kentzeko eta alde hau garbitzeko lanei buruzko txosten teknikoa, 2008. urtean egina, eta Ur-

Fase II. Trabajos realizados en el año 2009

El informe técnico de las tareas de limpieza y desbroce, realizado en el año 2008, así como el levanta-

tubiagako multzotik kontserbatutako egituren mapa topografikoa, Udalaren esku daude jada, baita Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren Ondare Sailen esku ere.

2009. urteko abuztuan bururatutako garbitze lanen gaineko kontrol arkeologikoaren deskripzioa:

Kontserbatutako hormetatik sastrakak garbitu eta haiek garbitu

Lan hauek guztiak eskuz eginak izan ziren.

Neurri handieneko landareak kimatu eta moztu genituen, eta herbizidak baliatu genituen haiek gehiago ugaltzeko ez zitezen eta landare txikiak haz ez zitezen.

Bestalde, gailurraren lerroetan landu gabeko harriak beren horretan uzteko erabakia hartu genuen. Besterik gabe, soltean zeuden harri batzuk, estekadurari batu gabe zeuden harri batzuk, kendu egin genituen behera etor ez zitezen eta ezbeharren bat eragin ez zezaten.

miento topográfico de las estructuras conservadas del conjunto Urtubiaga obra ya en poder del ayuntamiento, así como de los Departamentos de Patrimonio de la Diputación y el Gobierno Vasco.

Descripción del control arqueológico realizado para las tareas de limpieza acometidas en el mes de agosto de 2009:

Limpieza, desbroce de los paramentos conservados

La ejecución de estas tareas han sido por medios manuales.

Se ha optado por la poda y corte de los elementos vegetales de mayor tamaño y la aplicación de herbicida para evitar su reproducción, así como para acabar con la vegetación de menor tamaño.

Por otra parte, en las líneas de cumbrera, se ha procurado no afectar especialmente la mampostería, si bien ha sido necesario retirar algunas piezas que quedaban sueltas, sin trabar en el aparejo, para evitar posibles caídas de las mismas y accidentes.



Urtubiagako Ola-Errota. Hormetatik sastrakak kentzeko eta fumigatzeko lanen xehetasunak, olako tailerretako hormen gainean.

Ferrería-Molino de Urtubiaga. Detalle de las tareas de desbroce y fumigación, sobre los paramentos de los talleres de la ferrería.

Elementu arriskutsuak kendu

Hondoa jotako estalkiaren hondakinak atera genituen tailerrei sarrera egiten dien gelatik. Haren lekuan zurezko tarima bat paratu zuten.

Sabai berri hau egiteko orduan ez dira ezertarako ere ukitu lehendik zeuden elementu bertikalak. Bestetik gabe, estalki zaharretatik behera etorritako materiala (zur eta teila hondakinak) atera eta habe bat ipini da horizontalean eta hormetan bermaturik. Euskarri honen gainean zurezko tarima ipini zuten tailer aldera etortzen diren bisitarienezako sarrera babesteko xedean.

Horretaz gainera, zurezko oholez eta balizatzeo xingolaz itxi egin genuen ikaztegiatarako sarrera, olako alde honetako zorua egoera oso kaskarrean zegoenez arriskutsua izan baitzitekeen bisitarienzat.

Arkeologiaren eta dokumentazioaren ikuspuntutik burura eramandako lanek ez dute, oraingoz bederen, aurrerapauso handirik egin, izan ere, aurrera eramandako lanek ukitutako elementuak ikuserrazagoak izatea baizik ez dute eskaini.

Dokumentuen analisiaren eta erabilerarako gainazalaren indusketa lanen zain egon beharko dugu orain arte dakigunari datu interesgarri gehiago gehitzeko, baina hori etorkizunean garatu beharreko lanetan argituko da.

Begi bistakoa da hasieran proiektatutako lanetatik parte txiki bat baizik ez dugula burura eraman, funtsean lan horiek bururatzeko nola inbertsio ekonomikoa hala giza baliabideetan egin beharrekoa ez delako Eako Udalarentzat bideragarria izan. Ez dezagun ahaztu herri txikia dela Ea, eta gisa honetako inbertsio batek ahalegin handiak eskatzen dituela.

Retirada de elementos peligrosos

Se ha procedido a la retirada de la techumbre hundida, en la zona de habitación que da acceso a los talleres, y se ha sustituido por tarima de madera.

Para la ejecución de este nuevo forjado, no se ha afectado en absoluto a los elementos verticales existentes, tan solo se ha procedido a la retirada del material derruido de las antiguas cubiertas (restos de madera y teja) y se ha procedido a la colocación de una viga longitudinalmente apoyada sobre los muros y a partir de este nuevo apoyo, colocar una tarima de madera, para proteger el acceso de los visitantes a la zona de talleres.

Además de lo señalado, se ha procedido a cerrar mediante tabla de madera y cinta de balizar, el acceso a las carboneras, por el peligro que pueda suponer para los visitantes, dado el mal estado del suelo en esta zona de la ferrería.

Desde el punto de vista arqueológico y documental, los trabajos realizados, no suponen al menos, por ahora, un avance importante, ya que las actuaciones, tan solo han permitido que los elementos intervenidos sean más fácilmente visibles, pero poco más.

Será necesario esperar al análisis documental y la excavación de las superficies de uso, para añadir datos de interés a lo que conocemos hasta ahora, pero esto será en futuras actuaciones.

Resulta evidente, que de las tareas proyectadas en origen, no se ha llevado a cabo, más que una mínima parte, fundamentalmente, porque la inversión personal y económica para ejecutarlas, no ha sido viable para el Ayuntamiento de Ea, que no olvidemos, se trata de un pequeño municipio, al que una inversión así, supone un gran esfuerzo.

S. Anibarro Sánchez

B.11. ELORRIO

B.11.1. Usarte/ Isuarte baserria

Zuzendaritza: Iñaki Pereda García
Finantzazioa: Irigoien eta Gezala familiak

B.11.1. Caserío Usarte/ Isuarte

Dirección: Iñaki Pereda García
Financiación: Familias Irigoien y Gezala

The Usarte farmhouse (Isuarte) was built on a manmade terrace. It was originally built with wooden structures and enclosures. Towards the middle of the 16th century, the wooden elements were gradually replaced with stone structures, from the back wall to the side walls and front facade. Although the building was extended and altered a number of times during the modern and contemporary eras, Usarte still contains diverse structures typical of a medieval farmhouse.

Usarte (Isuarte) baserria Berrio auzoan dago, itsas mailatik gora 340 metrotara, aspaldiko bide baten on-

El caserío Usarte (Isuarte), está situado en el barrio de Berrio, a 340 m sobre el nivel del mar y próxi-

doan. Baserritik gertu San Esteban basiliza dago, eta tenplu honetakoak dira auzoa Goi Erdi Aroan fundatu zela iradokitzen duten hileta elementu batzuk.

Deskripzioa

A *priori* xvi. mendean eraikitako eraikin baten aurrean ginela pentsarazten ziguten hainbat elementu kontserbatzen zituen baserriak. Gibelaldeko fatxadan dagoen zirkulu erdiko leiho batez eta aurre aldeko fatxadaren eskuinaldeko pantaila-hormaz, landu gabeko harriz egindakoaz, ari gara. Nolanahi ere den, jatorrizko obra batek denboran zehar bizi izan dituen handitze eta birmoldatze lanen emaitza da gaur egungo eraikina.

Eraikinaren barrunbean baserriaren jatorrizko euskarrietarik hamar kontserbatzen dira. Baserriaren egitura, jatorrian, atal bateko paldoen lau lerrok eratuta zegoen, paldoak, inolako etenik gabe, zorutik teilatuko armazoiraino iristen zirela. Aho-zirika mihizatutako zeharraga horizontalen erabilerak, nola behe-oinean hala goikoan, halako sendotasuna ematen zion egitura osoari. Teknika bera baliatu zuten barruko espazioa geletan banatzeko, nola kortan hala sukalde zaharrean ondo asko hautematen den bezala.

Teilatu hegalei eusten dieten aurreko gapirioek ildaxka batzuk ageri dituzte paparoan. Ildaxka hauek mihizatutako zurezko oholak xertatzeko errailen funtzioa betetzen zuten. Hala eta guztiz ere, erdi ezkutatuturik geratzen ziren gapirioak. Aurreko biak pantaila-horma batek eta gure garaian garajearenak egiteko xedean eraikitako gorputzak ezkutatuta daude. Bestalde, aipagarria da teknika hau estalkipean, zehatz esateko aurreneko eta bigarren zehar horma-artean, kontserbatu izana, partzialki bada ere. Puntu honetan bertan baina kota gorago batean, gapirio batzuk petralaren gainetik gutxi gora-behera 60/70 zentimetrotara zeudela ikus daiteke. Gapirio hauek moldatutako burua zuten erremate gisa, eta horrek aukera ematen digu alde hau jatorrizko baserriaren alboko teilatu hegala muga izango zela pentsatzeko. Banaketa lerro honen beraren behe-oinean, kota beheagoan beraz, zubi-habe bat kontserbatzen da, eta haren behe aldean ildaxka bat du. Kanpoko fatxada zurezko oholen bidez ixteko aukera ematen zuten ildaxkek.

Dokumentuen azterketa

1575. urtetik 1705. urte arte Uriarte familia izan zen baserriaren jabe. 1705eko maiatzaren lauan Roque de Uriartek eta haren seme Martinek Antonio de Beitia kapitainari saldu zioten baserria. Berrioko Uriarte sendia aberatsa zen, baserria saltzeko notario agirian hainbat ondasunen jabe zela adierazten baita: «sus tierras, heredades, manzanales, castaños, montes, prados y pastos, porciones de montes, y de dos molinos, el de Boluncho y el de Lasubay». Nolanahi ere den, Antonio de Beitia ahaidearekin zituen zorrak oso

mo a un antiguo vial. En su entorno se encuentra la ermita de San Esteban, de la cual proceden algunos elementos funerarios cuya datación sugiere una fundación alto medieval del barrio.

Análisis descriptivo

El caserío conservaba varios elementos que a *priori* hacían pensar que nos encontrábamos ante un edificio construido en el siglo xvi. Concretamente, nos referimos a una ventana en arco de medio punto situada en la fachada zaguera y a un muro pantalla de mampostería en el lado derecho de la fachada delantera. No obstante, la edificación actual es el resultado de una obra primitiva que ha sufrido diversas ampliaciones y remodelaciones posteriores.

En el interior el edificio mantiene diez de los soportes originales del caserío. Su estructura estaba en origen constituida por cuatro alineaciones longitudinales de postes enterizos, que se alzaban sin interrupción desde el suelo hasta la armadura de cubierta. El uso de travesaños horizontales unidos a caja y espiga, tanto en planta baja como en la superior, daba solidez a toda la estructura. Esta técnica también fue empleada para compartimentar diversos espacios interiores, como se pudo apreciar en la *Korta* y en la antigua cocina o *Sukaldea*.

Los cabrios delanteros que soportan los faldones de la cubierta presentan en el papo acanaladuras. Éstas actuaban como carriles para insertar mamparos de tabazón machihembrada. Sin embargo, los cabrios quedaban semiocultos. Los dos delanteros quedan tapados por un muro pantalla y por un cuerpo destinado a garaje construido en época contemporánea. Por otra parte, resulta destacable que esta técnica se haya conservado parcialmente en el bajocubierta, concretamente entre la primera y segunda crujía transversal. En este mismo punto, pero a cota superior, se aprecia que diversos cabrios volaban unos 60/70 cm sobre la correa y se remataban en una cabeza moldurada, lo que nos permite pensar que esta zona fue el límite del alero lateral del caserío primitivo. En la planta baja de esta misma línea divisoria, a cota inferior, se conserva una viga puente que dispone en su parte baja de una acanaladura. Su fin era el cerramiento de la fachada exterior mediante mamparos de madera.

Análisis Documental

Desde 1575 hasta 1705 el caserío fue propiedad de la familia Uriarte. El cuatro de mayo de 1705 se produjo la venta del caserío por parte de Roque de Uriarte y su hijo Martín al capitán Antonio de Beitia. Los Uriarte de Berrio eran una familia con posibilidades ya que disponían de diversas propiedades tal y como se citan en el acta notarial de venta: «sus tierras, heredades, manzanales, castaños, montes, prados y pastos, porciones de montes, y de dos molinos, el de Boluncho y el de Lasubay». No obstante, la

handiak ziren «*mil ciento y ochenta ducados de principal de plata*» gehi irabazkinak, eta horrexegatik erabaki zuten Uriartearren baserria eta orubea –dolareak, sukaldeko giltzak, lur sailak eta errotak barne– saltzea eta betikoz besterentzea.

xviii. mendeko Bizkaiko etxeen erroldak berretsi egiten du jabe aldaketa hau. Halatan, 1745. urtean Elorrioko seme Juan Antonio de Aldape Beitia ageri da baserriaren jabe gisa. Antonio de Beitia kapitainak fundatutako maiorazkoaren jabe gisa ageri da Juan Antonio de Aldape Beitia. Baina honekin batera beste jabe bat ageri da, Ag. Arriola delako bat. Kontu horrek eraman gintuen xviii. mendearen erdialderako baserria jada lursail bitan banatuta egongo zela pentsatzera. 1796. urtean berriro era titular bakar baten izenpean ageri da baserria, Víctor Belarroaren izenean. Belarroa familia izan zen Berrio Uriarte izenaz ezagutu zen baserriaren jabe xx. mendearen hasiera arte. Orduan erosi zuen Irigoien familiak baserria, eta berau da haren jabe egun.

Arkeologia azterketa

Baserria eraiki aurreko lursailaren okupazio baten hondakinen balizko presentzia ere bazetzan zorupearen interesgarritasuna. Alderdi hau argitze aldera, haren erdialdean (hirugarren eta laugarren zeharkako horma-arteetan) zundaketa handi bat egitea erabaki genuen, Atartetik gibelaldeko hormaraino luzatuko genuen. Haren perpendikularrean beste erreten bat ireki genuen lehenengo eta bigarren zeharkako horma-arteak eta bosgarren eta seigarrenaren muturrerainokoak banatzen zituen perimetroko hormaren arteko estratigrafia batzeko xedean. Aldi berean, Atarteko gainazal osoa induskatu genuen eta beste bi zundaketa egin genituen: bata sukalde zaharrean, eta bestea, guztia behar bezala egiaztatzeko, eraikinaren kanpoko aldean.

Agerian geratutako egituren azterketari dagokionez, egituraren gorputzak identifikatzeko moduko azterketa bat egitea deliberatu genuen. Helburu hau lortze aldera eta eraikuntza aldiak identifikatzeko xedean, eraikineko eraikuntza elementuak dokumentatzeko eta haien azterketa egiteko beharra planteatu genuen.

Okupazio aldiak

1. aldia (xv. mendea?)

Irregularra da baserriari leku egiten dion lur eremuaren geruza naturala, batez ere iparraldean. Baserria eraiki baino lehen, lur eremua lautzeko edo berdintzeko lan gaitzak egin zituzten, kota garaienak induskatu eta sakonuneak bete zituzten, dena plataforma horizontal bat lortze aldera. Azken batean, berriaz egokitutako lur buztintsu ia intrusorik batere gabek osatuko zuen oinarritzko plataforma hau. Deigarriena zen maila hau, iparraldera, lurrez batutako

deuda contraída con su pariente Antonio de Beitia era muy alta, de «*mil ciento y ochenta ducados de principal de plata*» y sus réditos, por lo que decidieron la venta y enajenación perpetua de la casería solar de Uriarte con sus lagares, llaves de la cocina, sus heredades y sus molinos.

Las fogueraciones de Bizkaia del siglo xviii confirman el cambio de propiedad. Así, en 1745 aparece como propietario del caserío Juan Antonio de Aldape Beitia, vecino de Elorrio, poseedor del vínculo y mayorazgo fundado por el capitán Antonio de Beitia. Pero junto al anterior aparece otro propietario identificado como Ag. Arriola. Este aspecto nos hizo pensar que para mediados del siglo xviii el caserío ya se encontraba dividido en dos parcelas. En 1796 aparece nuevamente un único titular bajo el nombre de Víctor Belarroa. La familia Belarroa fue propietaria del caserío conocido popularmente como Berrio Uriarte hasta principios del siglo xx, momento en que fue comprado por la familia Irigoien hasta la actualidad.

Análisis arqueológico

El interés del subsuelo radicaba también en la posible existencia de restos de una ocupación de la parcelación anterior al caserío. Para solucionar esta problemática planteamos la realización en su zona central (entre las crujías transversales tercera y cuarta) de un amplio sondeo que prolongamos desde el *Etartea* hasta el muro zagüero. Perpendicularmente trazamos otra zanja que permitía unir la estratigrafía entre el muro perimetral que dividía entre las crujías transversales primera y la segunda y hasta el límite entre la quinta y la sexta. Paralelamente se excavó toda la superficie del *Etartea* y se realizaron dos sondeos más: uno en la zona de la antigua cocina o *Sukaldea*, y otro, de comprobación, en la zona exterior de la edificación.

Respecto al análisis de las estructuras emergentes se optó por la realización de un estudio que permitiese identificar los diversos cuerpos de fábrica. Para dar respuesta a este objetivo nos planteamos la necesidad de documentar los elementos constructivos del edificio y de realizar un análisis de los mismos con el fin de identificar sus fases constructivas.

Fases de ocupación

1ª Fase (siglo xv?)

El sustrato natural del terreno sobre el que se asienta el caserío es irregular, sobre todo en su flanco norte. Antes de su construcción se acometieron fuertes trabajos de nivelación, que consistieron en excavar las cotas más altas y rellenar oquedades, con el fin de conseguir una plataforma horizontal. En definitiva, se trataba de una tierra arcillosa de deposición secundaria que apenas presentaba intrusiones. Lo más destacado era que este nivel se adosaba hacia el nor-

harrizko oinarri bati atxikita agertzea. Oinarri hau perimetroko azkeneko hormaren azpian agertu zen.

Sukalde zaharraren ipar-ekialdeko angeluan aipatutako terrazaren aurrekoak diren zulo bat eta betegarrri bi dokumentatu genituen. Aztarna hauek zail dira interpretatzen, haiei atxikiriko material arkeologikorik ez dagoelako eta sukalde honen perimetroko hormak ebakitako leku batean daudelako.

Bestalde, guztiz nahasitako alde batean egoteagatik zalantza asko ditugulako, Atartearen aurkitutako harrizko erreten txiki bat terraza eraiki aurrekoa dela uste dugu. Hartan aro modernoko zeramika puska bat aurkitu genuen hondakin-lur buztintsuzko matrize baten baitan.

2. aldia (xv. mendea- xvi. mendearen erdialdea)

Aurreko aldian prestatutako lurrezko terrazaren gainean baserri bat eraiki zuten, zurez egindako baserria. Atal bateko paldo bertikalek (*harribola* edo landu gabeko harri-aulkietan bermaturik) eta aho-zirika mihiztatutako zeharragek eratzen zuten haren egitura. Kanpoko aldera ohol edo taulekin ixten zen.

Guk uste dugu oholekin ixteko sistema hau fatxada guztietan erabiliko zutela, paldo guztiek oholak aho-zirika mihiztatzeko ildaxkak baitituzte goiko eta beheko partean. Gainera, behe-oinean, lehen adierazi dugun bezala, bazen zubi-habe ildaxkadun bat, eraikinaren perimetroaren mendebaldeko muga eratzen zuena. Badira baieztapen hau berresten duten iturri idatziak. Halatan, honela zioen Elorrioko lekuko batek Urigarai baserrian 1550. urtera iritsi baino lehen burura eraman zituzten berritze lanak hizpide izan zituztean: «antes de arreglarse la casa poniendo paredes de cal y canto, (...) solía estar abierta, hecha de tabla y maderamiento»³⁵. Gainera, perimetroko landu gabeko harrizko hormen norabideak ez datoz bat atal bateko paldoen lerroekin. Zenbait puntutan hormek beren baitara biltzen dituzte paldoak, eta beste batzuetan haren lekua hartzen dute.

Aurreko fatxadak atarripe bat zeukan. Horizontalean egokitutako erdiko habe batek, alboetan atal bateko paldo bana zuena, zurean landutako giltzarriekin, osatzen zuen. Giltzarrietako bat kontserbatzen da baina aurre aldeko pantaila-hormak ezkutatuturik dago.

Baserriaren barrunbean, sukalde zaharraren iparaldeko muga, horma zahar baten oinarria geratu zen agerian. Estratigrafikoki orubeko zorua berdintzeko lanen eta ekialdeko perimetroko hormatzat dugunaren ostekoa da. Sukalde zaharraren eta kortaren artean dagoenez, guk uste dugu aska zahar baten oinarria dela.

Korta eta lastategi aldean jarduera aldi honekin lotzen ditugun bi erreten dokumentatu genituen.

³⁵ Santana, A. [et al.] *La arquitectura del caserío de Euskal Herria*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2002, V-1, 31. or.

te a un basamento de piedras trabadas con tierra y localizado bajo el último muro perimetral.

En el ángulo noreste de la antigua cocina o *Sukaldea* se documentaron una fosa y dos rellenos que son anteriores a la citada terraza. Son evidencias de muy difícil interpretación, por la ausencia de materiales arqueológicos asociados y por situarse en una zona cortada por el muro perimetral este de la cocina.

Por otra parte, aunque con muchas reservas por ser una zona alterada, también consideramos anterior a la formación de la terraza un canalillo de piedras localizado en la zona del *Etarte*. En su interior se recuperó una cerámica de adscripción moderna dentro de una matriz de tierra arcillosa de formación residual.

2ª Fase (Siglo xv- mediados del siglo xvi)

Sobre la terraza de tierra preparada en la fase anterior se levantó un caserío enteramente de madera. Su estructura estaba formada por postes verticales enterizos (sobre poyos de piedra sin labrar o *arribolak*) y por travesaños horizontales unidos a caja y espiga. Al exterior se cerraba con tablas.

Consideramos que el sistema de cierre de madera se extendió por todas sus fachadas, ya que todos los pilares presentan en la planta inferior y superior huecos de ensamblajes a caja y espiga. Además, disponía en la planta baja, como ya hemos indicado, de una viga puente acanalada que sirvió de límite perimetral oeste de la edificación. Hay datos documentales que respaldan dicha afirmación. Así, un testigo local de Elorrio afirmaba refiriéndose a las reformas realizadas antes de 1550 en el caserío Urigarai que «antes de arreglarse la casa poniendo paredes de cal y canto, (...) solía estar abierta, hecha de tabla y maderamiento»³⁵. Por otra parte, los muros perimetrales de mampostería mantienen unas orientaciones que no coinciden con el trazado de los postes enterizos. En algunos casos los embeben y en otros llegan a sustituirlos.

La fachada delantera disponía de un soportal formado por una viga central arquiteada, flanqueada por sendos postes enterizos con claves decoradas en madera. Una de las claves, aunque conservada, quedaba oculta por el muro pantalla delantero.

En el interior del caserío se registró, en el límite norte de la antigua cocina, la base de un muro de origen antiguo. Es estratigráficamente posterior a los trabajos de aterramiento del solar y al que consideramos muro perimetral este. Su situación entre la antigua cocina o *Sukaldea* y la *Korta* nos hacen interpretarlo como la base de una antigua «aska».

En la zona de la *Korta* y del pajar se han localizado dos canales que los asociamos a esta fase de actividad.

³⁵ Santana, A. [et al.] *La arquitectura del caserío de Euskal Herria*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2002, V-1, p.31.

3. aldia (xvi. mendearen erdialdea- xvii. mendea)

xvi. mendearen erdialdera zurezko itxituren lekuan pixkana-pixkana harrizko hormak eraikitzen hasi ziren. Lehenik iparraldeko horma eraiki zuten harrizko oinarri zaharretik estalkiari eusten dioten gapirioetaraino, eta hartan hainbat bao ireki zituzten: hiru behe-oinean eta bi lehenengo solairuan. Haietatik bat baino ez da kontserbatzen behe-oinaren ezker alboan, baina goian bai, biak kontserbatzen dira. Azken hauek biak saietera bat eta zirkulu erdiko arkupeko leiho txiki bat dira. Eraikitako horma honek ez zion alde zurratik zegoen zurezko egituraren norabideari eutsi, paldoetako bat agerian geratzen den bitartean gainerakoak hormaren baitara bildu baitzituzten.

Jarraian aurreko fatxadaren ekialdeko eta eskuineko paretetako oholazko itxitura eta zureria desmuntatu zuten, eta haien lekuan landu gabeko eta ondo batutako harrizko hormak altxatu zituzten. Kendu egin zituzten eraikinaren perimetraren muturreko atal bateko paldo guztiak, eta egungo laugarren eta bosgarren horma-arte muturrak baizik ez zituzten kontserbatu. Une honetan eraikiko zuten habe txiki ildaxkaduna, estalkiari eusten diona, ezkututzen duen pantaila-horma. Beraz, ondorengoaldi bateko elementua da aurreko fatxadaren eskuinaldeko pantaila-horma.

4. aldia (xviii. mendea)

xviii. mendearen erdialdera, 1745. urte inguruan, beste berritze lan garrantzitsu bat bururatu zuten Usarte baserrian, hura nabarmen eraldatuko zuena. Bizkaiko baserrien erroldak bi jabe aipatzen ditu data horretan, eta beraz baserria ordurako bitan banatua zela ulertzen dugu. Batetik ukuilu edo korta zaharra bitan banatuko zuen horma eraiki zuten. Horma hau baserriko egungo laugarren eta bigarren horma-arteak banatzen dituen da. Bestalde, baserriaren mendebaldeko muturreko zurezko itxitura zaharraren lekuan beste horma bat eraiki zuten. Atal bateko paldo guztiak kontserbatu zituzten, iparraldeko muturrekoa izan ezik. Eta hala egin zuten petral zaharrak gapirio berriei eutsi ahal izateko eta horma-arte berria mendebaldeantzerantz handitu ahal izateko.

Aldi berean, aurreko fatxadaren erdialdeko eta ezkerreko gorputzak, artean ohol edo taulen bidezko itxitura zutenak, atal bateko paldoen artean altxatutako landu gabeko harrizko hormez itxi zituzten. Sekula ere ez zuten pantaila-hormarik izan, baserriaren kanpoko aldean burura eraman genuen zundaketa arkeologikoan egiaztatu ahal izan genuen bezala.

Mende honetan, sukalde zaharraren barruan, terrazaren azpiko lurra altxatu zituzten parte handi batean, eta haien lekuan, matrize buztintsu baten baitan, harrizko geruza bat egokitu zuten zorupea saneatzeko eta hezetasunak saihesteko xedean. Obra honek sukaldeko maila zaharrenak induskatzea eskatu zuen, eta ondorioz betikoz galduko zen bertan

3ª Fase (mediados del siglo xvi- siglo xvii)

Hacia mediados del siglo xvi se inició un proceso de sustitución paulatino del cerramiento de madera por muros de piedra. En primer lugar se construyó el muro norte, desde el basamento de piedra primitivo hasta los cabrios que soportan la cubierta, y se abrieron en él una serie de vanos: tres en la planta baja y dos en la primera. De ellos sólo se conservan uno en el lateral izquierdo de la planta baja y los dos superiores. Estos dos últimos corresponden a un vano en aspillera y a una pequeña ventana bajo arco de medio punto. El nuevo muro levantado no siguió la orientación de la estructura de madera preexistente, ya que, mientras uno de los pilares queda a la vista, los otros restantes fueron embebidos dentro del muro.

A continuación, fue desmontado el cierre de tabla y maderamiento de los muros este y del lateral derecho de la fachada delantera y en su lugar se construyeron sendos muros de mampostería trabados. Se quitaron todos los postes enterizos del límite perimetral del edificio y tan sólo se respetaron los extremos de la actual cuarta y quinta crujía. Es en este momento hay que entender la construcción del muro pantalla que oculta la vigueta acanalada de sostenimiento de la cubierta. Por tanto el muro pantalla del lado derecho de la fachada delantera es un elemento posterior.

4ª Fase (siglo xviii)

A mediados del siglo xviii, hacia 1745, se produjo otra transformación importante en el caserío Usarte. Las fogueraciones de Bizkaia nos hablan de dos propietarios para dicha fecha, por lo cual entendemos que el caserío estaba dividido en dos. Por una parte se construyó un muro que dividió la antigua cuadra en dos. Corresponde a la pared que divide en la actualidad la cuarta y quinta crujía del caserío. Por otra parte, el antiguo cierre de madera del límite oeste del caserío fue sustituido por un muro de obra. Se mantuvieron todos los postes enterizos salvo el situado en el extremo norte. Se optó por esta solución ya que la vieja viga correa sirvió de apoyo a nuevos cabrios para la ampliación hacia el oeste de una nueva crujía.

Paralelamente, tanto el cuerpo central como el lado izquierdo de la fachada delantera, que presentaban hasta este momento un cerramiento en tablazón, fueron sustituidos por mampostería entre los pilares enterizos. Nunca dispusieron de ningún muro pantalla, tal y como hemos podido comprobar en el sondeo arqueológico realizado al exterior del caserío.

En este siglo, en el interior de la antigua cocina o *Sukaldea*, se excavaron en gran parte las tierras subyacentes del aterrazamiento. En su lugar se colocó, dentro de una matriz arcillosa, un nivel de piedras que sirvió para sanear el subsuelo y evitar humedades. Esta obra conllevó la excavación de gran parte de los niveles más antiguos de la cocina y supuso la pérdida



Usarte/Isuarte baserriaren ipar-mendebaldeko eta hegoaldeko hormen eraikuntzaaldiak.

Fases constructivas de los alzados noroeste y sureste del Caserío Usarte/Isuarte.

egongo zen beheko sua, laratz birakari batez hornituta egongo zena. Haren tokian tximinia bat eraiki zuten ekialdeko hormari atxikirik. Sukalde honek ukuilu edo kortarekin bat egiten zuen arteko horman irekitako leihatilaren bidez, hain zuzen ere askaren gainean irekitzen zen leihatilaren bidez (gerora itsutu eta janaritegi bihurtu zuten).

Sukalde zaharraren barruan, honako eraikuntza aldira biltzen dira identifikatu ditugun beste hondakin arkeologiko batzuk:

- Sukaldearen ipar-mendebaldeko angeluan aurkitutako zuloa (0,50 bider 0,80 m), aro modernoan datatu beharreko zeramikazko materialak zituen.
- Ekialderantz, azpiko harrizko errenkadarekin bat egiteraino iristen zen buztin horixkako zorua. Guk uste dugu barruko trenkadaren oinarria izan daitekeela, edo eskailera baten abiapuntua.
- Aurreko zorua zultzen zuten hamaika zulo txiki. Ez zuten inolako lerrorik eratzten. 10 eta 5 zentimetro bitarteko diametroa zuten. Guk uste dugu obrak egiteko beharrezkoak izango zituzten aldamiok utzitako arrastoak direla.
- Arestian deskribatutako mailen gainean buztinezko beste geruza bat erregistratu genuen,

del fuego bajo central, auxiliado por percha giratoria, que pudo existir. En su lugar se construyó una chimenea adosada al muro perimetral este. Esta cocina se comunicaba con la cuadra o *Korta* a través de una ventanilla abierta en el muro medianil (posteriormente cegada y reconvertida en pequeña despensa) y situada directamente sobre el pesebre.

A esta fase constructiva se asocian, dentro de la antigua cocina o *Sukalde*, otras evidencias arqueológicas identificadas:

- Un foso (0,50 por 0,80 m) que se localizó en el ángulo noroeste de la cocina y que contenía materiales cerámicos de adscripción moderna.
- Un suelo de arcillas amarillentas que se extendía hacia el este hasta adosarse a una alineación de piedras subyacente. Consideramos que pudo ser la base de un tabique interno o el arranque de una escalera.
- Once pequeños hoyos que perforaban el suelo anterior y que no llegan a formar ninguna alineación concreta. Sus diámetros varían entre 10 y 5 cm. Los interpretamos con los andamios necesarios para la realización de obras.
- Sobre los niveles anteriormente descritos se registró otro suelo de arcillas, perforado por tres

Plentziako Santa Maria Magdalena elizaren barruko aldean saneamendu sare berri bat eraikitzeko proiektua aurkeztu zenez, lanen gaineko jarraipen arkeologiko bat egin eta ondoren induskatu egin genituen obren eraginpeko eremuak. Zehatzago adierazteko, Ebanjelioaren habeartearen luzera eta presbiterioko alde txiki batean jardun genuen lehenengo aldi batean; eta elizaren oinetan (goiko koruaren azpian) eta Epistolaren habeartean bigarren aldi batean.

Esku-hartze partzial honek aukera eman digu barruko hilerrian hainbat aldi bereizteko, baina aldi berean erakina xv. mendearen erdialdera eraiki ostean hegoaldean egin zituzten handitze lan batzuen inguruko galderak planteatzera eramaten gaitu.

Hasiera batean lehenengo aldira biltzen ditugu buztinean induskatutako hilobi kopuru garrantzitsu bat eta estratigrafiaren ikuspuntutik hilobi hauekin harremanetan dauden beste hilobi batzuk, seguru asko xviii. mende hasierako hilerri antolamenduaren aurreko tenplu bateko «*intra ecclesiam*» hilerriari dagozkionak.

Lehen aldi honetako adibidea izan daiteke hobi soil baten formarekin buztinean induskatutako hilobia, iparraldeko lubakian aurkitua: bertan norbanako heldu bi egokitzen dira ahoz gora. Hobi bietako oinak ebaki egiten ditu 1738. urteko kaxadurako zimentarrirako lubakiak. Esan beharra dago Ebanjelioaren habearte honetan guztian ez genuela beste hilobi bakar baten arrastorik ere topatu.

Hala eta guztiz ere, oinarriko buztinean induskatutako hilobi edo bigarren mailako depositu hauetatik gehienak elizaren oinetan, goiko koruaren azpian, bururatutako lanetan zehar geratu ziren agerian; hain zuzen ere alde honetan hauteman ahal izan genuen xviii. mendeko antolamenduaren aurreko parrokiako hilerri honen konplexutasuna.

Alde honetan eta buztinetan induskatuta hilobi kopuru handi bat dokumentatu ahal izan genuen. Hilobi

Con motivo de la construcción de una nueva red de saneamiento en el interior de la iglesia de Santa María Magdalena de Plentzia se ha realizado un control arqueológico y posterior excavación en aquellas zonas que iban a ser afectadas por las obras. Más concretamente a lo largo de la nave del Evangelio y una pequeña zona del presbiterio en una primera fase; y en los pies de la iglesia (bajo coro alto) y nave de la Epístola en la segunda.

Esta intervención arqueológica parcial ha permitido documentar distintas fases en el cementerio interior y ha generado algunas preguntas sobre las ampliaciones meridionales realizadas al templo tras su construcción a mediados del xv.

A una primera fase se han adscrito, preliminarmente, un buen número de sepulturas excavadas en la arcilla, y otras estratigráficamente relacionadas con ellas, presumiblemente pertenecientes al cementerio parroquial «*intra ecclesiam*» anterior a la ordenación cementerial de inicios del siglo xviii.

Puede servir de ejemplo de esta primera fase una sepultura en fosa simple, localizada en la zanja norte y excavada en la arcilla, que posee dos individuos adultos en decúbito supino. Ambos enterramientos se encuentran cortados, en las extremidades inferiores, por la zanja de cimentación del encajonado de 1738. Destaca también que en toda esta nave del Evangelio no se han localizado indicios de otras sepulturas.

Sin embargo el mayor número de estas sepulturas excavadas en la arcilla base, o en depósitos secundarios, se ha localizado durante el transcurso de la obra en los pies de la iglesia, bajo el coro alto; y es en esta franja en la que se pudo observar la complejidad de este cementerio parroquial anterior a la ordenación del siglo xviii.

En ésta zona se pudo documentar un gran número de sepulturas excavadas en la arcilla, muchas de

asko berrerabiliak izan dira, eta seguru asko kale eta lerroetan banatuta egongo zirela esan behar dugu.

Hilobi gehienek mendebaldeko horma dute erreferentzia nagusi, lerro berera biltzen dira hilerriko banaketa ordenatuan, izan ere ez daude hormaren zimentarrirako lubakiak nahasita. Aitzitik, sarbidearen hegoaldeko muturrean dokumentatutako hilobiak lubaki horrek nahasita daudela ematen du. XIX. mende bukaeran, 1888. urtean, eliza honek aldaketa garrantzitsuak bizi zituen, hormak eta estalkia berri-zeaz gainera, tenplua «berreraiki» egin baitzuten elizaren oinetan. Hilobien burualdeak nahasita agertzea egiaztatzen zaila den XIX. mende amaierako lanen erakusgarri izan liteke (horma atzera eramana. handitzea eta beste batzuk), baina hori egiaztatzea zaila dela diogu burura eramandako obra zein den ikusirik.

Zerrenda txiki honetan ondo asko hautematen da nola zenduei lur emateko espazioa behin eta berriz erabili zuten. Hobi soiletan lau ehorzketa maila dokumentatu ere ditugu. Lehenengoa buztinean induskatuko bi hilobik osatzen dute, bakoitza bere norbanakoarekin, eta haien gainean buztinezko maila bat hedatzen da, gizakiek egokitutako geruza. Buztinezko geruza honek, gerora burualde erdizirkularrak sorrarazi baitzituzten bertan, hurrengo ehorzketa mailaren oinarriarenak egingo zituen.

Hain zuzen ere bigarren ehorzketa maila honetan ikusten da ondoen nola hilobiak behin eta berriz aprobetxatu zituzten, izan ere lau norbanako dokumentatu ahal izan genituen hobi bakar batean.

Hilerriari emandako espazio hau behin eta berriz erabili zutelako erakusgarri da hilobien hirugarren maila, aurreko bien gainean egokitua, gaineko deposituan

ellas reutilizadas, y posiblemente distribuidas en calles y filas.

La mayoría parece disponerse en relación al muro occidental, en una misma fila dentro de una distribución cementerial ordenada, ya que no se encuentran alteradas por la zanja de cimentación de esta estructura. Sin embargo los enterramientos localizados en la franja más meridional de esta zona de acceso si parecen alterados por esta zanja. A finales del siglo XIX, más concretamente en 1888, la iglesia sufre una gran transformación en la que, además de otras reformas en los muros y en la cubierta, el templo se «reconstruye» en toda la zona de los pies. Esta alteración de las sepulturas en parte de sus cabeceras puede evidenciar esta reforma de finales del XIX (retranqueo del muro, ampliación, etc.) difícil de comprobar, por otro lado, dada la naturaleza de la obra practicada.

En esta reducida franja se evidencia un reaprovechamiento continuo del espacio sepulcral. Se ha podido documentar hasta cuatro niveles de enterramientos en fosa simple. El primero lo evidencian dos sepulturas excavadas en la arcilla con sendos individuos sobre los cuales se sitúan un nivel de arcilla en posición secundaria. Este nivel de arcilla, en el que incluso se crean posteriormente cabeceras semicirculares, sirve de base al siguiente nivel de enterramientos.

Es en este segundo nivel de enterramientos en el que se evidencia más profusamente el reaprovechamiento continuado de las sepulturas, llegando incluso a documentarse cuatro individuos en una misma fosa.

Ejemplo también de esta intensificación del espacio cementerial es el tercer nivel de sepulturas, situado por encima de los dos anteriores, y que está for-



Santa María Magdalena eliza. Ezk. Ebanjelloaren habeartean aurkitutako kaxaduraren xehetasunak. / Esk. Plentziako Santa María Magdalena elizaren oinetan egokitutako hilobien ikuspegi orokorra.

Iglesia Santa María Magdalena. Izda. Detalle del encajonado localizado en la nave del Evangelio. / Dcha. Vista general de los enterramientos en la zona de los pies de la iglesia de Santa María Magdalena de Plentzia.

etenik izan ez zuten ehorzketek osatua. Aldi honetara biltzen dira lotura anatomikoan agertzen diren gorpuzkinak, ondoan hezur zati isolatu ugari dituztenak. Bukatzeko, azken maila hau nahasi egiten dute aldi berean azpiko maila guztiak nahasten dituzten beste bi hilobik.

Hilobi hauek guztiak seguru asko aro modernoko antolamenduaren aurreko parrokiako hilerrikoak izango dira. Zenduak elizen barruko aldean hilobiratzeko joera xv. mendean zehar nagusitu zen, eta hala egiten jarraitu zuten xviii. mendean zehar Bizkaiko eliza asko eta askotan dokumentatutako antolamendu berria nagusitu zen arte.

Plentziako Santa Maria Magdalena elizan 1738. urtean bururatu zuten antolamendu berria. Bestalde, hilobiratzeko horietatik lau Ebanjelioaren habeartean dokumentatu ahal izan genituen.

Elizaren iparraldeko hormari atxikirik, hilobi hauek landu gabeko harri irregularrez eginak dira, harriak kareoz batuak. Jangune batez hornitutako harrizko estalkien parte handi bat kontserbatzen dute.

Hilobi hauek guztiek bertan ehortzitako azken norbanakoen gorpuzkinak kontserbatzen zituzten, eta gorpuzkin hauen mailaraino iritsi bitartean betegarria ere induskatu ahal izan genuen, hezur zati ugari gordetzen zituen betegarria. Hezur hauek garbiketa lanetatik etorriak izango dira seguru asko, hilobia garbitu egingo baitzuten zendu berriari leku egin baino lehen. Eta hilobiak egokitu egiten zituztela erakusten digu oinaldean lotura anatomikoari eusten dioten hezurak agertu izana, aurreko ehorzketa batzuei dagozkien hezurak bereizi ahal izana. Agerian utzitako norbanakoak ahoz gora daude, besoak bularretan, eta batzuek ehun hondakinak, arrosario aleak, orratzak eta txanponak gordetzen dituzte.

Burura eramandako lanek kaxadura hau elizaren eremu oso zehatz batean bereizteko aukera eman dute. Beraz, ez dakigu hilerriaren antolamendu berri honek zer luze-zabalera hartzen duen eraikinaren barruko perimetroko beste zerrendetan.

Bukatzeko, ezin aipa gabe utzi ditzakegu kontrol arkeologikoko lanetan zehar hautemandako elementu batzuk, etorkizuneko esku-hartze arkeologikoetan dokumentatu beharrekoak. Elizaren hegoaldean topatutako horma egitura baten eta erreten baten hondakin apurrez ari gara.

Elementu hauek biak tenplua bera eraiki aurreko garaietako obrak izan daitezke, esate baterako lur eremua drainatzeko egiturak, edo zuzeneko lotura izan dezakete gure garaira arte iritsi den eraikinarekin.

mado por inhumaciones continuadas en un mismo depósito suprayacente de manteado de enterramiento. Esta fase alberga individuos en conexión anatómica junto con un gran número de fragmentos óseos aislados. Finalmente este último nivel se encuentra alterado por dos nuevas sepulturas que alteran todos los niveles infrayacentes.

Posiblemente todas estas sepulturas pertenecen al cementerio parroquial anterior a la ordenación moderna. Los enterramientos interiores se generalizan a toda la población a lo largo del siglo xv, continuando su uso hasta la ordenación documentada en gran parte de las iglesias vizcaínas a lo largo del siglo xviii.

En Santa María de Plentzia esta ordenación se realiza en 1738 y se han podido excavar cuatro de estos enterramientos situados en la nave del Evangelio.

Adosados al muro perimetral norte de la iglesia, estos cuatro encajonados estaban realizados en mampostería irregular unidos con argamasa de cal y conservaban gran parte de las piedras cimeras superiores labradas con rebaje.

Todas las sepulturas conservaban los últimos enterramientos practicados en su interior y hasta la localización de estos individuos se pudo excavar el relleno provisto con una gran cantidad de fragmentos óseos presumiblemente procedentes de las continuadas limpiezas realizadas con el objetivo de colocar al nuevo individuo. Prueba de estos acondicionamientos de las sepulturas es la localización, en la zona de las extremidades inferiores, de restos óseos en conexión anatómica perteneciente a anteriores inhumaciones. Los individuos exhumados se localizan en posición decúbito supino con los brazos sobre el pecho y conservan en algunos casos restos de tejido, cuentas de rosario, alfileres y monedas.

Las obras realizadas sólo han permitido localizar este encajonado en un punto muy concreto de la iglesia, no pudiendo observar la extensión de esta nueva ordenación cementerial en otras franjas del perímetro interior del edificio.

Por último cabe citar algunos elementos detectados durante el control arqueológico que esperamos poder documentar en futuras intervenciones arqueológicas. Se trata de los escasos restos de una estructura muraria y una atarjea localizadas en el sector meridional.

Ambos elementos pueden formar parte tanto de anteriores momentos edificativos del propio templo como de drenajes u obras relacionadas con el edificio que ha llegado hasta nuestros días.

J.A. Fernández Carvajal

B.25. VALLE DE CARRANZA / KARRANTZA HARANA

B.25.1. El Polvorín leizea

V. kanpaina
Zuzendaritza: Rosa Ruiz Idarraga
Diru-laguntza emailea: Bizkaiko Foru
Aldundia

B.25.1. Cueva de El Polvorín

V Campaña
Dirección: Rosa Ruiz Idarraga
Subvención: Diputación Foral de
Bizkaia

The 5th season of excavations of El Polvorín took place during the summer of 2009. During this season, three areas of the site were excavated: those corresponding to a grid in the entranceway, the sample underneath the ST1 speleothem and two grids in the zone excavated during the previous season in the inner chamber.

Sarrera

2009ko irailean bururatu genuen IV. indusketa kanpaina hau. Indusketa hau Karrantzako multzoari halako balioa emateko proiektuaren baitara biltzen da, eta beraz, Venta Laperra eta El Polvorín leizeak induskatuko dira proiektu hari jarraiki.

El Polvorín leizean bideratutako indusketa kanpainen zehar, batez ere leize honetako sedimentuzko betegarriak biltzen diren alde bitan jardun dugu, ezkaratzean eta barneko gelan. Bestalde, areto txikiak eta leizean zehar ezkaratzaren eta barneko gelaren artean kontserbatutako lekukoek eskainitako informazioa dugu.

Eremuko estratigrafia eta okupazioaren interpretazioa

V. kanpaina honetan 2008koan irekitako eremu bietan, ezkaratzean eta barneko gelan, induskatzen jarraitu dugu.

Ezkaratzeko betegarria induskatzen hasita ikusten da nola betegarri hau, aurreko tailetan bezala, oso trinkoa den, nola parterik handiengan konkrezionaturik dagoen. Kolorez horia da, eta bertan ugari dira klasto ertainak eta txikiak. Lauki batera bideratu genituen ahalegin guztiak, J-12 laukira, J.M. Barandiaranek haren indusketaren memorian deskribatzen zuen Lehen Auriñac aldiko pakete emankorrari leku egiten dion sakonera maila iritsi nahi baikenuen.

Kanpaina honetan oso aspaldikoak diren material arkeologikoak gertatu dira agerian ezkaratzeko taila sakonetan. Zalantzarik gabe, Goi Paleolito aroko materialak dira.

Lauki honetan lau koadranteak induskatzen hasi ginen. Oso betegarri uniforme zenez, oso trinkoa, neurri txiki errekarrekin eta kareharriekin, indusketa bi koadrantetara mugatzeko erabakia hartu genuen, Barandiaranen katatik gertuen dauden bietara.

Introducción

La campaña de excavación tuvo lugar en septiembre de 2009. Esta excavación se inscribe en un proyecto de puesta en valor del complejo carranzano que incluye la excavación de la Cueva de Ventalaperra y la Cueva del Polvorín.

A lo largo de las campañas de excavación en el Polvorín, hemos intervenido más intensamente en 2 zonas del relleno sedimentario de esta cueva: el vestíbulo y la sala interior. Por otra parte tenemos la información que proporcionó la saleta y los testigos conservados a lo largo de la cueva entre el vestíbulo y la sala interior.

Estratigrafía del área e interpretación de la ocupación

En la campaña V se ha continuado la excavación en dos de las áreas abiertas en la campaña de 2008: el vestíbulo y la sala interior.

En la excavación del vestíbulo el relleno se muestra, como en las tallas anteriores, muy compactado y, en su mayor parte, concrecionado, de color amarillento y con abundantes clastos medianos y pequeños. Hemos concentrado los esfuerzos en un cuadro: J 12, dada la necesidad de bajar a la profundidad en que se encuentra el paquete fértil de Auriñaciense Antiguo que describe J.M. de Barandiarán en su memoria de excavación.

Durante esta campaña las tallas más profundas del vestíbulo presentan materiales arqueológicos muy antiguos aunque, sin ninguna duda, se trata de materiales de Paleolítico Superior.

En este cuadro comenzamos por excavar los 4 cuadrantes. Dado que se trataba de un relleno uniforme, muy compactado, con cantos rodados y calizas de pequeño tamaño y con escaso material arqueológico, decidimos reducir la excavación a dos cuadrantes, los más próximos a la cata de Barandiarán.

13. tailan hurrengoetako sedimentuetan hautematen den aldaketa baten arrastoak nabari dira. Hala eta guztiz ere, harriek, tarteka, bertikalean egokituta jarraitzen dute.

19. tailan deigarria da ordura arte topatu gabeko harrizko elementu batzuen presentzia: xafla euskarri handietatik ateratako xafla ukitu gabeak eta aho batean landuak, karraskagailu baten modura. Hezur hondakinak beste tailetan bezala agertzen dira. Harrizko euskarri mota hauek ez dira Mouster aldikoak.

Kanpaina honetan eta barneko gelan, espeleotema edo jariakin lodi bat (ST1) kendu ostean geratu zen lekukoan induskatu genuen, lekuko hori topografiaren planoan kokatu eta haren gainazalaren koordenatuak jaso eta gero.

Kanpainan irekitako ebakian ageri denari segida ematen dio estratigrafiak: espeleotema geruza (kendutako egitura lodia), maila buztintsua eta marroi iluna, buztin horiko geruza bat eta bigarrena baino argiagoa den beste geruza marroi bat.

Sedimentu pakete honetan egindako ebakian ondo ikusten denez, geruza marroi ilun aski lodia da, aurreko kanpainetan irekitako eremuan baino askoz ere lodiagoa.

Aurreko kanpainan alde hauetan jardun ez genuenez, kendutako espeleotema geruzen arteko sedimentua aztertzeke ueña zela erabaki genuen. Sedimentuak jaso eta aztarnategian hartzen zuten lekuen koordenatu zehatzak idatzi genituen. Kanpaina honetan, beraz, sedimentu horiek bildu genituen garbitu eta behar bezala bahetzeko xedean.

Lekuko honetan induskatutako lehenengo tailan orban grisaxka bat hautematen da, errautsez eta ikatzez betetako lurra, baita erretako harri txikiak ere. Sutegi baten oina da. Haren gainazala atera egin zen espeleotemarekin batean, eta hartatik datatu beharreko ikatzak jaso genituen.

Sutegiaren oinaren azpian buztin marroi iluneko geruza ageri da, material ugari eskaini dituen, besteak beste, sukarrak eta hezurak.

Topografikoki kokatutako harrizko aurkikuntzen artean ugari ziren laskak eta taila lanetatik etorritako hondakinak, nukleo hondakinak eta tresna batzuk, sukarrietan, limonietan, kuartzietan eta kuartzoetan landuak.

Hezurrezko tresnen artean aipagarri dira puntzoi handi bat eta hainbat leungailu. Apaingarrien artean, harriak eta oreinaren letagin atrofikoan landutako zintzilarioak azaldu ziren.

Aurreko kanpainaren ostean, buztin horiko geruza K, L eta beste laukietako indusketa eremuan zein lodi zen argitu nahi genuen, estratigrafiak zer nolako garrantzia zuen jakin nahi genuen.

Geruza hori honen azpian kolorez grisaxka zen beste maila bat bereizten zen. Bertako sedimentua trinkoa zen, eta ugari ziren ikatz txiki-txikiak. Sedimen-

A la altura de la talla 13 se aprecia indicios de lo que será en tallas posteriores un cambio en la sedimentología. Sin embargo aún las piedras aparecen dispuestas, en ocasiones, en vertical.

En la talla 19 resulta llamativa la aparición de unos elementos líticos hasta ahora no encontrados: láminas simples o retocadas en un filo a modo de raedera, sobre soportes laminares de gran tamaño. Los restos óseos siguen apareciendo como antes. Este tipo de soportes líticos no corresponden con un Musteriense.

En la sala interior, en esta campaña, se ha excavado en el testigo que quedó tras la retirada de un grueso espelotema (ST1) tras el establecimiento de su situación en el plano topográfico y de las coordenadas de su superficie.

La estratigrafía que presenta continúa la que se muestra en el corte obtenido en la campaña: una capa de espelotema (la gruesa formación retirada), un nivel arcilloso marrón oscuro, un estrato de arcilla amarilla y un estrato marrón más claro que el segundo.

Según lo que se observa en el corte de este sedimento el estrato de arcilla marrón oscuro tiene bastante potencia, mucha más que en el área abierta en las campañas anteriores.

Puesto que en la campaña anterior no se había intervenido en estas zonas, decidimos que era el momento de recuperar el sedimento contenido entre las capas de los espelotemas retirados a fin de incluir en su recogida la nomenclatura exacta de las coordenadas del yacimiento. En esta campaña se ha procedido a su recogida para ser lavado y triado.

En la primera talla excavada de este testigo aparece una mancha grisácea de una tierra llena de cenizas y carbones y piedras de mediano tamaño quemadas. Se trata del fondo de un hogar cuya superficie se retiró con el espeleotema del que se recogieron carbones que se han enviado a fechar.

De forma inmediata a la base del hogar se inicia el estrato de arcilla marrón oscuro con abundantes hallazgos: sílex, hueso, etc.

Entre los hallazgos líticos con referencia topográfica aparecieron numerosas lascas y restos de talla, restos de núcleos y algunos útiles, tanto en sílex, como en limonita, cuarcita y algunos cuarzos.

Entre los hallazgos de industria ósea merecen destacarse un punzón de gran tamaño y varios alisadores. Entre los objetos de adorno aparecieron colgantes en canino atrofico de ciervo y en piedra.

Tras la campaña anterior, en el área de excavación de los cuadros K, L, etc. se planteaba el conocer qué potencia tenía el estrato de arcilla amarilla y cómo seguía la estratigrafía.

Bajo este nivel amarillo aparecía un nivel de coloración grisácea, con sedimento compacto y con abundantes carbones de muy pequeño tamaño. El

tua ia guztiz antzua da. Geruza hau ere iparraldetik hegoaldera eta mendebaldetik ekialdera makurtuta dago.

Koadrantearen iparraldeko ertzean, lur gris-zuri karbonotsuaren gainean, diafisi ia oso bat, beste hezur batzuk eta harrizko tresna batzuk, konkrezio askorekin batean, azaldu ziren. Maila honen azpian harkaitz handi bat ageri zen. Induskatutako espazioaren urriak eta iritsitako kotak ez digute, oraingoz, behera etorritako harri handi bat den ala harri ama bera den argitzeko modurik eskaintzen.

Behin-behineko emaitzak

Sedimentuetan aditua den Arantza Aramburu andreak ondorioztatutakoaren arabera, leizeko espeleotemek eta bide freatikoeak leizea bi unetan hustu zela adierazten digute. Lehenengoa Madalen aroa baino lehen gertatu zen, Kantauri aldeko beste leizeetan bezala, esate baterako, Cueva del Conde leizean (Auriñac aldikoa) bezala, eta bigarrena Holozeno aroan, gutxi gora-behera K.a. 15.000. urte aldera.

Oraingoz ezkaratzaren hondoak eta areto txikiak, hondoratutako bloke handiekin, leizearen alde honetan eragin handia izan zuen hustubidea osatzen dutela baino ez dezakegu esan. Betegarria, beraz, behera etorriko zen agian deskribatu berri dugun fenomenoaren ondorioz, eta baliteke eraldatuta egotea, baina ez nahasita, indusketa lanetan agerian geratu zen bezala.

Harrizko tresnei eta sedimentuen itxurari erreparatuz gero, baliteke ezkaratzean bideratutako indusketatik iritsitako kota Joxe Migel Barandiaranek bere memorietan deskribatzen zuen aurkikuntzen maila sakonaren hasiera izatea.

Barneko gelan, zalantzarik gabe, Madalen aldiko maila batez mintzo gaitezke.

sedimento es prácticamente estéril. Se sigue la inclinación de este estrato N-S y W-E.

En la esquina del cantil N del cuadrante, sobre la tierra gris-blanca-carbonosa apareció una diáfisis bastante completa y otros huesos y algunos restos líticos acompañados de numerosas concreciones. Por debajo de este nivel, aparecía una roca de gran tamaño. En el pequeño espacio de la excavación y teniendo en cuenta la cota, no se puede saber en el momento actual si se trata de una formación rocosa, desprendida, de gran tamaño o bien, de la roca madre.

Resultados provisionales

De acuerdo con las observaciones de la sedimentóloga Arantza Aramburu los espelotemas de toda la cavidad y los conductos freáticos hablan de dos momentos de vaciado de la cueva. Uno, sería anterior al Magdaleniense, como así ocurre en otras cuevas del Cantábrico como por ejemplo en la Cueva del Conde (Auriñaciense) y otro, en el Holoceno, aproximadamente hacia el 15.000 a.C.

Hasta la fecha, podemos decir que el fondo del vestíbulo, al igual que en la saleta, con grandes bloques hundidos son un sumidero que afectó a esta parte de la cavidad. El relleno, por tanto, se hundió quizá en relación con este fenómeno descrito y que esté alterado pero no revuelto, como así se observa durante la excavación.

Es posible que la cota alcanzada por nuestra excavación en el vestíbulo marque -a la luz del tipo de industria lítica y el aspecto del sedimento-, el comienzo del nivel profundo de hallazgos que describía D. José Miguel de Barandiarán en sus memorias.

En la sala interior podemos hablar con seguridad de un nivel Magdaleniense.

R. Ruiz Idarraga

B.25.2. Venta Laperra, El Rincón eta El Bortal leizeak

VII. kanpaina
Zuzendaritza: Diego Garate
Diru-laguntza emailea: Áridos y Canteras del norte, S.A.

B.25.2. Cuevas de Venta Laperra, El Rincón y El Bortal

VII campaña
Dirección: Diego Garate
Subvención: Áridos y Canteras del norte, S.A.

During the 7th season of monitoring the state of conservation of Venta Laperra, El Rincón and El Bortal Caves, no alterations of note were detected.

2009. urtean zazpigarren interbentzioa bururatu dugu Venta Laperra, El Rincón eta El Bortal leizeen kontserbazio egoera aztertzeako proiektuaren barnean

Durante el año 2009 hemos desarrollado la séptima intervención del proyecto de seguimiento del estado de conservación de las cuevas de Venta Laperra, El

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak 2002ko maiatzaren 13an emandako ebazpenari jarraiki; izan ere, Canteras y Construcciones de Vizcaya, S.A. enpresak Karrantzako udal barrutian sustatutako «Venta La Perra» harrobia ustiatzeko proiektuak ingurumenean eragina izango zuela erabaki zuen. Aurreko urteetako memorietan (ikus *Arkeoikuska 05*) jada azalduta ditugu bertan baliatutako protokoloa eta jarduteko metodologia

Urtean zehar eta hiru hilean behin bideratutako miaketa lanetan agerian geratu zen lehendik adierazitako ondare ondasunen kontserbazio egoerak bere horretan jarraitzen duela. Besterik gabe, esan dezagun urteko bigarren eta hirugarren esku-hartzeetan El Bortal leizean bloke bi mugituta zeudela hauteman genuela, baina ez dakigu nondik iritsiak diren ez eta haiek mugitzeko arrazoiak zein izan diren ere.

Rincón y El Bortal en acuerdo con la resolución del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, de 13 de mayo 2002, en la que se formula la declaración de impacto ambiental del proyecto de explotación de la cantera «Venta La Perra» promovida por Áridos y Canteras del norte, S.A., en el término municipal de Carranza. El protocolo y metodología de actuación ha sido detallado en anteriores intervenciones (ver *Arkeoikuska 05*).

Las actuaciones trimestrales desarrolladas han puesto de manifiesto una continuidad en lo que se refiere al estado de conservación de los bienes patrimoniales señalados. Solamente cabe señalar el desplazamiento de dos bloques en la cueva de Bortal -en la segunda y tercera intervención anual- sin que podamos determinar las causas y procedencia de los mismos.

D. Garate Maidagan

B.26. VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN

B.26.1. Hegoaldeko Saihesbide Metropolitanoa. Trapagarango Zubibideko 3B atala

Zuzendaritza: José Ángel Fernández
Carvajal
Finantzazioa: Applus Norcontrol, S.L.U.

B.26.1. Variante Sur Metropolitana. Tramo 3B Viaducto de Trapagarán

Dirección: José Ángel Fernández
Carvajal
Financiación: Applus Norcontrol, S.L.U.

Archaeological monitoring carried out during the excavation of the pillars of the viaduct and during the work carried out on the access roads to the N-634. The results were of no historical-archaeological interest.

Zubibideko zutarrak induskatzeko lanetan eta N-634 errepiderako sarbideak egokitzeko lanetan zehar egindako kontrol arkeologikoa. Kontrol lan hauen emaitza interesik gabea izan zen historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Control arqueológico realizado durante la excavación de los pilares del viaducto y durante el acondicionamiento de los accesos a la N-634. El resultado del control fue de nulo interés histórico-arqueológico.

J.A. Fernández Carvajal

B.27. ZALLA

B.27.1. **Bolunburuko El Cerco kastroa**

II. Kanpaina
Zuzendaritza: Juan José Cepeda
Ocampo
Finantzazioa: Zallako Udala

B.27.1. **Castro El Cerco de Bolunburu**

II Campaña
Dirección: Juan José Cepeda
Ocampo
Financiación: Ayuntamiento de Zalla

Excavation season in El Cerco de Bolunburu Fort, which was occupied during the second Iron Age. The fieldwork focused on delimiting the living spaces found inside the defensive precinct, as well as on uncovering a significant stretch of the external part of the wall.

Kastroaren barruan induskatutako eremuak aztar-nategiaren mendebaldeko sektorea hartzen du, 2002. urtean harresitik gertu egindako zundaketaren alde biak. Gutxi gora-behera 360 m² hartzen dituen eremu zabal honetan aurreko kanpainan zehar agerian utzitako lanerako azalera emendatu dugu, eta orduan aurkitutako egiturak induskatzen jarraitu dugu. Horren guztiaren ondorioz askoz hobeto ezagutzen dugu kastroaren barruko egoitza aldea nola antolatuta zegoen.

Indusketa lan honek aukera eman digu 2008. urtean aurkitutako barrutietako bati begira, «C etxola» izenarekin identifikatu genuenari begira, eskaini genuen interpretazioa nabarmen aldatzeko. Izan ere, oinplano angeluzuzen irregularra duten etxebizitza atxiki bik (C1 eta C2) hartzen dute espazio hau, alde laburretako batek arteko hormarenak egiten zituela. Etxebizitza biak, mendebaldeko frontean, lurtean ziri moduan ipinitako harrizko lerro jarraituak mugatuta zeuden; perimetrotako gainerako atalak, berriz, zorupean txertatutako zurezko paldoek eratuta zituzten. Barruti hauen barrunbeetan identifikatutako sutegi biak, aurreko kanpainan ondoz ondo etorritako okupazioaldi banatan kokatu genituenak, egoitza geruza bati eta berari dagozkio, hori bai, ondo bereizi beharreko bi egitura ezberdinetan daude. Era berean, bi barruti hauetako azken okupazioaldietako zoruak prestatzeko balio izan zuen barruko betegarria aztertu ahal izan genuen. Betegarri hau era askotako lurrez eta erretako landare hondakin ugari osatuta zegoen. Gune gutxi batzuetan baino ez, betegarri honen gainean zanpatutako lurrez, lur buztintsuaz, osatutako gainazal baten hondakinak bereizi genituen, baina gainazal horren atalik handienak betikoz galduak ziren higaduraren eta aro modernoko laborantza lanen ondorioz. Zorua prestatzeko maila hau hobeto hautematen da C-2 etxolaren barruko aldean, izan ere, alde honetan lurra kolorez beltzagoa da, ugariago dira ikatz hondakinak. Gure garaiko jardunek nahasitako pakete honen baitan, barruti honetako sutegiaren muturretako batean, eskuko errota zirkular bati dagokion pieza mugikorren zati bat aurkitu genuen.

La zona excavada en el interior del recinto se extiende por el sector occidental del yacimiento, a ambos lados del sondeo practicado el año 2002, inmediato a la muralla. En esta amplia zona, que ocupa unos 360 m², se ha procedido a ampliar la superficie de trabajo exhumada durante la campaña anterior a la vez que se completaba la excavación de las estructuras localizadas entonces. Resultado de todo ello es la obtención de una imagen mucho más precisa de la articulación del espacio doméstico en el interior del castro.

La excavación ha permitido modificar substancialmente la interpretación de uno de los recintos localizados en el año 2008 que, de forma provisional, identificábamos como «cabaña C». Este espacio está ocupado en realidad por dos viviendas adosadas de planta rectangular irregular (C1 y C-2), que comparten uno de sus lados cortos a modo de muro medianil. En su frente más occidental ambas viviendas se encontraban delimitadas por una línea corrida de piedras calzadas sobre el terreno, mientras que el resto del perímetro quedaba definido únicamente por postes de madera incrustados en el subsuelo. Los dos hogares identificados en el interior de estos recintos, que en el transcurso de la campaña anterior habían sido asignados a dos fases sucesivas en la ocupación, corresponden en realidad al mismo horizonte de habitación, dentro de dos estructuras diferenciadas. Igualmente, se ha podido comprobar que el relleno interior que sirvió de preparación para los suelos correspondientes a la fase más reciente de ocupación de estos dos recintos está formado por un paquete indiferenciado de tierra con abundantes restos vegetales quemados. Sólo de manera muy puntual se han podido advertir sobre el mismo los restos de una superficie de tierra pisada, arcillosa, perdida en su mayor parte por efecto de la erosión y el cultivo moderno. El nivel de preparación se aprecia mejor en el interior del recinto C-2 dado que la tierra presenta aquí un color más negruzco y muestra una mayor abundancia de carbones. Dentro de este paquete, se pudo recuperar parte de la pieza móvil de un molino de mano circular en uno de los extremos del hogar correspondiente a este recinto, alterado por remodelaciones recientes.



Bolunburuko El Cerco kastroa. Kastroaren barruko eremua.

El Cerco de Bolunburu. Área interior del castro.

Aurtengo kanpaina amaitu eta gero, esan dezagun C-1 etxolak 16 m²-ko azalera zuela. Sarrera mendebaldean zuen, barrutiaren alde hau eratzen duten harrien lerroak, ziri modura ipinitako harrien lerroak, oinuan duen etenak zehaztutako hutsarteak zehazten duen bezala. Alde honetan paldo bati leku egiteko zulo bat identifikatu ahal izan genuen. Zuloan hainbat ziri zeuden, eta atea egokitzeko balioko zuten, harresiari atxikiriko egiturekin lotzen zuen bideari begira zegoen atea egokitzeko. Eraikitako perimetroaren gainarako atalak geruza geologikoan induskatutako paldoentzako zuloek eratuta daude, hiru edo agian lau zulo ekialdean eta bi zulo hegoaldean. Etxolaren barruan aipagarria da atetik gertu, mendebaldeko hormari atxikirik, aurkitutako sutegi xume bat, hareharritzko plaka batez osatua. Pieza hau oso pitzatuta zegoen suaren eraginez.

C-2 etxola aurrekoari atxikita dago, alde laburretako bat partekatu egiten baitute. Aurrekoa baino pixka bat handiagoa da, ia 21 m² hartzen baititu. Zoruan ziri gisa txertatutako harrizko fronte batek mugatzen zuen haren mendebaldea. C-1 etxolakoekin erkatuta harri hauek puska txikiagoetan kontserbatu direla esan behar dugu. Sarrera ere alde honetan izango zuen seguru asko, baina egun ezinezkoa da haren kokaleku zehatza zein zen adieraztea. Etxe honen ekialdea ondo asko zehaztuta dago, lerro berera bildutako hiru zulok, paldoei leku egitekoak, eta harrizko ziri handi batek eratua baita, euren artean 190 cm-ko tartea gordetzen dutela. Zalantzarik gabe, landareez

Una vez finalizada la campaña actual, podemos señalar que la cabaña C-1 se extiende sobre una superficie de 16 m². El acceso a la misma se hacía por su frente occidental, a través de un hueco que se marca en planta por la interrupción de la línea de piedras hincadas que conforma este lado del recinto. En esta zona se pudo identificar un agujero de poste con varios acunamientos que debió de servir para acondicionar la puerta, abierta hacia el camino que comunica con las estructuras adosadas a la muralla. El resto del perímetro construido queda delimitado por agujeros de poste excavados en el substrato geológico (tres o quizá cuatro en el lado oriental) y dos en el lado sur. Dentro de la cabaña destaca el hallazgo de un sencillo hogar formado por una placa de arenisca muy cuarteada por el fuego que se adosa al muro occidental, cerca de la puerta.

La cabaña C-2 se adosa a la anterior al compartir con ella uno de sus lados cortos. Es ligeramente más amplia ya que ocupa casi 21 m². Su lado occidental quedaba delimitado por un frente de piedras hincadas conservado de manera más fragmentaria que el observado en la cabaña C-1. Seguramente el acceso se abría también en este lado aunque resulta imposible establecer su posición concreta. El lado oriental de la vivienda aparece perfectamente definido por la alineación de tres agujeros de poste y una gran cuña de piedra que dejan entre sí intervalos regulares de 190 cm de distancia. Con total seguridad el cierre entre ellos se hacía con entramado vegetal y manteado

eta buztinezko orez eraturako bilbadurek ixten zituzten paldoen eta harrien arteko tartearak, horixe adierazten baitute alde hau estaltzen duten geruzetan topaturako hondakinek, bilbadura horietatik etorriek. Etxe honetako sutegia hareharrizko harri xabal handi batek, partzialki baino kontserbatu ez denak, eta zoruan iltzatutako beste batek, egitura mugatzeko balio zuenak, eratua zen. Azken harri horretatik gertu hiru ziri bereizi genituen, eta lehendik induskatutako beste barruti batzuetan bezala, sutegiaren osagarri izango zen elementuren bati eusteko balioko zutela ematen du.

Arestian deskribatutako eraikinetatik gertu, okupazio geruza berean baina, harresiari atxikiriko beste barruti bat identifikatu ahal izan genuen. Planoan H hizkiarekin adierazi dugu. Oinplano triangeluarreko egitura txiki bat da, agian estalpe xume bat baino ez, ez baita 10 m²-ko azalerara iristen. 2008. urtean induskatutako D barrutiaren antzeko oinplanoa du, eta hark bezala, ez du barruan inolako sutegiririk.

Kastroaren kanpoko aldean, berriz, terraza handi bat induskatu genuen harresiaren hegoaldeko ataletik hurbil. Izan ere, harresiak sektore honetan egiten zuen bidea identifikatu nahi genuen, gerora prestatu eta zaharberritzeko xedean.

Urriak dira kanpaina honetan zehar berreskuratu ditugun elementu higigarriak, eta aurkitutakoak H eta C-2 barrutien artean induskatutako aldean topatu genituela esan behar dugu. Identifikatzeko moduko piezen artean aipagarri dira brontzezko katetxo bati dagozkion kate maila txiki bat, burdinazko zepak, eskuko errota zirkular bati dagozkion zortzi zati eta eskuz landutako zeramika puska batzuk, 2008. urteko kanpainan zehar aurkitutakoen antzekoak.

de barro, tal como se desprende del hallazgo de varios fragmentos del mismo en los estratos que cubren la zona. El hogar correspondiente a esta vivienda cuenta con una gran laja de piedra arenisca, sólo parcialmente conservada y otra de delimitación, clavada en el terreno. Muy cerca de ésta se localizaron tres cuñas que, como en otros recintos excavados con anterioridad, parecen haber servido para sujetar algún elemento complementario del hogar.

En una zona cercana a las construcciones anteriores, dentro del mismo horizonte de ocupación, se ha podido localizar un nuevo recinto adosado a la muralla, identificada en el plano con la letra H. Se trata de una pequeña estructura de planta triangular, quizá un simple cobertizo, de apenas 10 m² de superficie. Su planta es semejante a la del recinto D, excavado durante la campaña del año 2008, y como éste, carece de hogar en su interior.

Ya en el exterior del castro se ha excavado una amplia terraza, inmediata a la cerca defensiva en su tramo meridional. La finalidad de la misma ha sido la de facilitar la identificación del trazado de la muralla en este sector y preparar su posterior restauración.

Los hallazgos muebles recuperados en el transcurso de esta campaña son escasos y proceden de la zona de nueva apertura situada entre los recintos H y C-2. Entre las piezas identificables se encuentra un pequeño eslabón perteneciente a una cadencia de bronce, escorias de hierro, así como ocho fragmentos de molino de mano circular y varios fragmentos de cerámica modelada a mano similares a lo hallados durante la campaña del año 2008.

J.J. Cepeda Ocampo, J.I. Jiménez Chaparro

B.27.2. Bolunburuko ola

Zuzendaritza: M^a José Torrecilla
Gorbea
Diru-laguntza emailea: Nekazaritza
Saila, Bizkaiko Foru Aldundia

B.27.2. Ferrería Bolunburu

Director: M^a José Torrecilla
Gorbea
Subvención: Departamento de
Agricultura, Diputación Foral de Bizkaia

The Bolunburu ironworking-mill complex has been the focus of a new phase, consisting of the consolidation and cleaning of the emerging structures, with the aim of cleaning up the surviving remains and slowing their deterioration.

Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailarekin elkarlanean hasitako lanei segida emanez, 2009ko udazkenean-neguan Bolunburuko ola zaharretik eta hari atxikiriko errotatik agerian geratzen diren egiturak sendotzeko beste fase bat bururatu genuen. Kanpainan honetan gabari leku egiten zion tailer aldearen eta ikaztegi zaharren hormen gainaldeko landareak eta sasiak erauzi, gainaldeak berritu eta zigilatu egin geni-

Continuando las labores emprendidas en colaboración con el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral, se ha procedido en el otoño-invierno de 2009 a la ejecución de una nueva fase de consolidación de las estructuras emergentes de la antigua ferrería de Bolunburu y su molino adosado. En esta ocasión se han rematado y sellado, retirando el arbolado y vegetación, el coronamiento de los muros del

tuen. Gainaldeak berritzeko lan horietan hondamendiaren ondorioz pixkana-pixkana konplexuko geletan erorita zeuden materialak berak erabili genituen.

Egiturak garbitzeko eta sendotzeko plan honen xedea da orain arte kontserbatu diren elementuen osotasuna bermatzea, haien hondatzea saihestea eta, dauden lekuan daudela, bisitariei segurtasun handiago eskaintzea. Nekazaritza Sailaren aurrekontuaren arabera diseinatzen dira lan horiek, betiere Aldundiaren beraren Kultura Sailak zehaztutako arauei jarraiki, aipatu saila baita arlo honetako sustatzaile eta erantzule nagusia.

Oraingo honetan, gainera, konplexu zaharreko erreferentzia garrantzitsu batzuen kontserbazioa arriskuan ipintzen zuten elementu batzuk lehengoratu ditugu. Hasteko, labearen aldeko toberen hutsunea berritu dugu, arku bikoitza barne, tobera horiek salatzen baitituzte nola kontserbatutako aztarnek hala aurreko hamarraldiko plano eta argazki dokumentuetan jasotako datuek. Gisa honetan, behin betikoz ekidin dugu labeari eusten zion horma beheera etortzeko aukera. Lehengoratutako beste elementuetako bat da ateburua eta aurreneko tailerreko biltegi aldeko edo olagizonen gelako goiko hutsunea. Alde honek, aspaldi ez dela arpilatua izan denak, labea inguratzen zuen hormaren iparraldeko muturra beheera etortzea erraztu zuen. Era berean, metalezko piezekin, lehengoratze lanen baitara ezin hobe biltzen ziren piezekin, «josi» ditugu konplexuaren hegoaldeari atxikiriko errota zaharreko errotarriek leku egiten zien gelako hormak. Izan ere, etorkizunean harrien erortzeak hormak kaltetu ez ditzala bila genuen ekimen honekin. Bestalde, iraganean aleak ehotzeko gelako forjazko egiturari eusten zion zutarriaren oinarria sendotu dugu eta zaborrak atera ditugu. Halatan txukun-txukun utzi dugu errotarriek leku egiten zien estolda zaharra.

Bukatzeko arku nagusian edo gabiaren arkuan egin dugu lan. Alde honetan ibaiak ekarritako hareazko betegarriak hustu ditugu, eta uholdeek lekuz aldatutako lau harri xabal handi berriro ere ipini ditugu beren jatorrizko lekuetan, hots, arkuaren oinarrian. Gisa honetan, etorkizunean ibaia handi datorrenetan urek ekarritako materialak egituran txertatu ez daitezela eta hartan kalterik eragin ez dezatela bila da.

Jarduera hauek guztiak dokumentatuak eta erregistratuak izan dira, orain dela urte batzuk egindako dokumentazio fotogrametrikoa osatuz. Honenbestez, emendatu egiten da euskarri honek eskaintzen duen informazioa, eta jasota geratzen dira kanpaina honetan bururatutako lehengoratze lanak oro. Gainera, garbitze lanetan agerian geratutako elementuak biltzen dira hartara, esate baterako, gabiaren ardatza ainguratzeko elementuak eta hauspoen euskarriak. Lan hauek eta dokumentazio lanak Gasteizko Ondare S.L. enpresarekin elkarlanean eginak izan dira.

taller en la zona del mazo y de las antiguas carboneras. La reintegración se ha acometido con el material que, fruto del arruinamiento progresivo, se encontraba en las propias estancias del complejo.

El objeto de este plan de limpieza y consolidación es garantizar la integridad de los elementos conservados hasta la fecha, frenar su deterioro y ofrecer una mayor seguridad a los visitantes del área recreativa en la que se encuentran. Sus fases de ejecución se diseñan en función de la disponibilidad presupuestaria del Departamento de Agricultura, promotor y responsable del área, en estrecha colaboración con las directrices marcadas por el Departamento de Cultura de la propia Diputación.

Además, en esta fase, se ha ejecutado la reintegración de elementos cuya desaparición ponía en peligro la conservación de algunas referencias importantes del antiguo complejo. En primer lugar se ha reconstruido el hueco de toberas en la zona del horno, con el doble arco que delataban, tanto los restos conservados como los indicios contenidos en la documentación planimétrica y fotográfica de la década anterior. De esta forma se ataja definitivamente el progresivo hundimiento del muro bergamazo. Otro de los elementos reintegrados ha sido el dintel y hueco superior de la zona de almacenaje del primer taller o estancia para ferrones que, al haber sido sustraído en época reciente, aceleró irremediablemente la caída del muro cortafuegos en su extremo norte. También se han «cosido» con piezas metálicas, convenientemente disimuladas en la obra de reintegración, los muros que delimitaban la estancia de muelas del antiguo molino, adosado al sur del complejo. El objeto de esta actuación ha sido igualmente evitar que el deterioro y caída de piedras arrastrase los paramentos en el futuro. Al mismo tiempo se ha librado de escombros y reforzado la base del pilar que sostuvo en el pasado el forjado de la sala de molienda, despejando de basura y aportes recientes la antigua estolda de los rodets.

Finalmente, el último punto de actuación ha sido el arco mayor o del mazo. En este lugar se han vaciado los rellenos de arenas, fruto del arrastre del río, y se han reintegrado 4 grandes piezas o lajas en la base del arco que habían sido desplazadas por las avenidas. Se pretende de esta manera evitar en el futuro la intrusión de materiales fluviales en época de riadas y el consiguiente perjuicio a la obra original.

Todas estas actuaciones han sido documentadas y registradas, completando la documentación fotogramétrica elaborada hace unos años, de tal forma que se amplía la información de este soporte y queda constancia de cuantas actuaciones de reintegración se llevan a cabo en esta fase, además de recoger los elementos que como los anclajes del eje del mazo o los soportes de fuelles, han quedado a la vista durante la fase de limpieza. Esta labor y los trabajos de documentación han sido realizados en colaboración con la empresa Ondare S.L. de Vitoria-Gasteiz.

B.28. BESTE BATZUK / VARIOS

B.28.1. **Arrolako barruti gotortua (Arratzu, Mendata, Nabarniz)**

Zuzendaritza: Miguel Unzueta Portilla
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.28.1. **Recinto fortificado de Arrola (Arratzu, Mendata, Nabarniz)**

Dirección: Miguel Unzueta Portilla
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The archaeological excavation focused on the sector containing the north-eastern gate to the oppidum, covering both the inside and outside of the defensive precinct. The fieldwork enabled us to delimit most of the floor containing the bastions which made up the entranceway into the precinct, the definitive design of which was established late in the second Iron Age, between the 2nd and 1st centuries BC. Inside the fort various stone plinths have been found which belonged to the houses occupied during this period.

Sarrerako Gotorlekua

Ipar-mendebaldeko atea eta berau mugatzen duen harresiak okupatutako espazioan bururatutako indusketa lanek aukera ematen digute gotorleku honi bere azken garaian forma eman zioten elementu asko identifikatzeko. Aurreko txostenetan adierazi genuen bezala, barruti honek, hasieran bederen, harresiaren zehar egokitutako ate soil bat baino ez zuen, baina bigarren Burdin Aroan zehar kutzak eta baluarteak eraiki eta erantsi zituzten. Hauek babeserako eraztunaren zehar egokitu zituztela esan behar dugu.

Kutxa hauek eskuarki hiru alde dituzte, eta jatorrizko harresi atalari atxikita daude edo ezaugarri bertuko beste egitura bati atxikita ageri dira, harresia bere osotasunean kontserbatu ez den puntuetan. Gisa honetakoak dira kastroa sartzeko korridorearen azkeneko atalean identifikatu ahal izan genituen alboetako elementuak, 1., 2. eta 3. kutzak, atea bera mugatzen dutenak. Harritzko egiturak dira, barrunbea hareharriz osatua oinean eta lutita eta buztin nahasketaren gainean. 2. kutzak oinplano ia osoa kontserbatzen du; hura, sarrerako korridoreari ematen dion aldean, apur bat atzera eramana izan dela hautematen da, seguru asko atea osatzen zuen zurezko orrietako bati leku egiteko. Sarrera babesten duen beste elementua, 3. kutxa, puskatan baino ez da kontserbatzen, hegoaldearen parte handi bat eta kanpoko errematea galduak ditu. Hala eta guztiz ere, kontserbatu diren lekukotasunek eta hormek atsedean hartzen duten geruza harritsuaren hautematen den lautze artifizialak aukera ematen dute oinplano bitariko bat hautemateko, zeinetan izkina angelutsuak eta biribilduak tartekatzen diren. Kutxa honen eta harresiaren barruko atalaren arteko batasuna bere garaian dokumentatu zuten 1980. urteetan egin zituzten indusketa kanpainen zehar, baina lan hauei berrekiterako garaian iparraldean kontserbatu zen horma atala guztiz behar etorria zen, eta zimentarriko errenkadatik gora berreraiki behar izan zen. Kanpaina honetan egitura

La Fortificación de entrada

Los trabajos de excavación llevados a cabo en el espacio ocupado por la puerta noroeste y la muralla que la delimita han servido para identificar buena parte de los elementos que dan forma a la fortificación en su momento de uso más avanzado. Como ya se señaló en informes anteriores, el recinto tuvo en origen un acceso en esviaje sencillo que se modificó en el curso de la segunda Edad del Hierro mediante el añadido de cajones y bastiones que se proyectan en sentido transversal a la cinta defensiva.

En su forma más frecuente, los cajones cuentan con tres lados que se apoyan bien contra el lienzo continuo de la muralla inicial o contra otra estructura de similares características cuando aquélla ha sido modificada en su integridad. De este tipo son los elementos de flanqueo que se han podido identificar en la parte final del camino de ingreso al castro, los cajones 1, 2 y 3, que delimitan la puerta de entrada al mismo. Se trata de estructuras de mampostería que contienen un relleno formado por piedra arenisca en la base y una mezcla de lutita y arcilla en la parte superior de su desarrollo. El cajón 2 conserva la planta casi completa, en la que se puede apreciar un ligero retranqueo en la zona que da al pasillo de entrada, seguramente para encajar una de las hojas de madera que formaban la puerta. El otro elemento que flanquea el ingreso, el cajón 3, se conserva de manera fragmentaria, habiéndose perdido una parte importante de su lado sur y el remate externo. Aún así, los testigos conservados y el alisamiento artificial que se observa en el lecho rocoso de asiento de los muros permiten reconocer una planta mixtilínea en la que alternan las esquinas redondeadas y angulosas. La unión de este cajón con el lienzo interno de la muralla fue documentada en su día durante las campañas de excavación efectuadas en los años 1980, si bien en el momento de reiniciarse los trabajos el fragmento de muro conservado en el lado norte se encontraba

hauek eta harresiaren barruko horma atala garai berekoak direla egiaztatu ahal izan dugu. Harresi atal hau babesteko aurreneko hesiaren hondakinen gainean eraiki zuten, eta hartan bermatzen ere da 3. kutzaren iparraldeko muturra.

Indusketa lanak harresiz barneko aldera eraman ere genituen, atearen inguruetara. Aztarnategi honetan 1900. urte aldera egindako lur-erazketen ondorioz, oso nahasita dago alde hau; lan haietan 1. eta 5. kutzak osatzen zituzten harrizko hormen atal bat suntsitzera iritsi ziren. Arestian deskribatutako babesteko egitura berera biltzen diren kutxa hauek gotorlekuaren hormek inguratuta geratuko ziren, gotorlekuaren barrura sartzeko bertan altxatuko zen plataforma handia eratuko zuten betegarriei sendotasuna eta egonkortasuna eman ahal izateko xedean.

Ipar-mendebaldeko atearen kanpoko muturrean 4. kutxa gisa identifikatutako baluarte mugatu genituen lanak. Baluarte honek are bihurriago egiten zuen barrutira sartzeko korridorearen bidea. Harresiaren kanpoko atalari erantsitako gorputza da, V formako lubanarro bat amortizatzen duena. Lubanarro hau geruza harritsuan induskatua izan zen, harresiaren paraleloan. Harrizko egiturak erabat galdua du kanpoko frontea, eta gerok induskatutako eremuan ez dugu oraindik harresiak atxikirik izango zuen hegoaldeko itxitura topatu. Hemengo betegarriak antz handia du 2. eta 3. kutxetan identifikatutakoekin, harrizko hormak ditu, barruko oina ere harrizkoa, eta goiko partean lutita eta buztina, biak nahasita. Baina egitura honek badu barruko parte banatzeko horma bat, trauskil landua, sasi eskuaira baten modura ixten dena, baita zurezko parrilla bat ere, norabide berean, lehendik babesteko lubanarroak hartzen zuen espazioa okupatzen duena. Zurak erreta zeuden, partzialki baina, eta horrek aukera eman du kontserbatu ahal izateko. Barruko zurezko egitura harresiaren kanpoko aldean aurreko kanpainetan identifikatuaren antzekoa da, eta hark bezala, obrari halako egonkortasuna emateko balioko zuen.

Kronologia

Ikerketen egungo egoeran eutsi egiten diogu kastroan sartzeko ateari behin betiko forma eman zion aldaketa multzoa eraikuntza programa bateratu bati erantzuten diolako hipotesiari. Hura eraiki zuten garaia gutxi gora-behera badakigu orain zein den zurezko elementuekin eta C14ren bidez lortutako datazio absolutuei esker. Laginik aspaldikoena (Poz-33783) 1. kutzako betegarriari leku egiten zion geruza buztintsutik jaso da. Sutarako egur zati txiki bat da, eta gure egutegira ekartzeko zailtasunak zailtasun, guk uste dugu K.a. III. mendekoa dela (%48,2koa da horrela izateko aukera). Eraitza honek *terminus post quem* datazioa eskaintzen du kutzaren eraikuntzari begira. Hurrengo lagin biak (Poz-33779; Poz-33784)


completamente desplomado y ha tenido que ser reconstruido desde la hilada de cimentación. Durante esta campaña se ha podido comprobar la contemporaneidad de estas estructuras con el lienzo interno de la muralla, que se levanta sobre el mismo estrato de destrucción de la primera cerca defensiva en el que apoya el extremo norte del cajón 3.

La excavación se ha extendido igualmente hacia el área situada intramuros, en las inmediaciones de la puerta. Se trata de una zona muy alterada por las remociones de terreno efectuadas en el yacimiento hacia los años 1900, que llegaron incluso a destruir parte de los muros de mampostería que forman los cajones 1 y 5. Estos cajones, que forman parte de la misma obra defensiva que los anteriormente descritos, quedaron embutidos dentro de la fábrica de la fortaleza, para dar consistencia y estabilidad a los rellenos que configuraban seguramente la gran plataforma con rampa de acceso interior que se levantaba en el lugar.

En el extremo exterior de la puerta noroeste los trabajos realizados se han centrado en la delimitación del bastión identificado como cajón 4, que sirvió para dar una mayor sinuosidad al pasillo de acceso al recinto. Se trata de un añadido que se adosa al lienzo exterior de la muralla y que amortiza un foso en V excavado en el substrato rocoso, paralelo a la cinta. La estructura de mampostería ha perdido completamente su frente externo y en el área excavada tampoco se ha podido localizar aún el cierre sur que debió de haberse adosado a la muralla. El relleno es similar al observado en los cajones 2 y 3, ya que presenta el mismo tipo de macizado de piedra desconcertada en su base y un grueso paquete de arcillas y lutitas en su desarrollo superior. Cuenta sin embargo con un tosco muro de compartimentación interna, que se cierra en falsa escuadra, así como un emparillado de madera, con la misma dirección, que cubre el espacio ocupado anteriormente por el foso defensivo. Las maderas estaban parcialmente carbonizadas, lo que ha permitido su conservación. La estructura de madera interna es muy parecida a la observada en el anillo exterior de la muralla en el curso de las campañas anteriores y, como en aquella, debió de servir también para dar estabilidad a la obra.

Cronología

En el estado actual de la investigación, mantendremos la hipótesis de que el conjunto de transformaciones que dio forma definitiva a la puerta de entrada al castro responde a un programa constructivo unitario. Su fecha de ejecución puede ser ahora fijada con cierta aproximación gracias a las nuevas dataciones absolutas por 14C obtenidas sobre elementos lúgneos. La muestra más antigua (Poz-33783) procede del estrato arcilloso que sirvió de asiento al relleno del cajón 1. Se trata de un pequeño resto de madera de quema, cuyo análisis revela una datación que, a pesar de la dispersión que sufre su conversión a años de calendario, parece situarnos en el siglo III a.C. (48,2% de probabilidad). El resultado proporcio-



Arrola. Ipar-mendebaldeko ateko sektorea (2009).

Arrola. El sector de la puerta noroeste (2009).

obraren parte bitan baliatutako zurezko armazoitik atereak dira. Lehenengoa 4. kutxaren barruan aurkitutako oholeriatik hartua da, eta bigarrena erretako ohol bat da, harresiaren kanpoko eraztuneko betegarriaren goiko partean aurkitua, 6. kutxatik gertu. Isolatuta aurkitu bagenuen ere, horizontalean ipinita dago, harresiaren zeiharrean, eta beraz ez dugu zalantzarik egiten egitura handiago baten atala osatzen zuena. Datazioa ia bera da bien kasuan, jarraian azaltzen dugun taulan ikus daitekeen bezala. Daten kalibrazioak K.a. II. eta I. mendearen arteko une batera garamatza, ziur asko K.a. I. mendaren lehengo erdialdera, areago kontuan badugu K.a. 120 eta 40 urte arteko tartea dela, kasu bietan, aukera handiena eskaintzen dituen (%50,9 eta %52,6 hurrenez hurren; erref. OxCal v.3.10 Bronk Ramsey 2005).

na un *terminus post quem* para la ejecución de este cajón. Las dos muestras siguientes (Poz-33779; Poz-33784) proceden del armazón de madera empleado en dos partes diferentes de la obra. La primera pertenece a la tablazón localizada en el interior del cajón 4, mientras la segunda corresponde a una tabla quemada hallada en la parte superior del relleno del anillo exterior de la muralla, en una zona cercana al cajón 6. Aunque fue hallada de manera aislada, su disposición horizontal y transversal al sentido de la cinta muraria hace albergar pocas dudas sobre su pertenencia a una estructura más amplia. La datación resultante es prácticamente la misma en ambos casos, como se puede comprobar en la tabla adjunta. La calibración de las fechas nos sitúa en algún momento del período comprendido entre los siglos II y I a.C, posiblemente en torno a la primera mitad del siglo I a.C. si tenemos en cuenta que el intervalo comprendido entre 120 y 40 a.C. es en ambos casos el que cuenta con un porcentaje mayor de probabilidad (50,9 y 52,6 % respectivamente; ref. OxCal v.3.10 Bronk Ramsey 2005).

Datatzeko metodoa Método de datación	Laborategiaren erref. Ref. Laboratorio	Datatutako materiala Material datado	Datazioa Determinación (BP)	kalibratutako adina. Tarteak (K.a./cal K.o.) Edad calibrada. Intervalos (a.C./cal BC)	
				2σ	1σ
C14 AMS	Poz-33779	Zura / Madera	2075 ± 35	200 - AD 10	160 - 130 (%17,3) 120 - 40 (%50,9)
C14 AMS	Poz-33783	Zura / Madera	2240 ± 35	400 - 200	390 - 210
C14 AMS	Poz-33784	Zura / Madera	2070 ± 35	190 - AD 10	160 - 130 (%15,6) 120 - 40 (%52,6)

Kastroaren barruko etxebizitzak

Kanpaina honetan zehar gutxi gora-behera 392 m²-ko azalera induskatu dugu. Honenbestez, *oppidum*-aren barruko aldean lan egin ahal izan dugu, eta horri esker harresitik oso gertu etxe eraikin hainbati dagozkien hondakinak aurkitu ahal izan ditugu. Harri-zko hormatxo batzuk dira, garaiera apalekoak, seguru asko adarrez eta buztinez osatutako egitura txikiei eusteko oinarriarenak egingo zituztenak. Artean ez dugu egitura hauetako bakar baten oinplano osoa bereizi ahal izan, baina agerian utzitakoak aukera ematen du oinplano angeludunen egiturak direla hautemateko.

Zaharberritzeko lanak

Aurreko urteetan bezala, kastroko egiturak zaharberritzeko lanekin jarraitu dugu. Lan hau Fernando Bazeta (UPV/ EHU) adituaren zuzendaritzapean egin da, indusketa lanez arduratutako arkeologoaren laguntzarekin. Lanok harresiaren kanpoko aldeko eraztunera eta barrutira sartzeko atea osatzen duten kuboetara mugatu dira.

Viviendas en el interior del castro

La superficie total de nueva excavación se ha extendido en el curso de esta campaña sobre 392 m². Ello ha permitido trabajar en el área interior del *oppidum*, en la que se han localizado restos pertenecientes a varias construcciones domésticas, situadas muy cerca de la muralla. Se trata de muretes de piedra, de escaso alzado, que debieron de servir como apoyo para pequeñas estructuras realizadas con entramado vegetal y barro. No se conoce aún ninguna planta completa, pero lo exhumado permite apreciar que se trata de construcciones de planta angulosa.

Trabajos de restauración

Como en años anteriores, se ha procedido a continuar la restauración de las estructuras del castro. Esta tarea ha sido dirigida por Fernando Bazeta (UPV/ EHU), en colaboración con el equipo de arqueólogos encargados de la excavación. La labor se ha centrado en el anillo externo de la muralla y en los cubos que forman la puerta de acceso al recinto.

J.J. Cepeda Ocampo; M. Unzueta Portilla; J.I. Jiménez Chaparro

B.28.2. Ubieta, Ordunte Ekialdea, Santxosolo, Atxarre, Ogoño, Gaztiburu, Iluntzar, Urregarai, Akarregi, Urko, Heredia eta Ipar Durangaldeko mendialdeetako haizeolak (Enkarterriak, Durangaldea eta Busturia-Markina)

VI. katen bidezko miaketa kanpaina
Zuzendaritza: F. Javier Franco Pérez
Finantzazioa: Euskal Kultura-
Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlari-
tzaren Kultura Saila

B.28.2. Ferrerías de monte en los macizos de montaña de Ubieta, Ordunte Oriental, Santxosolo, Atxarre, Ogoño, Gaztiburu, Iluntzar, Urregarai, Akarregi, Urko, Heredia y Durangalde norte (Encartaciones, Duranguesado y Busturia-Markina)

VI Campaña de prospección con catas
Dirección: F. Javier Franco Pérez
Financiación: Centro de Patrimonio
Cultural Vasco. Departamento de
Cultura. Gobierno Vasco

This is the final phase of the archaeological map of the mountain ironworks of Bizkaia. The challenge now is to continue with the logic followed during seasons such as this one, in which systematic prospecting was carried out with «macro» soil pits all along vast, hitherto unexplored, areas. The catalogue of new sites seems to confirm the suitability of the prospecting techniques used in mountain zones, and opens up the possibility of initiating territorial and comparative analyses between metalworking workshops found in different regions of the province of Bizkaia.

Bizkaiko haizeolak Inbentariora jasotzeko lanen azken fase honetan artean aztertu gabe genuen lurraldeko gainerako eremu osoa aztertu dugu katen bidezko miaketa kanpaina bitan. Lehenengo kanpaina 2009. urtean zehar bururatu dugu, eta kanpaina honi leku egiten dion proiektuaren ezaugarri guztiz bereziek eraman gintuzten aztertu beharreko eremu handi hau, gutxi gora-behera 450 km²-koa, mugatzera. Aztarnategi berriak aurkitzea bila zuen esparru handiko miaketa lan gaitz honek eraman gintuen baliatzen ari ginen miaketa lanetarako metodologia hein batean aldatzera, behar berriei egokitzeko xedean. Kontua da gainazala miatzeko proposamen teoriko berri batean oinarrituta lan egitea. Halatan, aztertutako eremu osoan luze-zabalean egingo genituen miaketa lanak, baina leku jakin batzuetan miaketa lan zorrotzak egingo genituen, landa-lan hauetan jardueraren mota biak partekatuz.

Hasierako helburua da garai historikoko aztarnategi arkeometalurgikoak aurkitzea eta mugatzea ondo asko bereizten diren Bizkaiko hiru eskualdetan. Hiru eskualde izanik, bakoitzak bere ezaugarriekin, azterketaren abiapuntua eta azterketa mailak ere ezberdinak izan ziren. Eskualde hauek unitate fisiografiko batzuek mugatuta daude, hamabi mendialderekin bat datozenak, eta haien arabera aztertu ditugu guk:

- Enkarterriko sektorea: Ubieta, Santxosolo eta Ordunte ekialdekoa mendialdeak.
- Durangaldeko sektorea: Erdella eta Ipar Durangaldea.
- Markina-Ondarroako sektorea: Atxarre, Ogoño, Gaztiburu, Iluntzar, Urregarai, Akarregi eta Urko.

La fase final del Inventario de ferrerías de monte de Bizkaia ha concentrado todo el territorio que restaba por trabajar en 2 campañas de prospección con catas. La primera de ellas es la realizada durante el presente año 2009 y las características especiales del proyecto en el que se enmarca son las que ha propiciado que delimitemos un gran espacio a trabajar de unos 450 km². Esta escala de prospección a nivel macro, destinada a la búsqueda de nuevos yacimientos, ha propiciado que modifiquemos en parte la metodología prospectiva que veníamos utilizando para adaptarnos a las nuevas necesidades. Se trata de trabajar con una nueva propuesta teórica de prospección superficial que combinaría en todo este territorio trabajando la prospección extensiva con la selectiva de lugares concretos, tratando de asentarla en la práctica del trabajo de campo.

El objetivo inicial es localizar y delimitar yacimientos arqueometalúrgicos de época histórica en tres zonas claramente diferenciadas de Bizkaia y por ello con puntos de partida y niveles de análisis diferente. Estas zonas son delimitadas y trabajadas mediante una serie de unidades fisiográficas que se corresponden con doce macizos de montaña:

- Sector de Encartaciones: macizo de Ubieta, Santxosolo y Ordunte oriental.
- Sector de Duranguesado: Erdella y Durangaldea norte.
- Sector de Markina-Ondarroa: Atxarre, Ogoño, Gaztiburu, Iluntzar, Urregarai, Akarregi y Urko.

Sektore hauetan guztira beste zortzi haizeola bereizi ditugu Enkarterrian, bat Durangaldean baina bakar bat ez Markina-Ondarroako sektorean.

Enkarterrian aurkitutako zortzi haizeoletatik bat nabarmentzen da beste guztien gainetik, Peso 1 bat deitua (Artzentaletas), izan ere, bikain kontserbatzen da eta bertako zepadia oso handia da, 100 metro luze baino gehiago. Zalantzarik ez dago leku honetan burdina murrizteko labe sail bat egongo zena, eta bertako okupazioa, ezinbestean, beste lekuetako tailerre-na baino luzeagoa izango zena. Gainazalean zeramika arruntaren zati bat eta alde honetan baliatuko zituzten mea pipita batzuk (hematite gorri bigunak) topatu genituen ekoizpenetik etorritako zepa hondakin ugarietan txertaturik, baita kareharri batzuk ere. Eta alde hau oso berezia da ondoan Peso 2 eta 3 izeneko aztarnategiak dituelako eta hauek Artzentaletas haran honetan burdinaren ekoizpen aurre hidraulikoaren ziklorako kokaleku bikainaren irudia osatzen dutelako. Hiru aztarnategi hauek, udalerrri bereko Estación 1 deitutako beste aztarnategiarekin batean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren katalogoaren inbentariora jaso litezkeen ondasunak babesteko proposamenarekin sailkatuak izan dira.

Durangaldean bideratutako miaketa lanetan haizeola bat dokumentatu genuen Elorrioko udal barrutian, Menditxoko eremu menditsuan. Aztarnategi hau geologiaren ikuspuntutik Bizkaiko Meategi Arroaren muturrean dagoen arren, Bizkaiko meategi eremu tradizionalatik, meategi gehienak aurkitu ditugun eremuetatik, urrutien dagoena da. Haizeola berezia izanik, haren azterketa garrantzitsua da orain arte ezagutzen ditugun haizeolen eredu eta ezaugarriekin alderatu ahal izateko. Egia da «aztarnategi arrunt» batekin alderatuta ezaugarri berezi baino ezaugarri komun gehiago dituela, baina deigarria da oso aldapa txikiko leku batean kokatuta egotea, eskuarki aldapen ondoko leku laueta egokituta egoten baitira zepak modu errazagoan husteko. Bestalde, urtaroen araberrako ur emaria duen erreka baten ondoan dagoela ematen du, urte osoan ura baduen ibaitik 300 metro baino urrutirago, eta horregatik azpimarratu nahi dugu olagizonek, aztarnategi honetan bederen, lana urtaroen arabera egingo zutelako hipotesia. (Hipotesi hau berresteko edo baztertzeko xedean, azterketa hidrogeologikoak egiten ari dira Kantauri aldeko isurialdean, eta hasiera batean baztertu egiten dute ur korronte txikietan eta azkeneko 2000 urteetan aldaketa garrantzitsuak gertatu izana).

Markina-Ondarroako eskualdean bideratutako miaketa lan hasieran estentsiboak eta aurrez bildutako dokumentazioak gutxienez hamar leku iradoki zizkiguten, burdina-mea edo burdina-zainak azaleratzen eta haiek ustiatzen zituzten hamar leku. Burura eramandako landa-lanetan leku hauetara joan ginen eta beharrek miaketa selektiboa egin genuen, baina ez ge-

Los resultados cosechados en cada uno de estos sectores son de un total de 8 nuevas ferrerías monte catalogadas en el sector encartado, una para el Duranguesado y ninguna en Markina-Ondarroa.

De las 8 ferrerías de monte localizadas en Encartaciones destaca sobre las demás la denominada el Peso 1 (Arcentales) tanto por su aparente excepcional estado de conservación, como por las dimensiones del escorial de más de 100 metros de longitud. Es un sitio de producción que evidentemente tuvo que contar con una batería de hornos de reducción de hierro y donde la ocupación debió de ser más larga necesariamente que en otros talleres. En superficie hemos recuperado un fragmento de cerámica común y algunas pepitas del mineral que pudo ser usado en el emplazamiento (hematites roja blanda), insertados entre las abundantes escorias desecho de la producción y algunas piedras de arenisca. La excepcionalidad de este lugar se completa con la presencia en la zona de dos yacimientos asociados denominados el Peso 2 y 3, más pequeños que el anterior y no tan buen estado de conservación, que completan la imagen de una localización ideal para el ciclo de producción del hierro prehidráulico en este valle de Arcentales. Estos tres yacimientos junto con otra localización denominada Estación 1 en el mismo municipio se han clasificado con la propuesta de protección de bienes inventariables en el catálogo del Departamento de Cultura de Gobierno Vasco.

El resultado de la prospección en el Duranguesado ha deparado el hallazgo de una haizeola en el municipio de Elorrio en el paraje montuoso de Menditxo. Este yacimiento aunque se encuentra geológicamente ubicado en el extremo de la Cuenca Minera de Bizkaia, ciertamente es el que más kilómetros dista de las zonas mineras tradicionales de Bizkaia donde se hallan la mayor parte de nuestras localizaciones. Debido a su singularidad, su estudio reviste cierta importancia como patrón comparativo con las características de lo que conocemos hasta ahora. Ciertamente tiene más cosas en común con un «yacimiento tipo» que diferencias, pero llama la atención su ubicación en una zona de escasa pendiente, cuando lo habitual hasta ahora ha sido la elección de rellanos junto a la pendiente para el vaciado de escorias. Por otra parte parece situarse próximo a un arroyo estacional y a más de 300 m de un cauce estable, por lo que volvemos a incidir en la hipótesis de que en algunas ocasiones el trabajo de los ferrones pudiera tener un carácter estacional también. (Esta hipótesis está siendo contrastada mediante análisis hidrogeológicos en la vertiente cantábrica que en principio desestiman una variación significativa de los pequeños cursos de agua en los últimos 2.000 años).

En la comarca de Markina-Ondarroa la prospección extensiva en un principio y la documentación previamente recabada, nos habían indicado al menos diez lugares donde se había trabajado en afloramientos de algún tipo de mineral de hierro o vetas que apreciamos en superficie mediante el trabajo de campo. En estos lugares establecimos el correspondiente



Peso 1 aztarnategiko (Artzentales) haizeolaren iparraldeko ikuspegia. Marra gorriak zehazten ditu 100 metro baino luzeagoa den zepadiaren mugak.

Vista N de la ferrería de monte de El Peso 1 (Arcentales) La línea roja marca los límites de un escorial de más de 100 m de longitud.

nuen emaitza positiborik lortu.

protocolo de prospección selectiva que se cerró sin resultados aparentes.

Honenbestez, esan dezagun izaera ez monumentaleko materialen erregistroak historian kokatzeko orduan, esate baterako burdinaren ekoizpen aurre hidraulikoaren arkeologiaren erregistroak historian kokatzeko orduan, abiapuntu egokia izan litekeela lurraldea bertatik bertara miatzeko metodologia, erregistro mota hau egokiro aztertu eta ulertuko bada. Luze-zabaleko miaketa lanen eta miaketa lan selektiboen estrategiak egokiro baliatzea eta partekatzea ezinbestekoa da egun aztergai ditugun eremu zabal eta menditsuak behar bezala aztertu ahal izateko. Eta meategiak eta egitura metalurgikoak miatzeko garaian egile batzuk lehendik dokumentazioaren bidez aukeraturako tokietan jarduteko strategiaren aldeko agertzen badira ere, argi eta garbi esan behar dugu eremu zabal hauetan eta noranahiko batek lagunduta miaketa lan estentsiboak emaitza positiboak eskaini ditzakeela: kanpaina honetan, urrutirago joan gabe, burdina ekoizteko eremu ezagunetatik urrutira dauden aztarnategi batzuk aurkitu ditugu estrategia horri jarraiki, esate baterako, Lekubarrikoa Gordexolan eta Menditxokoa Elorri.

Concluiremos por tanto en que a la hora de historiar registros materiales de carácter no monumental, como es la arqueología de la producción del hierro prehidráulico, la prospección del territorio puede constituir una base adecuada para acercarse a la comprensión y estudio de este tipo de registro. La adecuada combinación de estrategias prospección extensiva y selectiva aparece como necesaria en estudios de terrenos montañosos tan vastos como a los que nos enfrentamos en la actualidad. Y a pesar de que existen autores que prefieren para la prospección específica minera y metalúrgica una estrategia exclusivamente selectiva en lugares elegidos mediante la documentación previa, hemos de reconocer que una prospección extensiva inicial de estas grandes zonas con ayuda de todoterreno puede conllevar resultados positivos: así se ha localizado por ejemplo en esta campaña, yacimientos alejados de zonas productivas conocidas de hierro como son Lekubarri en Gordexola o Menditxo en Elorrio.

Enkarterrian miaketa lanak amaituta aurten beste zortzi aztarnategi aurkitu ditugula esan behar dugu.

La finalización de la prospección en Encartaciones ha depurado el resultado de 8 nuevos yacimientos.

Guztira, beraz, 129 aztarnategi bereizi dira eskualde honetan. Zifra hauek 4,27 km²-ko haizeola bat baino gehixeagoko batez besteko dentsitatea islatzen dute. Datu guztiz esanguratsua da, meategi eremu tradizionala erraz gainditzen duen teknologia aurre hidrauliko batez hitz egiteko parada eskaintzen diguna. Gainera, aztarnategi hauek guztiek ondo asko bereizten eta zehazten diren ezaugarri komunak dituzte.

Egitura hauek interpretatzeko aukeraren ikuspuntutik, deposituetan aniztasun apalagoa duten aztarnategi arkeologikoak izan arren, Callejaverde mendiko haizeolan (Muskiz) bururatutako indusketan (gure ikerketa ildoari jarraiki egindako proposamena) lortutako emaitza onen ostean, guk uste dugu ez dela zalan-tzan ipini behar orain artean katalogatutako zepadiak ekoizpenetatik etorritako hondakin soil bat baino gehiago direlako hipotesia. Izan ere, zepadi hauek ezinbestekoak dira Bizkaian eta bereziki Enkarterrian luzaroan iraun zuen prozesu historikoa (mila urteko esparru kronologikoan, XIII. mendera arte, teknologia molde bertsua baliatu zutela esan dezakegu oraingo) aztertzeke garaian. Beraz, ekoizpen gune hauek izango zuten irismen ekonomikoaren eta, paradoxikoa bada ere, artean ezagutzen ez dugun gizarte testuinguruan izango zuten eraginaren balizko interpretazio arkeologiko bat egin beharrean gaude.

tos localizados este año y una suma final de 129 para la totalidad de esta comarca. Estas cifras nos aportan el dato de una densidad media de poco más de una ferrería de monte por cada 4,27 km². Es sin duda un dato más que notable, que nos puede hablar de una tecnología prehidráulica que se halla extendida más allá de su zona minera propiamente dicha, y con unas características comunes bien definidas entre todos sus yacimientos.

Desde el punto de vista de su potencial interpretativo, a pesar de ser yacimientos arqueológicos con menor diversidad en sus depósitos, esperamos que, tras los buenos resultados cosechados por la excavación en la ferrería de monte de Callejaverde (Muskiz), (propuesta a causa de nuestra línea de investigación) se dude en menor medida de que los escoriales hasta ahora catalogados sean algo más que simples desechos de producción. La verdad es que estos escoriales o zepadis pueden ser en Bizkaia y más concretamente en el caso de Encartaciones esenciales a la hora de analizar un proceso histórico de larga duración en el tiempo (por ahora el marco cronológico nos habla de mil años empleando un tipo de tecnología similar -hasta el S. XIII-) que a la fuerza habrá de intentar una posible interpretación arqueológica del alcance económico que estos sitios productivos pudieron tener y su repercusión en un contexto social paradójicamente aún demasiado desconocido.

F.J. Franco Pérez

B.28.3. **Urdaibaiko itsasadarra: Itsas nabigazioa eta merkataritza itsasadarrean eta bokalean (Bermeo, Ibarrangelu)**

Zuzendaritza: Mercedes Gómez Bravo
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.28.3. **Ría de Urdaibai: Navegación y comercio marítimo en la ría y desembocadura (Bermeo, Ibarrangelua)**

Dirección: Mercedes Gómez Bravo
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The 2nd season of underwater prospecting in the Urdaibai estuary and mouth focused on Iزارo island and the nearby Otzari and Lemajale areas. Despite the potential of the area as regards remains linked to sailing and seafaring activities, only formless pottery fragments were found, along with some stone ashlar pieces. The report also recounts how, during the 2008 season, another four stones were found, containing holes, in an area in which another three had been documented previously.

Sarrera

Hasteko, 2008. urtean burura eramandako kanpainaren berririk eman ez genuela gogorazi behar dugu, kanpaina hura, funtsean, dokumentuak aztertzen eman baikenuen. Dokumentazio lan hartan xehe-xehe aztertu genituen museoetako funtsak eta lan bibliografikoak, ahozko iturriak kontsultatu genituen, inguru fisikoak, iturri idatziak, kartografia eta toponimia edo leku izenak aztertu genituen, hori dena

Introducción

En primer lugar, conviene recordar que en 2008 no se informó en esta revista sobre los trabajos llevados a cabo en esa campaña, debido a que ésta se centró, fundamentalmente, en trabajos de documentación. Esa labor documental incluía una exhaustiva revisión bibliográfica y de fondos museísticos, consulta de fuentes orales, estudio del medio físico, fuentes escritas, cartografía y toponimia, todo ello enfocado a

urpean geratutako aztarnategien, materialen, hondoratze edo urperatzeen presentziari buruzko berriak eta datuak biltzeko xedean.

Lan horiez gainera, itsasadarraren eskuinaldeko marea arteko eremua miatu genuen Arteaga eta Laidako hondartza artean. Era berean, lehendik miatutako urpeko eremuak berrikusi genituen hareatzeek ibaiaren bokale aldean bizi izandako bilakaera bertatik bertara ikusteko, hondoan gerta zitezkeen aldaketen berri izateko eta agerian geratutako balizko hondakinak dokumentatzeko xedean. Marea arteko eremuan bideratutako miaketa lanetan ez genuen emaitza esanguratsurik lortu; kontuan eduki behar da itsasadarraren barruko aldea lokatze osatutako geruza lodi batek hartzen duela, geruza hau mendeen joanean osatu dela, eta haren azpian, hondoan, ezkutuan, material arkeologikoa metatzen dela itsasadar hau luzaroan baliatu izanaren ondorioz. Bestalde, mendeetan zehar itsasadarrari ebatsi zaizkion lur eremuek guztiz lurperatu dituzte, hitzez hitz, bertan egon litezkeen aztarnak oro.

Kanpaina hartan bururatutako lanaren egiteko garrantzitsu bat izan zen I. miaketa kanpaina zehar aurkitutako harri zulodunei buruzko informazioa biltzea. 2007. urteko Arkeoikuska argitalpenean eman genuen aurkikuntza horien berri. Harriak *in situ* zeudenez, 2008an harri horiei leku egiten zieten Mundakako eta Bermeoko itsasbazerretan izan ginen zuloak eta harrien ezaugarriak aztertze xedean; lehenengo eremuan, 2007. urtean aurkitutako lau harri zulodunetik hiru zeuden aldean, kareharrizko beste lau harri zulodun aurkitu genituen, eta hauek mapan kokatu eta dokumentatu genituen. Espazio txiki batean ezaugarri bertsuko zazpi harri agertuta –zortzigarrena apur bat urrutixeago dagoela gogoratu behar dugu– guk uste dugu ez dela berezko gertaeraren emaitza, eta teoria hau sendotze aldera, esan dezagun ez dela itsasadarraren eta bokalearen beste puntu bakar batean ere ezaugarri hauei erantzuten dien harririk agertu. Esku artean darabilgun hipotesi baten arabera, baliteke harrizko aingurak izatea, baina badira ideia honen aurka egiten duten argudio batzuk, horien artean aipagarri harri gehienek duten pisu handia; harriaren pisuak, 19,4 eta 344 kilo bitartekoak, beren neurrien arabera kalkulatu behar izan genituen, ez baitaude ateratzeko moduan. Aintzat hartzen dugun beste aukera bat da harriok itsasbazerreko ainguratzeko sistema bat osatu izana, ontziak ainguratzeko edo arrantzarako lanabesak lotzeko; hala bada, sistema aski aspaldikoa dela esan behar dugu, auzoen oroimenean ez baita horrelakorik gordetzen. Azken honek ez du kentzen harri zulodunaren bat egiazki harrizko aingura bat izatea, baina hala bada, guk uste dugu harri txikienek baizik ez zutela funtzio hori beteko.

2009ko kanpaina

Proiektuari segida emanez, aurtengo irail eta azaro artean II. urpeko miaketa kanpaina bururatu dugu. Aurten Izaro irlaren inguruko urpera, irla honen eta An-

la búsqueda de noticias o datos relativos a la existencia de yacimientos sumergidos, hallazgo de materiales, naufragios, etc.

Junto a estos trabajos, se llevó a cabo la prospección de la zona intermareal de la margen derecha de la ría, entre Arteaga y la playa de Laida, y la revisión subacuática de zonas prospectadas anteriormente para ver la evolución de las zonas de arenales en la zona de desembocadura de la ría, a fin de advertir posibles cambios en el fondo y la consiguiente aparición de restos. En la prospección de la zona intermareal no se obtuvieron resultados significativos; hay que tener en cuenta que la zona interior de la ría se caracteriza por la existencia de una potente capa de fango, acumulada a lo largo de los siglos y bajo la cual yace el material arqueológico depositado en el fondo como consecuencia del prolongado uso de la ría. Por otra parte, los terrenos ganados a la ría a lo largo de los siglos han sepultado literalmente los vestigios que esta pudiera albergar.

Un punto importante del trabajo de esa campaña fue la búsqueda de información acerca de las piedras con orificio localizadas en el curso de la I campaña de prospecciones, y de las que se dio cuenta en Arkeoikuska 2007. Dado que las piedras permanecen *in situ*, en 2008 nos desplazamos hasta las dos zonas costeras de Mundaka y Bermeo donde se ubican, para hacer el análisis de las perforaciones y contorno de las piedras; en la primera zona, donde se encontraban tres de las cuatro piedras con perforación localizadas en 2007, se localizaron otras cuatro piedras calizas con orificio, que también se posicionaron y documentaron. El hecho de que en un pequeño espacio tengamos siete piedras de similares características -recordemos que la octava está algo más alejada- nos llevó a plantearnos que efectivamente no se trata de un hecho natural, teoría reforzada por el hecho de que no aparecen piedras de estas características en ningún otro punto del curso de la ría y su desembocadura. Una de las hipótesis que manejamos es que se trate de anclas líticas, pero hay algunos argumentos que no favorecen esa idea, entre los que destacamos el elevado peso que tienen la mayoría de ellas, peso que ha habido que calcular en base a sus medidas puesto que no son manejables, y que oscilaría entre 19'4 y 344 kg. Otra posibilidad que consideramos es que se trate de algún sistema de anclaje costero, bien para embarcaciones, bien para aparejos o útiles de pesca; en este caso habría sido usado en un momento indeterminado no reciente, ya que no ha permanecido en la memoria de la zona. Esto último sin descartar que algunas de las piedras con orificio efectivamente sean anclas líticas, en cuyo caso nos tendríamos que inclinar por las de menor tamaño.

Campaña 2009

Como continuación del proyecto, entre septiembre y noviembre de este año se ha llevado a cabo la II campaña de prospección subacuática, que en esta

tzoras hondartzaren arteko kanalera eta kanal horretan bertan kokatutako Otzarri eta Lemajale azpietara mugatu ditugu lanak.

Nagusiki miaketa erradialaren metodologia baliatu dugun arren, ibilbide orografikoak eta itsasbazterren paraleloko kaleak miatu ere genituen hondoak eta sakonera mailak gisa horretan jardutea gomendatzen zutenean. Ateratako materialari dagokionez, zeramikazko materialen lagin gutxi batzuk baino bildu ez genituela esan behar dugu. Une honetan gatzgabe-tzeko prozesuan murgilduta daude lagin horiek.

Izaro irla

Irlaren inguruko itsaspeko hondoak miatzeko lanetan 18-20 metroko sakonera maila iritsi genuen. Zeramikazko material batzuk aurkitu genituen oso puska txikitan, oso higatuta, irlaren iparraldeko eta ekialdeko isurialdeetan, mendebaldeko isuria guztiz antzua gertatu baitzen hondakinen aurkikuntzari dagokionez. Iparraldeko isurialdean harlandu batzuk bereizi genituen, gure ustez irlan egindako eraikuntza lanetatik, eraikinetatik nahiz eskailetatik, etorriak direnak. Bestalde, ekialdeko isurialdean, teila ugari identifikatu genituen, baina badakigu teila hauek Madalen eguneko jaiegunean irlaren inguruetan botatzen diren teilak direla, eta beraz, balio arkeologikorik bat ere ez dutela.

Ubidea

Kanala miatuta zeramikazko zati batzuk aurkitu genituen oso puska txikitan eta kontserbazio egoera oso kaskarrean, 10,7 eta 13,2 metro bitarteko sakonera mailan.

Otzarri azpiak

Irla eta Antzoras hondartza elkartzen dituen kanalean daude Otzarri azpiak. Hauek itsasbeheran gertatzen dira agerian, baina itsasgora denean ozta-ozta hauteman baino ez dira egiten. Alde honetan bururatutako miaketa lanetan zeramikazko hondakin ugari aurkitu genituen, oso puska txikitan eta oso-oso higatuta. Hondakin hauek barreiatuta topatu genituen 7,2 eta 12,2 metro bitarte sakon den eremuan.

Lemajale azpiak

Lamajale azpiak Otzarri eta Antzoras hondartza artean daude. Gainazalera iristen ez diren harkaitz garaiak dira, baina itsasbehera denean uraren azaletik oso zentimetro gutxitara gertatzen dira. Alde honetan ere zeramika zati gutxi batzuk aurkitu genituen, gehienak oso higatuta, 7 eta 8 metro bitarte sakon den eremuan.

ocasión se ha centrado en el entorno submarino de la isla de Izaro, el canal existente entre esta isla y la playa de Anzoras, y los bajos de Otzarri y Lemajale, ubicados en ese mismo canal.

Aunque el método de prospección usado preferentemente ha sido la prospección radial, también se han hecho recorridos orográficos y en calles perpendiculares a la costa cuando el tipo de fondo y la profundidad así lo aconsejaban. En cuanto a la extracción de material, únicamente se han sacado algunas muestras de material cerámico, que en este momento están siendo sometidas a los tratamientos de desalación pertinentes.

Isla de Izaro

La prospección de los fondos submarinos de la isla abarcó hasta la cota de profundidad de 18-20 metros. Se localizaron algunos materiales cerámicos muy fragmentados y rodados en las vertientes norte y este de la isla, ya que la occidental resultó ser completamente estéril en cuanto a localización de restos. En la vertiente septentrional también se localizaron algunos sillares de piedra, que nosotros relacionamos con las construcciones de la isla, bien con las edificaciones, bien con la escalinata. Por otra parte, en la vertiente oriental se localizaron numerosas tejas, que por su situación fueron identificadas con las que se arrojan en las cercanías de la isla con motivo de la festividad de la Madalena, y que por tanto carecen de valor arqueológico.

Canal

La prospección del canal únicamente dio como resultado el hallazgo de algunos fragmentos cerámicos, muy pequeños y en muy mal estado de conservación, situados entre 10'7 y 13'2 metros.

Bajos de Otzarri

Los bajos se ubican en el canal que une la isla con la playa de Anzoras, y asoman a superficie en bajamar, pero apenas son perceptibles con marea alta. En la prospección de esta zona se localizaron abundantes restos de cerámica, todos ellos de pequeño tamaño y extremadamente rodados, que aparecieron dispersos en un área que oscilaba entre los 7'2 y 12'2 metros de profundidad.

Bajos de Lemajale

Estos bajos, cuya acepción euskérica significa rompetimones, se localizan entre Otzarri y la playa de Anzoras; se trata de unas rocas altas que no asoman a superficie, pero que en bajamar se quedan a escasos centímetros de la misma. En esta zona nuevamente los hallazgos se limitaron a escasos fragmentos cerámicos, en su mayoría muy rodados, localizados entre 7 y 8 metros.

Balorazioa

Izaro irlan eta inguruko itsaspean ez dugu alde honetan aztarnategi baten presentzia iradoki lezakeen hondakin arkeologikorik aurkitu. Aurkitutako zeramika zatiak oso txikiak dira eta oso higatuta daude, eta haiak sailkatzeko aukerarik ez emateaz gainera itxura guztien arabera beste leku batetik ekarriak direla esan behar dugu. Material guztiak gainazalean topatu genituen, eta hondoen ezaugarri geomorfologikoak kontuan baditugu –funtsean harritsuak dira, harea gutxirekin– gure ustez oso aukera gutxi dago zorupean lurperatutako materialak topatzeko.

Nolanahi ere den, materialen urritasun hau guztiz kontrajartzen zaio nola irla hala miatutako azpiak berezko egiturak direlako egitateari. Izan ere, egitura hauek mendeetan zehar itsasbazerreko trafikoa handia bizi izan duen itsasadarraren sarreran kokatuta daude, eta gainera, Izaro irla ehunka urtez populatuta egon da eta haren hego-ekialdea ainguratoki gisa baliatu izan da..

M. Gómez Bravo; J.C. Zallo Uskola

B.28.4. **Lamiaren-Aramburu Gernikako itsasadarreko hondakin urak arazteko planta**

Zuzendaritza: Mikel Neira Zubieta
Finantzazioa: Edar Lamiaren ABEE

Valoración

En la isla de Izaro y los bajos cercanos no hemos localizado restos arqueológicos que indiquen la existencia de un yacimiento en sus fondos. Los fragmentos cerámicos localizados están tan fragmentados y rodados que, además de imposibilitar su clasificación, hacen pensar en otra procedencia para los mismos distinta a su lugar de aparición. Todos los materiales han aparecido en superficie, y consideramos poco probable la localización de materiales enterrados en el subsuelo, dadas las características geomorfológicas de sus fondos, fundamentalmente rocosos y con poca presencia de arenales.

En cualquier caso, esta escasez de materiales contrasta con el hecho de que tanto la isla como los bajos prospectados son accidentes naturales, situados en la entrada de una ría que ha sido objeto de un intenso tráfico costero durante siglos, y, en el caso de Izaro, habitada durante algunos cientos de años y cuya zona sudeste ha sido usada como fondeadero.

B.28.4. **Estación de depuración de aguas residuales de Lamiaren-Aramburu, de la ría de Gernika**

Dirección: Mikel Neira Zubieta
Financiación: U.T.E Edar Lamiaren

This intervention failed to produce any results of interest.

Lamiaren-Aramburu Gernikako itsasadarreko hondakin urak arazteko planta eraikitze lanen karietara kontrol arkeologikoko bat bururatu genuen. Esku-haritze honen emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik, eta agortu egin dira aztartutako eremuetan beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro.

Se ha llevado a cabo un control arqueológico con motivo de las obras de construcción de la depuradora de la estación de depuración de aguas residuales de Lamiaren-Aramburu, de la ría de Gernika, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, agotando la posibilidad de nueva investigación en las zonas intervenidas.

M. Neira Zubieta

C. GIPUZKOA

C.1. AIA

C.1.1. **Olazabal-B baserria**

Zuzendaritza: Nerea Sarasola
Finantzazioa: Gabriel Sarasola

C.1.1. **Caserío Olazabal-B**

Dirección: Nerea Sarasola
Financiación: Gabriel Sarasola

This intervention failed to produce any results of archaeological interest.

Baserriari erantsitako eraikuntza berri bat egiteko zimendu-zapatak sartzeko ireki ziren zangak kontrolatu ditugu jarduera honetan, baina emaitzek ez dute inolako interesik, obra harri naturalaren (Flysch) gainean egin baita.

La actuación se ha centrado en el control de la apertura de las zanjas destinadas a acoger las zapatas de cimentación de una nueva construcción anexa al caserío, siendo los resultados de nulo interés ya que la obra se ha realizado sobre la roca natural (Flysch).

M. Ceberio Rodriguez

C.1.2. **Karea leizea**

II. Kanpaina
Zuzendaritza: Maria Jose Iriarte
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako
Foru Aldundia

C.1.2. **Cueva de Karea**

II Campaña
Dirección: María José Iriarte
Subvención: Diputación Foral de
Gipuzkoa

During 2009, we intervened in Karea B, recovering some human remains and materials from the Chalcolithic-Bronze age.

Aiako Iturriotz auzoan dago Karea leizea. Gaur egun oso neurri txikiak ageri ditu leize honek. Betegarrria eratu zenean, galeria erdi-horizontala eta leize txiki bat zituen sarreraren bidez elkarri lotuak, baina estalagmita-jariakin batek eta sedimentazioak berak eten egin dute lotura hori, eta Karea A (2008an zundaketa egin genuen leizea) eta Karea B (leizea) deitu diegunak gelditu dira horrenbestez. 2009. urtean Karea B delakoan esku hartu dugu; bi kata txiki ireki ditugu eta material batzuk jaso ditugu azaleran.

Giza hondakin batzuk, Kalkolitiko-Brontze Aroko kronologiako zeramika eta behiaren familiako hezurren

La cueva de Karea se ubica en el barrio de Iturriotz, en Aia. Se trata de una cueva en la actualidad de reducidas dimensiones. En el momento en que se produjo su relleno, comprendía una galería subhorizontal y una pequeña sima conectadas por la entrada, pero una colada estalagmítica y la propia sedimentación han interrumpido tal comunicación, dando lugar a lo que llamamos Karea A (la cueva, sondeada en 2008) y Karea B (la sima). Durante 2009 hemos intervenido en Karea B, abriendo dos pequeñas catas y recogiendo algunos materiales superficiales.

En el sondeo B1 se recuperaron algunos restos humanos, cerámica de cronología del Calcolítico-

bat berreskuratu genituen B1 zundaketan. B2 zundaketa, berriz, antzua izan da. Azalera bildutako elementuei dagokienean, giza hondakin batzuk, zeramikazko zati batzuk eta behiaren familiako hezurak agertu dira berriro ere. Karea leizean lan horiek bukatu ondoren, esan daiteke, leize hau batik bat hilobi helburuetarako erabili zutela Kalkolito garaian edo Brontze Aroaren hasierako garaietan. Hala jasotako zeramikak nola behiaren familiako hezurak (hauen kronologia eta jatorria ez daude bat ere garbi) hilobi deposituekin lotuko genituzke edo ehorzketen garai bertsuko intentsitate txikiko ezarpenen batekin bestela.

Bronce y algún hueso de bóvido. El sondeo B2 ha resultado estéril. En cuanto a las recogidas superficiales, vuelven a comprender restos humanos, algunos fragmentos cerámicos y huesos de bóvido. Una vez concluidas estas tareas en la cueva de Karea, puede darse por completada su evaluación como una cavidad empleada básicamente con fines sepulcrales, durante el Calcolítico o las fases iniciales de la Edad del Bronce. Tanto las cerámicas recogidas, como los huesos de bóvido (estos, de cronología y origen incierto), pueden ponerse en conexión con depósitos sepulcrales o con algún establecimiento de poca intensidad más o menos coetáneo a la/s inhumación/es.

Antxieta Jakintza Taldea; M.J. Iriarte

C.2. ANDOAIN

C.2.1. **Berrozpe etxea, Kale txiki, z/g**

Zuzendaritza: Fran Zumalabe Makirriain
Finantzazioa: Jesusen Alaben
Konpainia

C.2.1. **Casa Berrozpe, en Kale txiki, s/nº**

Dirección: Fran Zumalabe Makirriain
Financiación: Compañía de las Hijas de Jesús

In the town centre stands one of the old Andoain house-towers which contains medieval construction elements in the gothic style, such as ogee arch windows and pointed arches. The aim of our activities was to register the strata and materials which may be located during the earth moving works carried out in the lift pit, as well as during other activities.

Huste lanak eta 110 cm sakonerako hormigoizko hobi bat egitea aurreikusten da etxe honetan igogailua jartzeko.

Igogailua jartzeko hobia egiteko lanek iraun zuten bitartean, obra horien jarraipena egin genuen. Kontrol arkeologikoa egin genuen bertan. 2009ko urriaren 19an eta 20an eraman ziren aurrera lan horiek.

Zundaketa egin zen lekua markatu genuen lehenengo. Horren ondoren, bizilekuko zoruko baldosak haussten hasi ziren.

Hainbat kolore eta ehundurako geruzak agertzen hasi ziren. Aurreko zorua berdintzeko geruzaren azpian 15 bat zentimetroko hormigoizko zolarria azaldu zen.

Kolore hori eta beltzeko berdintze betegarri baten gainean zegoen zolarria, geruza horiak eta beltzak txandakatu egiten ziren eta ehundura plastikoa zuten.

Geruza hori altxatu ondoren, erdi tamainako errekariek osaturiko enkatxoa agertu zen, errekarri horiek galburu moduan egokituak.

Para la colocación de un ascensor está previsto realizar un vaciado y ejecutar un foso de hormigón de 110 cm de profundidad.

Durante el transcurso de los trabajos para ejecución del foso del ascensor se llevó a cabo un seguimiento de las obras que consistió en la realización de un control arqueológico. Dichos trabajos se llevaron a cabo durante los días 19 y 20 de octubre de 2009.

Se comenzó marcando el lugar donde se realizó el sondeo. Tras ello se empezó a romper las baldosas del suelo de la habitación.

Comenzaron a aflorar distintos estratos de diferentes colores y texturas. Después de la capa niveladora del suelo anterior apareció una solera de hormigón de unos 15 cm.

La solera se apoyaba sobre un relleno nivelador de color amarillo y negro en capas alternas y textura plástica

Tras levantar este estrato apareció un enchachado de cantos rodados de tamaño mediano colocados en espiga.

Ekialdeko eremua erabat hondatua zegoen, guztiz bitxia iruditu zitzaigun hori, baina geroago jakin izan genuen zergatik.

Harzolauren neurriak hartu eta marrazkiak nahiz argazkiak egin genituen hura altxatzen hasi aurretik. Buztinezko geruza hori eta plastiko baten gainean zegoen enkatxoa; geruza geologiko naturala izango da hura.

Lan horiek egin genituen bitartean, eta 72 cm-ko sakoneran oso egitura gogor bat (hormigoia) aurkitu genuen zundaketaren ekialdean, huraxe zen, hain zuzen ere, enkatxoaren alde bat hautsita egoteko arrazoia. Hormigoizko zapata bat zen, duela urte gutxi egina bizilekuko pilare bati eusteko.

Maila horretan 110 cm ingurura iritsi ginen, igogailuaren hobiak tamaina hori behar baitzuen, eta horrenbestez, indusketa lanak gelditu genituen.

Lanak egin genituen bitartean ikusi genuen geruza naturala berdindu ondoren, enkatxo bat jarri zutela haren gainean; geroago, hainbat lurrez estali zuten, hurrena jarri behar zen hormigoizko zorua berdintzeko jarriko zuten lurra. Hormigoizko zoru horren gainean zulo edo zanga bat egin zen, eta honek erabat hondatu egin zuen enkatxoaren ekialdea; hantxe egokitu zuten egungo pilarearen zapata, geruza hautsietako lurraz estalirik. xx. mendean zolarri hori estali eta zementu eta adreiluz berdindu zuten, eta azkenean baldosazko zorua (egungo zorua) jarri zuten.

La zona este se encontraba destrozada, cosa que nos pareció extraña y que mas tarde pudimos resolver.

The archaeological intervention carried out in Tolare farmhouse, located in the city of Donostia-San Sebastián, gave extremely satisfactory results as regards determining the site's various periods of occupation. We should highlight the finding of a new wooden structure associated with a 16th century cider press, specifically related to the anchor of the press screw counterweight.

Tolare baserriaren barnean indusketa arkeologikoa egin genuen eraikin horretan egitura eta eraikuntza sendotzeko lanak egin behar zituztela eta. Donostiako Udalerriko Ibaeta auzoan dago baserri hau, Gudamenditik jaisten den erreka txiki batetik gertu, ibar aldera zabaltzen ari den hiri hedapen eremuaren muga, hain zuzen ere. 249,44 m² inguruko azalera du.

Bi fasetan banatu genuen lana: lehenengoan, eraikinaren arkitektura ezaugarriak aztertu genituen barne egitura desmuntatzen ari ziren bitartean, eta bigarrenan, berriz, halako zanga batzuk egin genituen baserriaren barnealdean, eta emaitza bikainak lortu genituen benetan.

La intervención arqueológica desarrollada en el interior del caserío Tolare está relacionada con las obras de consolidación estructural y constructiva que se están llevando a cabo en dicho edificio. Este caserío se encuentra en el barrio de Ibaeta del municipio de Donostia-San Sebastián, junto a una pequeña regata que baja de Gudamendi, en el límite del área de expansión urbana que se va extendiendo hacia la vaguada. Consta de una superficie aproximada de 249,44 m².

El trabajo realizado se dividió en dos fases: una primera relativa al análisis de las características arquitectónicas del edificio durante el período de desmontaje de la estructura interna, y una segunda en la que se realizaron una serie de zanjas en el interior del caserío con resultados altamente positivos.

Tolare baserria. Aurkitutako zurezko egituren ikuspegi orokorra.



Caserío Tolare. Vista general de las estructuras lógicas halladas.

Barne egitura desmuntatu ondoren, hainbat fabrika bereizi ahal izan genituen landu gabeko harrizko hormen eraikuntzan; fatxada nagusian estalkipeko solairua berraltxatu zela sumatu genuen halaber. Halaz ere, fabrikaren zatirik handiena eta gaur egun ageri ziren horma perimetralen altxaera xviii. mendeko eraikuntza barroko batenak izango ziren.

Bestalde, barneko zurezko egituran eginiko azterketan xvi. mendeko dolare baserriek berezko zituzten berrerabilitako elementuak sumatu baditugu ere, esate baterako atal bateko zutoina eta zurezko torloju handi bat, garai hartako dolare bati zegokiona. xviii. mendekoak dira halaber zutikoen gaineko habe uhalak daramatzan egituraren diseinua eta egitea.

Interbentzio arkeologikoari dagokionean, bi zanga egin genituen, elkarren artean perpendikularrak, eta haietako bat zabaldu behar izan genuen aurkitutako egituren ondorioz.

Indusketa honek aukera eman digu xvi. mendeko sagardo dolare batekin loturiko zurezko beste egitura bat (109. UE) atzemateko. Zehatzago esateko, dolare baten ardatzaren kontrapisuaren aingurarekin loturikoa zen, eta ezaugarri bereziak zituen, desberdinak

Mediante el desmontaje de la estructura interna, hemos podido observar distintas fábricas en la construcción de los muros de mampostería, así como el realzado de la planta bajo cubierta en la fachada principal. Aún así, gran parte de la fábrica y alzado de los muros perimetrales visibles en la actualidad corresponderían a una construcción barroca del siglo xviii.

Por su parte, aunque en el análisis realizado de la estructura lítica interna se han detectado elementos reutilizados propios de los caseríos lagar del siglo xvi, como son un poste enterizo y un gran tornillo de madera correspondiente a un lagar de esta época, el diseño y ejecución de la estructura portante de vigas correas sobre pies derechos corresponden también al siglo xviii.

Con respecto a la intervención arqueológica propiamente dicha, ésta se ejecutó a través de la realización de dos zanjas perpendiculares entre sí, ampliándose una de ellas como consecuencia de las estructuras halladas.

Esta intervención ha permitido hallar una nueva estructura lítica (UE 109) relacionada con un lagar de sidra del siglo xvi, y en concreto con el anclaje del contrapeso del husillo de un lagar, con unas características propias y diferenciadas de las estructuras de

orain arte Gipuzkoan aurkitutako era horretako egiturekin (hiri testuinguruetan batik bat) aldaratzen badugu. Zeharkako presioko makina horien hondakin gutxi aurkitu direnez orain arte, egitura berri honek zabaldu egiten ditu arotzia mekaniko zaharrearan erabilitako zurezko tresna horien inguruan genituen ezagutzak.

Aurkitutako egitura hori, egoera bikainean kontserbatua lurraren hezetasunagatik eta oxigeno faltagatik, orubearen hego-mendebaldeko muturrean zegoan. Zegoen kokalekuagatik eta piezen kokaeragatik, ez du ematen bere lekuz kanpo dagoenik eraikin barroko horma perimetralei dagokienean, eta horrenbestez, egungoaren antzekoa izango zen ^{xvi}. mendeko baserri dolarearen altxaera seguru asko. Hala bada, dolarearen gaineko egitura ipar-mendebaldeko norabidean luzatuko zen, baserriaren alboko luzeraren zati handiena harturik.

Bi pieza ditu, neurri batean eskuairan eratuak, bertikalean eta paraleloan, eta bakoitzak jangune bat du, egitura osatzen duten lehen bi habexken parean justu. Bi zutoin bertikal horiek harriaren gainean daude zuzenean, zeregin horretarako zulaturiko hobian, hain zuzen ere (108. UE).

HM-ko alboko fatxadatik hurbilen dagoen zutoinak 1,60 metroko luzera eta 60 cm-ko zabalera ditu gehienez ere. Bestalde, aurrekotik 13 cm-ra IE norabidean dagoen zutoinak 1,37 metroko luzera eta 45 cm-ko zabalera ditu gehienez.

Lehen aipaturiko habexken lehen ilara hori IE-ko fatxada nagusiaren perpendikularrean eratzen da. HM-ko alboko fatxadatik hurbilen dagoenak 1,90 metroko luzera du; hartatik 54 cm-ra dagoenak, berriz, IE norabidean, 2,40 metroko luzera du.

Biek ere 25 cm-ko zabalera dute gehienez eta haietan beste bi habexka oinarritzen dira, aurrekoen kontrako norabidean egokituak horiek, HE-ko fatxada nagusiaren paraleloan lerrotatuak. HE-ko fatxada nagusitik hurbilen dagoenak 1,94 metroko luzera eta 20 cm-ko zabalera ditu, eta fatxadatik urruen dagoenak 1,97 metroko luzera eta 20 cm-ko zabalera. Eskuairan egokituriko bi habexka altuera horien bidez osatzen da zutoin bertikalen egitura.

Harrizko material batzuek, espres jarriak horiek egitura sendotzeko, betetzen dituzte pieza desberdinen arteko tartearak.

Gainera, esan behar dugu zurezko beste bi egitura ere aurkitu ditugula, bakoitza hiru piezak osatua. Pieza guztiak ez badaude ere eskuairan egokituak, bi egituretan fatxada nagusiaren perpendikularrean daudenek ebaki bat dute barne muturretan; ebakiaren aurretik elkartuak egongo ziren agian. Hauxe da, fatxada nagusiaren perpendikularrean dauden lau pieza horiek bi habexka izango ziren jatorrian eta moztu egingo zituzten gero.

este tipo que hasta el momento se han descubierto en Gipuzkoa (relacionadas mayormente con contextos urbanos). Al ser escasos los restos localizados de estas máquinas de presión indirecta hasta la fecha, esta nueva estructura amplía nuestro conocimiento sobre los ingenios de madera utilizados en la carpintería mecánica antigua.

La estructura hallada, conservada en un excelente estado gracias a la humedad del terreno y a la falta de oxígeno, fue localizada en el extremo suroeste del solar. Debido a su localización y a la disposición de sus piezas, la estructura no parece estar desubicada con respecto a los muros perimetrales del edificio barroco, por lo que probablemente el alzado del caserío-lagar del siglo ^{xvi} sería similar al actual. Así, el resto de la estructura del lagar se extendería en dirección noroeste ocupando gran parte de la longitud lateral del caserío.

Esta compuesta por dos piezas parcialmente es cuadradas, dispuestas vertical y paralelamente, y con un rebaje cada una justo a la altura de las dos primeras viguetas que componen el encepado. Estos dos postes verticales han sido dispuestos directamente sobre la roca e instalados en la fosa excavada para este fin (UE 108).

El poste más cercano a la fachada lateral SO presenta unas dimensiones de 1'60 m de largo y una anchura máxima de 60 cm. Por su parte, el poste dispuesto a 13cm del anterior en dirección NE tiene 1'37 m de largo y una anchura máxima de 45 cm.

La primera línea de viguetas anteriormente mencionadas se disponen en perpendicular a la fachada principal SE. La más cercana a la fachada lateral SO tiene una longitud de 1'90 m, mientras que la que se sitúa a 54 cm de ésta en dirección NE tiene 2'40 m de longitud.

Ambas presentan una anchura máxima de 25 cm, y sobre ellas se apoyan otras dos viguetas dispuestas en sentido contrario a las anteriores y alineadas en paralelo a la fachada principal SE. La más cercana a la fachada principal SE presenta unas dimensiones de 1'94 m de longitud y 17 cm de anchura, y la más alejada a esta fachada tiene 1'97 m de longitud y 20 cm de ancho. Mediante estas dos alturas de viguetas es cuadradas se forma el encepado de los postes verticales.

Una serie de materiales pétreos, dispuestos expresamente para afianzar la estructura, colmatan los espacios entre las diferentes piezas.

Además, debemos añadir el hallazgo de otras dos estructuras lígneas formadas por tres piezas cada una. Aunque si bien todas las piezas están sin escuadrar, las perpendiculares a la fachada principal de ambas estructuras presentan un corte en los extremos interiores que quizás nos indique una unión anterior al corte. Es decir, las cuatro piezas perpendiculares a la fachada principal que hemos hallado serían en origen dos viguetas que con posterioridad fueron seccionadas.

Azaldutako hipotesia egia balitz, dolare bateko ardatzaren kontrapisuaren beste aingura baten egituraren hondakinen aurrean geundeke. Ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik hura baztertu eta lehen azterturiko eta 109. UE egitura gisa identifikaturiko egitura horrek hartuko zuen haren lekua.

Si la hipótesis señalada fuera cierta, nos encontraríamos ante los restos del encepado de otro anclaje de contrapeso del husillo de un lagar, que por razones desconocidas fue desechada y sustituida por la estructura anteriormente analizada e identificada como UE 1009.

J. Bucos Cabello

C.13. ELDUAIN

C.13.1. **Santa Katalina eliza. Ingurua**

Zuzendaritza: Unai Aurrekoetxea
Fernandez
Finantzazioa: Naturgas Energía
Distribución S.A.U.

C.13.1. **Iglesia de Santa Catalina. Entorno**

Dirección: Unai Aurrekoetxea
Fernández
Financiación: Naturgas Energía
Distribución S.A.U.

Intervention in which a level was documented containing a stretch of paving and a sewer gallery from the contemporary era, located near Santa Catalina Church.

Indusketa lana egin genuen, udalerrian gas sarea sartzeko egin beharreko zangen kontrola eta jarraipena bideratzeko. Santa Katalina elizaren ingurueta zanga bat egin behar zuten eraikin horri zerbitzu emateko beharreko lotuneak gauzatzeko eta lan horiek arreta berezia eskatzen zuten.

Kontua da ez dugula arkeologiaren ikuspegitik begiratuta interesa duen elementurik aurkitu, baina esan behar da, era berean, esku hartu dugun eremua oso txikia zela (bi zanga, 50 cm baino zabalera txikiagokoak).

Elizatik hurbilen dagoen eremua aski nahasia zegoen eremu hori berdindu eta asfaltatzeko gure garaian eginiko obrenengatik, harri naturalaren mailaraino iritsi baitziren, eta horren ondorioz erabat desagertu egingo zen egon zitekeen hondakin arkeologiko oro.

Hala eta guztiz ere, bi egitura dokumentatu ahal izan genituen: enkatxo-zoladura bat eta gure garaiko estolderia baten galeria, baina horien inguruan ezin izan dugun zehaztapen handirik egin, ezin izan genituelako estratigrafikoki lotu eta ez zigutelako inolako materialik eskaini, datatzen laguntzeko modukorik ez behintzat. Nolanahi ere, zoladuraren inguruan halako zalantza batzuk izan arren, egitura horiek, seguru asko, Aro Garaikidekoak direla esatera arriskatu ginateke.

Intervención realizada en base al control y seguimiento de las zanjas necesarias para la instalación de la red de gas en el municipio. La zanja a realizar en el entorno de la iglesia de Santa Catalina y la acometida necesaria para dar servicio a este edificio reclamaban una atención especial.

Lo cierto es que no se han localizado elementos arqueológicos de gran interés, si bien es cierto que al área intervenida era muy reducida (dos zanjas de menos de 50 cm de anchura).

El área mas próxima a la iglesia se hallaba alterada por una obra contemporánea de nivelación y asfaltado de la zona, llegando a niveles de roca natural, arrasando así con cualquier posible resto arqueológico.

Aún así fue posible documentar dos estructuras: un pavimento encachado y la galería de un alcantarillado de época contemporánea, aunque no se ha podido precisar gran cosa sobre ellos, dado que no nos fue posible relacionarlas estratigráficamente y no aportaron ningún tipo de material que pudiera ayudar a su datación. Lo cierto es que con algunas dudas con respecto al pavimento nos aventuramos a afirmar que ambas estructuras pertenezcan probablemente a época contemporánea.

U. Aurrekoetxea Fernandez

C.14. ERRETERIA

C.14.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.14.1.1. **Orereta, 7. Torrekoa dorretxea**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe Irizar
Finantzazioa: Erreteriako Udala;
Etxebizitza Ministerioa

C.14.1.1. **Orereta, 7. Casa-torre Torrekoa**

Dirección: Miren Ayerbe Irizar
Financiación: Ayuntamiento de Erretería; Ministerio de Vivienda

The archaeological intervention carried out in Torrekoa House-Tower (Erretería) and its adjacent area, enabled us to register part of the line of the medieval and renaissance walls which defended the historic quarter.

Erreteriako Hirigune Historikoan, «Orereta kaleko 7. zenbakiko eraikinaren (Torrekua) egitura eta eraikuntza egokitzeko proiektua» gauzatu behar zutela eta, jarduera arkeologikoa idatzi genuen, eremu horretan indusketa bideratu eta ondoren kontrol arkeologikoa egiteko.

Erreteriako hiribildua, Oiarzungo haranean egoitua, 1320. urtean sortu zuen Alfontso XI.a Gaztelako erregeak. Hirigune historikoak kontserbatu du Erdi Aroko morfologia kaleen trazatuan, lursail-zatiketan eta etxe multzoen eraketan. Goiko kalea, Eliz kalea, Erdiko kalea eta Beheko kalea kaleek osatzen dute jatorrizko hirigune harresiduna. Erdi Aroko harresiarekin loturiko eraikuntza hondakinik ia ez bada kontserbatu ere, Goiko kalean bai kontserbatu dira Torrekoa eta Morrontxo dorretxeak. Horiek Erdi Aroko harresiaren barnean zeuden eta hiribildurako sarrera kontrolatzen zuten Nafarroako atetik.

Torrekoa dorretxea oin ia koadrangularra duen eraikina da eta lau isuriko teilatua du. Hiribilduaren hegoaldeko muturrean dago, bertara sartzeko bideetako bat babestu eta defendatzen. Dorretxe gotikoaren adibide ederra da, inolaz ere.

Garai desberdinetako bi barruti gotorturen traza-arekin loturiko eraikuntza unitateak erregistratzea izan zen, laburbilduta, gure lanaren emaitza. Lehenengo, 2 metro zabal eta 15 metro luze zituen horma egitura bat erregistratu genuen; orubean lorategi eremu osoan ageri zen, haren itxitura moduan. 2,5 metroko altuera (agerian dagoena) erregistratu dugu. Harresi bat da, xvi. mendekoa seguru asko, landu gabeko karharri eta hareharriz egina.

Era berean, lorategi eremu horretan zegoen geruza buztintsu eta plastikoa, material arkeologiko gutxiarekin, erregistratzen genuen bitartean, Erdi Aroko harresizat hartu genuen eraikuntza unitatearen kanpoaldeko altxaera aurkitu genuen, haren gainean eraiki baitzuten Torrekoa dorretxea. Landu gabeko

Con motivo de la ejecución del «Proyecto de adecuación estructural y constructiva del edificio de C/Orereta 7 (Torrekua)» sito en el casco histórico de Erretería, redactamos una actuación arqueológica que incluía la ejecución de una excavación y posterior control arqueológicos.

La villa de Rentería, situada en el valle de Oiarzun, fue fundada en el año 1320 por el rey castellano Alfonso XI. Su casco histórico conserva su morfología medieval en el trazado de las calles, parcelación y conformación de manzanas. Las calles Goiko kalea, Eliz kalea, Erdiko kalea y Beheko kalea constituyen el primitivo núcleo amurallado. Si bien apenas se conservan restos constructivos relacionados con la muralla de origen medieval, sí se conservan en Goiko kalea las casas-torres de Torrekoa y Morrontxo que formando parte de la cerca medieval controlaban el acceso a la villa por la puerta de Navarra.

La casa-torre Torrekoa es un edificio de planta casi cuadrangular y cubierta a cuatro aguas. Se localiza en el extremo sur de la villa protegiendo y defendiendo uno de los accesos a la misma. Se trata de un bello ejemplo de casa-torre gótica.

Los resultados de nuestra actuación se pueden resumir en el registro de unidades constructivas identificadas con el trazado de dos recintos fortificados de distintas épocas. En primer lugar registramos una estructura muraria de 2 m de anchura y 15 m de longitud visible en toda la parte ajardinada del solar, actuando como cierre del mismo. Se registra una altura de 2,5 m (visible). Se trata de una muralla, posiblemente del siglo xvi, realizada en mampostería de caliza y arenisca.

Del mismo modo, conforme se registraba el estrato arcilloso, plástico y con escaso material arqueológico, localizado en la zona ajardinada, fuimos descubriendo el alzado exterior de una unidad constructiva identificada como la muralla medieval sobre la que se alzó la casa-torre Torrekoa. Muralla realizada en mam-



Orereta, 7. Torrekua dorretxea. Indusketa eremuaren ikuspegi orokorra. Harresi errenazentistarekin loturiko eraikuntza unitatea ikus daiteke, eskuinaldean, eta Erdi Aroko harresiaren kanpoaldeko atala ere dorretxea dagoen lekuan.

Orereta, 7. Casa-torre Torrekua. Vista general del área de excavación. Se aprecia la unidad constructiva asociada a la muralla renacentista, a la derecha, y el alzado exterior de la muralla medieval donde se localiza la casa-torre.

kareharriz egin zen harresia, harriak ondo elkartuak, eta «makila eta orbe» moldeko gezi-leihoak zuten, Erdi Arokoa. 1,80 metroko zabalera du. Ohikoa zen bezala, Erdi Aroko harresia aprobetxatzen zuten dorretxeak eraikitzeko, halaxe egin zuten oraingo honetan ere, eta hutsarte batzuk irekitzen zituzten gero. Horrenbestez, dorretxearen trazatua baino harantzago luzatuko da Erdi Aroko harresiaren egitura hau.

postería de caliza bien trabada con una tronera de «palo y orbe», de factura medieval. Cuenta con una anchura de 1,80 m. Como era habitual, las casas-torres, como es el caso, se levantaban aprovechando parte de la muralla medieval, abriendo con posterioridad algunos vanos. Por lo tanto esta estructura de muralla medieval se prolonga más allá del trazado de la propia casa-torre.

M. Ayerbe Irizar

C.15. ERREZIL

C.15.1. Aitzorrotz II leizea

V. Kanpaina
Zuzendaritza: Ander Arrese Vitoria
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako
Foru Aldundia

C.15.1. Cueva Aitzorrotz II

V Campaña
Dirección: Ander Arrese Vitoria
Subvención: Diputación Foral de
Gipuzkoa

After having identified during previous seasons levels corresponding to periods ranging from the Bronze Age to the end of the Upper Palaeolithic, during this last season we excavated down to the bedrock, thus completing the chrono-stratigraphic sequence of the site.

Kanpaina honetako helburua izan da jadanik induskaturikoen azpian arkeologia aldetik emankorrak diren maila berririk dagoen ala ez dagoen baieztatzea. Helburu hori bete egin dugu, egiaztatu ahal izan baitugu aurreko kanpainan agertzen hasi ziren blokeek Aitzorrotz IIko sarrerako aztarnategiko estratigrafiaren amaiera adierazten dutela. Ez da leizearen zoruan oinarrituriko harri maila, baizik eta azpiko galerietan bermatzen den tapoia osatzen dute.

Aipatu dugun maila horren osaerak zailtasunak eragin zizkigun, hasiera batean, gure indusketa lanak egiteko, esparrua gero eta txikiagoa baitzen, baina halako hutsarte batzuk irekitzen hasi ziren eta ezin ginen haien hondora iritsi (geroago egiaztatu ahal izan genuen hondo hori hainbat metrora zegoela gure oinen azpian).

Kanpaina honen ondoren, eta lortutako emaitzak ikusirik, amaitutzat ematen ditugu indusketa lanak aztarnategi honetan, landa-lanari dagokionean genituen helburu guztiak betetzat ematen baititugu.

Bildutako materialen azterketak eskainiko dizkigun emaitzen zain, honako hauek esan genitzake Aitzorrotz II aztarnategiaren aurren-aurreneko interpretazio batean:

- Brontze Arokoa genuke lehen maila, R1ekin loturikoa hain zuzen ere. Zeramika zati dekoratu gutxi batzuk azaldu dira hartan, hatz markak agerian haletako zenbaitetan.
- Mesolitikoarekin lotu genitzakeen elementu gutxi batzuk R2aren barruan (hozakak eta hortz markak), han eta hemen azaldu direnak.
- Dortsoak dira tresna ugariak Lmak mailan eta, beraz, Epipaleolitikoko xaflen arotik harantz joan ez zen garai bat iradokitzen digu egoera honek.
- Lsmc mailan, bestalde, dortso kopuru handia azaldu da, Azken Magdalen garaia iradokitzen digun sekzio erdi-zirkularreko azkonaz gainera berreskuratutako diren aztarnen aldean. Groningen-go unibertitateak eginitako C-14 azterketak

El objetivo para esta campaña era confirmar la presencia o ausencia de nuevos niveles arqueológicamente fértiles bajo los ya excavados. Este objetivo se ha cumplido ya que hemos podido comprobar que los bloques que nos empezaron a aparecer en la campaña pasada marcan el final de la estratigrafía del yacimiento de la entrada de Aitzorrotz II. No se trata de un nivel de rocas apoyadas sobre el suelo de la cavidad, sino que forman parte de un tapón que se sostiene por oposición sobre las galerías inferiores.

La composición del nivel al que hemos hecho referencia, dificultó en un principio las labores de excavación ya que el espacio se veía cada vez mas reducido, hasta que empezaron a abrirse huecos cuyo fondo no alcanzábamos (mas tarde comprobamos que ese fondo se hallaba a varios metros bajo nuestros pies).

Tras la presente campaña y a la vista de los resultados obtenidos, damos por terminadas las labores de excavación en este yacimiento, dado que consideramos completados todos los objetivos con respecto al trabajo de campo.

A la espera de los resultados que nos ofrezcan los estudios de los materiales recogidos, en una interpretación preeliminar de Aitzorrotz II podríamos definir:

- Un primer nivel que podría corresponder a la Edad del Bronce asociado a R1, con escasos fragmentos cerámicos decorados en algún caso con digitaciones.
- Escasos y dispersos elementos asociables al Mesolítico de muescas y denticulados dentro de R2.
- Los dorsos son los útiles predominantes en Lmak, lo que nos lleva a apuntar a un periodo no posterior al Epipaleolítico laminar.
- El nivel Lsmc por su parte, alberga gran cantidad de dorsos en proporción a los restos encontrados además de la azagaya de sección semicircular que nos sugiere un estadio avanzado del Magdaleniense. El análisis de C-14

egiaztatu egin du baieztapen hori, 12560 +/-60 BP data eskaini baitigu.

- Zaila da Ala maila definitzea, garai zehatz batekin lotzeko elementurik ageri ez dituen aldetik, baina Lsmc mailan aipaturikoa baino lehenagokoa dela iradokitzen digu haren kokaleku estratigrafikoak. Nolanahi ere, dortsoen kasuan aurreko mailan aipatu den proportzio handia dugu estratu honetan ere ezaugarri nagusia.
- Aztertzen ari gara azpian segidan ageri diren mailen konposizioa, baina lehenengo begiratuaren ondorioz esan genezake Alm edo lur hareatsu-malatsu marroi baten aurrean gaudela. Hala eta guztiz ere, hartan pausatu diren lehorreko barraskilo-oskol kopuru handia genuke, inondik ere, maila honen ezaugarri nagusia. Ez da hartan inolako material arkeologikorik topatu.
- Azkenik, estalagmita geruzaz estalitako bloke maila dugu. Horiek osatzen dute beheko galeriaren sabaia.

Aitzorrotz II leizerako nahiz Errallarako zundaketa bana egiteko baimena eskatu zen, bi aztarnategi horietako mikrofauna aztertu eta alderatu ahal izateko. Azterketa horren bidez beste lotura bat aurkitu nahi dugu bi aztarnategi horien artean, estratigrafia nahiz okupazioa Magdalen Arokoak direla baitakigu.

Erralla leizean laginak jaso genituenean, konturatu ginen J bandari zegozkion hainbat lauki falta zirela, 6J, 7J eta 8J laukiak, hain zuzen ere, eta horregatik, hasieran aukeraturitako laukia 7Jtik 7Kra aldatu egin behar izan genuen 7. sektorean.

realizado por la universidad de Groningen confirma esta afirmación ya que nos ha ofrecido una datación de 12560 +/-60 BP.

- Resulta difícil definir el nivel Ala por no contener elementos que los asocie a un periodo concreto pero su posición estratigráfica sugiere que sea anterior a lo mencionado en el nivel Lsmc. De todas formas la elevada proporción de dorros mencionada en el nivel anterior sigue siendo la pauta principal en este estrato.
- La composición de los niveles inmediatamente inferiores entra en estudio, pero preliminarmente podríamos definirlo como Alm o Areno-limoso marrón, aunque su principal característica reside en la gran cantidad de conchas de caracoles terrestres que contiene. No se ha hallado material arqueológico alguno en este nivel.
- Por último nos encontramos con el nivel de bloques cubiertos por manto estalagmítico que conforman el techo de la galería inferior.

Tanto para Aitzorrotz II como para Erralla se solicitó permiso para la realización de sendos muestreos con el fin de estudiar la microfauna de ambos yacimientos y compararla. Con este estudio se pretende encontrar otro nexo entre los dos yacimientos además de la coincidencia tanto estratigráfica como ocupacional en el caso del Magdaleniense.

Al realizar este muestreo en la cueva de Erralla, nos dimos cuenta de la ausencia de varios cuadros correspondientes a la banda J, concretamente 6J, 7J y 8J, por lo que tuvimos que cambiar el cuadro seleccionado inicialmente del 7J al 7K en su sector nº 7.

A. Arrese Vitoria

C.16. HERNANI

C.16.1. Osinaga errota. Ingurua

Zuzendaritza: Unai Aurrekoetxea
Fernandez
Finantzazioa: Naturgas Energía
Distribución S.A.U.

C.16.1. Molino de Osinaga. Entorno

Dirección: Unai Aurrekoetxea
Fernández
Financiación: Naturgas Energía
Distribución S.A.U.

This intervention in the vicinity of Osinaga mill has enabled us to document the remains of the mill located underneath the current road leading to the centre of Hernani, as well as the fact that the wall observed on the other side of the road is related to the mill - specifically its front wall.

Hernanin, Osinaga errotaren inguruetan gas hodiak sartzeko egin beharreko zangaren kontrol arkeo-

Intervención desarrollada en base al control arqueológico de la excavación de una zanja a realizar

logikoaren inguruan bideratu genuen gure lana. Osinaga auzoa Hernanirekin lotzen duen errepidearen ekialdetik zihoan zanga, eta errotaren instalazioak nabarmen ukitu zituzten zanga hori egin zenean. Errota hori dokumentatua dago ^{xvi}. mendez geroztik, baina gaur egun eraikinaren erdiak baino ez du zutik iraun eta oso utzia eta hondatua dago gainera, joan den mendeko 60. hamarkadako azken urteetan utzi baitzitaion erabiltzeari.

Zangan dokumentaturiko aztarnak baieztatzen dute gaur egun errepidea eta espaloia dauden eremuan zegoela zela errota.

Nolanahi ere, indusketa arkeologikoak ezin izan zuen argibide handirik argitara atera, hainbat testuinguru bereiztea lortu bagenuen ere, ezin izan baikenituen osorik dokumentatu, hondoan metrobete zabalerara iristen ez zen zanga mehar hartara mugatu behar izan genuelako. Berreskuratutako aztarnen argazki eta topografia dokumentazioa egin genuen behar bezala, baina zaila izan zen kronologiak zehaztea eta baita elementu horietako gehienek izango zuten funtzioa zehaztea ere.

Berreskuratutako testuinguruei dagokienean, antaparatik zetorren kanalaren dokumentazioa nabarmentzea gustatuko litzaiguke. Haren lekuan hodi handi bat jarri zen gero. Ekintza horrek aukera eman digu geneukan susmoa baieztatzeko, hauxe da, errotako antaparakoa dela errepidearen mendebaldean dagoen paramentua.

para la introducción de las conducciones de gas en el entorno del molino de Osinaga, en Hernani. La zanja corría por el lado este de la carretera que une el barrio de Osinaga con Hernani y que en el momento en que se realizó afectó notablemente a las instalaciones del molino. Del molino, documentado desde el siglo ^{xvi}, únicamente se conserva en pie hoy en día la mitad del edificio y se encuentra en estado de abandono y ruina, ya que dejó de utilizarse en los últimos años de la década de los 60 del pasado siglo.

Las evidencias documentadas en la zanja confirman que el molino se desarrollaba por la zona en la que hoy en día se encuentra la carretera y la acera.

Lo cierto es que la intervención arqueológica no pudo sacar a la luz demasiada información ya que a pesar de lograr exhumar diferentes contextos, no pudieron ser documentados en su totalidad al tener que circunscribirnos a la estrecha zanja que en su fondo no llegaba al metro de ancho. Se procedió a una correcta documentación fotográfica y topográfica de las evidencias recuperadas, pero resultó complicado atribuir cronologías e incluso funcionalidades a la mayoría de éstas.

De los contextos recuperados nos gustaría destacar la documentación del canal que venía desde la antepara, sustituido con posterioridad por una gran tubería. Este hecho ha posibilitado confirmar la idea que se intuía, es decir, que el paramento que se desarrolla en el lado oeste de la carretera se corresponde con la antepara del molino.

U. Aurrekoetxea Fernandez

C.17. HERNIALDE

C.17.1. **Bitoria baserria**

Zuzendaritza: Miren Garcia Dalmau
Finantzazioa: Construcciones
Francisco Aierbe; Gipuzkoako Foru
Aldundia

C.17.1. **Caserío Bitoria**

Dirección: Miren García Dalmau
Financiación: Construcciones
Francisco Aierbe; Diputación Foral de
Gipuzkoa

This intervention failed to produce any results of archaeological interest.

Orubearen zati handi batean bideraturiko interbentzio arkeologiko honetan ahitu dira zeinahi ikerketa berrirako aukerak. Emaitzek ez dute inolako interes historiko-arkeologiko berezirik eskaini.

Intervención desarrollada en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de una nueva investigación siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

M. Garcia Dalmau; J. Bucos Cabello

C.18. HONDARRIBIA

C.18.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.18.1.1. **Harresia. Santa Maria ate aurrea**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe Irizar
Finantzazioa: Lurralde Politikarako
Ministerioa; Eusko Jaurlaritza,
Gipuzkoako Foru Aldundia;
Hondarribiko Udala

C.18.1.1. **Muralla. Antepuerta de Santa María**

Dirección: Miren Ayerbe Irizar
Financiación: Ministerio de Política
Territorial; Gobierno Vasco, Diputación
Foral de Gipuzkoa; Ayuntamiento de
Hondarribia

The archaeological intervention carried out in the entranceway to Santa María, within the fortified renaissance precinct of Hondarribia, revealed construction structures related to the access bridges and guardhouses located in this area, as well as the remains of pits and walls of the San Felipe bastion (16th-17th-18th centuries).

2009. urtean «Hirigune Historikoaren sarrerako eta Santa Maria ateko esparrua Urbanizatzeko Proiektua (Hondarribia)» gauzatzeko lehiaketa abian jarri zuen Hondarribiko Udalak, Lurralde Politikarako Ministerioak bultzaturiko Enplegua Sustatzeko Estatuko Planari esker. Harresilanda kalea eta Damarri kalea, hegoaldeko lubanarroaren eta Santa Maria atearen (xvi. mendea) aldamenen horiek, hurrenez hurren, berriro urbanizatzeko lanak jasotzen zituen proiektu horrek.

Indarrean dagoen legeriak xedatzen duen bezala, Hondarribiko Udalak zabaleran indusketa arkeologikoa egiteko proiektua diseinatu zuen Santa Maria atearen esparrurako eta kontrol arkeologikoa, berriz, Harresilandako eremuan zerbitzu berriak sartzeko irerkitako zangetan. Lan horiek obrak berak egin aurreko urrats gisa burutu behar ziren Santa Maria atearen kasuan, eta proiektua gauzatzeko zen bitartean, berriz, Harresilandaren kasuan.

Maiatzean hasi zen indusketa arkeologikoa bideratzen eta aurkikuntza bikainak eskaini zizkigun emaitza gisa. Santa Maria ate aurreko egitura arkeologikoen garrantzia ikusita, guardia-gorputzak, kanpoaldekoa eta barrualdekoa, zubiak eta San Felipe Baluartearen hondakin gehiago azaldu ondoren, Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, proiektua aldatzea planteatu behar izan zuen hondakin arkeologikoen hiri sarera bildu ahal izateko.

Eginiko lanaren deskribapena

Ate aurreko eremuan, San Felipe Baluartearen presentziak aukera eman zuen ingurua bi unitatetan banatzeko. Harresi barruko eremua, egungo Santa Maria atearen eta harresiaren luzapen edo San Felipe

En el año 2009 el Ayuntamiento de Hondarribia puso en marcha el concurso para la ejecución del «Proyecto de Urbanización del ámbito de acceso al Casco Histórico y Puerta de Santa María (Hondarribia)», gracias al Plan Estatal de Fomento de Empleo impulsado por el Ministerio de Política Territorial. Dicho proyecto contemplaba la reurbanización de la calle Harresilanda así como Damarri Kalea situadas junto al foso sur y puerta de Santa María (s. xvi) respectivamente.

Como marca la legislación vigente, desde el Ayuntamiento de Hondarribia se diseñó un proyecto arqueológico de excavación en área para el ámbito de la puerta de Santa María y de control arqueológico en las zanjas abiertas para los nuevos servicios en la zona de Harresilanda. Estas actuaciones se debían de ejecutar, en el caso de la Puerta de Santa María como paso previo a la ejecución de las obras propiamente dichas, y en el caso de Harresilanda, paralelamente a la ejecución del proyecto.

La ejecución de la excavación arqueológica, iniciada en el mes de mayo, dio como resultado unos hallazgos espectaculares. La envergadura de las estructuras arqueológicas de la antepuerta de Santa María, como sus cuerpos de guardia, exterior e interior, así como los puentes y más restos del Baluarte de San Felipe, obligaron al ayuntamiento en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa, a plantearse la modificación del proyecto y la incorporación de los restos arqueológicos al entramado urbano.

Descripción de la actuación realizada

En la zona de la antepuerta, la presencia del Baluarte de San Felipe permitía dividir el entorno en dos unidades. El área intramuros, espacio situado entre la actual puerta de Santa María y la prolongación de la



Jarduera eremuaren ikuspegi orokorra (Santa Maria ate aurrea).

Vista general del área de actuación (Antepuerta de Santa María).

Baluartearen artean zegoen esparrua; eta harresiz kanpoko eremua, kanpoaldeko lubanarroan, zubian eta guardia-gorputzean.

Esku hartze arkeologiko honetan, azalera zeuden Aro Garaikideko deposituak garbitu genituen baliabide mekanikoen bidez, horiek interbentzio eremu osoa estaltzen baitzuten. Hirigune historikoan sartzeko eremua mugatzen zuen horma eta Kasinoko lorategia garbitu genituen halaber.

Azaleko mailak kendu ondoren, egitura hondakinak agertzen hasi ziren, eta harresi barruko esparruan oinarritu genuen indusketa. Hainbat elementu esanguratsu bereizi ahal izan genituen eremu honetan:

Barne patioa

Santa Maria atearen aurrean dagoen esparru irekia da. Azalera zabala hartzen du, San Felipe Baluartearen beraren hormek eta Santa Maria Kuboak mugatzen dutena. Bi arkuko harrizko zubi batek zeharkatzen du alderik alde. Aro Garaikideko depositu heterogeneoz beteta zegoen patio osoa, lur marroia zen, hareatsua, eta harri ugari zeuden bertan, hainbat tamainakoak, eta baita eraikuntza materiala ere. 3 metrotik gorako lodiera zuen deposituak.

Urak hartutako lubanarroa

Patioan zeuden gure garaiko betegarri guztiak kendu ondoren, sestratik behera 4 metrora lubanarroa

muralla o Baluarte de San Felipe; y el área extramuros, en el foso exterior, el puente y el cuerpo de guardia.

La intervención arqueológica comenzó con la eliminación mecánica de los depósitos superficiales de época contemporánea que cubrían toda el área de intervención y del muro que delimitaban el acceso al casco histórico y del jardín del Casino.

Tras la eliminación de los niveles superficiales comenzaron a aflorar los restos estructurales centrándose la excavación en el espacio intramuros. En esta área fue posible distinguir varios elementos significativos:

El patio interior

Espacio abierto situado delante de la Puerta de Santa María. Ocupa una amplia superficie delimitada por muros del propio Baluarte San Felipe y Cubo de Santa María. Está atravesado por un puente de piedra de dos arcos. Todo el patio estaba colmatado por depósitos heterogéneos de época contemporánea, tierra de color marrón, arena, gran cantidad de piedras de diversos tamaños y material de construcción con una potencia que sobrepasaba los 3 metros.

El foso inundado

Tras la eliminación de todos los rellenos contemporáneos del patio a 4 metros desde la rasante se lo-

aurkitu genuen, kolore gris iluneko limo buztintsuez osatua, harri txiki eta eraikuntza materialekin (horiek urri) nahasia. Azalera besterik ez genuen egiaztatu maila hori, eta lau ebaluazio zundaketa egin genituen bertan. 1,50 metroko lodiera zuen, eta urak hartutako deposituetan ohikoa den material arkeologikoa eskaini zigun. Betegarri hori kolore gris argiko marga maila batean oinarritzen zen, harri naturala izango zen hura.

Harresi barruko plazatxoa

Gainera, patioa hustu ondoren, harresi barruko esparru osoaren morfologia egiaztatu ahal izan genuen: erdialdean plazatxo bat dago, bigarren Santa Maria atearen mailan, Mendebaldean esparru txiki bat dago azpiko lubanarroaren kotan, Iparraldean Santa Maria arkura sartzeko zubia, eta Ekialdean, berriz, uraska, plazatxoa ixten duten hormei atxikia.

Lubanarroaren gaineko zubia

Plazatxoari iparraldetik atxikia dago Santa Maria arkura sartzeko zubia. Oin angeluzuzeneko egitura hau landu gabeko kareharriz egina da eta harlanduak ere baditu toki batzuetan, kareharri eta kareorez osaturiko betegarria ageri du barnealdean. Harlanduz eginiko bi arkuren gainean oinarritua dago egitura. Horietan lehenengoa Santa Maria atearen azpitik abiatzen da; bigarrena, berriz, zirkulu erdiko arkua da eta neurri handiagoak ditu, patioaren bi aldeak lotzen ditu honek.

Uraska

Patioaren E eremuan, eta plazatxoa ixten duen hormari atxikia, uraska edo patina aurkitu genuen. Egitura hori landu gabeko kareharriz egina zen eta oin angeluzuzena zuen; maila desberdinetan zeuden bi gorputzek osatzen zuten. Barnealdean ganga modukoa da egitura; adreilu trinkoz eraikia da ganga eta kareorez igeltsutatuak ditu horma guztiak. Uraskaren horma batzuen zati batzuk pikatu ondoren, esan daiteke, haren M-ko eta H-ko hormek patioko itxiturak berriro aprobetxatu zituztela uraskaren horma moduan, eta I-ko eta E-ko hormak berriak direla; bata-suna ageri du harlanduz eginiko estekadurak.

Harresi edo San Felipe Baluartearen luzapenak ezartzen du harresi barruko eremuaren muga, eta haren mugetatik kanpo daude lubanarroa, kanpoaldeko zubia eta guardia-gorputza. Honela osatua zegoen harresiz kanpoko esparrua:

Bigarren Santa Maria atea

San Felipe harresia horma lodia da, hareharri landua ageri du kanpoaldeko aurpegietan eta landugabeko betegarria du barnealdean. Egitura moztuta dago, eta barnealdeko paramentuak harlanduak kenduak ditu zati batzuetan. Dekorazio elementu gisa, platabanda bat kontserbatu du, 35 cm luze eta 8 cm

calizó un nivel de foso compuesto por limos arcillosos de color gris oscuro, mezclado con pequeñas piedras y material (escaso) de construcción. Este nivel se constató sólo en superficie, ejecutándose en el mismo cuatro sondeos de evaluación. Se constató una potencia de 1,50 m presentando un material arqueológico típico de los depósitos inundados. Este relleno asentaba en un nivel de margas de color gris claro, identificándose con la roca natural.

La plazoleta intramuros

Además, tras el vaciado del patio, se pudo comprobar la morfología completa del espacio intramuros: estando compuesta por una plazoleta central al nivel de la segunda puerta de Santa María, al W una pequeña estancia a la cota del foso inferior, al N un puente de acceso al arco de Santa María y al E, adosado a los muros de cierre de la plazoleta, un aljibe.

El puente sobre el foso

Adosado a la plazoleta, por el N, se localiza el puente de acceso al arco de Santa María. Esta estructura de planta rectangular, está construida en mampostería de caliza y sillería en algunas zonas, presentando ripio de caliza y mortero de cal en su interior. La estructura está sustentada sobre dos arcos elaborados en sillería. El primero de ellos arranca bajo la puerta de Santa M^a; el segundo, de medio punto y de mayores dimensiones, permite la comunicación de ambos lados del patio.

El aljibe

En el área E del patio y adosado al muro de cierre de la plazoleta se localizó un aljibe o cisterna. La estructura, construida en mampostería de caliza, presenta planta rectangular, disponiéndose en dos cuerpos escalonados. En el interior la estructura es abovedada, estando construida la bóveda con ladrillo macizo y presentado todos sus muros enlucidos con mortero de cal. Tras el picado parcial de algunas paredes del aljibe se puede decir que sus muros W y S reaprovechan los cierres del patio como paredes de la cisterna y que los muros N y E son de nueva fábrica, apreciándose unidad en el aparejo de sillarejo.

La prolongación de la muralla o baluarte de San Felipe, marca el límite del área intramuros, localizándose fuera de sus límites, el foso, el puente exterior y el cuerpo de guardia. El espacio extramuros se componía de:

La segunda puerta de Santa María

La muralla de San Felipe corresponde a un grueso muro de sillería de arenisca en sus caras exteriores y ripio de mampostería en el interior. La estructura está desmochada y en su paramento interior está parcialmente descastrado de su sillería. Como elemento decorativo conserva una platabanda de 35 cm de alto y

zabalekoa, eta hormaren goiko eremuan barrena doa hura. Kanpoaldeko paramentuak zokalo bat du beheko aldean, harresiaren lerrotik 10 bat cm irteten dena. Harresiaren zapata aurkitu genuen kanpoaldeko lubanarroan eginiko zundaketan.

Bigarren Santa Maria atea egongo zen esparruan, San Felipe harresiaren gainean, alboko guardia-gu-neak atzeman genituen; erabat suntsituak zeuden biak ere, hormen aztarna eta haien zoladuraren zati bat baino ez baitzen ageri. Bi kasuetan landu gabeko harriz eta kareharri landu grisez eginiko horma batek mugatzen ditu esparruak, oin angeluzuzeneko eremua definituz. Gehienez ere 30 cm-ko altxaera kontserbatu du, eta kasu batzuetan hormaren aztarna baino ez dugu erregistratu oinarritzen zen egituran. Esparruaren barnealdean zoladura bat aurkitu genuen, harri txikiz egina, harriak lurrarekin nahasiak, eta kareore ugari, maila berean eta trinko egokitua guztia.

Kanpoaldeko zubia

Harresiaren kanpoaldean, bigarren lubanarroa eta harresi errenazentistaren altuera handia igarotzeko, zubi bat dago, harrizko hormez egina, baina zutabeen

8 cm de ancho, discurriendo por toda la zona alta del muro. El paramento exterior en su parte baja presenta un zócalo que sobresale unos 10 cm de la línea de muralla. En el sondeo realizado en el foso exterior se localizó la zapata de la muralla.

En el espacio donde se situaría la segunda puerta de Santa María, sobre la muralla de San Felipe, se localizaron los puestos de guardia laterales; ambos se encontraban arrasados, apreciándose solamente la huella de los muros y parte de su pavimento. En ambos casos las estancias están delimitadas por un muro de mampostería y sillería de caliza grisácea, definiendo una estancia de planta rectangular. Se ha conservado un máximo 30 cm de alzado, registrándose en algunos casos únicamente la huella del muro en la estructura en la que apoyan. En el interior de la habitación se localizó un pavimento compuesto por piedras de pequeño tamaño, mezcladas con tierra y gran cantidad de mortero dispuestas de forma nivelada y compacta.

El puente exterior

En el exterior de la muralla, para salvar el segundo foso y la gran altura de la muralla renacentista, existía un puente construido con muros de piedra



Santa Maria ate aurea. Uraskaren barnealdea.

Antepuerta de Santa María. Interior del aljibe.

gainean zurez egina izango zen hasieran. Kanpoaldeko zubia horma batek osatzen du, «U» itxurako oina du eta metro bateko zabalera batez beste, landu gabeko harriz egina da, kareharrizkoa, eta kanpoko aldeetan igeltsuztatua. Haren Iparraldeko paramentuan lantzerka eraturiko irtengune bat erregistratu genuen, hareharriz landuz egina (zundaketaren hasieran bakarrik ikusi genuen hura, eta xehetasunak ezin izan genituen erregistratu segurtasun arrazoiengatik). Alboko hormen altxaera, 6 metrotik gorakoa, ez da zuzena, ezponda moduan okertua baizik. Kanpoaldeko guardia-gorputzean oinarritua du Hegoaldeko aurpegia.

Kanpoaldeko zubia ez zen harresiraino iristen, eta hutsarte bat zegoen jatorrian zubi altxakorra zegoen tokian. Hasieran zubi altxakorra egongo zen eremua, bi horma paralelok okupatzen zuten interbentzioa egin genuen uanean; landu gabeko kareharriz eginiko zubiaren lerroak eta ezponda berdinak zituzten horiek ere, eta berriro aprobetxaturiko harlandu batzuk ageri zituzten egitura nahasiak. Batez beste metro bateko zabalera zuten hormek, 3,80 metroko luzera eta 5,60 metroko altuera gehienez ere.

Betegarri bat zegoen bi horma horien arteko esparruan, lur marroi, eraikuntza hondakin ugari, kareore eta harriz osatua. Eremu horretan zundaketa bat egin genuen baliabide mekanikoen bidez sestratik behera -5 metrora iritsi arte, eta maila horretan bertan behera utzi genuen lan hori segurtasun arrazoiengatik. Betegarria ez zela kota horretan bukatzen egiaztatu genuen.

Kanpoaldeko banalerroa

Gure garaiko betegarriak kendu ondoren atzeman genuen kanpoaldeko banalerroaren maila, kolore gris iluneko pikor fineko hondarrez osatua, harri ugari eta eraikuntza material batzuekin nahasia. San Felipe harresiaren kanpoaldean eginiko zundaketa batean egiaztatu ahal izan genuen maila horrek harresiaren zimenduak estaltzen zituela, eta gainera, harri naturalean oinarritzen zela.

Guardia-gorputza

Kanpoaldeko guardia-gorputzarekin bat zetorrena izan zen induskatu genuen azken eremua. Esparru horren zati bat baino ez genuen induskatu obrak baldintzatu egiten zuelako gure lana. Barnealdean bi esparrutan banatua zegoen, E-M norabideko horma batek bereziak horiek. Egoera txarrean zegoen landu gabeko kareharri eta kareorez eginiko egitura hura; 4,5 metroko luzera, 1,30 metroko zabalera eta 0,90 metroko altxaera erregistratu genituen. Guardia-gorputzaren barnealdeko eremuak zuen betegarria buztin horiz osatua zen, lur apur bat, hondar eta eraikuntza hondakin ugarirekin nahasia, oso trinkoa zen.

Indusketa arkeologikoarekin batera kontrol arkeologikoa egin genuen inguruetan lurpetik azpiegitura batzuk bideratzeko egiten ari ziren obretan. Laburbil-

que inicialmente estaría fabricado en madera sobre pilares. El puente exterior está formado por un muro con planta con forma de «U» con una anchura media de 1 m, construido en mampostería de caliza enlucida en sus caras exteriores. En su paramento N se registró un saliente en bisel realizado en sillería de arenisca (únicamente visto en la apertura del sondeo, no siendo posible su registró en detalle por razones de seguridad). El alzado de los muros laterales, de más de 6 metros, no es recto estando ligeramente ataluzado. Por su cara S se apoya en el cuerpo de guardia exterior.

El puente exterior no llegaba hasta la muralla, existiendo un hueco donde en origen se situaba un puente levadizo. El espacio donde se situaría primitivamente el puente levadizo, en el momento de la intervención estaba ocupado por dos muros paralelos y con la misma alineación y talud que los del puente construidos en mampostería de caliza, presentando mezclados en su fábrica algunos sillares reaprovechados. Los muros tenían una anchura media de 1 m, una longitud de 3'80 m y una altura máxima registrada de 5'60 m.

El espacio existente entre ambos muros estaba relleno por un depósito compuesto por tierra marrón, gran cantidad de escombros, mortero y piedras. En esta área se ejecutó un sondeo mecánico hasta alcanzar los -5 metros desde la rasante, abandonándose a esta altura por razones de seguridad, comprobándose que el relleno no finalizaba a esta cota.

El foso exterior

Tras la eliminación de los rellenos contemporáneos se localizó el nivel de foso exterior compuesto por arenas de grano fino de color gris oscuro, mezcladas con gran cantidad de piedras y algo de material de construcción. En un sondeo realizado en el exterior de la muralla de San Felipe se pudo comprobar que este nivel, además de cubrir la cimentación de la muralla apoyaba sobre la roca natural.

El cuerpo de guardia

La última área excavada fue aquella que correspondía con el cuerpo de guardia exterior, excavándose parcialmente debido a los condicionantes de la obra. En su interior estaba compartimentado en dos espacios delimitados por un muro de recorrido E-W. Esta estructura realizada en mampostería de caliza aparejada con mortero, se conservaba en mal estado, registrándose una longitud de 4'5 m, una anchura máxima de 1'30 m y un alzado de 0'90 m. El área interior del cuerpo de guardia estaba relleno por un depósito compuesto por arcilla amarilla, mezclada con algo de tierra, arena y gran cantidad de escombros, poco compacto.

Paralelamente a la excavación arqueológica se llevó a cabo un control en las obras de soterramiento de infraestructuras que se estaban llevando a cabo en

duta esan daiteke eraikin baten eraikuntza hondakinak aurkitu genituela, marea-erota zahar baten hondakinak eta haren inguruan eginiko ehorzketa multzo bat ziren. 15 gizakiren hezur hondakinak atera genituen hobitik, XVIII. mendea baino lehenagokoak izango ziren seguru asko.

Zundaketa honen mendebaldean interes handiko beste egitura batzuk ere bereizi ahal izan ditugu, eta bereziki, bi eraikinen horma perimetralen eta ermitaren aurrealdean dagoen egungo plataformaren artean, – eliz atari funtzioa betetzen du plataforma horrek –, dagoen espazioa ireki ondoren. Alde honetan egiaztatu dugu zementuz gotortutako plataforma hori horma txiki baten gainean zegoela, horma xumea zen, landu gabeko harriz egina, eta aurreko beste eraikuntza batzuetako harlandu batzuk aprobetxatu zirela nabari du. Egiturari erreparatzen badiogu, egungo ermitaren garai berean eraiki zutela ematen du, argazki zaharretako batzuetan ikus daitekeen bezala. Horma hori galtzadaren trazatu zaharraren gainean egokitua zegoen zuzenean; jatorrian galtzada horrek iparralderantz bira handia egiten zuen leku honetan, bertan zeuden malda handia eta eraikin desberdinak hobeto gainditu ahal izateko. Lehen ermita eraitsi eta ermita berria beste kokaleku batean eraiki zenean, 1893 urte inguruan, aldaketa handia jasan behar izan zuen tunelaren espazioaren barne antolamenduak. Hala bada, aldatu egingo zen galtzadaren trazatu zaharra eta oraingoan norabide zuzenagoa hartuko zuen jatorrian zuen sigisaga norabidearen aurrean. Era berean, kondenaturik geratuko zen lauzaz estalita zegoen kanalizazio zahar bat; itxura guztien arabera, estalkitik erortzen ziren urak uraska txiki antzeko batean jasoko ziren, baina haren kokalekua ezin izan da zehaztu estolda hura egungo ermita atariaren azpitik luzatzen zelako, baina xvi. mendearen amaieran eginiko planoan ageri denarekin bat etorriko da seguru asko. Hasieran estolda horrek ekialde-mendebalde norabidea zuen mikeleteen etxeko horma-ataleraino, eta ondoren hegoalderantz hartzen zuen etxe hori inguratuz, eta egungo galtzadaren azpitik jarraitzen zuen tunelera sartzeko atearen norabidean eta hartatik husten zituen urak.

Eremu honetan azalera egin genituen garbiketa lanek aukera eman digute, gainera, jatorrizko ermitaren, hauxe da, 1893. urtean eraitsi zutenaren kokalekua zehazteko, gutxi gora-behera egongo zen lekua bai behintzat. Tunelaren hegoaldeko hormari atxikia zegoen eraikuntza hori (egungoa iparraldean dago), eta eremuan oraindik ageri dira haren aztarna batzuk (ebakitze arrastoak arrokan, kareore hondakinak edo igeltsuztatzeak). Garbiketa lan horri esker, eraikuntza horren zokaloa aurkitu dugu, halako bloke batzuk zi-

De esta manera en este año la actuación fundamental ha consistido en la realización de un amplio sondeo en el extremo occidental del sector. A resultas de ello se ha podido completar la planta de ambos edificios, así como documentar diferentes aspectos constructivos relacionados con los mismos: un nuevo vano de acceso a la primitiva venta con sus jambas de sillería muy similar al documentado el año anterior; un muro paralelo al medianil principal que separa ambas edificaciones y adherido por la cara interior de la antigua casa de miqueletes y que resulta ser una continuación del descrito en 2008 (relacionado muy seguramente con la fase de reconstrucción de esta última casa a fines del xix o principios de la siguiente centuria?).

En la parte occidental de este sondeo se han podido identificar otras estructuras de gran interés, y en especial tras la apertura del espacio existente entre los muros perimetrales de ambos edificios y la actual plataforma situada en la parte delantera de la ermita que hace las veces de atrio. En esa zona se ha comprobado como esa plataforma cementada se encontraba dispuesta sobre un pequeño muro de sencilla factura ejecutado en mampostería y que reaprovechaba algunos sillares de otras construcciones precedentes, y que por su factura parece ser coetáneo a la construcción de la actual ermita, tal y como se aprecia en algunas de las fotografías antiguas. Este muro se disponía directamente sobre el antiguo trazado de la calzada que en ese punto realizaba en su origen un amplio giro en dirección norte con el fin de salvar mejor la pendiente y los distintos edificios allí existentes. El derribo de la primitiva ermita y la construcción de la nueva en un emplazamiento distinto en torno a 1893 supusieron un cambio importante de la ordenación interior del espacio del túnel. Así, se alterará el antiguo trazado de la calzada tomando una dirección más rectilínea frente a la zigzagante dirección primitiva. Asimismo, quedará condenada una antigua canalización cubierta por losas que al parecer estaba destinada a recoger las aguas que caían de la cubierta en una especie de pequeño aljibe, y cuya ubicación no se ha podido determinar debido a prolongarse esa atarjea por debajo del actual atrio de la ermita pero que muy presumiblemente viene a coincidir con la representada en el plano levantado a finales del xvi. Esta atarjea presentaba inicialmente una dirección este-oeste hasta el lienzo del muro de la casa de miqueletes tras lo cual rolaba hacia el sur rodeando la misma para proseguir bajo la actual calzada en dirección al vano de acceso al túnel por donde desagüaba.

Los trabajos de limpieza superficial emprendidos en la zona nos han permitido además delimitar, o al menos definir bastante aproximadamente, el emplazamiento de la ermita original, la derribada en 1893. Esta edificación estaba ubicada adherida a la pared meridional del túnel (la actual lo está al norte) y aún en la zona se aprecian ciertos indicios de la misma (huellas de recortes en la roca, restos de argamasas y enlucidos). Esa limpieza ha permitido identificar el zócalo de esa construcción conformado por la alineación



Ezk. Zundaketaren mendebaldeko perfilaren ebaki estratigrafikoa ermitaren atzean; bertan guztiz ondo ikusten da Goi Erdi Aroko kronologiako erretze egitura. / Esk. Lehorrean elkarturiko bloke lerroak osatutako egituraren zolarria eta zokaloa eta zutoin zulo bat ezkerreko muturrean; Antzin Aro Berantiarreko edo Goi Erdi Aroko bizileku egitura batekoak.

Izda. Corte estratigráfico del perfil occidental de sondeo tras la ermita donde se aprecia a la perfección la estructura de combustión de cronología altomedieval. / Dcha. Solera y zócalo de la estructura conformada por una alineación de bloques en seco y un agujero de poste en el extremo izquierdo pertenecientes a una estructura de habitación tardo-antigua o altomedieval.

ren, eskuairan jarriak, baina haren ezaugarriak eta neurri espezifikokoak oraindik ezin ditugu ziur adierazi, eta eraikin honen inguruan dauden testigantza grafiko urriekin konformatu beharko dugu momentuz.

Sektore honetan bideratutako lan arkeologikoak osatzeko, bentaren mendebaldeko hormaren eta tunelaren iparraldeko hormaren artean zegoen elkargune eremuan neurri txikiagoko zundaketa estratigrafikoa egin genuen, eraikin horren eta, oro har, aztarnategi osoaren sekuentzia estratigrafikoa bereizi ahal izateko. Oraingo honetan, emaitza ikusgarriak izan da aipaturiko eraikin horren zimenduen azpian, haietatik metro inguruko sakoneran, okupazio maila sendo bat aurkitu izana. Maila horretan, aipatzekoa da, halako zeramika zati batzuk agertu direla, 2. Interbentzio eremuan aurkitutakoen antzekoak osoa. Itxura guztien arabera, Brontze Arokoak dira hondakin horiek. Aurkikuntza horrek esan nahi du garai hartako finkamendu maila sendo bat dagoela Tunelaren barnean, ia ukitu gabe egongo da maila hori eta tunelaren gehiengoa barrena zabalduko da. Aipaturiko bi eraikin horiek eraiki zirenean (benta eta mikeleteen etxea gero), seguru asko suntsitu egingo zituzten 2. Eremuan dokumentaturiko okupazio maila berrienak (eta bereziki Antzin Aro Berantiarrekin edo Goi Erdi Aroarekin loturikoak), baina zundaturiko esparrua oso txikia denez ez digu honen inguruan ondorioz ateratzeko aukerarik ematen. Gehiago sakondu gabe, maila honetan ebaluazio fasea amaitutzat eman genuen depositu hori hobeto kontserbatu ahal izateko.

2. Interbentzio eremua

Egungo ermitaren atzealdean dago eremu hau, haren mendebaldeko fatxadaren aurka. Eremu honek 2008. urtean jadanik egin genuen lehen zundaketa estratigrafikoa (1,50x1,50 m), eta aurkikuntzen go-

de una serie de bloques escuadrados, aunque sus características y dimensiones específicas aún no pueden determinarse con certeza debiendo de conformarnos por el momento con los escasos testimonios gráficos existentes sobre ese edificio.

Los trabajos arqueológicos en este sector se completaron con la realización en la zona de intersección entre el muro oeste de la Venta y la pared norte del túnel de un sondeo estratigráfico de menores proporciones encaminado a determinar la secuencia estratigráfica de ese edificio y del conjunto del yacimiento en general. En esta ocasión el resultado más espectacular es la documentación bajo los cimientos de ese referido edificio, a un metro aproximadamente de profundidad de ellos, de un potente nivel de ocupación en el que destaca la aparición de una serie de cerámicas muy similares a las recuperadas en el Área de Intervención nº 2 y que parecen claramente asociadas a la Edad del Bronce. Este hecho evidencian la existencia de un potente nivel de asentamiento de esta época en el interior del Túnel que se encuentra prácticamente intacto y se extiende por una buena parte del mismo. La construcción de los señalados edificios (venta y casa de miqueletes posteriormente) parece que provocaron muy presumiblemente el arrasamiento de los niveles de ocupación más recientes documentados en el Área nº 2 (y en especial los asociados a las épocas tardoantigua o altomedieval), aunque lo reducido del espacio sondeado no permite conclusiones al respecto. La fase evaluatoria concluyó en este nivel sin profundizar mas para poder preservar mejor ese depósito.

Área de intervención n.º 2

Este área está situada en la parte trasera de la actual ermita, contra su fachada oeste, y donde ya el año 2008 se realizó un primer sondeo estratigráfico (1,50x1,50 m) que por las circunstancias de los hallaz-

rabeherengatik eta jarraitzeko aukerarik ez izateagatik zabaldu egin behar izan dugu Kanpaina honetan (1,50x2,90).

Aurreko kanpainen jadanik bereizitako sekuentzia estratigrafikoa berriro dokumentatu dugu, oso antzera gainera, baina esparrua zabaltzeak aukera eman digu espazio zehatz honen bilakaeraren, eta oro har, tune-laren inguruan datu erabat berriak jasotzeko. Hala bada, azalera betegarriek, arkeologiaren ikuspegitik begiratuta antzuak, osatzen zituzten 1,70 metroak kendu ondoren iritsi ahal izan gara lehen okupazio maila garbira. Maila horrek ikatz geruza uniforme ageri zuen eta beste geruza bat guztiz gorrituriko lur-rek osatua; hainbat material higikor agertu ziren maila horietan (fauna, burdinazko zati bat formarik gabea, igeltsu hondakinak, zeramikazko zati ugari, ore fin eta gorrixkakoa). Mendebaldeko amilburua garbitu genuenean, ustekabeen haren zati bat erori egin baitzen, eta horri esker, erretzeko egitura guztiz interesgarria dokumentatu ahal izan genuen, azpil itxurakoa zen, eta barrua erabat betea zuen harrizko klasto txiki eta lur gorrituz. Haren kanpoaldeko inguruaren zati bat jadanik dokumentatu genuen 2008ko Kanpainen. Jadanik ditugun datuak baieztatuko dituen erradio-karbono bidezko datazio berria egiteko zain, eta jasotako zeramikak aztertu ondoren, Goi Erdi Aroko kronologiako maila baten aurrean gaudela ematen du (1065 ± 35 BP).

Maila honetatik aurrera oso ongi bereiz daitezkeen okupazio mailak ageri dira, baina horien kronologia zehaztea zaila da benetan kronologia horren berri izateko tresneria molderik ez dugulako. Hala bada, interesgarrietako bat izango da lehen aipaturiko Goi erdi Aroko maila horren justu azpian dagoena. Horren elementu garrantzitsuena da daukan kokalekua, ermitaren zimenduetatik oso hurbil baitago, I-H norabideko lerro garbiarekin; harrizko hainbat blokek osatua da eta zutoin baten zuloa ere ageri du. Itxura guztien arabera bizileku egitura baten zokaloa osatzen dute, etxola moduko izango zen, baina haren neurriak eta ezaugarri espezifikoak zehaztea oso zaila da dokumentaturiko azalera oso txikia delako. Egitura honekin loturik buztinezko hainbat geruza atzeman genituen, ikatz puska batzuk ere ageri zituen han eta hemen. Beste geruza batzuek, berriz, buztin horixkak zituzten, oso trinkoak, eta harri kosko txiki-txikiak. Hainbat zoru eratuko zituzten eta antzeko xedean eginiko lur moldaketak izango ziren. Zehaztaperen gehiago lortu arte (erradiokarbono bidezko datazioak eta material higikor eza), maila honek, edo maila multzo honek, eta mugatzen dituen egiturak Antzin Aro Berantiarreko edo Goi Erdi Aroko kronologia izango dute, hori pentsarazten digu behintzat goiko betegarrien artean azaldu den kronologia horretako zeramika zatiren batek.

Elementu horiek guztiak kendu ondoren aukera izan genuen beste okupazio maila garbi bat bereizteko. Matrize buztintsua zuen lurrak, kolore gris iluna, leku batzuetan gorritua bazegoen ere, eta harekin loturik ikatz orban handi bat zegoen. Haren azpian beste bat ageri zen, guztiz ongi definitua, oraingoan kolo-

gos y la imposibilidad de poder darle continuidad hubo de ser ampliado esta presente Campaña (1,50x2,90).

La secuencia estratigráfica ya identificada en la campaña anterior se ha vuelto a documentar de una manera muy similar aunque la ampliación del espacio nos ha permitido recoger nuevos y muy novedosos datos sobre la evolución de este concreto espacio, y del túnel en general. Así, y una vez eliminados los 1,70 metros de rellenos superficiales y estériles desde el punto de vista arqueológico se ha podido alcanzar el primer nivel claro de ocupación. Este estaba definido por una capa uniforme de carbones y otra de tierra fuertemente rubificada a los cuales aparecen asociados diversos materiales muebles (fauna, un fragmento informe de hierro, restos de enlucido, numerosos fragmentos de cerámica de una pasta fina rojiza). La limpieza del cantil occidental, tras su parcial derrumbe fortuito, nos permitió documentar la presencia de una muy interesante estructura de combustión a modo de cubeta cuyo interior aparecía colmatado por pequeños clastos de piedra y tierra enrojecida, y que cuya orla exterior ya había sido parcialmente documentada en la Campaña de 2008. A falta de una nueva datación radio-carbónica que confirmen los datos ya disponibles, y una vez analizadas las cerámicas recogidas parece que nos encontramos ante un nivel de cronología relativa alto medieval (1065 ± 35 BP).

A partir de ese nivel se van sucediendo los niveles de ocupación perfectamente identificables aunque su adscripción cronológica resulta sumamente complicada por la falta de útiles-tipo con los que poder establecerla. Así, uno de los más interesantes será el dispuesto justo debajo del referido nivel alto medieval, y que como elemento más señalado presenta la disposición muy cerca de los cimientos de la ermita de una clara alineación en sentido N-S conformada por varios bloques pétreos y un agujero de poste que parecen conformar el zócalo de una estructura habitacional a modo de cabaña cuyas proporciones y características específicas resultan muy complicado de determinar por lo reducido de la superficie documentada. Asociada a esta estructura se documentaron varias capas de arcillas con pequeñas intrusiones de carbones y otras de arcillas amarillentas muy compactas y diminutos cascotes de piedra que al parecer conformaban una secuencia de suelos o reacondicionamientos del terreno con un fin similar. A falta de mayor concreción (dataciones radio-carbónicas y ausencia de materiales muebles) es muy posible que este nivel, o conjunto de niveles, y la estructura que los delimita que presenten una cronología tardo-antigua o altomedieval, lo cual se confirmaría por la presencia de algún fragmento aislado de cerámica de esta cronología entre los rellenos superiores.

La eliminación de todos esos elementos permitió determinar la aparición de otro claro nivel de ocupación compuesto por una tierra de matriz arcillosa de coloración gris oscura y enrojecida en algunos puntos, a la cual aparecía asociada una importante mancha de carbones. Por debajo del mismo aparece otro

re marroiko matrize buztintsua zuen lurrak, eta kareharri zati ugari zituen. Honen azpian, berriz, beste maila bat, desberdina, honek lur buztintsua zuen, grisaxka, eta iluntzen zihoan aurrera sakondu ahala. Deskribaturiko azken maila horrekin loturik hainbat fauna hondakin eta zeramika zati azaldu dira, hainbat ontzi ereduri zegozkienak horiek (lokarri bikoitzeko dekorazioa dute batzuek). Hainbat sukarrri puska ere azaldu dira, eta horien tipologiari erreparatzen badiogu kronologia berantiaragoko maila batekin lotuko genituzke, Brontze Aroaren amaieran, zehatzago adierazteko (3.340 ± 40 BP). Zoru bat osatzen zuten, horretan ez dago zalantzarik, inolako egiturarik ageri ez bada ere lehen aipatu ditugun gorabehera horien-gatik. 1. Eremuan jadanik dokumentaturikoarekin zuzenean lotuko genuke maila hori, tunelak izan zuen giza okupazioaren azken fasea izanik kasu honetan.

Dokumentaturiko azken maila kareharriek osatzen dute, kareharri txikiak eta erdi tamainakoak dira, oso lur harroarekin nahasiak. Lurra grisaxka da, eta bertan ezin izan dugu giza okupazioaren elementurik berreskuratu, itxura guztien arabera antzua baita jadanik. 2,15 metroko sakoneraraino luzatu genuen stratigrafian egin genuen ebakia ia aldaketarik gabe, baina puntu horretan bertan behera utzi behar izan genuen amilburuen ezeگونkortasunagatik, hainbat erortze izan baitziren.

5. Interbentzio eremua

Tuneleko ekialdeko itxituraren oinetan dagoen plataforma dago eremu hau, tuneletik kanpo jadanik. Eremu honetan eraikuntza zabor kopuru handiak zeuden, jatorrian arestian aipaturiko itxitura horren gainean zeuden eraikinen (ostatua eta mikeleteen etxea) hondakinak izango ziren nagusiki.

Azalerako deposituak kendu ondoren, zeramikazko zati ugari eta fauna hondakinak berreskuratu ahal izan genituen, argi eta garbi kronologia berriko eraikuntza izaerako beste hondakin batzuekin batera, aipaturiko eraikin horien garaikoak, hain zuzen ere (zaborte-gia?). Haiak erretiratu ondoren, bi horma bereizi ahal izan ditugu, paraleloan kokatuak horiek, eta maila desberdinetan egokituak aipaturiko Tuneleko itxiturari dagokionean. Nolanahi ere, aski kontserbazio egoera txarrean zeuden. Goikoak, hoberen kontserbatua zegoenak, oin angeluzuzeneko egitura moduko bat zela ematen zuen, itxitura hormari atxikia. Ageri dituen ezaugarriei erreparatzen badiegu, halako kontrahorma edo antzeko zerbait izango zen, baina haren kronologia ezezaguna da guretzat.

6. Interbentzio eremua

Zegama aldetik tunelerako sarbidea eratzen duen maldaren hasieran kokaturiko eusteko hormaren inguruan dago 6. eremua. Eremu honetan horma handi bat ikus daiteke, baina zati bat bakarrik kontserbatu du; 4 metro baino zertxobait gehiagoko altuera du eta ezponda txiki bat eratzen, batik bat I-H norabidea du,

perfectamente definido y compuesto esta vez de una matriz arcillosa de coloración marrón con abundantes fragmentos de calizas, y bajo ésta otro diferente de coloración arcillosa grisácea que se va oscureciendo conforme alcanza profundidad. A este último descrito nivel aparecen asociados varios fragmentos de fauna y cerámica correspondientes a distintos modelos de recipientes (algunos con decoración de doble cordón), así como varios fragmentos de sílex, los cuales tipológicamente pueden adscribirse ya a un nivel de cronología tardía, y más en concreto Bronce Final (3.340 ± 40 BP), conformando un claro suelo aunque no aparece estructura alguna por las circunstancias ya referidas con anterioridad. Un nivel que se asocia directamente con el ya documentado en el área nº 1, siendo en este caso la última fase de ocupación humana del túnel.

El último nivel documentado está formado por calizas de pequeño y mediano tamaño entremezcladas con una tierra muy suelta de coloración grisácea, y en el que no se han podido recuperar elementos de ocupación humana por lo que todo parece indicar que ya es estéril. El corte stratigráfico se profundizó hasta los 2,15 metros de profundidad sin apenas alteraciones, siendo necesario interrumpirlo por la inestabilidad de los cantiles que provocaron diferentes derrumbes.

Área de intervención n.º 5

Este área está situada en la plataforma ubicada a los pies del cierre oriental del túnel, fuera ya del mismo. La zona se caracterizaba por la presencia de un importante volumen de escombros procedente mayormente de las ruinas de los edificios situados originalmente sobre ese referido cierre (ostatu y casa de miqueletes).

La retirada de los depósitos superficiales ha permitido recuperar un importante volumen de fragmentos cerámicos y fauna junto a otros de carácter constructivo de cronología claramente reciente, coetáneos a los señalados edificios (¿basurero?). Su retirada ha permitido identificar la presencia de dos muros dispuestos en paralelo y escalonados a diferente nivel respecto al señalado cierre del Túnel y en un estado de conservación bastante deficiente. La superior y mejor conservada parece relacionarse con una especie de estructura de planta rectangular adosada al muro de cierre que por sus características parece corresponderse con una especie de contrafuerte o similar aunque su cronología resulta una incógnita.

Área de intervención n.º 6

El área 6 está situada en el entorno del muro de contención dispuesto al comienzo de la pendiente que da acceso al túnel desde la zona de Zegama. En la zona puede identificarse un gran muro, parcialmente conservado, de algo más de 4 metros de altura y de perfil ligeramente ataluzado dispuesto con una orienta-

eta haren gainean plataforma horizontal handi bat ageri da, horma honen eta harri naturalaren arteko espazioa betetzen. 2008. urteko kanpaina amaitu zenean, egindako lanen behin-behineko konklusioek pentsarazi ziguten sektore honetan halako egitura batzuk egongo zirela, seguru asko eremu honetako defentsa sarearekin loturikoak, eta zehatzago esateko, tunelaren barruan egokituriko gazteluarekin lotutakoak. Nolanahi ere, lan hipotesi bat baino ez zen, eta Kanpaina hau amaitzean bazterturik geratu da erabat.

Sektore honetan argitzeko geratu ziren alderdi asko zehazteko asmoz nabarmen zabaldu dugu lan eremua. Horri esker, eta azalerako landare estalkiak osatzen zuen geruza txikiaren (30 cm eskas) azpian agerian geratu da horma perimetral handi horren gailurra (80 cm-ko zabalera ez zen iristen), eta batik bat kalitate handiko zolarri bat. Kareharrizko lauzek osatzen zuten zoru hori, eta kanpoaldeko inguruan bloke handi batzuk zituen. Haren presentzia jadanik sumatua genuen aurretik lurraren ebakiaren profilean. Gorabehera horiek guztiak kontuan harturik, egiaztatu ahal izan genuen eremu honetatik igarotzen zen jatorrizko galtzadarekin loturik zegoela zolarri hori, leku horretan bira egin eta bihurgune handi bat eratzen zuen eremuak zuen malda handia errazago gainditzeko. Ikuspegi berri honetatik begiratuta, lehen deskribaturiko kanpoko horma horrek eusteko hormaren funtzioa izango zuen, zeukan ezpondari esker, gai baitzen goiko plataformak osatzen zuen betegarri handiari eusteko. Horrenbestez, ingeniari-tza obra handia izango zen eta material kopuru handiak erabiliko zituzten hura eraikitzeko (horietako batzuk Tunelaren barrutik aterak, han eta hemen ageri diren sukarrizati bakan batzuk erakusten duten bezala, tunelean in situ aurkitutakoak berdinduz).

2008. urtean galtzada bloke perimetral batzuk kendu ondoren, beste horma bat agerian geratu zen haren azpian. Horma horren ezaugarriak nahiz kokapena argi eta garbi bestelakoak ziren horma perimetralarenaren aldean, eta gainera, haren zimenduetatik desagertuak ziren gainean lehen aipaturiko galtzada osatzen zuen harrizko zoladura hori ezartzeko. Zein funtzio edo egiteko izango zuen ez dakigu, eta oraindik gutxiago bide multzoarekin izango zuen lotura (hainbat fase eraikuntza sistema berean?).

Tarte horretako galtzada garbitu eta berreskuratze ingurua berregokitzeko fasean, gainera, neurri handiko kanpoko horma horren errematea bereizi ahal izan genuen. Horma horrek erabat suntsitua zuen bere hegoaldeko muturra ia zimenduetaraino, geroago egin ziren galtzada eraberritzeko lanen ondorioz seguru asko. Zati horrek zirkuluerdi forma zuen, eta espazio nahikoa uzten zuen erremate horren eta mazelako eusteko hormaren muturraren (eraitsia eta aurreten bertan berriro osorik eraikia) artean galtzada igarotzeko. Labur esateko, seguru asko, tunelera sartzeko malda handia gainditzeko (50 bat metroko desnibela oso zati txikian), Errege Bide zaharraren erago-

ción mayormente N-S, sobre el que se dispone una amplia plataforma horizontalizada que rellena el espacio entre ese muro y el afloramiento rocoso natural. Al finalizar la Campaña de 2008 las conclusiones provisionales de los trabajos nos hacían intuir la presencia en este sector de una serie de estructuras relacionadas posiblemente con el entramado defensivo de la zona, y en concreto del castillo habilitado en el interior del túnel. De todas formas no era si no una hipótesis de trabajo que a la finalización de esta presente Campaña ha quedado ya definitivamente desterrada.

Con el objetivo de aclarar muchos de los aspectos que quedaron pendientes en este sector se ha procedido a ampliar importantemente el área de trabajo. A resultas de ello, y bajo la escasa capa de cubierta vegetal superficial (escasamente 30 cm) se puso al descubierto la cimera de ese gran muro perimetral (con escasamente 80 cm de anchura) y sobre todo la presencia de una solera de gran calidad conformada por un empedrado de losas calizas delimitado en su perímetro exterior por una serie de bloques de gran volumen y cuya presencia ya se había constatado con anterioridad en el perfil del corte del terreno. Teniendo en cuenta estas circunstancias se pudo determinar que la solera en cuestión estaba realmente relacionada con la primitiva calzada que discurría por la zona y que en ese punto presentaba un gran quiebro o curva con el que salvar el fuerte desnivel que presentaba la zona. Desde esta nueva perspectiva el anteriormente descrito muro exterior tendría la función propia de muro de contención que gracias a su alambor estaba en capacidad de soportar el importante relleno que conformaba la plataforma superior, suponiendo por tanto una importante obra de ingeniería que hubo de emplear un importante volumen de materiales para su ejecución (parte de los cuales extraído del interior del Túnel como denota la presencia de algunos fragmentos aislados de sílex idénticos a los recogidos allí in situ).

La retirada de algunos de los bloques perimetrales de esa calzada en el año 2008 dejó al descubierto bajo ella la presencia de un nuevo muro cuyas características formales y disposición lo diferenciaban claramente del perimetral, y que cuya cimera además se encontraba arrasada con el fin de habilitar sobre ella el referido empedrado de la calzada. Su función específica resulta una incógnita, y menos aún su relación con el conjunto viario (¿fases distintas de un mismo sistema constructivo?).

En la fase de reacondicionamiento del entorno para la limpieza y recuperación de la calzada de ese tramo se pudo determinar además el remate de ese muro exterior de grandes proporciones. Un muro que presentaba su extremo meridional completamente arrasado hasta casi sus cimientos, fruto muy presumiblemente de posteriores remodelaciones del trazado de la calzada. Ese extremo presentaba una forma semicircular que dejaba el suficiente espacio para el discurrir de la calzada entre ese remate y el extremo del muro de contención de la ladera (derruido y reconstruido completamente este presente año). En resumen, la plataforma no era si no una parte del complejo sistema



Galtzadako zoladuraren ikuspegi zenitala, zegoen malda handia gainditzeko galtzada horrek bihurgune handia zuen lekuan.

Vista cenital del pavimento de la calzada en la zona donde la misma realiza el acusado quiebro para salvar la pendiente.

zpen nagusia izango zena, garai hartako bide ingeniariak pentsatutako sistema konplexuaren zati bat baino ez zen plataforma. Sistema horren trazatuak bihurgune edo sigi-saga handiak zituen, baina gaur egun ia erabat desagertua da, eta guztiz bat etorriko zen 1576. urtean egindako eremua grabatzeko lanarekin. Oso zaila da jakitea sistema konplexu horren kronologia globala zein den, baina goiko betegarrian Aro Modernoko txanponen bat agertu izanak (xvii. mendearen bigarren erdialdea-xviii. mendearen lehen erdialdea), egitura konplexu hau abandonatu zuteneko unea zehazten digu nolabait ere; gero beste bat erai-

ideado por los ingenieros de caminos de la época para salvar el que muy seguramente será el principal obstáculo del antiguo Camino Real, la fuerte pendiente de acceso al túnel (unos 50 m de desnivel en un tramo muy breve). Un sistema que presentaba una trazado con fuertes curvas o zigzag que en la actualidad se encuentran casi totalmente desaparecido, y que coincidirían plenamente con el grabado de la zona efectuado en 1567. La cronología global de este complejo sistema resulta muy complicada de determinar, aunque la presencia de alguna moneda de época moderna (segunda mitad del xvii-primera del xviii) en el relleno supe-

kiko zuten haren lekuan, baina oraingoak askoz ere trazatu zuzenagoa zuen, eta gureganaino iritsi den azken trazarekin loturik egongo litzateke (bloke handiak erretzetan eta neurri txikiagoko harkoskoak barnealdean), hauxe izanik jendeak gehien ezagutzen duena.

7. Interbentzio eremua

Eusteko hormaren (ekialdean) eta tunela ixten zutenaren (mendebaldean) artean zegoen maldan egokituriko egitura multzoari dagokio eremu hau. Oraingo honetan munta txikiak izan dira eremuan egin diren lanak, 6. eremuan egindakoen osagarriak nolabait esateko.

Gure lana izan da egitura horien hormen zati batzuk garbitzea, haien artean zegoen sekuentzia estratigrafikoa eta eremuan zeuden beste egitura batzuk zehazteko. Lan horri esker, bi leku desberdinetan argi eta garbi egiaztatu ahal izan ditugu aurreko sektorean jadanik deskribaturiko galtzadaren zati bana, baina bietan ere oso gaizki kontserbatua dago. Datu horiek erabat baieztatu besterik ez zuten egiten garai hartan ingeniariak lan bikaina egin zutela zati honetan zegoen malda handia gainditu ahal izateko. Trazatu horren zati batzuetan aprobetxatu zituzten jatorrizko gotorlekuarekin loturiko egitura batzuk, eta haien gainean jarri zituzten galtzada horren eusteko hormetako batzuk, horma horiek jada inolako funtziorik ez zutelako.

Galtzada berreskuratze lanen kontrol arkeologikoa

Tunelean eta haren inguruetan lan arkeologikoak egiten genituen bitartean, San Adriango galtzada zaharreko zati garrantzitsu bat berreskuratu eta sendotzeko lanen kontrol arkeologikoa egin dugu halaber, tunel edo igarobidetik hurbilen dagoen sektorean zehatzago adierazteko, haren ekialdean (Zegama aldera).

Egindako lanek aukera eman dute igarobide tradizional honetatik erabiltzaileen pasabide baldintzak nabarmen hobetzeko, eta osagarri gisa, galtzada eta haren hormak, hamarka urte erabat abandonaturik egon ondoren, jasaten ari ziren ondare hondamen azkarra geldiarazteko. I-H norabidean eta sartzeko arrapalaren oinetan beretan (II. Sektorea) kokaturiko eusteko horma handiaren inguruan bideratu dira lan handiak, eta baita azken arrapalaren aurrean ere 150 metroko zati batean (III. Sektorea). Lehen kasuan, bidetako eusteko horma zaharraren trazatuaren zati handi bat berreraiki dute bere forma biribildu bereziarekin eta mazelaren aurrealdean finkatu dute, oso higatua eta hondatua baitzegoen. III. Sektorean, jatorrian galtzada hori mugatzen zuen ixteko horma zaharraren trazatuaren zati handi bat berreraiki behar izan zuten,

rior nos viene a marcar en cierto modo el momento de abandono de esta compleja estructura; siendo sustituido por un nuevo trazado mucho más rectilíneo y que se encuentra relacionado con la última traza que ha llegado hasta nosotros (grandes bloques en los extremos y cascajo menor en el interior) y que es la popularmente más conocida.

Área de intervención n.º 7

Este área se corresponde con la serie de estructuras dispuestas en la pendiente entre el muro de contención (al E) y el de cierre del túnel (al O). En esta ocasión los trabajos desarrollados en la zona han sido de índole menor, y en cierto modo complementarios de los realizados en el área n.º 6.

Los trabajos se han limitado a la limpieza parcial de sus muros con el fin de determinar la secuencia estratigráfica existente entre ellos y otras estructuras dispuestas en la zona. A resultas de ello se ha podido comprobar claramente en dos puntos diferentes sendos tramos de la calzada ya descrita en el sector anterior, y en ambos casos en un muy deficiente estado de conservación. Estos datos no venían si no a confirmar de una manera determinante la importancia de la obra de ingeniería realizada en la época para salvar la acusada pendiente de este tramo. Un trazado para el que se aprovecharon en parte algunas de las estructuras relacionadas con la primitiva fortaleza, disponiendo sobre ellas parte de los muros de contención de esa calzada al carecer ya de función alguna los mismos.

Control arqueológico de las labores de recuperación de la calzada

De un modo paralelo a las labores propiamente arqueológicas desarrolladas en el túnel y sus inmediaciones se ha procedido a efectuar un control arqueológico de los trabajos de recuperación y consolidación de un tramo importante del trazado de la antigua calzada de San Adrian, y más en concreto el sector más cercano al túnel o paso por su vertiente oriental (hacia Zegama).

Las labores efectuadas han permitido mejorar sensiblemente las condiciones de paso de los usuarios por este paso tradicional, y de un modo complementario salvaguardar el acelerado deterioro patrimonial que la calzada y sus muros estaba experimentando tras decenas de años de total abandono. Los trabajos más destacados se han desarrollado en el entorno del gran muro de contención dispuesto con una orientación N-S al pie mismo de la rampa de acceso (Sector II) y en el tramo de unos 150 metros que antecedía a la última rampa (Sector III). En el primero de los casos se ha procedido a reconstruir en buena parte de su volumen el trazado del antiguo muro de contención del camino con su peculiar forma redondeada y asentar el frente de la ladera fuertemente erosionado y descarnado. En el Sector III

gotorlekuko ustezko itxitura izango zen horma hura (1,30-1,50 metroko zabalera zuen batez beste eta tamaina handiko blokeak zituen izkinetan eta harkosko txikiez osaturiko betegarria barruan). Inolako mantentze lanik egin ez zutenez eta ur korronteez egin zuten suntsitze lanaren ondorioz jada desagertuak ziren haren zati handi batzuk).

hubo de reconstruirse buena parte del trazado del antiguo muro de cierre que delimitaba originalmente esa calzada y que hacía las veces de supuesto cierre de la fortaleza (con una anchura media de 1,30-1,50 metros y conformado por bloques de gran tamaño en los esquinales y relleno de cascajo menor en su interior) y que como fruto de la falta de mantenimiento y la acción destructiva de las corrientes de agua había desaparecido en amplios tramos.

A. Moraza Barea

C.27. PASAIA

C.27.1. Alabortza senaia (Bursa kala)

Zuzendaritza: Ana M^a Benito Dominguez
Diru-laguntza emaila: Gipuzkoako
Foru Aldundia


C.27.1. Ensenada de Alabortza (Cala Bursa)

Dirección: Ana M^a Benito Domínguez
Subvención: Diputación Foral de
Gipuzkoa

The prospecting enabled us to identify port structures dating from the 18th century.

Iraileko ekinozio egunetan itsasbehera bizia izan zen bitartean (BMVE), kalan zeuden kaien zimenduak miatu genituen, eta horri esker, bereizi ahal izan geni-

Durante la baja mar viva equinoccial de septiembre (BMVE), se han prospectado los cimientos de los muelles existentes en la cala, permitiendo reconocer



Lorenzo de Solis ingeniariak 1752an Kala Burtzarako egindako proiektuaren planoak (Iturria: AGS: MPD,VII,150).

Plano del proyecto del ingeniero Lorenzo de Solís de 1752 para Cala Bursa (Fuente: AGS: MPD,VII,150).

tuen hormetako harlanduak eta haien zimenduak, eta baita harri amaren hustea ere. Bi kai egitura egiaztatu ditugu: bata eusteko horma bat zen, zirkuluerdi formakoa, eta kaia bera, luzerako trazatua zuena. Lehenengoari dagokionean, huraxe zen zaharrena eta gutxien ikusten zena, 1751 eta 1752 artean diseinatu zuten Lorenzo de Solís Ingeniari buruak, eta horrekin batean antzeko obra proposatu zen Kondemasti, Ondartxo, kalarako, 265.970 erreal beiloitan. Obra horien helburua zen eusteko horma handiak altxatzea, Jaizkibelgo mendi mazelatik erortzen ziren materialak eta errekek ekartzen zuten lokatza portura ez iristeko. Santiago Mendiola Donostiako maisu harginari esleitu zitzaizkion obrak, eta honek 10 hilabetetan gauzatzeko konpromisoa hartu zuen (AGS: Marina, leg. 288). Alkabala zeritzan zergarekin, *ancoragearekin* eta Compañía de Caracas zelakoaren ekarpenarekin ordaintzen ziren eraikuntza horiek eta portuko hondarpeen garbiketa lana.

el trabajo de sillería de los muros así como los cimientos y el vaciado de la roca madre. Se han reconocido dos estructuras portuarias: una consistente en un muro de contención, de forma semicircular, y, un muelle propiamente dicho, de trazado longitudinal. En cuanto al primero, el más antiguo y menos visible, fue diseñado entre 1751 y 1752 por el Ingeniero en jefe Lorenzo de Solís, a la vez que se proponía una obra similar para la cala Condemasti, Ondartxo, por un importe de 265.970 reales de vellón. El objetivo de estas obras era levantar grandes paredes de contención con altura superior al nivel de las pleamares vivas, para evitar la llegada al puerto de los derrumbes de la ladera de Jaizkibel así como del barro arrastrado por los arroyos. Las obras fueron adjudicadas al maestro cantero de Donostia, Santiago de Mendiola, que se comprometía a llevarla a cabo en 10 meses (AGS: Marina, leg. 288). Estas construcciones junto con la limpieza de los bancos de arena del puerto, eran costeadas con las alcabalas, el *ancorage* así como con aportación de la Compañía de Caracas.

A.M. Benito Domínguez

C.28. TOLOSA

C.28.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.28.1.1. **Aroztegieta, 4**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantzazioa: Erretengibel, S.L.

C.28.1.1. **Arostegieta, 4**

Dirección: Ander Arrese
Financiación: Erretengibel, S.L.

In this site, located between Aroztegieta and Rondilla Streets, on the western limit of Tolosa's historical quarter, the foundation work corresponding to the restoration of the residential building Aroztegieta 4 was carried out, prior to which we conducted an archaeological intervention.

Aroztegieta eta Rondilla kaleen artean dagoen orube honetan, Tolosako hirigune historikoko mendealdeko muga, Aroztegieta kaleko 4. zenbakiko egoitza eraikina eraberritzeko zimentazio lanak egin dira, eta interbentzio arkeologikoa egin genuen horien aurretik.

Bi fasetan bideratu genuen indusketa lana; lehenengoan bitariko metodologia erabili genuen, eta hainbat egitura atzeman genituen obrako makineriak lagunduta. Une horretatik aurrera eskuz jarraitu genuen lanean, eta gutxienez bi horma erregistratu genituen elkarren artean perpendikularrak. Betegarrietan material arkeologikorik ez egoteak eta sumaturiko erlazio stratigrafikoek ez digute Erdi Aroko kronologia-

En este solar situado entre las calles Aroztegieta y Rondilla, en el límite occidental del casco histórico de Tolosa, se han realizado los trabajos de cimentación correspondientes a la rehabilitación del edificio residencial Aroztegieta 4, previo a los cuales realizamos una intervención arqueológica.

La excavación se llevó a cabo en dos fases; la primera se realizó mediante metodología mixta, donde asistidos por maquinaria de obra detectamos varias estructuras. A partir de este momento los trabajos prosiguieron de forma manual registrando al menos dos muros perpendiculares entre sí. La ausencia de materiales arqueológicos en los rellenos y las relaciones estratigráficas, no sugieren un origen medieval de

rik iradokitzen, modernoa baizik, baina egungo eraiki-naren fatxada eta alboetako zimenduak egin aurrekoa beti ere.

estas estructuras sino más bien moderno, aunque anterior a la conformación de la fachada y cimentaciones laterales del edificio actual.

A. Arrese

C.28.1.2. **Oria Erdiko Intertzeptorea. Benta Handi-Tolosa**

Zuzendaritza: Pía Alkain Sorondo
Finantzazioa: URA, Uraren Euskal Agentzia

C.28.1.2. **Interceptor del Oria Medio. Benta Aundi-Tolosa**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: URA, Agencia Vasca del Agua

The archaeological monitoring work of the interceptor route in the area affecting the historic quarter of the town of Tolosa revealed a washing fountain located at the northern end of Rondilla Street. In the other areas monitored, only contemporary anthropic levels were found, along with natural sediments which were of no archaeological interest.

Tolosako hirigune historikotik igarotzen zen eremuan intertzeptorea jartzeko obretan egin genuen kontrol arkeologikoak aukera eman zigun Rondilla kalearen iparraldeko muturrean iturri ikuztegia aurkitzeko; hormigoizko armadura baten azpian lurperatua zegoen instalazio hori.

Egitura zirkuluerdi formakoa zen, kareharrizko bloke eta lauzaz egina zen eta hainbat elementuz osatua zegoen. Iturrirako sarreran mantendu egin zen kareharrizko lauzaz eginiko eskaileraren zati bat; arbelezko harlanduzko eskantzuek errematatzen zuten sarrera hori. Haren bi aldeetan eserleku jarraitua ageri zen, kareharrizko blokeez egina. Ikuztegiak lauzaz eginiko zoladura zuen, eta hustubide kuadrangeluarra erdialdean.

Iturria bera kareharrizko bloke desberdinez egina zen, bloke horiek guztiak landuak, eta bi gorputzetan banatzen zen. Iturriko goiko aldearen zati bat suntsitua zegoen, egitura osoa estaltzen zuen hormigoizko zolarria eraiki izanagatik. Beheko gorputzetik metalezko hiru tutu irteten ziren, sekzio zirkularrekoak. Zoru arrasean zirkuluerdi formako hustubidea zuen, hiru atal desberdinekin, iturriaren hustubidea zegoen erdialdekoan. Atzealdean zuen hoditeria batetik jasotzen zuen ura iturriak.

Las Damas etxeko iturri ikuztegia zen iturri hau. Rondilla kaleko iparraldeko muturrean zegoen instalazio hau eta kontsultaturiko dokumentazioaren arabera, 1806. urte inguruan eraiki zuten.

Bestalde, San Frantzisko Komentuaren inguruetan eginiko obren kontrolean Aro Garaikideko maila antropikoak eta arkeologiaren ikuspegitik begiratuta antzuak ziren sedimentu naturalak agertu ziren.

El control arqueológico de las obras del interceptor a su paso por el casco histórico de Tolosa permitió el registro en el extremo norte de la calle Rondilla de una fuente lavadero; instalación que se encontraba enterrada bajo una armadura de hormigón.

La estructura, de forma semicircular, estaba realizada con bloques y losas de caliza, estando compuesta por distintos elementos. La fuente presentaba un acceso que mantenía parte de las escaleras realizadas con losas de caliza; acceso rematado con esquinales de sillería de pizarra. A ambos lados del éste, se registraba un asiento corrido realizado con bloques de caliza. El lavadero presentaba un pavimento de losas y, en su zona central se registró un desagüe cuadrangular.

La fuente, propiamente dicha, estaba fabricada con distintos bloques calizos, encontrándose todos ellos labrados, dividiéndose en dos cuerpos. La parte superior de la fuente se encontraba parcialmente arrasada, por la construcción de la solera de hormigón que cubría toda la estructura. Del cuerpo inferior salían tres caños metálicos de sección circular. A ras del suelo presentaba un aliviadero semicircular con tres compartimentos diferenciados, en el central se localizaba el desagüe de la fuente. La fuente recibía el agua desde una tubería que se encontraba en su parte trasera.

Esta fuente se identifica con la fuente lavadero de la casa de *Las Damas*, instalación que se situaba en el extremo norte de la calle Rondilla y que según la documentación consultada fue construida entorno al año 1806.

Por otro lado, el control de las obras realizadas en las inmediaciones del Convento de San Francisco, se saldó con la aparición de niveles antrópicos contemporáneos y sedimentos naturales estériles desde un punto de interés arqueológico.

Z. Galan; P. Alkain

C.28.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.28.2.1. **Altzusta Erdikoa baserria**

Zuzendaritza: Miren Garcia Dalmau
Finantzazioa: Ignacio Iraola Iñurríta;
Gipuzkoako Foru Aldundia

C.28.2.1. **Caserío Altzusta Erdikoa**

Dirección: Miren García Dalmau
Financiación: Ignacio Iraola Iñurríta;
Diputación Foral de Gipuzkoa

This intervention failed to produce any results of archaeological interest.

Orubearen zati handi batean bideraturiko interbentzio arkeologiko honetan ahitu dira zeinahi ikerketa berrirako aukerak. Emaitzek ez dute inolako interes historiko-arkeologiko berezirik eskaini.

Intervención desarrollada en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de una nueva investigación siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

M. Garcia Dalmau; J. Bucos Cabello

C.28.2.2. **Igarondoko errota**

Zuzendaritza: Pía Alkain Sorondo
Finantzazioa: URA, Uraren Euskal Agentzia

C.28.2.2. **Molino Igarondo**

Dirección: Pía Alkain Sorondo
Financiación: URA, Agencia Vasca del Agua

The archaeological monitoring process failed to reveal any element associated with the Igarondo mill-foundry. It is more than likely that the remains of the mill are located underneath the facilities of the old «La Tolosana» factory.

Prado Grande edo Zumardiaundi inguruan eginiko kontrol arkeologikoan, alpatzekoa da, ganga formako egitura bat agertu dela Zelai edo Elduaren ibaiaren hegoaldeko ezpondan, aparkalekuaren eremuan. Iparalde-hegoalde norabidea du gorputz eraikiak. 3 metro zabal eta 1,30 metro luze ditu egiturak, baina haren hondoa ezin izan dugu ikusi harrizko bloke handiez eta lurrez betea zegoelako. Kareharrizko hartxabalez egina da ganga, harriak kareore hidraulikoz elkartuak.

Urak husteko bideren bat izango zen egitura hori, baina kontrol arkeologikoan lortu dugun informazio urriak ez digu zehaztapen gehiago egiteko aukerarik ematen.

Parkearen gainerako eremuan oso xumea zen erregistratu genuen estratigrafía, hauxe da, Aro Garaikideko hainbat maila antropiko, eta arkeologiaren ikuspegitik begiratuta antzuak ziren deposituak haien azpian.

Igarondoko burdinola-errotari dagokionean, esan behar da, kontrol arkeologikoak ez digula aukerarik eman harekin loturiko elementurik erregistratzeko, haren hondakinak «La Tolosana» fabrika zaharraren instalazioen azpian egongo baitira seguru asko.

En el control arqueológico realizado en el entorno de Prado Grande o Zumardiaundi cabe destacar la aparición de una estructura abovedada en el talud sur del río Zelai o Elduaren, en la zona del parking. El cuerpo construido mantiene una dirección norte-sur. Esta estructura presenta unas dimensiones de 3 m de ancho y 1'30 m de largo y no se ha podido observar el fondo de la misma por hallarse colmatada por grandes bloques de piedra y tierra. La bóveda está realizada con lajas de caliza trabadas mediante mortero hidráulico.

Esta estructura se identifica con algún tipo de canal de desagüe, pero la escasa información obtenida durante el control arqueológico no permite una adscripción más precisa.

En el resto del área del parque, la estratigrafía que se pudo registrar fue muy sencilla, presentando niveles antrópicos contemporáneos y, bajo ellos, depósitos arqueológicamente estériles.

Respecto a la ferrería-molino de Igarondo decir que el control arqueológico no ha permitido el registro de ningún elemento asociado, siendo más que probable que los restos de la misma se sitúen bajo las instalaciones de la antigua fábrica «La Tolosana».

Z. Galan; P. Alkain

C.29. UNIÓN ENIRIO-ARALAR / ENIRIO-ARALAR ELKARTEA

C.29.1. Aralar mendialdea

Zuzendaritza: J. A. Mujika Alustiza
Diru-laguntza emaila: Gipuzkoako
Foru Aldundia

C.29.1. Sierra de Aralar

Dirección: J. A. Mujika Alustiza
Subvención: Diputación Foral de
Gipuzkoa

Prospecting continued in different zones of the Aralar Mountain Range, and a number of interventions were carried out in monoliths located in the Ondarre region and in shepherd structures in Pagabe. The results provided by the sondage carried out in the Ondarre haustarri, dating from the Bronze Age, are particularly interesting.

Aralar mendialdeko hainbat eremu miatzeko lanekin jarraitu dugu aurtten, eta ahaleginak egin ditugu halaber ikusitako elementu arkeologiko batzuen kronologia zehazteko. Horrenbestez, zundaketa gehiago egin ditugu Ondarre-Oidui-Intzensaro (IMko muturrean) sektorean, eta baita Pagabe eremuan ere (Erdialdean).

Ondarre harantxoan, Argarbi trikuharritik hurbil, aurreko kanpainetan hainbat zundaketa egin ziren haitze zabaleko finkamenduak aurkitzeko asmoz. Horetako batean hondakin neolitiko urri batzuk jaso ziren, baina egindako zundaketa berriek ez dituzte aurreko emaitzak egiaztatu.

Bestalde, beste lan ildo bati ekin diogu oraingoan, hauke da, eremu honetan dauden monolito batzuk aztertzen hasi gara. Hasiera batean *hausterretza*, *haustarri*, saraien erdiko mugarri edo harri zenital gisa hartuko ditugu horiek eta ez trikuharri gisa, Ondarre, Intzensaro eta Oidui (?) zehatz esateko.

Hausterratzetan eginiko zundaketen artean, Ondarrekoa azpimarratuko genuke, izen bereko harantxoan kokatua. Kareharrizko bloke bat da, harria bertikalean jarria, sekzio kuadrangeluarra du eta erdi tamainakoa da, 160 cm-ko altuera du, eta lurralde erreferente gisa erabili da tradizionalki. L. Zalduak adierazitakoaren arabera, bloke horrek hausterretza funtzioa zuela egiaztatua dago XIX. mendeko mapa batean. Izen bereko Saroikoa zen, eta XV. mendearen hasieran dokumentatua dago jadanik saroi hori.

Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako
Foru Aldundia

C.36.7. **Macizo de Aizkorri**

II Campaña de prospección
Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Subvención: Diputación Foral de
Gipuzkoa

During the 2nd season of archaeological prospecting in the Aizkorri massif, diverse de visu prospectations were carried out and the Pagarreta boundary stone was radiocarbon dated. The results indicate that the structure corresponds to a menhir dating from the Bronze Age.

Aizkorri mendigunean bideratu dugun miaketa arkeologikoetarako II. kanpainan, hainbat begi miaketa egin ditugu, eta erradiokarbono bidez datatu dugu Pagarretako mugaria. Datazio horren ondoren, egiaztatu dugu Brontze Aroko (K.a. XIV.-XII. mendeak) trikuharri bat dela egitura hori, orain arte datazio absolutuak dituen lehena, hain zuzen ere, Euskal Herrian.

En la II campaña de prospección arqueológica en el Macizo de Aizkorri, se han realizado diversas prospecciones de visu y se ha procedido a datar por radiocarbono el mojón de Pagarreta. Tras la datación se ha comprobado que esta estructura se corresponde con un menhir de la Edad de Bronce (siglos XIV-XII a.C.), el primero con dataciones absolutas hasta la fecha en el País Vasco peninsular.

X. Alberdi Lonbide

C.36.8. **Oria eta Urola ibaien haranak (Asteasu, Zarautz, Zumaia)**

Miaketaren XIII. eta XIV. Kanpainak
Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako
Foru Aldundia

C.36.8. **Valles del Oria y el Urola (Asteasu, Zarautz, Zumaia)**

XIII y XIV Campaña de prospección
Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Subvención: Diputación Foral de
Gipuzkoa

During the 13th and 14th seasons of archaeological prospecting in the Oria and Urola River Valleys (Zarautz, Zumaia, Asteasu), all results were negative.

Miaketa arkeologikorako XIII. eta XIV. kanpainak bideratu ditugu Oria eta Urola ibaien haranetan

En las XIII y XIV campañas de prospección arqueológica en los valles de los ríos Oria y Urola

(Zarautz, Zumaia, Asteasu), baina emaitza negatiboak izan ditugu Ardantza eta Arritokieta inguruetan.

(Zarautz, Zumaia, Asteasu), con resultado negativo en los entornos de Ardantza y Arritokieta.

X. Alberdi Lonbide; O. Artetxe Fernández

C.36.9. Oria ibaiaren Behe Arroa: Andatza, Garate, Belkoain, Zarate mendiak (Donostia)

Miaketaren VII. Kanpaina
Zuzendaritza: Manu Ceberio Rodriguez
Finantzazioa: Berak

C.36.9. Cuenca Baja del Oria: montes Andatza, Garate, Belkoain, Zarate (Donostia-San Sebastián)

VII Campaña de prospección
Dirección: Manu Ceberio Rodriguez
Financiación: Propia

In 2009, work focused on the summit of Olaiko Zar (Donostia), with no results of interest being found.

Berriro ere Donostiako Olaikozar gainera bildu dira 2009an lanak. Bi kata egin ditugu, baina emaitza negatiboak eskaini dizkigute.

Los trabajos de 2009 se han centrado nuevamente en la cima de Olaiko Zar (Donostia) y han consistido en la realización de dos catas, cuyos resultados han sido negativos.

M. Ceberio Rodriguez

C.36.10. Oria eta Urumea ibaien haranak (Hernani, Urnieta)

Miaketaren IX. eta X. Kanpainak
Zuzendaritza: Jesus Manuel Perez Centeno
Diru-laguntza emaila: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.36.10. Valles del Oria y el Urumea (Hernani, Urnieta)

IX y X Campaña de prospección
Dirección: Jesús Manuel Pérez Centeno
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

During the 9th and 10th seasons of archaeological prospecting in the Oria and Urumea River Valleys (Hernani-Urnieta), diverse prospections were carried out around grazing boundary stones. A large boundary stone was discovered in Antxistabekoa (Urnieta).

Oria eta Urumea ibaien haranetan (Hernani-Urnieta) bideratu ditugun miaketa arkeologikorako IX. eta X. kanpainetan hainbat miaketa egin ditugu saroiko mugarren inguruan, eta aipatzekoa da neurri handiko mugarri bat aurkitu dugula Antxistabekoa (Urnieta). Mugarri horrek 1,90 metroko altuera kontserbatu du, eta horietatik 1,40 metro lurpean daude. Zimenduen hobiaren hondoan berreskuratutako materia organiko urria bidali dugu aztertzerako, baina lagina ez zen aski C-14 AMS bidezko datazioa egiteko.

En la IX y X campañas de prospección arqueológica en los valles de los ríos Oria y Urumea (Hernani-Urnieta), se han realizado diversas prospecciones en torno a mojones de sel, destacando el hallazgo de un mojón de gran tamaño en Antxistabekoa (Urnieta). Este hito cuenta con una altura conservada de 1,90 m, de los cuales 1,40 m se encuentran soterrados. Se ha procedido al envío de la escasa materia orgánica recuperada en el fondo de la fosa de cimentación, pero la muestra era insuficiente para la datación por C-14 AMS.

J.M. Perez Centeno; X. Alberdi Lonbide

C.36.11. **Deba ibaiaren harana (Mutriku, Deba)**

Miaketaren II. eta III. Kanpainak
Zuzendaritza: Jesus Manuel Perez
Centeno
Diru-laguntza emaila: Gipuzkoako
Foru Aldundia

C.36.11. **Valle del Deba (Mutriku, Deba)**

II y III Campaña de prospección
Dirección: Jesús Manuel Pérez
Centeno
Subvención: Diputación Foral de
Gipuzkoa

During the 2nd and 3rd seasons of archaeological prospecting in the Deba Valley (Mutriku-Deba), diverse de visu prospecting were carried out in order to record and sample pitheads and slag heaps in the Deba Valley, in order to continue the work initiated in 2006-2007. Diverse slag heaps from the previous season were also analysed, with any possible association between the Haizeola slag heaps in the Torre farmhouse in Astigarribia and the pitheads analysed being dismissed.

Deba ibaiaren haranean (Mutriku-Deba) bideratu ditugun miaketa arkeologikorako II. eta III. kanpainetan hainbat begi miaketa egin ditugu Debaren haraneko meatze sarbide eta zepategiak erregistratu eta haietatik laginak jasotzeko, eta 2006-2007an hasitako lanekin jarraitzeko. Era berean, CSIC-en Historia Institutuko laborategietan (CCHS) aztertu dira aurreko kanpainatik etorritako hainbat zepa, eta erabat baztertu dugu Astigarribiako Torre Baserriko Haizeolako zepak aztertutako meatze sarbideetako mineralekin lotura izateko aukera.

En la II y III campaña de prospección arqueológica en el valle del Deba (Mutriku-Deba), se han realizado diversas prospecciones de visu para registrar y tomar muestras de bocaminas y escoriales del valle del Deba, para continuar con los trabajos iniciados en 2006-2007. También se han analizado en los laboratorios del Instituto de Historia (CCHS) del CSIC diversas escorias procedentes de la campaña anterior, descartándose la asociación de las escorias de la Haizeola del Caserío Torre en Astigarribia, con los minerales de las bocaminas analizadas.

J.M. Perez Centeno

C.36.12. **Miaketak Berastegi, Gaztelu, Lizartza eta Orexan**

Miaketaren I. Kanpaina
Zuzendaritza: Nerea Sarasola
Etxegoien; Manu Ceberio Rodriguez
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru
Aldundia

C.36.12. **Prospecciones en Berastegi, Gaztelu, Lizartza y Oresa**

I Campaña de prospección
Dirección: Nerea Sarasola Etxegoien;
Manu Ceberio Rodriguez
Financiación: Diputación Foral de
Gipuzkoa

The visual prospecting carried out in the Erroizpe-Uli range enabled the location of prehistoric archaeological remains in Anakar.

Proiektu honen helburu nagusia izan da goian aipaturiko lau udalerrri horietan, Historiaurretik hasi eta gaur egunera arte, populazioak izandako bilakaera aztertzea.

2009. urtean bideratu ditugun lanetan begi miaketa egin dugu Erroizpe-Uli mendialdean, mendialde horretan baitaude Berastegi, Gaztelu, Lizartza eta Oresa udalerrien mugak.

Uli, Anakar, Urbaño, Espuru, Aldamuño eta Intxusburu eremuetan oinarritu ditugun begi miaketa intentsiborako lan horiek aukera eman digute harrizko hondakinak (6 sukarriz zati) eta Anakar izeneko espa-

El objetivo principal del presente proyecto se centra en estudiar la evolución del poblamiento desde la Prehistoria hasta la actualidad en los cuatro municipios más adelante citados.

Durante 2009 los trabajos se han centrado en la prospección visual del cordal montañoso Erroizpe-Uli, donde se sitúan los límites de los municipios de Berastegi, Gaztelu, Lizartza y Oresa.

Los trabajos de prospección visual intensiva, centrados en los lugares de Uli, Anakar, Urbaño, Espuru, Aldamuño e Intxusburu, han permitido la localización de restos líticos (6 fragmentos de sílex) y un fragmen-

rruan (Berastegi-Orexa) eskuz landutako zeramika zati bat aurkitzeko.

Berreskuratutako material horiek eremu horretan Neolitiko-Brontze Aroko aztarnategiren bat egongo dela iradokitzen digute, inolaz ere.

to de cerámica a mano en el lugar conocido como Anakar (Berastegi-Orexa).

Los materiales recuperados sugieren a grandes rasgos la existencia en el lugar de un yacimiento del Neolítico-Bronce.

N. Sarasola Etxegoien; M. Ceberio Rodriguez

C.36.13. **Gipuzkoako portualde zaharrak (Hondarribia)**

Miaketaren I. Kanpaina
Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Diru-laguntza emaila: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.36.13. **Antiguos espacios portuarios de Gipuzkoa (Hondarribia)**

I Campaña de prospección
Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

Intervention focusing on the four eastern-most coves of Hondarribia, with very satisfactory results as regards the objective of documenting the characteristics of the port areas prior to the construction of the large factory docks.

Gipuzkoako Kostaldeko Portualde Zaharrak Ikeritzeko Programaren barnean programaturiko landa-laneri hasiera eman die lehen miaketa kanpaina honek, Xabier Alberdi Lonbideren zuzendaritzapean. Ikerketa programa honen helburu nagusia izan da Behe Erdi Aroan hasitako portu ereduaren aurretik portu gipuzkoarrek izan zituzten ezaugarriak dokumentatzea.

Ikerketa programa honen bidez, aurrera egin nahi dugu portuen fenomenoak historian zehar izan duen bilakaera ezagutzeko bidean, orain arte tratamendu historiografiko urria izan baitu. Portuen inguruan egindako azterketa gehienek gaur egun indarrean dauden portuen alderdi historiko-dokumentala besterik ez dute jorratu, eta ikerketa arkeologikoen ere, lehorrean nahiz urpean egin direnak, ez dute portuen fenomeno oinarritzat hartu. Horrenbestez, ezer handirik ez dakigu Erdi Aroaren amaieran eraikitzen hasi zirenen aurreko portuen ezaugarrien inguruan. Garai hartan, batik bat kare eta harkoskoz osaturiko obra handietan oinarritutako eredia ezarri zen, eta hainbat aldaketa izan baditu ere, eredu horrek iraun egin du gure eguneraino. Gainera, Gipuzkoako portu nagusietan egin diren handitze eta hobetze obra handien ondorioz ia erabat desagertuak dira lehenagoko aztarnak.

Hiru urratsetan banatu dugu landa-lanerako metodologia. Lehenengo, kokaleku bakoitzaren itsas-portu baldintzak dokumentatzea (itsasontziak iristeko erraztasuna itsasotik, lehorrean iristeko erraztasuna, itsasontziak amarratzeko baldintzak, eguraldiaren gorabeheren aurreko babesa eta abar). Bigarren, esparru horiek portu egitekoetarako izan zuten erabilerekin loturiko giza jardueren elementu edo aztarna guztiak dokumentatzea. Hirugarren, hainbat lekutan

Esta primera campaña de prospecciones ha dado inicio a los trabajos de campo programados dentro del Programa de Investigación Antiguos Espacios Portuarios de la Costa de Gipuzkoa, bajo la dirección de Xabier Alberdi Lonbide. El objetivo general de este programa de investigación es la documentación de las características que pudieran tener los puertos guipuzcoanos con anterioridad al modelo portuario iniciado durante la Baja Edad Media.

Con este programa de investigación pretendemos avanzar en el conocimiento de la evolución histórica del fenómeno portuario que hasta el momento ha tenido escaso tratamiento historiográfico. La mayoría de los estudios sobre puertos se limitan al campo histórico-documental de puertos actualmente vigentes, mientras que las investigaciones arqueológicas, tanto terrestre como subacuáticas, tampoco se han centrado en el estudio del fenómeno portuario. Como resultado poco sabemos de las características de los puertos anteriores a los que se comenzaron a construir a fines de la Edad Media, cuando se impuso un modelo portuario, basado principalmente en grandes obras de cal y canto que han perdurado, con modificaciones, hasta nuestros días. Además, las grandes obras de ampliación y de mejora introducidas en los principales puertos de Gipuzkoa motivan que los vestigios anteriores hayan sido prácticamente eliminados.

La metodología de campo aplicada se compone de tres pasos. En primer lugar, se procede a la documentación de las condiciones marítimo-portuarias de cada emplazamiento (accesibilidad desde el mar para embarcaciones, accesibilidad a tierra, condiciones para el atraque de las embarcaciones, protección frente a las inclemencias meteorológicas, etc.). En segundo lugar, se documentan todos los elementos o vestigios de actividades humanas relacionadas con el

miaketak edo/eta zundaketak egitea kokaleku horietan gizakiaren presentziaren kronologia dokumentatu ahal izateko.

Lehen kanpaina honetan lau kala miatu ditugu, Jaizkibel mendian ekialdeen daudenak, hain zuzen ere: Asturiaga, Kapelueta, Errotasain eta Artzuko portua.

- Asturiaga: Kala honek izan zuen portu erabile-raren inguruan dokumentuetan ageri diren lehen aipamenek XIII. mendearen hasierako urteetara eramaten gaituzte, eta arkeologia mailan, berriz, horien erabilera dokumentatu da jadanik erromatarren garaian. Olatuen eraginetik eta ipar-iparmendebaldetik jotzen duen eguraldi txarretik ondo babesturiko esparrua da eta bertara iristea erraza da itsasotik. Nolanahi ere, oso txarrak dira lehorrera iristeko baldintzak, eta hori muga handia da, inolaz ere, izan dezakeen portu gaitasunerako. Jatorri antropikoko portu elementu edo aztarnarik ere ez dugu aurkitu. Kata bat egin dugu Asturiagako lurmuturrean, eta oso estratigrafia nahasia dokumentatu dugu bertan. Sukarri zati bat jaso dugu.
- Kapelueta: errota izango zenaren antapararen hondakinak dokumentatu ditugu, Jentilen zubia deitzen zaio, baina haren aipamen biografiko bakar bat ere ez dugu aurkitu. Olatuen eraginetik eta ipar-iparmendebaldetik jotzen duen eguraldi txarretik erdipurdi babesturiko esparrua da hau. Kalaren ahoa edo sarbidea oso meharra denez eta urpean arroka handiak daudenez, bertara iristea ez da erraza itsasotik, eta bertan amarratzeko eta lehorrera iristeko baldintzak ere eskasak dira benetan. Jatorri antropikoko portu elementurik ere ez dugu aurkitu. Bi kata egin ditugu. Lehenengoa gerizan dagoen leku batean egin dugu, antaparatik oso hurbil, eta bertan geruza txiki eta nahasia aurkitu dugu. Aro Garaikideko zabor ugari zegoen esparru horretan, eta sukarrizko zati bat jaso dugu bertan. Kalaren gainean dagoen eremu batean egin dugu bigarren kata, Orrazeta izeneko parajea. Hareharri azalermenduan hainbat entalle eta petroglifo (harrietan eginiko irudiak) dokumentatu genituen. Landare lurrak osaturiko lehen geruzaren azpian, oso lur beltz eta hondartsua zuen beste geruza bat induskatu dugu, 50 cm inguruko lodierakoa, baina erabat antzua. Haren azpian beste geruza bat ageri da, oraingoan ere antzeko ezaugarriak zituen lurrak, baina hareharri degradatu hondakin ugari zituen honek. Sukarrizko bi laska eta leungailu zati bat atzeman ditugu bi geruza horiek elkartzan diren eremuan.
- Errotasain: portua izateko gutxienezko baldintzarik ez du betetzen honek: ez dago bat ere babestua olatuen eta ipar-iparmendebaldetik jotzen duen eguraldi txarrentan eraginaren aurrean, itsasotik hara iristea zaila da, handik lehorrera iristea ere zaila da eta amarratzeko baldintza egokirik ere ez du eskaintzen. Jatorri antropikoko

uso de estos espacios en funciones portuarias. En tercer lugar, se procede a prospectar y/o sondear en determinados puntos para tratar de documentar la cronología de la presencia humana en estos emplazamientos.

En esta primera campaña se han prospectado cuatro calas, las más orientales del monte Jaizkibel: Asturiaga, Kapelueta, Errotasain y Artzuko portua.

- Asturiaga: Las primeras menciones documentales al uso portuario de esta cala se retrotraen a los años iniciales del siglo XIII, mientras que arqueológicamente se ha documentado su uso ya en época romana. Se trata de un espacio bien protegido del oleaje y de las inclemencias de nor-noroeste y con buena accesibilidad desde el mar. Con todo, son muy malas las condiciones de acceso a tierra lo que constituye una fuerte limitación en su potencial portuario. Tampoco se ha descubierto ningún elemento o vestigio portuario de origen antrópico. Se ha realizado una cata en el cabo de Asturiaga, en el que se ha documentado una estratigrafía vuelta en el que se ha recogido un fragmento de sílex.
- Kapelueta: se han documentado los restos de la presa de un posible molino, que es denominado como Jentilen zubia, del que no hemos localizado ninguna mención bibliográfica. Constituye un espacio regularmente protegido del oleaje e inclemencias de nor-noroeste. Debido a la estrechez de la embocadura de la cala y a la presencia de grandes rocas sumergidas tampoco cuenta con una accesibilidad adecuada desde el mar, siendo, también, escasas las condiciones de atraque y de accesibilidad a tierra. No se ha documentado ningún elemento portuario de origen antrópico. Se han realizado dos catas. La primera situada en un abrigo muy cerca de la presa, se ha documentado un débil estrato revuelto, con abundante basura contemporánea, en el que se ha recogido un fragmento de sílex. La segunda cata se ha ubicado en un abrigo que domina la cala en el paraje de Orrazeta. En el afloramiento de arenisca documentamos diversos entalles y petroglifos. Tras el primer estrato de tierra vegetal, hemos excavado un estrato de tierra muy negra y arenosa de unos 50 cm de potencia, absolutamente estéril. A continuación aflora el siguiente estrato compuesto por tierra de similares características aunque con abundantes restos de arenisca degradada. En la zona de contacto entre ambos estratos se han recogido dos lascas de sílex y un fragmento de alisador.
- Errotasain: carece de unas condiciones portuarias mínimamente aceptables: desprotegido del oleaje e inclemencias del nor-noroeste, mala accesibilidad desde el mar, mala accesibilidad a tierra y nulas condiciones de atraque. No se ha documentado ningún elemento portuario de origen antrópico. Ante esta situación se deses-

portu elementurik ez dugu dokumentatu bertan. Egoera honen aurrean baztertu egin dugu eremu honetan miaketak egiteko aukera.

— Artzuko portua: kokaleku interesgarria da kontuan izanik garai modernoko dokumentu batzuek aipatzen dituztela esparru honen portu zereginak eta Ustezko Eremu Arkeologiko gisa deklaraturiko Artzu errotaren presentzia. Olatuen eta ipariparmendebaldetik jotzen duen eguraldi txarraren eraginaren aurrean ondo babesturiko esparrua da, bertara iristea erraza da itsasotik, erraza da halaber handik lehorra iristea eta amarratzeko ere baldintza onak ditu. Izaera antropikoko hainbat portu elementu dokumentatu ditugu, hauxe da, burdinazko amarratzeko hainbat esteka arroketa egokituak eta ertzeko arroketa sarbideak egokitzeko entalleak. Era berean, aipatzekoa da, ibaiaren zatiaren kanalizazioa; ibaiaren hondotik harriak atera ziren eta harribeta batean pilatu ziren, ekialdetik kanalaren muga eginez. Kata bat egin dugu ibaiaren bokalearen ondoan dagoen aterpe batean, eta geruza txiki eta nahasia aurkitu dugu bertan. Aro Garai-kideko zabor ugari ageri zuen, baina ez zigun emaitza positiborik eskaini.

tima proceder a prospectar en esta zona.

— Artzuko portua: se trata de un emplazamiento interesante habida cuenta de la existencia de documentación de época moderna que alude a sus funciones portuarias y a la presencia del molino de Artzu, declarado como Zona de Presunción Arqueológica. Constituye un espacio bien protegido del oleaje e inclemencias de noroeste, con buena accesibilidad desde el mar, buena accesibilidad a tierra y buenas condiciones de atraque. Hemos documentado diversos elementos portuarios de carácter antrópico, consistentes en diversos amarres de hierro dispuestos en las rocas y entalles para adecuar los accesos hacia las rocas de la orilla. Destaca, así mismo, la canalización del tramo final del río, mediante la extracción de rocas de su fondo que se han acumulado en una escollera que delimita por oriente el canal. Se ha realizado una cata en un abrigo colindante a la desembocadura del río, documentándose un débil estrato revuelto, con abundante basura contemporánea, sin resultados positivos.

X. Alberdi Lonbide; L. del Barrio Bazaco; J.M. Pérez Centeno

C.36.14. **Santiagomendiko inguruak (Astigarraga, Erreenteria, Hernani)**

II. Kanpaina
Zuzendaritza: Manu Ceberio Rodriguez
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.36.14. **Entorno del monte Santiagomendi (Astigarraga, Erreenteria, Hernani)**

II Campaña
Dirección: Manu Ceberio Rodriguez
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

The intervention carried out in 2009 enabled the identification of the new megalithic monument discovered in 2008 in the site known as Mariola (Astigarraga-Erreenteria), with a cist.

2008. urtean, eta P. Soralucek 1919. urtean Santiagomendi aldera egin zuen espedizioaren inguruan zegoen dokumentazioari esker, monumentu megalitikoak izan zitekeena aurkitu genuen Mariolako parajea (Astigarraga-Erreenteria). Berehala hasi ginen hura induskatzen zituen ezaugarriak ezagutzeko asmoz.

2009. urtean, eta eskura genituen ekonomi baliabideak oso urriak zirenez, 2008. urtean hasitako Mariolako egituraren indusketa handitzea izan da egin dugun lana.

2008. urtean bideratutako interbentzioan 6 m²-ko indusketa eremua ireki genuen, haren erdialdean baitzegoen hareharrizko lauza Mokorregiko egungo mugariaren ondoan lurrean sartua; gure iritziz historiaurreko jatorria izan zezakeen hark. 2009. urtean

En 2008, y gracias a la documentación existente sobre una expedición de P. Soraluce a la zona de Santiagomendi en 1919, se localizó un posible nuevo monumento megalítico en el paraje de Mariola (Astigarraga-Erreenteria). De manera inmediata se inició una excavación del mismo de cara a definir sus características.

Durante 2009, y debido a lo limitado de los recursos económicos disponibles, los trabajos se han reducido a la ampliación de la excavación de la estructura de Mariola iniciada en 2008.

La intervención iniciada en 2008 consistió en la apertura de un área de excavación de 6 m² que englobaba en su zona central la losa de arenisca hincada junto al actual mojón de Mokorregi, la cual presentaba a nuestro parecer un posible origen prehistórico. En



Santiagomendiko inguruak. Induskatutako eremuaren amaierako itxura, lurreko berezko margaren gainean egokituriko maila buztintsu naturalean (104. UE) sartua zegoen laua handia.

Entorno del monte Santiagomendi. Aspecto final del área excavada, la gran losa estaba introducida en un nivel arcilloso natural (ue 104) dispuesto sobre la marga propia del terreno.

indusketa eremua 11 m²-ra zabaldu zen iparraldera eta mendebaldera, ustez bederen harantz luzatuko zelako P. Soraluce 1010. urtean marraztu zuen ustezko «harrespila».

Indusketa prozesuan bahetik pasa dira lur guztiak, eta hainbat unitate estratigrafiko bereizi ahal izan ditugu. Egungo landare estalkiaren azpian harkoskoz osatutako geruza bat aurkitu dugu (102. UE), Triasikoko hareharriak, Eozenoko hareharriak eta tamaina txikiko margak ziren, eta haren azpian, berriz, erdi tamainako hareharrizko blokeek osatutako maila bat (106. UE); biek ageri zuten banaketa argi eta garbi loturik zegoen egungo udal banatze-mugarriarekin (108. UE). Unitate estratigrafiko horien testuinguruan beira zatiak atzeman ditugu, zeramikazko bi ontzi mota desberdinenak ziren, Erdi Aro ondoko kronologiakoak. Sukarri-zko lau laska, trapezoide formako xafla zati bat, harrizko lepoko ale bat eta gezi mutur bat ere aurkitu genituen, azken hori txortan eta hegalekin.

Blokeen mailaren azpian (106. UE) maila lurtsu-buztintsua zegoen (103. UE), eta maila horretan beste sukarri zati bat eta ikatz puskak aurkitu ditugu.

103. UEaren azpian, buztin horixkak osaturiko maila bat dago (104. UE), eta hartan sartua dago hareharrizko laua. Maila horretan ez dugu inolako material arkeologikorik aurkitu; badirudi lurreko buztin naturala dela, jarduera antropikoek aldatu gabea, identifikatu ez badugu ere, bertan egon zitekeen zan-

2009 se amplió el área de excavación a 11 m² totales, hacia el norte y el oeste, zonas hacia las que parecía extenderse el supuesto «cromlech» que P. Soraluce dibuja en 1919.

Durante el proceso de excavación, en el que se han cribado todas las tierras, se han podido identificar varias unidades estratigráficas. Bajo la actual cobertura vegetal se ha localizado una capa de cascajo (UE 102) formada por areniscas triásicas, areniscas eocenas y margas de pequeño tamaño, y bajo ella un nivel de bloques de arenisca de tamaño medio (UE 106), presentando ambas una distribución en clara asociación con el actual mojón de separación municipal (UE 108). En el contexto de dichas unidades estratigráficas se han localizado fragmentos de vidrio, de dos tipos diferentes de recipientes cerámicos de cronología postmedieval, así como 4 lascas de sílex, un fragmento de lámina de sección trapezoidal, una cuenta lítica y una punta de flecha con pedúnculo y aletas.

Bajo el nivel de bloques (UE 106) se dispone un nivel terroso-arcilloso (UE 103) donde se ha localizado otro fragmento de sílex y fragmentos de carbón.

Bajo la ue 103 se localiza un nivel de arcilla amarillenta (UE 104) en la que se encaja la gran losa de arenisca. En dicho nivel no se ha localizado material arqueológico alguno, siendo a lo que parece arcilla natural del terreno no alterada por actuaciones antrópicas, salvo la posible zanja no identificada en la que

ga izan ezik, hartan sartuko baitzuten hareharrizko lauza handia (105. UE). Zanga hori egongo zela pentsarazten digute eremuan aurkitutako hareharri txikien zati txikiak (109. UE), baina ez da inon ikusten.

104. UEaren azpian lurreko marga naturala dago (110. UE), eta hartan ere ez dugu inolako aldaketa antropikorik sumatu. Harria jo genuenean amaitutzat eman genuen interbentzioa, eta altzairuzko bi kable handiz bermatua geratu zen testigantza gisa dugun lauza handia. Induskatutako eremua estali gabe utzi genuen, hartu beharreko kontserbazio neurrien inguruan beharreko erabakia hartzeko zain.

Konklusioak

Eginiko ikerketek aukera eman digute beste monumentu megalitiko baten hondakinak atzemateko. Hareharrizko lauza handi bat da, historiaurreko monolito modukoa, eta zista moldeko egitura megalitikoaren barnean legoke. Astigarraga eta Erreterria arteko mugarritze aktetan, eremu horretan zegoen mugarraren lekuko lana egiten zuen harriarekin nahasi zuten lauza hori. 1919. urtean eginiko argazki batean, dokumentazio historikoan eta interbentzio arkeologikoan ikusitakoaren arabera, jatorrizko hilobia oso nahasia egongo zen jadanik 1919. urtean, eta hilobi ganbera txikia osatuko zuten lauzen hondakin mugituak agertuko dira seguru asko aipaturiko argazki horretan. Soraluçeren 1919ko txostenak, beharbada, beste era bateko egitura megalitiko batekin, «harrespilarekin», hain zuzen ere, nahasiko zuen ganberaren hondakinak, Aro Modernoko trikuharriaren eta hareharrizko lauza handiaren kokaera.

Interbentzioan aurkitu ziren tumulu moduan egokituriko bloke eta harkosko mailak, argazkia egin ondoren leku honetan aurrera eramaniko jarduera bati dagozkio inolaz ere, baina beharbada interbentzio motaren bat egingo zen halaber Soraluçek zuzendutako dokumentazio lanetan. Nolanahi ere, jarduera bat burutu zen eta horretan inguru hurbiletik (baita zistarekin loturik egongo zen tumulua izan zitekeenetik ere) etorritako lur eta harrien pilaketa bat egin zen, eta haren gainean jarri zen mugarrria. Horrenbestez, bere jatorrizko kokalekua baino 40 bat cm gorago gelditu zen, eta ordura arte agerian egon zen hareharrizko lauza handiaren gehiena lurpean geratu zen prozesu horretan eta gera zitezkeen hilobiko ganberaren hondakinak erabat suntsitu egin ziren. Horren ondorioz, harekin loturiko tresneria hondakinak erabat sakabaturik geratu ziren lur iraulketei zegokien mailan.

Bideratu dugun interbentzio honek aukera eman digu halaber udalaren banatze-mugarri zahar bat atzemateko, aurkitu dugun 1919ko beste argazkian ageri zena, hain zuzen ere. Hiru harri ziren, eta hainbat motibo eta karaktere ageri zituzten grabatuak. 1919an eginiko dokumentazio lanetan suntsitu zen mugarrri horren harrietako bat baino ez dugu aurkitu. Gurutze bat eta «o» bat ageri ditu grabatuak.

se debió introducir la gran losa arenisca (UE 105). Dicha zanja es sugerida por la localización de varios pequeños fragmentos de pequeñas areniscas (UE 109) aunque no es visible.

Bajo la UE 104 se dispone la marga natural del terreno (UE 110), en la que tampoco se identifica alteración antrópica alguna. Al llegar a la roca se dio por terminada la intervención, quedando la gran losa que ejerce de testigo sujeta mediante dos cables de acero y el área excavada sin tapar a la espera de una decisión sobre las medidas de conservación a adoptar.

Conclusiones

Las investigaciones realizadas han permitido la localización de los restos un nuevo monumento megalítico. Se trata de una gran losa arenisca a modo de monolito prehistórico que formaría parte de una estructura megalítica tipo cista. Dicha losa había venido siendo confundida en las actas de amojonamiento entre Astigarraga y Erreterria con una piedra que ejercía de testigo del mojón existente en el lugar. Según se deduce de la fotografía tomada en 1919, la documentación histórica y la intervención arqueológica, la sepultura original debía estar seriamente alterada ya en 1919, reflejándose probablemente en la citada fotografía los restos desplazados de las losas que conformarían la pequeña cámara funeraria. El informe de Soraluçe de 1919 confunde tal vez la disposición de los restos de la cámara, el mojón de época moderna y la gran losa arenisca con otra estructura megalítica diferente, un «cromlech».

Los niveles de bloques y cascajo a modo de túmulo localizados en la intervención se corresponden con una actuación desarrollada en el lugar con posterioridad a la realización de la fotografía, aunque puede también que durante las labores de documentación dirigidas por Soraluçe se realizara algún tipo de intervención. Sea como fuere, se produjo una actuación que provocó una acumulación de tierra y piedras procedentes del entorno inmediato (incluso del posible túmulo asociado a la cista) sobre la que se emplazó el mojón, quedando elevado unos 40 cm sobre su posición original, sepultándose en el proceso gran parte de la gran losa arenisca que hasta entonces había estado a la vista y arrasándose los restos que pudieran quedar de la cámara del sepulcro. De esta manera, los restos del ajuar asociado al mismo, quedaron desperdigados en el nivel correspondiente al movimiento de tierras.

La intervención desarrollada ha permitido identificar también un antiguo mojón de división municipal retratado en la otra fotografiada localizada de 1919, y consistente en tres piedras que presentan diferentes motivos y caracteres grabados. De dicho mojón, destruido en los trabajos de documentación realizados en 1919, sólo se ha localizado una de las piedras, que presenta grabadas una cruz y una «o».

C.36.15. **Munoaundiko herrigune gotortua (Azkoitia-Azpeitia)**

IV. Kanpaina
Zuzendaritza: Sonia San Jose
Santamarta
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako Foru Aldundia; Azkoitiko eta Azpeitiko Udalak

C.36.15. **Poblado fortificado de Munoaundi (Azkoitia-Azpeitia)**

IV Campaña
Dirección: Sonia San Jose
Santamarta
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa; Ayuntamientos de Azkoitia y Azpeitia

The work carried out during the 4th season of excavations in the Munoaundi Iron Age fortified settlement (Azkoitia-Azpeitia) focused on area 1, continuing the excavation of the access zone to the precinct and the towers or defence structures which flank the entrance. Of the new cultural material found, most interesting was the appearance of the first burnt grains of cereal in an area next to the wall.

Kanpaina honetan I. eremuan bideratu ditugu lan arkeologikoak; esparrura sartzeko eremua eta herrigunearen mendebaldean harekin loturik zeuden defentsa egiturak induskatzeko lanarekin jarraitu dugu. 2 metro zabaleko igarobideak osatzen du sarrera, beheko terrazatik goikora igotzen da bide hori, harresiaren perpendikularrean. Eremu honetan malda handia du harresiak. Harrizko bi eraikuntzek

Los trabajos de la presente campaña se han desarrollado en el área I, continuando con la excavación de la zona de acceso al recinto y de las estructuras defensivas relacionadas, situadas al oeste del poblado. La entrada está formada por un paso de 2 m de ancho que sube desde la terraza inferior a la superior, perpendicular a la muralla, que en esta zona tiene una gran pendiente. Está delimitada por dos construccio-

Munoaundi: Indusketa lanak Munoaundiko herrigunean.



Munoaundi: Trabajos de excavación en el poblado de Munoaundi.

mugatzen dute, 12 metro inguruko aldea du horietako bakoitzak, eta defentsarako bi dorre edo egitura direla ematen du. Ugari dira behea jotako elementuak, eta horrenbestez, oso zaila da elementu horien hormak bereiztea.

Kanpaina honetan bi eremutan zabaldu dugu indusketa eremua: alde batetik, beheko terrazarekin elkartu dugu kanpoaldeko harresi lerroa. Bestetik, goiko terrazan triangulu bat ireki dugu hegoaldeko defentsa egituraren, harresiko barnealdeko hormatalaren eta goiko terraza ebaki duen bidearen artean. I. eremuan 425 m² ireki dira guztira.

Emitza gisa, sarbideko eremua osatzen duten harresi-atal desberdinak eta harekin loturiko defentsa egiturak dokumentatzen jarraitzeaz gainera, labore hazi kiskaliak dokumentatu ditugu lehen aldiz. Aurreko kanpainan aurkitutako errota zirkularrarekin batera, hondakin horiek, Urolako herrigune protohistoriko honetako nekazaritza jardueren inguruko informazioa eskaintzen digute inolaz ere.

nes de piedra, de unos 12 m de lado cada una, que parecen corresponderse con dos torres o estructuras de defensa. El nivel de derrumbe documentado es de gran entidad, por lo que se hace difícil identificar los muros de estos elementos.

En esta campaña hemos ampliado el área de excavación en dos zonas: por un lado, se ha unido la línea de muralla exterior con la terraza inferior. Por otro, en la terraza superior, se ha abierto un triángulo situado entre la estructura defensiva sur, el lienzo interior de la muralla y la pista que ha cortado la terraza superior. En total se han abierto 425 m² en el área I.

Como resultado, además de seguir documentando los diferentes lienzos de muro que forman la zona de acceso y las estructuras defensivas anexas, se han documentado por primera vez semillas calcinadas de cereal, que junto al molino circular localizado durante la campaña anterior, nos aportan información sobre las actividades agrícolas de este poblado protohistórico del Urola.

S. San Jose

C.36.16. **Talaia bidea (Hondarribia, Lezo, Pasaia)**

Zuzendaritza: Jesus Manuel Perez Centeno
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.36.16. **Camino Talaia (Hondarribia, Lezo, Pasaia)**

Dirección: Jesús Manuel Pérez Centeno
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

Intervention consisting of the monitoring of the construction of the new Talaia Road along Jaizkibel, as well as the prospecting of certain sites along its course. Of the results obtained, one of the most important is a site containing Iron Age materials and remains from the Roman era in the Mugiter area (Lezo).

Jaizkibelen Talaia bidearen eraikuntzarekin loturik bideratu genituen kontrol arkeologiko eta miaketa lanetan hainbat aztarna arkeologiko dokumentatu ahal izan ditugu. Hona horien deskribapena:

En el curso del control arqueológico y prospecciones ligadas a la construcción del Camino Talaia en Jaizkibel, se han podido documentar diversas evidencias arqueológicas que a continuación se describen:

Bateria San Telmo gazteluaren inguruetan

Landu gabeko harriz eginiko egitura da, harriak kareorez elkartuak, eta San Telmo gazteluaren parean Asturiagako kala aldera jaisten den bidearen paraleloan luzatzen da. Bi beso ditu egiturak, angelu kamutsaren moduan egokituak eta zirkulu erdi forman elkartuak. San Telmo gazteluko gotorlekuekin loturik egongo zen barbeta gisa prestatutako bateria zahar bateko oinarria eta horma izango ziren seguru asko. Eraikuntza elementu hori aztertzen ari dira haren izaera zein den zehatz jakin ahal izateko.

Batería en el entorno del castillo de San Telmo

Consiste en una estructura de mampostería recibida con mortero de cal, que se extiende paralela al sendero que desciende a la par del castillo de San Telmo hacia la cala de Asturiaga. La estructura consta de dos brazos dispuestos en ángulo obtuso unidos en semicírculo. Se trata probablemente del asiento y del parapeto correspondiente a una antigua batería a barbeta relacionada con las fortificaciones del castillo de San Telmo. Este elemento constructivo se halla en fase de estudio para poder determinar su naturaleza de manera exacta.

Bide altxagarridunaren zatia eta Jentilen zubia errotako antapara

Baxuko badia kala aldera doan bidean, Jentilen zubia toponimoa kokatzen den lekuan, hain zuzen ere, bide altxagarridunaren zati bat atzeman dugu hainbat eskailera maila tartean dituela, harlanduz eginak horiek, eta baita harri bizian eginiko hainbat ebakidura ere. Era berean, Mendizorroitz, Enekuz eta Aizporandi erreken banalerroan, Jentilen zubi gisa ezagaturiko parajea, antapara baten hondakinak aurkitu ditugu; harlandu handiz egina zen, harriak kareoz elkartuak. Jadanik desagerturiko errota batekoa zen, inolaz ere. Eraikuntza elementu horiek ere aztertzen ari dira haien izaera zein den zehatz jakin ahal izateko.

Artzu eta Marlako bide altxagarridunaren zatiak

Artzuko parajearen (errota eta portua) eta Marlako lauguneen artean dagoen bidean hainbat bide zati altxagarridunak dokumentatu genituen.

Txortxipiko bateria

Txortxipiko lauguneetan, bidearen trazatutik gertu, oin angeluzuzeneko lurreko obra handi bat dokumentatu genuen, hainbat lubaki lerroekin loturik. Artzu eta Xixurko portu naturaletatik sarbide erraza duen gotaldeko sektore horren defentsarako bateria eta gotorleku gisa identifikatu genuen multzo hori. Bideko obrak ez du eraginik izan egitura honetan eta hura eraikitzeo ekarritako materialik ez da pilatu inguruetan.

Txortxipiko bide altxagarridunaren zatia

Txortxipiko zelaiguneetatik Limaputzu senai aldera jaisten den bidearen hasieran bide altxagarridunaren zati bat atzeman genuen.

Xixurkoko portuko eguzki erlojua

Martitxerreka errearen ekialdean finkaturiko bloke handi baten plano horizontalean landua, eta seguru asko Xixurko eremuan aurrera eramanoiko ekonomi jarduerekin loturik, eguzki erloju bikaina dokumentatu genuen.

Martitxko bide altxagarridunaren zatiak

Xixurko senaiaren eta Biosnarko zelaiguneen artean, Xixurko senaiako mendebaldeko labarraren mugaren gainetik doan bidearen trazatuan, bide altxagarridunaren hainbat zati dokumentatu ditugu.

Tramo de camino calzado y presa de molino de Jentilen zubia

En el camino hacia la cala de Baxuko badia, donde se localiza el topónimo Jentilen zubia se ha documentado un tramo de camino calzado intercalado con varios peldaños de escalera contruidos con sillares, así como varios recortes ejecutados en peña viva. Asimismo, en el interfluvio de las regatas Mendizorroitz, Enekuz y Aizporandi, en el paraje conocido como Jentilen zubia hemos documentado los restos de una presa construida con grandes sillares unidos con argamasa de cal, correspondiente a un desaparecido molino. Estos elementos constructivos, también, se hallan en fase de estudio para poder determinar su naturaleza de manera exacta.

Tramos de camino calzado de Artzu y Marla

En el camino existente entre el paraje de Artzu (molino y puerto) y los rasos de Marla se documentan varios tramos de camino calzados.

Batería de Txortxipi

Centrada en los rasos de txortxipi próxima al trazado del camino, se documenta una gran obra terrera de plata rectangular, unida a varias líneas de trinchera. Identificamos este conjunto como una batería y fortificaciones para la defensa de este sector costero fácilmente accesible desde los puertos naturales de Artzu y Xixurko. La obra del camino no afecta a esta estructura y se ha evitado la acumulación en sus inmediaciones de los materiales aportados para su construcción.

Tramo de camino calzado de Txortxipi

En el inicio del descenso desde los rasos de txortxipi hacia la ensenada de Limaputzu se documenta un tramo de camino calzado.

Reloj de sol del puerto de Xixurko

Tallado en el plano horizontal de un gran bloque encajado en la vertiente oriental de la regata Martitxerreka, y probablemente relacionado con las actividades económicas desarrolladas en el enclave de Xixurko, documentamos un excepcional reloj de sol.

Tramos de camino calzado de Martitx

Entre la ensenada de Xixurko y los rasos de Biosnarko, en el trazado del camino que discurre sobre el mismo límite del acantilado occidental de la ensenada de Xixurko, documentamos varios tramos de camino calzado.

Artzaingo harpeak

Artzaingo parajeko iparraldean harri azpiko hainbat harpe atzeman genituen; proiektaturiko bidearen diseinuak zeharkatzen zituen haien oinarrietako planoak. Puntu horietako batean, orografiaren arabera ezinbestean handik joango baitzen bidea, kata arkeologikoa egin genuen bidearen trazatuan harpe horietako baten azpian, baina emaitza negatiboak eskaini zizkigun.

Mugiter aztarnategia

Harkaitzen arteko betegarri bat da, lehorrean elkartutako harriez egindako hainbat horma itxiturarekin. Eredu honetan egin genuen jarraipenari esker, hainbat material arkeologiko bildu genituen, harritzko tresnak, paraje honetako hainbat sator zulotan. Hura ikusi ondoren, 5 kata arkeologiko egin genituen material horiek aurkikuntza bakanak ote diren edo aztarnategi arkeologiko baten aurrean geundekoen egiaztatzeko. Harritzko eta zeramikazko tresnen eremuan egindako katek eskaini dizkiguten emaitzek altxeraren finkamendu protohistoriko bat dagoela pentsarazten digute, eta erromatarren garairaino iritsiko litzatekeen okupazioa izango zuela.

Abrigos de Artzain

En la ladera septentrional del paraje de Artzain se identifican varios abrigos bajo roca cuyos planos de asiento se ven atravesados por el diseño del camino proyectado. En uno de estos puntos, donde por la orografía debía transcurrir irremediabilmente el camino, se procedió a realizar una cata arqueológica en el trazado del camino bajo uno de estos abrigos, con resultado negativo.

Yacimiento de Mugiter

Constituye un rellano entre peñas ordenado con diversos cierres de muros elaborados en piedra seca. A raíz del seguimiento se recogió diverso material arqueológico, industrias líticas, en diversas toperas de este paraje, por lo que procedimos a realizar 5 catas arqueológicas para comprobar si estos materiales se corresponden con hallazgos aislados o nos encontramos ante un yacimiento arqueológico. El hallazgo recurrente en las catas de industria lítica y cerámica nos induce a pensar en la existencia de un asentamiento protohistórico en altura, con una ocupación que llegaría hasta época romana.

X. Alberdi Lonbide; J.M. Pérez Centeno

C.36.17. **Bergara-Irun gasbidea zabaltzea. III. fasea (Billabona – Irun)**

Zuzendaritza: Sonia Aníbarro Sanchez
Finantzazioa: Naturgas Energía eta Transporte S.A.U.

C.36.17. **Ampliación del gasoducto Bergara-Irun. Fase III (Villabona – Irun)**

Dirección: Sonia Aníbarro Sánchez
Financiación: Naturgas Energía y Transporte S.A.U.

Phase 3 of the extension to lay a high-pressure gas network between Bergara and Irún, runs between the municipalities of Villabona and Irún, generally over fairly untouched, steeply sloping areas. The areas with archaeological potential seem to be limited to the zones established by the Provincial Government's Directorate-General of Culture, which are based on the results of prior prospecting.

Historia aurreko esparrua

Bideratu dugun lan arkeologiko honetan zundaketa estratigrafikoak egin ditugu arriskua zegoen eremuetan, babestu beharreko aztarnategi edo monumentuak balizatu eta mugatu ditugu, eta makineria astunaren bidez egin dituzten lur iraultzen kontrol arkeologikoa gauzatu dugu halaber. Zundaketa guztiak eskuz egin dira, geruzaz geruza ateratako lurra xehetasunez miatu ditugu, eremuan finkatu ziren ordenaren alderantzizkoan, eta horretarako, 1,5x1 metroko aldea zuten kuadrikulak egin ditugu harri amara iritsi arte. Behin zundaketak amaitu ondoren, obrak egiten hastea jasotzen zuen jarduera planak. Abuztuan egin

Ámbito prehistoria

Nuestro trabajo arqueológico ha consistido en la realización de sondeos estratigráficos en las áreas de riesgo, el balizado y delimitación de yacimientos o monumentos a proteger, y el seguimiento y control arqueológico de los movimientos de tierras mediante maquinaria pesada. Todos los sondeos se han excavado de forma manual, revisando con detalle las tierras extraídas por estratos siguiendo el orden inverso a su deposición, en cuadrículas de 1,5x1m de lado hasta alcanzar la roca madre. El plan de actuación contemplaba el inicio de las obras una vez terminados los sondeos, que se han realizado durante el mes de

genituen zundaketa horiek. Aldiz, obrak uztailean hasi ziren, eta horrenbestez, zatietako hirutan eginiko ebaikiak eta iraulitako lurra berrikusi besterik ez genuen egin.

Jatorrian guztira 25 zundaketa egitea planteatu bagenuen ere, 17 induskatu ditugu, eta askotarikoak izan dira emaitzak. Hainbat hondakin arkeologiko jaso ditugu han eta hemen sakabanatuak (sukarrizko laska eta tresnak eta Historiaurreko zeramikazko zatiak), Urnieta, Hernani eta Errenteriako hainbat eremutan, baina kasu bakar batean soilik zeuden hondakinak testuinguru zehatz batean. Lurrez eta hareharrizko hartxabalez osaturiko tumulua zen, baina arpilatu egin zuten antzina. Sukarrizko hainbat zati, Historiaurreko zeramika, hainbat karrakagailu eta sukarrizko gezi mutur bat atzeman genituen tumulu horretan. Egitura desitxuratua dago, lurpean, lursailak mugatzeko betelan gisa iraulitako lurrek osatzen zuten maila lodi baten azpian. Zundaketa handitu ondoren, egiturak itxuraz bederen izango zuen zirkunferentziaren laurden inguru hartu ahal izan genuen, eta gasbidearen indusketa eremutik kanpo geratu zen haren perimetroa. Historiaurreko materialen eta egituraren arteko lotura estuak, lotura hori baieztatu egiten baitu aldameneko eremuko lurretan beste hondakin batzuk ez egoteak, eta zundaketan ageri duen kokaleku estratigrafikoak, aukera ematen digute multzo hau hileta monumentu gisa interpretatzeko, eta horri esker emendatu egingo da Onddi-Mandoegi Estazio Megalitiko multzoa.

Historiako esparrua

Arkeologia historikoaren esparruan, historiaurrearen atalean egindakoaren antzekoa izan zen gure lana, esku hartu genuen aztarnategien kronologian zegoen aldearekin, jakina.

Hiru jarduera eremuren inguruan bideratu genituen gure lanak, Andoain, Hernani, Irun, Oiartzun, Errenteria eta Urnieta udalerrietan, hain zuzen ere. Historiaurrearen atalean gertatu zitzaigun bezalaxe, planteaturiko zundaketa horietatik sei besterik ez ditugu induskatu, eta horietan, bakar batek soilik eskaini zizkigun arkeologikoaren ikuspegitik begiratuta garrantzitsuak diren emaitzak.

Zehatzago esateko, Goiburuko San Esteban jarduera eremuan burututako zundaketaz ari gara; esparru hori Interes Historikoko 17. Eremu gisa jasoa dago proiektuan. Goiburuko San Esteban Ermitaren inguruetan aztarnategi bat aurkitu genuen eta erromatarren garaiko materiala eskaini zigun. Horrenbestez, garrantzi berezia du eremu horrek.

Egia esan gasa bideratzeko obrak ez zuen zuzenean ukitzen aztarnategi hori zegoen lekua, eta horrenbestez, ez genuen hartan esku hartzeko beharreko baimenik. Halatan, aipaturiko aztarnategi horretatik ahalik eta hurbilen dagoen eremu batean zundaketa egitea erabaki genuen.

5 bider 5 metroko zundaketa egin genuen. Berunezko hodi baten hondakinak atzeman genituen, eta

agosto. Sin embargo, las obras se iniciaron a finales de julio, por lo que tres de los tramos fueron examinados sólo mediante revisión de cortes y de tierras removidas.

